

2021
Urtea


Mezulari

ISBN: 978-84-271-4420-0



9 788427 144200

Egunean Eguneko
Ebanjelioa



Egunean Eguneko Ebanjelioa

Josep Giménez Melià, SJren iruzkinak 2021 Urtea

Mezulari

Egunean Eguneko
Ebanjelioa

2021 Urtea

Egutegi liturgikoa
Egunean Eguneko Ebanjelioa
Igande eta Jai-egunetan irakurgai guztiak
Otoitzak eta Debozioak

Egunean eguneko iruzkin laburrak gaztelaniaz:

Josep Giménez Melià, S.J.

Testu liturgikoak:
Liturgiarako liburuetatik;
batzuk EABtik;
itzultzailearen ukitu batzuekin.

Mezulari

Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiari egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldaketak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreproduzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.

Liburua eratu eta euskaratu: Dionisio Amundarain OSB.

Argitalpen honen erantzulea: Koldo Katxo, S.J.

Azaleko argazkia: Xalbador bertsolaria

© Mezulari, 2020
Grupo de Comunicación Loyola
Padre Lojendio kalea, 2 zenb. 48008 Bilbo
info@gcloyola.com
www.gcloyola.com

ISBN: 978-84-271-4420-0

Lege gordailua: BI-937-2020

Maketazioa: Grupo de Comunicación Loyola.

Inprimategia: PRINTEK, S.A.L. - Zamudio (Bizkaia)

Aurkibidea

| | |
|--|-----|
| Egutegia 2021 | 4 |
| Sarrera | 5 |
| Festaburuak eta jai mugikorak 2021ean | 9 |
| Eguneko ebanjelioa eta irakurgaiak: | |
| Urtarrila | 11 |
| Otsaila / Zezeila | 59 |
| Martxoa / Epaila | 103 |
| Apirila / Jorrraila | 175 |
| Maiatza / Orrila | 239 |
| Ekaina / Bagila | 289 |
| Uztaila / Garagarrila | 339 |
| Abuztua / Dagonila | 389 |
| Iraila | 445 |
| Urria / Urrila | 497 |
| Azaroa / Zemendia | 547 |
| Abendua | 597 |
| Otoitzak eta debozioak | 653 |

URTE LITURGIKOA 2021 B-C URTEKOA

| Asteak | I | AI | A2 | A3 | O1 | O2 | L |
|------------------|-----------|----|----|-----------|-----------|-----------|----|
| URTARRILA | | | | | | | |
| Egu 1 | | | | | | I | 2 |
| Egu 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| Bataio | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| Urte 2 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| Urte 3 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| Urte 4 | 31 | | | | | | |
| OTSAILA | | | | | | | |
| Urte 4 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| Urte 5 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| Urte 6 | 14 | 15 | 16 | HE | 18 | 19 | 20 |
| Gariz 1 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| Gariz 2 | 28 | | | | | | |
| MARTXOA | | | | | | | |
| Gariz 2 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| Gariz 3 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| Gariz 4 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| Gariz 5 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| Erramu | 28 | 29 | 30 | 31 | | | |
| APIRILA | | | | | | | |
| AS | | | | | O1 | O2 | 3 |
| Pazko | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| Pazk 2 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| Pazk 3 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| Pazk 4 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |
| MAIATZA | | | | | | | |
| Pazk 4 | | | | | | | 1 |
| Pazk 5 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| Pazk 6 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| Igokun | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| Mende | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| Hirutas | 30 | 31 | | | | | |
| EKAINA | | | | | | | |
| Urte 9 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
| Corpus | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | JB | 12 |
| Urte 11 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| Urte 12 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| Urte 13 | 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

| Asteak | I | AI | A2 | A3 | O1 | O2 | L |
|----------------|-----------|----|----|----------|----|----|-----------|
| UZTAILA | | | | | | | |
| » | | | | | | 1 | 2 |
| Urte 14 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| Urte 15 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| Urte 16 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| Urte 17 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |
| ABUZTUA | | | | | | | |
| Urte 18 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Urte 19 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Urte 20 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| Urte 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| Urte 22 | 29 | 30 | 31 | | | | |
| IRAILA | | | | | | | |
| Urte 22 | | | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Urte 23 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| Urte 24 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| Urte 25 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| Urte 26 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |
| URRIA | | | | | | | |
| » | | | | | | 1 | 2 |
| Urte 27 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| Urte 28 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| Urte 29 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| Urte 30 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| Urte 31 | 31 | | | | | | |
| AZAROA | | | | | | | |
| Urte 31 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| Urte 32 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| Urte 33 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| Urte 34 | KE | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| Aben 1 | 28 | 29 | 30 | | | | |
| ABENDUA | | | | | | | |
| | | | | | 1 | 2 | 3 |
| Aben 2 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| Aben 3 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| Aben 4 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| Familia | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

LABURDURAK: A1 = astelehena • A2 = asteartea • A3 = asteazkena • Aben = abendualdia • • Cor = Corpus eguna • Egub = eguberrialdia • Gar = garizuma • HE = hausterre eguna • I = igandea • JB = Jesusen Bihotza • L = larunbata • Men = Mendekoste igandea • O1 = osteguna • O2 = ostirala • Pazk = pazkoaldia • Urte = urteko • JB = Jaunaren Bataioa • AS = Aste Santu

FERNANDO AIRE ETXART “XALBADOR”, MISTIKO-ARTZAIN-BERTSOLARI

UREPELE (Nafarroa Beherea),
1920ko ekainaren 19a-1976ko azaroaren 7a.

Irakurle maitea!

Guztiok ezaguna dugu Xalbador Urepele bere jaioterrian ospatu zitaion omenaldi-egunean bihotzekoak jota hil zela 56 urterekin. Beraz, 2021eko azaroaren 7an, **45 urte** beteko dira zendu zela. Horregatik otu zaigu gure EGUNEAN EGUNEKO EBANJELIOA 2021eko azala eta sarrera berari eskaintzea.

Barkatuko didazue esperientzia pertsonal bat partekatzen badizute data horren inguruan. Azaro hartan Jesusen Lagundian sartu nintzela bi hilabete pasatu ziren. Nafarroako Erriberako **Tutera** hiriburutik Gipuzkoako Errenteriarra joana nintzen bi urteko nobiziotza egitera. Egunkariko azalean Xalbadorren argazkia eta hizki handitan eta gazteleraz, bestela ezin izango nuen ulertu garai hartan, agertzen zen Nafarroa Behereko bertsolari handia bat batean, bere omenaldian, zendu zela. Nik galdetu nuen zer esan nahi zuen “bertsolari” hitzak, eta ondo erantzun zidaten; baina esan nien etxekoei arraroa iruditzen zitzaidala Nafarroa Beherekoa izatea, zeren eta ni hangoa nintzen eta euskara oso gutxi egiten zen. Noski, neuretzat “Nafarroa Beherekoa” Erribera zen, bai, behekoa. Horrela jakin nuen zer zen **6. merinaldea** eta nor zen artzain-bertsolari maitatu hura.

Urteak aurrera joanda, Xalbador irakurtzeko, bere bertsoak dastatzeko eta **otoitz egiteko** aukera paregabeak izan ditut. Egia esan, jakintsu onen inguruan ibili naiz eta urte askoan Urepeleko **XALBADOR EGUNA** ospatzera hurbiltzeko aukera izan dut ere.

Nire esperientzia pertsonalari jarraituz, batez ere, **ODOLAREN MINTZOA** maisu-liburuak on handia egin dit. Bertan bildu egiten baita Xalbador mistiko, artzain eta bertsolari lirikoa. Beti deigarria egin zait bere jitea ikusita, lagunek esanda, depresio sakonetan murgilduta batzuetan, **profeta** eginkizuna hartu, bereganatu eta jasan behar izan zuela kontzientziari jarraitzeagatik. Eta profeta **Jainkoaren elizaren fedean** eta salaketan, profeta euskal herritarren **arteko borrokaz** ohartarazteko, profeta **euskararen galeraz**. Honen inguruan gogora ditzagun, hiru bertsoren bidez, bere salaketak **NIGARRA BEGIAN** bertso sorta antologikoan:

“Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun
munduan zabaltzerat zerbait alaitasun;
ez dakit beti danik zer gaitik naukazun
gutarteko berri txar guzien oihartzun.

(...)

Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian,
gurerik deus ez duen hizkuntza mihian,
sofritzen egoiten naiz horien erdian,
gutaz ahalgetua, nigarra begian.

(...)

O, entzule maitea, otoi, barkamendu,
ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu!
Jostetako gogoia dautate kendu,
aunitz maite duenak aunitz sofritzen du.”

Eta azken lerro hori neureganatu nahi dut benetan adierazgarria delako bizitza ulertzeko maneran. Xalbadorren bihotzak asko maitatu zuen eta horregatik ere asko sufritu zuen.

Amaitzeko, esan behar dugu, liburu honetako ebanjelioen iruzkinak **Josep Gimenez Melià** jesuitak egin dituela. Alaior (Menorca) herrian jaio zen 1957ko abuztuaren 27an. Jesusen Lagundian 1978an sartu zen

eta 1991n apaiztu zuten. Filologia klasikoan lizentziaduna eta Teologian doktorea da eta irakaslea Kataluniako Teologia Fakultatean eta beste instituzio batzuetan. Artikulu ugari idatzi ditu hainbat aldizkaritan. Halaber, Cristianisme i Justicia institutuko kidea da.

Jainkoari eskerrak, urte bat gehiago, gure liburutxo hau maitasun handiz prestatu eta gaztelaniatik euskaratu duen **Dionisio Amundarain** itzultzaile nekazina aipatu beharra dago. Denon izenean gure eskerrik beroenak bere lan eskergatik. Baita, eskerrak eman nahi dizkiet **Mezulari** argitaletxeko arduradunei, euren laguntza handia eta eskuzabalagatik. Beti bezala **Deustuko Unibertsitateari** geure esker ona adierazten diogu, liburua eskegitzeagatik bere webgunean: https://estudiantes.deusto.es/cs/Satellite/estudiantes/es/estudiantes_ud/actividades-1/fè. (gure liburuko egutegira joan eta klikatu bilatzen duzun egunean).

Orain bai bukatu behar dut berriz sarrera honetako protagonistari erreparatuz. Deitu diot XALBADOR mistiko, artzain, bertsolari. ODOLAREN MINTZOA liburu gogoangarrian dator bertso sorta antologikoa bezain lirikoa, **JAINKOA ETA NI** izenekoa eta gure liburu honetako OTOITZAK-DEBOZIOAK azken atalean ipini duguna. Aukeratu dut hurrengo bertsoa, azpimarratzeko Xalbadorren fede bilakaera sakona eta baliosa. Bertan azaltzen baitu Jainkoarekiko bere harreman mistikoa, maitasunezkoa, lagunkoia, konfiantzazkoa eta egiazkoa:

“Zure **laguna** eginez geroz enetzat ez da nekerik,
zure behako samurrak eman nau **fidantzi**az beterik; (behako=begiratu)
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik;
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen **amodioaz** **besterik**.

On egin eta adiorik ez!

Koldo Katxo, S.J.



FESTABURU ETA JAI MUGIKORRAK 2021ean

| | |
|---|------------------|
| Jaunaren Bataioa | urtarrilaren 10a |
| Hausterre | otsailaren 17a |
| Jesusen Piztuera Igandea | apirilaren 4a |
| Mendekoste igandea | maiatzaren 23a |
| Hirutasun Santu Santua | maiatzaren 30a |
| Kristoren Gorputz Odol Santuak | ekainaren 06a |
| Jesusen Bihotz guztiz Santua | ekainaren 11 |
| Jesu Kristo gure Jauna, diren guztien Erregea | azaroaren 21a |
| Abendualdiko 1. igandea | azaroaren 28a |
| Familia Santua | abenduaren 26a |

OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2021ean

| | | |
|--|--------------|-----|
| Andre Maria Jainkoaren Ama | urtarrilaren | 1a |
| Jaunaren Epifania | urtarrilaren | 6a |
| San Jose, Andre Mariaren senarra | martxoaren | 19a |
| San Prudentzio Armentiakoa (Araba) | apirilaren | 28a |
| Santiago apostolua | uztailaren | 25a |
| San Ignazio Loiolakoa (Bizkaia eta Gipuzkoa) | uztailaren | 31 |
| Andre Mariaren Jasokundea | abuztuaren | 15a |
| Santu Guztiak | arazoaren | 1a |
| Andre Maria Sortzez Garbia | abenduaren | 8a |
| Jaunaren Jaiotza (Eguberri) | abenduaren | 25a |



URTARRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Ebanjelizazioa — Giza anai-arreba artekotasuna

Egin dezagun otoitz: Jaunak eman diezagula bere grazia, beste erlijioetako guztiekin anai-arreba bezala bizitzeko, guztiok batak besteaz otoitz eginez eta batak besteari zabalik.



JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA.

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna.

§ Zenbakiak liburutik 6,22-27.

Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semei: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak:

“Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu.

Ager diezazula Jaunak aurpegi argia,

eta erruki dadila zutaz.

Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa,

eta eman bakea”.

Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedeinkatuko ditut».

[Sal 67 [66]: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.]

§ San Paulok Galaziarrei 4,4-7.

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaleztat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren Betleemera, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten haur hartaz esan zitzaiena.

Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka

Eguberrialdia.
JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA.
Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna.

itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik; dena aingeruak esan bezala gertatu zitzairen. Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, «Jesus» ezarri zioten izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan bezala.

Betleemera joanez hasi nahi genuke urtea. Artzainengana bilduz, harantz jo baitute haiek ere presaka. Inoiz ere imajinatu ez genuen gauza entzungabe batekin topo egin dugu han: Haur bat, ganbela batean etzana, aita eta ama, Jose eta Maria, inguruan dituela. Gure bihotza gai den bezainbateko txeraz bete da. Sekula entzunik gabeenarekin egin dugu topo, Emmanuel baita haur hau, Jainkoa-gurekin, alegia. Hara iritsi orduko, Ignazioaren iradokizunari erreparatu diogu eta «gizajo eta mendeko ezerez bat egin naiz... beraien zereginetan zerbitzatuko diet, aurrean bageunde bezala, ahalik eta begirunerik eta itzalik handienaz». Artzainek bezala, lehen orduko ebanjelizataile izan baitira, aldarrikatuko dugu geuk ere, geure hitzez eta, nagusiki, geure bizieraz, Haurraz kontatu diguten guztia. Lehenik, beraren eta Joserren eta Mariaren aurrean egingo dugu; ondoren, gainerakoen aurrean, topatuko dugun jende oren aurrean, egunean eguneko zereginetara itzultzean. Eta, Mariak bezala, Hitza otoitz bihurtuz onartu baitu, gogoratuko ditugu, hau da, behin eta berriz hausnartuko ditugu gauza hauek guztiak geure bihotzean, maitasunez eta esker onez blai egin dezaten.

San Basilio Handia eta Naziantzoko San Gregorio,
gotzainak eta eliz irakasleak.
M^a Ana Soureau dohatsua, *birjina eta fundatzailea.*

[1 **Joanen liburutik 2,22-28:** Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen mezua. **Sal 98 [97]:** Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,19-28.**

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzeraz bidali zizkiotenean.

Joanek argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?» Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?»

Eta hark: «Ez». Berririo galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?»

Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala».

Bidalitako haietako batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?»

Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere».

Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

Zein zara zu? —galdegin zioten Joani, Bataiatzaileari, Jerusalemdik apaizek eta lebitarrek bidalitako juduek. Galdera zaila erantzuteko, baldin eta gure NAN agirian ageri ohi diren datuak baino zerbait gehiago adierazi nahi bada! Antzinakoek aholkatzen zuten jadanik: «ezagut ezazu zeure burua». Izan ere, nork ezagutzen du bere burua? Benetako misterio gara, ez besteentzat bakarrik, baita norberarentzat ere. Garrantzizkoa da Joanek, Bataiatzaileak, ere bera Jesusekiko nor den, bere nortasuna, ager dezan. Beti Jesusi adi dagoen norbait da bera. Eta «izate» honi, «egiteko» bat dagokio, hau da, «misio» bat. Zein? Bideak zelaitzea, gurek eta berarenek bat egin dezaten.

Eguberrialdia. Jesusen Izen guztiz santua,
Jesusen Lagundiko Goiburua.
 Santa Geneveva, *aitorlea**

§ Siraken liburutik 24,1-4. 12-16 (gr. 1-2. 8-12),

Jakinduriak bere burua goresten du,
 bere herriaren erdian aintzaz betetzen da.
 Goi-goikoaren batzarrean ahoa irekitzen du
 eta haren ahalmenaren aurrean aintzaz betetzen da.
 Bere herriaren erdian goratzen dute
 eta santuen batzar osoan miresten;
 aukeratuen taldeek gorespenak ematen dizkiote
 eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen artean.
 Orduan, guztien Egileak agindu zidan,
 sortu ninduenak etxola eraiki zidan,
 eta esan: «Bizi zaitetz Jakoben herrian,
 eta izan bedi Israel zure ondare».
 Hasieran, gizaldiak baino lehenago, sortu ninduen,
 eta inoiz ere ez dut amairik izango.
 Etxola santuan, haren aurrean, egin dut zerbitzu,
 eta horrela Sion mendian finkatu naiz.
 Hiri maitean eman dit atsedean
 eta Jerusalem dago nire agintaritzan.
 Izen handiko herrian bota ditut sustraiak,
 Jaunaren sailean, haren ondarean.

[Sal 147 (R/. Jn 1, 14): Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua.]

§ San Paulok Efesoarrei 1, 3-6. 15-18.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
 zeruian, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez
 bedeinkatu gaituena!

* San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea: Karmeloko Amaren Kongregazioa.*

Eguberrialdia. Jesusen Izen guztiz santua,
Jesusen Lagundiko Goiburua.
 Santa Genoveva, *aitorlea**.

Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen,
 santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez.
 Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia,
 Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea,
 bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria
 gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Jesus Jaunagan duzuen sinestearen eta fededun guztienganako duzuen
 maitasunaren berri jakinik, etengabe ari naiz zuengatik eskerrak ematen,
 neure otoitzetan zuetaz oroituz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak,
 aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia,
 bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen
 zer itxaroteri dei egin dizuen eta zein aberatsa den fededunentzat
 oinordekotzan prestatua duen aintza.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza,
 eta Hitza Jainkoarekin zen,
 eta Jainko zen Hitza.
 Hitza hasieran Jainkoarekin zen.
 Gauza guztiak haren bidez eginak dira,
 eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.
 Hitzagan zen bizia,
 eta bizia gizakien argia zen;
 argiak ilunpean argi egiten du,
 baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako
 etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak sinets zezaten.
 Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

* San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea: Karmeloko Amaren Kongregazioa.*

Eguberrialdia. Jesusen Izen guztiz santua,
Jesusen Lagundiko Goiburua.
 Santa Geneveva, *aitorlea**.

Hitza zen egiazko argia,
 mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen.
 Munduan zegoen
 eta, mundua haren bidez egina den arren,
 munduak ez zuen ezagutu.
 Bereengana etorri zen,
 eta bereek ez zuten onartu.
 Onartu zuten guzti, berriz,
 haren izenean sinesten dutenei, alegia,
 Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.
 Hauek ez dira giza odoletik sortu,
 ezta giza nahieratik ere,
 Jainkoagandik baizik.
 Eta Hitza haragi egin zen,
 eta gure artean jarri zuen bizilekua,
 eta ikusi dugu haren aintza,
 Aitagandik graziaz eta egiaz bete datorren
 Seme bakarrari dagokion aintza.
 Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan
 nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino
 lehenagokoa baitzen”».
 Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain
 hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz,
 Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren
 altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

«**J**esus izena ezarri zioten». Izen horixe eman nahi izan zion Loiolako
 Ignaziok ere jaiotzeaz zen Lagundiari. «Jesusen Lagundia» izena, alegia.
 Sustrai sendoak bota zituen beraren bihotzean gogo horrek La Storta-ko

* San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea: Karmeloko Amaren Kongregazioa.*

Eguberrialdia. Jesusen Izen guztiz santua,
Jesusen Lagundiko Goiburua.
 Santa Genoveva, *aitorlea**.

ikuspenaren ondoren, Jesus gurutzea eroanez ikusi baitzuen eta Aitak esaten zizkion hitz hauek entzun baitzituen: «zuk jarrai diezaiozun nahi dut». Hain sustrai sakonak bota zituen («dudatu gabe eta dudatu ezinik»), ez baitzuen onartu sekula ezbairik puntu horretaz bere lagunen artean. «Izena ezartzeak» historiaren egunsentira atzerarazten gaitu, Jainkoak gizakiari kreatutako orori izena ezartzeko eskatu baitzion orduan. Kreazioa gizatiartzeko era bat zen eta kreazioa gure «etxe komun» bihurtzeko era bat. «Jesus izena ezartzea», bere aldetik, errealitatea kristotzeko era bat da, den-dena Kristoz eta haren ebanjelioaz betetzeko era bat, den-denak Kristoz hitz egin diezagun eta Kristogana eraman gaitzan... azken batean, Kristoren anai-arreba senti gaitezen, haren misioaren zerbitzari. Fundamentalista islamikoen pertsekuzio latz batean, jesuita batek, Aljerian, honela zегien otoiiz: «Jesus, nire ezpaineak zure izena ezin baitute esan, jaulki dezala guxtienez nire izate guztiak!»

Aita Arruperen esperientzia bat (1. zatia)

Bere bizitzako zati handi bat, Europarekin zerikusirik ez duen testuinguru kultural, teologiko, historiko batean eman zuen, ez Europarekin, ez katolizismoaren tradizio kulturalarekin. Bere bizi-esperientzia dela medio, pasatu beharra ikusi du kristautasunaren ikusmolde eurozentrikotik kristautasun inkulturatu bat nola bizi daitekeen ikusmoldera.

Ezin ulertu da beraren gutun guztiz garrantzizkoa, gaur egungo Elizaren bizieraz, inkulturazioari buruzkoa, berak Japonian egin zuen bizitzaz zer edo zer ezagutu gabe; gutunean adibide guztiz argi bat eman digu; Arrupek Japonian egin zuen lehen homilia artzain onaren parabolarena izan zen. (ikus 2. zatia 39. or.)

* San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea: Karmeloko Amaren Kongregazioa.*

[1 Joan liburutik 3,7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekaturik egiten. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien Joane: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabilzate?»

Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen.

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

Jesusekin burutzen diren ia topo egite guztiak bitarteko baten bidez gauzatuak izaten dira: bitartekari bat behar izaten da haren eta gure artean. Gaurko honetan, Joan da Jesusen eta ikasleen arteko bitartekaria: «Hau da Jainkoaren Bildotsa», esan die. Baina «bitarteko baten bidezko» topo egite honek ez du ezabatzen Jesusekin aurrez aurre topo egin beharra. Joanen ikasleak dira orain topo egin dutenak, berek alegia, Jesusekin: «zeren bila zabilzate?» Eta gu geu, zeren bila ibili ohi gara. Jesusen aurrean, atzeman daiteke, sumatze hutsa izan gabe, gure desiorik sakonena. Edota utz daitezke kanporatzen desiorik sakonak harekin bat egin dezaten arte: Rabbi, non bizi zara? Zurekin egon nahi dugu. Joan ziren... ikusi zuten... eta harekin gelditu ziren. Azkenean, Jesusekin topo egiteak, partekaturik, eraldatu egiten du gure bizitza.

Eguberrialdia.

San Telesforo, 8. *aita santua*.San Joan Neumann, *gotzaina*.

[1 Jn 3, 11-21: Heriotzatik bizira aldatu gara senideak maite ditugulako. Sal 100 [99] (R./ 2a): Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 43-51.

Aldi hartan, Jesusek Galilea aldera joan nahi zuen. Felipe aurkitu zuen, eta esan zion: «Jarraitu niri». Felipe Betsaidakoa zen, Andresen eta Pedroren herrikoa.

Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, Nazaretakoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus».

Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Jesusekin topo egin duenak gertaera hau hurbil dituenekin partekatu beharra sentitzen du. Eta partekatzeraz jotzen du, eszeptizismoaren erantzun hotzarekin topo egiteko arriskua eta guzti: «Nazaretetik, irten al daiteke ezer onik?» «Zatoz, eta ikusiko duzu». Gure hots egitea gonbit bat da jendearentzat, nork bere gisa ikusi ahal dezan. Jendea Jesusengana eramateak ezagutzen gaituela eta geuk geure burua baino gehiago maite gaituela dakigun batengana eramatea esan nahi du orobat. Zerua zinez bihotza zabalik bizitzea da hau guztia! Gora eta behera dabiltzan aingeru hauengan mugimendu bikoitza ikusi izan du kristau-tradizioak: Jainkoagana «igotzea» eta anai-arrebengana «jaistea». Txanpon bat beraren alde bi, ezin bereziak.

§ Isaias profetaren liburutik 60,1-6.

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunak estalia du lurra, gau beltzak estaliak ditu herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko.

Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak.

Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikus: guztiak elkartu eta zugana datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak.

Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirraraz eta zabal-zabal duzula, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

[Sal 72 [71]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.

§ San Paulok Efesoarrei 3,2-6.

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goi-agerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmu hau ez zitzaien iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta hauxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinorde-kide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,1-12.

Jesus Judeako Betleemen jaio zen Herodes erregearen garaian. Aldi hartan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemara, galdezka: «Non da jaioberria den juduen erregea? Haren izarra ikusi dugu sortaldean, eta hura gurtzera gatoz».

Berri honekin larritu zen Herodes erregea, eta Jerusalem osoa harekin batera. Orduan, apaizburuak eta lege-maisuak bildurik, Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten: «Judeako Betleemen, honela idatzi baitzuen profetak:

“Eta zu, Judako Betleem,
ez zara, ez, Judako hirietan txikiena;
zugandik aterako baita buruzagia,
nire herri Israelen errege izango dena”».


Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Ondoren, Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkitzean, esadazue, ni ere gurtzera joan nadin». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan ziren.

Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekua gainean gelditu arte. Izarra ikusi zutenean, berealdiko poza hartu zuten. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten, Maria bere amarekin, eta, ahuspezturik, gurtu egin zuten. Ondoren, beren kutxak irekita, erregaluak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra.

Gero, Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren lurraldera.

Jakintsu haiek bezala, geure «izarrari» segika goaz geu ere. Tarteka ematen du galdu egiten dugula begi-bistatik. Orduan, norabideratu gaitzakeela uste dugun norbaitengana joaten gara. Gerta daiteke laguntzarik hartzea eta... oso zuzena, alajaina!... Baina etsigarriki teorikoa: «honela diote Liburu Santuek: Judako Betleemen jaioko da Mesias». Baina... zertako da Mesias non jaioko den jakitea, harenganako bidean jartzen ez bagaitu? Edota, gerta daiteke hartutako erantzunak eta orientazioak interesatuak izatea eta auskalo zein asmorekin emanak (Herodesek Magoei emandakoa, adibidez)... Ezinbestekoa da, beraz, bila jarraitzea... Izar honek Jesusengana beragana eramango gaituen arte. Egundoko poza emango digu horrek. Orduan, garrantzia duena ez da izango izarra, baizik eta Jesus bera. Garbi dago, guk imajinatu ez

bezalako aurkituko dugu. Baina ez digu eragotziko horrek makurtu eta adoratzea eta geurerik hobena berari eskaintzea. Geure burua eskaintzen dugu. Eta geure lurraldera itzuliko gara orduan, geure zereginetara, baina ez jada bide jakin-jakinetan barna, baizik beste bat hartuz. Izan ere, harekin topo egiteak eraldatu egin gaitu.



Jaunaren agerkunde ondokoa.
San Raimundo Peñafortekoa, *apaiza*.

[1 Joan 3,22-4,6: Aztertu espiritua, Jainkoagandik datorren ala ez.
Sal 2: Nazioak emango dizkizut ondare.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,12-17.23-25.

Egun haietan, Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Baina, Nazaret utzirik, itsasbazerrean dagoen Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonen eta Neftaliren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana:

«Zabulonen lurraldea eta Neftaliren lurraldea,
itsasbidea, Jordanez beste aldean, jentilen Galilea.
Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen;
herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak».

Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil da-eta Zeruetako Erreinua».

Galilea osoan barna ibili zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Siria guztian zabaldu zen haren izena. Edozein gaitz eta oinazek jotakoak eramaten zizkioten: deabrudun, epileptiko nahiz elbarri, eta hark sendatu egiten zituen. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta Jordanez beste aldetik etorritako jendetza handiak jarraitzen zion.

Jesus bere ministerioari ekitera doa. Alabaina, ministerio-hasiera honen inguruabarrak ez dira, hain justu, ez hoberenak, ez idealak: «Joan preso hartua zuten». Baina zer axola? Paulo ere mintzo da ebanjelioa hots egiteaz «egokia denean eta ez denean». Zeren eta, azken batean, lehentasuna, hots egiteko orduan, mezua doakienean egoera errealak baitu. «Ilunpean bizi den herria», oinazeak eta sufrimenak joa, Jainkoaren Hitzaren goseak eta egarriak hartua. Honi dagokio lehentasuna, eta ez ebanjelizatzailea eroso bizitzeari. Jende honi hots egin dio Jesusek: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil baita zeruetako erreinua».

[1 Jn 4,7-10: Jainkoa maitasuna da. Sal 71 [70]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,34-44.

Aldi hartan, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitziren, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Berandu egin baitzen, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Leku bakartia da hau eta oso berandu da. Bidal itzazu, inguruko baserri eta auzoetara joan eta jatekoa eros dezaten». Jesusek erantzun zien: «Emaiezue zeuk jaten». Haiek, orduan: «Berrehun denarioren ogiak erostera joango al gara, bada, hauei jaten emateko?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue? Zoazte ikustera». Ikusi eta esan zioten: «Bost, eta bi arrain ere bai».

Orduan, jende guztia belar gainean taldeka eserarazteko agindu zien. Ehunaka eta berrogeita hamarnaka eseri ziren. Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta, begiak zerura jasorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, jendeari banatzeko; bi arrainak ere jende guztiaren artean banatu zituen. Asetzeraino jan zuten denek, eta ogi- eta arrain-hondarrekin hamabi saski bete bildu zituzten. Bost mila gizon ziren jan zutenak.

Jesusek jendetzari egindako begiratu begiratu errukitsua da: «erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala zebiltzalako». Baina ez da sentimendu huts den errukia, baizik eta egin daitekeenaren grinak hartua den errukia. Gainera, kutsakor den errukia da. «Emaiezue jaten» —esan die ikasleei. Jesusek izangarri eta egingarri dela ikusten duen hartan, ikasleek ez dute ikusten zailtasuna besterik. Azkenean, ordea, «denek jan zuten ase arte». Eta gudan oihartzun handia sortzen dute Joanen, ebanjelariaren, hitz hauek: «Jainkoa maitasun da». Edota (Loiolako Ignazioaren) beste hauek: «maitasuna egintzetan mamitu behar da hitzetan baino gehiago».

Jaunaren agerkunde ondokoa.

San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria*.

[1 Joan 4,11-18: Elkar maite badugu, Jainkoa gugan dago. Sal 72 [71]:
Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,45-52.

Bost mila gizonak ase ondoren, Jesusek bere ikasleak ontzian sararazi eta bere aurretik beste aldera, Betsaidarantz, joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali ondoren, mendira joan zen, oitoz egitera.

Ilundu zuenean, ontzia itsaso erdian zen, eta Jesus lehorrean, bera bakarrik. Ikasleak arraunean nekez ari zirela ikusirik, haizea kontra baitzuten, goiz aldera haiengana joan zen ur gainean oinez, haiei aurrea hartu nahian bezala.

Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, mamua zelakoan, deiadarka hasi ziren; denek ikusi zuten eta erabat izutu ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!» Ontzira igo zitzaien eta haizea gelditu egin zen.

Zeharo harriturik gelditu ziren, ez baitzuten ulertu ogiekin gertatua, adimena itsu zuten eta.

«**M**amua bat zela uste izan zuten»... «Asaldu egin ziren»... Geure bizitzan Jesusen presentzia hainbat aldiz desiratu izan dugunok, aitortu beharra dugu, batzuetan, ikasleei bezala, asalagarri gertatu izan zaigula aipatu presentzia hori. Askotarikoak izan daitezke horren arrazoiak: edota ez gara iritsi berari ulertzeraz; edota gainez egiten diguten —uste dugunez— eskakizunez etorri da. Gainera, geure beldurra errealitatea desitxuratzeraz eragin ohi digu. Bai ondo etorri ohi dela Jesusen hitz lasaigarri hauek entzutea: «ez beldur izan, neu naiz!» Pertsona bati antzematea —behar bezala antzematea— maitasunaren fruitu izan ohi da. Eta Patmos uharteko ikusleak egoki esan ohi zuenez: «maitasunean ez da beldurrik, maitasun bete-beteak uxatu egiten du beldurra».

§ Isaias Profetaren liburutik 42, 1-4. 6-7.

Honela mintzo da Jauna:
 «Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana,
 nire aukeratua, atsegin dudana.
 Honengan ipini dut neure espiritua;
 zuzenbidea ekarriko die herriei.
 Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko,
 ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa.
 Kanabera pitzatua ez du hautsiko,
 doi-doi pitzua dagoen argi-metxa ez du itzaliko.
 Zuzenbidea ekarriko du leialki;
 ez du etsiko, ez da hautsiko,
 zuzenbidea lurean ezarri arte;
 uharteak haren irakaspenaren zain daude.
 Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut,
 eta eskutik heldu;
 Nik eratu zaitut eta izendatu
 herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko,
 itsuen begiak zabal ditzazun,
 giltzapetuak espetxetik askatu
 eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzazun».

[Sal 29 [28]: Bere herria bedeinkatuko du bakea emanaz Jaunak.]

§ Apostoluen Eginak liburutik 10, 34-38.

Egun haietan honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere.

Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez, bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue zer gertatu

zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 7-11.

Aldi hartan, honela hots egiten zuen Joan Bataiatzaileak: «Nire ondoren dator ni baino ahaltuagoa dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

Egun haietan, Galileako Nazaretetik etorri zen Jesus, eta Joanek Jordanen bataiatu zuen. Eta berehala, uretik ateratzekoan, zerua urratzen ikusi zuen Jesusek, eta Espiritu Santua uso-irudian bere gainera jaisten. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zara nire Semea, nire maitea; Zu zaitut atsegin».

Bekatarien lerroan jarri zen eta solidario haiekin, bera bekataria ez izan arren... Gauzatu egin zituen bere portaeran profetaren hitzak («Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez kaleetan bere mintzoa entzunaraziko. Kanabera printzatu ez du hautsiko, ahulduriko argimetxa ez du itzaliko. Justizia ekarriko du leialki» Isaias 52,2). Azken batean, «on eginez bizi izan zen, Jainkoa berekin baitzuen». Honela ageri zaigu Jesus jendaurreko bere bizitzaren hasieran, Joanek Jordan ibaian bataiatzekoan. Itxirik zeudela ematen zuten —hobeto esan, herriko jendearentzat itxirik zeuden— zeruak urratu ziren Jesusen izateko eta jarduteko modu honen aurrean. Jainkoa haragi egin zen. Tenpluko oihala ere, sancta sanctorum zelakoa non apaiz nagusia bakarrik sar baitzitekeen, eta urtean behin bakarrik, estaltzen zuena urratu egin zen Jesusek gurutzean egindako azken eskaintza gorenekoan. Eta Aitaren hitz hauek entzun ahal izan ziren: «Ene Seme maitea zara zu, ene kuttuna». Zeren eta bere Semea horrelako izatea nahi baitu Aitak, baita Kristogan bere seme-alaba gaituenok ere.

Urteko 1. astea.

San Higinio, 9. aita santua.

Santa Honorata, birjina.

[Heb 1, 1-6: Jainkoak Semearen bidez hitz egin digu. Sal 97 [96]:
Ahuspez jartzen zaizkio aingeru guztiak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona».

Jesusek, Galileako itsasbazterretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurrerago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Jesus ezin hartu eta ulertu dugu beraren ikasleak gabe. Ematen du, gainera, berari ez zaiola burutik pasatu beraien laguntzarik gabe ebanjelizatzea. Beraren bizitzari zentzua eman dion aldarrikapenaren ondoren, ikasle bila hasi da Jesus. Beraiekin topo egiteaz baliatuz egin izan die dei, eguneroko lanean ari direla. Beraien izaera eta jarduera eraldatuz; Jesusen deiaz gero, gainerakoen zerbitzari bihurtuko dira. Eta «berehala» jarraitu diote beraiek, nahiz eta, jakina, ikasle-izaera bizitza osoan barna ikasiz joan beharreko eginkizuna den. Bizi gaitezen adi, «une desberdinetan eta era askotan» hitz egiten digun Jainko honi entzuteko. Batez ere, bere Semearen bidez hitz egiten baitigu.

Urteko 1. astea.

San Arkadio Mauritaniakoa, *martiria*.

[Hebrearrei gutunetik 2, 5-12: Egoki zen, haiek salbamenera gidatuko zituen burua, Jesus, oinazeen bidez bete-beteko egitea. Sal 8: Jauna, zeure eskulan guztien buru gizakia jarri duzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 21b-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!» Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen gizonagandik.

Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!»

Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

Aginpidez irakasten zuen... Izatez, ebanjelariak ez digu esaten zer irakasten zuen, zer eduki zuen haren irakaspenak; soilik, irakasteko era adierazten digu: «aginpidez». Jesusen aginpidea bilakatuko da betiko eredu, Elizaren baitan bizi beharreko aginpidetarako. Aginpidea: latineko auctoritas da, eta latinezko hori augeo-tik dator, hazarazitik. Hona zein den Jesusen aginpidea: ez da gainerakoak desegiten dituen, bere botereaz eta jakintzaz besteak itsutuz, baizik eta ikasle direnen dohainak eta gaitasuna azalarazten dituen. Gainera, koherentziaren aginpidea da: esaten eta egiten denaren artean eta, nagusiki, esaten eta norbera denaren artean.

Urteko 1. astea.

[Hebreatzei gutunetik 2, 14-18: Gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukitsu izateko. Sal 105 [104]: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 28-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaien.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkieten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruak ez ziren uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, artean ilun zegoela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoiitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil».

Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

«**A**paiz nagusi errukitsua (bere anai-arrebekin) eta leiala Jainkoari dagokionez»; horrela definitzen du Jesus Hebrearrei idazkiaren idazleak. Gaurko ebanjelioan bete-beterik dakusagun definizioa da: jendea sendatuz eta duintasuna itzuliz; oinazetan den munduari beragana etortzen utziz, ezikusirik egin gabe, Aitarekin harreman iraunkor eta bihozkoia biziz (Abba deitzea gustatzen zitzaion Aitarekin); eta jende gehiagorengana, errealitate handiago batera nola iritsiko irrikatan... Erreinuea —berak hartaraino maite zuen errealitate hau— gero eta presentego egin zedin. Txanponaren bi alderdien arazo bereizezina izango bailitzan: predikatuz eta giza bizitza nekarazten duten deabruak uxatuz.

Urteko 1. astea.

San Fulgentzio, *gotzaina*.

San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*.

[Hebrearrei gutunetik 3, 7-14: Adoretu elkar egunero, «gaur» horrek irauten duen bitartean. Sal 95 [94]: Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Orduan bertan alde egin zion legena, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten».

Hura, ordea, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditzen zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Pasadizo honetan antzinako Israelen erlijioa arau garrantzizkoak hautsi dira, eta Jesusen desira bat nagusitu. Lepradun bat hurbildu da; ez zen zilegi, ez gaixo hauekako bat hurbiltzea, ez hurbiltzen uztea. Jesusek, ordea, ukitu egin du, bera ere lege-likiskeria eroriz. Azkenean, Jesusek hertsiki erregutu die gertakizunaren berria zabaldu ez dezaten. Baina, zer egingo dute? Indar handiagoa izan zuten Jesusen penak eta errukiak arau erlijioso haiek baino (azken batean, arau gizatasun gabeko ziren). Indar handiagoa izan zuen orobat gaixoaren gogoak: Jesusen bidez Jainkoak bere herria bisitatu zuelako berri ona partekatzeak. Hain zuzen, albiste onak gure izatearen zirrikitu guztietatik irten ohi zaizkigu, eta ezin mozorrotu izaten ditugu.

[Hebreairei 4,1-5.11: Saia gaitezen atsedean horretan sartzen. Sal 78 [77]: Ez ahaztu Jainkoaren egintza handiez.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 1-12.

Zenbait egunen ondoren, Jesus Kafarnaumen sartu zen berriro, eta etxean zegoeneko berria zabaldu zen. Bildu zen jendetzarekin ez zegoen inon tokirik, ezta atarian ere. Eta mezua adierazten zien.

Hartan, elbarri bat ekarri zioten lau lagunen artean. Baina jendetzatik ezin zuten eraman Jesusenganaino. Orduan, bera zegoen parean etxe-gaina zulatu eta zulotik behera eraitsi zuten elbarria, etzanik zegoen ohatilan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Seme, barkatuak dituzu bekatuak!»

Baziren han eserita lege-maisu batzuk, eta hau zioten beren baitan: «Zer ari duk hau horrela? Biraoka ari duk. Nork barka zitzakek bekatuak, Jainkoak berak izan ezik?»

Baina Jesusek bere barruan haien gogoetei igarri eta esan zien: «Zergatik dituzue gogoeta horiek zeuen baitan? Zer da errazago, elbarriari “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki, hartu ohatila eta zabilta” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera”».

Berehala jaiki, ohatila hartu eta guztien aurrean atera zen. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu sekula horrelakorik ikusi».

Lege-maisu haiek eserita zeuden, eroso, jendearen artean, Jesus predikatzen ari zen etxean, mukuru betean; asko baitzen Jesusengana jotzen zuen jendea, batzuetan hunkitzen gaituzten trikimailuz baliatuz. Eta zuzen epaitu zuten lege-maisu haiek adieraziz: «Jainkoak bakarrik du barkatzen». Izatez, biktimak bakarrik barkatzen ahal du, ezin gutxietsi

Urteko 1. astea.

San Paul, *ermitaua*. San Mauro, *beneditarra, abadea*.San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea**(Verbo Divino kongregazioa)*.

dugu hura bere oinazean. Eta, azken batean, Jainkoak bakarrik barkatzen ahal du, hura baitugu iraintzen, anaia edo arreba iraintzen dugunean. Baina barkazio hitza ez da iraganeko mina garbi utzi nahi duen hitz huts bat, hutsik dagoen hitz bat. Horregatik diotso Jesusek elbarriari: «har ezazu zeure ohatila», batzuetan paralizatzen gaituen iragan horren sinbolo den hori, eta «ibil zaitetz». Eta bai gauza bikaina batzuek eta besteek elkarri laguntzen diogunean geure «ohatila» garraiatzen!

San Paulo ermitaua

Tebaidan (Egipton) jaio zen, Nilo ibaiaren ondoan. 14 urteko zela umezurtz gelditu zen. Gizon aski eskolatua izan zen. Giro erlijiosoan hazia. K.o. 250. urtean Dezioren pertsekuzioa hasi zen: jendea martiri egitea adina, jendea erlijioaz arnegatzera behartzea zuen helburu Deziok.

Paulo bi arrisku horien artean gertatu zen. Bere burua ahul ikusirik torturei aurre egiteko, ezkutatzea erabaki zuen. Koinatu batek salatu zuelako, basamortura jo zuen. Kobazulo bat hartu zuen bizileku. Pertsekuzio-aldian bakarrik bizi nahi izan zuen han. Baina esperientziak agertu zion, bakardadea lagungarri zuela Jainkorekin harremanak izateko. Munduari, negozioekin eta hitzekin ez, baizik eta penitentiarekin eta otoitzarekin laguntzea erabaki zuen.

Paulo ermitaua 342an hil zen, 113 urteko, eta 90 urte bakardadean eta otoitzean egin ondoren. San Jeronimok esan ohi zuen: «Jaunak aukeran jarriko balit, nahiago izango nuke palmondoaren hostoz egindako Paulo ermitauaren tunika pobrea, hura santua zelako, ezen ez harrokeriaz beterik diren lurreko erregeen luxuzko mantua». San Paulok, bere isiltasunarekin, jende asko jarri du betiko salbazioaren bidean.

Urteko 1. astea.

San Martzelo 1.a, 30. *aita santua, eta martiria.*

[Hebreairei gutunetik 4,12-16: Hurbil gaitezen konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura. Sal 19 [18]: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,13-17.

Aldi hartan, Jesus itsasaldera ateratzen zen berriro. Jende guztia berarengana zihoan, eta irakasten hasi zitzairen. Bidez zihoala, Lebi Alfeorena ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eserita, eta esan zion: «Jarrai niri». Lebi zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Lebiaren etxean; bazen beste zergalari eta bekataria asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin mahaian; izan ere, asko zihoazkion ondoren.

Fariseuen arteko lege-maisu batzuek, bekataria eta zergalariekin jaten ari zela ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zergalari eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Levi, Alfeorena, mahai batetik bestera igaro zen. Zerga-biltzailearen mahaitik, urruntasuna, zapalkuntza, gailentasuna (zuzengabeki zapalduak diren gailentasun etikoa ala pitxerra kirtenetik daukatenean gailentasun faktikoa) adierazten duen mahaitik... Mahai horrek, azken batean, errabia, garratzasuna, gorrotoa... zuen berekin. Beste mahai batera, oso desberdineraz: zerga-biltzaileen eta bekatarien mahaira. Honek berekin zuen hurbiltasuna, askatasuna, parekotasuna eta anai-arreba artekotasuna, barkazioa. Batez ere, berekin zuen festa eta alaitasuna, gainezka. Mahai hartatik beste honetara igaro zen Levi, Jesus beraren bizitzako bideetan egokitu zenean. Eta zenbat jende opa dugun gauza bera!

Urteko 2. astea.
San Anton, *abadea*.

§ 1 Samuel liburutik 3, 3b-10. 19.

Egun haietan, Samuel lotara joana zen, Jainkoaren kutxa zegoen Jaunaren santutegian.

Jaunak dei egin zion Samueli, eta honek erantzun: «Hemen nauzu». Lasterka Elirengana joan eta esan zion Samuelek: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin; itzuli eta egizu lo». Joan eta lotarako etzan zen.

Jaunak berriro dei egin zion Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin, seme; itzuli eta egizu lo». Samuelek ez zuen artean Jauna ezagutzen, Jaunak ez baitzion bere hitza inoiz ere adierazi.

Hirugarren aldiz dei egin zion Jaunak Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Antzeman zion Elik Jauna ari zitzaioala mutikoari deika, eta esan zion Samueli: «Zoaz lotara eta, norbaitek berriro dei egiten badizu, esan: “Mintza, Jauna; zure morroi hau adi dago”». Itzuli zen Samuel bere tokira eta lotarako etzan zen.

Jaunak, hurbildurik, dei egin zion, besteetan bezala: «Samuel, Samuel!» Eta Samuelek erantzun: «Mintza, zure morroi hau adi dago».

Samuel haziz zihoan, eta Jauna berekin zuen. Ez zen Jaunaren hitz bakar bat ere bete gabe gelditu.

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 6, 13c-15a. 17-20.

Senideok: Gorputza ez da haragikeriarako, Jaunarentzat baizik, eta Jauna gorputzarentzat. Jainkoak, Jauna piztu zuenak, piztuko gaitu gu ere bere ahalmenaz.

Ez al dakizue zuen gorputzak Kristoren atal direla? Jaunarekin elkartzen dena, espiritu bat bera egiten da harekin.

Urteko 2. astea.
San Anton, *abadea*.

Egizue ihes haragikeriatik. Gizon-emakumeek egiten dituzten beste bekatu guztiak gorputzetik kanpora gelditzen dira; baina haragikeriazko bekatua egiten duenak bere gorputzaren aurka egiten du bekatu.

Ez al dakizue zuen gorputza Jainkoak eman dizuen eta zuengan bizi den Espiritu Santuaren tenplu dela? Beraz, ez zarete jadanik zeuenak; garesti ordainduz eskuratu zaituzte Jainkoak. Goretsazue, bada, Jainkoa zeuen gorputzaz.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 35-42.**

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabiltzate?»

Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien:

«Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen.

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

«Beste su batzuk pizten dituen su bat»: horrelakoak dira ebanjelioak kontatzen dizkigun topo egitearen historiak, deiak eta jarraitzeak. Joan, Bataiatzailea, bere bi ikaslerekin dago eta Jesusi erreparatu dio: «Begira!, Hau da Jainkoaren bildotsa!» «Jainkoaren bildotsa» deitu dio, hau da, ez dator handi-mandi, baizik eta otzan eta apal. Horregatik, harengana hurbiltzeko gogoia sentitu dute Joanen bi ikasleek, eta galdegin diote:

Urteko 2. astea.
San Anton, *abadea*.

«Maisu, non bizi zara?» Izatez, norbait bitartekari izan da hor; baina, azken batean, Jesusekin nahi dugu topo egin. Bitartekoa izan daiteke fededun handi bat (Joan Bataiatzailea, adibidez) edota ahuldade eta inkoherentzia handiko bat. Benetan bilatzen duguna Jesus da, ez dadila izan itsumandoka ibiltzea. Eta horregatik, arazoa ez da bitartekoa nolakotasun berezi-berezikoa izatea; geu ere bitarteko izatera deituak gara Jesusen eta gainerakoen artean. Jesusekin egindako topaketa partekatu nahi dugu. Jesusekin topo egiteak berekin dakar, gu lehengoak berak izatea eta, aldi berean, lehengo pertsona bera ez izatea: «Simon zara zu; baina, hemendik aurrera, Pedro izango duzu izena». Hau da, harria, arroka... zeure anai-arreben sostengua.

Aita Arruperen esperientzia bat (2. zatia) (Urtarrilaren 19tik dator)

(...) Ulertzeko eta ulertua izateko, beste kultura batera egokitu beharrekoa den gogoeta hau eskualdatu nahi izan du Lagundi-buru egin dutenean. Eta ez inkulturazio-beharra bakarrik; baizik eta, inkulturazioan oinarriturik, sufritzen ari den munduaren sufrimendua ulertu beharra ere bai. Eta horretatik darizkio beste hainbat ideia.

Bai. Zuzentasuna, adibidez. Eta Jesuiten kultur tradizioa. Eta Kontzilio aurreko katolizismoaren kultur tradizioa: gehiago azpimarratzen baitzuen honek alde bertikala. Eta Jainkoa-ni erlazioa. Arrupe jabetu da ezen Kontzilioaren ondoren hitzik oinarritzkoena «komunioa» dela, hau da, elkartasuna. Elkartearen ideia. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaio, «ni-Jainkoa» erlazio hori eraldatu beharrekoa dela; hobeto esan, haragitu beharrekoa, pobreen, premiarik handiena dutenen ideian. Ikuspuntu honek berekin du iraultza kultural, antropologiko eta teologiko bat; asko eskatzen diona munduko alde guztietan banaturik dagoen familia erlijioso bati. Armada bat, aita santuaren «marinelak», erotik aldatzera daraman iraultza. Eta hau ez da inprobisatzen..

(*Gianni La Bella* historialariak liburu bat idatzi du: «*Los jesuitas. Del Vaticano II al papa Francisco*»; hemengo hau *Religión Digital* 2020-01-21; zatitxo bat, *Jesus Bustamanteren* eskutik).

Urteko 2. astea.

Santa Priska eta Santa Margarita, birjinak.

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.

[Hebrearrei gutunetik 5,1-10: Oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen.
Sal 110 [109]: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,18-22.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten. Jesusengana joan eta esan zioten: «Nolatan egiten dute barau Joanen ikasleek eta fariseuek, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituek egin ote dezakete barau, senar berria berekin dutelarik? Senar berria berekin duten bitartean, ez dezakete barau egin. Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu, eta zarratada handiagoa egiten da. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardoak zahagiak lehertu egingo lituzke eta, orduan, ez ardo eta ez zahagi. Ardo berria zahagi berritan».

Kohelet edo Eclesiastes liburuan irakurtzen dugu: «Bada aldi bat gauza bakoitzerako...». Bada aldi bat Jesusen presentzia sumatzeko eta beste bat ez sumatzeko. Beraz, garrantzia «sumatzeak» du, zeren eta Jesus beti baitago presente. Loiolako Ignazio «pozaldia» eta «lehorraldia» txandaka izateaz mintzo zaigu. Jesusen presentzia hain argi nabari ez dugunean, orduan da aukera pertsona fedean hazteko, sostenguren eta segurtasunen premiarik ez duela fedean hazteko... bere oinarria Jesusengan bakarrik jartzten duen fedean. Orduan da aukera, gehiago preziatzeko Jainkoa bera, dohainen jatorri den hura, Jainkoaren dohainak baino. Horrela da berritzen gure bizitza, horrela gara bihurtzen «zahagi berri», Jainkoak opari egiten digun «ardo berria» hartzeko gai.

Urteko 2. astea.

Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki
apaizak, eta Marko Krizevcanin, *Esztergom-eko kalonjea*.*

[**Hebrenarrei gutunetik 6,10-20**: Itxaropen hau dugu geure bizitzaren aingura sendoa eta segurua. **Sal 111 [110]**: Gogoan du beti Jaunak bere ituna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburitik 2, 23-28.**

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak bidenabar galburuak mozten hasi ziren. Fariseuek esan zioten Jesusi: «Nolatan ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena?»

Hark erantzun: «Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharaldi batean, bera eta bere lagunak goseak gertatu zirenean? Nola, Abiatar apaiz nagusi zelarik, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitzaizketenak, eta nola bere lagunei ere eman zien?»

Eta esan zien: «Larunbata gizakiarentzat egin zuen Jainkoak, ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea larunbataren beraren nagusi da».

Gauza atsegina izaten da ikustea, nola deskribatzen duten ebanjelioek Jesusek ikasleekin izan ohi duen jarrera. Berari jarraitzaera dei egiten die, irakasten saiatzen da, aurpegira bota ohi die beren fede-falta eta ulertzeko ezgaitasuna... Eta, komeni denean, defendatu egiten ditu; adibidez, kasu honetan, fariseuek kritikatzten dituztenean, larunbateko atsedena hautsi omen dutelako. Orduan da bustitzen Jesus ikasleen alde... «Jainkoa gurekin bada... nor izango da gure aurka?», dio Paulok. Eta jarraitzen du: horregatik, «ezin bereiziko gaitu ezerk ere Kristoren maitasunetik»; esan nahi du: ez horrenbeste guk Kristoz senti dezakegun maitasunetik (egiazale bagara, aitortu beharra dugu, honetatik edozein gauzak bereiz gaitza keela), baizik eta Kristok digun maitasunetik.

*Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak; San Makario Handia, *abadea*.
Martzelu Spinola, *dohatsua*, *fundatzailea* (*Jainkoaren Bihotzaren mirabeak*).

[Hebrenarrei gutunetik 7,1-3.15-17: Apaiz zara zu, Melkisedek bezala, betiko. Sal 110 [109]: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 1-6.

Aldi hartan, Jesus sinagogan sartu zen berriro. Bazen han gizon beso-ihar bat. Zelatan zegozkion larunbatean sendatzen ote zuen, zertan salatuko baitzebiltzan.

Jesusek beso-iharrari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona erdira». Eta besteei esan zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala kentzea?» Haiek, ordea, isilik. Jesusek, ingurukoei haserre begiraturik eta beraien setakeriaz mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen, eta sendatu egin zitzaion.

Handik atera orduko, fariseuek eta Herodesen alderdikoek elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Kristau-elkartearen erdigunean eta Jesusen jarraitzailearen bihotzean presente dago beti sufritzen ari denarentzat arreta duena. «Jar zaitetz erdian —esan dio Jesusek eskua elbarri duen gizonari—... Ikus zaitzaten... Sekula ere beste aldera begira jar ez daitezten... Eta jakin dezaten: «txiki hauetako bati egin zeniotena (edota egin ez zeniotena), neuri egin zenidaten (neuri ez zenidaten egin)». Larunbata zen (hain justu, Jainkoak bere lan kreatzailekoan atsedeteko hartu zuen eguna: «dena ona zela ikusi zuen eguna»). Keinu hau hain eskandalagarria izan zen, ezin imajinatuzkoa lortu baitzuen: fariseuek eta herodestarrek, beren artean etsai amorratu zirenek, bat egitea Jesus garbitzeko.

Urteko 2. astea.

Santa Ines, *birjina eta martiria*.

[Hebreatzei gutunetik 7,25–8,6: Jesusek behin betiko oparia eskaini zuen bere burua eskaini zuenean. Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasbatterera joan zen bere ikasleekin. Galileatik etorritako jendetza handiak jarraitu zion. Eta, berak egiten zituenak entzunik, Judea, Jerusalem eta Idumeatik, Jordanez bestaldetik eta Tiro eta Sidon aldetik ere jendetza handia bildu zitzaion. Jesusek txalupa prest edukitzeko agindu zien ikasleei, hainbeste jenderen artean zapal ez zezaten.

Izan ere, asko zituen sendatuak, eta gaitzen bat zuten guztiak gainera zetozkion, ukitu nahian. Espiritu gaiztoek, ikusten zuteneko, haren oinetara erori eta oihuka esaten zioten: «Jainkoaren Semea zara Zu». Hark, ordea, zorrotz agintzen zien, ez emateko ezagutzera.

Galdera estu-estu batek zeharkatzen du Markosen ebanjelio osoa: nor zara zu, Nazareteko Jesus? Galdera, zeini ahoz ematen baitiote erantzuna espiritu likitsek (eta, horregatik, esan dezake Jesusek: «herri honek ahoz ohoratzen nau, baina bihotza urrun du nigandik»); galdera, zeini ikasleek ere (Pedrok, adibidez) erantzun nahi izan baitiote, arinarinka, esaten dutenaren mamia zein den jakin gabe... Galdera, zeini erantzuteari Jesusek berak ere iskin egin baitio. Soilik, gurutzearen oinean, eta nola hil den ikustean, erantzun ahal izan dio ehuntari batek, pagano batek zehazkiago esateko, jada oker ulertzeko aukerarik gabe: «zinez, gizon hau Jainkoaren Semea da».

Urteko 2. astea.

San Bizente, *diakonoa eta martiria*.San Valero Zaragozako, *gotzaina*.

[Hebrenarrei gutunetik 8,6-13: Kristo itun hobearen bitarteko. Sal 85 [84]: Maitasunak eta leialtasunak topo dute egiten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,13-19.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen, berak nahi izan zuenei dei egin zien, eta haiek hurbildu egin zitzaizkion. Hamabien taldea eratu zuen, berarekin bizitzeko eta Berri Ona hots egitera bidaltzeko; eta deabruak botatzeko ahalmena eman zien.

Hamabi hauek aukeratu zituen: Simon –honi Pedro izena ipini zion–, Santiago Zebedeorena eta Joan, Santiagoren anaia –hauei Boanerges izena ipini zien, hau da, «Trumoi-kume»–, Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Hamabi ikasle aukeratu zituen, beraren lagun izan zitezten (berarekin bizi zitezten) eta predikatzerara bidaltzeko, txanpon baten bi aldeak dira, Guk argiegi bereizten ditugun kristau-bizitzaren alderdiak, Jesusentzat eta beraren ikasleentzat, ordea, errealitate bat bera eta bereizezina eratzten dutenak. Joanen ebanjelioan ere, adibidez, bidali duen Aitarekin bizi da beti bidalia. Lana bera baino zerbait gehiago da misioa (dudarik gabe lana ere berekin duen arren, eta batzuetan benetan nekagarria delarik). Esperientzia espiritual bat da misioa; gainera, partekatua izatea eskatzen duena. Beragan, Jesusengan, bizi gara bidaliak izatean eta bidaliak gara beragan bizitzeari utzi gabe, inoiz ere. Osterantzean, gure lan apostolikoa agorra izango litzateke.

Urteko 2. astea.

San Ildefonso, *gotzaina*.

Santa Emerentziana, *birjina*.

[Hebrearrei gutunetik 9,2-3.11-14: Kristo behin betiko sartu da santutegian bere odola eskainiz. Sal 47 [46]: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,20-21.

Aldi hartan, Jesus etxera itzuli zen ikasleekin. Berriro ere jendetza handia bildu zen, eta ezin zuten otordurik ere egin Jesusek eta ikasleek. Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramateko asmotan etorri ziren, burutik egina zegoela esaten baitzuten.

«**E**satzen zuten, burutik egina zegoela»... Jesus, zoro bat? Ba, bai. Maite duenak zorakeriak egiten ditu, batzuetan, jende zentzudunaren begietarako. Maitasunaren jakinduria —gogoratzen digu Paulok— ez da mundu honetako, baizik eta gurutzearen jakinduria da, eskandalagarria sinestudun beldurtientzat eta zorakeria betiko jende jakin ustekoarentzat. Maisuari hau gertatu bazitzaion, gauza bera haren jarraitzailei ere: «ikaslea ez da maisua baino handiago». Horregatik, hona zer proposatzen digun Loiolako Ignaziok bere Gogo Jardunetan: «gehiago nahi izatea hutsal eta zorotzat har gaitzaten Kristogatik, lehena izan baitzen hura halakotzat hartua, mundu honetako jakintsu eta zuhurtzat baino». Zeren eta: «maitasunean, zorakeria baita zentzutasun» (Antonio Machado).

Urteko 3. astea.

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

§ Jonasen Profezia liburutik 3, 1-5. 10.

Jaunak Jonasi hitz egin eta esan zion: «Ea, zoaz Ninive hiri handira, eta aldarrika ezazu han Nik ematen dizudan mezua».

Ninivera joan zen Jonas, Jaunak agindu bezala. Ninive hiri izugarri handia zen; hiru eguneko bidea zuen alderik alde. Sartu zen Jonas hirian eta egun bateko bidea egin zuen, mezu hau hots eginez: «Berrogei egunen buruan, Ninive xehatua izango da».

Sinetsi zioten ninivetarrek Jainkoari eta barau-deia zabaldu zuten eta denak, handi eta txiki, dolu-jantziz estali ziren.

Ikusi zuen Jainkoak ninivetarrek egin zutena eta beren bide okerretik itzuli zirela, eta damutu egin zen haiei egindako mehatxuaz, eta ez zuen bete.

[Sal 25 [24]: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 7, 29-31.

Senideok: Epea laburtu egin dela diotsuet. Beraz, gelditzen zaigun denboran, ezkonduak bizi bitez ezkonduak ez baleude bezala; negar dagitenak, negar egingo ez balute bezala; pozik daudenak, pozik ez baleude bezala; erosten dutenak, ezer ez balute bezala, eta mundu honetako gauzez baliatzen direnak, baliatuko ez balira bezala; izan ere, mundu hau, oraingo bere itxuran, desagertzeaz dago.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitzte eta sinetsi Berri Ona».

Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren.

Urteko 3. astea.

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Hain justu ere, Joan Bataiatzailea atxilotu zutenean hasi zen Jesus Berri Ona hots egiten... Ez zuen ematen unerik egokiena zenik. Baina, zer axola? Mezuaren premiak agintzen zuen. Eta hona zein zuen Jesusek bere mezua: «bete da epea...». Iritsi da: ezin atzera daiteke minutu bat ere. Gainera, bere egitekoa aurrera eramateko, Jesusek ez du jardun nahi berak bakarrik: lankideren beharra du, eta beren ohiko lanean ari direla bilduko ditu jarraitzaile izango direnak. Berari jarraitzera dei eginez jo du haiengana. Eta «bat-batean» onartu diote haiek deia. Dendena utzirik. Premiatasuna adierazten duten esapideak aurkeztu dizkigu ebanjelioak: «Presakoa da unea!», esango die Paulok bere korintoar maiteei. Izatez, Jesusi jarraitzeak ez du onartzen geroko gerorik, ezta une egokien konturik. Ezin lasaitu gaitzke gure artean hain ohikoa den eta inoiz ere iristen ez den «bihar, bihar» delakoarekin. Jakina, halako premiatasun horrek, halako presa horrek, ez du bazterten prozesuan pazientzia izan beharra. Baina gauza bat da «Jainkoaren urraspidea» (Donibane Joan), «jada» eta «guztizkoa» dena, eta beste bat «gizakiaren urraspidea», bere erritmoak, bere aurreratzeak eta atzeratzeak dituenak, Jainkoak maitasun handiz errespetatzen dituenak. Hau guztia kontuan izanik, utzi diezaiogun presa honek kutsa gaitzan, beraren deiari arin eta maitetsuki erantzunez.

[Eginak liburutik 22,3-16: Bataia zaitetz eta garbitu zeure bekatuetatik Jaunaren izenari dei eginez. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaiketi agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

«**Z**oazte mundu osoan barna eta hots egin ebanjelioa»; ez pertsoneri bakarrik, baita «kreatzio osoari» ere. Izatez, ebanjelioa hots egitea ez datza adimenezko eduki batzuk eskualdatzean (pertsonak bakarrik lortzen ahal dituztenak); zerbait gehiago da. Eskualdatu beharreko mezua bezain garrantzizkoa da eskualdatzeko modua. Horregatik, hitz egin «lengoaia» berriak, ebanjelioari Berri On baten usaina emango diotenak: aurre egin harreman pertsonalak «pozoitzen dituenari» edota «arrastaka» (sugeak bezala) bizitzera eragiten digunari; hurbildu sufritzen ari direnengana, konfiantza eskainiz. Hitz batean esateko, ez zaitetzte mugatu Berri Ona hots egitera; baizik eta izan zeuok berri on besteentzat.

Urteko 3. astea,
San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

§ San Paulok 2 Timoteori 1,1-8.

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik, Kristo Jesusen bidez agindu zaigun bizia iragartzeko Jesu Kristoren apostolu naizen honek, zuri, nire seme maite Timoteori: grazia, errukia eta bakea Jainko Aitagandik eta Kristo Jesus gure Jaunagandik.

Eskerrak ematen dizkiot, nire arbasoek bezala bihotz garbiz zerbitzaten dudan Jainkoari, eta gogoan zaitut etengabe, gau eta egun, neure otoitzetan. Zure malkoetz oroitzean, zu ikusteko irrikaz nago, pozez bete nadin. Izan ere, gogoan dut zuk duzun zinezko fedea, lehenik Loide zure amonak eta Eunize zure amak izan zuten fede bera; ziur nago zuk ere baduzula.

Gomendatzen dizut indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina, Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta lotsatu ere harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde.

[Sal 95: Abestu Jaunaren gauza miresgarriak nazio guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 31-35.

Aldi hartan, Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila».

Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?» Eta, inguruan eserita zituenei begiraturaz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama».

Urteko 3. astea,

San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

San Jose Maria Rubiok hau izan zuen bere bizitzako goiburua: «Jainkoak nahi duena egin; Jainkoak egiten duena nahi izan». Dudarik gabe, dei hau jaso dugu guztiok geure bizitzan: Jainkoak nahi duena bilatu eta aurkitzea. Horregatik, ez gaitu libratzen inork ere eskura ditugun baliabide guztiez baliatzetik. Baina, urrats honetan, geu gara oraino protagonista. Halere, beste urrats bat egitera deituak gara: geure bizitzan Jainkoaren borondatea onartzera. Izatez, Gure Aitan, ez diogu eskatzen laguntza (geuk) Jainkoaren borondatea egiteko, baizik eta borondate hori gudan bete dadin. Andre Mariak eman digu jarraibidea: lehenik, galdez, bila hasi da (nola gertatuko da hau), eta, ondoren, bere buruaren eskaintza egin du; «gerta bedi nigan zure Hitza».

**Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu
eliz egitura batzuen konbertsioan eragina izan dutena**
(Edgar R. Beltran, 2019-10-04 [zati bat] in Religion Digital) (1. zatia)

Leonidas Proaño gotzaina: Riobamba, Ekuatore, +1988-08-31.

Gotzain ordenaturik, bihotz jainkotiarrez, ohore-tituludun, jantzi klerikalez iritsi zen. Zuzenbide Kanonikoa leial betetzera. Onarpen ona egin zioten lurjabe aberats handiek eta militarrek. Ohi zen bezala den-dena. Baina laster jarri zen indigenei begira, eta behartsu ikusi zituen, goseak, gaixo, kasik biluzik. Aurkikuntza honek hunkitu egin zuen, eta bere oinak indigena behartsuen artean ipintzea erabaki zuen. Egiatzatu zuen, pertsonak oinak dituen hartan pentsatzen duela. Behartsuek harrera ona egin zioten eta Taita Gotzaintzat hartu zuten; titulu familiar txeratsuagoa zen hori haientzat. Pobreak aldaketa hasi zuen gotzainagan, pertsonaren eliztar konbertsio dolorezkoa eta luzea, inoiz ere amaitu gabea.

Garai horretan berean, gotzainak Joan XXIII.ak deitutako Vatikanoko II.a kontzilioan parteide ziren. Indigenekin egin zuen bezalako aurkikuntza bat egin zuen Kontzilioan ere, eta orobat erabaki zuen Kontzilioaren gotzain izatea, bere eliztar konbertsio pertsonalaren ibilbidean aurrera eginez. (jarraipena urtarrilaren 27an)

Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.

San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

[**Hebreaerrei 10, 11-18:** Beren betera eraman ditu Kristok Jainkoaren-
tzat behin betiko sagaratuak direnak. **Sal 110 [109]:** Apaiz zara Zu,
Melkisedek bezala, betiko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,1-20.**

Aldi hartan, Jesus berriz ere irakasten hasi zen itsasertzean. Eta hain-
beste jende bildu baitzitzaion ondora, urean zegoen txalupa batera igo eta
bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, itsasbatterrean.
Gauza asko irakatsi zien parabola bidez hitz egin. Honela ari zitzairen
bere irakastaldian:

«Entzun! Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait
ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste
zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, axaleko
lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen
eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiek, haztean, ito egin
zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren,
eta erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar, hirurogei
nahiz ehun». Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Entzuteko belarririk
duenak, entzun beza!»

Bakarrik gelditu zirenean, Hamabiekin batera berarekin zebiltzanek
parabolen esanahiaz galdetu zioten Jesusi. Eta honek esan zien: «Zuei
eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, or-
dea, dena parabola bidez ematen zaie, Liburu Santuak dioena betet dadin:
“Begiratzen dute, bai, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez;
horrela, ez dira Jaunagana bihurtzen eta ez zaie barkatzen”».

Eta esan zien gainera: «Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nolatan
ulertuko dituzue, orduan, gainerako parabola guztiak?

Ereileak hitza ereiten du. Hitza ereitean, batzuk “bide-bazterra”
bezalakoak dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan erin
den hitza kendu egiten die. Beste batzuk “harri artea” bezalakoak dira:
hitza entzutean, berehala pozik hartzen dute; baina sustrairikgabeak

Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

eta iraupen txikikoak izanik, hitza dela-eta estutasun nahiz erasoaldiren bat sortu orduko, huts egiten dute. Beste batzuk, berriz, “sasi artea” bezalakoak dira: entzuten dute hitza, baina mundu honetako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta hitza ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren “lur ona” bezalakoak: hitza entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar nahiz hirurogei nahiz ehun».

Bi eratan irakur dezakegu parabola hau. Lehen era (agian, garrantzizkoena): jabearazten gaitu, gu geu garela lur hori, Hitzaren hazia ereiten dena. Desirarazten diguna, gainera, Hitza onartzeko (Andre Mariak bezala) lur on izatea, eta fruiturik handiena ematea, Jainkoak nahi duena. Bigarren era (lehenaren osagarria): geure burua ikusarazten diguna Hitzaren ereile. Esker oneko ereile, hartutako dohainari erantzuten diotenak. Kasu honetan, ezin utzi diogu doan jarduteari (Jainkoak gurekin bezala) eta urri ibili gabe Hitza ereiteari nonahi eta nolnahi, jakinik fruitua Jainkoagandik bakarrik datorrela.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (2. zatia)

(urtarrilaren 26tik dator)

«Behartsuek eta Vatikanon II.a kontzilioak Jesusengana eta beronen Ebanjeliora bihurtu ninduten. Ezagutzen nuen nik Ebanjelioa jadanik, baina mendetako konstantinotar hautsez beterik, eta ez genuen egiten «egiteko esan ziguna», komentatu ohi zuen gotzainak. «Medellinen», Latindar Amerikako Elizaren Batzarrak, 1968an, batu egin zituen Kontzilioa eta pobreak, zeinak periferiatik erdigunera ekarri baitzituen, lehenetasun-aukera gisa, Jesusen eta beronen Ebanjelioaren arabera. Proaño gotzaina partaide izan zen aipatu Batzarrean, eta berrindartu egin zuen bere konbertsioan. Eliza, bere atalei eta egiturei dagokienez, konbertitzeko deia da Medellin. (jarraipena otsailaren 7an)

Urteko 3. astea.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza*
eta *eliz irakaslea, domingotarra.*

San Julian Cuencakoa, *gotzaina.*

[Hebrearrei 10,19-25: Iraun dezagun sendo itxaropena aitortzen; lagun diezaioگون elkarrri, maitasunean elkar gogoberotuz. Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 21-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Lakaripean edota ohe azpian ipintzeko pizten ote da kriseilua? Ez ote da argimutilaren gainean ipintzeko pizten? Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere argitaratuko ez denik. Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Beste hau ere esan zien: «Kontu izan nola entzuten duzuen! Zuek zein neurritan entzun, neurri berean emango dizue Jainkoak, eta gehiago ere bai. Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu».

Izaten dira bizitzan errealitateak, zenbat eta gehiago partekatu besteekin, orduan eta gehiago hazten direnak norberagan. Bizitza zinez gizatar, eta horregatik zinez kristau, bihurtzen duten errealitateak dira. Alaitasuna, adiskidetasuna, maitasuna... fedea. Halakoekin eskuzabal izateak, eta ez zeken, eta gainerakoekin eskuzabal partekatzeak ez gaitu pobretzen; aitzitik, gero eta aberatsago egiten gaituzte, eta Jesusengana hurbiltzen, eta honek aberasten gaitu, ez bere aberastasunaz, baizik eta bere pobretasunaz, erabat hustu baitzen bera eta bera zen guztia, bere bizitza jarraikian, Aitari eta anai-arrebei egindako eskaintza izan baitzen. Beraz, geuk ere eskuzabal eman behar dugu eta neurririk gabe, doan eta gainezka hartua duguna.

Urteko 3. astea.

San Gelasio, 49. *aita santua*.Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina*.

[Hebreatzei 10,32-39: Borroka gogorra egin behar izan zenuten. Ez galdu, beraz, adorea. **Sal 37 [36]:** Jaunagandik dator zintzoen salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua gizonak lurrean hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura lo nahiz iratzaririk egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten da, hark nola ez dakiela. Lurrak berez ematen du fruitua: lehenengo landarea, gero galburua eta, azkenik, alea galburua betean. Eta garia heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uztaroa da eta».

Beste hau ere esan zien: «Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurrean ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak, txoriek habia egiten baitute haren itzalpean».

Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zien Jesusek mezua, haiek ulertzeko eran. Ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik; baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zien.

Parabolen munduak kontenplari izaten irakasten digu. Jesusen antzera. Lehenik eta behin, naturaren kontenplari: kontenplatu nola ernetzen eta hazten den hazia... Eta gauza bera mostaza-aleaz ere... Baina kontenplatu historia pertsonalak ere: edota etxera itzuli den seme hondatzailearena, edota galdutako drakma estu bilatzen duenarena, edota ezkutuko altxorraz jabetzeko den-dena saldu duen negoziogile jakintsuarena. Zeren eta, Jesusek bezala, Jainkoaren jarduera ikus baitezakegu errealitate eta istorio hauen guztien hondoan. Eta onartu ere bai. Eta geu ere pertsona abegigile izan gintezke, mostaza-hazia bezala, beragan habia egiten duten txori guztien onarpengile bihurtzen baita.

Urteko 3. astea.

San Lesmes, *monjea*.

Santa Martina, *birjina*.

[Hebreairei 11,1-2. 8-19: Arkitekto eta egile Jainkoa bera duen hiria itxaron zuen Abrahamek. **Salmo: Lk 1, 69-70. 71-72. 73-75 (R/ ik. 68):** Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,35-41.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen itsasoaz bestaldera». Jendea utzi eta ontzian eramán zuten Jesus, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten.

Horretan, haize-bolada zakarra atera zuen, eta olatuek ontzia jotzen zuten, ia urez betetzera. Jesus, berriz, txopan lo zegoen, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak?» Hark, esnatuak, haserre egin zion haizeari, eta itsasoari esan: «Hago isilik! Geldi!» Gelditu zen haizea, eta barealdi handia egin zen.

Jesusek esan zien: «Zergatik beldur hori? Ez al duzue oraindik sinesmenik?» Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?»

«**G**oazen beste ertzera». «Goazen beste leku batzuetara, horretarako bidali bainau Aitak». Ematen du, Jesusen ezaugarri direla beste leku batzuetan ere ebanjelioa hots egiteko premiatasuna eta presa; Paulorenak diren bezalatsu, dioelarik: «zoritarrekoa ni, ebanjelioa hots egingo ez banu». Eta hori guztia, jakinik, ilunak eta ekaitzat jo ditzakeela, zakar baino zakarrago, bera eta beraren ikasleak. Gertatu ere halaxe gertatu baitzen. Beraren ikasleak, eta gu geu ere —beldurkiago gara—, harrizten eta eskandalizatzen ahal gara bera ekaitzaldian axolagabe lo ikusirik. Haur bat bezala amaren altzoan. Baina horrela joan gintezke ikasten, bera dela haizeak eta urek obeditzen dioten hura. Bera dela Jauna.

Urteko 4. astea.

San Bosko, apaiza (*salesianoen fundatzailea*).

§ Deuteronomioa liburutik 18, 15-20.

Honela mintzatu zitzaien Moises herriari: «Jaunak zuen Jainkoak ni bezalako profeta sortuko du zuen artetik, herritarren artetik. Entzun berari! Horixe da, Horeb mendian bildurik zeundetela, Jaunari zeuen Jainkoari eskatu zenietena: “Ez dugu Jaunaren geure Jainkoaren ahotsa berriro entzun nahi, ezta sute handi hori berriro ikusi nahi ere, hil egingo baikara bestela”.

Orduan, Jaunak esan zidan: “Ongi deritzot herriak esandakoari. Zu bezalako profeta sorraraziko dut herritarren artetik; neure hitzak ezarriko dizkiot ahoan eta Nik agindutakoa esango die. Profetak nire izenean adieraziko dituen hitzak onartuko ez dituenari Nik eskatuko dizkiot kontuak. Baina Nik agindu gabeko hitza nire izenean adieraztera ausartzen den profeta edota jainko arrotzen izenean hitz egiten duena hil egingo dute”».

[Sal 95 [94]: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa:
«Ez gogortu zeuen bihotza».]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 7,32-35.

Senideok: Zuek kezkarik gabe bizitzea nahi nuke. Gizaseme ezkongabea Jaunaren gauzez kezkatzen da, Jaunari nola atsegin emango; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da, emazteari nola atsegin emango, eta bere baitan zatitua dago. Emakume ezkongabea eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta gorputz eta arima berari emanak bizi dira; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da, senarrari nola atsegin emango.

Hau zeuen onerako diotsuet, ez zuei tranpa jartzeko. Hauxe nahi dut: modu egokienean bizi zaitezte, eragozpenik gabe Jaunari atxikiak.

Urteko 4. astea.

San Bosko, *apaiza (salesianoen fundatzailea)*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,21-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende gutzia txunditurik zegoen haren irakaspenez, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!» Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen gizonagandik.

Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!»

Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztieta.

Markos ebanjelariak ironia-zentzuari bide eman nahi izan dio. Jesus ez zen mintzatzen lege-maisuak bezala, baizik eta aginpidea duena bezala. Nolatan, ordea? Ez al ziren, ba, lege-maisuak aginpidea zutenak? Zer aginpide izan zezakeen arotz-sume hark, zeinez inork ez baitzuen, kasik, ezer ezagutzen? Dudarik gabe, Jesusen aginpidez hitz egitean, ez da kontuan hartzen beraren irakaspenaren edukia, inoiz ere ez baita adierazten zein den eduki hori. Aginpidez hitz egiten bada, jendea aintzat hartzen duen baten aginpidea da kontuan hartzen, inolako aurreiritzik mendea har dezan utzi gabe. Ez du zerikusirik boterearekin nahasten den aginpidearekin, bestea desegiten duenarekin, norberaren burua handietsiz. Jesusen aginpidea, berriz, bere aurrean duen hura handiesten duenarena da, zerbitzari apal azaltzen denarena. Aginpidea, adibidez, oinak garbitzearen pasadizoak argi adierazten duena, Joanen ebanjelioak dakarrenez. Zur eta lur gelditu diren bere ikasleen aurrean bere keinua interpretatuz, Jesusek diotse: «nik, maisu eta jaun izanik, oinak garbitu badizkizuet, zeuek ere oinak garbitu behar dizkiozue elkarri».



Dainkoagana
bide 
eginez
Gogo
Jardunen
 bidez

OTSAILA / ZEZEILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Emakumearen aurkako indarkeria

Egin dezagun otoitz: Indarkeriaren biktima diren emakumeentzat; gizartean babesa eta sostengua izan dezaten, eta halakoan sufrimendua aintzat eta kontuan hartua izan dadin.



Urteko 4. astea.

Santa Brigida, *birjina*.

San Pionio, *apaiza eta martiria*.

[Hebrenarrei gutunetik 11,32-40: Sinesmenari esker erreinuak menderatu zituzten. Jainkoak zerbait hobea prestatu zuen guretzat. Sal 31 [30]: Izan bihotz, Jaunagan itxaroten duzuen guztiok!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,1-20.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz bestaldera joan ziren, gerasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta katez ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menderatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumaka eta bere burua harriz zauritzen.

Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oihu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goi-goiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek hau agindu baitzion: «Atera hadi gizon honengandik, espiritu gaizto hori!»

Orduan, Jesusek galdetu zion: «Nola duk izena?» Hark erantzun: «Taldea, asko gara eta».

Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidal.

Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi mila inguru txerri ito zen.

Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki

Urteko 4. astea.

Santa Brigida, *birjina*.San Pionio, *apaiza eta martiria*.

izutu ziren. Ikusi zutenek, deabrudunari gertatua eta txerriena kontatu zieten. Orduan, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi.

Jesus ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion barerekin ibiltzen uzteko; baina Jesusek ez zion utzi, baizik hau esan zion: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesusek egin ziona hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Harriturik gelditzen ziren denak.

Herioak harturik bizi zen gizon hura. Ez zen gai besteengana hurbiltzeko eta jendeagana hurbiltzea saihestuz bizi zen. Tragedia pertsonalez zamaturik. «Legio» deitzen diote deabruak beren buruari, izena eskatzen dietenean. Guztiok ezagutu izan dugu horrelako jenderik, erreakzionatzeko gure ahalbidea gainditzen duela. Horregatik, urrundu egiten gara haiengandik. Ez, ordea, Jesus. Berak ez zuen hartzen galdutzat, ez ezer, ez inor. Hurbildu zen. Egoeraren gogortasuna esperimentatu zuen deabrudun haren erreakzioan... Baina gertatu zen miraria. Gizon hura, azkenean, «eseri zen eta bere onera etorri». Txerri-jabeek bakarrik eskatu zioten Jesusi handik alde egiteko. Dirua egin nahia jarriko ote dute pertsonaren onaren gainetik?

§ Malakias Profetaren liburutik 3,1-4.

Hau dio Jainko Jaunak: «Hor bidaltzen dut neure mezularia, nire aurretik bidea prestatzera. Eta berehala etorriko da bere santutegira, zuek bila zabiltzaten nagusia, eta irrikatzen duzuen ituneko mezularia. Horra non datorren, dio Jaun ahalguztidunak.

Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura agertzean? Urtzailearen sua bezala izango da, garbitzailearen lixiba bezala. Urtu eta garbitzeko eseriko da; zilarra eta urrea garbitzen diren bezala, halaxe garbituko ditu Lebiren ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskain diezazkioten. Orduan, atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo garaietan bezala».

[Sal 24 [23]: Jaun ahalguztiduna da Errege ospetsua.]

§ Hebrearrei gutunetik 2, 14-18.

Familia bereko seme-alabek odol eta haragi berak dituzten bezala, Jesusek gizakiaren odol-haragiak hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusia den deabrua ezerezteko, eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bizi zirenak askatzeko; Jesus ez baitzen aingeruei laguntzera etorri, Abrahamen jatorrikoei baizik. Horregatik, gauza guztietan bere senideen antzeko izan behar zuen, apaiz nagusi errukitsu eta Jainkoari dagozkion gauzetan fidagarri izateko, herriaren bekatuak barkatzeko gai.

Bera ere nekeetan probatua izan zelako, orain gauza da probaldian daudenei laguntzeko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko uea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eramán zuten Jesus, Jaunari

aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean eza-rritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eramán zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
Zeuk hitzeman bezala.

Ikusi dute nire begiok zugiandiko salbamena, herri guztien aurrean Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezén. Eta zuri ezpata batek alde zaldelatulatuko dizu arima».

Bazen profetesá bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoiitz, Jainkoa zerbitzaten. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa gores-ten eta haurraz mintzaten hasi zitzaíen Jerusalemén askatasunaren zain zeuden guztiei.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren gra-zia berekin zuen.

Urteko 4. astea.

JAUNAREN AURKEZPENA.

Kandelen bedeinkapena eta elizbira.

Canterburyko Lorentzo santua, gotzaina.

Jose eta Maria tenplura doaz Jesus aurkeztera. Eta guk, gaur imitatu egin nahi ditugu, Jesus aurkeztu nahi dugu geuk ere. Izan ere, ez da dudarik, geurekin dugun gauzarik hobena da hura eta seguru gaude besteei eskaintzen ahal diegun gauzarik hobena dela Jesus. Alabaina, ezin aurkeztu (edo eskain) dezakegu Jesus, geure eskaintzaz axolagabe bizirik. Beragatik, berarekin eta beragan, geuk ere geure burua eskaintzen dugu. Ezin esan dugu inolaz ere: hor dago; onartzen baduzue, ondo da; bestela, bost axola guri. Besteei Jesus aurkezteak, besteei Jesus eskaintzeak, gu geu konprometitzen gaitu. Asko gainera! Azken batean, Jainkoari egindako eskaintza bihurtzen da dena. Eta horrela otoitz egiten ahal dugu: Hartu, Jauna, eta onartu...

3

Asteazkena / Eguaztena OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

San Blas, *gotzaina eta martiria*.

San Oskar, *gotzaina*.

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*.

[Hebrenarrei gutunetik 12, 4-7. 11-15: Maite duena zentzarazten du Jaunak. Sal 103 [102]: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino begirune diotenentzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitar-tean eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Jesus zerbaitek «gainditzen badu», fede- eta konfiantza-falta da, batez ere. Edota adimen-harrokeria hori: ororen gainetik dagoela uste duena eta Jainkoa norbera kokaturik dagoela uste duen balizko «goialde» intelektual eta moraletan aurkituko duela espero duena. Horrelakoek hartaraino egiten diote kontra, txunditu egiten baita eta ezin izaten baitu horie argibiderik eman. Are gehiago, eta hau da okerrera: «ezgai» bihurtzen dute Jesus. Testuak dio «ezin egin izan zuela» miraririk, gaixo batzuk sendatzea baizik, eskuak gainean ezarriz. Ezin egin izan zuen, miraria federik den lekuan bakarrik gerta daitekeelako. Halaz guztiz, honek guztiak ez dio etsiarazi, ezta utzarazi ere bere misioa. Eta, horregatik, inguruko herrietan barna jarraitu du irakatsiz.

Urteko 4. astea.

Joana Valois-koa, *erregina*.

San Joan Brito, *apaiza*, eta Rodolfo Acquaviva, *apaiza*,
eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

[Hebreenrei gutunetik 12,18-19,21-24: Sion mendira hurbildu zarete zuek, Jainko biziaren hirira.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela.

Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitatzela; baina aldatzeko soinekorik ez.

Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olioz gantzutuz.

«**Z**uek Jesusengana hurbildu zarete», esan digu Hebreenrei egindako idazkiaren autoreak. Eta Jesusek besteengana hurbiltzera gonbidatu gaitu. Honetan datza ebanjeliazioa. Jesusengana hurbiltzea bakarrik izango balitz, barnekoitasun antzu batean ereriko ginatke. Eta gainerakoengana hurbiltzea bakarrik izango balitz, ebanjeliazioa ez litzateke izango propaganda hutsa baizik. Gainera, mezuaren edukia bezain garrantzizkoa da hura eskualdatzeko era. Horregatik eman dizkie Jesusek argibide hauek bidaltzen ditueni: hurbiltzea ez da pertsona bakar baten egitekoa; hurbiltzea pobretasunean egin behar da, konfiantza Hitzean bakarrik ipiniz, eta hurbiltzea, hurbiltzen gatazkaizkiaren bizitza partekatuz egin behar da. Ardura, batez ere, sufritzen ari direnen munduan jarriz.

Urteko 4. astea.

Santa Ageda, *birjina eta martiria*.

[Hebreaerrei gutunetik 13,1-8: Jesu Kristo bat bera da atzo, gaur eta beti. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,14-29.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes erregeak Jesusen berri, honen izena oso ezaguna baitzen. Batzuek zioten: «Joan Bataiatzailea piztu da hilen artetik; horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Beste batzuek, berriz: «Elias da». Eta beste zenbaitek: «Profeta da, antzina-ko profetak bezalakoa». Iritzi hauek entzutean, hau zioen Herodesek: «Nik lepoa moztu nion Joan huraxe piztu da».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joanek esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaia-aren emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, guda-buru eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzairen Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinua-aren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion,

Urteko 4. astea.

Santa Ageda, *birjina eta martiria*.

eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

Emakume erresumindu baten gorrotoa, bere egintzen irismena neurtzeko gai ez den neska gazte baten oharkabekeria, boteretsuetako txandako baten egintzak eta ahoberokeria, jokoan pertsona errugabe baten bizitza dagoela jakinik ere, atzera egiteko gai ez den batenak, alegia: horra zerk erabaki zuen profeta baten bizitza. Hotzikara eragiten du pentsatzeak, hau bezalako egoerek hor jarraitzen dutela gaurko munduan ere, giza eskubideei dagokienez gaur egun kontzientzia handiagoa dagoela harro esaten den arren. Zenbat aldiz jenda beste aldera begira! Zenbat isiltasun konplize! Norbaitek esan du, oso buru-argi, egin dezakegun gaitza baino okerragoa dela egin beharko genukeen ongia ez egitea. Kontu zorrotza eskatuko digute honetaz.

Loinazko San Martin

(Andoni Sarriegiren gutun baten zatitxoa)

Zuk oso ondo dakizunez, Beasainen Loinazko San Martinen heriotza-eguna edo, hobeto esanda, zeruratutako eguna ospatzen dugu otsailaren 5ean. Japonian 1597-02-05ean hil zuten, baina ordutegiaren alde dela bide, hemen otsailaren 6a dateke hori eta Elizaren santu-egutegian otsailaren 6an agertzen da. Beasainen beti otsailaren 5ean ospatu izan dugu egun hori. Hartaz lan gehiago ere badira argitaratuak baina azkenekoa eta ziur asko, sakonena aipatzearren, Martin Mendizabal frantziskotarrak egin eta Beasaingo Udalak haren heriotzaren 4. mendeurrenean (1997an) argitaratutako Gipuzkoar ezezaguna San Martin Igokundekoa, Loinazkoa eta Amunabarrokkoa. 1566-1597 izeneko liburua da. [zer irakurri nahi duenak jakin dezan].

San Martin Igokundekoa (Beasain 1567-Japonia 1597),
frantziskotarra, martiria. Santuak:
 Paulo Miki, *erlijiosoa*, eta lagunak;*

[*Hebrea*rei gutunetik 13,15-17. 20-21: Bakearen Jainkoak piztu zuen hilen artetik artzain handia; berak egin zaitzatela gai egite on oro tarako. *Sal 23 [22]:* Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesussek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedeen pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik.

Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurrea hartuz.

Txalupatik ateratzean, Jesussek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Misioa beti Jesusekin hasten da. Bera da dei egiten eta bidaltzen duena. Bera da misiokoan sostengatzen gaituena. Misioa beti Jesusengan bukatzen da: gaurko ebanjelioak kontatzen digu, ezen, beren ibilera apostolikoak bukatzean, Jesusekin elkartu zirela ikasleak, egin eta irakatsi zuten guztia eta guztia nola gertatu zitzairen kontatzeko. Eta —Frantzisko aita santuak irakasten digunez— eskuartean misio bat edukitzeaz gain, misio garenez (*Evangeliū Gaudium 273*), atsedendaldi hau berau ere misioa jarraitzeko prestaketa izaten dugu. Izan ere, azkenean Jesusen begiratua bera ere partekatzen dugu eta, bera bezala, «artzainik gabe dabilten ardiak bezala» bizi diren hainbat eta hainbat anai-arrebari begira jartzen gara.

* eta *Dohatsuak*: Karlos Spinola, Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

Urteko 5. astea.

San Amant, *gotzaina (Baionako elizbarrutian).*

San Rikardo, *erregea.*

§ Joben liburutik 7, 1-4. 6-7.

Egun haietan, honela mintzatu zen Job:

«Borroka da gizakiaren bizitza lurrean, langilearenak bezalakoak haren egunak. Esklaboak bezala, itzala irrikatzen du, langileak bezala, soldata itxaroten; baina fruiturik gabeko hilabeteak etorri zaizkit, gauak aspergarriak gertatzen dira niretzat. Oheratu orduko, esaten diot neure buruari: “Noiz jaikiko ote naiz?” Amaigabea egiten zait gaua, jirabiraka egunsentia arte.

Ehuleen anezka-tresna baino lasterrago doaz nire egunak, amaitu zaizkit ehuleari haria bukatzean bezala. Gogoan izan, ene Jainko, nire bizitza arnasaldi bat dela, nire begiek ez dutela berriro zoriona ikusiko».

[Sal 147 [146]: Goretzazue Jauna, bihotz-urratuak sendatzen dituen.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 9,16-19.22-23.

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!

Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe.

Guztiz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.

Urteko 5. astea.

San Amant, *gotzaina* (Baionako elizbarrutian).San Rikardo, *errega*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andrexen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaien Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eramane zizkieten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruak ez ziren uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, artean ilun zegoela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil».

Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

Jesusek egunean bizi ohi zuen jarduera ikustean, agenda asko ikustean —bete-beteak eta «jostorraz bat» ere kabitzen ez dela (jarduera bat gehiagorentzat lekurik ez dela, esan nahi da)— izan ohi dugun sententzia bera senti genezake. Gaixoak sendatuz... Deabruak uxatuz... Jende-multzoarekin bat eginez, bakartasun-une bat ere hartu gabe Abba deitzen zion bere Aitarekin bakarka egoteko... Berri Ona beste leku batzuetara eramateko premia sentituz... Ematen du, Jesusek bere baitan esperimentatu zituela Pauloren hitz hauek; «ez dut Ebanjelioa hots egin beste erremediorik eta zoritxarrekoa ni egingo ez banu!» Edota: «dena denentzat egin naiz, irabazteko, nola edo hala, batzuk». Eromenezko jarduera honek Frantziskoren, Erromako gotzainaren, behin eta berrizko deia dakarkigu gogora:

Urteko 5. astea.

San Amant, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).

San Rikardo, *erregea*.

«irteeran den Eliza» bihur gaitzela, ez dadila eroso kokatu jada daukan hartan; izan dadila «kanpamenduko ospitale» den Eliza —eta ez bake-leku alienatzaile—; izan gaitzela nor, «ardi-usaineko artzain», ebanjelizatzen dugun jendearen atsekabe eta pozak partekatuz. Hau guztia, Jesusen erara eta Jesusekin «lagunarte» eginez, eskuartekoa ez baita gure misio, baizik eta guztiena, Jesusen Elizarena.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (3. zatia)

(urtarrilaren 27tik dator)

Proañoen eliztar konbertsio pertsonala aurreratuz zihoan beraren barnean eta aldaketa hori agertuz zihoan beraren ageriko portaeran. Tituluak alde batera uzten hasi zen, janzkera klerikalaren ordez janzkera arrunta hartzen, ikasle baten gelan jarri zen bizitzen. Behartsu bat gehiago izatera iritsi zen eta bere gutxia gutxi erabili ohi zuen.

Proañoen eliztar konbertsio pertsonala elizbarrutiko eliztar egituren konbertsioaren motor bilakatu zen; izan ere, eliztar pertsona da eta eliztar egitura, onerako nahiz txarrerako

Egituren funtsezko konbertsio izan zen, Elizaren eredu-aldaketa: piramide izatetik Jainkoaren Herri, elkarte, izatera pasatzea. Eredu-aldaketa hori ez zen izan alderantzizko piramidera pasatzea; horrek, izan ere, funtsean betiko izaera sortuko luke: batzuk goian eta bestean behean izatea. Pobreak, Kontzilioak eta Medellinek piramideko Eliza hura elkarte bihurtzera eragin zioten, erdigunean Jesus eta pobreak ipiniz. Piramidea eroririk, berarekin erori zen «gotzain printzea», eta «gotzain elkarte bihurturik» birjaio zen. Aldaketa «kopernikarra», benetako konbertsio-prozesua. (segida otsailaren 9an)

[Hasiera liburuaren hasiera 1, 1-19: Jainkoak esan zuen, eta hala izan zen. Sal 104 [103]: Poztu bedi Jauna bere eginetan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,53-56.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igaro ondoren, Genesaretera iritsi ziren eta bertan lehorreratu.

Ontzitik atera orduko ezagutu zuen jendeak Jesus, eta lurralde hartan barna joan ziren; eta Jesus nora, haraxe eramaten zizkieten gaixoak ohatiletan. Jesus joaten zen herri, auzo nahiz baserrietan, gaixoak atarrietan ipintzen zizkieten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

«**U**kitu», gehienik ageri den aditza da gaurko ebanjelioaren puka labur honetan. Jesus eta ikasleak daramatzen ontziak lur hartu («ukitu») duenetik, Jesusen eta gaixoen ukitze fisikoaz mintzo den aditzik esanguratsuenara. Inor ukitzeko eta norbera ukitua izateko, hurbildu egin behar izaten da. Gaixotasunaren eta oinazearen talkak jasaten dituenaren aurrean, pertsona bat axolagabe eta hotz izateraino eraman ohi duen urruntzearen guztiz kontrako aditza da. Ignaziok, bere Gogo Jardunetan jarduera hau gomendatzen digu: «zentzumenak aplikatzea», «zentzumenak erakartzea». Eta, ukimenari dagokionez, «besarkatu eta musu eman» aipatzen ditu; horrela berretsi edo indartu egiten da Jesusek sufritzen ari direnekin bizi ohi dituen ukitzearen eta hurbiltzearen ezaugarri den afektibitatearen «plus» hori.

Urteko 5. astea.

Santa Apolonia, *martiria*.

San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *salletarra*.

[**Hasiera liburutik 1,20—2,4a:** Egin dezagun gizakia geure antzera, geure irudiko. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 1-13.**

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemdik etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin —hau da, eskuen garbikuntza egin gabe— jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketak.

Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokatzeko? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean:

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina nigandik urruti du bihotza; alferriku naute gurtzen, hauen irakaspena giza agindu hutsa da”. Zuek Jainkoaren agindua bazterrera utzi eta giza ohiturari eusten diozue».

Eta jarraitu zuen: «Bai, lasai zokoratzen duzue Jainkoaren agindua, zeuen usadioak ezartzeko. Esate baterako, Moisesek esan zuen: “Ohoratu aita-amak”, eta “Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du”. Zuek, berriaz, beste hau diozue: “Norbaitek aitari edo amari esaten badio: Zuri eman behar nizukeena ‘Korban’ da (hau da, tenplurako opari), halakoak ez du aitari edo amari ezertan lagundu beharrik”. Horrela, Jainkoaren hitza baliogabe uzten duzue zeuen arteko usadioengatik. Eta horrelako asko egiten duzue».

Urteko 5. astea.

Santa Apolonia, *martiria*.San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *salletarra*.

Bizitzako txikikeriak aitzakia izan ohi dira askotan garrantzizko gauzei arretarik ez eskaintzeko. Txikikeria haietan erosoago sentitu ohi gara, eta nagi sentitzen gara pena merezi duenari ekiteko. Fariseuei errazagoa gertatzen zitzaien eskuak arduraz xaboitzea, bihotza garbitzea baino. Errazagoa gertatzen zitzaien Jainkoaren eskakizunak interpretazioez korapilatzea, azkenean halakoak indargabetzera iritsiko zirelarik, soil-soilik eta xume-xume, eta trikimainarik gabe, Jainkoaren Hitzari obeditzea baino. Garela ematen duena —edo nahi genukeena— baino batasun estuago gara unibertsoan. Baina, horregatik, opa izatekoa da Jainkoak batu duena gizakiak ez banatzea, alde bati bakarrik (kasu honetan, azalekoari) erreparatuz, beste aldeari ezikusia eginez.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (4. zatia)

(otsailaren 7tik dator)

Pastoralza-metodologia ere, logikoki, konbertsio-prozesu honetan sartu zen. Eduki da metodoa bera ere, hain zuzen. Proaño gotzaina Herriarekin korapilatuz joan zen. Herria, gotzainarekin bat eginik, protagonismoa hartuz joan zen, historia eraikitzen duen egile gisa. Honetarako, gaituz joan zen Herri bezala: ikustea lortzen duelarik, ikusten duena juzga dezakeelarik eta, ondorioz, errealitatean ikusi eta juzgatzeak eskatu dion errealitatea eraldatzeko jarduera bere eginez.

Ikusteak errealitateak analizatzera eraman zuen Herria. Juzgatzeak «ebanjelizazio integrala, haragitua eta inkulturizatua» zuen berekin, Jesus ardatz eta beronen Erreinua egitasmotzat hartuz, berau izan baitzuen erreferentzia-argi errealitatea juzgatzeko. Jarduteak konprometitzea eskatzen zion. (segida otsailaren 17an).

Urteko 5. astea.

Santa Eskolastika, *birjina*

[**Hasiera liburutik 2,4b-9. 15-17:** Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ipini zuen. **Sal 104 [103]:** Bedeinka beza nire arimak Jauna!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,14-23.**

Aldi hartan, Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

Jendea utzi eta etxeratu zenean, hitz horien esanahiaz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Beraz, ez duzue zuek ere ulertzen? Ez al duzue ikusten kanpotik sartzen zaion ezerk ez dezakeela gizakia zikindu? Sartu, ez baitzaio bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik komun-zulora doa». Hitz hauekin, janari guztiak garbiak direla adierazi nahi zuen.

Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, dirugosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

Ebanjelioak eskatzen digun garbitasuna barnean errotzen da nagusiki, hau da, bihotzean. «Funtsezkoa ikusezin da begientzat; bihotzak bakarrik ikusten ahal du» (Saint Exupéry). Horretatik irrada dezake kanporantz: gainerakoekin bizi ohi ditugun geure harremanetan, ama lurrarekin (guztion etxe den horrekin) bizi ohi ditugunetan eta, batez ere, Jainkoarekin bizi ohi ditugunetan. Horregatik, beharrezkoa da «bihotza zaintzea», taupadaka jardun dadin Jesusenarekin batean, soinu bakarrean, eta beragan sor daitezen «Erreinua eraikitzen duten» jarrera haiek. Gurutzeko Donibanek «terapia» hau proposatzen digu: «kreatuaz ahaztea / Kreatzaileaz gogoratzea / barnekoaz arreta izatea / eta Maitea maitatuz bizitzea».

Urteko 5. astea.

Andre Maria Lourdeskoa.

San Paskual 1.a, 98. aita santua.

[**Hasiera liburutik 2,18-25:** Emakumea moldatu eta gizonari eraman zion. Eta biak bat izango dira. **Sal 128 [127]:** Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,24-30.**

Aldi hartan, Jesus Tiro aldera joan zen. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen inork jakiterik nahi; baina ezin izan zen ezkutuan egon.

Alaba espiritu gaiztoak hartua zeukan emakume bat, Jesusen berri jakin zueneko, etorri eta oinetan ahuspeztu zitzaion. Emakumea jentila zen, feniziarra. Eta alabagandik deabrua botatzeko eskatzen zion Jesusi.

Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asetzen; ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea».

Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte seme-alaben ogi-apurrak mahaipean».

Orduan, Jesusek: «Erantzun horrengatik, zoaz; atera da deabrua zure alabagandik». Itzuli zen etxera, eta ohean etzana aurkitu zuen neskatxa; alde egina zen deabrua.

Lehen kristau-elkarteak, judu-jatorrikoak, honela arrazoitzen zuten: ebanjelioa, lehenik eta behin, guretzat da, «seme-alabontzat»; ondoren, paganoentzat, mespretxuz «txakur» deitu ohi zituztenentzat. Horrelatsu ageri da formulaturik arrazoiketa hau Paulogan, Erromatarrei egindako gutunean (1,16). Besterik gabe, pentsaera hau Jesusengana beragana proiektatu zuten. Halaz guztiz, pasadizo honetan, Jesusek berak gezurtatu du pentsaera hau (emakume pagano baten lehiak garaiturik, gainera!). Ogia denentzat da; are gehiago, batzuetan seme-alabak berak direnean alferrik galtzen uzten dutenak. Gainera, jada ez da bereizketarik «seme-alaben» eta «txakurren» artean: guztiok gara lagun (ogi bera partekatzen dugu)... seme-alaba... anai-arreba.

Urteko 5. astea.

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*.

San Modesto, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 3,1-8:** Jainkoa bezalako izango zarete, ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren jabe. **Sal 32 [31]:** Zorionekoa hobena kendu diotena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37.**

Aldi hartan, utzi zuen Jesusek Tiro aldea eta, Sidonen barna, Gali-leako itsasora itzuli zen berriro, Dekapolisko lurraldean zehar.

Gizon gor eta hitz-motela eraman zioten, eta eskua gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jendeagandik aparte harturik, hatzak belarrietan sartu zizkion eta listuz mihia ukitu. Gero, zerurantz begiratu, hasperen egin eta esan zion: «Effeta», hau da, «Ireki». Eta une berean, belarriak ireki zitzaizkion, mihia askatu eta garbi hitz egiten hasi zen.

Gertatua inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina zenbat eta gehiago agindu, orduan eta areago zabaltzen zuten.

Biziki harrিতa, hau zioten: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea».

Gizon hura gormutua zen, ezin zuen, ez entzun, ez hitz egin. Azken batean, ezin zuen, ez onartu, ez eman. Bere baitan erabat hesiturik bizi zen. Baina Jesusek esan dio: effetà, ireki zaitetz. Ez jarraitu gehiago zeure baitan triku eginik. Alabaina, hau guztia prozesu bat da, ibilbide bat. Ez da gertatzen batere gauza soil. «Zerura begira eta suspirioka» bukatzen den prozesu da. Izan ere, azken batean, erabat Jainkoari begira jartzen gaituen prozesua izan ohi da, haren esku baitago dena eta harengan jartzen dugu guk konfiantza. Effetà: hitz hori, jatorrizko arameeran, grabaturik gelditu zen ikasleen bihotzean eta gonbit-oihartzun konbentzigarri egiten da gure bihotzean. Ireki zaitetz inguratzen zaituen errealitatera... anai-arrebengana... hurbileko eta urrunekoengana... Horrela ireki ahal izango diozu Jainkoari bihotza.

Urteko 5. astea.

San Benigno, *martiria*.San Kastor, *apaiza eta ermitaia*.

[**Hasiera liburutik 3,9-24:** Jainko Jaunak Edengo baratzetik bota egin zuen gizakia, lurra landu zezan. **Sal 90 [89]:** Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,1-10.**

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer janik ez, Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; bada-ramate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen badituz, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta». Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade honetan hauek asetzeko adina ogi?»

Hark galdetu zien: «Zenbat ogi duzue?» Eta haiek erantzun: «Zazpi».

Orduan, jendeari lurtean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitaten. Haiek jendeari banatu zizkioten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zion.

Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituzten hondarrek. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta aldera joan zen.

Zazpi ogi eta arrain batzuk: ez dira gauza asko lau mila laguneko jendetza elikatzeko. Hor daukagu, beraz: alde batetik eskasia; bestetik ugaritasuna. Halaz guztiz, testuan, eskasiatik ugaritasunera igarotze hori ez da gertatu kantitatezko era hutsean. Begiratu errukitsu eta partekatua, gerta daitekeenarekiko irrika, lan partekatu eta ilusiozkoa... hori guztia da igarotze edo urrats hori posible bihurtu duena, egitea guri hain zaila iruditzen zaiguna. Azken batean, batuketa da kenketa baino gehiago. Hau guztia, bistan da, orokortu daiteke, gure eliz bizitzari aplikatuz. Eta, horrela, aintzat hartu ahal izango dugu Frantziskoren deia: ez dezagun utzi anai-arreba arteko maitasunaren ideala ostu diezaguten.

Urteko 6. astea.

San Zirilo, *monjea* eta San Metodio, *gotzaina*.

(*Europako Zaindariak*).

San Valentin, *martiria*.

§ Lebitarrena liburutik 13,1-2.44-46.

Honela mintzatu zitzaizen Jauna Moisesi eta Aaroni: «Norbaiti larruazalean handitua, zornadura edota orbaina ateratzen bazaio, legenarena bezalako zauria sortuz, Aaron apaizagana nahiz haren ondorengoetako apaiz batengana eramango dute. Legenarduna da; kutsaturik dago, eta hala aitortuko du apaizak buruan duen gaitzagatik.

Legenak jota dagoenak arropak urratuak eramango ditu, ilea harro eta aurpegia erdi estalirik, eta “kutsatua, kutsatua!” oihu egingo du. Gaitzak alde egin arte, kutsatua izango da eta bakarrik biziko, kanpalekutik aparte».

[Sal 32 [31]: Zu zaitut babesleku, askapen-kantuz inguratzen nauzu.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 10,31–11, 1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen.

Izan zaitetze nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez:

«Nahi dut, izan zaitetz garbi». Orduan bertan alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini

garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten».

Hura, ordea, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditzen zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Lebitarrena liburuko lege hertsia, jendeagandik bakan eta urrun bizitzera behartzen zutenak, hautsirik, lepradun bat Jesusengana hurbildu da. Ez du oihurik egin, egin behar zukeen bezala: «Kutsatua, kutsatua!», baizik eta apal-apal erregutu dio Maisuari: «nahi baduzu, garbitu nazakezu». Eta Jesusek... jakina, nahi duela! Berak ere lege hertsia haiek berak ere hautsiz, ukitu egin du lepraduna (bera ere kutsatu bihurtuz) eta sendatu. Eta ematen du, zeregin-trukaketa bat gertatu dela orduan. Orain Jesus da, lepradun izango balitz bezala, kanpoan gelditu behar duena, landan, nahiz eta jende askok jarraituko duen beragana joaten. Bere errukiak eta marjinatekin bat egin nahiak azken hauen zoria bere-bere egitera eragin diote. Gure miseria guztiak leporatu zituen Jesusek. Hebrearrei liburuak gogoratzen digu, Jesus kanpamendutik at hil zela (jaio ere hiritik at jaio zen: «ez zen lekurik haientzat ostatuan»), eta hari bidera irtetea gomendatzen digu, kanpamendutik at, haren laidoa lepoan hartuz, hau da, berak hain berea zuen jarrera imitatzea, lurreko marjinatei bidera irtenez, ahal den neurrian haien zoria, azken batean Jesusena bera dena, partekatuz.

Urteko 6. astea.

Santa Jovita, *martiria*.

San Klaudio de la Colombière, *apaiza, jesuita*.

[**Hasiera liburutik 4,1-15.25**: Kainek Abel bere anaiari eraso zion eta hil egin zuen. **Sal 50 [49]**: Eskaini esker onezko oparia Jainkoari.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,11-13.**

Aldi hartan, fariseuak etorri eta Jesusekin eztabaidan hasi ziren. Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten azpikeriaz. Jesusek, barrutik hasperen eginez, esan zien: «Zer dela-eta ari da gizaldi hau seinale eske? Benetan diotsuet: Gizaldi honi ez zaio seinalerik emango».

Eta, haiek utzirik, berriro txalupara igo eta bestaldera abiatu zen.

«**S**uspirio sakon bat eginez...». Desengainu bat? Gogaiturik, beti gauza berari aurre egin behar izateagatik? Kontua da, haiek bertan behera utzi eta beste ertzerara joan zela. Gure fedeari laguntza emango lioketen —edota sorraraziko luketen— zeinuen bila ibili ohi gara; kontuan izan gabe, gure fedea dela Jainkoa alde guztietan presente eta jardunean ikusten duena. Federik ez baduzu, zeinurik ere ez duzu ikusiko: noiz jabetu behar dugu horretaz? Jesus bera ere ez zen gai izan Nazareten miraririk egiteko, bere herritarren fede-faltagatik. «Ez da Jainkoaren izaerakoa mirariak egitea, zeren eta (esaten dutenez), egiten dituenean, ezin gehiagoan egiten baititu», esan zuen Gurutzeko Donibaneak.

Urteko 6. astea.

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*.Santa Juliana, *birjina eta martiria*.

[*Hasiera liburutik 6,5-8; 7,1-5.10*: Egin dudan gizakia suntsitu egingo dut mundutik. *Sal 29 [28]*: Bere herria bedeinkatuko du bakea eman ez Jaunak.]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,14-21.*

Aldi hartan, ikasleei ogia hartzea ahaztu zitzaion, eta bat bakarra zeukaten ontzian. Jesusek ohar hau egin zien: «Begira gero! Kontuz ibili fariseuen eta Herodesen legamiarekin».

Haiek, berriz, eztabaidan ari ziren elkarrekin, ogirik ez zutelako. Konturatu zen Jesus eta esan zien: «Zer ari zarete ogirik ez duzuela eta? Oraindik ez al duzue ulertzeko adimenik? Hain burugogorak al zarete? Begiak izan, eta ez al duzue ikusten? Belarriak izan, eta entzuten ez? Ez al duzue gogoan, bost mila gizonen artean bost ogiak banatu nituenean, zenbat saski bete zenuten hondarrekin?» «Hama-bi», erantzun zioten. «Eta lau mila gizonen artean zazpi ogiak banatu nituenean, zenbat otarre bete zenuten hondarrekin?» Erantzun zioten: «Zazpi». Orduan, Jesusek: «Eta oraindik ere ez duzue ulertzen?»

Ez, Jauna, ez gara iritsi ulertzera edota zuri ulertzera. Egia esan behar badizut, bizitza luze guztia ere ez litzateke aski izango, zuri ulertzeko. Guretzat, zure bizitza eta zure irakaspena ozeano handi bat bezalako dira, zeinetan ihes egiten baitigu hondoak. Aurkikuntza berri oro berehala bihurtzen zaigu bilatze berriagotara jotzeko gonbit. Horregatik, «ulertzen dut» esatea, ezer ez ulertzea da eta, okerrago dena, horretaz ez ohartzea. Den-dena prozesu da, ibilbide, bide. Hori bai, zure pazientzia agortezina eta zure egundoko txera sostengu ditugula, eskerrak eman nahi dizkizugu. Gaurkoz honekin aski: geure burua zaintzea ogi onik ematen ez duten legamietatik. Eta zuri eskatzea, izan zaitezela zu zeu eguneroko ogia, zeu zarena, emango diguna.

§ Joel profetaren liburutik 2,12-18.

Hau dio Jaunak.

«Itzul zaitetze nigana bihotz-bihotzez,
barauz, negarrez eta doluz.

Urta itzazue bihotzak, ez soinekoak;
itzul zaitetze Jaunagana, zeuen Jainkoagana,
bihozbera eta errukitsua baita,
haserregaitza eta maitasun handikoa,
bere mehatxuez damutzen dena.

Agian atzera egin eta damutuko da,
eta bedeinkatuko zaituzte ostera,
labore- eta isurtze-oparia eskain diezaiozuen
Jaunari, zeuen Jainkoari.

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkontza-gelatik, emaztea ezkontza-ohetik.

Negar egin bezate atari eta aldare bitartean
apaizek, Jaunaren zerbitzariak.

Esan bezate: “Barka, Jauna, barka zeure herriari;
ez utzi lotsatan zeure ondarea,
ez dezatela mendera atzerritarrek,
ez dezatela esan beste herriek:

Non dute, bada, beren Jainkoa?”»

Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

[Sal 51-[50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5,20–6.42.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizue-

gu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginali-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Errautsa ezartzearen errituaz hasten dugu Garizuma. Errautsa ikustean, galde egiten ahal dugu: izango ote surik errauts hauen azpian? Bidelagun izango dugu galdera hau Garizuma osoan. Barauarekin, irekirik uzten saiatuko gara premia, asea delakoaren zirkulua (eskuarki, zorrotz itxirik egon ohi dena). Gehiago irekiko gara (limosnarekin) premia handiagoa duten anai-arreben aurrean. Eta honek bide emango digu «besteago», Jainko-Maitasun, den Besteari bidera irteteko (otoitzean). Orduan, azkenean, Pazko Gau-beilan, eliza askotako ilunean sua piztuko dugunean, aldarrikatu ahal izango dugu: bai, bada surik errauts hauen azpian! Jesus berpiztuaren sua! Piztuko dugun sua «gau ilun batean, antsiaz, maitasunez sutuan».

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (5. zatia)

(otsailaren 9tik dator)

Egituraren eliztar konbertsioa Oinarriko Eliztar Kristau Elkarte Txikietatik abiatuz. Elkarte Txikia eliztar egitura bat da, Elizaren egitura-oinarria, hain zuzen. Honetan izaki bakoitza pertsona bilakatuz doa, pertsona arteko erlazio primarioaren bidez, anaia eta arreba bezala. Egitura honetan pertsona fededun bakoitza ebanjelizatuz doa bere maila pertsonalean. Honetan pertsona fededun bakoitza lider bilakatuz doa partekatutako eta txandakatuzko lidergoak eta ministerioak bere egin eta baitaratuz. Elkarte Txiki hau oinarria da; beronetan txertatzen da bera baino lehenagokoa den familia-elkartea, eta Elkarte Txiki honetatik abiatuz eraikitzen dira Elizako gainerako Elkarteak, beren parrokia- eta elizbarruti-mailan. (segida otsailaren 22an).

[Deuteronomio liburutik 30,15-20: Bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut gaur aurrean. Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztu egingo da».

Eta esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak salbatu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?»

Gauza argia da, Jesusi ez zaiola axola, inolaz ere, «entzuleen indizea». Hasteko, egiati mintzo zaigu, itzulingururik gabe. Eta esan digu, ikaslea ez dela maisua baino handiago. Are gehiago, ikaslearen ohorea, hain justu, maisuaren zoria partekatzean datzala. Bere ondorioak ditu honek: Jesus «sufritzeaz» mintzo bada, ikasleari «egunero bere gurutzea hartzea» dagokio. Jesus «gaitzetsia bada», ikasleari «bere buruari uko egitea» dagokio. Maisua erail badute, ikasleari ere «bere bizia galtzea» egokituko zaio. Baina, azken hitza herioarena ez delako, Jesus «piztu bada», ikasleak ere, hari esker, «salbatuko du bere bizia».

Garizuma: Hausterre ondokoa.
San Konrado Confalonieri, *ermitaua*.

[Isaias profetaren liburutik 58,1-9a: Hau da Nik maite dudana baraua.
Sal 51 [50]: Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-15.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kendo dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau».

Garizumako jarduera bakar bat ere ezin izan da autorreferentziala, ezin izan du erreferentzia norbera. Otoitza ez da bakarriketa, baizik eta «adiskidetasun-harreman» (Teresa Jesusena). Limosna ez datza «medailak ipintzean», pobreekiko geure solidaritateaz harro eta geure burua gainerakoak baino zuzenagotzat emanez. Barauak ez digu eragiten biziera aszetikoago bat bizitzera ere... Jarduera hauek guztiek geure «geu»tik irtetera eragiten digute. Garizumako prefazio bat «garizumako basamortuko irteeraz» mintzo zaigu. Hau da kontua: nor bere baitatik, nor bere «neu»tik, irtetea, premian den hurkoaren bila joateko... eta Bestea den harekin topo egitera. «Gogora beza gizakiak, hainbatez aurreratuko duela zenbatez irten baita bere buru-estimutik, bere nahieratik eta bere probetxutik» (Loiolako Ignazio).

Garizuma: Hausterre ondokoa.
San Leon, *gotzaina*.

Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, anai-arrebak, *santuak*.

[Isaias Profetaren liburutik 58, 9b-14: Erakutsiezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan. Sal 86 [85]: Erakutsiezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,27-32.

Aldi hartan, Jesusek Lebi izeneko zergalari bat ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark, dena utzirik, zutitu eta jarraitu zion.

Lebig bazkari handia eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera zergalari eta bestelako jende asko zegoen mahaian. Fariseuak eta haien lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zergalari eta bekatariekin?»

Jesusek erantzun zien: «Ez dute osasundunek sendagilea behar, gaixoek baino; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

Gaixo zaudela jakitea da lehen urratsa sendatzea lortzeko. Izan ere, ohartarazi egiten gaitu horrek sendagileagana joan beharra dugula. Bekatari zarela jakitea ere grazia-esperientzia da, eta ez esperientzia itogarri, edo antzeko zerbait. Zeren eta, bekaturako joeradun garelako ohartarazteaz gain, jabearazten gaitu, eta honetaz batez ere!, zenbateraino gaituen Jainkoak maite. «Bekatua ugari zen lekuan, are ugariago agertu zen grazia». «Oi zorioneko errua». Horregatik, ez da harritzekoa uste hau: merezi duela Errukiaren xede garelako ospatzea, Levi zerga-biltzaileak egin zuen bezala. Eta, agian, bereziki, esperientzia bera bizitzeko izangairik egokienak direnekin egiten bada.

Garizumako 1. astea.

San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

§ Hasiera liburutik 9, 8-15.

Egun haietan, Jainkoak esan zien Noeri eta honen semeei: «Hara, ituna egiten dut zuekin eta zuen ondorengoekin, baita zeuekin dituzuen bizidun guztiekin ere: hegazti, abere eta lurreko piztiekin, ontzitik atera eta lurrean bizi diren guztiekin. Hona, zuekin ituna eginez, ematen dizuedan hitza: ez duela uholdeak berriro bizidunik hondatuko, ez dela aurrerantzean izango lurra suntsituko duen uholderik».

Jainkoak esan zuen gainera: «Hau da zuekin eta zuen artean bizi diren bizidun guztiekin belaunaz belaun eta betiko egiten dudan itunaren ezaugarria: neure ortzadarra ipiniko dut hodeietan, eta hura izango da lurrarekin egiten dudan itunaren ezaugarria. Nik zerua lainotzean, ortzadarra agertuko da hodeietan, eta oroituko naiz zuekin eta bizidun guztiekin dudan itunaz, eta ez da izango gehiago bizidunak suntsituko dituen uholderik».

[Sal 25 [24]: Zure bidexka guztiak grazia eta leialtasuna, Jauna, zure ituna gordetzen dutenentzat.]

§ San Pedroren 1. gutunetik 3,18-22.

Senide maiteok: Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko, «errugabeak errudunengatik», zuek Jainkoagana eramateko. Gizakia zenez, heriotza jasan zuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik. Espirituaren eraginez joan zen bere mezua hots egitera giltzapetuak zeuden espirituei, garai batean sinesgogor izan zirenei; Noeren egunetan, hark ontzia egin bitartean, Jainkoa pazientziaz egon zitzaien zain; baina ontzian banaka batzuk bakarrik, zortzi lagun guttira, izan ziren uraren bidez salbatuak.

Ur hura orain zuek salbatzen zaituzten Bataioaren irudi da. Eta Bataioa ez da gorputzeko zikina garbitzea, baizik eta Jainkoari kontzientzia garbia eskatzea, Jesu Kristoren piztueraren bitartez. Jesu Kristo,

Garizumako 1. astea.

San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

zerura igo ondoren, Jainkoaren eskuinaldean dago eta menpean ditu aingeruak, aginteak eta indarrak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,12-15.

Aldi hartan, Espirituak basamortura bultzatu zuen Jesus. Berrogei egunetz egon zen basamortuan, Satanasek tentatzen zuela. Basapiztien artean bizi zen eta aingeruak zituen zerbitzari.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Bete da epea, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona».

Bere historiaren hasieran, basamortura eragin zion Israel herriari Espirituak. Eta, jendaurreko bere bizitzaren hasieran, Jesusi ere basamortura eragin zion Espirituak. Eta, gaur oraino, guri ere basamortura eragiten jarraitzen du. Basamortuan nork bere buruarekin topo egiten du, bere mugak haztatuz. Baina, agian honengatik beragatik, Jainkoarekin topo egiteko lekua da basamortua. Basamortuan ikasi zuen Israelek Jainkoa zuela bere Jainko eta Jainkoaren herri zirela berak. Jesusez esaten digute ebanjelioek, piztia artean bizi zela eta aingeruak zituela zerbitzari: bere bizia kendu zioten etsaiei egin behar izan zien aurre, nahiz eta azken hitza ez zen izan hiltze hau, baizik eta bizi berpiztua. Eta guk ere basamortura eraman gaitzan beharra du, geure buruarekin topo egiteko eta Jainkoak bihotzera hitz egin diezagun (profetek kantatu zutenez). Irten da, orde, Jesus basamortutik eta hurbildu den Erreinuaren Berri Ona hots egiteari ekin dio. Hots egite hori «aldi zakarretan» egin da (Joan Bataiatzailea atxilotu berria dute). Guk ere entzunarazi behar dugun hots egitea da, ez jarrera oportunistaz (geuri egokiena zaigun bezala eta uanean), baizik eta gainerakoek egiaz behar dutenari begira.

Garizumako 1. astea.

San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia.

Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*.

[San Pedroren 1. gutunetik 5,1-4: Haiek bezala arduradun eta Kristoren sufrimenduen testigu naizen honek. Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara —harkaitza—; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

San Pedro Erromara iritsi izana ospatzen dugu gaur. «Ut unum sint» entziklikan, 1995ean argitara emandakoan, Joan Paulo II.a aita santuak zioen, jakinaren gainean zegoela, ezen Erromaren Primatua —batasunaren seinale eta berme dena—, halaz guztiz, oztopo bat zela katoliko ez diren kristautzat (UUS, 88), eta bilatu beharra azpimarratu zuen —nola artzainen aldetik hala teologoen aldetik— «Primatua praktikatzeko era bat, beraren misioaren funtsari inolaz ere uko egin gabe, egoera berri batera ireki dadin» (UUS, 95). Erregutu dezagun, «ministerio petrinoa», hain emankorra azken pontifizegoetan, lagungarri izan dadin Elizarekin batasunerako (zeinen ikonoa Hirutasuna baita: batasuna aniztasunean).

Garizumako 1. astea.
San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia.
Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*.

Pedroren besaulkia ez da Moisesena bezalakoa. Azken honetan, Jesusek salatu zuenez, gauza bat zen esatea eta beste bat, oso bestelakoa, egitea. Eta eskakizunak ezartzen zitzaizkien besteei, gero norberak beteko ez zituenak. Aitzitik, Pedrorean, norbera denaren eta norberak bizi duenaren testigantza fruitu da esatea. Honetan ez da hitz egiten haragiaren edo odolaren probetxuak eraginik, baizik eta Jesusi izaten zaion maitasunak bultzaturik. Eta ez da ibiltzen norberaren distiraren eta ospearen bila, baizik eta anai-arrebak fedean nola baietsiko eta nola adoretuko. Horregatik, bere ahuldadeak eta guzti, sostengu dugun arroka irmo dugu Pedroren besaulkia.

Garizumako 1. astea.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*.Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900), *dohatsua, fundatzailea*
(*Aingeru Zaindaria*).

[Isaias profetaren liburutik 55,10-11: Nire hitzak egingo du Nik nahi dudana. **Sal 34 [33]:** Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

«Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik».

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Gure otoitza Jainkoak hitz egiten duenaren isla da (batzuetan, oso motela). Jainkoaren Hitza fruiturik gabe itzultzen ez den bezala, asmotan izan zuena gauzatu gabe alegia, geure otoitza ere interpelatzaile dugu: otoitz egiten dugun bezala bizi eta joka dezagun. Bizitzak eta otoitzak batera, ados, joan behar dute, eta ez bata honela eta besteak bestela. «Esadazu nola duzun otoitz egiten eta esango dizut nolakoa den Jesusi jarraitzearen zure esperientziaren nolakotasuna». Gure Aita otoitza ez da hitzontzi aritzea, baizik eta seme-alabatasunaren eta anai-arrebatasunaren esperientzia sakona bizitzera konprometitzen gaitu. Horregatik, garrantzizkoa da, San Benitok bere araudian aholkatzen digunez, gogoak bat egitea ahotsarekin.

[Jonas profetaren liburutik 1,1-19: Ninivetarrak beren bide okerrekit itzuli. Sal 51 [50]: Zuk ez duzu gutxiensten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaizen: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat.

Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriarako hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena.

Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Bada Jonasen historian esapide esanguratsu bat. Galdetzen da: posible al da Jainkoak atzera egitea asmotan eta erabakia zuen gaitz bat gauzatzetik. Esateko moduak dira, baina Jainkoaren izaeraz eta jardueraz zerbait adierazten dutenak. Batzuetan ideia hain zurruneokoa izaten gara, non gauza guztien gainetik ezartzen baititugu, ez diegu ematen besteei aldatzeko aukerarik... eta azken hitza esperantzari uko egitea izaten baitugu. Jainkoa, aitzitik, aukera irekia da beti, eskua luze duena beti, esperantza bizi da. Etxetik ihes egin zuen seme haren aita bezalako, gaur bai eta bihar ere bai, semea noiz itzuliko atarian zainzain egon ohi zen hura bezalako. Honelakoa da Jainkoa! Eta honelako izan gaitezen nahi du.

Garizumako 1. astea.
 San Bitorino, *martiria*.
 Santa Valverga, *abadesa*.

[Esterren liburutik 14,1-3-5.12-14: Ez dut Zu beste laguntzailerik, Jauna. Sal 138 [137]: Dei egin nizunean, erantzun zenidan, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!

Honela bada, besteek zuei egitea nahi zenuketean guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena».

Eskatu... bila ibili... deitu... Eskari-otoitza «saio erabakigarri» izaten da gure fedearentzat. Zenbat aldiz eskatu dugu... bila ibili gara... eta dei egin dugu... eman ez digutelarik... aurkitu ez dugularik... eta ireki ez digutelarik? Hauxe da objekziorik sarriena, bestek eta guk geuk azaldua. Baina objekziorik erabakitzaileena (agian, geure buruari esatera ausartzen ez garena) beste hau da: ez dela batera erraza pobre garelako sentitzea eta zerbaiten edo norbaiten premia dugula uste izatea. Nahiago izaten dugu buruaskitasunean bizi: aski naiz ni neu. Eskari-otoitza praktikatzek nor bere baitatik husten laguntzen digu, Jainkoaz betetzen eta lagun hurkoari bidera irteten. Orduan ikusi ahal izango dugu nola hasten garen hartzen, aurkitzen eta nola diguten irekitzen.

Garizumako 1. astea.
San Alexandro, *gotzaina*.
San Porfirio, *gotzaina*.

[Ezeziel profetaren liburutik 18,21-28: Gaiztoaren heriotza nahi ote dut Nik, eta ez jokabidez aldatu eta bizitzea? Sal 130 [129]: Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitetz lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte»

Jesusek eskatu digu, ez gaitezela konformatu gutxienarekin, hau da, obligazio edo betebeharrak hutsekoa betetz, baizik eta izan gaitezela lege-maisuek eta fariseuek ziren baino zuzenagoak. Zergatik? Maitasunak beti neurrigabetasun pixka bat izaten duelako, neurritz gainera zerbait izaten duelako. Zerbait hori zertan datzan? Oron sustraira joatean datza, eta sustrai hori ez da gizakiaren bihotza baizik, egiten ahal dugun txar guztiaren eta on guztiaren sorleku den hori. Gainera, Jainkoaren maitasuna eta hurkoarekiko maitasuna bat egitean datza, zeren eta, izatez, bihotz bakarra daukagu eta bihotz bakar honekin maite dugu Jainkoa, maite dugu lagun hurkoa. Dena dugu maite, azken batean.

Garizumako 1. astea.

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*.

[Deuteronomio liburutik 26,16-19: Jaunari zeure Jainkoari sagaturiko herri izango zara. Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin oitotz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Langak ezartzeko, sailkatzeko, berezko jarrera dugu. Esaterako, (burla-haize apur batekin edo) hitz egin ohi dugu iparrak eta hegoaz, aberatsez eta behartsuez, biktimez eta borraroez, jende zuzenaz eta jende bekatariaz. Baina Jainkoak, zeruko gure Aitak, ez du ezartzen langarik sekula, jende onarentzat eta gaiztoarentzat irtenarazten du eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat eginarazten euria. Bera da geure bidean dugun helmuga, eta guk, beragana bide egiteko gonbita jaso dugunok, berak bezala jokatu beharko genuke. On-on izateko eskatzen digu, ez buruaskitasunak kutsatua izango litzatekeen ontasunez, baizik eta bere lehian sekula amore ematen ez duenaren, etsitzen ez duenaren, ontasunez. Bidean jasaten ahal ditugun erorikoak gorabehera.

Garizumako 2. astea.

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*.

§ Hasiera liburutik 22, 1-2. 9a. 10-13. 15-18.

Egun haietan, Jainkoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta dei egin zion: «Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jainkoak: «Hartzazu Isaak zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moriako lurraldera, eta eskaini iezadazu erre-opari, Nik erakutsiko dizudan mendi gainean».

Aita-semeak Jainkoak esandako lekura iritsi zirenean, Abrahamek aldarea eraiki zuen eta egurra prestatu. Eskua luzatuz, aiztoa hartu zuen Abrahamek bere semea hiltzeko. Baina Jainkoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun:

«Hemen nauzu». Aingeruak, orduan: «Ez luzatu eskua zeure semearen gainera, ez egin ezer. Ikusi dut Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra bera ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso eta ahari bat ikusi zuen adarretatik satraka artean kateatua; hartu eta erre-oparizat eskaini zuen semearen orde.

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hau dio Jaunak: Ala Ni Jainkoa! Horrela jokatu duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrek eta itsasbazterreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta etsaien hiriez jabetuko dira. Zure ondorengoen bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana egin duzulako».

[Sal 116 [115]: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizidunen lurraldean.]

§ San Paulok Erromatarrei gutunetik 8,31b-34.

Senideok: Jainkoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semea bera heriotzatik libratu ez, baizik eta gu guztion alde heriotzara eman zuenak, nola ez digu harekin batera dena dohainik emango?

Garizumako 2. astea.

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*.

Nork salatuko ditu Jainkoak aukeratutakoak, Jainkoak berak zuzentzat onartu baditu? Nork kondenatuko ditu? Jesu Kristok?, hil zenak?, piztu ere egin zenak?, Jainkoaren eskuinaldean dagoen eta gure alde otoitzean ari denak?

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,2-10.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eraman zituen haiek bakarrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurrak harturik zeuden.

Orduan, hodei batek estali zituen, eta ahots bat atera zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesu bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarri galdetzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen artetik pizte» hori.

Jesusen antzaldatzearen pasadizoa, beraren bizitza jada mehatxatzen duen gatazka-giroan gertatu da. Egoera honek koloka jar lezake ikasleen fedea; horregatik, sostengu baten beharra dute, Jesusi estu loturik gorde ditzan: «hau da nire Seme maitea: entzun berari». Guk ere horrelako pasadizoren premia izaten dugu Jesusi jarraitzeko bidean. Ez al da egia gizadia jasaten ari den hainbat eta hainbat drakmak desitxuratutako mundu batean bizi behar izaten dugula? Halakoetan errealtate horretan guztian nolabaiteko irudi bat sumatu

Garizumako 2. astea.

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*.

beharra izaten dugu. Esan diezaguten behar izaten dugu: «merezi du Erreinuaren eta haren baloreen alde apustu egitea. Ez da dena galdua. Jainkoak ez du etsitzen gure errealitate honen aurrean». Hartarako, haren irudiko egin gaitezen falta da, hau da, haren irudia koka dadila gugan, gero eta haren antzekoago izan gaitezen. «Aski izango da zure irudia nigan, ni eraldatu nazan» (Pedro Arrupe). Eta, horrela, desitxuratua itxura hartuz joango da gero eta gehiago. Are gehiago: itxura hartuz gertatzen da itxuragabetua antz itxuraturik gelditzea, beraren irudiko eginik, gauza guztietan Jainkoa eta Jainkoagan gauza guztiak ikusten ahal ditugun heinean. Bera gauza guztiak maitatzean eta gauza guztiak beragan.



MARTXOA / EPAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:
Ebanjelizazioa — Adiskidetzearen sakramentua

Egin dezagun otoi: Adiskidetzearen sakramentua sakontasun eraberrituz bizi dezagun, Jainkoaren mugagabeko errukia ahogozatzeko.



Garizumako 2. astea.

San Rosendo, *gotzaina*.

San Felix III.a, 48. *aita santua*.

San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*.

[Danielen Profezia liburutik 9, 4b-10: Guk bekatu egin dugu, gaiztoak izan gara. Sal 79 [78]: Ez gu erabili, Jauna, gure bekatuek merezi bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Izan zaitzete errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri bete, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Mateo ebanjelariak «on-onak» esaten duen lekuan, Lukasek «errukitsuak» dio. Eta, halaz guztiz, sakon ikusita, ez dira bi gauza desberdin; baizik eta, ematen duenez, bi ebanjelariak batak bestea argitzen dute. Izan ere, Jesusi jarraitzeak proposatzen duen «on-on» izateak ez du zerikusirik bihotz buruaskiduna eta bere buruaz konforme denak azaldu ohi duen harrokeriarekin. Jende on-ona, inoiz ere etsi gabe bere helmugara bide egiten duen hura da, bidean erorikoak jasan beharko baditu ere. Horregatik, pertsona on-onak aterpetu dezake bere baitan besteenganako gupida-jarrerarik. Eskuzabal gainera, zeren eta «maitasunaren neurria neurririk gabe maitatzea baita» (Clairvauxko Bernardo).

Garizumako 2. astea.

San Pedro Zuhigakoa, *gotzaina*.

Santa Atanasia, *aitorlea*.

[Isaias Profetaren liburutik 1,10.16-20: Ikasi on egiten, bila ezazue zuzenbidea. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamentu erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aukian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarrietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aukiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarria baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurtean inori “aita”, bakarria baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidaria” deitzen ere, bakarria baita zuen gidaria, Kristo.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

«**S**u eta kezko besaulkiaz» mintzo da Ignazio bere Gogo Jardunetan, «etsaien buruzagiaren» eserleku den hartaz. Horrelakoa da, egiaz, lege-maisuak eta fariseuen besaulkia. Erretzen duen sua irtetzen da hartatik eta itogarri den kea. Besaulki horretatik irtetzen dira, gainera, «sareak eta kateak», hau da, «nahasten duten» eta esklabutzen duten mezuak. Mezuak: solidaritate-falta eta ospari eta botereari emandako garrantzia dute ezaugarri. «Besaulki» honi guztiz kontrajarria da Jesusen eserlekua: leku «apal, eder eta graziaduna». Anai-arrebatasuna eta ikasle-kidetasuna ditu ezaugarri. Txikien eta apalen izaerakoa...; hain zuzen, lurra jabetzat hartuko duen jendearena.

Garizumako 2. astea.

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

[Jeremias Profetaren liburutik 18,18-20: Zatozte, jo dezagun Jeremias.
Sal 31 [30]: Salba nazazu, Jauna, zeure maitasunaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,17-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara igotzen ari zela, hamabi ikasleak aparte hartu eta esan zien bidean: «Begira, Jerusalemara igotzen ari gara eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute, heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko, iseka egin diezaioten, zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztuko da».

Orduan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariiek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Egiazko «gormutuen elkarrizketa» bezala... Jesus bere zoriaz mintzo eta Zebedeoren semeak (ama bitarteko dutela) Jesusi eskean, bere

Garizumako 2. astea.

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

Erreineru iritsiko denean biak bere ezker-eskuin ipin ditzan... «Boterekuoten» arazoa», argi hitz egiteko. Baina... Jesusek galdetu die: gai al zarete nik edan behar dudan kaliza edateko? Hau da, nire zorian partaide izateko? Irribarre eginarazten digu ikasleen erantzun biribilak («bai, gai gara»), gogoan izanik Jesusen nekaldikoan gauzak nola gertatu ziren. Benetan, ez genuke eman behar hain erantzun bat-batekorik, zein den galdegilea kontuan izanik. Funtsezko gauza: ikasleak ospeaz eta botereaz mintzo diren unean, azkena eta zerbitzari izateaz mintzo da Jesus.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (6. zatia)

(otsailaren 17tik dator)

Oinarriko Eliz Elkarte Txiki hauekin –IKUSI, JUZGATU eta EKIN– metodologiaz, Proaño gotzainak lortu zuen bere Elizbarrutian, Pobretik abiatuz, Herria eta Eliza, maila pertsonalean eta egiturarenean, Elkartearekin Gotzain bilakatzea. «Presentzia etengabeokoaren pastoraltza» da, eta ez «bisita iragankorreko edo noizean behingo» pastoraltza. Emakume indigena batek nazioarteko sinposio batean osoko saio bat koordinatzen duenean, aldaketa egiazaturik ageri ohi da. Prozesu honetan osagarri eta laguntza gisa, inoiz ez haren ordezko gisa, Proaño gotzainak Elizbarrutiko Formazio Erakundea sortu zuen. Maila goragokoan, IPLA (Latinamerikar Erakunde Pastoral) zegoen Kiton. Lagungarri izan zuen Landa Irratia (Radio Campesina) ere, tresna oso hezitzailea. Aurreko horren lekuko naiz. CELAMaren (Latinamerikar Gotzain Kontseilua) Pastoraltza-taldeko Departamentuko Idazkari Exekutiboa izan nintzen Proaño Gotzaina CELAMen Presidente izan zenean.

Gotzainekin, beraiengan eta beraien elkartean, «eliztar konbertsio pertsonalaren eta egiturazkoaren prozesua»: horra bidea Elizak gaur egungo eskakizunei erantzun ahal diezaien, nola Amazonian hala lur planetako beste leku guztietan. (segida martxoaren 4an).

Garizumako 2. astea.
San Kasimiro, *aitorlea*.

[Jeremias Profetaren liburutik 17,5-10: Madarikatua konfiantza gizakiagan duena. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena. **Sal 1**: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituena. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten.

Hontan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: «Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra uretan busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan».

Baina Abrahamek erantzun zion: «Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere».

Aberatsak berriro: «Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badituz eta; jar ditzala jakinarene gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezene». Abrahamek erantzun zion: «Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaietela». Hark berriro: «Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirateke».

Baina Abrahamek erantzun zion: «Moisesi eta profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere»».

Garizumako 2. astea.
San Kasimiro, *aitorlea*.

Hona aberats bat, izenik gabea: urlia bat. Behartsuak bai, behartsuak badu izen bat: Lazaro. Aberatsa purpuraz jantzia; Lazaro zaurik josia. Aberatsak eguna joan eguna etorri otordu handiak; Lazaro soberakinak jango lituzkeenik. Hil da Lazaro eta ohore artean sartu da Abrahamen egoitzan; hil da aberatsa ere eta, besterik gabe, lur eman diote. Bien zoria alderantziz jarri da: aberatsa eskale bihurtu da eta laguntza eskatu dio Lazarori edota bere anaiei abisua emateko, beraren azkena izan ez dezaten eta bera dagoen lekura etor ez daitezen. Ezinezkoa: bien artean egundoko leizea dago. Eta leize hau gizakiaren bihotzean dago. Aldatzeko deia jaso duen bihotza da, aipatu bezalako gauzak errepika ez daitezen.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (7. zatia)
(martxoaren 3tik dator)

Samuel Ruiz gotzaina. Chiapas, Mexiko. +2011-01-24. Apaizgai oso otoizlaria izan zen, oso buru-argia, esanekoa eta beldurtia. Apaizgaitegi Nagusian zela, Erromara bidali zuten biblia-ikasketarako, eskakizun handiko zeregina. Oso ondo burutu zuen eta apaizgaitegiro irakasle itzuli zen. Handik gutxira, artean oso gazte, errektore izendatu zuten. Otoizlari, buru-argi, esaneko, Joan XXIII.ak gotzain izendatu zuen baimendutako adin txikinean, 35 urteko zela, bere-bere egoitzadun, San Cristobal de la Casasen, Chiapas, Mexiko; eskualde guztiz indigena zen kasik, oso behartsua eta zapaldua. Iristean, agintari zibil eta militarrek eta lurjabe aberats handiek ohorez onartu zuten; ohitura zen. Ez zuen batere zail izan indigena behartsua hurbiletik ikustea iritsi eta laster, oso behartsu ziren. Hori izan zuen hasierako talka, oso ohartuki onartu zuen eta bere eliztar konbertsiora eraman zuen horrek pixkana gure gotzaina, pobregan Jesus bera defendatzen duen Eliza bezala, Samuel gotzainak berak komentatu ohi zuenez. (segida martxoaren 5ean).

Garizumako 2. astea.

Santa Oliva, *birjina eta martiria*.

San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

[*Hasiera liburutik 37,3-4.12-13a.17b-28: Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. Sal 105 [104]: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21.33-44.45-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”.

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta gureztat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?»

Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaiari fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia».

Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua atarako dion herri bati emango zaio».

Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburu eta fariseuak, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat baitzeukaten.

Bai zaila dela nor bere egiarekin konparaturik ikustea! Mahastia errentan eman zien nekazari horiek bezalako gara; mahasti horretako

Garizumako 2. astea.

Santa Oliva, *birjina eta martiria*.

San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

fruitu bat zuzenbidez eskatzen ahal digu jabeak. Are gehiago: mahasti hori bera gara, jabeari hainbat eta hainbat gau galdu eragin izan diogunak. Jabe horrenak gara, ez gara geure buruaren jabe. Zer dela-eta ditugu guk horrenbeste oztopo, eskatzen ahal digun fruitua emateko? Hainbat eratakoak izan daitezkeen oztopo... Hitz batean esateko, zein zaila den geure bizitzaren egiarekin konparatu gaitzaten uztea! Eta Jesusen egiarekin: garai batean harri gaitzetsia eta orain zimentarria. Bera dela medio, mundu honetan zapuztu eta baztertu izan direnak «gure zimentarri» izatera igaro dira.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (8. zatia) (martxoaren 4tik dator)

Handik laster, Joan XXIII.ak Vatikano II.a kontzilioa estreinatu zuen eta Samuel gotzaina partaide izan zen; Kontzilio Guraso gazteenetakoa zen. Kontzilio-saioak prozesu hazkorra izan zuen Samuel gotzainarentzat ere: talka eta argi prozesu hazkorra, eskakizun handikoa baina oso osasungarria. Bere-bere egin zuen Samuelek kontzilio-prozesu hori, beragan pobreak jadanik hasia zuen «eliztar konbertsioa» argitzen ziolarik.

Kontzilioa amaiturik, CELAMen (Latinamerikar Gotzain Kontseilua) abiada lasterra berrartu zuen Latindar Amerikan Kontzilioa ezartzeko. Samuel gotzainak gonbita jaso zuen parte hartzeko Misionen Departamenduko kide gisa. CELAMen, kontzilio ondoko udaberri hartan, sendotu egin zen Samuelen «eliztar konbertsioa», Jesus eta pobrea erdigune zirela.

Medellinen, latinoamerikar gotzainek han egindako Batzarrean, 1968an, CELAMek antolatuan, Samuel gotzainak atal eta txostengile bezala parte hartu zuen. Agerian utzi zuen bere «eliztar konbertsioa». (segida martxoaren 23an).

Garizumako 2. astea.

Santa Rosa Viterboko, *birjina*.

San Marziano, *gotzaina*.

[Mikeasen Profezia liburutik 7,14-15.18-20: Itsas hondora botako ditugure bekatu guztiak. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.

Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen.

Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”.

Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrena eta jantz iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua,

Garizumako 2. astea.

Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*.

San Marziano, *gotzaina*.

nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deituta, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”.

Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”»).

Ez da beste parabolarik hobeto islatzen duenik, ez Jainkoa nolakoa den, ez gu nolakoak garen Jainkoarekin eta gainerakoekin. Berdinka gaitzke anaia nagusiarekin: dena ondo egiten du, baina ez da gai bizitzako pozez gozatzeko, eta ez da gai bere anaia aintzat hartzeko («zeure seme hau», esan dio aitari. Honek, bere aldetik, gogarazi beharra izan dio: «zeure anaia hau»). Edota berdinka gaitzke anaia gaztearekin: heriotza opa dio aitari (ondarea eskatuz). Alferrik galdu du dena. Itzuli da, etxean hobeto bizi ohi delako. Erdian, aita: beti zain-zain, errietary egin gabe, hunkiturik. Bi anaietan islaturik, gero eta gehiago aitagan islatzeko deia egin digu Jesusek eta «aita» eta «anaia» esaten ikasteko.

Garizumako 3. astea

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*.

§ Irteera liburutik 20,1-17.

Egun haietan, Jaunak hitz hauek esan zituen: «Ni naiz Jauna zure Jainkoa, Egiptoko lurraldetik, esklabotzatik, atera zintuena. Ez izan Ni beste jainkorik.

Ez egin idolorik, ez irudirik, goiko zeruan, beheko lurrean edota lurpeko uretan direnetatik. Ez ahuspeztu horien aurrean, ez eman gurtzarik ere. Ni, Jauna zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut, hirugarren eta laugarren gizaldiraino; baina milagarren gizaldiraino agertzen diet errukia Ni maite nautenei eta nire aginduak gordetzen dituztenei.

Ez erabili alferrik Jaunaren, zeure Jainkoaren, izena, Jaunak ez baitu zigorrik gabe utziko haren izena alferrik erabiltzen duenik.

Izan gogoan larunbat eguna, Jaunari sagaratzeko. Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginkizun guztiak burutuko. Baina zazpigarren eguna atsedeen-eguna duzu, Jaunari, zeure Jainkoari, eskainia. Egun horretan ez duzu batere lanik egingo, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak, ezta zure herrian bizi den etorkinak ere. Zeren Jaunak sei egunean egin baitzituen zeru-lurrak, itsasoa eta horietan dagoen guztia, eta zazpigarrenean atsedeen hartu baitzuen. Horregatik, bedeinkatu egin zuen Jaunak larunbata eta egun sakratutzat ezarri.

Aintzat hartu aita-amak, luzaro bizi zaitezen Jaunak zeure Jainkoak emango dizun lurraldean. Ez hil inor. Ez egin adulteriorik. Ez ostu. Ez egin gezurrezko testigantzarik lagun hurkoaren kontra.

Ez irrikatu lagun hurkoaren etxerik, ez haren emazterik, ez morroirik, ez neskamerik, ez idirik, ez astorik, ezta beste ezertxo ere».

Garizumako 3. astea
Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*.

[Sal 19 [18]: Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 1, 22-25.

Senideok: Juduak ezaugarri eske dabilta eta jentilak jakinduria bila; guk, berriz, Jesu Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, juduentzat onartezina eta jentilentzat zorakeria dena; baina deituentzat, judu izan ala ez, Kristo hori Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakinduria da. Zeren Jainkoaren zorakeria omen dena gizakiak baino jakintsuago baita, eta Jainkoaren ahuleria gizakiak baino indartsuago.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2, 13-25.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaiak, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarriz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaia irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutuko nau».

Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?» Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

Hilen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

Pazko-jaiak Jerusalemen egon zen bitartean, askok sinetsi zuen Jesusengan, egiten zituen ezaugarriak ikusita. Jesus bera, ordea, ez zen haietaz fidatzen, denak ezagutzen baitzituen; ez zuen hark gizakiaren

Garizumako 3. astea

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*.

berri inork eman beharrik, ongi ezagutzen baitzuen gizakiaren barruan dagoena.

Tenpluko sistema oso konplikatua zen Jainkoagana iristeko. Sistema bat, hurbildu baino gehiago jendea urrundu egiten zuena. Jesusek errukirik gabe salatu du hura. Zergatik? Zein seinale eman digu horrela jokatzeko? Ez gehiago eta ez gutxiago: bere gorputzaren tenpluaren seinalea, gurutzean hautsia, piztuerakoan aintzatsu azaldua. Eta gehitzen ahal genituzke: gure hainbat eta hainbat anai-arrebaren «gorputzen tenpluen» seinaleak, gurutzeetan hautsiak, zeinetan beraiekin zuzena izan ez den bizitzak zintzilikatu baititu; halere, ageri dutelarik jadanik piztueraren testigantza hainbat solidaritate-seinaletan eta hain sarri agertzen duten bizitzeko pozean. Honek guztiak, bai, hurbiltzen gaitu gu Jainkoagana eta Jainkoa gugana. Juduek (aldi guztietako jende erlijioso) seinale bila dabilzan bitartean, eta greziarrak (aldi guztietan bere burua «arrazoiduntzat» duen jendea) «zentzutasun» bila dabilzan bitartean, guk Jesus gurutziltzatua hots egiten dugu, batzuentzat gure geldotasuna astintzen duen eskandalu eta besteentzat «beste mundu posible batez» mintzo zaigun zorakeria. Gure arrazoia, esperantza ooren aurka, esperantzaz bizitzeko mundu batean, azken batean maitasunak kudeatuan!

[2 Erregeak 5,1-15a: Bazen legenardunik asko Israelen; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik. Sal 42 [41]: Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,24-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen. Eta sinagogan jendeari esan zion: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

«**B**eraien artetik aurrera joan zen». Geure artean eduki izan dugu bera, geure herrian, eta ez dugu ezagutu! Gizakiaren ezaugarri diren paradoxa arraro haiengatik: Jainkoa, zenbat eta gehiago hurbildu gugana, orduan eta ez-gaiago izaten gara gu berari antzemateko. «Zuekin dago eta ez duzue ezagutzen... Jauna du bere izena». Naaman lepradunak, siriarrak, bezala, Jainkoa geure bizitzan era ikusgarrian agertzea... espero izaten dugu... baina dena gauza soilagoa izaten da! Orduan bera urrundu egiten da gugandik, gu berari bidera irteteko geure ebidentzia eta errutinatatik «urrundu» egin behar izaten dugun bezala. Eta, horregatik, bera aurkitzen dugunean, geure baitara «itzultzen» gara, baina jada ez norbera bakarrik, baizik eta marjinatu eta baztertu genituen guztiekin batean.

Garizumako 3. astea.

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.

San Paziano, *gotzaina*.

[Danielen Profesia liburutik 3,25.34-43: Bihotz-damuz eta gogo apalez gatozkizu: har gaitzazu onez. Sal 25 [24]: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordainiezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaialako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizian, borrheroen esku utzi zuen, zor gutzia ordaindu arte.

Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Garizumako 3. astea.

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.

San Paziano, *gotzaina*.

«**B**arkatu» aditza, hizkuntza askotan, ez euskaraz, era pasiboan jokutzen dute nagusiki, norbaitek barkatu digula esateko. Izatez, Jainkoak bakarrik barkatzen ahal du eta, bera lagun izanik, geuk ere barkatzen ahal diogu lagun hurkoari. Gainera, muga guztien gaineratik barkatzen digu Jainkoak. Hau guztia horrela izango ez balitz, orduan ezin saihestu izango genuke nolabaiteko gailentasun-sentimendu bat, barkatu izan diogun jendearekiko edota nolabaiteko erresumin bat, esaldi ezagun honetan ageri ohi denez: «barkatu bai, baina ahaztu ez». Ez da esan nahi barkatzeak berekin duela ezinbestean ahaztea, ahazteak barkazioa txikiago egingo balu bezala. Gertatzen da, guztiok Jainkoak barkatu dion elkarte bateko kide garela; gainera, egunero hau otoizten duen batekoak: «barkatu gure zorrak, geuk ere barkatzen diegun bezala».

Garizumako 3. astea.

San Alexandro, *martiria*.

Santa Maria Eugenia Milleret,
fundatzailea (Jasokundeko Erlijosak).

[Deuteronomioa liburutik 4,1.5-9: Gorde itzazue eta bete nire aginduak. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriez, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

«**M**aitasuna da legearen bete» (Paulo). Eta «bere-berea du Maitasunak beheratzea» (Lisieuxko Teresa). Maitasuna ez da hegaldatzen bizitzako detaile txikien gainean, halakoez burlaka. Aitzitik, maitasunak maite ditu zertzelada txikiak, atsegin du «azken letra edo azken tileta». Ez du uzten aintzat hartu gabe malko bakar bat ere, sufrimendu bakar bat ere, maite duen jendearen pozaldi bakar bat ere. Barre dagi barrez ari direnekin eta negar negarrez ari direnekin. Txikiek (azkenak direnek) bakarrik ulertzen dute maitasunaren hizkuntza. Handi-mandi izan nahi dutenei edota lehen postuak antsiatzen dituztenei gauza ezdeus iruditzen ahal zaie hau guztia. Horrela bihurtzen dira txiki (Jainkoaren begietan), diren eta handienak izan arren munduaren begietan.

Garizumako 3. astea.
Santa Aurea, *abadesa*.
San Eutimio, *gotzaina*.

[Jeremias Profetaren liburutik 7,23-28: Hona Jaunaren, bere Jainkoaren, mintzoa entzun ez duen herria. Sal 95 [94]: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 14-23.

Aldi hartan, gizon bat mututurik zeukan deabrua botatzen ari zen Jesus. Deabrua atera bezain laster, mutua hizketan hasi zen. Jendea harriturik gelditu zen; batzuek, ordea, honela zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanask ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenek, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapatutako ondasunak.

Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du».

Jainkoaren Erreinua kontraesan-zeinua da. Jesus bera bezalaxe (horrela profetizatu zion Simeon agureak Mariari): «Jainkoaren Erreinua iritsi da gugana; halere, batzuk harritzen badira ere, beste batzuek diote: Jesusek deabruak uxatzen baditu, «Beeltzebulen indarrez egiten

Garizumako 3. astea.
 Santa Aurea, *abadesa*.
 San Eutimio, *gotzaina*.

du». «Jainkoaren Erreinua iritsi da, bai, zuengana», bai... Baina egia al da gure bihotzera iritsi dela? Zenbat oztopo, batzuetan! Ukatzeraino, behar izanez gero, begi-bistakoa duguna bera ere. Zeinu-eskariari zoro-zoro utsiz; azken batean, konfiantza eta buru-eskaintza egin nahi ezta. Beharrezkoa dugu eskatzea, «bataiatu ditzala» gure izatearen eremurik gordeena ere. Azken batean, berarekin egon beharra dugu, berarekin batean mundu osoa elkartzeko (eta ez barreiatzeko).

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (9. zatia)

(martxoaren 5tik dator)

Samuel gotzainak bere buruarekiko «eliztar konbertsioa» bere barruan zeraman eta bere azalean. Zerbitzari, ezer piramidalik gabeko, solaskide, entzule, pobre eta pobrearen defendatzaile. Horrelakoa zuen bere barnea eta horrela islatzen zen azalean. Neurritsu bere etxebizitzaz, jantzi klerikalik gabeko janzeraz. Titulurik gabeko, Samuel zen soil-soilik askorentzat, On Samuel beste batzuentzat. jTatik maia herritarrentzat, beren artekotzat hartu zutelarik. Hiru maia-hizkuntza hitz egitera iritsi zen, jadanik ezagunak zituen mendebaldeko zazpi hizkuntzez gain.

Samuel gotzaina, bere elkartarekin bat, eliztar konbertsioa lortuz joan zen bere Eliza Partikularreko, Elizbarrutiko, egituretan ere. Piramide konstantinoarreko zen hura elkarteen Elkarte bilakatzen joan zen. Ebanjelizazio haragitu eta bertako kulturako. Biblia itzultzen hasi ziren, indigenekin bat, berauen hizkuntzara, eta Liturgia egokitzen, ahal zen neurrian, puritanoen zorrozkeriaren erasoan. Frantzisko aita santua Chiapasera joan zenean, otoitz egin zuten Samuel gotzainaren hilobi haurrean, estreinatu zuen jada osorik egina zen Bibliaren itzulpena eta Eukaristia, zatirik handiena, maia-hizkuntzan ospatu zuten, une hartako gotzainaren eta apaizen ahotsez. (martxoaren 11tik dator).

Garizumako 3. astea.

San Nikodemo, *aitorlea*.

San Maximiliano, *martiria*.

[Oseasen Profezia liburutik 14,2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. Sal 81 [80]: Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guttiz eta indar guttiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guttiz eta indar guttiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobe dela esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Zuhaitzek basoa ikustea galarazten digutenean eta txikikeriez egindako eztabaidek garrantzizkora joatea oztopatzen digutenean, jo dezagun muinera: zein da Legeko agindu nagusia? Izatez, bi agindu proposatu erantzun dio Jesusek; hondo-hondoan, ordea, biak bat dira, sorburu beretik datoz, Jainkoa bat baita eta bat gure bihotzean ere. Agindu nagusia Jainkoa maitatzea da bihotz-bihotzez eta lagun hurkoa maitatzea, nork bere burua maite duen bezala. Eta «maitasuna hitzetan baino gehiago egintzetan datzanez», biziko ahal dugu eta entzungo ahal dugu, Jesusen laudorioa guri egina izateko moduan: «ez zaude urruti Jainkoaren Erreinutik».

Garizumako 3. astea.

Santa Eufrasia, *birjina*.

Santa Kristina, *birjina*.

San Silvano, *martiria*.

[Oseasen Profezia liburutik 6,1-6: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino. Sal 51 [50]: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,1-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren buruak zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulterioegile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”.

Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”

Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Fariseu hura «egintza onez beteegi» zegoen. Baina baita —agian, arrazoi horregatik— «bere buruaz beteegi» ere. Hainbesteko betetasun hark eragozten zion bere baitan txoko bat egitea, nola Jainkoarentzat, hala anai-arrebentzat. Aitzitik, guztiz kontrakoa gertatu zitzaion zerga-biltzaileari: bere buruaz erabat husturik zegoen. Oso kontziente zen bere bekatuaz eta bere ahuldadeaz. Horregatik, ez zen ausartzen zerura begiratzen ere, eta bular joka ziharduen... Nork jakin zenbat mespretxu jasan behar izan zuen txandako on usteko jendeagandik! Halaz guztiz, zerga-biltzaile hau itzuli zen etxera zuzenetsirik; beste hura, berriz, ez. Hain zuzen, nork bere buruaz hustu beharra du Jainkoari eta anai-arrebei abegi egiteko.

Garizumako 4. astea
 Santa Matilde, *erregina*.
 San Inozentzio, *gotzaina*.

§ 2 Kronikak 36,14-16.19-23.

Egun haietan, apaizburu guztiek eta herriak gaiztakeria gaiztakeriaren gain egin zuten, atzerritarren ohitura higuingarri jarraituz, eta kutsatu egin zuten Jaunak Jerusalem beretzat sagaratua zuen tenplua. Jaunak, haien arbasoen Jainkoak, oharpenak bidali zizkien etengabe bere mezularien bidez, erruki baitzituen bere herria eta bere egoitza. Baina haiek Jainkoaren mezulariei iseka egin, Jainkoaren hitzak gutxietsi eta haren profetak irriz hartu zituzten. Azkenik, Jaunak bere herriaren aurkako zuen haserreak gainezka egin zuen eta ez zen salbabiderik izan.

Orduan, babiloniarrek Jainkoaren etxea erre, Jerusalemgo harresiak bota eta jauregiei su eman zieten, eta hiriko gauza eder guztiak erabat hondatu zituzten. Ezpatari ihes egin zioten guztiak Babiloniara eramán zituzten gatibu, eta han erregearen eta haren ondorengoen esklabo izan ziren, harik eta pertsiarren erregealdia iritsi zen arte. Horrela bete zuen Jaunak Jeremias profetaren ahoz esandakoa: «Hirurogeita hamar urtez atsedén hartuko du lurralde honek, hondamen-aldiko egun guztietan, Jaunari ukatu zizkioten atsedén-urteak bete arte».

Pertiako errege Ziroren lehen-urtean, Jaunak Jeremiasen ahoz esana bete zen. Jaunak Pertiako errege Ziroren espiritua piztu eta Zirotik agindu hau zabaldu zuen, hitzez eta idatziz, erreinu osoan: «Honela dio Pertiako errege Zirotik: “Lurreko erreinu guztiak eman dizkit Jaunak, zeruetako Jainkoak, eta Judako Jerusalem berari tenplua eraikitzeko agindu dit. Beraz, zuen artean haren herriko diren guztiak izan bezate beren Jainkoak lagun eta igo bitez hara”».

[Sal 137 [136]: Nire mingaina ahosabaian itsats bekit, zutaz oroit ez banendi.]

§ San Paulok Efesoarrei 2,4-10.

Senideok: Errukian aberatsa den Jainkoak halako maitasun neurrigabeaz maite izan baikaitu, geure bekatuengatik hilda

Garizumako 4. astea

Santa Matilde, *erregina*.

San Inozentzio, *gotzaina*.

geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batean –onginahi hutsez zaudete salbatuak–, eta Kristo Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. Honela, Jesu Kristogan guretzat hain ona izanez agertu nahi izan die datozen gizaldiei, zein ugaria eta eskuzabala den bere onginahia.

Izan ere, onginahi hutsez salbatuak zaudete fedearen bidez; eta hori ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren dohaina da; ez dator egiteetatik, inor harrotu ez dadin.

Izan ere, Jainkoak eginak gara; hark sortu gaitu Kristo Jesusengan, on egiten saia gaitezen, Jainkoak guretzat alde zuretik erabakia zuen bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,14-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoia: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorrotoa dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldi ez daitezen. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Garizumako 4. astea

Santa Matilde, *erregina*.San Inozentzio, *gotzaina*.

Ostiral Santuko liturgia soilak une zirrargarria bizi ohi du, batzarburuak, elizan sartu, gurutzea batzarrari aurkeztu eta aldarrikatzen duenean: «hona hemen gurutzearen zuhaitza, munduaren Salbatzailea zintzilik eduki zuena!» Israeldarrek basamortuan egin ohi zuten bezala, sugeen mizto hilkorra zutenek suge-irudiari begira jarri eta sendatu egiten baitziren, gu ere, gurutzeari begira jarririk, aldi berean gerta gintezke zaurituak eta sendatuak. Zaurituak, gure anai-arreba asko nork bere gurutzetan josirik ikusi eta ikuskari hori guztia axolagabe kontenplaten dugula konturatzean. Jainkoaren «maitasun zoro» honek sendatu ditu anai-arrebak, horretarako berak den-dena eman duelarik, bere burua ere emateraino gurekiko maitasunez («hartaraino maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitio»). Eta hau guztia aldi berean: honetaraino iritsi da gure bekatua... eta honetaraino beraren maitasuna! «Bekatua ugari zen lekuan, are ugariago agertu zen grazia». Per cruce[m] ad lucem: gurutzearen bidez argira. Gurutzeari darion argia da juzkatzen gaituen argia, ez itsutuz, baizik eta beti gu gaingitzen gaituen errukira irekitzen gaituelarik. «Oi garaipena! Zu zara errege izango! Oi gurutzea! Zuk gaituzu salbatuko!»

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (10. zatia)
(martxoaren 11tik dator)

Samuel gotzainak inportatua zen apaiz-ministerioaren eliztar egiturazko konbertsioa egin nahi izan zuen, apaiz-ministerio autoktono indigena bihurtuz, bertako elkarte beraien fruitu gisa. Ez zuen usterik diakonotza iraunkorrean, ez ziolako aterabiderik ematen Eukaristia ospatzeko; gainera, laikoari kendu egiten ziolako jada lortua zuen apurra. Halaz guztiz, 400 diakono indigena ordenatzera iritsi zen. Izan ere, beti sumatu zuen diakonotza iraunkorra beharrezko etapatzat, maila antropologiko, historiko eta sakramentuzkoan, apaizgo autoktonorako, bere elkarte indigenetan. Hartarantz zihoan. Gotzain-talde batek, kolegio-mailan, indigenak apaiz ordenatzera jo nahi izan zuen. «Kolegio-ahalmeneko» ekintza hau berariaz aitortua zetorren Kontzilioaren Gotzainei buruzko Dekretuan (4. zenb.); Gotzain-talde on bat ari zen «kolegio-ahalmen» hau lantzen, indigenak apaiz ordenatzeko. (segida martxoaren 15ean).

Garizumako 4. astea.

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak).*

[Isaias Profetaren liburutik 65,17-21: Ez da han gehiago entzungo negar-zotirik, ez garrasirik. Sal 30 [29]: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4, 43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak aitortua zuen, profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Hala ere, Galileara iritsi zenean, galilearrek harrera ona egin zioten. Izan ere, Jerusalemen izanak ziren berak ere eta ikusiak zituzten Jesusek Pazko-jaietan egin zituen guztiak.

Jesu Galileako Kanara joan zen berriro, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen han errege-funtzionario bat, semea Kafarnaumen gaixorik zeukana. Funtzionarioak, Jesus Judeatik Galileara etorri zela jakitean, harengana joan eta bere semea sendatzera jaisteko eskatu zion, hilzorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Ezaugarriak eta egintza harrigarriak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten». Baina errege-funtzionarioak berriro: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek esan zion: «Zoaz etxera, onik duzu-eta semea». Gizonak sinetsi egin zuen Jesusek esana eta joan egin zen.

Etixerakoan, morroiak atera zitzaizkion bidera, semea onik zuela esanez. Orduan galdetu zien zer ordutan hasi zen oneratzan. Eta haiek erantzun: «Atzo eguerdiko ordu batean utzi zion sukarrak». Konturatu zen aita ordu hartan esan ziola Jesusek: «Onik duzu semea». Eta sinetsi egin zuten Jesusengan berak eta etxeko guztiak.

Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezaugarri hau.

Jesu kexu da, zeinuak eta mirariak ikusten ditugunean bakarrik sinesten dugulako. Halere, ez du ematen kexa hau errege-funtzionario

Garizumako 4. astea.

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak).*

honetzat denik. Honek, bai, honek sinesten du Jesusen hitzean, inolako bermerik eskatu gabe. Horra bigarren urrats bat: Jesusen hitzean sinestea. Halaz guztiz, oraino beste urrats bat gehiago ere egin dezakegu: Jesusengan sinetsi, Jesusengan beragan. Zeren eta sinestea, egia batzuei, printzipio batzuei etab. adostasuna eskaintzea baino zerbait gehiago da. Sinestea pertsona batekiko atxikidura pertsonala da; kasu honetan, Jesusi atxikitzea. Sinestea nork bere burua Jesusi eskaintzea da. Sinestea Jesusi jarraitzea da. Kasu honetan, sinestea esperantzarekin eta maitasunarekin nahasten da. Mutiko epileptiko haren aitak bezala, otoitz egiten dugu: «sinesten dut, Jauna, baina handitu nire fedea».

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (11. zatia) (martxoaren 14tik dator)

Baina Kontzilioak, Paulo VI.ak eskaturik, baldintza hau jarria zuen aipatu Dekretuan: «Aita Santuak, gutxienez, baietsi dezala edozein kolegio-ekintza edota onar dezala askatasun osoz». Eta hau ezin lortu izan zen kasu honetan. Diakono horiek guztiak ziren benetan «viri probati», gizonezko frogatu. Ez, jakina, zentzu arruntean esan ohi den horietako: «agure sexu nekatutako». Gizatasun helduko eta pastoraltasun helduko gizaseme ziren, klerikalismo txikienetik urruneko, duintasun zaharkituriko janzkerarik eta titulurik gabeko. Zerbitzu-zentzu ereduzkoa zuten, kasu batzuetan heroismoraino iritsia. Formazio integral sendo eta jarraikian ari ziren hazten... Beraietako bakoitzaren emazteak eta seme-alabek maitasun-elkartea eratzen zuten, nola beraien artean hala besteekiko. Guztiak zeuden errotuak beren elkarteetan, hauetako partaide iraunkor ziren, pastoraltza iraunkorreko. Elkarteek Eukaristiaren beharra zuten. Hura gidatzeko izangai hauek «frogatuki» zeuden prest. Guztiak zuten jainkozko eskubidea. Baina eliz aginte gorenak eragotzi egin zuen.

Garizumako 4. astea.
San Hilario, *gotzaina*,
Santa Kolunba, *martiria*.

[Ezekielen Profezia liburutik 47,1-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik iriteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 46 [45]:** Jaun ahalguztiduna geurekin dugu, Jakoben Jainkoa gure gotorleku.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,1-3. 5-16.

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bada Jerusalemen, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituen. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrian etzanda: itsu, herren eta elbarri.

Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?» Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko nauenik; ni iristerako, besteren batek aurrea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta zabilta». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen.

Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauenak berak esan dit: “Hartu ohatila eta zabilta”». Orduan, galdegin zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?» Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean.

Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begira, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.

Garizumako 4. astea.

San Hilario, *gotzaina*,

Santa Kolunba, *martiria*.

Sendatu nahi al duzu? Baina... benetan? Ez da hau galdera erretoriko bat, «bai» biribil eta dudagabeko bat jakindakotzat emango lukeena. Izatez, kasu honetako gaixoaren aldetik, denak oztopo dira: luze da gaixo nagoela (hogeita hemezortzi urte besterik ez: huskeria bat)... ez dut nitaz arduratuko denik... gainera, saiatzen naizenean berandu iristen naiz... gainera, gaur larunbata da, egun sagaratua. Ez du merezi saiatzea ere. Ez al zaizu iruditzen? Ezezkoa izango da! Baina Jesusentzat ez dago galdua den arazorik. Pertsonak duenik eta alderik hoberenera jo du, esanez: altxa zaitetz, ez bizi arrastaka... har ezazu zeure ohatila, begira aurrez aurre paralizatzeko mehatxu duzun iraganari... eta ekiozu ibiltzeari.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (12. zatia) (martxoaren 15etik dator)

Samuel gotzaina, jTatik, min horrekin joan zen. Bere agurgutunean, adiskide batzuei bidalian, 2010-11-28an, Aitagana joan baino bi hilabete lehenago, idatzi zigun, otoitzean ari zela, «bere konbertsioak, indigenekin egindako esperientziek eraginak, azkeneraino jarrai zezan zuzentasunaren, egiaren, bakearen eta maitasunaren Erreinua eraikitzen». jTatik-en antzeko diren kristauak eta gotzainak dira Eliza eraikitzen ari direnak une erabakitzaile honetan, Amazoniarako eta mundurako Sinodo honetan gertatu behar duen bezala. (segida martxoaren 17an)

Garizumako 4. astea.
San Patrizio, *gotzaina*.

[Isaias Profetaren liburutik 49,8-15: Herriaren itun izateko izendatu zaitut, lurraldea berreraiki dezazun. **Sal 145 [144]:** Errukiorra eta bihozbera da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta Ni ere lanean ari naiz».

Esandako honengatik, juduak are gehiago zebiltzan Jesus hil nahian; larunbateko atsedena ez errespetatzeaz gainera, Jainkoa bere Aita zuela baitzioen, bere burua Jainkoaren pareko eginez. Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake ezer ere bere kabuz egin, Aita egiten ikusten duena besterik: Aitak zer egin, huraxe bera egiten du Semeak ere. Izan ere, Aitak maite du Semea eta berak egiten dituen guztiak erakusten dizkio, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, harritu egingo zaituztetan egintzak. Aitak hilak piztu eta bizia ematen dien bezala, Semeak ere bizia ematen die nahi duenei.

Aitak ez du inor epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, denek, Aita ohoratzen duten bezala, Semea ere ohora dezaten; Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen. Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza entzun eta bidali nauenagan sinesten duenak, betiko bizia du; ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igarora baita dagoeneko.

Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua, hobeto esan, iritsia da, hildakoei Jainkoaren Semearen ahotsa entzungo dutena, eta entzuten dutenak biziko dira. Aitak bizia bere baitan duen bezala, Semeari ere bizia bere baitan izatea eman dio. Gainera, epaitzeko ahalmena eman dio, Gizonaren Semea delako. Ez harritu esaten dizuedanaz; badator-eta ordua, hildako guztiak haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: ongia egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaizkia egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko.

Garizumako 4. astea.
San Patrizio, *gotzaina*.

Nik ez dezaket neurez ezer egin; Aitari entzun bezala epaitzen dut, eta nire epaia zuzena da, ez baitut helburu neure nahia egitea, bidali ninduenarena baizik».

«**N**ire Aitak lanean jarraitzen du eta ni ere lanean ari naiz». Ignaziok ere badio: «kontenplatu nola ari den Jainkoa lanean eta jardunean niretzat». Bibliak ere testigantza egiten du Jainkoa lanean ari dela kreaziokoan, urak lur lehorretik bereizi dituenen eta argia ilunetik, adibidez. Profetak ere Jainko buztingleaz mintzo zaizkigu, bere buztina txeraz zaintzen (eta gu geu gara buztin hori!). Eta kontaera historikoek Jainkoak bere herria «beso indartsuz eta esku luzez» gidatzen duela azaldu digute. Guk, berriz, Jainkoaren lanaren aztarna horiek aurkitzeko deia jaso dugu gegan, besteengan, historian eta kreazio osoan, parte hartuz eta bat eginez Jainkoaren lan horretan.

Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (13. zatia) (martxoaren 16tik dator)

Alvaro Ramazzini gotzain-kardinala, 72 urteko, Huehuetenago, Guatemala. Ikasle ona zen apaizgaitegian, Erromara bidali zuten doktoretza egitera. Ondo egin zuen eta irakasle itzuli zen eta oso garaiz egin zuten apaizgaitegiko errektore. Berez hiritar ingurumariko zen Guatemala hirian. San Markoseko gotzain izendatu zuten, eskualde oso pobrea zen. Laster hasi zen oinez eta zaldiz elizbarruti osoan zehar, «ikusten eta entzuten». Pobreak aldarazi zuen Ramazzini ere, eta «eliztar konbertitzen» joan zen, Eliza pobre eta pobrearen defendatzaile bihurtuz, bere burua arriskuan jarritz bazen ere. Eskuarki janzkera eta titulu klerikalik gabe; pobreen artean pobre zen. Huehuetenangora lekualdaturik, hura ere eskualde oso behartsua, bere «eliztar konbertsioaren» prozesuari eutsi zion, pobreen alde. (segida martxoaren 20an).

Garizumako 4. astea.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

San Raimundo Fiterokoa *abadea, Toledon hil 1163an*

(*Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan*).

[Irteera liburutik 32, 7-14: Egizu atzera, Jauna, zeure herriari egin diozun mehatxutik. **Sal 106 [105]**: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herri-ganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,31-47.

Aldi hartan, Jesusek esan zien judu-agintariei: «Nik neure bu-ruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste batek du nire alde aitormen egiten, eta jakin badakit hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela.

Zuek mandatariak bidali zenizkioten Joan Bataiatzaileari, eta hark aitormen egin zion egiari. Ez dut hau esaten inongo gizaki- ren aitormen-beharrrik dudalako, zuek salba zaitzeten baizik. Joan Bataiatzailea argi-zuzi piztua eta distiratsua zen, eta zuek, alditxo batez, poz hartu nahi izan zenuten haren argiaz.

Baina Nik badut Joanen aitormena baino hoberik: Nik betetzeko Aitak eman dizkidan egintzak; nire egintzek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzorik aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, hark bidaliagan ez sinestean erakusten duen bezala.

Aztertzen dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurki- tuko duzuelakoan, eta horiek dute, hain zuzen, nire alde aitormen egiten; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko.

Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi ezagutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite. Ni neure Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; norbait bere ize- nean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets deza- kezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola?

Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada salatuko zaituzten norbait: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
 San Raimundo Fiterokoa *abadea, Toledon hil 1163an*
(Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan).

Izan ere, Moisesi sinetsiko bazeniote, niri ere sinetsiko zenidakete, nitaz idatzi baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sinetsiko duzue nik esana?»

Guk Jesusekin topo egiteko laguntza jaso izan dugu; batetik, ezagutu dugun jendearen laguntza jaso izan dugu: zirrara eragin digun eta Jesusengana gidatu gaituen jendearena; bestetik, bizi izan ditugun gertaerek lagundu digute, markatu izan gaituztenek, batzuetan geure bizi-ibilbidean «iragan» bat eta «gero» bat seinalatu izan digutenek; hirugarren, hau guztia, pertsonak eta gertaerak, «irakurtzeko» eta interpretatzeko izan dugun gaitasunak, beti ere Espirituak inspiraturik eta Liburu Santuak irakurriz. Hauek guztiak izan dira Jesusen testigantza egin diguten eta beragana gidatu gaituzten faktoreak. On da eta bidezkoa bizi izandako historia hau guztia eskertzea. Eta eskatzea, geu ere izan gaitezela gai, geure hitzaz eta bizieraz, Jesusen testigantza egiteko, bihurtuz, Joan Bataiatzailea bezala, «argimutil dirdaitsu», Jesusengana beragana doan bidea argitzeko.

Garizumako 4. astea.

SAN JOSE, ANDRE MARIAREN SENARRA,

Jesusen Lagundiaren Zaindaria.

Santa Quintila, martiria.

§ 2 Samuel liburutik 7,4-5a.12-14a.16.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoeekin atsedan hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diet tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura.

Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

[Sal 89 [88]: Haren errege-jatorriak betiko iraungo du.]**§ San Paulok Erromatarrei 4,13.16-18.22.**

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zegokion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indarrari baizik. Beraz, agintzaria edo promesa, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balio du, legearen arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera bizi direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziartzten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan.

Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari eutsiz; horrela, herri askoren aita egin zen, Jainkoak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak».

Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,16.18-21.24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaino zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joresekin ezkontzeko hitzemandana zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatuta nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diezu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Nire bideak ez dira zuen bide eta nire egitasmoak ez dira zuen egitasmo. Zerua lurra baino gorago dagoen bezala, hala daude nire bideak eta nire egitasmoak zuenak baino gorago», aldarrikatzen dute antzinako Israelgo profeta-orakuluek. Egia dena da, ordea, Jainkoak gure bizitzan egiten duen parte hartzea, sarritan, oso txundigarria izaten dela. Nahasirik uzten gaitu. Nondik nora jo ez dakigula, eta dena bertan behera uzteko tentazioa sortzen zaigu, batzuetan ongiaren itxurapean agertzen den tentazio delarik. Halakoetan, zein mesedegarri gertatzen zaigun hitz hauek entzutea: «ez beldur izan...»! Eta, batez ere, bai on handia egiten digula geure ondoan sumatzea Jesusen presentzia adore emailea, gertatzen zaizkigun gauza guztietan dagoela. Egon behar dugun lekuan egoten laguntzen baitigu eta egin behar duguna egiten. Espantuka ibili gabe, baizik eta modu isil eta apalean. Horixe da Nazaretoko Josek egin duena, Eskriturak beti erreparorik gabe «zuzen» deitzen duen hark. Beti prest beste inor ez bezala. Isilik beste inor ez bezala, Misterioa adoratzan duen isiltasunaz. Leial beste inor ez bezala; jakinik, ordea, inork baino hobeto, bere leialtasun hori hondo-hondoan Jainkoaren leialtasunari esker onez emandako erantzuna duela.

Garizumako 4. astea.

San Eugenio, *martiria*.

Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena,
fundatzailea (Jesusen mirabeak).

[Jeremias Profetaren liburutik 11,18-20: Hiltzera daramaten bildots otzana bezala nintzen ni. Sal 7: Zugan babesten naiz, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,40-50.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzutean, hau zioten: «Hauxe da egiaz etortzekoa den profeta». Beste batzuek esaten zuten: «Hauxe da Mesias». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etor ote daiteke Mesias? Ez al dio Liburu Santuak Mesias Daviden jatorrikoa izango dela eta haren herritik, Betleemdik, etorriko dela?» Iritzi kontrajarriak zeuden, bada, jendearen artean Jesusi buruz. Batzuek atxilotu egin nahi zuten; baina ez zion inork eskurik gainean jarri. Guardiari apaizburu eta fariseuengana itzuli ziren, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?» Guardiari erantzun zieten: «Ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin».

Fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Si- netsi ote du harengan agintari edo fariseuetako batek ere? Baina legea ezagutzen ez duen jende hori madarikatua dago».

Orduan, Nikodemok, fariseu haietako batek, behinola Jesusengana joan zenak, esan zien: «Zilegi al da gure legearen arabera inor gaitzestea, berari entzun eta zer egin duen jakin gabe?» Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu Liburu Santuak eta ikusiko duzu Galilean ez dela inoiz profetarik sortu». Ondoren, nor bere etxera joan zen.

Eztabaidak Jesusi dagokionez: Mesias ote den... ez ote den... iruzurti bat ote den... ezina ote den Galileatik etortzea... Betleemdik etorri behar ote duen... Are gehiago, Nikodemoren hitz zuhurrei erantzun basatia eman diete! Batzuek preso hartu nahi dute, baina agindua bete behar zutenak Jesusen hitzak «harrapaturik» gelditu dira. Ondo asko

profetizatu zion Simeon agureak Mariari, Jesus «kontraesan-zeinu» izango zela. Eta hala izaten jarraitzen du. Ondorioa: «nor bere etxera itzuli zen», norberaren etxera. Gure ezbaiek banatu eta bereizi egiten dute jendea; fede-aitormenak, berriz, batu, bakoitzaren aldeak aintzat hartzen badira ere, baina jada ez dira ageri mehatxu bezala, baizik eta aberastasun bezala.

**Hiru pertsonaren eliztar konbertsio eredu (14. zatia)
(martxoaren 17tik dator)**

Bere Elizbarrutiaren pastoraltza-egitura ere konbertsio-prozesuan jarri zuen. Elizbarrutian ministerio-zerbitzari diren 10.000 Pastoraltza-egileengan nabari da hori, zeinen artean gotzaina gotzain anaia baita, oso atsegina bere harremanetan eta oso profeta pobretuaren defentsan hartzen dituen arriskueta. Pobreen artean pobre, Vatikanoko II.a kontzilioaren seme, Medellinen jarraitzaile; Frantziskok Kardinal egin du 2019ko urriaren 5ean. Poza eta esperantza gotzain hau Kardinal izatea. Baina ezin imajinatu dut kardinal-gona anakronikoz mozarroturik. Gustuko izango nuke beraren komentarioak entzutea, beti atsegin eta barre pozgarriz eginak.

Alvaro Ramazzini gotzaina Kardinal da, eliztar izaeraz Frantziskoren oso antzeko, bera ere latinoamerikarra, bera ere italiar deituraduna... 72 urte ditu, Elizaren eredu profetiko bezala biziak.

Garizumako 5. astea.

San Benito, *abadea, fundatzailea (beneditarrak).*

San Filemon, *martiria.*

San Justiniano, *gotzaina.*

§ Jeremias Profetaren liburutik 31 31-34.

Hau dio Jaunak: «Hara, badator Israel herriarekin eta Juda herriarekin itun berria egingo dudan garaia. Ez da izango, Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean haien arbasoekin egin nuena bezalakoa, haiek hautsi egin baitzuten nire ituna, Ni haien nagusia izan arren, dio Jaunak. Hona hemen etorkizunean Israelekin egingo dudan ituna, dio Jaunak: Barruan ezarriko diet neure legea eta bihotzean idatziko. Ni haien Jainko izango naiz, eta haiek nire herri izango dira. Ez dute elkarri irakatsi beharrik izango, “Ezagutu Jauna” esanez, denek, txiki nahiz handi, ezagutuko bainaute, dio Jaunak; barkatu egingo baitit gaitzakeria, eta haien bekaturik ez baitut ghiango gogoan izango».

[Sal 51 [50]: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu niregan.]

§ Hebrearrei gutunetik 5,7-9.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiar dar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erre gu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten gutzientzat.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,20-33.

Aldi hartan, jaietan Jainkoari kultu ematera igo zirenen artean, baziren greziar batzuk ere. Hauek Galileako Betsaidako Felipe gana hurbildu eta eskabide hau egin zioten: «Jauna, Jesus ikusi nahi genuke». Andresi esatera joan zen Felipe, eta biek, Andresek eta Felipek, Jesusi esan zioten.

Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurrean erori eta

hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak.

Larri dut orain neure barrena, baina zer esan? Ordu honetatik ateratzeko eskatuko al diot Aitari? Baina honetarakoxe etorria naiz, hain zuzen, ordu honetarako! Aita, azaldu zeure izenaren aintza!»

Orduan, ahots bat entzun zen zerutik: «Azaldu dut, eta berriz ere azalduko dut». Han zegoen jendeak, ahotsa entzunik, trumoa izan zela zioen; beste batzuek, berriz, aingeru bat mintzatu zitzaiola.

Jesusek esan zien: «Ahots horrek ez du niretzat hitz egin, zuentzat baizik. Oraintxe da mundu honen epaiketa, oraintxe botako dute kanpora mundu honetako buruzagia; eta Nik, lurretik jasoko nautenean, neuregana erakarriko ditut guztiak».

Hitz hauen bidez, nolako heriotzaz hilko zen eman zuen aditzera.

«**J**auna, Jesus ikusi nahi genuke», esan diote greziar hauek Feliperi. Haiena bera da gure eskaria. Norekin egingo dute topo? Gizandi batekin, bizitzako gauza txikien gaineretik axolagabe hegaldatzen den batekin, beraien zoriari zurrun begiratzen dion batekin, bere buruaren jabe-jabe sentitzen delarik? Jesusek jaulki zituen hitzak kontuan hartuz, ez du ematen. «Neure arima larri dut. Zer esan nezake? Aita, libra nazazu ordu honetatik? Baina, ez al naiz ba honetarako etorri...?» Dударik ez, ez dute topo egingo, ez heroi batekin, ez gizandi batekin, baizik eta haragi eta hezur den pertsona batekin, «bere orduari» aurre egin nahi dion batekin, beldurra nagusitu zaiola ematen duen arren. Jesusekin egingo dute topo, ondo dakiena denarekin, ezen «gari-aleak, lurrera erori eta hiltzen ez bada ez duela fruiturik emango, baina hiltzen bada, fruitu asko emango duela». Gainera, ondo jakinaren gainean den Jesus batekin, ezen soilik «jasoko dutenean», gurutzera eta guztien begi-

Garizumako 5. astea.

San Benito, *abadea, fundatzailea (beneditarrak)*.

San Filemon, *martiria*.

San Justiniano, *gotzaina*.

bistara, «erakarriko dituela gizon-emakume guztiak beragana». Hitz batean esateko, topo egingo dute gure oso hurbileko den Jesus batekin; bere zoriari aurre egin diola jakinik, geuk ere hori egin behar dugula jakitean, bizi behar izaten dugun beldur berarekin. Jesus hau nahi dugu ikusi. Jesus honi nahi diogu jarraitu, Jesus honek gaitu erakartzen.

SAN BENITO NURSIAKOA

Gaur San Benitoz hitz egin nahi nuke. Mendebaldeko monakismoaren fundatzailea izan zen, eta nire pontifizegoko zaindaria. San Gregorio Handiaren esaldi batekin hasiko naiz. San Benitoz idaztean dioenez: «Jainkoaren gizon hau distiratsu izan zen lurrean mirari asko eginez; ez gutxiago, ordea, bere irakaspena adieraztean agertu zuen elokuentziaz» (Elkarrizketak II, 36). Gregorio Handiak 592an idatzi zituen hitz hauek; monje santua hila zen 50 urte lehenago eta artean bizirik zegoen jendearen oroitzapenean eta, nagusiki, fundatu zuen ordena erlijioso gorakorrean. Nursiako San Benitok, bere bizitzaz eta obraz, oinarrizko eragina izan zuen europar zibilizazioaren eta kulturaren garapenean (Benedikto XVI.a aita santuak).

Garizumako 5. astea.
 Santa Basilisa, *martiria*.
 Santa Erlinda, *aitorlea*

[Danielen Profesia liburutik 13,1-9.15-17.19-30.33-62: Errugabe izanik ere, hil beharra dut. Sal 23 [22]: Ibar beltz ilunean banabil ere, ez naiz gaitzaren beldur, Zu nirekin baitzaude.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,1-11.

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Biharamun-egunsentian, ordea, tenpluan agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus eseri eta irakasten hasi zitzaien.

Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten eta, erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zigun legean. Zuk zer diozu?» Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko.

Jesus, ordea, makurtu eta atzamarrez lurrean idazten hasi zen. Baina haiek galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zion: «Zuetan bekaturik gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria». Eta, berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. Haiek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharretatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek, zutiturik, esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?» Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin berriro bekaturik».

Jendearen garrasia: ezarri Legearen zama osoa! Nahiz eta ... Legea berari adina aplikatu beharko bailitzaiokeen jende horri berorri. Non dago Jesus? Garrasia, ez hipokresiarik gabea, beraz. Emakumea lur jota: estu eta larri, kondena noiz gauzatuko zain... Eta Jesus... idazten (zer!?)... arazoa berari ez balegokio bezala... Atsegina (hipokrita) bere

Garizumako 5. astea.
Santa Basilisa, *martiria*.
Santa Erlinda, *aitorlea*

burua inolako errurik gabeko sentitzen duenak; lur joa errudun dela dakiena. Horrenbestera iritsi gabe, inoiz jasana dukegu geuk ere hain kontrako diren sentimendu hauen gustu garratza... Jesusen erreakzioa? Batzuen bekatua seinalatzea («bekaturik gabe denak jaurti diezaiola lehen harria»)... eta damuturik eta umiliaturik dagoenari errukia azaltzea («nik ere ez zaitut gaitzetsiko. Zoaz eta ez egin gehiago bekaturik»).

Gure salbazioa Kristori esker

«Jaunak berak eman zigun geure salbazioaren seinaleztat Jainkoagurekin den hura, Birjinagandik jaioa; izan ere, Jauna bera zen salbatu zituena berez salbatzeko modurik ez zutenak [...]. Hala dio Isaiasek ere: Indartu esku ahulak, sendotu belaun dardaratiak; esan bihotz-koldarrei: “Eutsi gogor, ez beldur izan”. Begira, errebantxa dakar zuen Jainkoak, berbera dator eta salbatuko zaituzte; salbatu, geurez ez, baizik Jainkoaren laguntzaz behar baitugu salbatu» (San Ireneo, in Liturgia de las Horas I, 19 dic, pág 291).

Garizumako 5. astea.

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.

San Jose Oriol, *apaiza*.

[Zenbakiak liburutik 21,4-9: Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira. **Sal 102 [101]:** Entzun, Jauna, nire otoiiza, hel bedi zugana nire deiadarra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa, eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuan hilko zarete. Ni noan tokira zuek ezin zarete joan». Orduan, entzuleek esan zuten: «Bere burua hil behar ote du, ba? Horregatik esan ote du “Ni noan tokira zuek ezin zarete joan”?»

Jesusek jarraitu zuen: «Zuek behekoak zarete, Ni goikoa naiz; zuek mundu honetakoak zarete, Ni ez naiz mundu honetakoa. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuetan hilko zaretela; zeren, “Ni naizela” sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete». Orduan, esan zioten: «Nor zara Zu?»

Gertaera ezohiko eta salbuespenekoetan konturatu ahal izaten gara pertsonen balioaz. Horrelako gertaerei eman beharreko erantzuna ez da inprobisatzen, baizik eta heldutasun-prozesu luze eta patxadako baten fruitu izaten da. «Gizonaren Semea jasoko duzuenean (hau da, gurutzean josiko nauzuenean), orduan jakingo duzue ni naizela». Edota zein eta nolakoa naizen. Orduan jabetuko zarete, benetan, zertaraino iristen diren zuekiko nire maitasuna eta nire buru-eskaintza. Hau esan zuena, bere bizitza osoan, bere ezaugarritzat, maitasuna, hurbiltasuna eta buru-eskaintza, Jainkoarekiko eta gizon-emakumeekiko, bizi izan zituena zen. Hurbil ditugun egun hauetan esker onez kontenplatu ahal izango dugu hartu dugun hartarainoko maitasun hori Eta eskatu ahal izango diogu, kutsa diezagula beraren maitasun horren zatitxo bat, geuk, geure aldetik, besteei eskualdatu ahal izateko.

[**Danielen Profezia liburutik 3,14-20.91-92.95:** Jainkoak bere aingerua bidali du bere zerbitzariak libratzera. **Salmo: Dn 3:** Be-deinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa: Aintza eta gorespen Zuri gizaldietan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,31-42.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte».

Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nolatan diozu aske izango garela?»

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaboa ez da etxean betiko geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretela; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aitagandik ikasi duzuen egiten duzue».

Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aitak egiten duena egiten duzue».

Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite izango nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; Ni ez naiz neure kabuz etorria, hark bidalia baizik».

«Gu ez gara inoren esklabo»... «Abrahamen ondorengo gara»... «Jainkoa dugu Aita»... Ohikeriak topiko bihurtzen ditu egia handiak:

24

Asteazkena / Eguaztena

MARTXOA / EPAILA

Garizumako 5 astea.

San Segundo, *martiria*.

Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*.

San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*.

gure bizitzan ezertako egingarri ez diren topiko. «Libre gara», baina mila gauzak esklabotuak... «Jainkoa dugu Aita», baina ez dakigu anai-arreba bezala bizitzen... Beharrezkoa dugu geure «egia egiazkoenera» iristea, egiaz aske egiten gaituen egia bakar hartara. Eta Jesus da egia hau, baita bizia eta bizitza ere. Egia pertsonala da eta, batez ere, egia maitalea, batzuetan mingarri gertatuko bazaigu ere, gauzak zein bere izenaz esaten dizkigulako, disimulurik gabe, geure bizitzaren atean jotzen duena, begirunez eta maitekiro. Guri haztera eragiteko. Gu aske bihurtzeko.

Garizumako 5. astea.

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA.

San Dimas (*lapur ona*).

§ Isaías Profetaren liburutik 7,10-14.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaías profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean».

Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaíasek esan zuen:

«Entzun, Daviden etxe:

Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari?

Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue?

Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria.

Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du;

Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ Hebrearrei gutunetik 10,4-10.

Senideok: Zezenen eta akarren odolak ez ditzake bekatuak desegin. Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio:

«Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan;

baina gorputza eratu zenidan.

Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik

ez zenuen atsegin izan.

Orduan, esan nuen:

Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko;

hau dago Liburuan nitaz idatzia».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Garizumako 5. astea.
 JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA.
 San Dimas (*lapur ona*).

Lehenengo kultura kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zuek jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrear, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Emmanuelen, Jainkoa-gurekin-en, historia eguneroko bizitzaren normaltasunean hasi da, gizonik ezagutu ez duen birjina baten sabelean

Garizumako 5. astea.

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENEA.

San Dimas (*lapur ona*).

eta, horren aurretik, emakume baten agortasunean, ondorengo bat izateko ametsik egiteko edadetuegi den batenean. Bat-batean, dena antzaldatu da: normaltasun hits hau Jainkoaren begiratu graziazkoak inguraturik gertatu da... birjinaren sabelak erneko du... eta agortzat emandakoa sei hilabeteko dago jada. Jainkoarentzat ez baita ezinezkorik. Benetan, imajinatzen ahal ditugun giza egoera pobretuenetan agertu ohi da Jainkoa, eta ez du ematen prestaera handirik behar izaten duenik. Horixe du jarduteko era eta gurekin horrelaxe jokatzeko prest dago, baldin eta, Mariak bere «gerta bedi»rekin bezala, uzten badiogu jarduten.

Jaunaren Gizakundea

Eguberri-jaija baino bederatzi hilabete lehenago, Jaunaren Gizakundearen Adierazpena ospatzen dugu gaur. Andre Mariak gertakari horretan duen zerikusia handia izanik ere, Jainkoaren Hitzaz gizon egitearen misterioa ospatzen dugu, batik bat.

Erospenaren, hau da, pazko-gertakariaren hasiera den Gizakundeak agerian jartzen du hau: Jainkoak, maitasun hutsez, gizon-emakumeak salbatzeko asmoa duela. Jainkoaren Semea «gizon egin zen Maria Birjinaren sabelean». Aitari menpetasun-hitza emanez sartu da Kristo munduan; Mariak, berriz, «aingeruari entzunik, fedez onartu zuen eta bere sabel garbian maitasunez ekarri». «Jainkoak Israeli egindako agintzariak –promesak– eta gainerako herrialde guztien itzaropenak bete zituen».(Egunean Eguneko Ebanjelioa, Deustu, 2006).

Garizumako 5. astea.
San Braulio, *gotzaina*.
San Kastulo, *martiria*.

[Jeremias Profetaren liburutik 20,10-13: Neurekin dut Jauna, gudari indartsu. Sal 18 [17]: Neure larrialdian dei egin nion Jaunari, eta entzun zuen nire oihua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?»

Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, birao egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako».

Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: “Nik esan dut: jainko zarete”? Beraz, Jainkoak “jainko” esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukaezina da. Nola diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, Jainkoaren Seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez badituzte, ez sinetsi niri; baina egiten baldin badituzte, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan».

Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskuetatik. Berriro Jordanez beste aldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura.

Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Hau zioten: «Joanek ez zuen ezaugarririk batere egin, baina hark honetaz esan zuen guztia egin zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

Egoera tragikoa ez balitz, dibertigarria izango litzateke Jesusek arerioekin darabilen ironia: «egintza on asko egin dizkizuet. Haietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?» Ironia horrek argiro azaltzen du zeinen esku dagoen egoeraren nagusitasuna: Jesusen esku, alegia,

Garizumako 5. astea.
 San Braulio, *gotzaina*.
 San Kastulo, *martiria*.

eta ez arerioen esku. Jesusen nortasuna guztiz erreferentziala da, guztiz besteezikoa. Hau da, Aitari eta Aitaren mandatuz egiten dituen egintzei begira dago. Geuk ere, ez dugu predikatzen geure burua, baizik eta Jainkoa eta eguneroko geure bizitzan berak egiten duena. Azkenean, Jesus «atxilotu» egin nahi izan dute, baina «eskuetatik alde» egin digu hark. Izan ere, Jainkoa ez dugu aurkitzen geuk nahi dugun lekuan, baizik era berak nahi duen hartan.

«Keinu profetiko bat.

Elizaren historiara igaroko den gertaera bat» (1. zatia)

150 lagunek baino gehiagok, gotzain eta Jainkoaren Herriko kide, sinatu zuten Katakombetako Ituna 2019ko urrian, Amazoniako Sinodoa zela eta.

1965eko azaroaren 16an, Vatikanoko II.a kontzilioa amaitu baino hiru aste lehenago, 40 gotzain inguru elkartu ziren, era diskretuan, kasik klandestinoan, Santa Domitilaren Katakomban, Erroman, Helder Camarak arnasturik.

Aipatu lehen Itun hartan, gotzainek pobreekin bide egiteko konpromisoa hartu zuten, pobreezako Eliza ez ezik pobreen Eliza ere egiteko. Berak pobre bihurtzen saiatzeko, biziera soileko estiloa baitaratzeko erabaki zuten, pobreena bezalakoa, uko eginez, ez soilik botere-sinboloei, baita ageriko botereari berari ere (jauregi, mitra, makulu). Beren artzain-ministerioan, adostu zuten erabat pertsonen eta talde ekonomiko, fisiko, kultural eta moral ahulen eta azpigaratuen zerbitzuari emanik bizitzea. (jarraipena martxoaren 27an)

Garizumako 5. astea.
 Santa Lidia, *martiria*.
 San Ruperto, *gotzaina*.

[Ezeekielen Profesia liburutik 37, 21-28: Herri bakar bihurtuko ditut.
 Salmoa: Jr 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,45-57.

Aldi hartan, Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek Lazarorekin egina ikustean, harengan sinetsi zuen. Haietako batzuek, ordea, fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena kontatu zieten.

Orduan, apaizburuek eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute honengan, etorriko dira erromatarrek eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?» Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta herriaren alde ez ezik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten.

Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemera igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemera etorriak Jesusen bila zebiltzan eta, tenpluan topo egitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?» Apaizburuek eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala zieziela, atxilotu ahal izateko.

Jesus: kontraesan-zeinu. Ezbaian ari da jendea. Batzuek sinesten dute Jesusengan; besteek ez. Sinesten ez dutenek honela dute arrazoitzen: Jesusek koloka jarri ditu gure biziera eta gure leku santua. Koloka jarri

Garizumako 5. astea.
Santa Lidia, *martiria*.
San Ruperto, *gotzaina*.

ditu gure pertsona arteko harremanak eta Jainkoa ulertzeko gure era. Horrenbestez, Jesus garbitzeko erabakia hartu dute. Hiltzeko erabakia. Baina, horrela, nahi gabe, konturatu gabe, profezia bat betetzen ari dira; Jesus guztiengatik hilko delako profezia. Batzuenengatik eta besteengatik. Onartzen dutenengatik eta uko egiten diotenengatik. Barreiatuak diren Jainkoaren seme-alabak elkartzeko hilko da Jesus. Geure kanpoko harremanetan gertatzen den banaketatik eta geure barnean ematen denetik libratzeko.

«Keinu profetiko bat.
Elizaren historiara igaroko den gertaera bat» (2. zatia)
(martxoaren 26tik dator)

Aipatu Itun berria, berriz, ez zuten sinatu erdi klandestinitatean, baizik eta guztientzat zabalik zen eukaristia batean. Katakombetako Itun berri honi Vatikanoko II.aren espiritua dario, parresia (hitz egiteko askatasuna), sororitatea (ahizpatasuna), guztien etxearren defentsa, pobreekiko eta indigenekiko aukera. (Aktibatzea falta da. @ReligionDigit https://www.religiondigital.org/opinion/Exclusiva-RD-Pacto-Catacumbas-Comun_0_2169383041.html ...). (jarraipena martxoaren 28an).

§ Isaías Profetaren liburutik 50, 4-7.

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko.

Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan.

Jainko Jaunak belarria ireki dit,

eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masailak bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile; horregatik ez naiz kikildu;

horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

[Sal 22 [21]: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?]

§ San Paulok Filipinoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,

ez zion gogor eutsi jainkozko bere mailari;

bestela baizik, zegokion aintza utzi

eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion,

Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurrian eta lurrean,

eta mihi guztiek aitortu dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Markosen liburutik 14, 1–15, 47.

Aste Santua: Erramu.

San Sixto III.a, 44. aita santua.

Santa Gundelina, *abadesa*.

San Kastor, *martiria*.

*Jesus maltzurkeriaz nola atxilotuko
zebiltzan, hiltzeko.*

K Handik bi egunera, Pazkoa eta Legamiagabeko Ogien Jaia ospatzen ziren. Apaizburuak eta lege-maisuak Jesus maltzurkeriaz nola atxilotuko zebiltzan, hiltzeko. Baina hau zioten:

S «Ez gero jaiegunean, herrian iskanbilarik izan ez dadin».

*Aldez aurretik gantzutu du nire gorputza
hilobirako.*

K Jesus Betanian zen, Simon lepradunaren etxean. Mahaian zegoela, emakume bat etorri zen, hartzurizko ontzian nardoizko ukendu usain gozodun eta garestia zekarrela. Ontzia hautsi eta Jesusi burura isuri zion. Bartzuek, haserre, hau ziotsoten elkarri:

S «Zergatik horrela alferrik galdu lurrin hori? Hirurehun denarioz goitik sal zitekeen eta dirua behartsuei eman».

K Eta marmarrean ari ziren emakumearen aurka. Baina Jesussek esan zien:

† «Utziozue bakean; zergatik gogaitzen duzue? Egintza ona egin du nirekin. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean, eta nahi duzuenean on egin diezaiekezue; baina Ni ez nauzue betiko izango. Honek ahal zuena egin du: aldez aurretik gantzutu du nire gorputza hilobirako. Benetan diotsuet: Mundu guztian barna, Berri Ona hots egingo den toki guztietan aipatuko da honek egin duena, beraren oroigarri».

Judas Iskarioteri dirua agindu zioten.

K Judas Iskariote, Hamabietako bat, apaizburuengana joan zen, Jesus haiei eskura emateko asmoz. Hori entzutean, poztu egin ziren eta dirua agindu zioten. Eta Jesus haiei eskura emateko egokiera bila hasi zen Judas.

Non da ikasleekin Pazko Bildotsa jateko tokia?

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-eguna zen, Pazko Bildotsa hiltzen zuten eguna. Ikasleek galdetu zioten Jesusi:

S «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?»

K Hark ikasleetako bi bidali zituen, esanez:

† «Zoazte hirira, eta ur-suila daraman gizon bat aurkituko duzue; jarrai iezaiozue, eta sartuko den etxeko nagusiari esan: “Maisuak galdetzen du non duen ikasleekin Pazko Bildotsa jateko tokia”. Hark gela handi bat erakutsiko dizue goian, jantzirik eta atondua. Prestatu hantxe behar ditugunak».

K Joan ziren ikasleak eta, hirira iristean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena, eta pazko-afaria prestatu zuten.

*Zuetako batek saldu egingo nau,
nirekin jaten ari den batek.*

Ilunabarrean, joan zen Jesus Hamabiekin eta, mahaian afaltzen ari zirela, esan zien:

† «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau, nirekin jaten ari den batek».

K Haiek goibeltzen hasi ziren eta bata bestearen ondoren galdezka:

S «Nik ote?»

K Jesusek erantzun:

† «Hamabietako batek, nirekin plater beretik jaten ari denak. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz».

*Hau nire Gorputza da.
Hau nire Odola da, itunaren Odola.*

Aste Santua: Erramu.

San Sixto III.a, 44. aita santua.

Santa Gundelina, *abadesa*.

San Kastor, *martiria*.

K Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zaitu eta eman zien, esanez:

† «Hartzazue: hau nire Gorputza da».

K Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoitza esanez, eman zien, eta denek edan zuten bertatik. Eta esan zien:

† «Hau nire Odola da, itunaren Odola, askoren alde isuriko dena. Benetan diotsuet: Ez dut gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinuan ardo berria edango dudan eguna arte».

*Oilarrak bi aldiz jo baino lehen,
zuk hiru aldiz ukatuko nauzu.*

K Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendirantz atera ziren. Jesusek esan zien:

† «Guztion sinesmenak huts egingo du, honela baitago idatzirik Liburu Santuan: “Joko dut artzaina eta ardiak sakabanatu egingo dira”. Baina Ni, piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

K Orduan, Pedrok esan zion:

S «Beste guztien sinesmenak huts egiten badu ere, nireak ez».

K Jesusek erantzun zion:

† «Benetan diotsut: Gaur gauean bertan, oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu».

K Baina Pedrok gero eta areago:

S «Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko».

K Eta gauza bera esaten zuten guztiek.

Ikara eta larria sentitzen hasi zen.

Getsemani zeritzan landa batera iritsi ziren, eta Jesusek esan zien ikasleei:

† «Zaudete hemen, Nik otoitz egin bitartean».

K Pedro, Santiago eta Joan eraman zituen berekin. Ikara eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien:

† «Hiltzeko zorian nago tristuraz; gelditu hemen eta zaudete erne».

K Eta aurreraxeago joanik, lurrean eroria, otoizka ari zitzaion Jainkoari, urrun ziezaiola ordu hura, ahal bazen. Honela zioen:

† «Abba! Aita!, Zuk guztia dezakezu; urrun ezazu nigandik edari mingots hau. Baina ez bedi egin Nik nahi dudana, Zuk nahi duzuna baizik».

K Ikasleengana joan eta lo aurkitu zituen. Pedrori esan zion:

† «Simon, lo? Ordubete ere ezin izan zara erne egon? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitetzten: gogoz kartsu izan arren, ahula baita gizakia».

K Berriro aldendu eta otoitz egin zuen, lehengo hitz berak esanez. Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten; haiek ez zekiten zer erantzun. Hirugarren aldiz joan zitzaien eta esan zien:

† «Egin lo eta hartu atsedena! Nahikoa da! Iritsi da ordua: hona Gizonaren Semea bekatarien esku utzia. Jaiki, goazen, hurbil da salduko nauena».

Atxilotu eta eraman arduraz.

K Artean hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat; jende-taldea zetorren harekin, apaizburuek, lege-maisuek eta herriko zaharrek bidalita, ezpatak eta makilak eskuetan. Saltzaileak seinale hau emana zien:

S «Nik musu emango diodana, huraxe da; atxilotu eta eraman arduraz».

K Iritsi bezain laster, Jesusengana hurbildu eta esan zion:

S «Maisu!»

K Eta musu eman zion. Besteek heldu eta atxilotu egin zuten. Han zegoen batek ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta belarria moztu zion. Jesusek esan zion:

Aste Santua: Erramu.

San Sixto III.a, 44. aita santua.

Santa Gundelina, *abadesa*.

San Kastor, *martiria*.

† «Lapur baten bila bezalaxe etorri zarete, ezpata eta makilekin, Ni harrapatzera. Egunero zuen artean nintzen tenpluan irakasten, eta ez ninduzuen atxilotu. Baina hala izan behar du, Liburu Santuetan idatzia bete dadin».

K Ikasleek Jesus utzi eta ihes egin zuten. Gazte bat ondoren zihoakion, soinean izara bat besterik ez zuela, eta eskua erantsi zioten; baina hark, izara utzi eta ihes egin zuen biluzik.

*Zu al zara Mesias,
Jainko bedeinkatuaren Semea?*

Apaiz nagusiaren etxera eramán zuten Jesus, eta han bildu ziren apaizburuak, herriko zaharrak eta lege-maisuak. Jesusen ondoren joan zen Pedro, urrutitik jarraituz, apaiz nagusiaren jauregi barruraino. Eta morroiekin batera eserita, sutondoan berotzen ari zen.

Apaizburuak eta Batzar Nagusi osoa Jesusen kontrako lekukotasun bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko; baina ez zuten aurkitzen. Asko ziren haren aurka gezurrezko testigantza egiten zutenak; baina lekukotasunak ez zetozen bat. Batzuek jaiki eta gezurrezko testigantza hau egin zuten Jesusen kontra:

S «Guk entzun diogu esaten: “Nik desegingo dut giza eskuz egin-dako santutegi hau eta hiru egunean beste bat eraikiko dut, giza eskuz egin gabea”».

K Baina honetan ere ez zetozen bat haien testigantzak. Orduan, apaiz nagusiak, batzarraren erdian zutik, galdetu zion Jesusi:

S «Ez al duzu ezer erantzun behar? Zer dira zure kontrako salaketa horiek?»

K Baina Jesus isilik zegoen eta ez zuen ezer erantzuten. Apaiz nagusiak berriro galdetu zion:

S «Zu al zara Mesias, Jainko bedeinkatuaren Semea?»

K Jesusek erantzun:

† «Bai, Ni naiz, eta Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean eseria eta zeruko hodei artean etortzen ikusiko duzue».

K Apaiz nagusiak bere soinekoak urratu zituen, esanez:

S «Ba al dugu lekuko beharrik? Zeuek entzun duzue biraoa. Zer deritzozue?»

K Denek heriotza merezi zuela erabaki zuten. Batzuk listua botatzen hasi zitzaizkion eta, aurpegia estaliz, ukabilka erabili zuten, esanez:

S «Asma ezak, profeta!»

K Guardiek ere masailekoka zerabilten.

Ez dut ezagutzen zuek diozuen gizon hori!

Pedro beheko patioan zegoela, apaiz nagusiaren neskame bat etorri zen. Pedro berotzen ikusirik, begira-begira jarri eta esan zion:

S «Zu ere Nazareteko Jesusekin ibili ohi zinen».

K Baina hark ukatu egin zuen:

S «Ez dakit zer diozun ere, ez dizut ulertzen!»

K Kanpora, atarira, irten zen, eta oilarrak jo zuen. Ikusi zuen neskameak eta han zeudenei ere esan zion:

S «Hau horietakoa da».

K Pedrok berriro ukatu zuen. Handik laster, han zeudenek ere hala zioten:

S «Bai, zu ere horietakoa zara, galilearra zara eta».

K Pedro biraoka eta madarikazioka hasi zen:

S «Ez dut ezagutzen zuek diozuen gizon hori!»

K Eta berehala oilarrak bigarren aldiz jo zuen. Jesusek esana gogoratu zitzaion Pedrori: «Oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu», eta negarrari eman zion.

Nahi al duzue juduen erregea askatzea?

Aste Santua: Erramu.

San Sixto III.a, 44. aita santua.

Santa Gundelina, *abadesa*.

San Kastor, *martiria*.

Eguna argitu bezain laster, apaizburuak, herriko zaharrak eta lege-maisuak bildu ziren, Batzar Nagusi osoa, eta, erabakia hartu ondoren, Jesus loturik hartu eta Pilatori eskura eman zioten. Pilatok galdetu zion:

S «Juduen erregea al zara Zu?»

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

K Apaizburuak salatu eta salatu ari ziren haren aurka. Pilatok galdetu zion berriro:

S «Ez al duzu ezer erantzun behar? Begira zenbat salakuntza egiten duten zure aurka».

K Baina Jesusek ez zion gehiago erantzun, eta harriturik zegoen Pilato. Pazko-jai guztietan preso bat askatu ohi zuen Pilatok, herriak eskatzen zuena. Bazen espetxean Barrabas izeneko bat, matxinadakoan giza hilketa bat egin zuten beste matxinatuekin batean. Igo zen jendea Pilatoren jauregira eta ohitura zuena emateko eskatzen hasi ziren. Pilatok erantzun zion:

S «Nahi al duzue juduen erregea askatzea?»

K Bai baitzekien apaizburuek bekaitzez emana ziotela Jesus. Baina apaizburuek jendea berotu zuten, Barrabas askatzeko eska zezan. Pilatok berriro galdetu zion:

S «Eta zer egin behar dut juduen errege esaten diozuen horrekin?»

K Haiek, orduan, deiadarka:

S «Josi gurutzean!»

K Eta Pilatok:

S «Zer oker egin du, bada?»

K Haiek, gero eta deiadar handiagoz:

S «Josi gurutzean!»

K Pilatok, orduan, jendeari atsegin emateagatik, Barrabas askatu zion eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haiei eskura eman zion, gurutziltza zezaten.

Arantzaz egindako koroa ipini zioten buruan.

Gudariak Gobernariaren jauregi barrura eraman zuten Jesus eta gudari-talde osoa bildu zuten. Purpurazko jantzia ipini zioten soinean eta arantzaz egindako koroa buruan. Eta agurka hasi zitzaizkion:

S «Agur, juduen erregea!»

K Kanaberaz buruan jotzen zuten eta listua botatzen zioten eta, belaunikaturik, aurrean ahuspez jartzen zitzaizkion. Nahiko iseka egin ondoren, purpurazko jantzia kendu eta bere soinekoak jantzi zizkioten. Gero, atera eta gurutzean josteko eraman zuten.

*Golgota izeneko lekura
eraman zuten Jesus.*

Sorotik etxerakoan handik zihoan bat, Simon Zirenekoa, Alexandro eta Ruforen aita, gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota izeneko lekura eraman zuten Jesus (Golgota hitzak «Buru-hezur» esan nahi du).

Gaizkileen kidekotzat jo zuten.

Mirraz nahastutako ardoa eskaini zioten, baina ez zuen hartu. Gurutzean josi zuten, eta gudariak haren jantziak banatu zituzten, zer norentzat zotz eginez. Bederatziak ziren gurutziltzatu zutenean. Honela zioen kondenazioaren arrazoa adierazten zuen idazkunak: **JUDUEN ERREGA**. Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean eta bestea ezkerrean. Honela bete zen Liburu Santuak dioena: «Gaizkileen kidekotzat jo zuten».

*Besteak salbatu dizkik,
eta bere burua ezin salbatu.*

Aste Santua: Erramu.

San Sixto III.a, 44. aita santua.

Santa Gundelina, *abadesa*.

San Kastor, *martiria*.

Handik igarotzen zirenek irain egiten zioten Jesusi, buruari eraginez eta esanez:

S «Hara, santutegia desegin eta hiru egunean berriro eraikiko omen zuena! Salba ezak heure burua! Jaits hadi gurutzetik!»

K Era berean, apaizburuek ere, lege-maisuekin batean, burla egiten zioten, esanez:

S «Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin salbatu. Mesias eta Israelgo erregea omen duk; jaits dadila orain gurutzetik, ikusi eta sinets dezagun».

K Harekin gurutzean josiak zeudenek ere irain egiten zioten.

*Jesusek, deiadar handia eginez,
azken arnasa eman zuen.*

Eguerdian, ilundu egin zuen lurbira osoan hirurak arte. Hiruretan, Jesusek oihu handiz esan zuen:

† «Eloi, Eloi, lema sabaktani»,

K hau da:

† «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»

K Hau entzutean, han zeuden batzuek esan zuten:

S «Eliasi deika ari duk».

K Orduan batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion, esanez:

S «Egon, ea datorkion Elias, gurutzetik jaistera».

K Baina Jesusek, deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

**Hemen, belauniko jarri
eta egonalditxo bat egingo da.**

Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino. Aurrean zegoen erromatar ehuntariak, nola hil zen ikustean, esan zuen:

S «Benetan, Jainkoaren Semea zen gizon hau».

K Baziren han emakume batzuk ere, urrutitik begira; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joseren ama Maria, eta Salome; hauek Jesusen ondoren eta haren zerbitzuan ibiliak ziren, Galilean zegoela. Baziren beste emakume asko ere, Jesusekin Jerusalemera igo zirenak.

*Josek, harri bat irauliz,
hilobiko sarrera itxi zuen.*

Ilunabarrean–larunbat-bezpera zen egun hura, Pazko-jairako prestaketa-eguna–, Arimateako Jose Pilatogana joatera ausartu zen, Jesusen gorpua eskatzera. Jose hau kontseilu-kide ospetsua zen, eta Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zain zegoen. Harritu zen Pilato Jesus ordurako hila izateaz eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hila zen galdetu zion. Ehuntariaren argibideak jaso ondoren, gorpua eramateko baimena eman zion Joseri. Honek izara bat erosi eta, Jesus gurutzetik eraitsirik, izaran bildu zuen eta harkaitzean zulatutako hilobian ipini. Gero, harri bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen. Maria Magdalena eta Maria, Joseren ama, non jartzen zuten begira zeuden.

Ez nion kontra egin, ez nuen atzera egin, aldarrikatzen du Yahveren zerbitzariaren laugarren kantak (Is 50,5). Eta guk? Guk, ai ene, hainbat aldiz egin izan diogu aurka eta egin izan dugu atzera. Zenbat aldiz goratu izan dugun, jendetza bihotz-beroak bezala, gure bizitzara datorren Jauna (hosanna Daviden Semea!), baina azkenean, geroxeago, etsaiki, «gurutzera hori, gurutzera hori» oihu egiteko. Edota, Pedrok bezala, hitzeman izan diogu Jaunari: zurekin azkeneraino... baina azkenean, lehen arriskuan, uko egiteko. Aitzitik, hemen dugu gizon baten historia, Nazaretoko Jesusena, aurka egin ez zuena, atzera egin ez zuena. «Gure fedearen betetzaila», deitzen dio horrengatik Hebrearrei egindako idazkiak. Gizon bat, esan dugu, eta ez «gizandi» bat. Goitik behera hartu du gure gizatasuna. Horregatik, ahul, zauritu eta pobre da, eta hala

agertu da, gu bezalako. Baina, era paradoxikoan, beraren ahuldadeak ematen digu indarra guri. Beraren zauriek gaituzte sendatzen gu. Eta beraren pobretasunak gaitu aberasten gu. Gaur hasten dugu astea, kristau-liturgiako garrantzizkoena, zeinetan gonbita jaso baitugu Gizon honen misterioa kontenplatzeko. Harridura- eta miresmen-sentimenduz. Eta, batez ere, geu ere misterio honetan sartzeko asmoz.

«Keinu profetiko bat.

**Elizaren historiara igaroko den gertaera bat» (3. zatia)
(martxoaren 27tik dator)**

«Guztien Etxearen aldeko Katakombetako Itunak» dio: «Guk, Sinodo Pan-Amazoniarreko» partaideok, poz hau partekatzen dugu: herri indigena askorekin, kilonbolekin, ribereinoekin, migratzaileekin, periferiako elkarteekin bizitzearen poza.

Itun bietan, nola 1965ekoan hala 2019koan, Kontzilioko airea arnasten da, Joan XXIII.ak eta Paulo VI.ak gidatu zuten kontziliokoa, burubidetzat aggiornamentua eta leihoak zabalik izatea zuena.

Aste Santua.

San Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*.

[Isaias Profetaren liburutik 42, 1-7: Ez du oihu egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta zerbitzatzen ari zen, eta Lazaro Jesusekin mahaietan zeudenera bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat lurrin-usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen.

Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denarioan, eta dirua behartsuei eman?» (Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zuenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako.)

Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean; baina Ni ez nauzue betiko izango».

Juduetariko asko, Jesus Betanian zegoela jakinik, hara joan zen, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuen eta Jesusengan sinesten.

«**D**oakotasunaren logika» eta «kalkuluaren logika» aurrez aurre. «Kalkuluaren logika» ziztrina da beti, jarrera altruistak joa dela eman arren (diru hori behartsuei ematen ahal zitzaien, murmurikatu zuen Judasek, Iskariotek). Baina, hondo-hondoan, bere burua bakarrik du kezka. «Doakotasunaren logikak», aldiz, neurririk gabe ematen du,

Aste Santua.

San Konstantino, *abadea*.

Santa Gladys, *erregina*.

sufritzen ari denaz kezkatzen da eta inguruan duen guztia ziprizontzen du. Zeren eta zer izango litzateke gutaz gure bizitzari irmotasuna ematen dioten doako balio horiek gabe (maitasuna, adiskidetasuna, zerbitzua)? Gaurko ebanjelioak oharpen bat dakar bukaeran: Lazaro ere erail egin nahi dute. Beraz, Jesusengandik bizia hartzen dutenak ere herio-mehatxupean daude.

Betaniako igurtzia edo gantzuketa

Joanen arabera, Maria Betaniakoa da Jesus gantzutu duena. Judas, Jesus salduko duena, eskandalizatu egin da: zergatik alferrik galdu horrenbeste diru?, zergatik ez eman pobreei? Jesusek, aldiz, bere heriotzari eta hobiratzeari buruz egindako gantzutzetat hartu du Mariaren egintza. Ez du ematen Mariaren helburua horrenbestearaino iritsi denik; errespetua, esker ona eta maitasuna agertu nahi izan dizkio. Dena den, Mariaren asmoa gorabehera, beste esanahi bat eman dio keinu horri kristau-elkarteak: nahi gabe eta ohartu gabe, Jesusen heriotza eta aintzatzea iragarri ditu Mariak. Ez dute, alabaina, denek Mariaren jarrera bera agertu: judu-agintariek Lazaro bera ere hil egin nahi dute. Zergatik? Berau ikusi eta piztu egin dela jakite hutsak jendea Jesusengana gidatzen duelako. Jesusi eta ikasleei zer gertatuko zaien adierazten du horrek. Batzuek era batean, besteek beste batean ikusten dute Jesus. (Egunean Eguneko Ebanjelioa, Deustutik hartua).

Aste Santua.

San Joan Klimako, *abadea*.Santa Irene, *martiria*.

[Isaias Profetaren liburutik 49,1-6: Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. **Sal 71 [70]:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,21-33.36-38.

Aldi hartan, ikasleekin mahaian eseria zegoela, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begira jarri ziren, zeinez ari zen asmatu ezinik.

Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, haren ondo-ondoan zegoen mahaian. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarriz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?»

Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteren semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanas sartu zitzaion barrura.

Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna egizu berehal». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbait emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala atera zen. Gaua zen.

Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera.

Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan”».

Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?» Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuk ezin didazu jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu».

Aste Santua.

San Joan Klimako, *abadea*.

Santa Irene, *martira*.

Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zugatik». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nigatik? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

Saldukeria saretzen... Ukatua... Eman... Errepara diezaigun Jesusen bakardadeari. Eta nolako mesedea egiten duen bizitzako une hauetan maite zaituztenen hurbiltasuna sentitzeak! Izatez, «saldukeria jasatea» «besteren eskura emana» izatearen pareko da. Jesusen sakoneki egia ukitzen dugu: bere burua erabat ematea. Saldukeria saretzen ari direnak, Jesusen izaera gehienik definitzen duena ari dira betetzen, nahi gabe. Gauza jakina da: bizia kendu diote, baina, izatez, Jesus bera da bere bizia eman duena. Eta ikasleak? Denetik dago: hor dago bere burua goiosten duena eta badakigu gero zer egin duen (Pedro)... Eta beste bat (Joan), Jesusen bihotzaren barnean sartzeko gai izan dena, bere burua haren beraren bular gainean ezarritz.

Aste Santua.

San Amos, *profeta*.Santa Balbina, *birjina*.

[Isaias Profetaren liburutik 50,4-9a: Ez nien aurpegia saihestu irainei. Sal 69 [68]: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, mesede-garaia duzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26,14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaiz-buruengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?» Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas.

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?» Jesusek erantzun zien: «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela haren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: «Nik ote, Jauna?»

Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jai izan ez balitz».

Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion: «Ni al naiz, Maisu?» Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

«Zuetako batek salduko nau». Ni ez naiz, ezta? Iraingarri da duda bera, Jauna! Bikotekide itsusia da bekatua: inork ez du harekin dantza egin nahi izaten. Hasiera hartan, hor dago: errua emakumearena da...

Aste Santua.

San Amos, *profeta*.

Santa Balbina, *birjina*.

edota sugearena. Edota Kainena: ni al naiz nire anaiaren zaindaria? Edota Pilatok eskuak garbitzearena. Zein da, beraz, besteen esku emango nauena? Erretilu berean nirekin bustiko duena, nire ogia partekatuko eta hargatik nire «lagun» dena. Gutako edozein izan liteke. Ez du merezi ezikusiarrena egitea. Jesus? Lepoan hartu du hark gure bekatua, eta lepoan hartuz desegin. Sakonki Anaia delako. Gure «lehen zirenearra». Eta sortuko balitz gutako bakoitzarengan «zirenear» bihurtzea...?

Judas eta Jesus

Apaizburu eta herriko zaharrekin hizketatu da Judas Iskariote, Jesusen ikasleetako bat, bere Maisua haien esku jartzeko. Ardura handia du Mateok saltze hori azpimarratzeko: Jesusekin ibili ondoren, hura bertan behera utzi dutenen sinbolo izango da Judas kristautasunaren historian.

Segidan, pazko-afariaren prestaketa kontatzen digu ebanjelariak. Jai handia juduentzat; Israel herria Egiptotik askatua izan zenekoa gogoratzen eta eguneratzen dute; ez dute ospatzen Egiptotik atera zen jendearen ondorengo bezala, baizik eta garaikide bezala: «Egiptotik atera nintzenean Yahvek nirekin egin zuena» gogoratzen dute. Jesusek itun edo elkargo berria hasi nahi du jai-afari horretan.



POBREEKIN
bide
eginez 
eta
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

APIRILA / JORRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:
Oinarrizko eskubideak

Egin dezagun otoitz: Beren bizia arriskatzen dutenentzat, oinarrizko eskubideen alde borroka eginez, diktaduren pean, jauntxokeriazko erregimenetan eta krisian diren demokrazietan beraietan ere.



Aste Santua.

San Venantzio, *gotzaina*.

Santa Teodora, *martiria*.

§ Irteera liburutik 12, 1-8. 11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamaurrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, suan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belanez belaun”».

[Sal 116 [115]: Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 11, 23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker

Aste Santua.

San Venantzio, *gotzaina*.Santa Teodora, *martiria*.

oneko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz zigilatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 1-15.

Pazko-jaia ganean zen. Jesusek, mundu hau utzi eta Aitagana joateko ordua iritsi zitzaiola jakinik, munduan ziren beretarrak maite izanik, azkenean bete-betean maitatu zituen.

Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskariotereren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala jakinik, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzairen, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, Zuk niri oinak garbitu?» Jesusek erantzun zion: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu».

Pedrok berriro: «Zuk ez didazu niri sekula oinik garbituko». Jesusek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango».

Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez denok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: «Ulertzen al duzue egin dizuedana? Zuek Maisua eta

Aste Santua.

San Venantzio, *gotzaina*.

Santa Teodora, *martiria*.

Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

Dominique Lapierre-ren eta Larry Collins-en obraren tituluak (“Esta noche, la libertad”) argitzen ahal liguke zer ari garen ospatzen gaur. «Gau hau, askatasuna», antsiatu bide zuten israeldarrek. Egiptoko esklabotzatik askatasuna lortzea. Askatasun-historia bat da arrats honetan kontatzen digutena. Nork ez du nahi libre izan eta bere burua guztiz garatu? Merezi du historia hau begirunez eta emozioz entzutea. Eta, halaz guztiz, Ebanjelioan, hasiera hotsandiko baten ondoren, keinu nahasgarri batekin egingo dugu topo. Garai hartan esklabo mespretxatuenek egiten zuten keinua da: oinak garbitzea. Ezin imajina zitekeen kontraste handiagorik Irteera liburuko irakurgaiarekin. Askatasuna... honetarako? Galdera zorrotza? Eukaristia eratzeaz Paulok korintoarrei egindako gutunak dakarkigu erantzuna: ba, bai... askatasuna honetarako. Zeren eta Jesusen askatasuna eta beraren ikasleena, nork bere burua ematen duen askatasuna da eta gainerakoen zerbitzura jartzen dena, partikulariki premiarik handienekoan zerbitzura. Nik, zuen maisu eta jaun izanik, horixe egin dut. Egin zuek ere nik bezala. Maite zaituztet. Zerbitzari izan nautzue. Maitatu eta zerbitzatu zuek ere batak bestea.

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

§ Isaias Profetaren liburutik 52, 13–53, 12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jasoa izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontaktu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko.

Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman.

Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte. Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua.

Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabeki eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asea izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaitzakeriak bere gain hartu baitzituen.

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kidetzat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

[Sal 31 [30]: Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!]

§ Hebrearrei gutunetik 4, 14-16; 5, 7-9.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, eutsi diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitetzen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Joanen liburutik 18, 1–19, 42.

*Getsemanin, Jesus preso hartu
eta loturik eraman.*

KAldi hartan, Jesus eta ikasleak Zedron erreka igaro eta beste aldean zegoen baratze batera sartu ziren. Judasek ere, Jesus salduko zuenak, ezagutzen zuen leku hura, maiz bildua baitzen Jesus han bere ikasleekin.

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

Judas, beraz, tenpluko gudari-taldea eta apaizburuak eta fariseuen guardiak harturik, hara joan zen. Zuzi, argiontzi eta armez horniturik zihoazen. Jesusek, ondo baitzekien gertatuko zitzaion guztia, bidera atera eta esan zien:

† «Noren bila zatozte?»

K Haiek erantzun:

S «Jesus Nazaretarraren bila».

K Hark orduan:

† «Ni naiz».

K Han zen guardiekin batean Judas saltzailea ere. Jesusek «Ni naiz» esan zienean, atzeraka hasi eta lurrera erori ziren. Berriro galdetu zien:

† «Noren bila zatozte?»

K Haiek erantzun:

S «Jesus Nazaretarraren bila».

K Eta Jesusek:

† «Esan dizuet Ni naizela. Nire bila bazatozte, utzi hauei joaten».

K Horrela bete zen Jesusek berak esandakoa: «Eman dizkidazunetatik ez dut bat ere galdu».

Orduan, Simon Pedrok, aldean zeraman ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Morroiak Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori:

† «Itzuli ezpata zorrora. Ez al dut, ba, edan behar Aitak eman didan edaria?»

Jesus Anasen etxera eraman zuten lehenengo.

K Gudari-taldeak bere buruzagiarekin eta judu-agintarien guardiek Jesus preso hartu eta, loturik, Anasen etxera eraman zuten lehenengo;

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

urte hartako apaiz nagusi Kaifasen aitagarreba zen Anas hau (Kaifas zen juduei aholku hau eman ziena: «Hobe da gizon bat herriagatik hiltzea»).

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik joan ziren. Beste ikaslea apaiz nagusiaren ezaguna zen eta, Jesusekin batera, apaiz nagusiaren jauregiko patiora sartu zen; Pedro, berriz, kanpoan gelditu zen, ate ondoan. Atera zen orduan apaiz nagusiaren ezaguna zen ikaslea eta, atezainari hitz egin ondoren, Pedro barrura sarrarazi zuen. Atzain zegoen neskameak esan zion Pedrori:

S «Zu ere ez al zara gizon horren ikasleetakoa?»

K Pedrok erantzun:

S «Ez, ez naiz!»

K Morroiak eta guardiak sua piztu eta berotzen ari ziren, hotz egiten baitzuen. Pedro ere haiekin zegoen, berotzen. Apaiz nagusiak bere ikasleez eta irakatsiaz galdetu zion Jesusi. Jesusek erantzun zion:

† «Ageri-agerian hitz egin izan diot Nik mundu guztiari; sinagogan eta tenpluan irakatsi izan dut beti, judu guztiak biltzen diren lekuan, eta ezer ere ez dut ezkutuan esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galdetu nire entzuleei eta emango dizute esan dudanaren berri».

K Hori esan zueneko, han zegoen guardia batek masaileko bat eman zion, esanez:

S «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?»

K Jesusek erantzun zion:

† «Gaizki hitz egin badut, esan zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jo nauzu?»

K Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotua.

Zu ere ez al zara, ba, horren ikasleetakoa?

Ez, ez naiz

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

Bitartean, han zegoen Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

S «Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa?»

K Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

S «Ez, ez naiz!»

K Apaiz nagusiaren morroietako batek, Pedrok belarria moztu zion-aren ahaideak, esan zion:

S «Ez ote zaitut, ba, neuk ikusi horrekin baratzean?»

K Ukatu egin zuen Pedrok berriz ere, eta berehala oilarrak jo zuen.

Kantu labur bat:

Bihotz garbia

gugan sortu

arnas bizkorra

barne muinetan

emaguzu.

Nire erregetza ez da mundu honetakoa.

Kaifasen etxetik Gobernariaren jauregira eraman zuten Jesus. Goizaldea zen. Juduak ez ziren jauregian sartu, beren buruak ez kutsatzeko, bestela ezin izango baitzuten pazko-afarian parte hartu. Pilatok kanpora atera eta galdetu zien:

S «Zertaz salatzen duzue gizon hau?»

K Haiek erantzun zioten:

S «Gaizkilea ez balitz, ez genizukeen ekarriko».

K Pilatok esan zien:

S «Eraman zeuek eta epaitu zeuen legearen arabera».

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

K Juduek orduan:

S «Guri ez zaigu zilegi inor heriotzara kondenatzea».

K Horrela beteko zen Jesussek esandakoa, zein heriotzaz hilko zen adierazi zuenean. Pilato jauregira sartu zen berriro eta, Jesusi deiturik, galdetu zion:

S «Zu al zara juduen erregea?»

K Jesussek erantzun:

† «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz?»

K Pilatok esan zion:

S «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?»

K Jesussek erantzun:

† «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengoa».

K Orduan, Pilatok esan zion:

S «Beraz, errege zara Zu?»

K Jesussek erantzun zion:

† «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

K Pilatok galdetu zion:

S «Zer da egia?»

K Hori esanik, berriz ere juduengana atera eta esan zien:

S «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina baduzue ohitura, nik Pazko-jaietan preso bat askatzekoa: nahi al duzue juduen erregea askatzea?»

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.**K** Haiek, berriz, deiadarka:**S** «Hori ez! Askatu Barrabas!»**K** Barrabas hau bidelapurra zen.*Agur, juduen errege!*

Pilatok, orduan, Jesus zigorkatzeko agindu zuen. Gudariak, arantzazko koroa eginik, buruan ezarri zioten eta purpurazko mantua bota zioten gainera. Eta, hurbildurik, esaten zioten:

S «Agur, juduen errege!»

K Eta masailekoka zerabilten. Atera zen berriro ere Pilato eta esan zien juduei:

S «Hara, kanpora dakarkizuet, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen».

K Atera zen, bada, kanpora Jesus, arantzazko koroa eta purpurazko mantua zeramatzala.

Pilatok esan zien:

S «Hona gizona!»**K** Apaizburuak eta guardiak, hura ikustean, deiadarka hasi ziren:**S** «Gurutzera hori! Josi gurutzean!»**K** Pilatok esan zien:**S** «Eraman zeuek eta gurutziltzatu; nik ez diot errurik aurkitzen».**K** Juduek erantzun zioten:

S «Guk badugu legea, eta lege horren arabera heriotza-zigorra merzi du, Jainkoaren Seme egin baitu bere burua».

K Hori entzutean, are gehiago beldurtu zen Pilato eta, berriro jauregira sarturik, galdetu zion Jesusi:

S «Nongoa zara Zu?»

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

K Jesusek, ordea, ez zion erantzun ere egin. Orduan, Pilatok esan zion:

S «Ez al didazu erantzun behar? Ez al dakizu aginpidea dudala Zu askatzeko nahiz gurutziltatzeko?»

K Jesusek erantzun zion:

† «Ez zenuke nire gain inolako aginpiderik izango, Jainkoak eman ez balizu. Horregatik, zure eskura eman nauenak bekatu handiagoa du».

Ken hori, ken! Josi gurutzean!

K Ordudanik, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion:

S «Hori askatzen baduzu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egiten duena enperadorearen aurka ari da».

K Pilatok, hitz horiek entzutean, kanpora eraman zuen Jesus eta auzitegian eserarazi,

«Harlauzatua» zeritzan lekuan –hebreeraz «Gabbata»–. Pazko-jai-rako prestaketa-eguna zen, eguerdi ingurua. Pilatok esan zien juduei:

S «Hona zuen erregea!»

K Orduan, haiek deiadarka:

S «Ken hori, ken! Josi gurutzean!»

K Eta Pilatok:

S «Gurutziltzatu egin behar al dut zuen erregea?»

K Apaizburuek erantzun zioten:

S «Ez dugu enperadorea beste erregerik».

K Orduan, Pilatok haien esku utzi zuen, gurutziltza zezaten.

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaia*.*Kantu bat:*

Jesus gure Jaun maite

amodiotsua,

“damu dugu guztiok” (2)

“Zu nahigabetua” (2).

Gurutzean josi zuten, eta harekin batean beste bi.

Hartu zuten, beraz, Jesus, eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezur» –hebreeraz «Golgota»– zeritzan lekurantz atera zen. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta gurutze-buruan ipini zuen; hau zegoen idatzia: **JESUS NAZARETARRA, JUDUEN ERREGEA.**

Judu askok irakurri zuen kartela, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutziltzatu zuten lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz zegoen idatzia. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori:

S «Ez idatzi “Juduen erregea”, baizik “Juduen erregea dela dioena”».

K Pilatok erantzun zuen:

S «Idatzia bego idatzirik!»

Nire jantziak beren artean banatu zituzten.

K Gudariak, Jesus gurutzean josi ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bat; gero, tunika hartu zuten, bai-na josturarik gabea, goitik behera ehundua, zenez, esan zioten elkarri:

S «Ez dezagun urratu; zotz egin dezagun, ea zeinentzat den».

K Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire tunika zotz egin». Hain zuzen ere, horixe egin zuten gudariak.

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

Horra hor zeure semea!

Horra hor zeure ama!

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari:

† «Emakume, horra hor zeure semea!»

K Gero, ikasleari esan zion:

† «Horra hor zeure ama!»

K Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Bete da dena!

Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen:

† «Egarri naiz!»

K Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen:

† «Bete da dena!»

K Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

Kantu bat:

Gurutze maite

osasungarri

Zu zara bake

Bizi+iturri.

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

Hemen, belauniko jarri
eta egonalditxo bat egingo da.

Odola eta ura atera ziren.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak diotena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratuko diote».

*Jesusen gorpua oihal-zerrendaz lotu zuten,
tartean lurringaiak ezarriz.*

Gero, Arimateako Josek Jesusen gorpua eramateko baimena eskatu zion Pilatori. Jesusen ikaslea zen Jose, baina isilpean, juduen beldurrez. Pilatok baimena eman zion. Hark, orduan, joan eta Jesusen gorpua eramane egin zuen.

Etorri zen Nikodemo ere, behin batean gaez Jesus ikustera joan zen hura, hogeita hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nahastura zekarrela. Hartu zuten, bada, Jesusen gorpua eta oihal-zerrendaz lotu zuten, tartean lurringaiak ezarriz, juduek hobiratzeko duten ohituraren arabera. Jesus gurutziltzatu zuten lekutik hurbil, baratze bat zegoen, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

berria. Hilobia hurbil zegoenez, hantxe ipini zuten Jesus, juduen Pazko-eguna hastear baitzegoen.

Jesusen nekaldiaren kontraera, ohiko goitasunez, kontatzean, ematen du ebanjelariak galdera bat egin nahi digula: eta zu, zeinekin zaude? Agian apaizekin eta agintari erlijiosoekin, Jesusek Jainkoaz hitz egiten zuen moduaz txunditurik eta eskandalizaturik zeudenekin: Abba errukitsu samurra, beti pobreez eta bekatariez kutuntasuna azalduz. Edo agintari politikoeekin zaude, buruan beren pribilegioak besterik ez dutela eta, horrenbestez, errugabea (edo hainbat eta hainbat errugabe zeinekin bat egiten baitu Jesusek) hil dezaten utziz, botereari eutsi ahal izateko. Edo herriarekin zaude: hain manipulagarria den horrekin! Atzo hau hots egiten baitzuen: Hosanna Daviden Semea! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!... Eta gaur, berriz: Gurutzera hori! Edo ikasleekin zaude, lehen ordutik Maisuaren jarraitzaile izan diren ikasleekin, haren hitz on-onen eta, batez ere, egintza onen testigu direnekin... eta orain, non daude? Edo, azkenik, behar bada emakume haiekin zaude, urrunetik penaz eta halako basakeriaren aurrean ahalke, negar zegitenekin... Zu, zeinekin zaude? Ondo begiratuz gero, Jauna, hein batean guztiekin gaude! Baina gaur —ai horrela izango balitz bizitzako egun guztietan—, gaur zurekin egon nahi dugu, Jauna... zuk uzten badiguzu,

Pazko Gaubeila.

San Sixto 1.a., 7. aita santua.

§ Irteera liburutik 14,15–15,1a.

Aldi hartan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar».

Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren artean jarriz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu.

Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoa zabaldutako lehorbidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren.

Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrengandik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka».

Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek

Pazko Gaubeila.

San Sixto 1.a., 7. aita santua.

estali egin zituzten israeldarren atzetik itsasoan sartu ziren gurdiak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa.

Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazerrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona.

Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantu hau abestu zioten Jaunari:

[Salmoa: Ir 15, 1b-2. 3-4. 5-6. 17-18 (R/. 1b): Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.]

§ San Paulok Erromatarrei 6,3-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, halaxe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua geldi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintezen. Izan ere, norbait, hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitza Jainkoarentzat bizitza da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Pazko Gaubeila.

San Sixto 1.a., 7. aita santua.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 1-7.

Larunbata igaro zenean, Maria Magdalenak eta Santiagoren ama Mariak eta Salomek usain gozoko ukenduak erosi zituzten Jesusen gorpua gantzutzeko. Eta asteko lehen-egunean, goizean goiz, eguzkia atera orduko, hilobira joan ziren.

Hau ziotsoeten elkarri: «Nork irauliko digu hilobi-sarrerako harria?» Begiratu eta harria iraulia ikusi zuten, oso handia zen arren.

Hilobian sarturik, gazte bat ikusi zuten eskuinaldean eseria, soineko zuriz jantzia, eta erabat izutu ziren.

Hark esan zien: «Ez izutu! Nazareteko Jesus gurutziltzatuaren bila al zabiltzate? Piztu da; ez dago hemen. Hona ezarri zuten lekua. Zoazte orain haren ikasleei, eta bereziki Pedrori, esatera: “Zuen aurretik joango da Galileara. Han ikusiko duzue, berak esan bezala”».

Egunsenti batean, erromes abiatzeko daude bi emakume. Maisuaren hilobira doaz bisitan; Jainkoaren Erreinuaz hitz egitean gogoberotu zituen eta giza bihotzean denik eta hoberena bere adiskideen taldean gauzatzea lortu zuen Maisuaren hilobira. Alabaina, hiru egun aurretik hila zen gurutzean. Emakume haiek ez zeuden prest historia eder hau ahazturik geldi zedin uztera. Geu ere, kinka larrietan, atzera begira jartzten gara, poetaren hitz hauei arrazoi emanetz: «edozein iragan denbora hobea zen». Harik eta galdera hau entzun genuen arte: zer ari zarete Bizi denaren bila hildakoen artean? PIZTU DA! Bila ezazue, beraz, Jainkoaren Erreina gauzatzeko bizi direnen artean, zer ari diren konturatzen ez badira ere. Kristori jarraitzea zaila da eta, batzuetan, gogorra. Baina badakigu, ezen «pobreak ezer ez duenean eta halere banatzen... bake eta adiskidetasun hitzak jaulkitzen ditugunean, gorrotoak jotzen gaituelarik ere... arrotzari «anaia / neba» edo «arreba / ahizpa» esaten diogunean... gauza hauetako bat edo hauen antzeko bat gertatzen denean gure bizitzan, orduan, apaltasun osoaz esan dezakegula: JAINKOA BERA DUGU BIDELAGUN».

Jesusen Piztuera.

PAZKOA.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,34a.37-43.

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen.

Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeraturakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi.

Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeke eta aitortzeke, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiiek bekatuena barkamena hartuko dutela, haren izenean».

[Sal 118 [117]: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.]

§ San Paulok Kolosarrei 3,1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko de-nean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-9.

Asteko lehen egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen.

Jesusen Piztuera.
PAZKOA.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera abiatu ziren lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela.

Ez da hilobirik ez harlauzarik Jainkoaren bizia tapatzen ahal duenik. Eta gauza batean edo bestean saiatu bagara, orduan, Magdalenak bezala, aitortu beharra izango dugu, azkenean, zur eta lur: «eraman egin dute nire Jauna eta ez dakigu non jarri duten». Noiz ulertu behar dugu ezen biziaren Jainkoa ezin dugula murriztu iraganeko irudi batera, baizik eta eguneroko geure bizitzan bilatu behar dugula bera aurkitzeko? Bizidunen Jainko da Jainkoa, eta ez hildakoa! Noiz ulertu behar dugu ezen ez dagoela Jainkoari oztopo egingo dion harlauzarik, ezen beldurrez atea itxirik direla ere gure artean aurkezten baita bere Bakea emateko? Beraz, ez hilobiratzea eta ez oztopatzea: horra zer ez dugun egin behar, baizik eta, alderantziz, hots egin eta partekatu ebanjelioaren poza berak maite dituela dakitenekin eta baita, beren bizitzan inoiz ahuldadez uko egin badiote ere, etsi ez dutenekin harekin topo egiteaz. Batzuek eta besteek dute harekin topo egin beharra. Batzuei eta besteei dagokie fedearen begiak ireki beharra, Liburu Santuak ulertu ahal izateko, zeinen arabera hilen artetik piztu beharra baitzuen Jesusek.

Pazkoaldia. Zortziurrena.
San Bizente Ferrer, apaiza.

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14.22-23: Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,8-15.

Aldi hartan, emakumeak hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pozik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera.

Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkioten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesus ek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko nauten».

Emakumeak bidean zihoazela, guardiako batzuek hirira joan eta gertatutako guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrekin bildu eta hitzartu ondoren, dirutza handia eman zieten gudariei, aginduz: «Esazue, haren ikasleek gaez etorri eta zuek lo zeundetelarik, gorpua lapurtu dutela. Eta Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geuk hitz egingo diogu eta arriskutik aterako zaituztegu».

Haiek dirua hartu eta agindu bezala egin zuten. Eta gaurdaino zalbaldu da kontu hori juduen artean.

Gaur ebanjelioak txapon beraren bi aldeak bezalako zerbait agertzen digu: batetik, piztuera ukatzeko (esanez ikasleak izan direla Jesusen gorpua ostu dutenak) soldaduek eta herriko zaharrek elkar hartzea; bestetik, Jesus Berpiztuak emakume haiekin topo egitea. Hauek beldurretik pozera eta pozetik federa igaro dira. Berpiztuarekin topo egiteak, beti, misio bat hastea dakar eta, gainera, ilusiogile izan daitekeen abentura bat berregitea («Galileara itzultzearena», eguneroko gure bizitzako «Galilearena» alegia, hartan Jesusen beraren misioa jarraitzeko). Zeren eta hondoa jo duena bakarrik has baitaiteke berriro.

Pazkoaldia. Zortziurrena..

San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*.

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14a.36-41: Bihotz-berri zaitetze eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean. Sal 33 [32]: Jau-naren graziaz betea dago lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,11-18.

Aldi hartan, Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten».

Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabilta?» Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”».

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jau-na ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Berpiztuarekin egindako topo egite guztiak txundidura-erreakzioarekin hasi ohi dira. «Nire Jauna eraman dute...». Berpiztuari ez zaio antzematen hasiera batean. Aitzitik, beste norbaitzat hartu ohi dute. Soilik, norberaren izenaz deitzen dienean antzematen diote. Baina, orduan, Magdalenak bezala, Berpiztua geure jabetzako egin nahi izaten dugu. Ezinezkoa! Jesus Aitagana doa, bere Jainkoagana, beti gure ideiak eta sentimenduak baino handiagoa den Jainkoagana...; izan ere, gure gogo-eskema pobreetan hesitu nahi

Pazkoaldia. Zortziurrena.
San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*.

izango lukete Jainkoa sentimendu horiek. Baina ez da hori jokoan dagoen arazoa. Misioa da arazo: «Jauna ikusi dut eta hau esan dit». Zeren eta Jainkoa aurkitu, gainerakoei beraren berri emango diegun neurrian aurkituko baitugu.

Bakea bakea bakea

«Mundu guztiak du ahoan bakea barra-barra,
inork ez, ordea, gogoan bakea heziketan,
lehiaketa du jendea helburu bakar,
eta horixe da gerla ooren burubide.
Lankide eta bata bestearen solidario izatea
izango dugunean xede geure heziketan,
egun hartan hasiko gara benetan
bakerako heziketa-lanean» (Maria de Montessori).

[Apostoluen Eginak liburutik 3,1-10: Dudana emango dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki eta ibil zaitez. **Sal 105 [104]:** Poztu zaitezte bihotzez Jaunaren bila zabiltzatenok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Em-
aus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilome-
trora. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta,
hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaien eta
haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu.

Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkar-
rekin?» Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek,
Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalemen egun
hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu
zien: «Zer gertatu da, ba?»

Haiek erantzun zioten: «Nazaretoko Jesusi gertatua; profeta ahal-
tsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina
gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean
josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun
hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik
utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute
gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu
zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta
emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi».

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai mo-
telak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia
sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta
profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien.
Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko
keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi
zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu».

Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoe-la, Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien.

Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta berehala altxatu eta Jerusalemera itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio».

Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

Ikasle haiek itzultzeari eman zioten. Ez hitzez hitz harturik bakarrik, baita zentzu figuratuan ere, hau da, desengainaturik zeuden, etsirik. Hain etsirik, non ez baitziren gai izan bidean arrimatu zitzaien bidaiari enigmatiko harengan Jaun Berpiztua ezagutzeko. Hain etsiak, azkenik, ahaztu egin baitziren Jesusi jarraitzeak esan nahi zuen «abc»az ere. Bat-batean, bihotza sutzen hasi zaie Ezezagun haren hitzak entzutean. Aurrera ez joateko eskatu diote. «Ogia zatitzean» antzeman diote. Eta antzeman orduko, itzuliko bideari ekin diote harekin topo egitearen poza gainerako ikasleekin partekatzeko. Ez ote dugu geure burua islaturik ikusten hau bezalako geure historietan?

Pazkoaldia. Zortziurrena.
San Dionisio, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 3,11-26: Biziaren sorburua hil zenuen, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik. **Sal 8**: Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean.

Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzuenez». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien.

Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Arrain erre puska bat eskaini zioten.

Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela».

Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Emausera zihoazen bi ikasleak Jerusalem-era itzuli dira eta gogotsu kontatu diete beste ikasleei, artean sinesgabe, bidean gertatu zitzaiena eta nola antzeman zioten ogia zatitzean... Eta, bat-batean, Jesus, berpiztua, agertu zaie! Geuri ere gauza bera gerta dakiguke geure «bideko» kontraerak partekatzean, zeinetan bera izan baita

Pazkoaldia. Zortziurrena.
San Dionisio, *gotzaina*.

protagonista; har dezakegu «gure artean» (hau da, geure bizitzaren eta geure bihotzaren erdigunean) beraren presentziaren behin eta berrizko dohaina. Lagun dituen zeinuak hauek dira: bakea, poza, argitasuna... Eta, batez ere, berarekin topo egin izanaren Berri Ona gainerakoei komunikatzeko gogo bizia.

Pietatea (1.zatia)

Latineko «pietas», gaztelaniaz «piedad, devoción, amor de Dios; respeto, veneración a los padres...; clemencia, compasión». Euskaraz Axularren Hiztegian Villasantek biok dakartza: «urrikari» eta «debozinotsu». «Zehazki» hiztegian: «erruki, urrikalmendu; bihozberatasun; erruki izan, errukitu».

Azken batean jarrera bat da pietatea. Izan daiteke jarrera faltsua; ebanjelioetan kritikutzen da horrelakorik: «agindu erlijiosoak betetzen dituzte jendearen aurrean, honek txalotu ditzan». Ezaguna da Jesusen gomendioa: otoitz egizu ezkutuan. Egiazko fedetik datorren jarrera da pietatea. Gurutzea besarkatzea eskatzen duen jarrera da; munduko gurutze guztiak sinbolizatzen dituen gurutzea besarkatzea: mundu guztiak mespretxaturik ere, berak gure sufrimendu guztiak leporatu ditu. (segida apirilaren 9an).

Pazkoaldia. Zortziurrena.
San Maximo, aitorlea.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,1-12: Ez dugu beste inor salba gaitza-keenik. Sal 118 [117]: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-14.

Aldi hartan, berriro agertu zitzaien Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz geu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu.

Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?» Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea ateratzeko gauza.

Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora.

Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman zien, baita arraina ere.

Pazkoaldia. Zortziurrena.
San Maximo, *aitorlea*.

Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

Pedrok eta beronen lagunek arrantzura joateko erabakia hartu dute; Maisua hil ondoren sentitu zituzten desengainua eta etsipena azaltzen ditu erabaki horrek. Porrotaren sentipenak jo ditu... Azken batean, zer axola? Bukatu da dena. Eta ez erarik hoberenean, ez horixe! Gau hartan –gaua zen Judasek Maisua saltzea erabaki zuenean ere– ez zuten ezer harrapatu. Baina Jesus agertu da, beraien etsipenean ere. Ugari harrapatu dute. Jesusek maite zuen ikasleak antzeman dio: soilik maitasunez antzeman diezaiokegu batak besteari. Maitasunari esker, guztiek dakite zein den agertu dena. Jesusek elikaturik, guztiak daude, orain bai, misioari berrekiteko prest.

Pietatea

(2.zatia) (apirilaren 8tik dator)

Hitz batean esateko, gure pobretasuna aitortzea da pietatea, eta Jainkoaren eskuetan gaudela aitortzea: begirunea Jainkoari, begirunea eta errukia besteei, begirunea eta errukia nork bere buruari. Debozioa baino askoz aberatsagoa da pietatea.

Gogora gaitezen Migel Anjelen eskulturaz, «Pietà»: Kristo hila Mariaren magalean. Bertatik Kristo kentzen badugu, Andre Mariaren keinuak zentzurik ez. Andre Maria kentzen badugu, hilotz bat geldituko da soilik. Biek batean pietatea islatzen dute: onartu duen heriotzak adierazten duen Jainkoaren maitasuna; Mariak agertzen duen begirunea, konfiantza, errukia, Semea bezala mundu guztia besarkatzea. Pietatea: nire ahultasun handia bai, gizadiaren ahultasuna handia bai, gizakion egundoko zuzengabekeria bai; baina Jainkoaren maitasun handiagoa, erruki handiagoa.

Pazkoaldia. Zortziurrena.

San Ezekiel, *profeta*.San Makario, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,13-21: Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilik gorde. Sal 118 [117]: Eskerrak zuri, Jauna, erantzun didazulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,9-15.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, pizturik, Jesus Maria Magdalenari, zazpi deabru atera zizkionari, agertu zitzaion aurrena. Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, triste eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi. Ondoren, ikasleetako biri agertu zitzairen, beste itxura batean, auzo batera bidean zihoazela.

Hauk ere besteei berri ematera joan ziren; baina hauei ere ez zieten sinetsi.

Azkenik, Hamaikei agertu zitzairen, mahaian zeudela, eta aurpegi-
ra bota zien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, bera pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zitelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei».

Dudarik gabe, komeni da geure bihotza babestea. Baina gainbabestu gabe; bestela, arriskua izango genuke Berpiztua non dagoen ez jakiteko, baita badagoen ere jakiteko. Bihotz gainbabestuak lehortzeko edota gogortzeko arriskua izaten du. Hartara, ezin antzeman izaten zaie Jaunak gure eguneroko bizitzan ereinik uzten dituen piztuera-haziei. Hartara iritsiz gero, ez digu buruak emango kreaizio osoari ebanjelioa hots egitea. Nolanahi den, kontsolagarria da ikustea nola aurpegiatzen dien Jesusek ikasleei beren fede-falta. Honetaraino iritsiak garelarik! Apal eta errealista bihurtzen gaitu ikusteak nolatan den hazi txiki-txiki bat piztuera sinestea, pixkana haziz doana gure bihotzean. Hala eta guztiz ere.

Pazkoaldia 2. astea B.
Jainkoaren errukiaren eguna.
San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4, 32-35.

Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ere ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta guztia guztiena zuten. Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak.

Ez zen behartsurik haien artean. Izan ere, lurrik edo etxerik zutenek saldu egiten zuten, eta salmentaren ordaina apostoluen esku jartzten zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion.

[Sal 118 [117]: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.]

§ Joanen 1 gutunetik 5, 1-6.

Seme-alaba maiteok: Jesus Mesias dela sinesten duen oro Jainkoagandik jaio da, eta bizia ematen duen Jainkoa maite duenak harengandik jaioa ere maite du. Beraz, Jainkoa maite badugu eta haren aginduak betetzen baditugu, badakigu Jainkoaren seme-alabak maite ditugula. Izan ere, Jainkoa maitatzea haren aginduak betetzea da. Eta haren aginduak ez dira astunak, Jainkoagandik jaio den orok garaitu egiten baitu mundua. Eta hau da munduaren gain garaipena ematen diguna: gure sinesmena.

Zein da mundua garaitzen duena, Jesus Jainkoaren Semea dela sinesten duena baizik? Hau da bataioko uraz eta heriotzako odolaz etorri zena, Jesu Kristo; ez uraz bakarrik, uraz eta odolaz baizik. Eta Espiritua da honetaz aitormen egiten duena, Espiritua egia baita.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-31.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian

Pazkoaldiko 2. astea B.
Jainkoaren errukiaren eguna.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituz, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituz, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Beste ezaugarri asko ere egin zuen Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hauek idatzi dira sinets dezazuen Mesias eta Jainkoaren Semea dela Jesus eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Ateak itxirik... Beldurra... Beldurra arriskutsua da: geure burua defendatzeko aitzakiaz, «defentsarik hoberena erasoa da» delako ideia ezartzen digu. Orduan, etengabe oldarkor bizitzeari ematen diogu. «Amairik gabeko historia». Ematen du, Berpiztuari ez zaiola inporta ateak itxirik egotea. Zorionez, guretzat. Sartu da Jesus... eta erdian jarri da, arazoaren giharrean. Eta ez arazoren ertzetan. Beraren agurra:

Pazkoaldiko 2. astea B.

Jainkoaren errukiaren eguna.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

BAKEA (gatazka-eza baino zerbait gehiago da). Ez inor zaurituz, baizik bere zauriak erakutsiz. Ez ezer itxiz, baizik eta adiskidetasun- eta barkazio-eragile izateko bidaliz. «Ikasleak poztu ziren Jauna ikustean». Guztiak? Ez. Tomas falta zen. Agian, haren arazoa ez zen besterik gabe sinesgabetasuna, baizik eta eszeptizismoa. Ikasleek «Jauna ikusi diagu» esatean, erantzuten ahal zuen «eta niri zer?». Etsipen handiegia ezarri didate Maisuaren azken tragikoak utzi dizkigun zauriek... «Ezin badituz sartu neure hatzak haren zaurietan...». Halako arrazoi-gabeziarentzat arrazoirik aurkitu ezin badut... Jesusek ez du ezkutatu bere zaugarritasuna, eta ez digu aholkatu geurea ezkutatzeko. Orduan, izaki gupidatsu eta errukitsu bilakatzen gara. Orduan, aldarrikatu ahal izango dugu: «Nire Jauna eta nire Jainkoa»!

Emakumeek sekulako albistea jaso

Hiru emakume doaz hilobira; gainera, gorputza gantzutzeko asmoz doaz. Iritsi orduko, sekulako albistea jaso dute: «Piztu da, ez dago hemen». Gizakiaren egintza izan da Jesus hiltzea; Jainkoarena izan da hura bera piztea. Esaera labur horretako bi zatien hurrenkerak ere badu bere inportantzia: lehenik, «piztu da»; gero, «ez dago hemen»; piztueran sinestea ez dator hilobia fisikoki hutsik egotea egiaztatetik; Jainkoaren errebelazioa da garrantzizkoa eta funtsezkoa: «piztu da». Esan nahi da, piztuera eta piztueran sinestea ez datorrela hilobia fisikoki hutsik dagoela egiaztatetik, baizik Jainkoaren errebelazio-hitzetik. Bestalde, gutzioi dagokiguna da piztuera: neure etorkizuna dakusat Kristoren piztueran; baina ez era automatikoan, baizik Kristo neure bizitzako argitzat hartzen dudana neurrian. (E.E.E. Deustukotik).

Pazkoaldiko 2. astea.
San Zenon, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4, 23-31: Otoitza bukatzean, Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren guztiak, eta ausardiaz hots egiten zuten Jainkoaren hitza. **Sal 2:** Zorionekoak, Jauna, zugan babesten direnak!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 1-8.

Bazen fariseuen taldean Nikodemo izeneko gizon bat, juduen buruzagietakoa. Honek gauz Jesusengana etorri eta esan zion: «Maisu, badakigu Jainkoak guri irakasteko bidali zaituela; inork ez baitezake egin Zuk egiten duzun ezaugarririk, Jainkoa berekin ez badu».

Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada».

Nikodemok galdetu zion: «Nola jaio daiteke norbait, zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriz jaio?»

Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Gizakitik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu berriro jaio behar duzuela esan dizudalako. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

Nikodemoren antzekoago gara, zeina gauz (iluntasun kanpoko eta barnekoekin) baitoa Jesusengana. Bizitza ohikeriez eta errealtate itxuraz mugiezinez zamatuarekin... zertan ibili aldatzen? Ez du merezi ahalegintxo bat egitea ere! Ez dakigu zergatik, baina badugu errezelo arin bat zerbait aldatzen ahal dela gudan Nazaretoko rabirekin topo egite hutsarekin. Honetaz mintzo zaigu hau: «berriro jaiotzeaz», «uretik eta Espiritutik jaiotzeaz», geure bizitzan Espirituaren bideen bila aztarrika egiteaz –Espiritua haizea bezalako da, zeinaz ez baitakizu ez nondik datorren, ez norantz doan–. Utz dezagun beraren hitzak gure bihotzean sar daitezen... Aldaraziko ahal dute!

Pazkoaldiko 2. astea.

San Martin 1.a,

aíta santua eta aíta santuen artean azken martiria.

San Hermenegildo, *martiria.*

[Apostoluen Eginak liburutik 4,32-37: Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. Sal 93 [92]: Errege da Jauna, ospez jantzia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,5a.7b-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Berriro jaio behar duzue. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

Nikodemok galdetu zion: «Nola gerta daiteke hori?» Jesusek erantzun: «Zu maisu zara Israelen eta ez dakizu hori? Egi-egiaz diotsut: Guk dakiguna esaten dugu eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure aitormena onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez baduzue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean? Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten».

«**J**akintsuki ezjakin»: horrela, kontraste deigarri hauekin, deskribatu ohi da Espirituari gida ditzan uzten diotenen jokabidea. «Jakintsuki», hau da, «dakitelako», «ahogozatu dutelako»; hitz batean esateko, esperientzia izan dutelako («dakigunaz hitz egiten dugu, ikusi dugunaz testigantza egiten dugu»). Eta hau guztia goitik datorren jakinduriaren fruitu da. Baina baita «ezjakin» ere; honek guztiak biderik hobenen bila ibili behar izatetik –batzuetan, ilun beltzean– libratzen ez dituelako, Jainkoari beren bizitzan jardun dadin uzteko. Hondo-hondoan, hauek guztiak dira berriro jaio direnak, haur bezalako egin direnak eta, Jesusek lege-maisuei bezala, zorrotz galdegiten digutenak, tarteka, dena dakigulakoan bizi garenoi.

Pazkoaldiko 2. astea.

San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak tenpluan daude eta herriari irakasten ari dira. **Sal 34 [33]:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maitte izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoia: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorroto dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldi ez daitezen. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Argia izan zen Jainko kreatoraren lehenengo egintza. Maitasunari dagokionez ere, bera izan da lehenik maitatu gaituena zeren eta: «ez guk Jainkoari izan diogun maitasuna, berak guri izan diguna baizik, hau da, gure bekatuen barkamen-oparizat bere Semea bidaliz erakutsi digun maitasuna». Maitasuna eta argia dira, beraz, lehenengo gauzak. Eta maitasuna argi da, gure egintzat juzkatzen dituen argi. Maitasunez juzkatzen ditu. Gure artean gertatzen denaren kontra, Jainkoagan, errukiak (maitasunak) eta zuzentasunak (argiak) ez dute kontraesanik beren artean. Eskuarki, Jainkoagan, haren ezaugarri bakar batek ere ezin du kontraesan beraren beste ezaugarri bat; bestela, haien artean kontraesanik balego, Jainkoa kontraesaneko izaki izango litzateke. Horregatik, Jainkoa zuzena da errukitsua delako, eta errukitsua da zuzena delako.

Pazkoaldiko 2. astea.

San Kreszente, *martiria*.

Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,27-33: Geu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena denen gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena denen gainetik dago; ikusi eta entzun duena aitortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia dioela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua.

Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

Zerutik datorrena da Jesus. Zerutik etortzea handik jaitea da, bere kanpadenda gure artean ezarri eta zerbitzari bihurtzeko. Hona zer egin duen Jesusek. «Nola Kreatzaile izatetik etorri den gizon egitera eta betiko bizitzatik aldiko heriotza jasatera» (Gogo Jardunak). Joanen ebanjelioak kontatu digu, Jesus, bereak maite zituelarik, eta azkeneraino maite izan zituelarik, eskuzapia hartu eta ikasleei oinak garbitzen hasi zela: lan hau, garai hartan, esklaborik duintasun gabetuenek bakarrik egiten zuten! Gaur eskatu beharko genioke, isur dezala gure gainera bere Espiritua, konfiantza osoa izanik Jainkoak neurririk gabe eman nahi diguna.

Pazkoaldiko 2. astea.

Toribio Santua Liebanakoa.

Santa Bernardita Soubirouskoa (Lourdeskoa 1844-1879), *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 5, 34-42. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako. **Sal 27 [26]**: Gauza bat eskatzen diot Jaunari: bizi nadila Jaunaren etxean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz bestaldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan.

Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko».

Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?» Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren.

Jesusek ogiak hartu eta, esker oneko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez.

Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.

Pazkoaldiko 2. astea.

Toribio Santua Liebanakoa.

Santa Bernardita Soubirouskoa (Lourdeskoa 1844-1879), *birjina*.

Bizitza eroso baten bila ibiltzea eta arazoak konponduko dizkiguten liderrak nahi izatea: horra gure bizitzako etengabeko tentazioa. Horregatik jarraitzen zion Jesusi jende askok, baina nork bere probetxu bila. Azkenean, errege aldarrikatu nahi izan zuten. Baina Jesusek laster egin zien iskin sentiera eta jokaera horiei. Horregatik, bakardadera joan zen. Bestetik jendearen jarrera horren ordeztu, lagunartekotasuna eragin zuen («zerez erosiko dugu ogia hauek guztiak jan dezaten?», galdetu dio Feliperi, «ondo asko zekien arren zer egin behar zuen»). Badaki, gainera, zertarainokoa den abiapuntuko eskasia. Halaz ere, eskasia hori «bedeinkatua» (Jainkoari eskainia) eta partekatua delarik, Erreinuko ugaritasunaren zeinu bihur daiteke. Gainerako guztia... «errazkeria» hutsa eta ikusgarrikeria, Jesusen bideetatik urruntzen gaituena da.

Jesusen Teresa santua

«Nitaz at naiz bizi jada,
maitasunez hil eta gero;
Jaunagan bizi naiz
eta, beretzat nahi izan ninduen
eta, bihotza eman nionean,
idazkun hau jarri zuen bertan:
hiltzen ari naiz-eta ez hiltzeagatik».

Pazkoaldiko 2. astea.
San Fortunato, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 6, 1-7: Zazpi gizon aukeratu zituzten, Espiritu Santuaz beteak. Sal 33 [32]: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 16-21,

Arratsean, Jesusen ikasleak itsasora jaitsi eta, txalupara igorik, itsasoaz bestaldera abiatu ziren, Kafarnaum aldera. Iluna zen ordurako, eta artean Jesus ez zen haiengana iritsi. Haize zakarra zebilen, eta itsasoa harrotzen hasi zen.

Bospasei kilometro arraunean egitean, Jesus ikusi zuten ur gainean oinez eta txalupara hurbiltzen, eta beldurrak hartu zituen. Baina hark esan zien: «Ni naiz; ez beldur izan!» Haiek txalupan hartu nahi izan zuten, baina txalupa berehala iritsi zen zihoazen tokira.

Ebanjelio-kontaera hau gure bizitzaren sinbolo-edo izan liteke. Jendetza ase berria du Jesusek. Eta, gogo-bero, errege egin nahi izan du jende horrek. Baina Jesusek ihes egin behar izan du halakorik gerta ez dadin... Eta, halaz guztiz, zerbait geroxeago, ilundu egin du, baita ikasleen bihotzean ere. Barnea urduri... baita kanpoaldea ere: aintzira uhin oilarthurik. Bizitzako kontrasteak! Gure bizitzako kontrasteak! Baina kasu batean eta bestean: Jesusen presentzia. Beraren hitzek adorea eta bihotz-goratasuna dakarte: «Neu naiz; ez beldur izan». Gure bihotzera, asaldatu eta kezkatira, isuritako baltsamoa baillitzan! Irarri eta ezarriko ahal dira hitz hauek gure bihotzean, eta lagunduko ahal digute Jesusen presentzia egiazko dela uste izanez bizitzen. Halaz guztiz...

Pazkoaldiko 3. astea.
 Santa Atanasia, *aitorlea*.
 San Eusebio, *gotzaina*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 3, 13-15. 17-19.

Egun haietan, Pedrok honela hitz egin zion herriari: «Abrahamen, Isaaken eta Jakoberen Jainkoak, gure arbasoen Jainkoak, aintzaz bete du Jesus bere zerbitzaria, zuek agintariei eskura eman eta Pilatoren aurrean ukatu zenuten hura, honek askatzea erabaki zuen arren. Santua eta Zuzena ukatu zenuten, eta hiltzailea askatzeko eskatu; biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik; geu gara horren testigu.

Badakit, senideok, ezjakinean jokatu zenutela zuek, baita zuen agintariek ere. Baina horrela bete zuen Jainkoak, profeta guztien ahoz aurrez iragarria, hots, haren Mesiasak sufritu egin behar zuela. Bihotz-berri zaitezte, beraz, eta itzuli Jainkoagana, bekatuak ken dakizkizuen».

[Sal 4: Argi ezazu, Jauna, zeure aurpegia gugana.]

§ San Joanen 1 gutunetik 2, 1-5a.

Ene seme-alabok, bekatuak egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitarean aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoaren barkamenerako ere.

Jainkoa ezagutzen dugula honetatik dakigu: haren aginduak betetzetik. «Nik ezagutzen dut Jainkoa» esan eta haren aginduak betetzen ez dituenak gezurtia da, eta horrelakoan ez dago egia. Haren hitza betetzen duenagan, berriz, Jainkoaren maitasuna bere betera iritsi da egiaz.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten Jauna.

Pazkoaldiko 3. astea.
Santa Atanasia, *aitorlea*.
San Eusebio, *gotzaina*.

Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzuenez». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien.

Haiek, ordea, pozaren pozez oraindak ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Arrain erre puska bat eskaini zioten.

Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete behar-koela zela».

Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritza hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Berpiztuarekin izan dituzten topo egiteetan, ikasleak beldurretik pozera igaro izan dira. Beldurra, hasiera batean mamua zela uste izan dutelako, eta poza, Jaunarekin berririo topo egiteagatik. Hain miresgarria, alabaina, sinestea eragotzi baitie: hain miresgarria da ikusten ari direna, ez baitute uste egia den! Beraz, sentimendu kontrajarriak, bihotzean nahasian. Sentimenduak: lehenengo eta behin, orekatu beharra dutenak errealismo-dosi on batekin. Ez, Jesus ez da mamu bat; haren proposamenak ere ezin eman dira fantasmagorikotzat. Jesusi jarraitzea sakon sustraitua da gure bizitzako errealitatean. Errealismo bat, gainera, bere azken ondorioetara iristen dena. Horregatik, ikasi beharra dute ezen Mesiasek hau guztia «jasan beharra zuela». Eta Jesusen jarraitzaileak ondo egingo du hau guztia aintzat hartuz, bere jarraitze-bizitza, edozein txikikeria batean,

Pazkoaldiko 3. astea.
Santa Atanasia, *aitorlea*.
San Eusebio, *gotzaina*.

lur joko lukeen ilusio-mundu batean eraiki nahi ez badu. Horrela eskolaturik bakarrik egin ahalko dio aurre ikasleak mundu guztiari ebanjelioa hots egiteko misioari. Ai! Inoiz ere bakeak ez huts egiteko moduan, Jaun Berpiztuak eskualdatu digun dohain guztiz baliotsua den bakeak, alegia.

Pazkoaldiko 3. astea B.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

[Apostoluen Eginak liburutik 6,9-15: Ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,22-29.

Bost mila gizonetzko, ase ziren arte, jaten eman ondoren, ur gainean oinez ikusi zuten Jesus ikasleek. Biharamunean, itsasoaz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratu, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiades-tik, Jaunak esker oneko otoitza egin ondoren ogia jan zuten ingurura.

Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabilzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitetze, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidetaren ordezkari».

Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

Esaera batek dio ezen, jakintsuak bere hatzez ilargia seinalatzen duenean, zoroa hatzari begira gelditzen dela, ilargiari ordeztu. Jesusek kexu hau egin du: «nire bila zabilzate, ez nire seinaleak ikusi dituzuelako, baizik eta ogia asetzeraino jan zenutelako». Eta gu, zergatik gabilza Jesusen bila? Segur aski, gure Jesusen bila ibiltze horretan

Pazkoaldiko 3. astea B.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

mota askotariko arrazoiak nahasten dira. Ez gaitzezen eskandalizatu horretaz! Jesusi jarraitzeko bideak bere etapak ditu: hasierako etapa, aurrera egindako etapak eta, nola ez?, baita atzera egindako uneak ere. Baina honek ez gaitu libratzen ahalegintzetik gure asmoa eta beraren bila ibiltzea eta beraren bila bakarrik ibiltzea egunetik egunera garbiagoak izan daitezzen... «bera gauza guztietan maitatuz eta gauza guztiak beragan».

Pazkoaldiko 3. astea.

San Zakeo, *zerga-biltzailea*.Santa Ines Montepulciano-koa, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 7,51–8.1a: Jesus Jauna, hartzazu nire bizia. Sal 31[30]: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,30-35.

Aldi hartan, jendeak esan zion Jesusi: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk haiek ikusi eta zugar sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”».

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita».

Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigan datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Gosea eta egarria ez dira edozein eta edozelako premia, baizik eta ase beharreko ezinbesteko premia. Eta hau, nola alde materialean harturik, hala espiritualean (zentzu-gosea, edertasun-gosea, maitasun-gosea...). Batzuetan, egia da, edozelako ordezkos «hiltzen» ditugu gose hauek. Eta gose hau asetzen duena ez da edozein ez-ezinbesteko edo edozein badaezpadako soil, baizik eta premia-premiako. Hondoan, gure gogoak Gogo handiaz mintzo zaizkigu, hau da, Jainko gogoaz. Horregatik, beharrezkoa dugu haren gosea eta premia dugula aurkitzea. Gosea premia gorria bada, eta Jesusek bakarrik ase badezake, orduan Jesus ez da gure bizitzako apaindura huts izango, bazter uzten ahal duguna. Emaguzu beti Ogi honetatik.

Pazkoaldiko 3. astea.

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 8, 1b-8: Alde guztietara joan ziren, Berri Ona hots eginez. Sal 66 [65]: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 35-40.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango. Zuek, ordea, lehen ere esan dizuedanez, ez duzue sinesten, ikusi nauzuen arren. Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana etorriko dira, eta nigana etortzen denik ez dut kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenaren nahia baizik.

Eta hauxe da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guzti-etatik, ez dezadala bat ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. Hauxe da nire Aitaren nahia: Semea ikusi eta harengan sinesten duenak izan dezala betiko bizia; eta Nik piztuko dut azken egunean».

«**N**igana datorrena ez dut kanpora uxatuko», esan du Jesusek. **ABEGI ON ONA** da Jesus. Hala izan zen bizitza osoan (bekatari, behartsu, gaixo, zokoratuentzat). Ez zen sentituko erreus harengana hurbiltzen ahal zen inor. **ELIKATZEN GAITUEN** harrera da. Zeruko Ogia da: jaten duenak halako moduan asetzen du bere gosea non ez baitu goserik izango gehiago. Eta **BIZIA** ematen digu. Bizia betirako. Bizi bete. Horregatik, esan diezaiokegu: Jauna! Norengana joango gara. Betiko bizirako hitzak dituzu zuk. Eta, hori esatearekin, geuk ere pertsona harreragile bihurtu nahi dugu, eta besteei irekiak, partikularki behartsuenei. Harengandik etengabe hartzen dugun bizia emateko.

[Apostoluen Eginak liburutik 8,26-40: Hona ura; zerk eragozten du ni bataiatzea? Sal [66] 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudana ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana»

(Maria, Jesusen Lagundiaren ama)

«**S**emearekin jarriak izatea»: hona Ignazioaren behin eta berrizko eskaria Jesusen Amari. Izatez, Mariari, beraren Semearekiko harremani dagokienez, egoki aplikatzen ahal zaizkio Rut moabdarrak Noemi bere amaginarrebari esan ohi zizkion hitzak: «zu non, ni han». Horregatik, Mariagana joz, Jesusengana jotzen dugu. Beraz, «harekin jarriak izatea» nahi dugu. Hurbilagotik berari jarraitzeko («zuri jarraituz, Jauna, ezin galduko naiz», otoitzen zuen Ignaziok bere egunkari espiritualean). Eta berarekin beraren helmuga bera iritsi ahalko dut: **BIZIA**, gure eguneroko bizitzako mila eta gehiago «heriotzetan» barna. Ondorioz, «ez ezazu izan erreparorik Maria onartzeko» zeure bizitzan. Hari abegi eginez, Jesusi diozu egiten.

Pazkoaldiko 3. astea.

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama,
1541-04-22an Lagundia Erromak onartua izana gogoratuz.

San Sotero, *13. aita santua*. San Apeles, *aitorlea*.

«**J**aingoaren ikasle izango zarete guztiok». Eta, «ikasle» esaten duenak, «ikaskide» ere esaten du. Guztiok baitiogu Jesus aurkitzen elkarri, batak besteari, laguntzen. Liburu Santua irakurtzen ari zen etiopiar funtzionario hura bezala, ezin baitzuen ulertu irakurtzen zuena. Felipe diakonoa bidera irten zitzaion eta argitu zion Liburu Santua. Pozik jarri zen horrenbestez etiopiarra, bataioa eskatu eta alai jarraitu zuen bidean aurrera. Horretara bultza egiten du ikasle eta ikaskide izateak: ez txandako irakasleari loturik gelditzera, baizik eta nork bere fedea sakon bizitzera eta bidean aurrera alai egitera, Jesusekin topo egin dugulako. Honetarako elikatu gaitu eta honek lagundu digu gainerakoak elikatzen.

Gogora zaitetz,

Andre Maria erruki-errukitsua,
ez dela sekula entzun
zure babesera jo duen inor,
zuri adiskidetasuna eta laguntza eskatuz,
entzun gabe utzi duzunik.

Konfiantza honek dit eragin,
zugana etortzera,
oi Ama, birjinen Birjina;
eta, neure bekatuen zamaz lantuka,
zu zerutar horren aurrera nator ausarti;
Jaingoaren Ama, ez baztertu nire erregua;
aitzitik, entzun eta onartu onbera. Amen.
(San Bernardo)

Pazkoaldiko 3. astea.
San Jorje, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 9,1-20: Neure zerbitzurako aukeratu dut gizon hori, jentilei nire izena adieraz diezaien. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 52-59.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?»

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan.

Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era beretan, Ni jaten nauena niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Hau guztia Kafarnaungo sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

Bat-batean, bizi-ogiari buruzko hitzaldia haragiari eta odolari buruzko bihurtu da. Beraren haragia jan. Beraren odola edan. «Haragia»: esanahi handiko hitza da Biblian. Gizakiaren ahuldadea iradokitzen du, hauskortasuna, pobretasuna. Orobat adierazten du solidaritatea ere. Horixe izan zen Jainkoaren Semearen gizakundea: Jainko izateari utzi gabe, ahul, hauskor agertu zen... pobre pobreen artean. Solidario: gainerakoentzat gizon. BERAREN HARAGIA JATEAK Jesusen biziera gure egitea esan nahi du. «Odolak» bizia iradokitzen du. BERAREN ODOLA EDATEAK hau esan nahi du: uztea Jesusen bizitzak, odolak bezala, gure arterietan korritu dezan. Gu beraganatu (beraren antzeko bihurtu), bera gureganatu den bezala.

Pazkoaldiko 3. astea.

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 9,31-42: Eraikiz eta ugalduz zihoan Eliza, Espiritu Santuagandiko adoreari esker. Sal 116 [115]: Nola ordainduko diot Jaunari egin didan on guztia?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuen: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen».

Geroztik, haren ikasleetariko askok atzera egin zuen, eta aurreantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

«**E**ntzule-multzorearen indizearen» bila ibiltzeak honetara eramán ohi gaitu batzuetan: entzun nahi izaten dena bakarrik esatera. Jendeak ez ditu atsegin itxuraz «gogorrak» diren hitz egiteko moduak (eta egiaren aurrez aurre jartzen gaituenari esaten diogu «gogorra», besterik gabe). Ez ditugu gogoko «espiritua eta bizia» eskualdatzen duten hitzak. Soilik, lausengu diren hitzak onartzen ditugu, belarria goxatzen dutenak bakarrik, txalotze errazaren bila ibiltzen gara. Soilik, «light» hizketa, arina, izaten dugu jasangarri. Horregatik, hunkigarri eta interpelatzaile ditugu Pedrok Jesusi esandakoak: «norengana joango

Pazkoaldiko 3. astea.

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*.

gara? Zuk bakarrik dituzu betiko bizirako hitzak!» Eta Pedrokekin batean erregutzen diogu Maisuari: «hitz egiguzu, Jauna! Esan guri bihotzera betiko bizirako hitzak! Esaguzu aske egin gaitzakeen Egia bakarra! Zu zeu zaren Egia hori!»

Pazkoaldiko 4. astea.
SAN MARKOS, EBANJELARIA.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4, 8-12.

Aldi hartan, Pedrok, Espiritu Santuaz beterik, esan zuen: «Herriko agintari eta zaharrok, gaur, gaixo bati eginiko mesedea dela eta, noren eskuz sendatu den galdetzen diguzue; bego, beraz, argi zuentzat guztiontzat eta Israel herri osoarentzat, zuek gurutziltzatu eta Jainkoak hilen artetik piztu zuen Jesu Kristo Nazaretarraren izenean duzuela gizon hau zeuen aurrean sendaturik. Jesus hauxe da zuek, “etxegileok, baztertutako harria, giltzarri gertatua”. Honengan bakarrik dugu salbamina, ez baitigu Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor eman eguzkipean, gu salba gaitzakeenik».

[Sal 118 [117]: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.]

§ San Joanen 1 gutunetik 3, 1-2.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garelara, den bezalakoa ikusiko baitugu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 11-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardien alde. Ez, ordea, morroiak, artzain ez denak eta ardiak bereak ez dituenak; honek, otsoa datorrela ikustean, ardiak utzi eta ihes egiten du; eta otsoak ardiak harrapatu eta sakabanatu egiten ditu. Izan ere, morroiari lansaria zaio axola, eta ez ardiak.

Ni naiz artzain ona. Ezagutzen ditut neure ardiak, eta neureek ezagutzen naute Ni, Aitak Ni ezagutzen nauen eta Nik Aita ezagutzen dudana bezalaxe. Nik neure bizia ematen dut ardien alde. Badituz artegi honetakoak ez diren beste ardi batzuk; hauek ere erakarri egin behar dituz; adituko dute nire ahotsa eta artalde bakarria izango dira, artzain bakarraren gidaritzapean.

Horregatik maite nau Aitak: neure bizia ematen dudalako, berriro eskuratzeko. Ez dit bizia inork kentzen, Neuk ematen dut neure kabuz. Neure esku dut ematea eta neure esku berriro eskuratzea. Hori da neure Aitagandik hartu dudana agindua».

Jesusen hitzak, artzain onari dagozkionak, bultzagarri dira gure gizarte indibidualista honentzat, «nork berea» eta «besteak hor konpon» dioen ikur ez-solidarioa bizi duen honentzat. Jesus da artzain ona, bizia eman duena; kontua ez da, besterik gabe, mundu errukigabe honetan bizia kendu diotela; baizik eta ebanjelio-usaina duen orenen aurkako gorrotoa da gauzarik larriena; asko baita horrelakorik mundu honetan. Bere ardiak «ezagutzen dituen» artzain ona da, hau da, «maite dituen», horixe esan nahi baitu «ezagutu» hitzak Biblian. Gure gizarte honetako harreman anonimo eta «anonimotasun zaleen» gainetik dago Jesus. Bere begiratua ez du mugatzen bere artegiko ardietara. Harago doa: «badituz beste ardi batzuk», hau da, ez da kontua «badira» esatea. Baizik eta nirekin zerikusia dutenak dira eta nik beraiekin. Haienik ezer ez dago nigandik at. Eta «artalde bakar bat eta artzain bakar bat» antziaz dituz, familia bakar bat, baina hartan bakoitza aintzat hartua izango delarik eta bere nortasun pertsonal eta ezin besterenduan maitatua. Jesusen hitzak, garbiro, elkarteko artzainei doazkie. Baina baita beraren jarraitzaileei ere. Zeren eta ba al da inor dudana jar dezakeenik «bere anaiaren zaindari» dela?

Pazkoaldiko 4. astea.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

§ San Paulok 1 Korintoarrei gutunetik 2, 1-10.

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoaren salbamen-asmoa iragartzera joan nintzaizuenean, ez nizuen hitz egin giza jakinduriatzko hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua, izan ezik.

Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar agertu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriatzko argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarritu zedin, eta ez giza jakindurian.

Jakinduria irakasten diegu guk kristau helduei; baina jakinduria hori ez da mundu honetakoa, ezta laster galduko diren mundu honetako agintariena ere. Guk Jainkoaren jakinduria misteriozua irakasten dugu, hark ezkutuan edukia eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Mundu honetako agintarietako inork ez du ezagutu jakinduria hori, zeren, ezagutu izan balute, ez baitzuten gurutziltzatuko Jainkoaren aintza berekin zuen Jauna.

Baina, Liburu Santuak dioen bezala, «inork ikusi eta entzun ez duena, gizakiari inoiz bururatu ez zaiona, Jainkoak bera maite dutenentzat presaturik zeukana», horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, gutzia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

[Sal119 [118]: Argi da zure hitza, Jauna, nire oinentzako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gazta. Baina gazta gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko gutziei argi egin diezaien.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

Ez gehiegizko protagonismoa, ez autoerreferentzia, Frantziskok, Erromako gotzainak hainbesteraino salatzen dituen, dira bide on Kristoren ikaslearentzat. Egon, baina moduz. Gainerakoak baliogabetzera jotzen duten protagonismoak inork bere egin gabe. Aitzitik, presentzia hain gordea bezain eginkorra bilatuz. Lehentasuna, benetan duen hari emanez: Jaunari, hura nahi baitugu aldarrikatu, eta anaiari eta arrebari, haiek nahi baititugu zerbitzatu. Motibatzen gaituena, azken honen ongia da eta haren, Jaunaren, aintza. Besterik ez. Horregatik, ikus ditzatela gure egintza onak, bai, baina aintza eman diezaiotela Aitari, hari baitzaio zor. «Ez guri, Jauna, ez guri, baizik eta zure Izen santuari aintza!»

Sinesten dut bizitza,
pozten nau bizitzak
poz betirainokoaz.
Piztu da Jesu Kristo
sekulako poz.
(B. Gandiaga).

[Apostoluen Eginak liburutik 11,19-26: Jentilei ere Jesus Jaunaren Berri Ona iragartzen hasi ziren. **Sal 87 [86]:** Goretsazue Jauna, nazio guztiok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 22-30.

Aldi hartan, tenpluaren sagarapen-jaiak ospatzen ziren Jerusalem. Negua zen. Jesus tenpluan zebilen, Salomonen aterpean. Inguratu zuten juduek eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzu zalantzan? Zu bazara Mesias, esaguzu argi eta garbi».

Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik neure Aitaren izenean egiten ditudan egintzek ematen dute nire alde testigantza; zuek, ordea, ez duzue sinesten, nire ardietaoak ez zarretelako.

Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko.

Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

Ultimek. Esaguzu, behingoz, Mesias zaren ala ez!... Baina beste hau da egia: ezin joan gaitezkeela, ez Jainkoagana, ez Jesusengana inolako ultimatumeekin. Ezin izan da hori Jesusen jarraitzaileen edo ardien jokabidea, Jesusek berak dioskunez gaurko ebanjelioan. Ardiek badakite Jesusek Aitaren izenean egiten dituen egitateei antzematen, eta aski izaten dute horrenbestez. Badakite, orobat, artzain onaren ahotsari antzematen eta jarraitu egiten diote. Harengan jarria dute beren konfiantza. Erabat, «txeke bat zuri» eman balie bezala. Ez dizkiote bere eskutatik harrapatuko, ez Jesusi, ez Aitari. Hain baturik daude Jesusi, nola dagoen berau bere Aitari. Beste zein ultimatua opa lezake Jesusen jarraitzaileak?

[Apostoluen Eginak liburutik 1 2,24–13,5a: Bereizi niretzat Bernabe eta Saulo. Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,44-50.

Aldi hartan, Jesusek oihu eginez esan zuen: «Nigan sinesten duenak, nigan ez ezik, Ni bidali nauenagan ere sinesten du. Eta Ni ikusten nauenak Ni bidali nauena ere ikusten du.

Ni argi izateko etorri naiz mundura, nigan sinesten duen inor ilunpean geldi ez dadin. Nire hitzak entzun bai, baina betetzen ez dituenak, ez dut Nik gaitzesten, ez bainaiz mundua gaitzestera etorri, mundua salbatzera baizik.

Ni ukatu eta nire hitzak onartzen ez dituenak badu nork gaitzetsi; Nik adierazitako hitzak berak gaitzetsiko du azken egunean; Nik ez baitut neure kabuz hitz egin, baizik eta bidali nauen Aitak agindu dit zer esan eta zer irakatsi. Eta badakit haren aginduak betiko bizia ematen duela. Horrela, bada, Nik esaten dudana, Aitak agindu bezala esaten dut».

Jesusengan sinesten duenak, ez du sinesten harengan bakarrik, baita bera bidali duenagan ere. Jesusi entzuten dionak, ez dio entzuten hari bakarrik, baita bera bidali duenari ere. Eta hau guztia, Jesusek eta Aitak beren artean bizi duten batasun barnekoiagatik. Baina hau guztia luza daiteke honela. Gu, bidaliok, deituak gaude bidali gaituen hari baturik bizitzera. Ez gabiltza geure gisa: Kristoren misioaren zerbitzari gara. Horrela, gure hitza eta misioa sinesgarriago bihurtzen dira. Jendea, guri entzunez eta gu ikusiz eta guri sinetsiz, joango ahal da konbentzitud, Jesusi entzuten diola, Jesus ikusten duela, Jesusi sinesten diola! Izango ahal gara Jesusen gardentasun, gudan den orok hari egiten baitio erreferentzia!

Pazkoaldiko 4. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(Europako Zaindaria).

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argi da eta haren-gan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpetan baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argitan bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu.

Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baiditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan.

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

[Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zerulurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bi-

Pazkoaldiko 4. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(Europako Zaindaria).

hotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Zenbat bider murriztu dugun Jesusi jarraitzea eskakizun batzuen arau-multzo hutsera! Harritzekorik ez da batzuetan geure burua etsirik-edo ikustean eta dena bertan behera uzteko tentaturik. Nekaturik eta nahigabeturik, esan ohi dugu: aski da. Eta, halaz guztiz, gauza lauagoa da guztia. Maitasun honetan biltzen da guztia, Aitak eta Semeak beren artean duten harreman barneko honetan, gaur Jesusen otoitz honek agerian jartzen digun honetan. Honetan dago eman daitekeen jakinduriarik handienaren sekretua. Jakinduria, jende xumeari bakarrik ematen zaiona, zeinetara ezin baitira iritsi munduak jakintsutzat dituenak, uste izaten baitute korapilatuen eta sofistikatuenak denak ematen duela bermerik handiena.

Katalina Sienan jaio zen (Italian) 1347an. Hamabost urterekin, domingotarren hirugarren ordenako egin zen. San Domingok egindako agerpenaren ondoren, bere ile-adatsa moztu eta domingotarren abitua jantzi zuen. Gerora, adiskide-talde bat bildurik, komentua antolatu zuen bere sorterrian 1377an.

Oso kezkatua zegoen Katalina Elizak bizi zuen egoera nahasi eta okerraz: bai apezpiku eta apaiz askoren utzikeria, eta ustelkeria zela eta; bai aita santuaren aulkia Avignonen zegoela eta; bai Mendebaldeko zisma zela eta.

«Maitasunaren su bizia zuen, Jesu Kristoren nekaldia hausnartzeko eta Elizaren zerbitzari adoretzu izateko». Sienako 1374ko izurritean, egundokoak egin zituen gaixoak sendatzen. 1380an hil zen Erroman, Eliz irakasle izendaturiko emakumeetarik lehenengoa da, Avilako Teresarekin batera. (EEE Deustu)

Pazkoaldiko 4. astea.

San Pio V.a, 225. aita santua.

Santa Sofia, birjina eta martiria.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,26-34: Agintzaria geuri bete digu Jainkoak, Jesus berpiztuz. Sal 2: Nire seme zara zu; Nik zaitut gaur sortu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizitoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea». Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?» Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

Sinoptikoek «jarraitu» esaten duten lekuan Joanen ebanjelioak «egon» esaten du. Zeruan «egoitza» asko dira... ni «nagoen» lekuan han «zaudete» zuek ere. Baina ez da «hor egote» soil bat, baizik bete-betea «egotea». Ezaguna da Aita Arrupek kontatzen zuen pasadizo bat japoniar emakume katekumeno bati buruz. Denbora asko egin ohi zuen sagraioaren aurrean. Egun batean galdetu zion Arrupek: «zer egiten duzu sagraioaren aurrean?» «Ezer ez», erantzun zion. «Nolatan ezer ez? Eman al daiteke horrenbeste denbora sagraioaren aurrean ezer egin gabe?» Txunditurik galdeketa harengatik, erantzun zion: «Zer egiten dudan? Ba, egon!» Ba, horixe da arazoa: egotea, anaiarentzat / arrebarentzat, eta anaiarekin / arrebarekin.





MAIATZA / ORRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:
Finantzen mundua

Egin dezagun otoiitz: Finantza-munduaren erantzukizuna dutenak lankidetzan ari daitezen gobernuekin, finantzen eremua arautzeko, hiritarrek beren arriskutik babesteko.

Pazkoaldiko 4. astea.
SAN JOSE LANGILEA

[Apostoluen Eginak liburutik 13, 44-52: Jentilengana joko dugu. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Ez da (ordulariez, egutegiez) neurtzen den denbora, baizik eta bizi ohi duguna (geure bihotzean), Jaunarekin ditugun harremanak nolakoak diren adierazteko balio duena. Adibidez: «hainbeste denbora da berarekin gaudela eta oraindik ez dugu ezagutzen». Horregatik aurpegiratu dio Jesusek Feliperi (eta komeniko litzaiguke Jesusen aurpegiratze hori ez minimizatzea, gurekin zerikusirik ez balu bezala). Pertsona oro da beti misterio, sakondu beharrekoa. Gu geu ere geuretzat misterio gara. Horretan sakonera jotzeari uztea geldialdi zakarra izango litzateke eta atzera egitea. Horregatik eskatzen diogu Jaunaren barnea ezagutu ahal izatea, niregatik egin baita gizon, GEHIAGO maita dezadan eta sutsuago jarraitu ahal diezaiodan.

Pazkoaldiko 4. astea.
SAN JOSE LANGILEA

SAN JOSEREN JAIKO MEZA

§ Hasiera liburutik 1,26–2,3.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak».

Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak».

Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurrean azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen.

Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurrak eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen. Jainkoak bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean bere kreazio-lan guztiak.

[Sal 90 [89]: Sendotu ezazu, Jauna, gure eskuen lana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, eta irakasten hasi zen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek

Pazkoaldiko 4. astea.
SAN JOSE LANGILEA

horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, ba, arotzaren semea? Ez al da Maria honen ama, eta Santiago, Jose, Judas eta Simon honen anaiak? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi? Nondik du, beraz, hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

Jose, arotza

2005eko maiatzaren 1ean, eta lehen aldiz bere aitasantutza-aldian, Vatikanoko leihora atera zen Benedikto XVI.a, Joan Paulo II.aren ohiturari jarraituz. Eta, noski, San Joseri buruz hitz egin zuen: «Gaur maiatza hasten dugu, kristau-herrian ongi errotutako ospakizun liturgiko batekin, San Jose Langilearenarekin. Eta dakizuenez, ni ere Jose deitzen naiz. Pio XII.a Aita Santuak ezarri zuen oroitzapen-egun hau, duela berrogeita hamar urte; lanaren garrantzia nabarmentzeko, hain zuzen ere, eta baita Kristoren eta Elizaren garrantzia ere langileen munduan. Gaurko gizartean ere beharrezkoa da “lanaren ebanjelioaren” testigantza egitea, Joan Paulo II.ak Laborem exercens bere entziklikan aipatu bezala.

Desio dut inoiz lanik ez falta izatea, gazteek batez ere, eta lanbaldintzak izan daitezela gero eta errespetu handiagokoak pertsonentzat». «Joserren bizitza osoa hartzen du “arotzaren” tituluak. Lana izan zen Nazareteko bere Familiari izan zion maitasuna adierazteko eguneroko bidea. Jesus ere esaneko izan zen, Joserren lanean parte hartuz, eta ezagutu ere “arotzaren semetzat” ezagutzen zuten» (Benedikto XVI.a).

Pazkoaldiko 5. astea.

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

San Felix, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 9, 26-31.

Egun haietan, Saulo, Jerusalemera iritsi zenean, ikasleekin elkartu nahian zebilen; baina beldurra zioten denek, ez baitzuten sinesten benetan ikasle zela.

Orduan, Bernabek Saulo berekin hartu eta apostoluei aurkeztu zien. Kontatu zien nola ikusi zuen Saulok Damaskora bidean Jauna, nola mintzatu zitzaion Jauna eta nolako ausardiaz hitz egin zuen Damaskon Jesusen izenaz. Ordutik, apostoluekin batera ibili ohi zen Saulo Jerusalem, Jaunaren izenaz ausardiaz hitz eginez. Greko-hizkuntzako juduekin ere hizketan eta eztabaidan jarduten zuen; baina hauek Saulo hiltzeko asmotan zebiltzan. Senideek, hori jakitean, Zesareara eraman zuten eta handik Tartsora bidali.

Eliz elkartearen bakean bizi zen Judea osoan, Galilean eta Samarian; Jaunaganako leialtasunean bizi zen, eta eraikiz eta ugalduz zihohan, Espiritu Santuagandiko adoreari esker

[Sal 22 [21]: Zugana nire gorespena, Jauna, batzar nagusian.]

§ San Joanen 1 gutunetik 3, 18-24.

Ene seme-alabok, ez dezagula hitzez eta ahoz maita, egitez eta egiaz baizik. Horrela jakingo dugu egiarenak garela, eta lasaituko dugu geure barrua Jainkoaren aurrean; gure barruak errudun garela esaten badigu ere, gure barrua baino handiagoa da Jainkoa, eta dena ezagutzen du. Ene maiteok, barruak errudun garela esaten ez badigu, uste osoa dugu Jainkoagan. Eskatu ahala guztia hartzen dugu Jainkoagandik, haren aginduak betetzen baititugu eta hari atsegin zaiona egiten. Eta hau da haren agindua: haren Seme Jesu Kristoren izenean sinetsi eta elkar maita dezagula, hark agindu zigun bezala. Haren aginduak betetzen dituen Jainkoagan dago eta Jainkoa harengan. Honela dakigu gurekin dagoela: eman digun Espirituaren bidez.

Pazkoaldiko 5. astea.

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*.San Felix, *martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue.

Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Jesusengan irau... Berak irau dezala gudan... Eta irau dezatela beraren hitzek ere gudan... Zer gehiago espero nezakeen berarekiko harremanetan maila honetaraino iritsi naizenean? Zerua ukitzen dugula uste izaten dugu egoera honetara iristean! Eta, halaz guztiz, gehiago ere egin dezakegu aurrera oraindik. Bada oraindik gehiagorik. Zer? Aitak gudan etengabe egiten dituen «inausketak», fruitu gehiago eman ahal dezagun. Bai, inausketak... Oinaze-, ilunaldi-, porrot-une horiek. Bizitzako aroak, egiten dugun eta gertatzen zaigun ezeri bilatu ezinik, ez zentzurik, ez arrazoirik. Dena atzekoz aurrera gertatzen zaigu. Ez aurrera ez atzera, geldirik sentitzen gara... Eta, halaz guztiz, une horiek ere une emankor izaten dira, barruntatzeko gauza ez bagara ere. Gurutzeko Donibane «gau ilunaz» mintzo zaigu. Hau da, ilunaldi handiak, argi bizi batek inguratutik. Hutsune bat, egundoko betetasun bat sostengu duela. Gure «ego»a uzteko unea, Jainkoa bera izan dadin gure errealitate pertsonala beteko duena, baita inguratzen duena ere. Zeren eta, bera gabe, ez da kontua oraino ere zerbait badezakegula, ezer gutxi... Izan ere, ezin dugu ezer egin!

Pazkoaldiko 5. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

§ San Paulok 1 Korintoarrei 15,1-8.

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten.

Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei.

Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

[Sal 19 [18]: Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,6-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Pazkoaldiko 5. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Joanen ebanjelioan gero eta gehiago Jesusengan beragan biltzera jotzen du den-denak. Ez dakigula zein diren Jainkoagana eraman gaitzaketen bideak?, ba, Jesus da Bidea. Lehiatsu goazela egiaren bila:?, ba, Jesus da Egia. Bizi zoriontsua antsiatzen dugula? (horrela imajinatzen dugu Jainkoaren baitako bizia), ba, Jesus da Bizia. Jesus, beti Jesus. Gainera, Gurutzeko Donibanek gogoratzen digu ezen Jesus altxor-mehatze agortezina dela, zeinetan, nahi adina baino gehiago barrura egin arren, beti aurkituko dugula aberastasun berririk. Horregatik, nahiz denbora asko den berarekin daramaguna, hondoan, beti izango gara gu hasiberri. Eta poz ematekoa dugu hori.

Pazkoaldiko 5. astea.

San Jose Maria Rubio, *apaiza, jesuita*.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,19-28: Jainkoak beraien bidez egin-dako guztia azaldu zioten elkarteari. Sal 145 [144]: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,27-31a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez beldur izan. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita.

Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen. Ez dut jadanik luze hitz egingo zuekin, bai baitator mundu honetako buruzagia. Horrek ez du nire gain ahalmenik; baina munduak jakin behar du Nik maite dudala Aita eta Aitaren agindua bete egiten dudala».

«**B**akea uzten dizuet, neure bakea ematen». Ez da munduak ematen duena bezalakoa, indarkeria-eza izatearekin konformatzen baita hori. Jesus Berpiztuak eskualdatzen digun bakea «Shalom» biblikoa da: Jainkoarekiko adiskidetasuna esan nahi du, hurkoarekin adiskidetasuna, norberaren buruarekin adiskidetasuna, Ama Lurrarekin adiskidetasuna. Historiaren egunsentian, hari hartako baratzean, bizi zen adiskidetasun bera. Beraz, gure kanpoaldea eta gure barnea ere janzten dituen adiskidetasuna da. Horregatik, inguruabar askotarikoenetan izan daiteke Jesusen bake hau. Kanpoko gertaerak orroka ari arren, bake honen murmurio gozo eta atsegina senti dezakegu barnean. Eska dezagun, beraz: Emaguzu, Jauna, ZEURE bakea!

Pazkoaldiko 5. astea.

Santa Felizisima, *martiria*.Santa Irene, *martiria*.

[Apostoluen Eginak gutunetik 15,1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzia argitzera. Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Fruitu ematea da (ez da arrakasta izatea bezalako) Jesusek eskatzen diguna. Bestela, mahats-aihen horiek bezalako izango gara: ihar, ebaki eta sura botatzeko gai. Geure bizitzan Jesusek bakarrik burutu ditzakeen «inausketa» horiek esperimintatzea dagokigu. Ezinbestekoa dela iruditzen zaigun, baina ez den, hartaz desjabetzea (azken batean, asko, gehiegi maite dugun hartaz). Guk ez dakigu, guztiz seguru, zer beharko litzatekeen inausi. Ez dugu adorerik hartarako. Harengan irautea behar da eta berak gudan irautea. Ezin ibili gara bakarrik, nor bere gisa. Gogo Jardunetako Erregearen meditazioko «nirekin» hura funtsezkoa da. Horrela izango dira emankor gure apostolu-lana eta besteen aldeko gure zeregina.

Pazkoaldiko 5. astea.

Domingo Savio santua, *aitorlea*.

San Luzio, *profeta eta doktorea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 15, 7-21: Ene iritziz, ez zaie alferreko oztoporik ezarri behar Jainkoagana bihurtzen diren jentilei. Sal 96 [95]: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin».

Jesusen maitasunean irautea, Jesusek Aitaren maitasunean irauten duen bezala. Nola? Aginduak betez. Horrela, ez ezerk, ez inork suntsi ez dezakeen barnekoitasunera iristen da bat. Barnekoitasuna, poz betearen sorburua. Baina baita geure baitan hesitzen ez gaituen barnekoitasuna ere: gainerakoengana irekitzen gaitu. Hauxe izan zen lehen kristau-elkartearen intuizioa Jerusalemgo batzarrean: judaismotik ez zetozen haiengana irekitzea. Arazoa zen, soil-soilik, ez ezartzea beharrezkoak baino zama gehiago; ez gogaitzea Jesusen Jainkoagana zetozen jentilak, arrotz iruditzen zitzaizkien eta beharrezko ez ziren aginduekin. Azken batean, atek zabalik dituen elkarte bihurtzea zen arazoa.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,22-31: Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko direnak izan ezik. *Sal 57 [56]:* Goretsiko zaitut, Jauna, herrien artean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,12-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela edonon; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Ebanjelioko testu hau komentatuz, Lisieuxko Teresak «nik maite zaituztedan bezala» delakoari erreparatu dio. Jesusek ezin eskatu du ezer ezinezkorik eta, halere, gure gaitasunaren gainetik dagoen agindu batekin egin dugu hemen topo. Nolatan maita dezakegu berak maite gaituen bezala? Orduan bakarrik izango da posible —dio—, guran Jesusek berak maite badu. Paulok dio: «ez naiz ni bizi dena; Kristo da nigan bizi dena». Maitasuna, uztea da gure «ego»a urtu dadin, ur-tanta bat bezala, Jainkoaren maitasunaren mugagabeko ozeanoan, guran maite duena Jainkoaren maitasuna izan dadin. Hemen hondoa galtzen du giza hizkuntzak... Bihotzak entzun egin dezake soilik... Eta erregutu... Erregutzea da lehen urratsa!

Pazkoaldiko 5. astea.

Antiguako Andre Maria.

Santa Dominga, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,1-10: Zatoz Mazedoniara eta laguniezaguzu. Sal 100 [99]: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen niri izan didala gorroto. Mundukoak bazinet, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako.

Gogoratu esan nizuena: morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

Pertsekuzioa edo ez-ulertua izatea da Kristoren ikasle ororen zori saihestezina. Ezin izan zara gurutziltzatu baten ikasle zeuk penarik jasan gabe, zeuregan maisuak jasan duen gurutzearen ondorioak bizi gabe. Nahiz eta munduak dioen, ez duela ezer irabazten ez galtzen gu Maisuari atxikitzearekin edo ez atxikitzearekin, ez zaio axolagabeko gauza gu mundutik «irtetea» eta bizi izatea mundu berorrek oso bateragarri ez diren idealekin. Eta faktura egiten du horregatik. Eta, batzuetan, ondo puztua. Ondorioz, munduan gatazkarik ez badugu, arrazoi onak izan ditzakegu geure buruari galdetzeko: ea ebanjelioetako Kristori jarraitzen diogun hala geure antzeko eta irudiko egina dukegun Kristo bati.

§ Apostoluen Eginak liburutik 10, 25-26. 34-35. 44-48.

Egun hartan, Pedro sartzera zihoala, Kornelio bidera atera zitzaion eta oinetan ahuspeztu. Baina Pedrok zutiarazi zuen, esanez: «Altxa zaitez, gizaki hutsa naiz ni ere».

Orduan, honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere».

Artean Pedro hizketan ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen hitza entzuten ari ziren guztien gainera. Pedrokekin etorritako fededun juduak txunditurik zeuden Espiritu Santuaren dohaina jentilen gainera ere jaisten zela ikustean. Izan ere, hizketa arrotzez hitz egiten eta Jainkoa handiesten entzuten zieten.

Orduan, esan zuen Pedrok: «Uka al diezaieke inork Bataioko ura, guk bezala Espiritu Santua hartu duten hauei?» Eta Jesu Kristoren izenean bataia zitzatela agindu zuen. Ondoren, egun batzuetan bertan gelditzeko eskatu zioten Pedrori.

[Sal 98 [97]: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.]

§ San Joanen 1 gutunetik Jn 4, 7-10.

Seme-alaba maitetok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoagandik baitator, eta maite duen guztia Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna baita.

Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Honetan datza maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatean, baizik eta hark gu maite izatean, eta bere Semea gure bekatuen barkamen-oparizat bidali izatean

Pazkoaldiko 6. astea.

San Gregorio Berruezakoa, *gotzaina, beneditarra*
(*Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan*).Santa Luminosa, *birjina*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburitik 15,9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; irauin tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean irauingo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraukorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

San Agustinek idatzi zuen: «ulertzen baduzu, hau da, atzematen baduzu, ez da Jainkoa». Jainkoa ezin dugu ulertu, ez definitu inola ere. Eta, halaz guztiz, ezin ahal dugu baieztatu «Jainkoa maitasun da» esatean egiaz ari garela ukitzen Jainkoari dagokionez giza hizkuntzaren mugak? Maitasuna ere ezin da, ez ulertu, ez definitu! Maitasunarena da beti hasiera edo ekimena («ez zarete zuek ni hautatu nauzuena, baizik eta neuk hautatu zaituztet zuek»). Eta Jainkoa maitasun da, ulertzeko gure gaitasunaren gainetik dago. Ez dakigu, beraz, non hasten den, ez non ipin daitekeen inolako mugarik. Honen guztiaren baitan, sentitzen dugu barnekoitasun-iturri dela maitasuna («jadanik ez dizuet esaten esklabo, baizik eta adiskide») eta bizi-iturri («inork ez du maitasun

9

Igandea / Domeka

MAIATZA / ORRILA

Pazkoaldiko 6. astea.

San Gregorio Berruezakoa, *gotzaina, beneditarra*
(*Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan*).

Santa Luminosa, *birjina*.

handiagorik, maite dituenentzat bere bizia ematen duenak baino»). Jainkoaren esperientziak honetatik guztitik zerbait ematen digu geure bizitzan. Galdera-erantzunen kristau-ikasbidea ikasten genuenean, delako hura-edo errezitatzen genuen: «bi agindu hauek bi hauetan laburbiltzen dira: maitatu Jainkoa eta maitatu lagun hurkoa, zeure burua bezala». Jesusi dagokion guztia honetan biltzen da, beraz: «maita ezazue elkar, nik maite zaituztedan bezala».

Pazkoaldiko 6. astea.

San Joan Avilakoa, *apaiza*.

San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,11-15: Jaunak bihotza ireki zion, Pauloren hitzak gogoz onar zitzan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,26–16,4a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Laguntzailea, jatorria Aitagan duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitagandik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete.

Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute, ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean esana nizuela gogora dezazuen».

Jesusen hitzek («iritsiko da ordua zeinetan eraikio zaituztenak uste izango baitu Jainkoari kultua eskaintzen diola») gaurkotasan kezagarri eta mingarria dute gure egun hauetan. Nolatan gerta daiteke uste izatea Jainkoari kultua eskaintzen diola, norberaren antzeko bat erailez? Ezin erail da inor Jainkoaren izenean! Ezin erabili da Jainkoaren izena alferrik, eta askoz gutxiago norberaren antzeko baten aurka! Gure egun hauetako martiri anonimoek gure solidaritate mindua sustatzen dute, eta,aldi berean, astindua ematen diote geure segimenean agertzen dugun epelkeriari. Espirituari erregutzero eragiten digute, erlijio guztietako fededunengan elkarriketarako gogoa esna dezan, fededun guztiak bake-eta adiskidetasun-egile benetako bihur daitezten.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,22-34: Sinetsi Jesus Jaunagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeokak. Sal 138 [137]: Zeure eskuinez salbatzen nauzu, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali ninduen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galdetzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza.

Hala ere, egia diotsuet: hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet.

Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua bekatuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nauzue gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

Guztiok izaten dugu kanpoko ereduaren beharra, ebanjelioa bizitzen lagundu diezaguten. Ebanjelioa haragi bihurtzen ez bada beren etsenpluaz eta hitzaz eragiten eta laguntzen diguten pertsona jakin batzuetan, geuroi ere hura geure bizitzan haragi bihurtzen lagunduz, orduan arriskua izango luke ebanjelioak ideologia huts bilakatzeko. Baina orobat izaten dugu aipatu ereduetatik aldendu beharra ere: barneratzeko, ebanjelioa benetan geure egiteko eta Jesusekiko jarraipena nork bere estilo bereziaz kutsatzeko. Azken batean, Jesusek ez digu dei egiten purra-purra eginez, baizik eta nori bere dei berezia eginez, norberaren historia pertsonala eta errepikaezina kontuan hartuz. Horregatik, «komeni zaizue ni joatea»... era paradoxikoan, egiaz eta benetan Emmanuel, hau da, Jainkoa-zuekin izan nadin, zeuen barnekoitasuna baino barnekoia goa.

Pazkoaldiko 6. astea.

Santo Domingo Ozkabartekoa (de la Calzada, Errioxan),
erlijiosoa. San Nereo eta San Akileo, *martiriak*.
San Pankrazio, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 17,15.22–18,1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik. Sal 148: Zerulurrak beterik dauzka zure distirak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egiaren Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu.

Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

Egia betea dugu geure helmuga. Ez da gaur egun eskuan daukaguna, baizik eta hartarantz goaz, barruntatuz bakarrik bada ere. Baina, halere, barruntatu edo sumatu egiten dugu hain ezezaguna izan arren, nola den Jainkoa ezezagun, Paulok Atenasko areopagoan mintzagai zuena. Horregatik gabilta beraren bila haztamuka: batzuetan, hitzarmen-lagun ditugun ilun errudunengatik, eta, beste batzuetan, Jesusekiko jarraipenean bizi behar izaten ditugun gau ilunengatik. Baina barneko segurtasuna dugularik ezen Egia honetan, hau da, Jesusengan beragan mugitzen gabela, existitzen gabela eta, izan ere, gabela. Beraren jatorrikoak garelako. Bera da Egia betea, gure jatorriko egin da, gutako bat, Emmanuel, hau da, Jainkoa-gurekin izateraino.

Pazkoaldiko 6. astea.

Zeruko Andre Maria **Fatiman** agertua.San Andres Huberto Fournet, *apaiza*.

[Apostoluen Eginak liburutik 18,1-8: Haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean, eta sinagogan eztabaidan jarduten zuen. **Sal 98 [97]:** Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro».

Ikasleetako batzuek hau zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”, eta “Aitagana noa”? Zer esan nahi ote du horrako “gutxi barru” horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den».

Konturatu zen Jesus galdegin nahi ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”. Egiegiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da».

Elizaren Liturgiak otoitzen irakasten digu: «egizu Jauna, mundu honetako gauza iragankorren artean, gure bihotzak eutsi diezaiola irmo egiazko poza berekin duen hari». Jesusen agur-hitzaldiek gure bizitzaren ezaugarri diren aldizkatzeak eta gorabeherak aurkezten dituzte: joan... itzuli... / ez ikusi... ikusi... / tristura... poza. Baina, Jesus Aitaganantz baitoa —hori du bere helmuga, gurea den bezalaxe—; azken eta behin betiko hitza ikustea da, itzultzea eta pozarena. Horrela, Jesusen jarraitzaile izatearen gure bizitzan sar daitekeen tristura pasadizokoa, unean unekoa, bakarrik izan daiteke. Pozera garamatzen bide bilakatzen den tristura.

Pazkoaldiko 6. astea.
SAN MATIAS, APOSTOLUA.

[Apostoluen Eginak liburutik 1,15-17.20-26: Zotz eginik, Matias egokitu zitzazion, eta hamaika apostoluekin elkartu zuten. Sal 113 [112]: Bere herriko handikiekin eserarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Gaurko ebanjelioko hitzei testamentu-usaina darie. Hau du arazoa: era bilduan, hitz gutxitan, osorik esatea zer izan den bizitza oso bat, zer izan den prediku bat. Garrantzizkoena, beraren adiskideen eta ikasleen bihotzean grabaturik gelditi dadin nahi duena. Eta dena hitz honetan biltzen da: «maita ezazue elkar». Baina ez edozein modutan, ez geure bihotzak eraman gaitzan utziz, batzuetan murrizkeriak tentatua delarik. Ez. Kontua, «berak maite gaituen bezala» maitatzea da. Eta berak, bizia gugatik emanez maite izan gaitu. Horrek, beraren eta gure artean, harreman barnekoiak sortzen ditu. Jadanik ez gara esklabo, baizik eta adiskide. Harremanak, zeinetan hasiera edo ekimena berak baitu.

[Apostoluen Eginak liburutik 18,23-28: Liburu Santuen bidez, Jesus zela Mesias frogatu Apolok. Sal 47 [46]: Jauna da mundu osoaren errege.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitari zerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin.

Orain arte irudi bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua irudi bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodala; zeren Aitak berak maite baitzaituzte, zuek Ni maite izan nauzuelako eta Jainkoagandik etorri naizela sinetsi duzuelako.

Aitagandik irten eta mundura etorri nintzen; orain mundua utzi eta Aitagana noa berriro».

Jesusen zikloa —Aitagandik irten... mundura etorri--- mundua utzi... Aitagana itzuli— ziklo oso bat da. Baina ez da inolaz ere ziklo itxia. Bere barnean hartzen gaitu gu ere. Jesusi esker «ukitu» dezakegu —ilunpean bada ere, esperientzia hau ezin baita itorik gerta milaka huskeriak gorabehera— Jainkoaren hondo sakona. Bere baitan komunio edo elkartasun den Jainkoa. Eta elkartasun irekia, elkartasun horretaz beraz partekatzen gonbidatzen gaituen neurrian. Jainko horrengan seme-alaba gara Semeagan. Eta anai-arreba elkarrekin. Hor dago errealitate hau, guri egindako dei bezala bertan murgil egitea. Horregatik, Jesusen zikloa ziklo osoa bada, gure poza ere bai.

Pazkoaldiko 7. astea. JAUNAREN IGOKUNDEA. San Mikel Garikoitz (1797-1863), *apaiza, fundatzailea (Betharramgo Jesusen Bihotzaren Apaizen Elkarte [Betharramdarra])*.*

§ Apostoluen Eginak liburutik 1,1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jaso izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzaizen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko frogas asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru».

Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?» Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkatatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

*San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita*. San Ubaldo, *martiria*. Santa Gema Galgani, *birjina*.

Pazkoaldiko 7. astea. JAUNAREN IGOKUNDEA. San Mikel Garikoitz (1797-1863), *apaiza, fundatzailea (Betharramgo Jesusen Bihotzaren Apaizen Elkartea [Betharramdarra]).**

[Sal 47 [46]: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena.

Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gaintetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gaintetik.

Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gaintetik Elizaren buru.

Haren gorputza da Eliza, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioaren bukaera San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu gutzira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan

*San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita*. San Ubaldo, *martiria*. Santa Gema Galgani, *birjina*.

Pazkoaldiko 7. astea. JAUNAREN IGOKUNDEA. San Mikel Garikoitz (1797-1863), *apaiza, fundatzailea (Betharramgo Jesusen Bihotzaren Apaizen Elkarte [Betharramdarra])*.*

hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoan izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Zergatik ez du izan behar gauza on zerura begiratzea eta Jainkoaren erakarmena geure bizitzan sentitzea? Pedrok Tabor mendian bezala, guk ere esan nahi genuke: «bai ondo gaudela hemen!» Izan ere, gu erakartzen jarraitzen du zeruak eta guretzat esperantza ezin baztertua izaten. «Jesu Kristoren Igokundea gure garaipena da jadanik, eta geuk ere espero dugu iristea gure buru den hura iritsi den hartara, beraren gorputz garelako», otoiz egiten dugu gaur mezako colecta-otoitzean. Halaz guztiz, zeru horretatik beretik bidaltzen gaituzte lurrera berriro ere: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira geldi? Itzuliko da bera, joaten ikusi duzuen bezala». Garaitzaile itzuliko da, beraz. Eta beraren garaipena maitasunaren garaipena izango da. Hau da, beraz, behar duguna: ireki daitezela bitartean, lurreko bideetan barna gabiltzan bitartean, ireki daitezela gure bihotzeko begiak. Utzi ditzagula alde batera itzuliko ez diren antzinako eta jada zaharkituak diren botereak berrezartzeko ametsak. Baitaratu, barneratu, ditzagula ebanjelioa hots egiteari datxezkion ekidin ezineko gatazkak. Konbentziturik, ordea, jada ez gaudela bakarrik; izan ere, «Jauna lankide dugu, gure hitzak lagun dituzten seinaleekin baietsiz».

*San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita*. San Ubaldo, *martiria*. Santa Gema Galgani, *birjina*.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*.

[Apostoluen Eginak liburutik 19,1-8: Hartu al zenuten Espiritu Santua, sinetsi zenutenean? Sal 68 [67]: Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egiten duzula, eta ez irudi bidez. Orain badakigu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorri zarela».

Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten duzuela? Hara, badator ordua, hobeki esan, etorria da, nor bere aldetik joanez sakabanatu eta Ni bakarrik utziko nauzuen ordua. Baina Ni ez nago bakarrik, neurekin baitut Aita.

Hau esan dizuet, nigan bakea izan dezazuen. Izango duzue larri-ardirik munduan; baina izan adore, garaitu dut Nik mundua».

Berpiztuak beti dakar berekin bakea. Berak ugari duen bakea eta, era berean, ugari eskualdatzen diguna. Bake honen azalpen bat eskaini digu berak esatean, bera ez dagoela sekula bakarrik, baizik eta Aitarekin dagoela beti. Bake hau bizitzean, geu ere ez gaude bakarrik, baizik eta Jesusekin gaude. Eta, batez ere, Jesus dago gurekin. Horrela, Jesusen jarraitzailea ezin izan da sekula «bakarti», baizik eta «solidario». Jainkoaren bihotza «ateak irekirik» dituen bihotza da, bakearen sorburu eta eskualdatzaile, Jesusena ere den bezala. Bake honetaz betetzea: horra gure antsiarik sutsuena. Eta bere beharra, «zerutik etorria denez», bake hori munduari eskualdatzea du.

[Apostoluen Eginak liburutik 20,17-27: Neure ibilaldia burutu eta Jesus Jaunak eman didan egitekoa bete behar dut. **Sal 68 [67]:** Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,1-11a.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hau da betiko bizia: Zu, egiazko Jainko bakar hori, eta Zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzea.

Nik zure aintza agertu dut munduan, Zuk eman zenidan egitekoa betez. Orain, Aita, emadazu aintza zeure ondoan, eman mundua mundu izan baino lehen zure ondoan nuen aintza.

Agertu diet zure izena mundutik bereizi eta eman zenizkidan gizon-emakumeei. Zeureak zenituen, Zuk niri eman zenizkidan, eta haiek onartu dute zure hitza. Badakite orain Zuk eman didazun guztia zugandik datorrela. Zuk niri eman zenizkidan hitzak eman dizkiet Nik, eta hauek onartu dituzte. Eta benetan jakin dute zugandik atera nintzela, eta sinetsi Zuk bidali ninduzula. Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Bai, dudan guztia zurea da eta Zuk duzuna nirea, eta hauengan agertu da nire aintza. Ez naiz aurrerantzean munduan egongo; hauek, bai, munduan jarraituko dute. Ni, berriz, zugana noa».

Nola Jesusen apaiz-otoitza hala Efesoko elkarteari Paulok egindako agurrekoa, biak dira erregu-otoitzaren bi eredu. Otoitz-mota hau bi konbentzimendu hauetan oinarritzen da: lehenengoa, konturatzea da «Kristoren misioaren zerbitzari» soil garena, eta ez misio haren jabe, hartua baitugu misio hura. Eta, bigarrena, Jainkoa bera dela lan egiten duena misioaren hartzaileengan. Aita Jeronimo Nadalek, Ignazioren pentsaeraren interpretetik hoberenak, esan ohi zuen bezala, biribil bat ezartzen da: otoitzetik ekintzara joaten gara eta honetatik, berriro, otoitzera. Halako eran non lehen eta azken hitzak Jainkoarenak baitira.

[Apostoluen Eginak liburutik 20,28-38: Jainkoaren eskuetan uzten zaituztet; hark badu ahalmen eraikitzeko eta oinordekotza emateko. **Sal 68 [67]** Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz Zeuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen Gu Geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, Nik zaindu ditut zeure izenean eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu behar zuena baizik; horrela, Liburu Santuek diotena bete da.

Orain, ordea, zugana noa. Oraindik munduan nagoela esaten dut hau guztia, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan dezaten. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala.

Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaritzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egiaren bidez».

Ez izan munduko... baina munduan egon. Ez daitezela sar, ez gure bihotzean, ez gure jardueran, irizpide anti-ebanjelikoak. Hain sumaezinak dira izatearen eta egotearen arteko mugak! Horregatik, buru-argi bizi beharra dugu, ondradu bizi beharra (norberarekin... gainerakoekin... Jainkoarekin...) engainuan ez erortzeko. Bereizmen-dohaina eskatu beharra dugu, «etengabeko bereizmen-egoeran» bizi beharra (hartarako, oso lagungarri izan dezakegu ignaziotar kontzientzia-azterketa). Batez ere, barkazioa eskatzen eta zuzentzen jakin beharra, bidea erratu dugula konturatuko garenean.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Bernardino Sienakoa, *apaiza, frantziskotarra.*

[Apostoluen Eginak liburutik 22,30; 23,6-11: Erroman ere nire testigu izan behar duzu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu nirekin eta Ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula.

Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere.

Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten.

Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

Bat izan daitezela! Jesusen goreneko erregua da hori bere bizitzako une nagusietan. Jesusek eskatzen duen batasun hori ez da uniformetasuna. Ez du eskatzen «ezpal berekoak» izan gaitezen. Onartzen eta sustatzen ditu aldeak; ez du ikusten horietan mehatxurik, baizik eta bata bestea aberasteko aukera. Neure mugapenak direla medio, ni iristen ez naizen hartara, besteak iritsi daitezke beren dohainez eta karismez. Azken batean, batasun honen erueda Hirutasuna da. Beronengandik gatoz eta beronengana ari gara bide egiten. Kontua ez da, beraz, inork ezarritako batasun bat lortzea, baizik eta dohaintzat hartzen den batasun bat. Bat izan daitezela, ni, Aita, zukan eta zu nigan bezala. Bat izan daitezela, gu bat garen bezala.

[Apostoluen Eginak liburutik 25,13-21: Hila den eta Paulok bizi dela dioen Jesus. Sal 103 [102]: Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,15-19.

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin gosaldu ondoren, esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak».

Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak».

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu».

Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

Bai gustagarria Jesusen eta Pedroren elkarrizketa Tiberiades lakuaren ertzean! Galdera hirukoitza eta erantzun hirukoitza: ukapen hirukoitzaren arrasto garratzak desegin nahia. Jesusek Pedrori baldintzarik gabe eskainitako barkazio honek bere onera ekarri du Pedro eta konfiantza itzuli dio. Gainera, elkarrizketa horretan ikusarazi dio Pedrori ezen berak Jesusi dion maitasun osoa (eta geuk dioguna) Jesusek guztioi digun maitasunaren fruitu eta dohain dela («Zuk dena dakizu! Zuk badakizu maite zaitudala!»). Eta, azkenik, oroitarazi digu ezen Jesusen maitasuna, nola berak guri diguna, hala guk berari dioguna, loturik dagoela, era ezin hautsian, BERAREN ardiak zaintzeari. Izan dadila maitasun-eginbide Jaunaren taldea bazkatzea, esan zuen San Agustinek.

Pazkoaldiko 7. astea.

Santa Joakina Vedruna, *fundatzailea**(Karitateko Karmeldarrak).*Santa Rita Casia-koa, *erlijiosa agustindarra.*

[Apostoluen Eginak liburutik 28,16-20.30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. Sal 11 [10]: Zuzenek ikusiko dute, Jauna, zure aurpegia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,20-25.

Aldi hartan, Pedrok, itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen, afarikoan, Jesusen bular ganean jarririk, «Jauna, nor da salduko zaituena?» galdetu ziona. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?» Jesusek erantzun zion: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri».

Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumurrua sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?»

Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituen, eta badakigu egiatzkoa dela haren testigantza.

Beste gauza asko ere egin zuen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste, mundu osoan ere ez lirakekeela sartuko idatz litezkeen liburuak.

Jesusi jarraitzea gauza pertsonala da eta ezin besterendua. Jesusek ez digu dei egiten deiak eskutadaka botaz, askorentzat bailiran bezala, baizik eta norberaren historia osoa kontuan harturik, akats guztiakin eta, orobat, bertute guztiakin: jarrai iezadazu. Ekiten diogu jarraitzeari eta orduan bion artean harreman bat hasten da, pertsonala eta ezin besterendua, behartzen gaituena alde batera uztera Jesusen gainerako jarraitzaileen bizitza fiskalizatzen ibiltzeko gogoia. «Jauna, eta hau, zer?»... «Eta zuri, zer?», erantzun dio Jesusek. Jesusi jarraitzeko pertsona baten neurriak ez du zertan izan beste baten neurri. «Zuk, segi niri». Azkenean, guztiok egingo dugu topo jarraipenaren bidean. Batak besteari lagunduz, bai, baina, batez ere, begiak Jesusengan ditugula finko.

MENDEKOSTE.

San Desiderio, *gotzaina*.
Santa Almerinda, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 2,1-11.

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuten. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalem judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarak, mediarrak eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

[Sal 104 [103]: Zeure arnasa bidal gugana eta lur-azala berritu, Jauna.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 12,3b-7.12-13.

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!» Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.

MENDEKOSTE.

San Desiderio, *gotzaina*.

Santa Almerinda, *martiria*.

Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

NEURTITZA

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik
zeure argi-izpia. Zatoz, gaixoen aita, zatoz, dohain-emaile, zatoz,
bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina, etxelagun atsegin, sargorian haize fin. Lan
arteon atsedean, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu, zintzoen bihotzeko zirrikiturik barnena. Zure
laguntza gabe, ez du gizakiak ezer, ez du ezer on denik.

Garbi zikin dagoena, busti lehor dagoena, zauriak oro senda.

Zurrun dena bigundu, makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.

Zugan uste on duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik. Zintzo
saria eman, osasun hil artean, poza betierez betiere.

Amen. Aleluya.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-23.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden
ikasleak, atek itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian
jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa
erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen
bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa
botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen
dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena
ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

MENDEKOSTE.

San Desiderio, *gotzaina*.
Santa Almerinda, *martiria*.

Gaurko mezako colecta-otoitzak Jainkoari eskatzea iradokitzen digu: berritu ditzala gure egun hauetan ebanjelio-predikuaen hasiera hartako gauza ikusgarri berak. Horrenbestez, eska dezagun: Zatoz, Espiritu Santua, eman astindu bat gure zabarkeriari eta alferkeriari; errutinazko bihurtu baikaituzte, «beti horrela egin izan da» delakoaren defendatzaile sutsu, eta zure betiko berritasunari iragazgaitz. Zatoz, Espiritu Santua, berotu eta sutu gure bihotz (batzuetan) hotzegi hau, negar dagitenekin negar egiteko ezgai eta pozik bizi direnekin pozteko ere ezgai. Zatoz, Espiritu Santua, hautsi gure komunikazio-eza eta isolamendua, geure aurreiritzietan hesitzen baikaituzte eta gor bihurtzen zure ahotsa entzuteko, anai-arreben eta aldien zeinuen bidez iristen zaiguna. Zatoz, Espiritu Santua, sar zaitez gure baitako ateetan barna, itxirik aurkituko badituzu ere, bai baitakigu, zuretzat, ez dela gogor egingo dizun langarik. Zatoz, Espiritu Santua, emazkiguzu Bakea eta Poza, Jaun Berpiztuarekin topo egitetik datozkigunak. Zatoz, Espiritu Santua, egin gaitzazu ebanjelioaren mezulari eta adiskidetasun-sortzaile, hautsia eta etsaitua dagoen mundu honetan. Bai, zatoz, Espiritu Santua, egizu, maila pertsonalean, elkartekoan, eliztarrean eta unibertsean, bizi ahal dezagula «Mendekoste berri» bat.

Urteko 8. astea.

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:

Gesù elizan Erroman.

§ Hasiera liburutik 3, 9-15. 20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Eta Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

[Sal 86: Bai mezu handia zuretzat, Jainkoaren Hiria.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 19,25-34.

Garai hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!» Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!» Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen: «Egarri naiz!» Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera

Urteko 8. astea.

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:
Gesù elizan Erroman.

bati muturrean erantsiz, ezpainera hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen: «Bete da dena!» Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuk gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako biei; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihesta zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

«**J**esusen gurutzearen ondoan zeuden...». Ez gara aski jabetuko inoiz ere egote honen garrantziaz! Maite dutenak bakarrik daude eta maitatuak direnak. Han daude... bihotz-bihotzez, arima osoaz, gorputz osoaz, beren izate osoaz... Tarteka, gauza berezirik egin gabe, zeren eta egite hori bihurtzen ahal baitzaigu, aise, ezkutatzeko aitzakia. Edota ezikusia egiteko. Edota beste alde batera begira jartzeko. Madeleine Delbrêl-ek, umore-faltarik gabeko otoitz batean, honela egiten zuen otoitz: «Jauna, egia baldin bada zu alde guztietan zaudela, zergatik ote da ni beti beste alde batean egotea?» Mariak bezala, geure anai-arrebekin egon nahi dugu guk beraien gurutze-aldietan.

Urteko 8. astea. Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Burgos 1890), *birjina, fundatzailea* (Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak).*

[Siraken liburutik 35,1-15 (gr. 1-12): Aginduetara makurtzea opari salbagarria da. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 28-31.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko».

Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurra uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Pedro, zenbat aurpegi! Ez da, ba, hasi orain irabazitako merezimenduak goraipatzen? («badakizu, Jauna, dena utzi dugula guk eta jarraitu egin dizugula»). Eta beste batean, dudarik gabe aitortuko du: «Jauna, norengana joango gara. Zuk bakarrik dituzu betiko bizirako hitzak». Bai ona den aitortzea ezen Jesusi jarraitzea, beste ezer baino gehiago, ohore bat dela eta Jainkoaren grazia! Horrela ikusiz gero, hobeto baitaratuko edo onartuko ditugu berari jarraitzeak berekin dituen pertsekuzioa eta ezin ulertuak izatea. San Ignaziok ohartarazten digu, erregearen meditazioan, Jesusi jarraitzeari uko egiteak laidotuak izateko eta zaldun gaiztotzat hartuak izateko duin egiten gaituela. Eta aholkatzen digu, beraz, geure burua, osorik, lanari emateko. Zeren eta, azken batean, Jaun bati jarraitzen baitiogu, inori uzten ez dion hari berari aurrea hartzen eskuzabaltasunean.

*San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra*. San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*. Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*.

Urteko 8. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea* (Oratoriokoak).

[Siraken liburutik 36, 1-2a. 5-6. 13-19 (gr. 1. 4-5a. 10-17): Aitor dezatela nazio guztiek, Jauna, ez dagoela Zu beste Jainkorik. Sal 79 [78]: Erakuts guri, Jauna, zeure errukiaren argia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 32-45.

Aldi hartan, Jerusalemera bidean gora zihoazen ikasleak, eta Jesus aurretik. Ikasleak txunditurik zeuden, eta jarraitzen ziotenak beldurrez zihoazen. Jesusek Hamabiak berriro beregana bildu, eta zer gertatuko zitzaion adierazten hasi zitzaien: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara, eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute; heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko; hauek iseka egingo diote eta listua botako, zigorkatu eta hil egingo dute; baina handik hiru egunera piztuko da».

Santiagok eta Joanek, Zebedeoren semeek, Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna Zuk guri egitea nahi genuke». Jesusek galdetu zien: «Zer nahi duzue, bada, Nik zuei egitea?» Eta haiek: «Eser gaitezela bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean, Zu zeure aintzara iristean».

Jesusek esan zien: «Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kaliza mingotsa edateko, edo Nik murgildu behar dudan uretan murgiltzeko?» «Bai, gauza gara!», erantzun zioten.

Jesusek, orduan: «Nik edan behar dudan kaliza mingotsa, bai, edango duzue, baita Nik murgildu behar dudan uretan murgilduko ere; baina nire eskuin-ezkerretan esertze hori ez dago nire esku inori ematea; Jainkoak norentzat duen prestatua, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, haserre jarri ziren Santiagoren eta Joanen aurka. Jesusek dei egin eta esan zien: «Dakizue, herrien buruzagiek mendean hartzen dituzte herriak eta handikiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar zuen artean. Zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean

Urteko 8. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*.

lehenengo izan nahi duena izan bedi denen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita zerbitzatua izatera etorri, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia denen alde ordainsari ematera».

Markosek ez ditu disimulatu Jesusi beronen Jerusalemerako bidean jarraitzen diotenen sentimenduak. Harridura: ez baitio uzten arraroa izateari talde baten baitan lehen postuak lortzeko irrika alde batera utzi behar izateak: «zuen artean ez du izan behar horrela»... Eta beldurra: maisuaren zoriak ikasleenari ere eragingo baitio neurri handiago edo txikiagoan. Ez ote dira gureak ere sentimendu hauek, Jesusi bere bizitzan jarraitzea aintzat hartzen dugunean? Kontsolagarria da orduan Jesusek eskaini digun buru-definizioa. Zerbitzaria da bera eta bizia ematen duena. Zeren eta berak eskaintzen digun bizia da indarra ematen diguna eta aurrera egiten laguntzen diguna berari jarraituz bide egiten.

San Felipe Neri 1515ean jaio zen Florentziako familia xume batean. Erromara joan eta Sapienza-n teologi ikasketak egin zituen –han ezagutu zuen Loiolako San Ignazio–. Lan handia egin zuen pelegirinei lagunduz, ospitaletara eta karteletara bisitak eginez, batez ere 1538-1539ko gosetekoan. 1551n apaiz ordenaturik, San Girolamo della Carità elizan jardun zuen, aitorlekuan eta otoitzean ordu asko emanaz eta, aldi berean, gazteekin harreman ugari izanez. Gazteak bildu eta haiekin espiritu-, karitate- eta kultur ekintzak egiteko Oratorioko Kongregazioa antolatu zuen 1554n. Ekimen txundigarriak ere izan zituen: «Zazpi elizetako pelegiriaz», adibidez, inauteriei aurre egiteko. Ekimen honetaz gaizki informaturik, aitortzak entzuteko baimena kendu zion Paulo IV.a aita santuak. Hala ere, izaera alai eta baikorra izan zuen beti, Kristorekiko eta sendeekiko maitasunak eraginik. 1595ean hil zen.

§ Isaías Profetaren liburutik 52, 13–53, 12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrutuko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko.

Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez.

Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortuztat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetuztat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte.

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan. Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asea izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari

Urteko 8. astea.

**JESU KRISTO GURE JAUNA,
BETIEREKO APAIZ NAGUSIA.**

San Agustin Canterburykoa, gotzaina.

zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ Hebrearrei gutunetik 10,12-23.

Jesu Kristo, opari bat bakarra bekatuengatik eskaini ondoren, Jainkoaren eskuinaldean eseri zen behin betiko. Eta, orain, Jainkoak etsaiak oin-aulkitzat noiz jarriko dizkion itxaroten dago. Izan ere, opari bakar baten bidez beren betera eraman ditu Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak. Aitorpen bera egiten digu Espiritu Santuak ere, hau esatean:

Hona hemen etorkizunean
haiekin egingo dudan ituna:
Bihotzean ezarriko dizkiet
neure legeak, buruan idatziko.
Hala diot nik, Jaunak.
Eta haien bekatuak eta gaiztakeriak
ez ditut gehiago gogoratuko.

Horrela bada, bekatuak barkaturik daudenean, ez da bekatuen barkamenerako opari beharrik. Beraz, senideok, Jesu Kristoren odolari esker konfiantza dugu santutegian sartzeko, Jesusek errezelean barrena –hau da, bere gorputzean barrena– bide berri eta bizia ireki baitigu. Jesus apaiz handia Jainkoaren etxeko buru dugunez, hurbil gakizkion

bihotz zintzoz eta sinesmen osoz, barrua bekatu-kontzientzia guztitik garbiturik eta gorputza ur garbiz txukundurik. Iraun dezagun sendo itzaropena aitortuz, leiala da-eta hitza eman diguna.

† Jesus Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 22,14-20.

Ordua etorri zenean, Jesus mahaian jarri zen apostoluekin eta esan zien: «Banuen gogoan, sufritu aurretik pazko-afari hau zuekin egiteko. Hara zer diotsuedan: ez dut gehiago Pazkoa ospatuko, hau Jainkoaren erreinuan bere betera iritsi arte». Eta edalontzi bat hartu, esker onezko otoitza egin eta esan zuen: «Hartzazue eta banatu zeuen artean. Hara zer diotsuedan: ez dut gaurdanik gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinua iritsi arte». Gero, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hau nire Gorputza da, zueztat emango dena. Egizue hau nire oroigarri». Afal ondoan gauza bera egin zuen edalontziarekin, esanez: «Edalontzi hau itun berria da, zueztat isuriko den nire Odolaz ezarria.

Leviren tribukoa ez zelako, Jesusi ez zegozkion, ez apaizen egitekoa, ez apaizen duintasuna. Laiko soila zen. Honi guztiari, apaiz-klasearekin izan zituen tirabirak gehitzen ahal genizkioke. Eta, halaz guztiz, kasik hasieratik aldarrikatu zuten kristauek: «Jesu Kristo da apaiz nagusi eta betikoa». Jesusi apaiz izate hori bere bizia azkeneraino eman izatetik datorkio (ez opariak eskaintzetik; hauek, batzuetan, murru izaten dira, Jainkoaren eta gure artean ezarriak). Jesusen kultua Jainkoari eta lagun hurkoari leial zaion bizitzarena da. Eta beraren apaiz izatea gurea ere bada. Izan ere, «apaiz-herri gara», doan hartu duguna doan ematera deitua.

Urteko 8. astea.

San Justo, *gotzaina*.

San Viktor, *martiria*.

[Siraken liburutik 44,1.9-13: Gure arbasoak gizon zintzoak izan ziren; eta gizaldiz gizaldi bizirik dago haien izena. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11, 11-26.

Aldi hartan, jendeak goraka hartu ondoren, tenpluan sartu zen Jesus, Jerusalemen. Eta inguru guztira begiratu ondoren, ordurako berandu baitzen, Betaniantz atera zen Hamabiekin.

Biharamunean, Betaniatik atera zirenean, Jesus gosetu egin zen. Eta hostotan zegoen pikondo bat urrutitik ikusirik, bertara joan zen, piku-rik aurkitzen ote zuen; baina ondora iristean, ez zuen hostoa besterik aurkitu, ez baitzen piku-sasoia. Orduan, pikondoari esan zion: «Ez dezala gehiago inork hiregandik fruiturik jan!» Ikasleek ere entzun zioten.

Iritsi ziren Jerusalemera, eta, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen Jesus eta diru-trukatzaileen mahaiak eta uso-saltzaileen postuak irauli egin zituen. Eta ez zion inori tenplu barruan ezer eramaten uzten. Gero, irakasten hasi zitzairen, esanez: «Ez al dio Liburu Santuak: “Nire etxea otoitz-etxe izango da herri guztientzat?” Zuek, ordea, lapur-zulo egina duzue».

Apaizburuak eta lege-maisuak, hori jakin zutenean, Jesus nola hilko hasi ziren; baina beldur ziren, jende guztia harriturik baitzegoen haren irakaspenaz.

Ilunabarrean hiritik kanpora atera ziren Jesus eta ikasleak. Biharamun goizean, bezperako lekutik igarotzean, pikondoa sustraietaraino ihartua ikusi zuten. Oroitu zen Pedro eta esan zion Jesusi: «Begira, Maisu, Zuk madarikatutako pikondoa dena ihartu da».

Jesusek erantzun: «Izan sinesmen Jainkoagan. Egiaz diotsuet: Norbaitek esaten badio mendi honi: “Ken hadi hortik eta amildu itsasora”, eta mendiari agindu diona gertatuko dela zalantzarik gabe

Urteko 8. astea.

San Justo, *gotzaina*.San Viktor, *martiria*.

sinesten badu, halaxe gertatuko zaio. Horregatik diotsuet: Otoitzean eskatzen duzuen edozein gauza, sinetsi lortuko duzuela, eta emango dizue Jainkoak.

Eta otoitzean ari zaretela, barkatu inoren aurka ezer baduzue, zeruko zuen Aitak ere zeuen hutsegiteak barka diezazkizuen. Zuek barkatzen ez baduzue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeruko Aitak zeuen hutsegiteak».

Hostoz estalia eta sustrai lehorrak dituen pikondoa bezala, Israel herriaren erlijioa, muintzat Tenplua zuena, azken ostikadak ematen ari zen. Erlijioa aintzat hartu ordez, ematen zuen salmenta-sistema korapilatsu batekin disimulatu nahi zutela disimulazineko hutsunea. Jesusek, keinu bortitz batez, kanporatu egin ditu tratulariak, trukatzaileak eta saltzaileak; dei bat dugu hori Jainkoarekin eta lagun hurkoarekin ditugun harremanak atzeraezineko moduan eraberritzeko, harreman horiek, lehortu eta orbel hilez estali ez daitezun, pikondoa bezala. Harreman horiek elikagarri den eta elikatuko gaituen fruitua eman dezaten.

Canterburyko San Agustin (jaia, maiatzaren 27an)

San Agustin honetaz ez dago daturik, harik eta 596an Erromako San Andres monasterioko priore zela aipatua izan arte (monasterio hau Gregorio Handia aita santuak fundatua zen Coelius-ko bere etxean). Aita santuak 597an Ingalaterrako hego-ekialdea ebanjelizatzerantz bidali zuen, berrogei laguneko lekaide-taldearen buru. Eskualde hartan Ebanjelioa hots egina zen lehenengo mendeetan –Ziprianok eta Origenesek aipatzen dute–; baina V-VII mende bitartean saxoiek inbaditu zutenean, handik desagertu eta han bizi ziren bretoiek mendebaldera eraman zuten (Gales eta Kornualles aldera). Agustin, apezpiku ordenaturik, hara iritsi zenean, ongi hartu zuen Ethelbert erregeak. Canterburyko San Martin eliza ondoan kokatu ziren. Ingalaterrako lehenengo artzapezpiku izendatu zuten 601ean, 604ko (edo 605eko) maiatzaren 26an hil zen.

Urteko 8. astea.

San Paulo VI.a *aita santua*.

Santa Restituta, *martiria*.

San Eleuterio, *aitorlea*.

[Siraken liburutik 51, 17-27 (gr. 12-20): Aintza emango diot jakin-duria irakatsi didanari. Sal 19 [18]: Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11, 27-33.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Jerusalemara etorri ziren berriro. Jesus tenpluan zebilela, apaizburuak, lege-maisuak eta zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez jokatzten duzu horrela? Zeinek eman dizu horretarako aginpidea?»

Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuidazue, eta nik ere esango dizuet zein aginpidez jokatzten dudan horrela. Joan Bataiatzaileak Jainkoaren aginduz ala giza aginduz bataiatzen zuen? Erantzun!»

Haiek hau zioten beren artean: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badiogu, zergatik ez genion sinetsi esango digu. Baina nola esan giza aginduz ari zela?» Honetarako, jendearen beldur ziren, guztiak egiazko profetatzat baitzuten Joan. Beraz, erantzun zioten: «Ez dakigu». Jesusek, orduan: «Ba, Nik ere ez dizuet esango zein aginpidez jokatzten dudan horrela».

Jesusi bere aginpidez behin eta berriz egiten dioten galderak disimulatu besterik ez du egiten Jesus bera eta beraren mezua onartzeari egiten dioten ukoa. Eta gertatzen da, galdera honek edo uko honek, batzuetan, geure inkoherentzietan korapilaturik gelditzea ekartzten digula, Jesusek apaiz nagusiei, lege-maisuei eta zaharrei ezarri zien tranparekin gertatu zen bezala. Batzuetan Jakob bezala gertatzen gara, Jainkoarekin borroka gogorra egin baitzuen (Hasiera 32). Jainkoarekin geure harremanetan, Jesusekiko segimenean, dena seguru eduki nahi izaten dugu, geure kontrolpean, ziurgabetasunari inolako zirrikiturik utzi gabe... Baina, horrela, lor ditzakegun garaipenak garaipen pirriko huts izango dira, ezertarako ez direnak. Jainkoari berak garaitu dezan uztea: horra, dudarik gabe, gure garaipenik preziatuena.

§ Deuteronomioa liburutik 4, 32-34. 39-40.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Galdetu antzinako garaiei, zu baino lehenago izandakoei, Jaunak gizakia munduan sortu zuenetik hasita; galdetu ea inoiz horrelakorik gertatu edota entzun izan den munduaren ertz batetik besteraino. Ba ote da herririk, zuk bezala Jainkoa suaren erditik mintzatzen entzun eta bizirik gelditu denik? Izan al da inoiz jainkorik, herri bat beste herri baten menpetik atera eta beretzat hartzen saiatu denik? Ba, horixe egin zuen Jaunak, zuen Jainkoak, zuen begi-bistan Egipton; ezaugarri, mirari eta egintza harrigarritz, borrokaren bidez, ahalmen handiz, esku indartsuz eta izua zabalduz askatu zintuzten.

Aitortu, beraz, gaur, eta izan beti gogoan Jauna dela Jainkoa, goian zeruan eta behean lurrean; ez da besterik. Bete gaur ematen dizkizudan legeak eta aginduak, zoriontsu izan zaitezten zeu eta zure ondorengo seme-alabak, eta luzaro bizi, Jaunak, zeure Jainkoak, betiko emango dizun lurraldean».

[Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

§ San Paulok Erromatarrei 8, 14-17.

Senideok: Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak, horiexek dira Jainkoaren seme-alaba. Zuek ez duzue hartu esklabo egiten zaituzten espiritua, berriz ere beldurrez bizitzera eramango zaituztena; zuek seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!», hots egiten diogu Jainkoari.

Espiritu honek berak, gure espirituarekin bat eginez, Jainkoaren seme-alaba garela aitortzen du; eta, seme-alaba bagara, baita oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide; zeren, neketan Kristoren kideko baldin bagara, aintzan ere haren kideko izango baikara.

Urteko 9. astea.

HIRUTASUN SANTU SANTUA

San Fernando III.a, *erregea*.Santa Joana Arc-ekoa, *martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28, 16-20.

Aldi hartan, Hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden.

Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: «Aginpide osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz, eta Nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta Ni zeuekin izango naizue egunero munduaren azkena arte».

Egia ulertezina, espekulazio askori bide ematen diona, burua bete eta bihotza hutsik uzten diguna? Misterio atzemanezina, zerikusirik izan behar ez lukeena eguneroko gure bizitzarekin, lurrean arrastaka biziarazten gaituzten milaka huskeriaren mende lerratzen den gure bizitzarekin? Jainko Bakar eta Hirukoitzaren fedearen alde paradoxikoa da, hurbileko Jainkoaz hitz egin nahi digula eta, hitz egiten digun hitzekin hitz egitean, urrundu egiten duela gugandik... Ez dago modu hoberik Liburu Santuetako egia freskora jotzea baino, misterio honetaz zerbait bederen sumatzeko. Liburu Santuek hurbileko Jainkoaz hitz egiten digute; alabaina, inori nortasuna kentzeko asmorik gabeko hurbiltasunaz. Beragana «Aita», «Abba», esanez jo dezakegu... Beldurra uxatuz eta seme-alaben konfiantzan haziz. Geroari baikor begiraturaz: oso handia da ondarea, deituak izan garen hura. Azken hitza ez da atsekabeena eta sufrimenduena, baizik eta zain dugun aintzarena. Ez al dago hemen arrazoirik joan eta ebanjelioa hots egiteko?; are gehiago, dakigularik Kristo geurekin dugula munduaren azkeneraino?

§ Sofoniasen Profezia liburutik 3, 14-18.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri!
 Egin oihu alai, Israel!
 Poztu zaitetz bihotz-bihotzez,
 alaitu, Jerusalem!
 Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak.
 Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango.
 Egun hartan, honela esango diote Jerusalemi:
 «Ez beldur izan, Sion!
 Ez bitez eror zure eskuak!
 Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zuegatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu.
 Pozez jauzika dabil zuegatik, jaiegunez bezala».
 Honela dio Jaunak:
 Nik bilduko ditut, Jerusalem,
 zuregandik urruti, jairik gabe, triste, zeudenak. Bai astuna zure lotsa!

[Salmoa: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6 (R/. 6b): Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.

§ San Paulok Erromatarrei 12, 9-16b.

Senideok: Zuen maitasuna izan bedi itxurakeriarik gabea. Gorrotatu gaizkia eta eutsi ongiari. Maita ezazue elkar senide onak bezala, ohoratu elkar zeinek gehiago. Izan saiatuak eta ez nagi; izan gogoz gartsu, Jauna zerbitzatzeko beti prest; izan itxaropenean alai, ezbeharrean eraman handiko, otoitzean lehiatsu; lagundu fededunei beren beharretan eta eman gogoz ostatu arrotzei.

Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti.

Santa Gertrudis, *aitorlea*.

San Noe Mawaggali, *martiria*. San Eduardo Cestak

(1801-1868), *Baiona, apaiza eta fundatzailea*.

Bedeinka itzazue erasotzen dizuetenak; bedeinkatu, ez madarikatu. Poztu, pozez daudenekin; egin negar, negarrez daudenekin. Bizi zaitetze elkar ongi hartuz; ez izan handinahi, apalen mailako baizik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,

pozaren pozez daukat neure barrua,

Jainkoa baita nire salbamena,

ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,

handiak egin baitizkit Ahalguztidunak;

santua da haren izena,

eta haren errukia gizaldiz gizaldi

begirune diotenengana.

Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondanez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak.

Lagun etorri zaio bere morroi Israeli,

bere errukiaz oroiturik;

hala zien gure gurasoei hitzeman,

Abrahami eta ondorengoei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Maria Jesusen eroale da. Elisabetek «nire Jaunaren ama» bezala aitortu du. Mariak, dagoenean dagoela, Jesus digu beti seinaltzen. Irakatsiz, honela, Jainkoaren mezulariak ez diola sekula protagonismo agorrik bere buruari egotzi behar. Kontuan izan behar dugu hori beti geure lan apostolikoan. Izan ere, horrela bakarrik erantzun ahal izango diegu jendeak, zeinengana bidaliak izan baikara, gudan jarriak dituen igurikimen edo espektatiba sakonei (horregatik diosku Liburu Santuak Elisabetek erraietan zeraman izakiak jauzi egin zuela Mariaren agurra entzutean). Eta jende horrekin batean, kantatu ahal izango ditugu, Mariarekin, geure Jainko eta Jaunaren gauza miresgarriak: maitasun bereziaz begiratzen baitio (hau da, maite baitu) jende apalari, azpikoz gora jartzen baititu mundu honetako balioak, eta leiala baita.



Guztion
ETXEAREN
Zaintzan
partaide

EKAINA / BAGILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:
Ebanjelizazioa — Ezkontza-bizitzaren edertasuna

Egin dezagun otoiz: Kristau-elkarte baten sostenguaz ezkontzarako prestatzen ari diren gazteentzat: maitasunean haziz joan daitezen, eskuzabal, leial eta pazientziaz.

Urteko 9. astea.
San Justino, *martira*

[Tobit liburutik 2, 9-14: Itsu gelditu nintzen. Sal 112 [111]: Sendo du zintzoak bihotza, Jaunaz fidaturik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 13-17.

Aldi hartan, fariseuen eta Herodesen alderdiko batzuk bidali zizkioten Jesusi, hitzen batean harrapatzeko asmoz. Etorri eta esan zioten: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta ez dizula axolarik inoren zeresanak; Zuk ez diozu gizakiaren itxurari begiratzen, baizik eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzu. Zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez? Ordaindu behar diogu ala ez?»

Baina Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien: «Zergatik zatozkidate zirika? Ekarri txanpon bat, ikusteko». Ekarri zioten, eta Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?» Haiek erantzun: «Zesarrenak».

Jesusek, orduan: «Emaiozue Zesarri Zesarrena eta Jainkoari Jainkoarena». Eta txunditurik gelditu ziren.

Egiati zara... Ez diozu erreparatzen itxurari...». Bai arrazoi handia zutela (beraien gogoaren aurka bazen ere, bai horixe) fariseu eta herodestar haiek, beren artean bereizirik hainbat gauzarengatik, baina bat eginik, halere, Jesusekiko zuten etsaitasunagatik! Jesusek ez dio erreparatzen azalekoari eta, horregatik, txanpon hartan ageri zen «irudiagatik» galdetzean, egia sakonago batera begira jarri ditu bere solaskideak: gizakiaren egari begira, Jainkoaren irudira eta antzera kreatua denari begira. Gizakiari, eta, bereziki, okerrenik tratatua eta zapaldua denari. Eta txanpon hartako idazkunari “galdetzean”, Jesusen gurtzean zegoen idazkuna gogora dezakegu guk: «honetan eta beste hainbatetan, Semea dago iltzatua... eta hainbat eta hainbat Jainkoaren seme-alaba».

Urteko 9. astea.

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*.

[Tobit liburutik 3, 1-11a. 16-17a: Bien otoitzak entzun zituen Jainko aintzatsuak. Sal 25 [24]: Jauna, zugana jasotzen dut gogoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 18-27.

Aldi hartan, saduzear batzuk etorri zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla). Eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia hiltzen bazaio, emaztea seme-alabarik gabe utziz, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”.

Behin batean, baziren zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena alargunarekin ezkondu zen, eta seme-alabarik gabe hil zen; berdin hirugarrena ere. Horrela, zazpiak ondorengorik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, hildakoak piztuko omen direnean, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Ez ote zabilzate oker, Liburu Santuek dioten hori eta Jainkoaren ahalmena ezagutzen ez dituzuelako? Izan ere, hildakoak piztean, ez da inor ezkonduko; zeruko aingeruak bezala izango dira denak. Gainera, hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Moisesen liburuan, sasia sutan zegoeneko pasartean, Jainkoak berak nola esaten dion: “Ni Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa naiz?” Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik. Oker zaudete oso».

Are gehiago hari beretik! Saduzear haiek uste zuten espazioan eta denboran mugatua den gure bizitzaren lege eta ohiturak berek arautzen dutela bizi berpiztua. Jostagarri gertatzen zitzairen piztuera barregarritzat ematea. Baina berpiztuaren bizia bizitza guztiz «beste» bat da. Berpiztu horretan irauten duen gauza bakarra maitasuna da («maitasuna ez da galtzen sekula»). Berorretan «gizon-emakumeak ez dira ezkonduko» delako horrek maitasuna ez du baztertzen, ezkontza-egoerako gorabeherak dira galtzen direnak. «Eta aingeruak bezalako izango dira», hau da, maitasunak hartuak diren izaki. Jada oraintxetik bizitzen hasi gintezkeen maitasuna da; izan ere, «bizien Jainkoa» da gure Jainkoa, pertsonena, eta bizitzan eta pertsonengan behar dugu aurkitu Jainko hori.

Urteko 9. astea.

San Joan XXIII.a, *aita santua*.Lwangako San Karlos eta lagunak, *martiriak*.

[Tobit liburutik 6,10-11; 7, 1. 9-17; 8, 4-9a: Erruki zakizkigu eta egizu hel gaitzela biok elkarrekin zahartzarora. **Sal 128 [127]:** Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna, gure Jainkoa, Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa, zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobeia dela esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Bat diren bi agindu!... Bikoitz den agindu bat... Jainkoa maitatu... Lagun hurkoa maitatu... Bigarrena, lehenengoaren egiatasunaren berme. Zeren eta «Jainkoa, ikusten ez duen hura, maite duela esan, eta lagun hurkoa, ikusten duen hura, ez duela maite dioena, gezurtia da». Lehen agindua bigarrenaren oinarria da, gizaki orotan anaia edo arreba ikusten laguntzen digu. Hartara, hurkoa maitatzen laguntzen digu, batzuetan maitasunarekin nahasten dugun baina, azken batean, maitasunaren «imintzi» narras bat besterik ez diren atxikidura haietatik guztietatik askaturik. Bikoitz den agindu hau eta bat diren bi agindu hauek bizi dituen, dudarik gabe, «ez dago urrun Jainkoaren Erreinutik».

Urteko 9. astea.

San Frantzisko Caracciolo, fundatzailea
(Arauzko Klerigo Txikiak).

[Tobit liburutik 11, 5-17: Zigortu egin ninduen Jainkoak, baina orain ikusten dut berriro neure seme Tobias. Sal 146 [145]: Goretsazu Jauna, ene barrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 35-37.

Aldi hartan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, esan zuen: «Nola esan dezakete lege-maisuek Mesias Daviden ondorengo dela? Hona zer dioen Davidek Espiritu Santuaren argiaz: “Hona Jaunak nire Jaunari esana: Eseri nire eskuinean, zure etsaiak oinazpian jartzen dizkizudan bitartean”.

Davidek berak “Jauna” esaten dio; beraz, nola izan dezake hura bere ondorengo?» Jendetza ugariak atseginez entzuten zion.

San Joan XXIII.ak esan ohi zuen, Eliza ez dela «antzinatekoen museo bat». Bisitatzea merezi lukeena. Baina «museoa»! Aitzitik, elkarte bizia da Eliza. Jesusi jarraitzea da eguneroko gure zeregina. Ezin geratu gara iraganaren preso, argiena dela eman arren. Nork duda lezake David erregea oinarrizko pertsonaia izan zela Israel herriaren historian? Haren gidaritzapean botere eta aintza-maila handia lortu zuen herriak. Baina gainditu egin du Jesusek. Daviden Jauna da Jesus. Honen hitzak eta egitateak David erregearen— azken batean, bekataria zen— hitz eta egitateen gainera daude. Jesusen jarraitzailea ezin izi da iraganaren maite-minez. Iraganetik, oraina bizitzen ikastea dagokio, geroari konfiantzaz aurre eginez.

Urteko 9. astea.

San Bonifazio, *beneditarra, gozaina eta martiria*.

[Tobit liburutik 12,1.5-15.20: Bedeinka ezazue Jauna; Jainkoagana itzuli behar dut. Salmoa: Tb 13, 2. 6. 7. 8: Bedeinkatua, beti bizi den Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 38-44.

Aldi hartan, Jesusek, bere irakastaldian, esan zion jendeari: «Zabiltzate kontuz lege-maisuekin! Gogoko dute harro-harro jantzita ibiltzea eta plazetan jendearen agurrak hartzea; gogoko dituzte sinagogetan aurreneko aulkiak eta jai-otorduetan mahaiburuak. Eta, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasunak irensten dituzte. Horrelakoek epairik zorrotzeta izango dute».

Jesus tenpluko diru-kutxaren aurrean eseria zegoen, jendeak kutxara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuen. Etorri zen emakume alargun behartsu bat ere, eta bi txanpon bota zituen, huskeria bat. Jesusek, ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Segur aski, emakume alargun hura ez zihoan jantzi apartsuz jantzirik, ez zuten agurtzen ere belauniko jarrita. Oharkabea izango zen haren bizitza. Agian, lege-maisu haien biktima zen: «otoitz askoren aitzakian ondasunak irensten baitzizkioten». Ez zioten eskaintzen ohorezko jarlekurik ere, ez sinagogetan, ez jai-otorduetan. Ez zitzaion axola, segur aski, ezer horrelakorik. Aitzitik, isil-isilik hurbildu zen eskaintzen diru-kutxara eta bota zituen bis sos: bizitzeko zeukan guztia! Zer izango litzateke gutaz, beti beren buruaz harro bizi direnen ikuskizun zaratatsuak baino elikagarriago ditugun maitasun-keinu txiki eta isil hauek gabe? Gaur, eskerrak eman nahi dizkiegu jende horiei eta geure egiten saiatuko gara alargun horren jarrera eguneroko geure bizitzan.

Urteko 10. astea.

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAKSan Norberto, *gotzaina*.San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*.**§ Irteera liburutik 24, 3-8.**

Egun haietan, Moisesek Jaunaren hitz eta erabaki guztiak jakinarazi zizkion herriari, eta herri osoak, aho batez, erantzun zion: «Jaunak esandako guztia egingo dugu».

Jaunak esandako guztia idatzi zien Moisesek. Biharamunean, goizean goiz jaikirik, aldarea eraiki zuen mendi-oinean, eta hamabi zutarri ipini zituen Israelgo hamabi leinuen izenean. Ondoren, zekorrak hil eta Jaunari erre-oparizat eta elkartasun-oparizat eskaintzeko agindu zien israeldar gazte batzuei. Odolaren erdia hartu eta ontzietan ipini zuen Moisesek, eta beste erdia aldare gainean isuri.

Gero, itun-liburua hartu eta herriari irakurri zion. Herriak erantzun zuen: «Obedituko dugu eta beteko Jaunak esandako guztia». Odola hartu eta herriaren gain zirtatu zuen Moisesek, esanez: «Xedapen hauen guztien arabera Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezaugarria da odol hau».

[Sal 116 [115]: Salbamen-edontzia dut hartuko eta Jaunaren izenari dei egingo.]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 9, 11-15.

Senideok: Kristo datozen ondasunen apaiz nagusi bezala agertu da. Bera sartu den santutegia lehengoa baino handiagoa eta bikainagoa da, ez giza eskuz egina, hau da, ez mundu honetakoa. Kristo behin betiko sartu da santutegian, ez akarren eta zezenen odola eskainiz, berea baizik, horrela betiko askatasuna lortu digularik.

Beraz, akarren eta zezenen odolak eta erretako behi baten errautsek, kutsaturik daudenen gain zirtatuz, pertsona horiek sagaratzeko indarra baldin badute, kanpotik garbi eginez, zenbatez gehiago Kristoren odolak –betiko Espirituaren bidez bere burua Jainkoari opari garbi eskaini zion harenak– ez du garbituko gure barrua heriotzara daramaten egintzetatik, guk Jainko bizia gurtzeko!

Horregatik, Kristo itun berri baten bitarteko da, heriotza dela medio, lehengo itunaren garaian egindako hutsegiteak barkatzeko; horrela, agindutako betiko ondarea jaso dezakete Jainkoak deitutakoek.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 14, 12-16.22-26.

Legamiagabeko lehen-eguna zen, pazko-bildotsa hiltzen zuten eguna.

Ikasleek galdetu zioten Jesusi: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?»

Hark ikasleetako bi bidali zituen, esanez: «Zoazte hirira, eta rusuila daraman gizon bat aurkituko duzue; jarrai izeaiozue, eta sartuko den etxeko nagusiari esan: “Maisuak galdetzen du non duen ikasleekin pazko-bildotsa jateko tokia”. Hark gela handi bat erakutsiko dizue goian, jantzirik eta atondua. Prestatu hantxe behar ditugunak». Joan ziren ikasleak eta, hirira iristean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hartzazue: hau nire Gorputza da». Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoitza esanez, eman zien, eta denek edan zuten bertatik. Eta esan zien: «Hau nire Odola da, itunaren Odola, askoren alde isuriko dena. Benetan diotsuet: Ez dut gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinuan ardo berria edango dudan eguna arte».

Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendirantz atera ziren.

Romero monsinorearen argazkiek, eukaristia ospatzen ari zela aldare oinean gorpu eta odoleztaturik utzi zutena azaltzen dute, jira bizia egin zuten mundu osoan, era hunkigarrian. Beraren odolak bat egin zuen sagaratzera zihoazen eta Kristoren odol bilakatuko zen ardoarekin; hain zuzen ere, gu guztiongatik isuria izan zen odol bilakatuko zen, guztioi bizia

emateko, eta bizia ugari. «Eraitzen banaute, El Salvadorreko herrian berpiztuko naiz», adierazi zuen Monsinoreak egun batzuk lehenago. Biblian, «odola» «bizia» da. Jesusen odola Jesusen bizia da, gudan isuria, elkargo berri bat hasteko, maitasunean eta adiskidetasunean eraikia. Eta «gorputza» «presentzia» da. Jesusen gorputza presentzia laguntzailea da, solidarioa eta hurbila. Gure izatearen atean ez gelditzeko eskatuko balu bezala, baizik eta gure izate honen hondoraino sartzea. Gorputz eta odol: Jesusen pertsona osoa batzen da ikasleekin, hauek ere ikas dezaten harekin bat egiten eta baita bata bestearekin ere; izan ere, eukaristiak ez gaitu bat egiten Jesusekin bakarrik, baita geure anai-arrebekin ere, Eliza beraren kideekin. Biziko ahal dugu ospatzen duguna, egun batean osorik ospatu ahal dezagun bizi duguna!

Urteko 10. astea.

Santa Eugenia, *martiria*.San Roberto, *abadea*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 1, 1-7: Jainkoak ematen digu adore, guk ere besteak edozein atsekabetan adoretu ahal ditzagun. Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 1-12.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion.

Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak gozog behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango.

Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa.

Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira.

Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan. Zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten».

Jesus, Moises berria, mendira igo da. Alde handia dute biek, Jesusek eta Moisesek, garrantzizkoa: Irteeran, bakarrik igo da Moises mendira; hartara beste norbait hurbiltzen bazen, hil beharra zuen. Jesusi ikasleak hurbildu zaizkio, eta hizketan ari zaie Jesus, irakasten. Jesusen mezua zoriontasun-mezua da, munduak proposatzen duena ez-bezalakoa, oso. Zorionekoak dira espirituz pobre direnak, bakezaleak, errukitsuak, zuzentasun gose eta egarri direnak, bihotz-garbiak... «Dohatsu», zorioneko,

Urteko 10. astea.

Santa Eugenia, *martiria*.

San Roberto, *abadea*.

hitz hori aspergarriki errepikatzea murmurio gozo baten oihartzun da bihotzean; beste alde bat Irteerako pasadizoarekin konparatuz; zoriontasun-guraria esnatzen du gure baitan, ez ezerk, ez inork kendu ezin diguna.

[San Paulok 1 Korintoarrei 1,18-22: Jesus ez zen izan batean «bai» eta bestean «ez»; harengan dena «bai» izan zen. **Sal 119 [118]:** Erakutsi aurpegi argia, Jauna, zeure zerbitzari honi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

Gatza eta argia. Beharrezko presentzia. Beharrezko diskrezioa. Gatzik gabe, geza dira janariak. Argirik gabe, iluna da nagusi. Gatza gehiegizkoa izateak janaria gazi bihurtzen du. Argi handiegiak itsutu. Horrelakoa izan behar du Jesusen ikaslearen eta jarraitzailearen presentziak mundu honetan. Egon, bai, baina beharrezko ez den protagonismorik hartu gabe, gainera ebanjelioaren arazoa kaltetu egingo bailuke. Gauzarik garrantzikoena Jainkoa bakarrik eta haren Erreinua baita. Beraz, «argi egin dezala zuen argiak», bai. Ikus ditzatela zuen egitate onak... Baina aintza, eman diezaiotela Aitari, harengandik dator-eta guztia: argi izan ahal izatea eta argi egin ahal izatea. Gatz izan ahal izatea, eta bizitzari gustua eman ahal izatea. Geureari eta lagun hurkoarenari.

Urteko 10. astea.

San Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea*.

San Jose Antxietakoa, *apaiza (Brasilen apostolu),
martiria, jesuita*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 3, 4-11: Itun berri baten zerbitzari izateko gai egin gaitu. Itun hori ez da legearen letra soilean oinarritzen, Espirituaren indarrean baizik. **Sal 99 [98]**: Santua zara Jauna, gure Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Maitasuna da Legearen betetasuna. Maitasuna, sentimendu pasakor bat, atsegin baina pasakor bat, baino gehiago da. Maitasuna, gehiago ipintzen da egitateetan hitzetan baino, diosku Ignaziok. Nahiz eta elkargo berria ez den oinarritzen letra hutsean, baizik Espirituan (letrak hil egiten du, Espirituak bizia ematen), egia da orobat, maitasunak, Legearen betetasun denez, badakiela erreparatzen zertzelada txikiei, osterantzean oharkabeko gertatzen zaizkigunei. Alabaina, haurtzaroko bidea egiten duten txikiak bakarrik dira hori egiteko gai. Eta hau da maitasunaren egingtza gu baitan: gu txiki bihurtzea, hau da, pobre... miretsirik eta esker oneko maitasunak geugan egindako egintzagatik.

Urteko 10. astea.

San Alexandro, *gotzaina*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 3, 15–4, 1. 3-6: Jainkoak berak piztu du argia gure bihotzean, Jesu Kristoren aurpegiaren distira egiten duen Jainkoren aintza argiro ezagut dezagun. **Sal 85 [84]:** Gure lurraldean kokatuko da Jaunaren aintza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 20-26.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegiaren. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegiaren; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitetz lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Ez da ezertako on pertsona baten egitate gaiztoak saihestu eta zuzentzen saiatzea, zaintzen ez bada egitate horien jatorriko iturburua: delako pertsona horren bihotza, alegia. Ez da ezertako on norbaiten jokabidea zuzentzen saiatzea, ez bada erabat berritzen beraren izatea. Hona ignaziotar espiritualitateak hain berea duen alderdi hau, magis delakoa, alegia. Arazoa ez litzateke izango goreneko gauzen bila ibiltzea (batzuetan, hain ebanjelio-aurkakoak izaten dira), baizik eta, xumeki, bihotzera iristea, Jesusenaren antzera, ahal den neurrian, eratzeko. Horregatik, magis delako hori minus bihurtuko zaigu, Jesusek egin zuen bidea egitera eramango baikaitu: esaneko bihurtuz heriotzaraino, gurutzeko heriotzaraino, gero.

Urteko 10. astea.
 JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA
 SAN BERNABE APOSTOLUA.

§ Oseasen Profezia liburutik 11, 1. 3-4. 8c-9.

Honela mintzo da Jauna:
 «Israel haurra zela, maite izan nuen;
 eta Egiptotik dei egin nion neure semeari. Nik erakutsi nion oinez
 ibiltzen Efraimi, besoetan eraman nuen; hala ere, ez ziren ohartu Nik
 nituela zaintzen.

Amodio-lokarriz erakartzen nituen, maitasun-loturaz: haurtxoa
 aurpegiraino jasotzen duena bezala nintzen haientzat; makurtu eta
 jaten ematen nien.

Ikaraz jartzen zait bihotza, dardaraz erraiak. Ez diot haserreari
 pizten utziko; ez dut Efraim berriro hondatuko,

Jainkoa bainaiz Ni, ez gizakia, santua Ni zuen artean, eta ez nator
 haserre-suminez».

[Salmoa: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6 (R/. 3): Aterako duzue ura pozik
 salbamenaren iturrietatik.]

§ San Paulok Efesoarrei 3, 8-12. 14-19.

Senideok: Niri, fededun guztien artean txikiena naizen honi,
 dohain hau eman dit Jainkoak: Kristoren neurrigabeko aberastasuna
 jentilei hots egitea, eta guztiei argi adieraztea nola ari den betetzen,
 Jainkoagan, gauza guztien egileagan, betidanik gordea zegoen
 asmo ezkutua. Horrela, agerian jartzen zaie orain, Elizaren bitartez,
 zeruetako aginte eta botereei Jainkoaren era askotako jakinduria, Berak
 betidanik zuen, eta Kristo Jesus gure Jaunagan burutu duen asmoaren
 jakinduria. Kristori esker eta beronengan dugun sinesmenaren bitartez
 ausartzen gara konfiantza osoz Jainkoagana hurbiltzera.

Horregatik, belauniko jartzen naiz Aitaren aurrean, bai zeruan eta
 bai lurtean familia oren sorburu denaren aurrean, eta hau eskatzen
 diot: bere aintzaren aberastasunari dagokionez, sendotu zaitzate

Urteko 10. astea.

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA
SAN BERNABE APOSTOLUA.

bere Espirituaren indarrez, barrutik bizi zaitzetzen; bizi dadila Kristo zuen bihotzean sinesmenagatik eta izan dadila maitasuna zuen bizitzaren erro eta oinarri. Horrela ulertu ahal izango duzue, fededun gutziekin batera, zein zabal eta luze, zein garai eta sakon den Kristoren maitasuna; ezagutuko duzue jakintza ororen gainetik dagoen maitasun hori, eta, horrela, Jainkoaren betetasunaz beteko zarete.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19,31-37.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten hain larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzar saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioena, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratuko diote».

Ezin esan da pertsona batez gauza izugarriagorik, hau baino: «ez du bihotzik». Greziako antzinako filosofoek, bai, (Aristoteles) esaten zuten Jainkoaz, ez duela bihotzik edota, gauza bera dena, ez duela adiskiderik. Halaz guztiz, gure Jainkoaz, Nazareteko Jesusek agertu digu Jainkoaz, bai, esan daiteke baduela bihotzik. Bihotz handia du, gainera. Maitatzen dakien bihotza. «Barnea hunkitzen zaiona» da. Halako maitasunez maite gaitu, non ezin lortuko baitugu berorren «luzera, zabalera, altuera eta sakonera» atzeman. Horregatik. Jainko horren bihotza «bihotz zulatua» da, eta berorretan sartzera gonbidatzen gaitu, inolako beldurrik gabe. Eta horregatik ari da gu beragana erakartzen «maitasun-lokarritz». Eta,

Urteko 10. astea.

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA
SAN BERNABE APOSTOLUA.

maitatzen baldin badaki, orobat daki zer den maitatua izatea eta orobat daki zein latza den maitasunari ez erantzutea. Baina, hain justu, beti baita bere buruari leial zaion bihotza, kasu honetan ere, erantzunik jasotzen ez duenean ere, bihotz honek ezin utzi dio maitatzeari, ezin eman dio «amore bere haserrearen suari... Jainko baita, eta ez gizaki», ezin desiratu du mendekatzea, «santua zuen artean, eta ez etsaia atean».

Jesusen bihotz santuari gorazarrea

Nahiz eta zuk ez merezi,
Jesusen Bihotz garbia,
zu zauritzeko sortu zen
gure hoben-sail handia.

Hobenok eraso dute
Longinos-en gudu-lantza;
hobenok zorroztu dute
epinean duen arantza.

Zauri hortatik sortu da
Eliza zure emaztea;
zauri hori da Noeren
kutxaren albo-atea.

Hortik iturri bat dator
bere zazpi xirripekin;

garbi gaitetze, Bildotsak
eman duen odolarekin.

Ez zaigu zaurituko
are, Bihotz samur hori;
bihurtu bitez gureak
maitean zu bezain gori.

Jesus, zeruko grazia
Bihotzetik baitarizu.
Aita ta Gogo Gurenarekin
batean, gora beti zu!

*(Orixe, Meza Liburua 527. or.;
ukitu batzuekin)*

§ Isaías Profetaren liburutik 61, 9-11.

Ospetsu izango dira nire herriaren ondorengoak nazio eta herrien artean; ikusiko dituzten guztiek aitortuko dute Jaunak bedeinkaturiko herria direla.

Pozaren pozez nago Jaunarekin, neure arima Jainkoarekin alai daukat, salbamenaz jantzi bainau, garaipen-soinekoz estali, koroa janzten duen senargaia bezala, edergailuz apaintzen den andregai bezala.

Lurrak landarea ematen eta baratzeak hazia ernearazten duen bezala, hala ernearaziko du Jaunak justizia eta gorespena nazio guztien aurrean.

[Salmoa: 1 Sm 2, 1. 4-5. 6-7. 8abcd: Jaunagan da nire bihotza pozten, nire Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatu gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zion: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Urteko 10. astea.

Andre Mariaren Bihotz Guztiz Garbia.

San Joan Sahagungoa, *apaiza*. Santa Paula Frassineti,
fundatzailea (Santa Dorotearen ahizpak). San Onofre, *ermitaia*.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

«**B**eraren amak bihotzean gorde ohi zuen hau guztia». Jesusekin bizi izandakoen oroitzapenen gordailua da Mariaren bihotza. Ama izateko jaso duen deia... bere semearen jaiotzaren... Jesusen haurtzaroaren... iristen zitzaizkion bere semearen jarduera predikatzaile eta taumaturgikoaren albisteen... zintzilik, hiltzorian eta gurutzean hiltzen ikusi izanaren dolorearen... piztu zelako albistearen pozaren... gordailua. Oroitzapen hauek beti zuten, ordea, zeinek bere galdera: «zergatik?» Halere, ez zuen galdera horrek Mariaren bihotza bere «ego»an hesitu; aitzitik, beti handiago agertzen zitzaion Jainkoagana ireki ohi zuen. Jainkoa zen, egun batean, seguru zegoen bera, beraren xumetasunaz maitemindu zena.

Otoitza Ars-eko apaiz santuak gure Ama Bedeinkatuari

- Nazareteko Andre Maria, gure Jaunaren ama, gure bidelaguna, zatozkigu bisitari, geldi zaitez gurekin.
- Zure beharra dugu, ama ona, aldi txarrak bizi ditugu, beheraldiak jasaten ditugu, erorialdiak, alferkeriak jotzen gaitu, apatiak mugiezin bihurtzen, amorrazioa ematen digu zuzengabekeriaren irmotasunak.
- Espero dena lortzen da ahaleginaz, lanaz eta bizitzaz. Zure eskuetan jartzen gara konfiantzaz, fedean sendo egin gaitzazu, konprometitu solidaritatean eta irmo, oso irmo, Erreinuaren Esperantzaz. Amen.

§ Ezekielen Profezia liburutik 17, 22-24.

Honela mintzo da Jainko Jauna:

«Zedro garaiaren adaburutik hartuko dut Nik ere, kimu bat hartuko dut haren adar-puntatik,

eta mendi garai eta bikain batean landatuko. Israelgo mendi garaietan landatuko dut; adarrak zabalduko ditu eta fruitua emango, zedro bikain bihurtuko.

Mota guztietako hegaztiak biziko dira bertan eta habia egingo haren itzalpean.

Basoko zuhaitz guztiek jakingo dute Nik, Jaunak, zuhaitz garaia beheratu eta txikia goratu egiten dudala,

zuhaitz hezea ihartu eta iharra heze-berritu.

Nik, Jaunak, esandakoa bete egingo dut».

[Sal 92 [91]: Bai ederra, Jauna, Zu gorestea!]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5, 6-10.

Senideok: Uste onez beteak gaude beti, jakinik, gorputz honetan bizi garen bitartean, Jaunagandik erbesteratuak gaudela. Sinesmenaren argiak gidatzen gaitu, eta ez ikusten dugunak. Uste onez gaude, bai, baina nahiago genuke gorputz honetatik erbesteratuak izan, Jaunarekin bizitzera joateko.

Nolanahi ere, gorputzean nahiz gorputzetik kanpo, Jaunari atsegingarri izaten ahalegintzen gara; guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, nork bere ordaina hartzeko, gorputzean bizi zelarik egindako ongiairene ala gaizkiaren arabera.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua gizonak lurtean hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura

Urteko 11. astea.

San Antonio Paduakoa, *apaiza, frantziskotarra eta eliz irakaslea.*

San Fandila, *apaiza eta martiria.*

lo nahiz iratzaririk egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten da, hark nola ez dakiela. Lurrak berez ematen du fruitua: lehenengo landarea, gero galburua eta, azkenik, galburua bete ale. Eta garia heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uztaroa da eta».

Beste hau ere esan zien: «Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurtean ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak, txoriek habia egiten baitute haren itzalpean».

Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zien Jesusek mezua, haiek ulertzeko eran. Ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik; baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zien.

Guri hazia ereitea bakarrik dagokigu. Hau erne eta haziz joango da, gure nahitik eta jakitetik beregain. Ebanjelioko parabolak laguntza ematen digu geure apostolutar lana bere egiazko mailan kokatzeko. Gu ez gara protagonista, baizik eta Kristoren misioaren zerbitzari. Jauna eta beraren Espiritua dira benetako protagonistak. Beraien esku dago guztia (apostolutar lanaren hasiera, tartekoa eta azkena). Guri, hazia ereiteko bakarrik eskatzen digu Jesusek. Eta ez ereiteko gogo ziztrin kalkulatzaila hutsez, egia esateko. Tratulari bihurtuz bezala... Badakigu, bestalde, hazi txikia dela. Batez ere, kontuan hartzen badugu geure aurrean dugun eginkizunaren handia, egundokoa. Baina badakigu ere, hazi honek haztea duela bere zoria eta guztientzat harreratsu izatea. Mostaza hazia bezala. Beraz, ez du zentzurik etsitzeak hainbateko txikikeriaren aurrean, ebanjelioarekin zerikusi txikia duten gauza handi-mandietan amets eginez. Direlako gauza handi horiek ez dira itzuliko. Agian, ez zuten zertan izan ere beren garaian. Nolanahi den, estropezu dira gaur egun. Zeren eta gure Jainkoak «apalarazi egiten ditu zuhaitz garaiak eta gorarazi apalak; iharrarazi zuhaitz hostotsuak eta lorarazi iharrak».

Urteko 11. astea.
San Eliseo, *profeta*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 6, 1-10: Jainkoaren zerbitzari garela agertzen dugu. Sal 98 [97]: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, beste hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

Badakigu, aurrerapen handia izan zela «talio-legea» beraren aurreko jokaerarekiko: muga ezarri zion giza mendekuaren dinamika geraezinekoari, beti joan ohi baita hertsiki bidezko dena baino aurrerago. Eta, halaz guztiz, beraren formulazioak («begia begi truk, hortza hortz truk») larria eragiten dio pertsonari bere logika zorrotz eta hotzaz. Alde honetatik, Jesusen hitzek askatu egin gaituzte aipatu logika zital horretatik: aurkeztu beste masaila... eman soingainekoa ere... eman eskatzen dizunari eta ez egin ezikusiarrena maileguz eskatzen dizunari... Izan ere, esperientziak irakasten digu gaitza ez dela garaitzen gauzak lehen zeuden bezala utziz, baizik eta ongiari eta maitasunari gainez eginaraziz.

Urteko 11. astea.

Santa Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea*
(*Aldareko Sakramentuaren Adoratzailleak*).

San Amos, *profeta*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 8, 1-9: Jesu Kristo behartsu egin zen zuengatik. Sal 146 [145]: Goretsazu Jauna, ene barrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin oitotz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Helburu-maila goiegi jarrai diguzu, Jauna! Maite gaituena maitatzeko agindua, hor nonbait. Gainera, ez duzu hori zertan agindu, bihotzak dioskuna da. Baina iraintzen gaituen, kalte egiten digun, etsaia maitatzea... honaino iritsi gara! Eta halaz guztiz, zu bezala izatea («guztientzat aterarazten duzu eguzkia eta guztientzat eginarazten euria»)... liluragarri gertatzen zaigu. Ondotxo dakigu ezen egiten dugun gaitzaren lehen biktima gu geu garela! Agian, eskatzen diguzuna ez da zintzo bete-beteko garela sentitzea edo halakoak izatea, geure buruaz harroputz, baizik eta, begiak zu zeu zaren helmugan tinko, izan gaitzela bide egiteari sekula uzten ez dioten gizon-emakume. Horrela izango gara, apurka-apurka, zure antzekoago.

Urteko 11. astea.

Santa Justina, *martiria*.San Bernabe, *monjea*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 9, 6-11: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 112 [111]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzeu zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitetz zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

«**J**akin dezala gizakiak: zenbat eta gehiago irten bere buru-maitasunetik, nahieratik eta probetxutik, hainbeste egingo duela aurrera bizitza espiritualean» (Loiolako Ignazio). Izatez, gure bizitza espirituala —gure salbazio-historiaren hasiera hartan bezala, Abrahamekin— «exodo» batean datza, «irteera» batean, batzuetan hain txikerra eta ziztrina izan ohi

Urteko 11. astea.

Santa Justina, *martiria*.

San Bernabe, *monjea*.

den gure «ego»aren biribil estutik eta tarteka itogarritik irtetea, alegia, «bere» gauzez eta «bere» probetxuaz bakarrik arduratzen baita «ego» hori; irten, beraz, topo egitera joateko anaiarekin edo arrebarekin, partikularki behartsuena eta premiatsuena denarekin. Guztiz konbentziturik baikaude, halakoarengan, gorderik eta ezkutuan, bizi dela Jainkoa, halakoarekin bat eginik, gure zain dagoelarik eta aurea ere hartu digularik gure bila, eta bera delarik lehena gu maitatzen.

Utziera-otoitza

Ene Aita,
zure esku nahi dut utzi neure burua,
egizu nitaz zeure nahia.
Zernahi egingo duzula,
aurrez nahi dizut eskertu.
Prest nauzu edozertarako,
den-dena dizut onartzen.
Zure nahia egitekotan nigan,
sorkari guztietan,
ez dut nahi beste ezer, ene Jainkoa.
Zure esku nahi dut utzi neure arima.
Zuri nahi dizut eman, ene Jainkoa,
ene bihotzeko maitasun guztiaz,
maite baitzaitut,
eta maitasun-beharra baitut
zuri ematea,
zure esku jartzea neurririk gabe,
konfiantzarik handienaz
ene Aita zaitut-eta.

(René Voillaume, *Au coeur des Masses*, 1950)

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.San Inozentzio, *martiria*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 11, 1-11: Jainkoaren Berri Ona dohainik hots egin nizuen. Sal 111 [110]: Zure egintzak, Jauna, leial eta zintzo dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

“Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero,
ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen,
baina atera gaitzazu gaitzetik”.

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Ez da hitz-kopurua, baizik kalitatea, gure otoitzari balioa ematen diona. Hobeto esan, egia da balio duena. Horregatik, batzuetan, Jainkoaren aurrean isilik gelditu hutsa izaten da otoitz egiteko erarik hobena. Isiltasun honetara bideratu behar gaitu otoitzak. «Ez esan hitz asko, jentilek bezala: uste izaten dute jaramon handiagoa eskainiko dietela asko hitz egiteagatik». Alderantziz, ahitu egingo dugu Jainkoa! Belarriak tapatzen dituen Jainkoaz mintzo zaizkigu profetak edo beste aldera begira jartzen

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.

San Inozentzio, *martiria*.

denaz, egiazi izaten ez diren gure otoitzen aurrean. Gure Aita otoizteak esan nahi du seme-alaba izatearen eta anai-arreba izatearen esperientzia bizi izan dugula. Eta, agian, barkazioaren esperientzia bizi izanak ager dezake zertaraino sentitzen garen egiaz anai-arreba eta zeruko Aita bat beraren seme-alaba.

GURE AITA komentatua (1. zatia)

“**Gure Aita zerukoa**”: Fededunen eta beren Jainkoaren arteko harreman estu eta barnekoia adierazten du. Jainkoaren seme-alaben otoitza da. Honetara gonbidatzen gaitu Jainkoak: “bera dela egiazko Aita sinestera eta gu bere benetako seme-alabak garela, kontsolamenduz eta konfiantza osoz dei egin diezaiozun, beren Aita maitea maite duten seme-alabek bezala. Hitz batean, Jainko Aitarekiko hurbiltasuna adierazten du “Aita”k.

“**Zerukoa**” (**zeruetan zaudena**): Jainko Aitak lurreko aitarekiko duen aldea adierazten du.

“**Gure**”: Otoizlaria elkartarekin lotzen du.

“**Saindu izan bedi zure izena**”: Jainkoaren izena santutzat eman behar da herri guztien artean, Jainkoaren herria lekuko leial delarik. Jainkoaren izena zuzen erabili behar dela esan nahi du.

“**Etor bedi zure erregetza**”: Jesusek esana zuen erregetza etorria dela eta fededunek eskura dutela, baina eskari honetan erregetza hori borondate oneko guztiengana etor dadin eskatzen da, bere bedeinkapen guztiekin etorri ere. Erregetzaren edukia: askapena, haurridetasuna eta zerbitzua. Oraino hazi hutsa da. Garatu egin behar da. Erregetza bere betera iristeak izan behar du Jesusen ikaslearen ametsak, eta, horregatik, haren otoitzaren erdigunea. (segida ekainaren 19an)

Urteko 11. astea.

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*.San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 11, 18. 21b-30. Horien guztien gainetik, eguneroko nire buruhaatea: eliz elkarte guztien ardura. Sal 34 [33]: Beldur guztietatik atera ninduen Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 19-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez pilatu mundu honetan zeuen ondasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen. Pilatu zeruan zeuen ondasunak, han ez baititu sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han.

Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argian ibiliko da. Baina begia gaixo baduzu, zure gorputz osoa ere ilunetan ibiliko da. Beraz, zure barruan argi izan behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea!»

Jesusen hitzek geure bihotzari eta geure begiei begira jartzen gaituzte. «Zure altxorra non, zure bihotza han». Geure bihotza dugu geure altxor. Jesusek eskatu digu, ez dezagula gorde bihotza bizitzako gogortasunekin jana, sitsak joa. Ezta zulaturik ere, hau da, Zeruko Erreinuarekin zerikusirik ez duen mila eta gehiago arazok harturik eta barreiaturik. Batez ere, ez diezagula lapurtu inork, ez diezagula lapurtu inork geure maitasun-gaitasuna. Eta gure begiak, «gorputzaren argi-zuziak», osasuntsu izan behar du. Edota «xume», dio grekozko jatorrizkoak («asmoaren begiak xumea izan behar du, zertarako sortua izan naizen, hara bakarrik begiratzen duena», dio Ignaziok). Horrela bakarrik egingo du argi. Horrela bakarrik biziko gara argian eta izango gara argi.

Urteko 11. astea.

San Romualdo, *abadea, fundatzailea (kamaldulitarrek).*

Santa Juliana Falconieri, *birjina.*

[San Paulok 2 Korintoarrei 12, 1-10: Pozik harrotuko naiz neure ahuleziaz. Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin izan da inor bi nagusiren morroi; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maiteko, edota bati leial izango zaio eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete Jainkoaren eta diruaren morroi izan.

Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio?

Asko kezkatuta ere, zuetako nork luza lezake apurtxo bat bizitza? Eta jantzia, zergatik kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean nekatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako bat bezain apain.

Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar suan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, zenbatez gehiago zuek, sinesmen txikikook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Jentilak arduratu ohi dira horiez guztiez. Zeruko zuen Aitak badaki horien guztien beharra duzuela. Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta gainerako guztia gehigarri emango dizue Jainkoak.

Ez kezkatu, bada, biharko egunaz, biharko egunak ere ekarriko baitu bere kezka. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhausteak».

«**E**zin izan da inor bi jaunen zerbitzari»... Ezin bizi da inor burua barreiaturik, bihotza zatiturik, benetan jakin gabe norekin eta non

Urteko 11. astea.

San Romualdo, *abadea, fundatzailea (kamaldulitarrak).*
Santa Juliana Falconieri, *birjina.*

dagoen. Izan ere, barreiadura eta etadura estutasun-iturburu dira, eta bakea kentzen digute. Ez digute uzten oraina bete-betean bizitzen, eta irudimenezko etorkizun irreal bat proposatzen digute. Askoz hobea da bateraturik bizitzea «Jainkoaren Erreinuaren eta beronen zuzenaren bila». Erabateko ziurtasunez ezen Jainkoa gutaz arduratzen dela, sorkari gutzietz arduratzen den bezala: zeruko hegaztiez, lirioez eta landako belarraz... Gainez egiten dion txeraz, guk merezi gabeaz. Jakinik, gainera, «gainerako gutzia (oraingoan jada barreiadura-iturburu ez dena) gehigarri emango digula».

GURE AITA komentatua

(2. zatia; ekainaren 17tik dator)

“Egin bedi zure nahia”: aurreko eskaria bera errepikatzen da hemen, baina zera azpimarratzen da: Jainkoak baduela asmo edo egitasmo bat, Jainkoaren herriak bete behar duena: Jainkoaren herri osoa elkartzea, herrien lekuko eta argi izan dadin. Erregetza bere betera irits dadin nahi izateak Jainkoaren gogoia bete dadin nahi izatea esan nahi du. Horregatik, otoitza ez da Jainkoa otoizlariaren gogora egokitzea, baizik eta otoizlaria Jainkoaren gogora egokitzea.

“Zeruan bezala lurrean ere”: “zerua” Jainkoaren gogoia jadanik indarrean dagoeneko zera bezala hartu behar da, eta “lurra”, bekatua eta deabrua oraino indarrean daudeneko zera bezala. Beraz, zera eskatzen da: zeruan egiten den bezala egin dadila lurrean ere. (segida ekainaren 26an)

Urteko 12. astea.

Santa Florentina, *birjina*.

San Silverio, 58. *aita santua*.

§ Joben liburutik 38, 1. 8-11.

Jaunak ekaitzaren erditik erantzun zion Jobi: «Nork itxi zuen itsasoa atez, amaren sabeletik indarka atera zenean? Nik eman nizkion hodeiak soinekotzat eta behe-lainoa haur-zapitzat. Nik ezarri nizkion mugak, atek eta morroiloak ipiniz, eta esan nion: “Honaino iritsiko zara, ez aurrerago; hemen lehertuko da zure olatuen harrokeria”».

[Sal 107 [106]: Eskerrak Jaunari, haren maitasuna betikoa baita.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5, 14-17.

Senideok: Kristoren maitasunak behartzen gaitu, jakinik bat denengatik hil dela eta, ondorioz, denak hil direla. Kristo denengatik hil da, bizi direnak ez daitezten berentzat bizi, beraientatik hil eta piztu den harentzat baizik.

Beraz, hemendik aurrera guk ez dugu inor giza ikuspegi hutsez balioztatuko; eta noizbait Kristo giza ikuspegi hutsez balioztatu izan badugu ere, orain ez dugu hala egiten. Beraz, Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 35-40.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen itsasoaz bestaldera». Jendea utzi eta ontzian eraman zuten Jesus, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten.

Horretan, haize-bolada zakarra atera zuen, eta olatuek ontzia jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berriz, txopan lo zegoen, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak?» Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta itsasoari esan: «Hago isilik! Geldi!» Gelditu zen haizea, eta barealdi handia egin zen.

Urteko 12. astea.

Santa Florentina, *birjina*.
San Silverio, 58. *aita santua*.

Jesusek esan zien: «Zergatik beldur hori? Ez al duzue oraindik sinesmenik?» Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?»

Soilik gurutzearen oinean eman ahalko zaio erantzun jatorrik galdera honi, han egin baitu Jesusek bere biziaren azkenerainoko eskaintza: «nor da haizeak eta itsasoak obeditzen dioten hau?» Ez ikasle gogotsuek errazkeriaz emandako erantzunek, ez Jesusen ekintzari etsipenez gogor egiten dioten deabrudunen erantzun zuzenek lortu dute galdera honi egoki erantzutea. Emango diona erromatar ehuntaria izango da, pagano bat; gizon honek, Jainkoaren Seme ere den honek, egin duen bere bizitzaren azkenerainoko eskaintzaren lekuko izan da ehuntaria. Nolabait esateko, erantzun egokia norberaren bizitzatik bakarrik eman daiteke, ez kaskoa betetzen ahal liguketen baina bihotza hutsik utziko liguketen balizko geure jakiteetatik. Horregatik, erantzun horretara iristeko, zenbat ekaitz ez ote dugu bizi beharko geure barnean! Zenbait bider ez ote dugu beragana joan beharko, kexuka, hala, behar bada, esanez: «ez al dizu axola gu hondoratzea?» Azkenean, ordea, beldurrak jota, arnasa faltaz, baina ez ezerk ez inork kenduko ez digun pozez, esateko: «Mesias zara zu, Jauna, Jainko biziaren Semea...! Gure adiskide eta Maisua! Nik gehienik maite dudana hura!»

Urteko 12. astea.

San Luis Gonzaga, *jesuita*.

San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

[**Hasiera liburutik 12, 1-9:** Hala, joan egin zen Abram, Jaunak agindu bezala. **Sal 33 [32]:** Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,1-5.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez gaitzetsi inor, Jainkoak zuek gaitzetsi ez zaitzaten. Izan ere, zuek bestea nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak; eta zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak.

Nolaz ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta ez zara zeure begiko habeaz ohartzen? Eta nola esan diezaiokezu senideari: “Uztazu zeure begitik lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean habea duzula? Itxurazale hori! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Jainkoak bere errukia azalduz juzgatzen du. Zuzena da Jainkoa errukitsua delako, eta errukitsua da zuzena delako. Gu baitan, aitzitik, zuzentasuna eta errukia sarritan aurkitzen dira, zoritxarrez, bereizirik: zuzenak bagara, erraz ahazten ahal gara errukitsu izateaz, eta, batzuetan, zuzenaren bizkar bizi ohi dugu errukia. Mugatuak gara, eta ezin harmonizatu izaten ditugu bizitzeko hartu ditugun balio guztiak. Horregatik, Jesusek esan digunez, oso adi bizi gaitzeko anaiaren edo arrearen begiko izpiari dagokionez, eta ezikusiarrena egin geure begiko habeari. Gure ebazpen-neurria izan dadila beti errukiarena, konfiantza osoaz espero ahal dezagun errukia izatea Jainkoak gurekiko izango duen jarrera.

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*. San Joan Fisher, *gotzaina*
eta Tomas Moro santua, *aita familiakoa, martiriak*.

[*Hasiera liburutik 13, 2. 5-18: Senitartekoak gara biok. Ez dugu, beraz, bion artean eztabaidarik izan behar. Sal 15 [14]: Nor bizi daiteke, Jauna, zure mendi santuan?]*

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,6.12-14.*

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei gauza sakratuak, ez bota zerriei zeuen harri bitxiak, hankapean erabil ez ditzaten eta, zuen kontra itzulirik, zatika ez zaitzateten.

Besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena.

Sar zaitezte ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta asko dira hortik doazenak. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak!»

«**U**rrezko araua» da («egin besteei zeuei egitea nahi izango zenuketena») mendiko hitzaldiaren laburpena, lagun hurkoarekiko gure harremani dagokienez. Lagun hurkoaren benetako egoera kontuan izatea eskatzen digu, eta jakin dezagula hartara egokitzen ematen ahal diogun laguntza. Adibidez, jakin dezagula ematen benetan behar duen hura (tarteka ez baita bat etortzen guk uste dugunarekin, ezta, agian, hobereana dela uste izaten dugunarekin). Honek guztiak berekin dakar «ate estutik igarotzea», geure «ego»ari «mehetze-sendaketa» ezarri behar izatea. Horrela, «ate estua» «ate zabal» bilakatzen da, «dena denentzat» egin izan garen neurrian.

Urteko 12. astea.

Santa Agripina, *martiria*.

San Urbano, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 15, 1-12. 17-18:** Abrahamek sinetsi egin zuen Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu zuen. Eta Jaunak ituna egin zuen harekin. **Sal 105 [104]:** Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Kontuz sasiprofetekin! Ardi-larraz jantzita datozkizue, baina barrutik otso harrapariak dira. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik, edota laharretatik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarririk eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik.

Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sura botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei».

Jainkoaren izenean hitz egiten dutenei dagokienez, gauza normala da galdetzea zein den egiazko profeta eta zein ez. Engaina ez gaitzaten eta kalterik egin ez diezaguten (sasi profetak otso harrapari dira, ardi-larraz jantziak). Ebanjelioak, horrelakoetan, fruituei begira jartzen gaitu (ez, gero, arrakastari, ez botereari). Fruituak, berriz, lehenengo, arbolari begira jartzen gaitu (kasu honetan, Jainkoari): profeta «Jainkoaren gizaki» da. Baita Jainkoaz elikatuko denari begira ere: profeta ez da ibiltzen bere probetxu bila, baizik eta hurkoaren onaren bila (bere bizia eman, hala behar denean). Azken batean, egiazko profetagan, batera joan ohi dira hitza eta bizitza. Beraren hitza ez da berarena, baizik eta Jainkoarena. Beraren bizitza bezalaxe. Jainkoaren izenean hitz egiten dutenei dagokienez, gauza normala da galdetzea zein den egiazko profeta eta zein ez. Engaina ez gaitzaten eta kalterik egin ez diezaguten (sasi profetak otso harrapari dira, ardi-larraz jantziak).

§ Isaías Profetaren liburutik 49,1-6.

Entzun, uharteok! Aditu, urrutiko herriok! Jaio aurretik deitu ninduen Jaunak, amaren sabelean nengoela gogoratu zen nitaz. Ezpata zorrotz bihurtu zidan ahoa, bere eskupean babestu ninduen; gezi zorrotz bihurtu ninduen eta gezi-ontzian gorde. Eta esan zidan: «Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea».

Nik, berriz, hau nioen: «Alferrik nekatu naiz; alferrik eta hutsean akitu ditut neure indarrak».

Baina Jaunaren baitan zegoen nire eskubidea, Jainkoaren eskuetan nire lansaria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduen beraren zerbitzari izateko, Jakoben leinuak berarengana bihurtarazteko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar.

Jaunak esan dit: «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak berreraikitzeo eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Nazioen argizat ezarriko zaitut, nire salbamenaren lurraren azken mugaraino irits dadin».

[Sal 139 [138]: Eskerrak zuri, harrigarriro egin nauzulako.]

§ Apostoluen Eginak liburutik 13,22-26.

Egun haietan, honela mintzatu zen Paulo: «Jainkoak David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: “Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi gutzia beteko duena”.

Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joanez: “Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere”».

Urteko 12. astea.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.

San Orentzio, *martira*.

Senideok, Abrahamen ondorengo zaretenok, eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzuenok, geuri bidali zaigu salbamen-hitz hau».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.80.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuten. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitar-tean inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa gostenen.

Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Haurra gorputzez hazten ari zen, eta espirituz sendotzen; basamortuan bizi izan zen, Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte.

Pertsona bati izena ezartzea ohiko gauza huts bat baino zerbait gehiago da. Izena ezartzea aurre-zantzu bat bezala da izena jartzen zaionaren geroaz (kasu honetan: «Jainkoak bere mesedea egin dio») eta, gainera, lotura bat ezartzen du izena jarri dionaren eta izena jarri zaionaren artean. Azken hau uztarturik gelditzen da lehenengoarekin. Joani ez diote ezarri, ez Zakarias aitaren izena, ez Elisabet amarena. Hauek ez dute egin semearen jaiotza iragarri zien aingeruaren gogoa bete besterik. Azken batean, Jainkoaren borondatea beste besterik ez,

zeinen mezulari baita aingerua. Joani izena ezarri diona Jainkoa izan da, eta Jainkoarekin geratu da Joan betiko uztarturik, bere jaiotzatik beretik. «Jainkoaren gizon» izango da. Jainkoa izan da beraren izena jaulki duena, amaren sabelean erne aurretik. Jainkoak aukeratu du misiorako. Jainkoa izango du sostengu bere misio horretan. Joanen misterioa (zer izango da haur honetaz?), gure misterioa da orobat. Hautatze-misterioa maitasunez. Bokazioaren misterioa, misiora eragiten diguna. Beti Jainkoarentzako bizitzearen misterioa, haren presentziaren testigantza eginez geure anai-arreben artean.

Joan Bataiatzailearen Jaiotza

Edozein santuz ari garenean, beti Jesusekin erlazioatu behar izaten dugu. Burubide hau argi eta garbi adierazten digu Elizak datu soil honekin: neguko solstizioan, abenduaren 25ean, Jesusen jaiotza ospatzen dugu; udako solstizioan, ekainaren 24 honetan, Joan Bataiatzailearen jaiotza ospatzen dugu.

Joanek berak ere argi esan digu Jesusekin duen erlazioa: ni ez naiz Mesias. Nik urez bataiatzen dut; nire ondoren datorrenak urez eta Espirituaz bataiatuko zaituzte.

Frantzisko aita santuak indartsu azpimarratu digu santuen debozioaren inportantzia. Kristau-esperantzaz ari delarik esan digu: «gure bizitza, kristau garen aldetik, sostengu dugun Jainkoaren eskuaren presentzia ahaltsuak markaturik dago. Baita santuen laguntza isilak ere». Eta jarraitzen du: «Hebrearrei egindako gutunean, santuen presentzia hori esapide honekin adierazten da: “lekuko edo testigu izan direnen hodei handi bat”».

Urteko 12. astea.

San Felix, *ermitaia*.Santa Orosia, *birjina*.San Adalberto, *diakonoa eta abadea*.

[**Hasiera liburutik 17,1.9-10.15-22:** Erdaindu itzazue gizaseme guztiak, itunaren ezaugarri. Sarak semea emango dizu. **Sal 128 [127]:** Honela izango da bedeinkatua Jaunari begirune diona!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,1-4.**

Jesus menditik jaitsi zen eta jende askok jarraitu zion. Legenardun bat hurbildu zitzaion eta, aurrean ahuspezturik, esan zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu».

Jesusek eskua luzatu eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitetz garbi». Eta berehala garbitu zitzaion legenarra. Jesusek agindu zion: «Kontuz gero! Ez esan ezer inori! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini Moisesek agindutako oparia, ezaugarri izan dezaten».

Mendiko Hitzaldia bukatzean, mendian behera jaitsi da Jesus eta, ebanjelariak diosku, jendea harriturik zegoen haren aginpideaz. Ez da, ordea, gainerakoengandik urruntzen edo bereizten duen aginpidea, edota beste guztien gainetik oilartzen duena. Jesus menditik jaistean, jendea bidera irten zaio, hurbildu eta inguratu du. Batzuek ezin egin zuten hori; lepradun honen kasua zen, eta Jesusen nahia, borondatea... bihotza hunkitu nahi du: «Jauna, nahi baduzu, garbitu nazakezu». Beharpen honetan, Jesusen aginpidea ez da galtzen irten, ezertan ere, baizik eta sendotu egin da, daitekeena baldin bada. Nolatan izan zitekeen bestela, jokoan maitasunaren eta gupidaren aginpidea zegoenean?

Urteko 12. astea.

San Pelaio, *martiria*.San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*.

[**Hasiera liburutik 18, 1-15:** Ba ote da ezer ezinezkorik Jaunarentzat? Itzuliko natzaizunean, Sarak semea izango du. **Salmoa: Lk 1, 46-48a. 48b-50. 53-55 (R/. ik. 54b):** Oroitu da Jauna bere errukiaz.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 5-17.**

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zion: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin; erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpoko ilunpera botako dituzte; han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Ondoren, ehuntariari esan zion: «Zoaz, eta gerta bekizu sinetsi duzun bezala». Eta ordu hartan berean, sendatua gertatu zen morroia.

Gero, Pedroren etxera joan zen Jesus, eta haren amaginarreba oheratua aurkitu zuen sukarrak. Hartu zuen Jesusek eskutik eta sukarrak alde egin zion; orduan, emakumea jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaien.

Arratsean deabrudun asko eraman zioten Jesusi, eta honek deabruak bere hitzez bota eta gaixo guztiak sendatu zituen. Horrela bete zen Jainkoak Isaias profetaren bidez esana: «Hark bere gain hartu zituen gure ahuleriak, eta gure gaitzak eraman».

Urteko 12. astea.

San Pelaio, *martiria*.

San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*.

Esaguzu, Jauna, hitz bat! Aldiaren hasiera hartan jauлки zenuen hitz kreetzaile hura bera, orain birkreatuko eta saneatuko gaituena. Hitz: bihotzaren isiltasunean entzunik, zutaz hitz egitera eragiten diguna, gainerakoen bihotzera iristeko moduan, eta ez, jakina, hutsik diren hitzez. Har gaitzazu, Jauna, eskutik! Geure ahuldadeak erasanik, jota sentituko garenean, zutitu eta gainerakoei zerbitzatzeko gai ez gabela. Imita ahal dezagula zure jarrera, zerbitzatzera etortzekoa, eta ez zerbitzatua izatera. Lagunduiezaguzu geure oinazeak eta gaixotasunak jasaten! Batzuetan, Jauna, geure ezina sentitzen dugu... Baina, zuk, «lehen zirenear horrek», lepoan hartu dituzu munduko bekatuak eta, haien zama zeuk harturik, liberatu egin gaituzu gu haietatik eta barkatu.

GURE AITA komentatua (3. zatia; ekainaren 18tik dator)

“**Emaguzu gaur gure eguneko ogia**”: Zein ogi? Adituek diote zail dela interpretazioa. Is 55,1-2an ogiak Jainkoaren erreinuan egoteak fededunari dakartzkion ondasun espiritualak adierazten ditu. Eliz Gurasoek, otoitz hau gehienbat jaunartzearen aurretik esaten zelako, Eukaristiari aplikatzen zioten ogia eskatze hori. Eskari hau, beraz, joera horren arabera, erreinuko janari espirituala eskatzea izango litzateke; besteak beste, Eukaristia eskatzea. Baina, gaur egun, ez du ematen interpretazio hori onar daitekeenik. Bizitzeko behar dugun janaria eskatuko genuke (janaria, jantzia, etxea...). Gaurko eskatzen da, eta ez pilatzen joateko. Jesusen ikasleek ez dute ezer berenik. Aitaren baitan daude denean. Honek askatasun handia ematen du; askatasun hori galdu egiten da gauzak eduki eta pilatu nahi direnean. Dena den, ñabardura desberdinak ageri dira gaur eguneko interpretatzaileen artean ere.

“**Barka gure zorrak**”: Jesusok dio, barkazioa bizitzako funtsezko osagaia dela erreinuan. Horregatik, beharrezkoa dute barkazioa eskatzea.

“**Guk ere gure zorduneri barkatzen diegun bezala**”: Halaber, ordea, esaten du Jesusok, Jainkoarekiko harremanak leialak eta benetakoak izango badira, lagun hurkoarekiko harreman leialak ezinbesteko direla.

Urteko 13. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.San Zoilo, *martiria*.

§ Jakinduria liburutik 1, 13-15; 2, 23-24.

Ez zuen Jainkoak egin heriotza, ez du atsegin bizidunak galtzea; izan ere, irauteko egin zituen hark gauza guztiak; munduko izakiak osasungarri dira, ez dute beren baitan pozoï hilgarririk, eta Heriok ez du lurreen aginterik, hilezkorra baita zuzentasuna. Hilezkor izateko egin zuen Jainkoak gizakia, bere izatearen irudi egin zuen; baina deabruaren inbidiaz sartu zen heriotza munduan eta harenak direnek jasango dute.

[Sal 30 [29]: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 8, 7. 9. 13-15.

Senideok: Gauza guztietan aberats zarete: sinesmenean, hitz egiteko gaitasunean, jakintzan, denerako arduran eta guganako maitasunean; izan zaitetze aberats eskuzabaltasunean ere. Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabaltasuna: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko. Arazoa ez da besteak lasai egoteko zuek larri gertatzea, guztien berdintasuna bilatzea baizik.

Une honetan, zuen ugaritasunak haien eskasia konponduko du, eta egun batean haien ugaritasunak zuen eskasia konponduko du; honela, parekotasuna izango da nagusi, Liburu Santuak dioen bezala: «Asko bildu zuenak ez zuen sobera, ezta gutxi bildu zuenak ere urri».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Hilzorian dut alabatxoa; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Urteko 13. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

San Zoilo, *martiria*.

Jende asko zihoakion ondoren, estutuz. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioa zuena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, hau baitzioen bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?» Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen al duzu?» Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Artean hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehiago Maisuari?» Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez beldur izan; zuk sinetsi!»

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedrori, Santiagori eta honen anaia Joani izan ezik.

Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskatxa ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskatxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskatxa, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen.

Urteko 13. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*San Zoilo, *martiria.*

Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zien.

Hamabi urteko neskato bat hiltzear dago... Emakume batek hamabi urte daramatza borrokan bere gaixotasunaren kontra. Arrakastarik gabe: bere ondasunak eta bizitza «dariela» ditu, odola dariola duen bezala, erremediorik gabe, bere onera etorri ezinik, antsiaz opa badu ere. Barneko etsipen honen parez pare kanpoko asaldura bizi du: jendetza, jendea estu-estu, negarra eta intziria, etsipena... Honen guztiaren erdian, Jairok, sinagogako buruak, neskatoaren aitak, ez du galdu ez bere fedea ez bere konfiantza Jesusengan, zer eginik ez dagoela ematen duenean ere. Emakume hark ere salbazio-zuzi bezala ikusi du Jesus, giza olatu eta asaldura artean. Eta Jesusek, bere ikasle apurrak lagun dituela, sostengua ematen dio koloka duen aitaren fedeari, eta miretsirik ageri da. Txeraz. Emakume haren fedea: «alaba, diotso, zeure fedea oneratu zaitu». Aurre egin die etsipenari eta zinismoari... Jesusen hitzak (Talitha qumi!), aldiak zeharkatuz, bihotzera iristen dira ezbeharrak jota uzteko puntuan egon ohi garenean. Ai! Eta neskatoari jaten emateko agindu die... Bizia aurrera baitoa, eta gaitzari eta etsipenari aurre eginez jarraitu beharko baitugu. Keinu txikiez. Baina munduko esperantza osoaz...

Urteko 13. astea.

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*.

[**Hasiera liburutik 18, 16-33**: Errugabea ere galdu egin behar ote duzu errudunarekin batean? **Sal 103 [102]**: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 18-22.**

Aldi hartan, Jesusek, bere inguruan jendetza handia ikusirik, beste itsasertzera igarotzeko agindu zuen. Orduan, lege-maisu bat hurreratu zitzaion, esanez: «Maisu, noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste batek, ikasleetakoa zenak, esan zion: «Jauna, uztazu lehenik nire aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Zuk jarraitu niri, eta utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen».

Jesusek, ikusirik jende askok inguratu zuela...». Alabaina, jarraitzaile al zuen jende hura guztia? Ez dira gauza bera «inguratu» eta «jarraitu»... Jesusi jarraitzeko, ezin programatu da etorkizuna, ezustekoari eta berritasunari zirriztu txikienik utzi gabe... Ikasi beharra izango da zerupearan bizitzen eta segurtasunei uko egiten... Batez ere, ikasi beharra izango da Jesusen zoria partekatzen... Eta ikasi beharra izango da ez uzten iraganak baldintzatu zaitzan eta, baita, oraina sakon bizitzen ere. Izan ere, «berekin du egun bakoitzak bere gaitza»... Azken batean, «beste ertzera igaro beharra izango da», ezaguna duzun hura utzi eta, Jesusen eskutik, konfiantza osoaz, ezezaguna den hartan murgiltzeko, berak eraman nahi gaituen hartarantz. «Zuri jarraituz, Jauna, ezin galdu naiz ni» (Loiolako Ignazio).

Urteko 13. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 12,1-11.

Aldi hartan, Herodes erregea eliz elkarteko batzuei gogor erasotzen hasi zen. Joanen anaia Santiago ezpataz hilarazi zuen eta, hori juduei atsegin zitzaiea ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko-astea zen. Pedro atxilotu eta kartzelan sartu zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen zainpean jarri, Pazko ondoren herriaren aurrean agerrarazteko asmoz. Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkarte oitotzean ari zitzaion haren alde Jainkoari etengabe.

Herodesek hura kartzelatik atera behar zuen aurreko gauean, Pedro lo zegoen bi gudariren artean, bi katez loturik, eta guardiak atean kartzela zaintzen zeudelarik. Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu eta gela guztia argiz bete zen. Aingeruak, saihetsean ukituz, Pedro esnarazi eta esan zion: «Jaiki azkar». Erori egin zitzaizkion kateak eskuetatik. Gero, aingeruak esan zion: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen; eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa eta jarraitu niri».

Haren ondoren atera zen Pedro; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez; ametsa iruditzen zitzaion. Lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldeen ondotik igarota, kalera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Atea berez zabaldu zitzaion eta kanpora irten ziren. Kale bat igaro ondoren, bakarrik utzi zuen aingeruak Pedro. Gertatuaz jabeturik, Pedrok esan zuen: «Orain badakit Jaunak bere aingerua bidali duela, ni Herodesen eskuetatik eta judu-herriak niretzat zituen asmoetatik askatzera».

[Sal 34 [33]: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

§ San Paulok 2 Timoteori 4,6-8.17-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut,

Urteko 13. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atara ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Hain desberdinak gara Elizaren altzoan! Bidezko gauza, gainera. Kontserbadoreak... aurrerakoiak... Barnera begira bizi direnak edota kanpora. Pedro eta Paulo ere hala ziren. Bata, ebanjelioa juduei predikatzeari emana; bestea, Israel herriaren fede-esperientziarik bizi ez zutenei ebanjelioa predikatzeari eman. Halaz guztiz, beren arteko

Urteko 13. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

aldeak ez zituzten oztopo izan, ez Pedrok jentilekiko bere sentiberatasuna azaltzeko (Kornelio ehuntariaren kasuan), ez Paulok Jerusalemgo ama elkartearantzat bere sentiberatasuna azaltzeko («ez gintezela ahaztu hango behartsuez»). Baina, halaz guztiz, desberdinak ziren. Bien arteko irizpide-alde bizen adibide dira: bai Jerusalemgo batzarreko gorabeherak, Paulok berak azalduak (ezer mozorrotu gabe), bai Eginak liburukoak (garrazkeriak leunduz). Baina Jesusekiko maitasun grinatsuak batzen zituen biak. Hau bezalako esapideak jaulkiarazten zizkien maitasunak: «Norengana joango gara...? Zuk bakarrik dituzu betiko bizirako hitzak... Zuk dena dakizu... Zuk badakizu maite zaitudala...». Edota «bizitzea niretzat Kristo da... maitatu nauena eta nigatik buru-eskaintza egin duena... Zerk bereiziko gaitu haren maitasunetik?»

Urteko 13. astea.

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak.

[**Hasiera liburutik 21, 5. 8-20:** Neskamearen semeak ez du oinordeko izan behar nire seme Isaakekin. **Sal 34 [33]:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 28-34.**

Aldi hartan, Jesus beste itsasertzera, gerasatarren lurraldera, iritsi zenean, bi deabrudun irten zitzaizkion bidera, hilobi artetik aterata. Hain baitziren gaiztoak, ez zen inor ausartzen bide hartatik ibiltzen. Deiadarka esan zioten: «Zer duzu gurekin, Jainkoaren Seme horrek? Garaia baino lehen guri oinaze ematera etorri al zara?»

Handik urrutira gabe, txerri-talde handi bat zebilen uxarrean, eta deabruak eskatu zioten Jesusi: «Botatzekotan, bidal gaitzazu txerri-taldera».

Jesusek esan zien: «Zoazte!» Haiek atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-talde osoa ezpondan behera itsasora amildu zen eta urean ito.

Txerrizainek ihes egin zuten eta, hirira joanik, dena kontatu zuten, baita deabrudunei gertatua ere. Orduan, herri osoa atera zen Jesusengana eta, ikusi zutenean, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten.

Ebanjelioek kontatzen digute, jendeak sarritan segitzen ziola Jesusi edota sarritan ibiltzen zela haren bila, astirik ere utzi gabe otorduak egiteko. Oraingo honetan alderantziz gertatu da. Kontaera heriotzaz mintzo zaigu, zentzugabekeriaz, beldurraz, nork bere probetxua bilatzeaz. Zeru herdoildu baten inpresioa ematen digu pasadizo honek, inolako esperantza-itxurarik ez duen zeru batena. Ematen du Jesusek porrot egin duela gainerakoen aldeko bere lanean. Ez dute ikusi ere egin nahi Jesus. Porrot honek, ordea, hurbilagoko Jesus bat bistaratzen digu, askotan gauzak nahi bezala gertatzen ez zaizkigunon hurbilagoko. Eta jende haren erreguari («alde egin zezala beraien herritik») geurea kontrajartzen diogu (Emausko ikasleena): «gelditu zaitez gurekin».





UZTAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:
Gizarte-adiskidetasuna

Egin dezagun otoitz: Egoera sozial, ekonomiko eta politiko gatazkatsuetan, elkarriketaren eta adiskidetasun adoretu eta suharraren arkitekto izan gaitzen.



Urteko 13. astea.

San Aaron (*Moisesen anaia*).Santa Regina, *aitorlea*.Santa Ester, *erregina*.

[**Hasiera liburutik 22, 1-19:** Sinesmenean gure aita dugun Abrahamen oparia. **Sal 116 [114]:** Ibiliko naiz Jaunaren aurrean bizidunen lurraldean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,1-8.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo, itsasoaz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen. Hortan, elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Zan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak».

Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten beren baitan: «Biraoka ari duk hau».

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zergatik dituzue burutapen gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago, “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki eta zabiltza” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena». Orduan, esan zion elbarriari: «Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera!» Hura jaiki eta etxera joan zen.

Hau ikustean, izaturik gelditu zen jendea eta Jainkoa gosten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

Neure harat honat haietako batean, kartzela-boluntario gisa, barneko preso batek esan zidan giza erailtze bat egin zuela eta hargatik zegoela preso: «zenbat nahi izango nukkeen bizitzan “mobiola” bat izatea, atzera egin ahal izatea, eta egin nuena ez egin izana!» Ebanjelioko pasarte honetaz gogoratu nintzen. Elbarri bat sendatzeko eskatu diote Jesusi. Jesusek ez die huts egin eta sendatu egin du... baina aginduz esan dio har dezala lepoan bere ohatila! Mirari bitxia! Batzuetan zurrundurik uzten gaituzten iraganeko zaurien sinboloa da ohatila. Halere, Jesusek esaten digu ibil gaitzkeela, ohatila lepoan dugularik ere. Herrenka, agian... Behar bada, eta zein polita izango litzatekeen, ohatila eramaten batak besteari lagunduz. Jaunaren presentzian ibiliz.

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis eta Francisco de Gerónimo; Dohatsuak: Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak*. San Juvenal, *martiria*. San Odon, *gotzaina*.

[Hasiera liburutik 23, 1-4. 19; 24, 1-8. 62-67: Maite izan zuen Isaakek Rebeka. Honela arindu zitzaion Isaaki ama galdu izanaren nahigabea. Sal 106 [105]: Eskerrak Jaunari, ona baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatarari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei giteza etorri, bekatarietara baizik».

Guri bizia emateko egiten duen ibilbidean, Jesusentzat ez da leku itxirik edo iragazgaitzik. Ez da gizatalderik haren dei adiskidetsuaren durundia entzun ahal izango ez duenik: «zatoz nirekin». Hain justu, zergak biltzen ari zen lekuan eta lanaldi betean -herriko jendearentzat zeregin gorrotagarria- egin zuen topo Jesusek Mateorekin. Eta berehala jarraitu zion honek. Hona abagune egokia Jesus honen presentzia gogora ekartzeko, gure bizitza osoan jarraitzen baitu presente. Baita presentzia hori ospatzeko ere. Nola? Beraren jarrera imitatuz, bereziki gaixoen eta bekatarien bila: beraren eta gure egun hauetan betiko baztertuak diren horien bila; hain zuzen, bere erabaki erostezinak, maitasun biziak, eragiten dio maitasun beronen falta beste inon baino nabariago dela ematen duen guneetara.

Urteko 13. astea.

SANTO TOMAS, APOSTOLUA.

San Heliodoro, gotzaina.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,24-29.

Tomas, hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituz, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituz, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusak esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Tomas sinesgabeaz baino gehiago, Tomas zaurituaz hitz egin beharko genuke. Jar gaitzen beraren larruan eta errepara diezaiogun Jesusen bizitzaren azkenak eragindako desengainuari. Zenbat ilusio jarriak Nazaretoko Maisuagan! Guztiek huts egiten zuten gurutzeko azken tragiko hartan. Horregatik, lagunen aitopenari («Jauna ikusi dugu») eszeptiko erantzun zion, ebanjelioak kontatzen digunez («beraren zauriak ikusten ez badituz... ukitzen ez badituz»). Ematen du jasandako hartarainoko oinazeari zentzu bat eman nahi diola. Ezin utzi da hura bertan behera, nolana. Eta Tomasek emango dio zentzu bat, Gurutziltzatuagan Jesus bera aitortuz eta, Jesusengan, lurreko gurutziltzatu guztiak: «Ene Jauna eta ene Jainkoa».

Urteko 14. astea.

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827 – Vietnam 1861),
domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak.

§ Ezekielen Profezia liburutik 2, 2-5.

Egun haietan, Jaunaren espiritua sartu zen niregan eta zutik jarri ninduen, eta hitz egiten zidanari entzun nion esaten: «Gizaseme, israeldarregana bidaltzen zaitut, jende bihurri horregana; horiek eta horien arbasoak nire aurka altxatu dira gaurdaino. Seme-alaba burugogor eta setatsu horiengana bidaltzen zaitut nire mezua adieraztera. Horrela, entzun ala ez, jakingotu herri bihurri horrek baduela profeta bat bere artean».

[Sal 123 [122]: Gure begiak Jaunagana daude, gutaz erruki dadin arte.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 12, 7-10.

Senideok: Neure burua den baino handiagoztat jo ez dezadan, haragian sartua dudan eztena eman zait, jo eta jo ari zaidan Satanasen ordezkaria, harrotu ez nadin. Hiru aldiz eskatu diot Jaunari, ken diezadala, baina hark esan dit: «Nahikoa duzu nire laguntza, nire indarra ahulezian gauzatzen baita bete-betean».

Pozik harrotuko naiz, beraz, neure ahuleziaz, Kristoren indarra bizi dadin nigan. Pozik nabil, beraz, Kristogatik jasaten ditudan ahulezia, laido, beharrian, erasoaldi eta estualdietan. Ahul naizenean, orduan bainaiz indartsu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Urteko 14. astea.

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827 – Vietnam 1861),
domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitarlean eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuke sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Ukoa da sarritan profetaren zoria. Jesusek, Paulok eta beste hainbatek hitz egiten ahal ligukete horretaz. Uko horren era bat mezularia gutxiesten da, ondoren, haren mezuari ezentzunarena egiteko, gogaikarri delako eta entzuleak koloka ipintzen dituelako. Ukoak ezina eragiten du mezulariagan, eta hondoraino sentitzen du bere ahuldadea. Jesusek «ezin egin izan zuen» miraririk entzuleen fedefaltagatik. Paulok ere sentitu ditu «Satanasen bidali» honen erasoak, akuilatu egiten baitu harropuztu ez dadin. Egia baita profeta ez dela baliatuko, bere arerioen aurka, hauek erabiltzen dituzten arma berez. Paradoxikoki, profetaren ahalmena beraren ahuldadean datza («neure ahuldadeez harrotzen naiz», esan du Paulok). Bere ahala beraren hitzetik bakarrik datorkio: Jesusek herrietan barna ibiltzen jarraitu zuen, irakatsiz, berri ona hots eginez. Eta ukoak ez dio eragotziko behar duenari on egitea (halaz guztiz, sendatu zituen gaixo batzuk). Profetaren ahalmena maitasunarena da, zeina gozo-gozo iradokitzen baita entzuleen bihotzean; hauek, azkenean, espero izatekoa da!, konturatuko dira «profeta bat izan dutela beren artean».

[**Hasiera liburutik 28, 10-22a:** Zurubi bat ikusi zuen, eta Jainkoaren aingeruak zurubian gora eta behera. **Sal 91 [90]:** Ene Jainko, zugan dut nik konfiantza.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,18-26.**

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin.

Hontan, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, hau baitzioen bere baitan: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz».

Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatua gelditu zen.

Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen estilua ikustean, esan zion: «Alde hemendik! Neskatxa ez dago hila, lo dago». Haiek barre egin zioten.

Jendea bidali zutenean, sartu zen Jesus eta eskutik heldu zion neskatxari, eta neskatxa jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

Jada ezer egin ezin denean, («nire alaba hil da»), adore-falta zabaldu denean (emakume hark hamabi urte egin zituen, tunelarentzat irtenbiderik eta azkenik sumatu gabe), etsipena (garrasiaz, isekaz edo burlaz mozorroturik) nagusitu ohi da gutaz. Inguratzen gaituen gaitzari aurre egiten irakatsi digu Jesusek, eguneroko keinu txikiez (sufrimenduari ezikusirik egin gabe, eskua luzatuz, bihotz emateko hitz egitiak jaulkiz, ukituz eta «ukitua izanez»). Gaitzari ez zaio eginkorki aurre egiten, ezohiko gauzez, baizik eta eguneroko ohikoez, xumeez. Ematen duenean gaitza indar guztiez ari dela orroka, orduan Jainkoa haur txiki egiten da Betleemen, esan ohi zuen Bernanosek.

Urteko 14. astea.

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*.

[**Hasiera liburutik 32, 22-32 (hebr. 23-33):** Israel deituko dizute, boro-
rokan egin baituzu Jainkoarekin eta garaile atera zara. **Sal 17**
[16]: Nik, Jauna, zuzena naizelarik, zure aurpegia dut ikusiko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,32-38.**

Aldi hartan, deabruaren menpe zegoen mutu bat ekarri zioten Jesusi. Honek deabrua bota zuen, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, zioen: «Ez da Israelen egundaino horrelakorik ikusi».

Fariseuek, berriz, hau zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara».

Jesusez batzuek diote: «ez da sekula horrelakorik ikusi». Beste batzuek: «honek deabruen buruzagiaren botereaz botatzen ditu deabruak». Ez da gor handiagorik entzun nahi ez duena baino, ezta itsu handiagorik ere ikusi nahi ez duena baino. Iritzi-banaketa hori gure bihotzean kokatzen da, Jaunari ematen ez zaion bihotz zatituan. Jainkoarekin borroka bizian sentitu ohi gara, Jakob bezala. Jesusi ez zaio axola berari buruzko ezbaia: on eginez jarraitzen du eta jendeari gupida kutsakorraz begiratuz. Berak, artzainik gabeko ardiak ikusten ditu, etsipenak joak... Utz diezaiogun begiratzeko beraren moduak kutsa gaitzan. Galdera hau sortuko zaigu orduan: izan nahi al duzu bera bezalako, langile, beraren soroan?

Urteko 14. astea.

San Fermin (Iruñea 3. mendean? – Amiens?),
gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria.

[**Hasiera liburutik 41,55-57; 42,5-7a.17-24a:** Geure anaiari egin gemon okerra ari gara ordaintzen. **Sal 33 [32]:** Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,1-7.**

Aldi hartan, Jesusek, hamabi ikasleei dei egirik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko.

Hona hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samariako herrialdean ere, baizik eta zoazte Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoaztela, hots egun hurbil dela zeruetako erreinua».

Jesusek partekatu egiten du bere aginpidea. Botere soil ez den aginpidea da, baizik eta koherentzia esatearen eta egitearen artean. Eta solaskide dituenak hazarazteko gai dena. Horregatik du ikasleen beharra. Nori bere izenaz dei egiten dio. Ez orokorki, ez ea nork erantzuten dion. Eta desberdinak dira balizko entzuleak: hazi sistemaren kolaboratzaile den zerga-biltzaile batengandik, eta bera, Jesus, indarkeriaz, beharrezko bada, baztertu nahi duen harenganaino. Eta «ardi bide galduengana bidali ditu, Israelgoengana lehenik, Jainkoaren Erreinua hurbil dela hots egitera. Azkenean, guztiengana. Izan ere, unibertsaltasuna ezin izan da teorikoa edota goitik ezarria, baizik eta behetik, galduak diren ardiengandik sortua, zeinak izaten baitira eskuarki ahaztuak eta arreta ukatzen zaienak.

Urteko 14. astea.

Santa Priszila, *martiria*.

San Prokopio, *martiria*.

[Hasiera liburutik 44, 18-21. 23b-29; 45, 1-5: Zuen bizia salbatzeko bidali ninduen Jainkoak Egiptora. Sal 105 [104]: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa.

Edozein herritan nahiz auzotan sartzten zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeok duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira.

Onartzen ez bazaitzete eta zuen hitza entzun nahi ez, etxe nahiz herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa. Benetan diotsuet: auzi-egunean Sodomak eta Gomorrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino».

Paulo VI.a santuak esan ohi zuen gaur egungo munduak maisuak baino beharrezkoago dituela lekukoak. Eta, kontua maisuena bada, hauek lekuko ere izan beharra dutela. Harrigarria da zein labur aurkezten duen ebanjelioak iragarpenaren edukia. Hau esatera mugatzen da: «hurbil da zeruetako erreinua». Aitzitik, arreta handia eskaintzen dio iragarpena egiteko erari. Bidaliak asko arduratu behar du: sufritzen ari direnez, doan eta pobre bizitzeaz, konfiantza soilik Hitzaren indarrean eta eginkortasunean ipintzeaz. Eta, nagusiki, bakea eskualdatzeaz. Berak bizi duena, batez ere. Halako moduan, non hartzekoduna ez bada bake haren duin, mezulariagana itzuliko baita, hau hura gabe geldi ez dadin.

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*. Santuak: Leon Ignazio Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

[Hasiera liburutik 46, 1-7. 28-30: Orain bai hil naitekeela zure aurpegia ikusi ondoren. Sal 37 [36]: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 16-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo.

Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitareen Espiritua mintzatuko da zuen bidez.

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua.

Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko».

Ez zuhurtziak eskatzen du mundu honetako irizpideekin hitzartzea, ez xumetasunak begiak ixtea errealitatearen konplexutasunaren aurrean. Kristau-fedekak iskin egiten die dena konpondu nahi izaten duten sinplifikazio erraz hauei, den-dena zegoena baino okerrago utziz. Espirituaren arnasak bakarrik laguntzen ahal digu zuhurtasunaren eta xumetasunaren arteko proportzioa aurkitzen. Guri dagokiguna, geure buruaz ahalik gehienik hustea da, Jesusez, haren Espirituaz, gero eta gehiago betetzeko. Bera baita, azken batean, gu bitarteko garela, mintzo dena eta diharduena, hots egitean solaskide dugun jendea ezagutzea ematen diguna (eta, batez ere, jende horren bihotzera nola iritsi), eta bera da behar den kemena ematen diguna ezin ulertuak eta pertsekuzioak bizi behar izaten ditugunean.

Urteko 14. astea.

Santa Rufina, *martiria*.

San Felix, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 49,29-32; 50,15-26a:** Jainkoak zuen alde esku hartuko du, eta lurralde honetatik igoaraziko zaituzte. **Sal 105 [104]:** Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabilzatenok!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 24-33.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehiago. Nahikoa du ikasleak irakaslea adina izatea, eta morroiak nagusia adina. Etxeko jaunari Beeltzebul deitu badiote, zer ez ote diete deituko haren etxe-koei? Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarrira entzuten duzuen hots egin etxe-gainetik. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernuan gal dezakeenari.

Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat barkarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiek baino gehiago balio duzue zuek.

Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

Hiru bider ageri da Jesusen oharpen hau: «ez beldur izan». Baina, bai, izan zuten beldurrik aski! Jesus bizi zela, mamutzat hartu zuten behin batean bera. Nekaldikoan ihesari eman zioten, eta emakume gutxi batzuk eta ikasle maitea izan zituen, urrunetik, bidelagun. Eta jada berpizturik, Markosen ebanjelioaren azkenak esaten digu: «emakumeek ez zuten ezer esan (Berpiztuarekin topo egin izanaz), beldur zirelako». Jesusi jarraitzean, aholkulari txarra da beldurra. Hitz egiteko askatasuna kentzen digu (hitz egitea

Urteko 14. astea.

Santa Rufina, *martiria*.San Felix, *martiria*.

komeni denean). Nahasi egiten du errealitatea (garrantzi handiagoa ematen diogu horrenbestekorik ez duenari, eta alderantziz). Eta ez digu uzten prestasunean eta maitasunean hazten. Maitasunak uxatzen du beldurra.

GURE AITA komentatua

(4. zatia; ekainaren 26tik dator)

“Egizu tentaldian eror ez gaitzen”: (“ez gu tentaldira eraman”): Eztabaida asko izan dira testu honen inguruan. Origenesek: “Giza bizitza guztia, lurrean, tentazioa da... Ez gaitzazu utzi tentaldian erotzen”. Latinezko antzinako eskuizkribu batzuek: “ne patiaris nos induci in temptationem” = “ez utzi gu tentaziora eramanak izatea”. Beste autore batzuek honela ulertzen dute (Sal 119,8aren arabera): “jasan ez dezakegun tentazioa”. Testuak, dena den, ez bide du dudarik. Horiek horrela, tentaldiak, Mt 4,1-11n bezala, probatua izatea esan nahi du, Israel herria basamortuan probatua izan zen bezala (Ir 16,4: “...Probatu egin nahi dut <Israel herria>, ea nire esanera dabilen ala ez”); Dt 8,2: “Gogoratu Jaunak zeuen Jainkoak basamortuan berrogei urte hauetan eginarazi dizuen bidea: egoera latzean jarri zintuzten probatzeko, zuen barne-asmoak ezagutzeko eta bere aginduak betetzen zenituzten ala ez jakiteko”); pertsekuzioa eta zapalkuntza “atsekabearen labean” probatua izateko bidetzat hartzen ziren, pertsona probatua zilarra bezala birfindua izateko (Is 48,10; Mal 3,3). “Ez gu tentaldira eraman” delakoak ez du esan nahi Jainkoak tentaldia positiboki eratzen duenik (Jainkoak ez gaitu tentatzen), baizik eta Jainkoak bidea irekia uzten diela probaldiei (horien artean tentaldiei); horiei bide emanez gidatzen duela gure zoria. Jainkozko bizitza gizakiagan probapean garatzen da beti, finduz joan dadin. Hemen eskatzen dena, gaitzari aurre egiteko indarra da. Hau da, Jesus alde batera uzteko tentaldian ez erortzeko indarra.

Urteko 15. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*
(*ikus beheraxeago San Benitoren Meza*).

§ Amosen Profezia liburutik 7, 12-15.

Egun haietan, Amaziasek, Betelgo apaizak, esan zion Amosi: «Ikusle, zoaz, alde hemendik Judako lurraldera. Egin han profetarena eta irabazi zeure ogia. Baina ez jardun gehiago profetagintzan Betelen, hau errege-santutegia baita eta erreinuko jauretxea».

Amosek erantzun zion Amaziasei: «Ni ez naiz ogibidez profeta, abeltzaina naiz eta basapiku-biltzailea. Abeltzain nabilela hartu nin-duen Jaunak eta bere herri Israeli profetizatzeraz bidali».

[Sal 85 [84]: Jauna, zeure onginahia erakutsiezaguzu, zeure salbamena emaguzu.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,3-14.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitzen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzen hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Seme honen heriotzaz dugu askapena, bekatuen barkamena, Jainkoaren onginahi eskuzabalari esker; oparo isuri du bere onginahiaren dohaina, jakinduria eta ezaguera osoa guri emanez. Bere asmo ezkutua ezagutarazi digu, bere onginahiak erabakia zuen asmoa: historia bere betera eramateko, zeruko nahiz lurreko gauza guztiak Kristogan biltzea, berau buru dela.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasegan itzaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitzen.

Urteko 15. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*
(*ikus beheraxeago San Benitoren Meza*).

Eta zuek ere egiaren mezua, salbatzen zaituzten Berri Ona, entzun eta Mesiasengan sinetsi duzuenok, agindutako Espiritu Santuaz zigiluz bezala markatuak izan zarete. Espiritua da hartuko dugun ondarearen bermea, Jainkoak bere egin duen herria askapen osora iritsiko denaren bermea, Jainkoaren aintzaren gorespen-kantu izateko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela.

Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitazela; baina aldatzeko soinekorik ez.

Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio z gantzutuz.

Komeni da ez «profesionalizatzea» gehiegi Hitzaren hots egitea. Hasteko, misioa lana baino zerbait gehiago da (nahiz eta beharrezkoa duen lana ere, eta handia, egia esateko). Egia da ere beharrezkoa dela baliabideak biltzea misioa ahalik eta erarik hoberenean gauzatzeko. Baina «tresnak Jainkoarengana eramaten duten baliabideak... eginkorrakoak dira gizakiarengana eramaten dutenak baino». Horregatik, ez da ahaztu behar, dena Jainkoaren ekimena izaten dela. Grazia hutsa, doan guri emana, «Kristok markatuoi». Kontuan hartu beharko da, beraz, karisma hori ez itotzea. Pertsona bakoitzaren estiloa ezaugarri izaten duen karisma da. Kristok bidalirik, abian jartzen gaituen karisma. Pobre eta soiltasun pertsonal den karisma.

Urteko 15. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*

Bizitza ebanjelioaren berri eman nahi diegun haiekin partekatuz. Gure anai-arreben bizitza hartaraino jipoitzen duten deabruak uxatuz. Oinazetuen mundura hurbilduz. Hau guztia harago doa, askoz harago, «Hitzaren profesional» izatea baino, esan behar dutena esaten baitute hauek... hori egokitu zaielako... nahiz eta batzuetan ematen duen, honek guztiak zerikusirik ez duela beraiekin.

San Benitoren Meza

§ Esaera Zaharrak liburutik 2, 1-9.

Ene seme, nire esanak onartu eta nire aginduak gogoan gordetzen badituzu,
jakinduriari kasu eta zuhurtziari jaramon egiten badiezu;
adimenari dei eta zuhurtziari oihu egiten badiezu,
horiek dirua eta altxorrek bezala bilatzen badituzu, orduan ulertuko duzu Jaunaganako begirunea,
eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara. Jauna baita jakinduria ematen duena, beragandik datoz ezaguera eta zuhurtzia.
Berak ematen die arrakasta zintzoei eta babesa jokabide zuzenekoei; zuzenbidea babesten du eta zintzoen jokabidea zaintzen.
Orduan ulertuko duzu zer den justizia eta zuzenbidea, jatortasuna eta jokabide on oro.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,27-29.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Urteko 15. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare».

Paulo VI.ak, San Benito Europako Zaindari aldarrikatzean, aitortu zuen, monasterio beneditarrek konfiguratu zutela Europa kontinentearen batasuna, «gurutze, liburu eta goldearekin kristau-zibilizazioa» gizarteratzean. Gaurko irakurgaiek pertsonaia handi izan zen Nurtsiako Benitoren ezaugarri batzuk azpimarratzen dituzte: jakinduria espiritual eta desatxikimendua. Zuzentasuna bizitzera daraman jakinduria espiritual hura lema honek sintetizatzen du: «Ora eta labora». Europa materialista eta postkristau honetan geure egin dezakegun proposamena da. Eta proposatzen digu, balore transzendentalen (otoitz egin) esperientziatzko lekuko izatea, eta, aberastasunen banaketa zuzena, European historia egoistan barna hainbat aldiz hautsia, faboratuko duen zuzentasunaren alde (lan egin) jokatzea.

Benito eta Eskolastika

Behin batean, Benito Eskolastika arrebagana joan zen bisitan. Jainkoaren maitasunaz mintzo ziren; hain sutu, non arrebak biharamuna arte gelditzeko eskatu baitzion Benitori. Honek ezetz. Orduan, Eskolastikak otoitz egin zuen, eta ordu arte alai eta garbi-garbi zen zerua euri eta trumoi-tximista bihurtu zen. Benitok bertan gelditu behar izan zuen. Jaunak berak agertu zuen otoitzaldi hura bedeinkatzen zuela.

Urteko 15. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.

San Hilario, *martiria*.

[**Itreera liburutik 1, 8-14. 22:** Israeldarren herria gu baino ugariago eta indartsuago bihurtzen ari da. Beraz, joka dezagun zuhur berarekin. **Sal 124 [123]:** Gure laguntza Jaunaren izena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,34—11,1.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baizik banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxeakoak izango ditu etsai.

Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du.

Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko».

Hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

Ezin jarri dugu dudan gure errealitatea pitzaturik dagoela: biktimak eta borreroak, aberatsak eta behartsuak, Iparra eta Hegoa... Eta ezin jarri dugu dudan geure bihotza dela, errealitatea eratzeko orduan, pitzaturik dagoen lehenengo gauza. Geure burua bateratu beharra dugu eta dena Jainkoagan bateratu beharra. Maitasunak

Urteko 15. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.San Hilario, *martiria*.

bakarrik bateratu gaitzake. Neurri-konturik ez duen maitasunak («gehiago maitatu» edo «gutxiago maitatu»), gai egiten gaituenak den-dena eta guztiak Jainkoagan maitatzeko eta Jainkoa guztiengan. Hau gertatuko bada, beharrezkoa da buru-ukoa, hutsunea egitea geure baitan. Egunean eguneko gurutzea hartzea. Irekirik bizitzea. Eta atea zabalik dituen etxe bilakatzea, zabalik Jainkoarentzat eta gainerakoentzat.

Gaur kristautzat emanak diren gai batzuen jatorri paganoa

Kristau-dotrinaren garapenari buruzko bere Entseguan, 1878an argitaratuan, Elizak gai paganoak bere egin izanaz, John Henry Newman kardinalak, anglikano katoliko bihurtuak (Frantzisko aita santuak santu deklaratuak 2019ko urrian), idatzi zuen: «Tenpluak erabiltzea, santu jakin batzuei eskainiak, eta batzuetan arbola-adarrez, intsentsuaz, zuziz eta kandelaz apainduak; gaixotasun batengatik egindako ex-voto eskaintzak; ur bedeinkatua, babes-etxeak; liturgia-jaiak eta aldiak, egutegiak erabiltzea, prozesioak, lurra bedeinkatzea, eliz jantziak, tontsura, ezkontzako erantzuna, ekialdera begira jartzea eta, data geroagoko batean, imajinak berak, agian eliz kantua eta Kyrie Eleisona: horrek guztiak jatorri paganoa du, sakratutzat emana Elizan onartua delako».

Urteko 15. astea.

San Enrique, *enperadorea*.

San Silas, *San Pauloren laguna*.

[*Irteera liburutik 2,1-15a*. Moises ezarri zion izena, uretik atera baitzuen, eta, heldua zelarrik, bere senideengana joan zen. **Sal 69 [68]**: Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabilztenok!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,20-34.

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolu-jantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango dute Tirok eta Sidonek, zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko zarela? Lurraren barneraino eroriko zara! Izan ere, zuregan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodoman, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango du Sodoma, zuk baino».

Egia bada ereileak mota guztietako lurretan ereiten duela hazia, zuhurkerian ibili gabe, egia da halaber erantzukizun larria dugula eskainitako graziari ez muzin egiteko, ez oilartzeko, dena geure lana eta merezimendua izango bagenu bezala. Gure erantzunak apaltasunarena izan behar du eta esker onarena, oharturik, dugun eta garen guztia dohain dugula eta dohain oro eginkizun bihurtzen dela: dohain, gainerakoekin partekatzekoa. Gure bihotzean ez dadila ikusi Korozain, Betsaida eta Kafarnaumeko... arrastorik. Apal eta esker oneko izatea da jarrera hoberena Jainko honen dohainak hartzen joateko: «bere burua eman nahi baitit ahal duen guztian, bere jainkotasunean eratu duenaren arabera».

Urteko 15. astea.

Zudaireko Esteban *dohatsua*, eta lagunak, *martiriak*.
San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*.

[*Irteera liburutik 3,1-6. 9-12: Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artean pizturiko sugarrean. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Jende xumea bakarrik sar daiteke Aitaren isilgordeetan. Ez ulergaitz direlako, ez ohikoaz gaindiko adimenak bakarrik atzematekoak direlako. Beraietara iritsi ahal izateko, azkenak direnetako egin beharra dugu. Jesus, Jauna, gure artean zerbitzari dagoen bezala. Moisesek atzeman zituen isilgordeak dira, Jainkoarekin hitz egiten baitzuen adiskide batek beste batekin bezala. Bere eguneroko zereginen artean, sutan zegoen laharraren aurrean, begirunez oinetakoak erantziz, Jainkoagana hurbildu zen eta ikusi zuen haren bihotza taupadaka ari zela maitasunez, Egipton esklabo zegoen bere herriaren alde. Bere txikitasuna kontuan harturik, laguntza eskatu zion eta eman zion Jaunak: Aaron bere anaia. Eta, batez ere, sentitu zuen Jainkoa berekin zuela bere eginkizunean.

Urteko 15. astea.

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*. Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 – Brasileran bidean kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*.

[**Irteera liburutik 3,13-20**: Naizena naiz Ni. «Naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana. **Sal 105 [104]**: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.**

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarrria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarrria leuna baita, eta nire zama arina».

Jesusi jarraitzeak buru-ukoa eskatzen du, lepoan hartzea egunean eguneko gurutzea. Alabaina, txanponaren alde bat bakarrik da hori. Bestea da, jarraitze honetan on dela aurkitzen jakitea beste une batzuk: aringarri, gozagarri, atsedengarri direnak... Bestela, tiranduraren tiranduraz, arkuaren erremediorik gabe hausten ahal litzateke. Hondo-hondoan, jarraitzearen bi alderdiei batasuna ematen diena maitasuna da. Ez al da egia, maitasunak batzuetan oinazearen eta sufrimenaren bidetik eramaten gaituela? Eta, halaz guztiz, ez al da egia, halaber, maitasunak dena beratzen duela, dena arintzen, dena leuntzen? Maitasuna, hau da, berarena gurekiko eta gurea berarekiko.

Urteko 15. astea.

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama).
Larreko Andra Maria, Karmengo Ama.

[Karmengo Amaren Meza: Zakarias 2,14-17: Poztu zaitetz, Siongo alaba, banatorkizu-eta! Salmoa: Lukas 1,46-55: Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena. Mateo 12,46-50: Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesusek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».]

[Irteera liburutik 11,10–12,14: Ilunabarrean abere xehe bat hilko duze; odola ikustean, aurrera igaroko naiz. Sal 116 [115]: Salbamen-edontzia dut hartuko eta Jaunaren izenari dei egingo.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 1-8.

Aldi hartan, larunbatean gari-soroetan barrena zihoan Jesus. Ikasleak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren.

Hori ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak».

Hark erantzun: «Ez al duzue irakurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak gertatu ziren batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, legez ez berak ez beraren lagunek, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaizketenak?»

Edota ez al duzue irakurri Moisesen legean apaizek larunbatero hausten dutela tenpluan atsedean-legea, horregatik errudun izan gabe? Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Ulertu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

Besteen larruan jartzea beti izaten da ariketa on. Geure iritziak, besteei buruz, erlatibizatzen laguntzen digu eta besteekiko enpatia sentitzen. Jesusen ikasleak gose ziren eta galburuak biltzen hasi ziren, jateko; larunbata zen. Eta fariseuak, gose al ziren? Segur aski, ez; eta

Urteko 15. astea.

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama).

Larreako Andra Maria, Karmengo Ama.

horregatik jo zuten, aise asko, kritikatzera. Segur aski... Auskalo! Nolanahi den, beren idi bat edo mando bat edatera eraman behar izaten zutenean, larunbatean egitea ez zuten oztopo izaten, egin beharreko zat jotzen zuten. Ikasleen larruan jarri izan balira eta kontuan hartu izan balute berauen gosea... ikasi izango zuten ikasgairik funtsezkoena: «errukia nahi dut... eta ez opariak!»

Karmel Mendiko Andre Maria Birjina

Karmel mendia beti izan da sakratua. «Jainkoaren lorategia» esan nahi du «karmel» hitzak. K.a. IX. mendean israeldarrek eta beren Jaunak elkar aurkitzeko toki egin zuen Elias profetak (1 Erg 18,39). Gurutzaden garaian, eremutar kristauak mendi hartako leize-zuloetan bizi izan ziren otoitzean. XIII. mendearen hasieran, 1209an, Jerusalemgo patriarka Albertok araudia eman zien, ordena berria sortuz: karmeldarrena. Mendi horretatik hurbil dago Nazaret herria. Erlijioso haiek Mariaren babespean jarri zuten beren ordena: Karmel mendiko Andre Mariaren babespean. Gaur bezalako egun honetan, uztailaren 16an, eman omen zion Andre Mariak San Simon Stock-i 1251n eskapularioa. 1726an zabaldu zen gaurko oroipen hau Eliza osora.

Gogoan hartu behar da Jainkoaren hitza entzuten eta hausnartzen dakien emakumea dela Maria. San Agustinek esaten digunez, sabelean baino lehen kontzebitu zuela Mariak bihotzean Jesus. (EEE Deustutik)

Urteko 15. astea.

Santa Segunda, *martiria*.San Leon IV.a, *103. aita santua*.

[*Irteera liburutik 12, 37-42. Jaunak israeldarrak Egiptotik atera zitueneko gaua. Sal 136 [135]: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 14-21.

Aldi hartan, fariseuek, sinagogatik atera zirenean, elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Jakin zuen hori Jesusek eta alde egin zuen handik. Jende askok jarraitu zion, eta Jesusek denak sendatu zituen, eta agindu zien ez zeza-tela ezagutzera eman. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen:

«Hona hemen nire zerbitzaria, Nik aukeratua, nire maitea, atsegin dudana.

Honengan ipiniko dut neure espiritua; zuzenbidea iragarriko die herriei. Ez du haserterik sortuko, ez oihurik egingo, ez da kaleetan haren mintzoa entzungo.

Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi pitztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko, zuzenbidea nagusiarazi arte.

Hura izango dute itxaropen nazioek».

Gurutzearen itzala oso garaiz sumatzen da Jesusen bizi-tzan. Haurtzaroko kontatera berek egiten dute beraren testigantza. Mateoren ebanjelioaren erdian, Jesus nola garbituko elkartu dira fariseuak, larunbat-legeaz harekin eztabaida gogor bat izan ondoren, zeinetan Jesus ikasleen alde jardun baita goseak amorratzen direla egin dutenaz. Jesusen erantzuna gurutzekoa bera izango da: onartu, konfiantza tematia, isiltasuna, bere arrazoiak ezarri gabe besteenen gainetik... Zuzenbidea ezarri, maitasuna, nazioen artean. Bera, Jainkoa, baita gure esperantza. Horrela gauzatzen dira Israel herrian errotuenik ziren orakuluak eta esperantzak... Eta gureak.

Urteko 16. astea.
San Federiko, *gotzaina*.

§ Jeremias Profetaren liburutik 23, 1-6.

Hau dio Jaunak: «Zoritzarrekoak nire larreko artaldea sakabanatzen eta galtzen uzten duten artzainak».

Beraz, honela mintzo zaie Jauna, Israelen Jainkoa, herria gidatzen duten artzainei: «Zuek sakabanatu eta jaurti dituzue nire ardiak eta ez zarete haietaz arduratu. Ba, kontuak eskatuko dizkizuet zeuen jokabide txarragatik –dio Jaunak–.

Nik bilduko ditut bizirik geldituriko neure ardiak, sakabanatu nituen lurralde guztietatik; beren larreetara ekarriko ditut berriro, eta hazi eta ugaritu egingo dira. Ongi zainduko dituzten artzainak sortuko dizkiet; ez dira inoiz beldurtuko, ez izutuko, eta ez da bat ere galduko –dio Jaunak–.

Hau dio Jaunak:

«Badatoz egunak,

eta egun horietan legezko muskila sortuko diot Davidi.

Errege zentzudun bezala gobernatuko du

eta zuzenbidea eta justizia ezarriko du lurrean.

Haren egunetan Juda salbatuko da eta Israel seguru biziko. Eta izen hau emango diote: “Jauna gure justizia”».

[Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Paulok Efesoarrei 2, 13-18.

Senideok: Orain, Kristo Jesusengan zaudete. Garai batean urruti zinetenok, hurbildu egin zarete Kristoren heriotzari esker.

Izan ere, Kristo da gure bakea. Bat egin ditu berak bi herriak, bereizten zituen hesia, etsaigoa, deseginez. Bere gorputzean balio-gabetu du legea bere agindu eta arauekin, eta bi herriekin beregan gizadi berri bakarra sortu du, bakeak eginez. Bi herriak Jainkoarekin adiskidetu ditu eta gurutzeko heriotzaren bidez gorputz bakar batean elkartu, haien arteko etsaigoa beregan suntsituz.

Urteko 16. astea.

San Federiko, gotzaina.

Bere etorreraz bakearen Berri Ona ekarri zuen: bakea zuei, urrutit zinetoeni, eta bakea hurbil zirenei; izan ere, bai batzuk eta bai besteok beraren bidez hurbil gaitzeko Aitagana, Espiritu berarengan elkarturik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atseden pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik.

Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurrea hartuz.

Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

«**A**rtzainik gabeko ardiak bezala zebiltzan». Egokiagoa izango litzateke esatea: ardiak artzain bila bezala zebiltzan. Eta Jesusek, jendetza hura ikustean, «pena sentitu zuen haietaz». Izan al zitekeen besterik? Gerta ahal dakiguke penarik ez sentitzea ardi bat gehienik behar duenaren bila ikustean: beraz arduratuko den, bera gidatuko duen artzain baten bila ikustean? Dударik gabe, ez zen hori Jesusen jarrera. Ezin jokatu du beste era batean Jesusen inongo ikaslek. Izatez, «artzain-bokazio» oro gupida honetatik sortu ohi da. Horregatik, misioa «txartela erregistratzea» eta zerbait gehiago egitea eskatzen duen lana baino gehiago da. Misioak lana eskatzen du, baina zerbait gehiago da. Misioa begiratu gupidatsu horretatik sortzen da, eta norberaren izate guztia zeharkatzen duen horretatik. Eta eragiten digu, ez soilik «patxadan irakastera», edukiak eskualdatzera, baizik eta, batez ere,

Urteko 16. astea.
San Federiko, *gotzaina*.

bizia ematera. «Bizia izan dezaten etorri naiz, eta ugari izan dezaten». Gaur, hainbat ardi, ezagun ala ez, hurbileko ala urruneko, artzainik gabeko eta artzain bila dabilena, gogoratzean (hau da, bata eta bestea bihotzean hausnartzean), eska diezaiogun Jesusi bihur dezala gure bihotza gero eta beraren antzekoago.

Jesus atsedeen bila ikasleentzat

Jesus bera da atsedeen apostoluentzat eta jendearentzat. Apostoluak itzuli dira misiotik. Nekaturik eta kezka apur batekin, egin duten lanaz. Jesusek, gizatasun handiz, atsedeen hartzera gonbidatu ditu bakardadean; ebanjelioak ez du zehaztu tokia. Badirudi, tokia bera baino gehiago, Jesusen ondoan atsedetea adierazi nahi dela, Jesusen ondoan indarberritzeko. Baina kasu honetan ezinezkoa gertatu zaio Jesusi bere asmoa betetzea; jendetza handiak inguratu ditu, eta artzainik gabeko artaldea bezala ikusi du Jesusek. Jende horri atsedena ematea izango du, beraz, bere lehenengo lana: horiek ere Jesusekin egon nahi dute, bizitzako orientazio bila dabilta, norabide bila. Eta Jesusek luze hitz egin zien. Judu-gidariak eman ez dietena emateaz gain, Jainkoak bere herriarekiko duen errukia eta maitasuna agertu die Jesusek. (EEE Deustutik)

Urteko 16. astea.

Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

[Irteera liburutik 14,5-18: Jakingo dute Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren bizkar. **Salmoa: Ir 15,1b-2.3-4.5-6 (R/.1b):** Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 38-42.

Aldi hartan, lege-maisu eta fariseu batzuek esan zioten Jesusi: «Maisu, Zuk egindako seinale bat ikusi nahi genuke».

Jesusek erantzun zien: «Seinale eske ari da gizaldi gaito eta desleial hau; baina ez zaio seinalerik emango, Jonas profetarena besterik. Zeren, Jonasek arrainaren sabelean hiru egun eta hiru gau egin zuen bezala, hala egingo baitu Gizonaren Semeak ere hiru egun eta hiru gau lurraren barruan.

Auzi-egunean ninibetarrek gizaldi honen aurka altxatu eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta baduzue hemen Jonas baino gehiago den norbait.

Auzi-egunean gizaldi honen aurka jaikiko da hegoaldeko erregina eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta baduzue hemen Salomon baino gehiago den norbait».

Lege-maisuek eta fariseuek zeinu «miresgarri» bat eskatu diote Jesusi. Zeinu hori ikustera mugatuko litzateke guztia. Ez litzateke egongo «sutan dagoen argizaria» beste ezer, beraz... Jesusek, aldiz, beste zeinu bat eskaini du, Jonasena, lurraren sabelean ezkutatua. Miresgarritasun bila ibili ohi gara, eta Jesusek ezkutuan dagoenaren bila ibiltzeko eskatu digu. Han ernetzen eta hazten dira bizitzari zentzua eta edertasuna ematen dioten errealtateak. Izan ere, errealtate haietan ikusten eta miresten den agerikoa baino zerbait «gehiago» dago. «Zuen bizia Kristogan dago gordea» (Kolosarrei) eta gurea «Jainko ezkutuko» bat da (Isaias). Beraz, agerikoa baino harago joanik egiten dugu topo Jainkoarekin, pobregan eta txikiengan gorderik.

Urteko 16. astea.

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*.

San Elias, *profeta*.

[Ir 14, 21–15, 1a: Itsasoan zabaldutako lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe. **Salmoa:** Ir 15, 8. 9. 10 eta 12. 17 (R/. 1b): Kanta degiogun Jaunari garai-garai delako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,46-50.

Aldi hartan, Jesus jendeari hitz egiten ari zela, haren ama eta anai-arrebak azaldu ziren kanpoan, berarekin hitz egin nahian. Batek esan zion: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zurekin hitz egin nahian».

Jesusek, berriz, erantzun zion: «Nor da nire ama eta nor nire anai-arreba?» Eta, bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Izan ere, zeruko nire Aitaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia eta arreba eta ama».

Maria hain perfektu ikusi izan dugu «Hitzaren entzule» gisa, non harrigarri gerta baitakiguke ebanjelio honek dioena, alegia, Jesusi entzuten ari zirenen taldetik «at» zegoela: kanpoan zegoela, alegia. Halere, «perfekzioaz» zer ulertzen dugun da gakoa. Izan ere, agian, perfekzioak, zentzu ebanjelikoan, ez du zerikusirik bere baitan bukatu, egonkor, buruaskidun denarekin. Eta, horregatik, perfekzio ideiak ez du baztertzen ibilbidearen, bide egitearen, aurrera egitearen ideia. Mariak ere egin beharra izan zuen fedearen bidea, fedean aurrera eginez eta haziz. Ala bere semea baino handiago izango ote zen?: semeaz esaten baitzaigu: «haziz zihoan grazian Jainkoaren eta gizakien aurrean...».

Urteko 16. astea.

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*

[Irteera liburutik 16, 1-5. 9-15: Euria bezala jaitsaraziko dizuet zerutik janaria. **Sal 78 [77]:** Zeruko ogia eman zien Jaunak janari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 1-9.

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen. Gauza asko esan zien, parabola bidez hitz eginez:

«Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait ale harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, lur axala izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuen hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarririk duenak entzun beza».

Parabolen bidez hitz egiten zien. Zeruetako Erreinua ez baita hodeietan hegalaria dabilen zerbait, baizik eta errealitate hurbilekoa, ukigarria, egunean egunekoa. Berorretan ikusten zituen Jesusek, bere begiratu kontenplaziozkoaz, Jainkoagana eta beronen Erreinura gidatzen zuten errealitateak. Horretarako, ordea, «aditzen duten belarriak eta ikusten duten begiak» behar dira. Zeren eta zeruetako Erreinua ugaritasun da eta ez kalkulu ziztrin eta egoista: neurririk gabe ematen zaigu eta guztioi, zekenkeriarik gabe. Guri dagokiguna eskatzea da, fruitu emango duen lur on izan gaitezen; ez da arrakasta kontua, baizik eta gainerakoak elikatuko dituen fruitua, eta hartua duguna partekatzeko gai izan gaitezen. Zeren eta doan hartua doan behar da eman.

Urteko 16. astea.

Santa Maria Magdalena.

[Kantarik Ederrena liburutik 3,1-4: Aurkitu nuen neure bihotzeko kuttuna. Sal 63 [62]: Zure egarritz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-2.11-18.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harrira hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan, negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten».

Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabilta?» Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut».

Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”».

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jau-na ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

«Gogo eman dezagun nola ezkututzen den Jainkoa». Debozioz adoratzeko zaitut, ezkutuka ibiltzen zaren Jainkoa (Akinoko Tomas). Hain handia da sufrimendua non ez baikara gai izaten hainbat

Urteko 16. astea.

Santa Maria Magdalena.

eratan hitz egiten digun Jaun berpiztuari antzemateko ere. Edota ez denarekin nahasten dugu (Magdalenak bezala, baratzezainarekin nahastu baitzuen). Jesusek bere izena esan dionean (ez «emakume» izen generikoa erabiliz, baizik «Maria»). Orduan antzeman dio Mariak. Jainkoak gure egiarik egiazkoenera gidatzen gaitu. Eta honek esan nahi du, gure anai-arrebengana ere gidatzen gaituela, esateko: «Jauna ikusi dut», imajina edo pentsa genezakeen baino handiagoa den Jainkoa. Baina bidera irteten zaiguna eta giza hilobiek ezin eduki dutena.

Maria Magdalena Jesus berpiztuaren lekuko

Maria Magdalena bila eta bila. Ezkutatu den Jesusen gorputzaren bila dabil Maria. Fedez bakarrik suma daiteke Jesus piztu dela. Eta Jesusek «Maria» esan dionean ezagutu du Mariak Maisua. Jesus berpiztuak «Uztazu» esatean, hau adierazi nahi da: hemendik aurrera, berpiztu denetik, Mariaren eta Maisuaren arteko harremanak ezin izan direla berpiztu aurrekoak bezalakoak: aurrerrantzean ezin ukitu da Jesus fisikoki, berpiztuak ez du espaziorik, ez denborarik; beste izaera bat du. Beste era batekoak izango dira harremanak: ni zuengan, zuek nigan. Mandatua eman dio Jesusek: adieraz diezaiela senideei Aitagana doala. Apostoluen apostolu bihurtu da Maria: Jesusen piztueraren berri-emaile. Gauza baten bila zebilen Maria, Jesusen gorputzaren bila; beste zerbait aurkitu du: Jesus bera, baina Jesus berpiztua. Fedezko aurkikuntza, fedearen mailakoa. Bila dabilenak ez du huts egiten; goiz edo berandu aurkituko du. Agian, bilatzen zuen hura transzenditzen duena, bilatzen zuenaren gainetik dagoena. Hobeto esan, aurkitua du jadanik, bila dabilen momentutik.

Urteko 16. astea.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea*
(*Salbatzaile Santu-santuaren Ordena*) (*Europako Zaindaria*).*

§ San Paulok Galaziarrei 2,19-20.

Senideok: Ni legeak eraman ninduen legearekiko lokarria etetera, Jainkoarentzat bizitzeko. Kristorekin gurutziltzaturik nago, eta honezkero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da nigan. Eta bere bizia nire alde emateraino maitatu ninduen Jainkoaren Semeaganako sinesmenean oinarriturik bizi dut oraingo neure giza bizitza.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Ez dira gauza bera arrakasta izatea eta fruitu ematea. Arrakasta izatea zerbait ikusgarri da, zerbait distiratsu (soilik, artifiziala den

* Margarita Maria Lopez de Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934).

Urteko 16. astea.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea*
(*Salbatzaile Santu-santuaren Ordena*) (Europako Zaindaria).*

distiraz), baita zerbait iheskor eta behin behineko ere (gaur bada eta gerta daiteke bihar ez izatea). Balizko arrakasta lortu duenaren «ego»a ferekatzeko bakarrik balio du. Fruitu ematea gauza askoz mantsoagoa da: ibilbide bat eskatzen du, prozesu bat, ez da izaten erdigune norbera, baizik eta besteak izaten dira erdigune, fruitua janari eta elikagaitzat eman nahi zaienak. Hiltzea eskatzen du (bestela, galde egin diezaiotela gari-aleari, lurrera erori eta hiltzen ez bada, ez baitu fruiturik ematen, baina hiltzen bada, fruitu asko ematen baitu). Gu, fruitua ugari ematera deituak gara. Beragan irauenez, aihena bezala, mahatsondoan irauten baitugu.

Santa Brigita Suedian jaio zen 1303an. Aita Suediako printzea zuen, eta ama errege godoen jatorrikoa. Hamalau urte zituelarik, Ulf Gudmarsson noblearekin ezkondu zuten eta zortzi seme-alaben ama izen zen –horietako bat, Karin, santa Katalina izango zena–. Senarraren laguntzaz erietxea eraiki zuen, eta Brigita bera joan ohi zen gaixoak zaintzera. Konpostelako Santiagora peleginazioan joan ondoren, senarra Alvastrako zistertar monasteriora erretiratu zen –semea baitzuten han monje– eta bertan hil, 1344an. Eginahalak egin zituen Europako erregeen artean bakeak egiteko eta Klemente IV.a aita santua Avignondik Erromara itzultzeko. 1350ean Erromara joan zen peleginazioan, Urte Santua zelako. Han gelditu zen, Suediako Magnus Eriksson II.a erregearen laguntzaz sortu nahi zuen ordenaren –Salbatorearen Ordenaren– araudia aita santuak onartu zain. 1370ean onartu zuen Urbano V.ak, baina monasterio berririk eraikitzeko baimena ez zuten eman 1378a arte; haren alaba santa Katalina izango zen mojaburu. Ordurako, 1373-07-23an, hila zen Santa Brigita. «Amor meus crucifixus est» (gurutziltzatua da nire maitea) izan zuen bere goiburua.

* Margarita Maria Lopez de Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934).

Urteko 16. astea.

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*), Nizeforo Jesusena eta Mariarena, Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936*)*

[*Irteera liburutik 24, 3-8: Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezaugarria da odol hau. Sal 50 [49]: Eskaini esker onezko oparia Jainkoari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 24-30.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean iraka erein eta alde egin zuen.

Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen iraka ere. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?” Nagusiak erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek, orduan: “Joango al gara iraka biltzera?” Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, iraka biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehendabizi iraka, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora”».

Garia eta iraka, ez dira bi gauza aski argiro desberdin, nahi genukeen bezain argiro. Elkarrekin hazten dira eta azkenean bakarrik bereizten ahal dira. Ordua baino lehen bereizi nahi badira, arriskua izaten da, iraka atera nahi izatean garia ere atera izateko, gaitza galdu nahi izatean, ongia ere galtzeko. Gauza erraza izaten da bitzta jende onaren eta txarraren pelikula bihurtzeko tentazioa, «westerns-etan» moduan; baina gauza simpleegia izango litzateke hori, eta gauza bat da xumetasuna eta beste bat, oso bestelakoa, xumekeria. Eta, gainera, garia eta iraka bi errealitate dira, kanpoan ez, baizik gure baitan daudenak. Beraz, graziaren eraginpean bitztea dagokigu, bera izan dadin bateratu eta osotasunera eramango gaituena.

* eta beste 23 lagun, *dohatsuak, Daimiel-eko pasiotarrak, martiriak (1936)*. Santa Kristina, *martiria*. San Arnulfo, *martiria*.

Urteko 17. astea.
SANTIAGO, APOSTOLUA.
San Kristobal, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,33; 5,12.27-33;12,2.

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz.

Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue».

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekaturen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua».

Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

[Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiak.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 4,7-15.

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gulgandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere gugan ager dadin.

Urteko 17. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUA.

San Kristobal, *martiria*.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, guggan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espiritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrieta-ko agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzaturia izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Urteko 17. astea.
SANTIAGO, APOSTOLUA.
San Kristobal, *martiria*.

Jesusen bi ikasle lehenetasun bila ibiltzea, zeharka bederen jarrera gogaikarria gertatu zitzaizen beste hamar ikasleei, bien eskariaren berri jakitean. Gatazka begi-bistakoa zen, eta gatazka lehertu zen. Gatazkek, lehen ikusian gauzarik desatseginenak iruditu arren, badute beren alde on bat ere. Ekaitzak argitu eta garbitu egin ohi du eguratsa, oso astun eginik dagoenean. Eta barneko ekaitzak ere geure burua argitzen laguntzen digu, behin iragana denean. Gauzak zehazten laguntzen du. «Buzuzagiak tirano eta zapaltzaile izaten dira... Ez dadila horrelakorik gerta zuen artean... Handiena izan dadila zerbitzari... Gizonaren Semea bezala, zerbitzatzera etorri baita eta bere bizia ematera». Jaso ote zuten irakaspena ikasleek? Gaur esker onez ospatzen dugu hura: bai, jaso zuten. Egiaz izan ziren gai «kaliza edateko», haren bila ibili ez baziren ere, baizik eta edatera eman baitzieten. Eta horrela bihurtu ziren «Elizaren zutabe»; ez, noski, giza gaindiko indarrik zutelako, zeren eta gure indarra ahuldadean baitatza eta altxor hau buztinezko ontzian baitaramagu, baizik eta Maisuari izan zioten leialtasunagatik eta txeragatik; izan ere, hark liluratu egin zituen, Galileako aintziraren ondoan zebiltzala, berari jarraitzera gonbidatu zituenean.

Urteko 17. astea.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

[**Irteera liburutik 32,15-24. 30-34:** Bekatu larria egin du herri honek, urrezko jainkoa eginez. **Sal 106 [105]:** Eskerrak Jaunari, ona baita.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,31-35.**

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza».

Beste parabola hau ere esan zion: «Zeruetako erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta ore guztia harrotzen da».

Irakaspen hau guztia parabola bidez eman zion Jesusek jendeari, eta ez zion ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana:

«Parabola bidez mintzatuko naiz,
munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko dut».

Bibliaren pentsaera konbentzimendu honetatik abiatu da: gauzarik txikienak eta azkenak direnetatik datorrela salbazioa guztientzat. Mostaza hazia hazi guztietan txikiena da. Baina zuhaixkarik handiena bihurtzen da, halako moduan non txoriak beraren adarretan egiten baitu habia... Legamia-apur batek ore guztia hazarazten du... Txikien jakinduria geure egitea dugu Jainkoaren jarduera ulertzeko era, geure jarduera harenaren harira egiteko era.. Jesusen sentimenduak geure bihurtuz, otoitz egigun esanez: «Eskerrak zuri, Aita, gauza hauek txikiei eta xumeei agertu dizkiezulako, eta jakintsuei eta adituei ezkutatu».

[*Irteera liburutik 33,7-11; 34,5b-9. 28: Jaunak aurrez aurre hitz egiten zuen Moisesekin. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 36-43.

Aldi hartan, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko irakaren parabola».

Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; iraka, berriz, gaiztoarenak; iraka erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak.

Iraka bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango da negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira beren Aitaren erreinuan. Belarririk duenak entzun beza».

Etxera iristean, ikasleek eskatu diote Jesusi argitu diezaiela gariaren eta irakaren parabola. Baina, modu bitxian, honela eskatu diote: «argitu iezaguzu soroko irakaren parabola». Jakina, gaitzaren errealitatearekin, irakarekin, izaten ditugu geure arazoak. Gaitza izaten dugu geure arazo. Jesusek ohartarazi die, gizonaren Semeak bakarrik duela azken hitza historiaren ezaugarria den anbiguotasuna argitzeko. Eta oso argiro argituko du: «jende zuzenak eguzkiak bezala egingo du distira beraren Aitaren erreinuan». Guk, anbiguo izanik eta anbiguotasunean murgilduak, ezin dugu. Ez dugu saiatu behar ere, era anbiguoan egingo baikenuke. Beraz, beraren jakinduriaren, beraren zuzentasunaren eskuetan gaude, baita beraren errukiaren baitan ere.

Urteko 17. astea. Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), dohatsuak, eta lagunak, *erlijiosoak eta martiriak (1936)*, *

[*Irteera liburutik 34,29-35*: Moisesek aurpegia distiratsu zuela ikuririk, beldur ziren harengana hurbiltzeko. **Sal 99 [98]**: Santua zara Jauna, gure Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,44-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin, harri bitxi bila dabilen merkatariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du».

Jesusek esan digu: zeruetako Erreina ezkutuko altxor bat bezalako da edota harribitxi bat bezalako... Halaz guztiz, errealitate biek in topo egiten duen Jesusen jarraitzailea ez da jabetzen beraiez, besterik gabe. Alde batetik, altxorra berriro gorde du eta, hartaz jabetu ahal izateko, altxorra dagoen alor guztia erosi du. Bestetik, harribitxiak jabetu ahal izateko, eskura duen guztia saltzeko arriskua onartu du... une batean, ezer gabe geldituz. Horrela, Erreina espero gabeko dohaina da, guk aurkitu eta onartzen duguna berekin dituen arrisku guztiakin. Zeren eta, berarekin alderatuz, den-denak ematen baitu ezer gutxi dela, eta izan ere hala da.

* *San Joan Jainkoaren ordenakoak. San Pedro Poveda, apaiza, fundatzailea (Teresatar Instituzioa) eta martiria (1936).*

Urteko 17. astea.

Santa Marta, *Lazaroren arreba eta Mariaren ahizpa.*

[*Irteera liburutik 40,16-21.34-38*: Lainoak estali zuen elkarketa-etxola eta Jaunaren aintzak bete zuen egoitza. *Sal 84 [83]*: Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,19-27.*

Aldi hartan, judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, nebarengatik doluminak ematera. Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen.

Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko diozun guztia emango dizula Jainkoak».

Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure neba». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan».

Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?» Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarela, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

Marta eta Maria bi ahizpa dira, ez bakarrik Jesusen arazoari atxikiak (Jesusek predikatzen duenari), batez ere Jesusi berari lotu-lotuak. Horren proba argia da Martak, bere nebaren heriotza dela eta, Jesusekin izandako elkarrizketa. Jesusek Martari galdetu dionean, ea sinesten duen berak heriotzaz eta piztueraz esandakoa, erantzun dio Martak: «nik, orenen gaisetarik, zukan sinesten dut». Edota: «nik, zukan ipini dut neure konfiantza osoa». Honetan datza fedea eta honetara garamatza: Jesusekiko gure harremanak gero eta barnekoia izatera. Jesus da guztia. Ondorioz: nahi duzuna... nahi duzun bezala... nahi duzunean, Jauna...

Urteko 17. astea.

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
 Braulio Corres *dohatsua eta lagunak, martiriak*. *

[Lebitarrena liburutik 23,1.4-11.15-16.27.34b-37: Jaunaren jaietan baztar santuak egingo dituzue. Sal 81 [80]: Egin pozez oihu lagun-tzaile dugun Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari zitzaien sinagogan. Jendeak, harriturik, zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, artozaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arrebak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi haren gan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

Eta, haien sinesgogorkeriagatik, ez zuen han mirari askorik egin.

Jesus bera eta beraren predikua eskandalu-harri izan ziren beraren auzoko eta herritarrentzat. Hain ezagunak zituzten, bai bera eta bai beraren familia osoa, non nahasgarri gertatu baitzitzairen edota, hobeto esateko, eskandalagarri. Jesus «eskandalu-harri» gertatu zitzairen, erorarazten duen harri, ezin zutitu izateraino. Ai, zutitu balira gutxienez, erori ondoren...! «Eskandalizatzea» ez da «nahasirik gelditzearen» pareko. «Nahaste-dosi» on bat osasungarri gerta dakiguke Jesusekiko geure harremanetan. On da eta gomendagarri birplantatzea topikoak edo errotinaz egin-egindako pentsaerak, ez baitute zerikusirik izaten, edo oso gutxi, Jesusekin. On da, azken batean, Jainkoari Jainko izaten uztea... Jainkoa hain urruna... eta, aldi berean, hain hurbila gugandik.

* Primo Martínez de San Bizente (*Arabako Kanpezun jaioa 1869*) eta beste 68 lagun, *Ospitaletako Ordena (Jainkoaren San Joanen Anaiak)*, *dohatsuak, martiriak 1936*.

[Lebitarrena liburutik 25,1.8-17: Jubileu-urtean, zuetako bakoitzak bere lurren jabetza berreskuratuko du. **Sal 67 [66]:** Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 1-12.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariak: «Joan Bataiatzailea da! Hilda-koen artean piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartu zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joaneke hau esan ohi zion Herodesi: «Ez duzu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, profetatzat baitzuten denek.

Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatutako guztia emango ziola agindu zion neskatxari, zin eginez. Neskatxak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatxari eman zioten, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

Profeta baten burua, eta bizia, azpil batean aurkezteak, lazgarri izateaz gain, garbi agertzen du zertaraino iritsi daitekeen giza bizitzaren mespretxua. Baina, profeta isilarazteko eginahal guztiak gorabehera, haren ahotsak ozen jarraitzen du jotzen bihotzaren txokorik gordeenean. Haren oroitzapenak tiranoari segika jarraitzen

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria*).

du («Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori»): hura garbitu nahi izan bazuen ere, ezin isilarazi haren mezu-ondarea. Joan Bataiatzailearen martiritzaren kontraera Jesusi gertatuko zaionaren aurre-iragarpena da, baina inola ere ez azken hitza. Azken hitza Jainkoak du. Eta hitz egiatia da, zuzentasuna gauzatu eta errukia eskaintzen duena. Entzungo ahal dugu! «Gaur haren ahotsa entzuten baduzue, ez gogortu bihotza...!»

Loiolako San Ignazio: Meza berezia

§ Jeremias profetaren liburutik 20,7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menderatu.

Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo».

Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!!

[Sal 1: Bai dohatsu gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen duena!]

§ Paulo santuak 1 Korintoarrei 10,31–11,1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria*).

gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen.

Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak ibili ohi ziren Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien:

«Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nor, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zuretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hogeit milaekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Montserrateko monje batek, urte batzuk lehenago monasteriora iritsi zen erromes hartaz galdetu ziotenean, esan zuen: «erromes hura zoraturik zegoen Jesu Kristoz». Ezin eman zuen definizio hoberik Loiolako Ignazioz. Zoraturik Jesusez. Liluraturik Jesusez. Eustezineko su hutsaren lilura. Beragatik utzi zuen den-dena, beraren gurutzea lepoan hartuz. Berari bakarrik jarraitu nahi zion. Zoramen hori aspalditik zetorkion: Loiolako sendabidetik. Eta indartu egin zuen

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria*).

Manresan Jainkoaren bide bila nekatu gabe egindako aldi haietan, zinetan etengabe eskatzen baitzuen: «Jesus barnetik ezagutzea bera gehiago maitatzeko eta berari jarraitzeko». Zoramena. Bere lagunei ere kutsatu ziena, «Jesusen bidelagun» bihurtuz. Ignazioren erreguak kutsatuko ahal digu geuri ere zoramen hau!

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/- Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1.-Iruñean zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.

2.-Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendirra igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.



Sainkoagana
bide 
eginez
Gogo
Jardunen
 bidez

ABUZZUA / DAGONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Ebanjelizazioa — Eliza

Egin dezagun otoiiz: Elizarentzat, har dezan Espiritu Santuagandik grazia eta indarra bere burua eraberritzeko Ebanjelioaren argian.

Urteko 18. astea.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak).*

§ Irteera liburutik 16,2-4.12-15.

Egun haietan, basamortuan, israeldarren elkarte osoa marmarrean hasi zen Moisesen eta Aaronen aurka, esanez: «Hobe genuen Jaunak Egipton hilarazi izan bagintu, haragi-eltze aurrean eseri eta ogia asetzeraino jaten genuenean! Zuek, ordea, goseak hiltzeko ekarri duzue gure elkarte osoa basamortu honetara!»

Orduan, Jaunak esan zion Moisesi: «Euria bezala jaitsaraziko dizuet zerutik janaria. Herria egunean egunekoa biltzera aterako da. Proba egin nahi dut, ea nire legearen arabera dabilen ala ez.

Entzun ditut israeldarren marmarrak. Esaiezu: “Arratsaldean haragia jango duzue, eta bihar goizean ogiz aseko zarete, eta jakingo duzue Ni naizela Jauna, zuen Jainkoa”».

Arratsaldean, galeperrak etorri ziren eta kanpaleku osoa estali zuten, eta biharamun-goizean ihintz-geruza azaldu zen kanpaleku-inguruan. Ihintza desagertu zenean, antzigarraren itxurako zerbait, xehea eta garautsua, azaldu zen lurlean. Hura ikustean, elkarri galdezka hasi ziren israeldarrak: «Zer da hau?» Ez baitzekiten zer zen.

Moisesek esan zien: «Jaunak janaritzat ematen dizuen ogia da hau». Jaunak esana.

[Sal 78 [77]: Zeruko ogia eman zien Jaunak.]

§ San Paulok Efesoarrei 4,17.20-24.

Senideok: Hona zer esaten eta zinez eskatzen dizuedan Jaunaren izenean: ez zaitezela jadanik bizi sinesgabeak bizi diren bezala, burua hutsalkeriatan baitute.

Ez da hori Kristo ezagutzean zuek ikasi duzuen, baldin eta egia bada hartaz hitz egiten entzun duzuela. Jesusi dagokion egiazko irakaspenaren arabera, honako hau ikasi duzue: batetik, zuen lehengo

Urteko 18. astea.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak)*.

bizierari uko egin eta giza izaera zaharra, grina engainagarrien eraginez hondatua, erantzi behar duzuela; bestetik, zeuen gogo-bihotzak berritu eta giza izaera berria, Jainkoaren irudira sortua, jantzi behar duzuela, Jesusen egiaren arabera, biziera zuzena eta santua eramateko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,24-35.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabiltzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitzte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari».

Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

Galdetu zioten, orduan: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk ikusi eta zuek sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”».

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita».

Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Urteko 18. astea.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak).*

«**N**ire bila ibili zarete, ez zeinuak ikusi dituzuelako, baizik eta ogia ase arte jan duzuelako». Honetan laburbiltzen ahal genuke geure kristau-bizitza: Jesusen bila ibiltzean. «Zeren bila zabiltzate?» Edota: «noren bila zabiltzate?»; Joanen ebanjelioan hainbat aldiz ageri diren galderak dira. On da geure buruari argi-apur bat eskaintzea gai honetan eta galdera zorrotz honi erantzuten ahalegintzea. Nahiz eta, zorrotzena izanik ere galdera, on den era berean erantzun arinegi bat ez ematea, edo eskuliburu bateko erantzuna, esango genuke. Zeren eta oso sarritan ez dugu jakiten zeren edo noren bila gabiltzan, geure burua ere erabat ezagutzen ez dugunez. Eta horrelakoetan ordezkarriekin konformatzen gara; horrelakoek eten dezakete, bai, gure bila ibiltze hori, baina ase gabe uzten gaituztelarik. Otoitzean bakarrik aurki genezake argirik geure bizi bila ibiltze horretaz. Akinoko Tomasek esaten zuen otoitza dugula interpretea Jainkoaren aurreko geure desiran. Otoitza dugu laguntza, ez galtzeko giza desira dagoen egundoko espazio horietan harat honat gabiltzanean. Eta laguntza dugu bilatzen duguna, gauza bat izan edo pertsona izan, aurkitzeko; edozein ogirekin gelditu gabe, promes egiten diguna auskalo zer, baina Jesus ek ematen digun egiazko bizi-ogia gabe, hau da, Jesus bera gabe.

Urteko 18. astea.

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*.
San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea*.*

[Zenbakiak liburutik 11, 4b-15: Nik bakarrik ezin dut herri hau guztia eraman. Sal 81 [80]: Egin pozez oihu laguntzaile dugun Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 13-21.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakitean, Jesus leku bakarri batera joan zen bera bakarrik txalupaz. Baina ohartu zen jendea eta oinez jarraitu zion herrietatik. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen eta gaixoak sendatu zizkien.

Ilunabarrean, ikasleek hurbildu eta esan zioten: «Leku bakartia da hau eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan». Jesusek esan zien: «Ez dute zertan joan; emaeizue zeuk jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona».

Jendeari belar gainean esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak, eta, begiak zerurantz jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten guztiek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete bildu zuten. Bost mila gizon inguru ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

Joan Bataiatzailea indarkeriaz hil dutela jakinik, on egiten jarraitu du Jesusek. Bere burua jendeari erabat emanez. Axola zaiona jendearen egoera da. Besterik da ikasleen jarrera: zailtasunak bakarrik ikusten dituzte. Jesusek desafio egin die («emaeizue zeuk jaten»). Beren ahalbideen eta mugapenen aurrez aurre jarri ditu honek («bost ogi eta bi arrain bakarrik ditugu»). Zer axola! Garrantzizkoa ez da jendea problemaren handitasunaz konturatzea, ezta antolatzea ere... Horrenbestez, belarretan esertzeko esan die (ikusit zenbat diren). Eta, batez ere, garrantzizkoa Jainkoa kontuan hartzea da («zerura begiratu eta bedeinkatu ditu») eta gainerakoak ere bai (Jesusek ogiak ikasleei eman dizkie eta hauek jendeari).

* (Sakramentu Santuaren Apaizak). San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*.

[Zebakiak liburutik 12, 1-13: Moises ez da gainerako profetak bezalakoak: nolaz ausartu zarete haren kontra gaizki esatera? Sal 51 [50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 22-36.

Jendea ase ondoren, ontzian sarrarazi zituen Jesussek bere ikasleak eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bera bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen.

Goizaldera, Jesus haiengana joan zen, ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaion: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!» Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zu bazara, aginduiezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesussek erantzun: «Zatoz!»

Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen, ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!» Berehala Jesussek eskua eman eta heldu zion, esanez: «Sinesmen txikiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?»

Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara Zu!»

Itsasoa igaro ondoren, Genesareten iritsi ziren lehorra. Bertakoek, Jesus ezagutu zutenean, inguruko lurralde guztian zabaldu zuten berria, eta gaixo guztiak eraman zizkioten. Soineko-ertza

* San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*.

bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Jesusen aurrean, batzuetan, beldurrak desitxuratu egiten digu errealitatea («mamu bat da», diote ikasleek). Eta, beldurra ez denean, harrokeria izaten da geure indarra gainbalioztatzera eragiten diguna, Jesusenganako konfiantzaren sostenguaz arduratu gabe (Pedrok esperientzia ederra izan zuen: urean hondoratzen hasi eta dei egin zion: «salba nazazu, Jauna»). Horra zergatik behar dugun izan uste zehatz bat Jesussez. Edota, hobeto esanda, zergatik behar dugun izan «barne ezagutza Jaunaz, gugatik gizon egin baita, gehiago maita dezagun eta jarrai diezaiogun». Orduan bakarrik sumatuko dugu nola esaten dizkigun hitz adore emaile hauek: «Aupa! Neu nauzue! Ez beldur izan!». Eta, orduan, bera sostengutzat harturik, geure burua eman ahal izango diegu, berarekin batean, sufritzen ari diren guztiei.

Santa Kandida Maria Jesusena

Andoingo alaba

«Ama Kandidaren bizitzak erakusten digu bat ez dela santu jaiotzen, baizik eta egin egiten dela. 67 urtetan zehar itxuratzen joaten da, moldatzen [...]. Horrela bere bizitza bukatzean esan dezake: “40 urte erlijiosa bizitzan eta 40 urte guztiak Jaunarentzat”».

«Juana Josefa Cipitria eta Barriola 1845eko maiatzaren 31n, jaio zen, [...] Berrozpe baserrian. [...]. Guztiok dakigu bizitzako lehen urteek duten garrantzia; Juana Josefak urte horiek guraso xume eta langileekin pasatu zituen. (jarraipena abuztuaren 23an)

* San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*.

Urteko 18. astea.

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*.

[Zenbakiak liburutik 13,1-2.25–14,1.26-29.34-35: Ikertutako lurraldeaz gaizki esaka hasi ziren israeldarren aurrean. Sal 106 [105]: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 21-28.

Aldi hartan, Tiroko eta Sidongo lurraldera aldendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun.

Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka baitatorkigu atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduegana bakarrik bidali nau Jainkoak».

Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezadazu, Jauna!» Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak».

Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

Bere burua zalantzan jartzen uzten zuen Maisua zen Jesus! Izatez, emakume hark den-dena zeukan bere kontra, Maisuaren harrera bereganatzeko: emakumea zen... eta, gainera, kanaandarra. Eta, hori gutxi bailitzan, ematen zuen Maisuak bere ideiak oso argi zituela bere misioaz («Israelgo ardi bide galduetara bakarrik bidali nau»)... Beraz, den-dena zuen bere kontra. Baina bazuen zerbait bere alde, oso garrantzizkoa; helburutzat Jesusen bihotza ukitu zezakeen zerbait: bere fedea, bere fede sakona. Zerbait eskatzera eragiten ziona, soilik ogi-apurrak izango baziren ere, besterik ezin bazen. Eta Jesus iritziz aldatu zen: «emakume, bai handia dela zure fedea!» Eta ezina zirudiena, errealitate bilakatu zen.

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea, Erroman.

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria.

*(ikus beheraxeago Elurretakoaren Meza).***[Zenbakiak liburutik 20,1-13: Ur-parrasta atera zen. Sal 95 [94]:**

Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-23.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei:

«Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.

Une hartatik hasi zen Jesus ikasleei azaltzen beharrezko zela bera Jerusalemara igotzea, eta han asko sufritu beharra zuela apaizburuen eta lege-maisuen aldetik; erail egingo zutela eta hiru egunen buruan piztuko zela. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Inola ere ez, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko!»

Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo zara niretzat, zure asmoak ez baitira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea, Erroman.

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria.

Bai gauza erraza ezertara konprometitzen ez zaituzten galderi erantzutea! «Batzuek Joan Bataiatzailea... beste batzuek Elias... beste batzuek profetaren bat...». Eta bai erraza dela, halaber, egin-egindako erantzunez, eskuliburukoez, erantzutea, errezeta-zerrenda bezala hartuz, jakin gabe zer esan nahi duten eta esan nahi dutena noraino iristen! Hor dugu Pedroren kasua: erantzun zuzen bat eman ondoren, Jesusen errieta gogorra merezi izan zuen, bere erako mesianismoaz mintzatu zelako, eta ez Jainkoaren erakoaz. Batzuetan uste izaten dugu, aski «aginpide» dugula Jaunari berari irakasteko ere! Nolanahi den, argi dago, Jesus aitortzeak berekin duela haren jarraitzaileez ere arduratzea, norberaren fedea baietsiz.

ELURRETAKO ANDRE MARIA

[Elurretako Andre Maria. Zakarias 2,1-13: Poztu zaitetz, Siongo alaba, banatorkizu-eta! Apokalipsia 21,1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaindutako andregai bezala. Salmoa: Judit 13: Zugan du gure herriak bere edertasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Ikasleek baztertu egin nahi dute, bere alabaren osasuna oihuka eskatuz, inguruan duten emakume nahastailea. Nekagarri da Maisuarentzat, baina, egia esateko, berek dute hura nekagarriago.

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea, Erroman.

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria.

Azkenean haren alde erregutu diote Jesusi, baina ez gupidaz, baizik eta eragiten ari den iskanbilagatik.

Azkenean, lortu du emakumeak Jesusekin hitz egitea. Gai da ama hori bere burua txakurkume batekin konparatzeko, alabaren osasuna lortzekotan. Otoitz jarraiki eta apal horrek, fedez gainezka, sendatuko duen esperantza eta ama baten maitasun den horrek, harridura eragin dio Jesusi: bete dadila horrenbeste opa duzuna!

Andre Maria Zuria

Andre Mariaren basilika nagusia Sixto III.ak (432-440) sagaratu zuen abuztuaren 5ean. Horrela, 431n Efesoko kontzilioak Andre Mariaz esan zuena oihukatu nahi izan zuten: Jainkoaren Ama dela Andre Maria. Legendak dio, abuztuaren 5-6 bitarteko gauean egindako elurrez markatua zegoela elizaren planoan. Horregatik, Andre Maria Zuria edo Elurretako Ama deritza (Sancta Maria ad Nives). Betleemgo ganbela edo aska han gordea zegoela ere zabaldu zen VII. mendean. Arkitektura bikainekoa da eliza eta hogeita hamasei mosaiko ikusgarri apaintzen dute erdiko nabea.

Beraz, Andre Maria «theotokos» (Jainkoaren Ama) deklaratu nahi izan zuten; Ama Birjinari aitortzen dizkiogun beste dohain guztien oinarria baita hori. Kontzilio hartan, ordea, Jesu Kristo benetako gizon eta benetako Jainko aitortzea zegoen jokoan. Andre Maria Jainkoaren Ama deklaratzeko ondorio bat zen. Mariaren titulu aintzatsu horren ondoan ez dugu ahaztu behar beraren umiltasuna agertzen digun beste hau: «Jaunaren mirabea». (EEE Deustutik, ukiturik).

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*.

§ Daniel Profetaren liburutik 7,9-10.13-14.

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 97 [96]: Errege da Jauna, Goi-goikoa, lur guztiaren gainetik.]

§ San Pedoren 2. gutunetik 1,16-19.

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenez etorriko den egunaz hitz egin genizuenean, ez ginen oinarritu irudipenezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna.

Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, hau esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maitea, honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, berarekin mendi santuan ginela.

Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzean jaiki arte.

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Hartan, Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat».

Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta ahots batek esan zuen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea, hau dut atsegin. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez.

Hurbildu zitzaion Jesus, ukitu eta esan zien: «Jaiki zaitezte; ez beldur izan». Begiak jasorik, Jesus bakarrik ikusi zuten, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, Jesusek agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

Batzuetan, Jesusi egindako segimenean Gurutzearen itzal luzea sumatzen denean, ematen du ikusmena lausotu egin zaigula (ez dugu ikusten batere garbi) eta indarrak ahul bihurtu zaizkigula. Bertan behera utzi nahi izango genuke. Gure inguruan dena da duda-muda eta iluntasun. Halere, tarteka, bat-batean, egin behar dugun gutzia eta espero dezakegun gutzia ezohiko distiraz janzen da, Jesusen inguruan. Normala da une hori atxiki nahi izatea. Hain bidezkoa da desira hori! Eta, halaz guztiz, berriro datorkigu menditik jaitsi beharra, isilpeko preziatu hori nork beretzat gordez. Izatez, denik eta hoberena dugu geure baitan: Jesus. «Jainkoa bakarrik da aski» (Teresa). Ez erreparatu hari beste inori!

Urteko 18. astea.

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*.San Kaetano, *apaiza (teatinoen fundatzailea)*.

[Deuteronomioa liburutik 6, 4-13: Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez. Sal 18 [17]: Maite zaitut, Jauna, nire indar!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 14-20.

Aldi hartan, gizon bat hurbildu zitzaion Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Jauna, erruki zakizkio nire semeari; epilepsia ematen dion deabrua du eta gorriak ikusarazten dizkio. Maiz botatzen du sura eta urera. Ekarri diet zure ikasleei, baina ezin izan dute sendatu».

Jesusek esan zien: «Hau gizaldi sinesgogorra eta makurra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutila hona». Jesusek gogor eraso zion deabruari eta atera egin zen mutilagandik; ordu hartatik sendatua gelditu zen.

Ikasleek, Jesusengana hurbildurik, bakarrean galdetu zioten: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu bota deabrua?» Jesusek erantzun zien: «Zuen sinesmena txikia delako. Egia diotsuet: sinesmena bazenute, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, mendiari “aldatu hemendik hara” esanez gero, aldatu egingo litzateke; ez litzateke zuentzat ezinezkorik izango».

Fedeak Jainkoa jartzen digu erdigune, harengandik hartu baitugu den-dena. Horrela da, eta halako moduan non gure lorpenak berak ere, handi eta txiki, hondo-hondoan, gehiago baitira harengandik datozkigun dohain. Baina bai aise ahazten dugula hau guztia! Batzuetan uste izaten dugu dena dugula geure esku, geure indar hutsez. Horregatik, garrantzizkoa da egia hau ondo ezartzea, geure bihotzean eta egiten dugun guztian. Horrela bakarrik haziko da gure esperientzia, gure fedea; horrela bakarrik handituko da. Eta orduan ezer ez zaigu gertatuko ezinezko: mendiak mugitzeko gai izango gara eta, mostaza hazia bezala, gure fede-bizipena abegikor bihurtuko da eta abegikor bihurtuko gaitu: orenen eta guztien abegikor.

Urteko 19. astea.

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza*,
fundatzailea (domingotarrak).

§ 1 Erregeak liburutik 19, 4-8.

Egun haietan, Eliasek egun bateko bidea egin zuen basamortuan barna. Azkenean, ipuru baten azpian eseri zen eta heriotza opa izan zion bere buruari, esanez: «Aski dut, Jauna! Ken iezadazu bizia, ez bainaiz neure gurasoak baino hobea». Ondoren, ipuruaren itzalean etzan eta loak hartu zuen.

Horretan, aingeru batek ukitu eta esan zion: «Jaiki eta jan». Begiratu zuen Eliasek eta sutopil erre berria eta ontzi bat ur ikusi zituen bere buru ondoan. Jan eta edan ondoren, etzan egin zen berriro.

Etorri zitzaion bigarrenez Jaunaren aingerua, ukitu eta esan zion: «Jaiki eta jan, bide luzea baituzu oraindik». Jaiki zen Elias, jan eta edan zuen, eta janari haren indarrez berrogei egun eta berrogei gau ibili zen Horeberaino, Jainkoaren mendiraino.

[Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

§ San Paulok Efesoarrei 4,30–5,2.

Senideok: Ez nahigabetu Jainkoaren Espiritu Santua, horrekin markatu baitzaituzte Jainkoak, askapen-egunean zuek bereizteko. Ken zeuen artetik garrakeria, haserre, gorrotoa, garrasiak, irainak eta bestelako gaiztakeria oro. Izan zaitetze elkarrentzat on eta bihozbera, elkarri barkatuz, Jainkoak zuei Kristoren bitartez barkatu zizuen bezala.

Izan zaitetze, beraz, Jainkoaren antzeko, haren seme-alaba maite zaretenez gero. Bizi zaitetze maitasunean, Kristoren antzera, berak maite izan baikintuen eta bere burua gure alde eman zuen, Jainkoak atseginez onartzen duen oparizat eskainiz.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,41-51.

Aldi hartan, Jesusen kontra marmarka hasi ziren entzuleak, «Ni naiz zerutik jaitsitako ogia» esan zuelako, eta hau zioten: «Ez al da, ba, hau

Urteko 19. astea.

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza*,
fundatzailea (*domingotarrak*).

Jesus, Joseren semea? Ez al ditugu, ba, ezagutzen honen aita-amak? Nolatan dio, orain, zerutik jaitsia dela?»

Jesusek erantzun zien: «Ez ari marmarka zeuen artean. Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, hala ere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

Bizitzako basamortuan bide egitea, ez da dudarik, zail eta astun gertatzen da. Galdu egiten duzu nondik zatozen ideia bera eta norantz zoazen ideia bera. Uste izaten duzu berdinak direla bide guztiak. Ustekeriak jotzen gaitu, gauza bat beste batez hartuz. Orduan tentazioan erortzen gara: gauza guztien kontra marmar eginez, jende guztiaren eta Jainkoaren kontra. Halaz guztiz, ez iruditu arren, Jainkoa ez dago gugandik urrun, ez da axolagabe gure zoriaz. Israel herria basamortuan ibili zenean bezala, berak hornitzen gaitu bideko janariaz: mana emanaz. Elias profetari ere, Jezabelengandik ihesi eta biziaz etsirik zegoela, bidera irten zitzaion, jatekoa eskaini eta esan zion: «jan ezazu, egitekoa duzuen bidea zeure indarren gaidikoa duzu eta». Horrela iritsi ahal izan zen Horeb mendira, Jainkoaren mendira. Israeldarrak ere bai hitzemandako lurraldera. On da ez mespretxatzea Jainkoak ematen digun janaria: zer besterik egin genezake? Jauna gugana xume eta eguneroko den hartan etorri ohi zaigu (egun honetako ogia!). Bera Jauna izanik, halaber da Joseren eta Mariaren semea. Bera, batez ere, geure anaia / neba nagusia dugu.

Urteko 19. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa, karmeldarra, martiria, Europako Zaindaria.*

§ Oseasen Profezia liburutik 2,16b.17b.21-22.

Honela mintzo da Jauna: «Basamortura eramango dut Nik neure herria eta bihotzera hitz egingo diot. Han bere gaztaroen bezala erantzungo dit, Egiptotik igo zenean bezala. Neure emazte egingo zaitut betiko; neure emazte egingo justiziaz eta zuzenbidez, maitasunez eta errukiz. Leialtasunez egingo zaitut neure emazte, eta zuk ezagutuko duzu Jauna».

[Sal 45 [44]: Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Urteko 19. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa, karmeldarra, martiria, Europako Zaindaria.*

Parabola hau irakurtzean nolabaiteko gustu txar batekin utzi gaitu. Dударik gabe, bost neskatxa zuhurak oso zuhur izango dira, bai... baina baita desatseginak ere! Gainera, ez dira gai ezer partekatzeke. Eta ezkongaiaren jokabidea: «ez zaituztet ezagutzen»... hori al da gaua olio bila ibili denari erantzuteko era? Halaz guztiz, egia da, halaber, Jainkoa gure bizitzan igarotzeak «jada» bat, «hemen eta orain» bat, aurkeztu zaigun paradari probetxua ateratzen jakin behar bat eskatzen duela. «Egote» bat, atea jo duenean eta jo duen puntuan. Edith Steinek, bai, jakin zuen behar zuen puntuan egoten. Gestapok atxilotu zituenean, bera eta ahizpa, Auschwitzera eramateko, esan zuen: «geure herriगतik hilko gara».

Gurutzeko Teresa Benedicta

Edith Stein

Edith Stein zuen jatorrizko izena. Breslau hirian jaio zen 1891-10-12an, guraso juduengandik. Filosofia-ikasketak egin ondoren, egiaren bila abiatu eta ibili zen urte askotan. Kristau-fedea aurkiturik, katoliko egin zen, 1922-01-01ean bataioa hartuz. Handik aurrera Jainkoaren zerbitzuan bizi nahi izan zuen, irakasle-lanean eta filosofi lan ugari argitaratuz. 1933an karmeldar egin zen Kolonian eta «Teresa Benedikta Gurutzekoa» izena hartu zuen, bere bizia judu-herriaren eta alemaniar herriaren alde eskainiz. Juduen aurkako nazien erasoaldiari ihes egin nahirik, Holandako Echt-eko komentuan hartu zuten 1938-12-31n. Baina 1942-08-02an atxilotu zuten alemanek eta Poloniako Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio-zelaira deportatu. Han erail zuten abuztuaren 9an, gas hilgarriaz. Nola izan Jesusen ikasle? Kristauaren bizitzako ezaugarri berezia da gurutzeta; izan ere, Jesusen bizitza da kristauaren bizitzaren eredu: «norbait nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada...». (EEE Deustu-tik).

Urteko 19. astea.

San Lorenzo, *diakonoa eta martiria*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 9,6-10: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 112 [111]: Pertsona onak errukitu eta eman egiten du.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12,24-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurtean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak».

Ebanjelioak paradoxa-sail bat dakarkigu: hil, fruitu emateko; ahaztu, topo egiteko; eta antzeko besteak. Pentsatzera eragiten diguten paradoxa dira, eta gure bihotzean dilindan gelditzen dira, erronka bailiran, geure eguneroko bizitzan egiaztatzen gonbidatuz bezala. Hona Lorenzo diakonoaz kontatzen den anekdota bezalako paradoxa bat: erromatar soldadu-saldo bat oldartu da elkartean. Lorenzo diakonoak egin die kasu. Elkartearen altxorrez jabetu nahi dute. Une horretan behartsu batzuei ari zaizkie kasu egiten, eta nola Lorenzo hala soldaduak izan daitezke pasadizoaren lekuko. Lorenzok behartsuak seinatu ditu: «Elizaren altxor bila zabilatzatela? Hor dituzue! Behartsuak dira Elizaren altxorra».

Urteko 19. astea.
Santa Klara, *birjina*.

[Deuteronomioa liburutik 34,1-12: Han hil zen Moises, Jaunak esan bezala. Ordudanik, ez da sortu Israelen Moises bezalako profetarik. Sal 66 [65]: Bedeinkatua Jainkoa, bizirik baitigu eutsi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitopenez erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua.

Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

Senitarteko zentzarazpena gauza delikatua da. Gainerakoei lagundu nahi izaten diegu. Ezin bizi gaitzeko axolagabe beraien hobekuntzaz eta aurrerapenez. Baina senitarteko zentzarazpena ezin ahaztu da gainerakoei zor zaien begiruneaz, beraien bizitzan burruntzalia ez sartzeaz. Ezin bihurtu gara lagun hurkoaren epaile. Agian, lagungarri izan dezakegu Frantzisko aita santuak puntu honetaz esan diguna. Esan du aita santuak, senitarteko zentzarazpena karitatez egin behar dela. Karitaterik gabe egindako senitarteko zentzarazpena anestesiarik gabe egindako ebaketa bezalako izango litzateke. Hau da, astakeria bat. Esan du ere, zuzendu nahi dugun hartan geure burua konprometituz egin behar dela zentzarazpena, autokritika burutuz. Eta, batez ere, laguntzeko asmoaz egin behar da zentzarazpen hori.

Urteko 19. astea.

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea*
Salesko Frantziskorekin batean (Ahizpa Bisitarien Ordena).

[Josue liburutik 3,7-10a.11.13-17: Jaunaren itun-kutxa zuen aurretik
 igaroko da Jordan ibaia zehar. Sal 114 [113 A]: Aleluia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21—19,1.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion:
 «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz
 barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi
 mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan
 zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin.
 Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri
 zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea,
 seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak,
 zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren
 esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak,
 errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi
 hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-laguna-
 rekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion:
 “Ordain ie zadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren
 eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina
 besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta
 nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto
 hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu dida alako; ez al
 zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu
 nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizian, borrhoren esku utzi
 zuen, zor guztia ordaindu arte.

Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok
 elkari bihotzez barkatzen ez badiozue».

Urteko 19. astea.

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea*
Salesko Frantziskorekin batean (Ahizpa Bisitarien Ordena).

Hitzaldi hau bukatu zuenean, Galileatik alde egin eta Judeako mugetan sartu zen Jesus, Jordanez bestaldera igaroz.

Maitasunean eta barkazioan (eta barkazioa maitasun-arazoa da) ez du balio, ez kalkuluak, ez kontuak egiteak. «Maitasunak ez du jotzen kontuak egitera», dio Paulok bere maitasun-gorazarre ezagun eta ederrean. «Mugarik gabe barkatzen du maitasunak». Errege hura «kontuak egin nahian» hasi da. Baina menpekoaren erregua entzutean, kontuez ahaztu eta bihotz handi eta errukitsu agertu da. Zer pena hori bera ez gertatu izana geroxeago, menpeko berorrek kontuak eskatu baitizkio bere zordun bati. Zein erraz ahazten dugun, hondo-hondoan guztiok izan garela barkatuak! Mugagabeki gara barkatuak (eta barkazioa dohain bat da, bi aldetatik, era bikoitzean). Horregatik, beti dugu otoitz egin beharra: «barkatu gure zorrak geuk ere geure zordunei barkatzen diegun bezala».

Chantaleko Santa Joana Frantziska

Dijon-en (Frantzia) jaio zen Joana Frantziska Fremiot, Borgoinako Legebiltzarreko presidentearen alaba. 1592an Chantaleko baroiarekin ezkonarazi zuten eta zoriontsu izan zen ezkontza-bizitzan. Sei seme-alaba izan zituzten. Senarra hil zizaion 1600ean. Joanak, orduan, Jaunaren zerbitzurako eskaini zuen bere burua. 1604an Dijon-en, Garizumako hitzaldietan, Salesko San Frantzisko ezagutu zuen, Genevako apezpikua. Frantziskok gidaturik, aszesi bide zorrotzean sartu zen, Jesus izena bere azalean, bihotzaren gainean, burdina goriz markatzeraino. Emakume-ordena bat sortzeko asmoa jakinarazi zion Frantziskok 1607an Joanari. Hala egin zuten bien artean. Bere seme-alaba gazteenak esku onean utzirik, 1610ean hartu zuen Joanak ordena berriaren ardura. Karitateari erabat emanik bizi izan zen. 1641ean hil zen.

Urteko 19. astea.

San Pontziano, 18. Aita Santua,
eta San Hipolito, apaiza, martiriak.*

[Josue liburutik 24,1-13: Eufrates ibaiaren bestaldetik hartu nuen Abraham, zuen aita; zuek Egiptotik atera zintuztedan eta lurralde bat eman nizuen. Sal 136 [135]: Eskerrak Jaunari, ona baita: Haren maitasuna betikoa baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,3-12.

Aldi hartan, fariseu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea edozein arrazoiengatik uztea?»

Hark erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena? Hasieratik Egileak gizaseme eta emakume egin zituela, alegia, eta esan zuela: “Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira”. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Haiek galdetu zioten: «Zergatik eman zuen, bada, Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena?» Jesusek erantzun zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena; baina hasieran ez zen horrela. Hau diotsuet: bere emaztea utzi –legearen kontra elkartuak ez badira behintzat– eta beste batekin ezkontzen denak, adulterioa egiten du».

Ikasleek esan zioten orduan: «Baldin horrelakoa bada senar-emazteen arteko lotura, ez du merezi ezkontzea». Jesusek erantzun zien: «Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gai egiten dituenak baizik. Batzuk ez dira ezkontzen, jaiotzaz ezin dutelako; beste batzuk giza eskuz ezinduak izan direlako; beste batzuk, berriz, zeruetako erreinuagatik hala erabaki dutelako. Onar dezakeenak onar beza».

* Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875–Barbastro 1936, *klaretarra, dohatsua*, eta lagunak, *martiriak*).

Urteko 19. astea.

San Pontziano, 18. Aita Santua,
eta San Hipolito, apaiza, martiriak.*

«**H**asiera hartan ez zen horrela». Hitz hauekin egiten dio aipu Jesusek hasiera hartako ilusioari. Dena erraza zen orduan eta prest ageri zen bat neke-mota guztiak jasateko. Israelgo profetek amets hori esnatu nahi izaten zuten: «basamortura eramango dut eta bihotzera hitz egingo diot berriro» (Oseas). Ez dakigu noiz eta nola, baina agertu zen egoskorakeria munduan edota, hobeto esan, bihotz-gogorkeria. Izan ere, gertatzen da, bihotza zaintzen ez badugu, gogortu egiten dela bihotz hori. Eta orduan dena gertatzen zaio urari arroka gainean bezala: dena ezdeus. Eta okerragora egin ez dezan arau batzuk hartu behar ditu kontuan. Guk, ordea, ez genuke horretara iritsi nahi, baizik eta bihotzez bizi, dela egitismo batean parte hartuz, dela «zeruetako Erreinuagatik eunuko» bihurtuz.

Hiriko Gizakia

Gaur egun dena abiada batean eraldatzen da. Ikus dezagun irudimenez hiri handi bateko biztanle bat. Eraikin handi batean bizi da, lantegi erraldoi batean lan egiten du, arraza eta nazio guztietako jendearekin ditu harremanak, mundu osoko berri eta irudiak biltzen ditu. Publizitateak eta propagandak etengabe erasotzen diote beraren espirituari alderik ezberdinetatik. Ez dauka bazter bakarti bat gorputzari atsedean emateko, ezta isileko minutu batzuk ere bere baitan biltzeko. Ezerk ez du babesten beraren intimitatea kanpoko munduaren erasoetatik.

Nola erantzun ahalko lieke sakon eta osorik elkarren kontrako hainbeste eskabideri? Nola emango lieke odol-tanta egiazko bat inguruan dabilzkion hainbeste eltxo zurrupatzaileri? Ezer ere modu bizian asimilatzeo astirik gabe, ispilu eta oihartzun bihurtzen da. Janari gehiegiz beteriko urdailak bezala botaka egiten du asimilatu beharrean; beragan dena joanez doa, ez da ezer gelditzen. Hortik datorkio nortasunik gabeko bere izaera eta ezin ulertuzko aldakortasuna iritzi eta sentimenduetan.

(Gustave Thibon, in Arantzazuko Egutegia 2019-11-06)

* Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875–Barbastro 1936, klaretarra, dohatsua, eta lagunak, martiriak.

Urteko 19. astea.

San Maximiliano Maria Kolbe,
apaiza eta martiria, kaputxinoa.

[Josue liburutik 24,14-29: Aukera ezazue gaur zein zerbitzatu. Sal 16 [15]: Zu zaitut, Jauna, ondasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 13-15.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, haien gainean eskuak ezarri eta otoiiz egin zezan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Jesusek esan zien: «Utzi hurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena baita zeruetako erreinua». Eta, hurrei eskuak gainean ezarri ondoren, joan egin zen handik.

Nork du eskubide handiagorik Jesusengana hurbiltzeko txikiak baino, jakindakotzat emanez txikiak ez direla adin txikikoak bakarrik (garai hartan eskubiderik ez zuen taldea), baita pobreak, zokoratuak, bizitzatik baztertuak ere. Eta, halaz guztiz, zenbat bider urrundu nahi izaten ditugun Jesusengandik honen ikasle omen garenok, geure jarrera handiputzaz edota, besterik gabe, geure etsenplu txarraz! Zorionez, ordea, Jesusek baditu bere baliabideak presente bihurtzeko (ateak itxirik daudenean ere, jada berpizturik, afaltokian beldurrez atek itxirik zeudenean, ikasleei agertu zitzaienean bezala). Guztioi gogorazteko ezen txikiak eskubidea dutela beragana hurbiltzeko eta gogorazteko beraiena eta beraiek bezalako direnena dela zeruetako Erreinua.

§ Apokalipsi liburutik 11,19a; 12,1.3-6a.10ab.

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdimenez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen.

Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eraman zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

[Sal 45 [44]: Zure eskuinean dago erregina, urre finez apaindua.]

§ Paulok 1 Korintoarrei 15,20-27a.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira.

Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitu denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok

errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.**

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihi handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzmana, Abrahami eta ondorengoei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Triptiko bat izango balitz bezala, ebanjelioaren testu honetan kontenpla ditzakegu: alde batetik, Maria, Jesusen eroalea,

Mendira doa presaka Elisabeti agur egitera. Ematen du bere egin dituela Mariak apostoluaren hitz hauek: «Zoritzarrekoa ni ebanjelioa hots egingo ez banu!» Izan ere, ezin utzi diogu Berri Ona, Jainkoa geure dugula, partekatzeari. Emmanuel baita, Jainkoa-gurekin. Horregatik, «Kristoren maitasunak zirikatzen gaitu» eta horregatik doa «presaka» Maria Mendira. Bigarrenik, hor dakusagu Elisabeten erreakzioa: haurrak jauzi egin dio sabelean pozaren pozez. Elisabeten pozak gainez egin du Espirituaz. Bihotz barnean sentitu du, Mariari harrera egitean, beraren iguripen edo ustea bere betera iritsi dela Jesusengan, Mariak bere sabelean daraman harengan. Eta guk, nolako harrera egiten diegu Jainkoaren mezulariei eta beste guztiei zeinekin Jainkoak bat egiten baitu? Azkenik, hirugarrenik, Mariak Magnificat abesteari eman dio, txikien eta behartsuen Jainkoaz gogoeta maitemindu bat eskaini digularik. Jainkoak ez dio ezikusiarrena egiten gure txikitasunari. Alderantziz jarri ditu mundu honetako irizpideak. Eta «oroipentsua» da, gu guztiokiko bere Errukiaz gogoratzen baita.

Dogma hau, hondo-hondoan, anti-helenista da, gizakiaz ikuskera bikoitza izatearen kontrakoa, zeinen arabera «gorputza hautsera itzultzen baita eta arima zerura hegaldatzen» (hau izan da Elx-eko «vespra» Misteriren gaia). Horren aurka, dogmak dio Maria gorputz eta arima jaso zuela Jainkoak. Joera helenistak, Elizan nagusi izan denak, besterik dio: zintzoen arima zerura igotzen dela heriotzaren ondoren, eta gorputzak zain egon behar duela azken piztuerara arte. Horren aurka, esperientzia antropologiko eta pazko-komunioaren bide berri bat urratuz, dogma honek baieztatzen du Mariak gailurrera eraman duela jadanik bere bizitza Jainkoagan, Jesusen bidez, gorputz eta arima, hau da, batasun pertsonal bezala, gorputzaren eta arimaren banantzea gairidituz. (Xabier Pikaza, Religión Digital 14/15-08-2019; zatitxoa).

Urteko 20. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*.San Roke, *martiria*.

[Epaileak liburutik 2, 11-19: Jaunak buruzagiak sorrarazi zituen, baina israeldarrek ez zieten kasurik egin buruzagiei ere. **Sal 106 [105]:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut betiko bizia eskuratzeko?» Jesusek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak».

Hark, berriz: «Zein agindu?» Eta Jesusek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?» Jesusek erantzun zion: «Guztiz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri».

Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

Errezeloa dugu ezen aginduek mugatu egiten dutela gure eginkizuna. Eta aldarrikatu dituen Jainkoa betiko zorion-izorratzaile huts dela, bizitza garrazten diguna. Beraren mezulariek beren bisita-txartelean egoki jartzen ahal luketela «Debekatzen jende aditua». Eta Jesusengana hurbildu zen gizon hari bezala gertatzen zaigu, esan baitzuen aginduak betetzen eginahalak egin arren, ezin zuela «eskuratu betiko bizia». Honek guztiak ez du zerikusirik agindu beroriei darien emankortasunarekin. Kontua, agindu negatiboak era baikorrean adieraztea da: «ez inor erail» ordez, errespetu ezazu bizitza; «ez gezurrik esan» ordez, hartu eta adieraztea da: esazu eta defendatu egia; «ez lapurtu» ordez, parteka ezazu... Horrela, aginduak, mugatzen gaituzten gerruntze ez, baizik eta bizirako eta zorionerako bide gertatzen zaizkigu.

[Epaileak liburutik 6, 11-24a: Gedeon, aska ezazu Israel. Nik bidaltzen zaitut! Sal 85 [84]: Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berriro diotsuet: jostorrazaren begitiki gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake».

Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, Zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare.

Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Gu, ezin salba gaitzeko geurez, geure indar hutsez. «Salbatu», Jainkoak bakarrik salba gaitzake eta gu «izaki pasibo» bezala bakarrik ager gaitzeko. «Gizon-emakumeentzat ezinezkoa da; Jainkoak, aldiz, dena egin dezake». Kontua, lasta, hau da, zama botatzea da, hustea, prest jartzea... Naufragoen antzeko gara, Jaunak eskua luzatu nahi diena. Baldin eta, etsirik, geureari atxikirik bizi nahi badugu, hari kasurik egin gabe edo haren laguntza gutxienera mugatuz, orduan berak ezin egingo du ezer gugatik, eta galdurik ibili beste erremediarik ez dugu izango. Batez ere, hari jarraitzea da kontua. Hartara, halako goitasunera iritsiko gara, non «Israelgo hamabi tribuak» berak juzgatzerira iritsiko baikara. Horretarako, ordea, azkenetako izaten ikasi behar da eta beraiekin bizitzen.

[Epaileak liburutik 9, 6-15: Erregea nahi dugu agintari, esaten ari zarete, Jauna errege duzuelarik. **Sal 21 [20]:** Jauna, zure indarrak pozten da erregea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Egunekeo lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

Goizeko bederatzia aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldi aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?” Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”.

Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaitza bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaizenean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoke nekea eta beroa jasan dugunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

Parabola hau irakurtzean, protesta-sentimenduak har gaitzake, soldatapekoekin kontuak horrela egitearen aurka. Lehen orduko langileen solidario sentitzen gara. Dударik gabe, hauek azken ordukoek baino gehiago lan egin dute, «egunaren eta sargoriaren zama jasanez». Soldata handiagoa jaso beharko lukete. Baina ez da hau parabolaren ikusmira. Gure Jainkoaren aurrean ez dute balio, ez merezimenduek, ez dominek, ez lortutako pribilegioek. Grazia hutsa, dohain hutsa, da gu berarekin egotera deituak izana, berarekin beraren mahastian lan egitera deituak izana. Gertatzen da, begikotasuna, kutuntasuna, sentitzen duela berak azkenak direnentsat. Horregatik, halakoekin egonez eta halakoetako bihurtuz sentitu ahal izango dugu kutuntasun hori.

Alberto Hurtado dohatsua

Viña del Mar-en, Txilen, jaio zen, 1901eko urtarrilaren 22an. Jesusen Lagundian 1923-08-14an sartu zen, Chillan-en, eta apaiz 1933-08-24an ordenatu zuten. Irakasle bezala egin zuen lan eta behartsu eta umeei laguntzen saiatzen zen. Gogartetxe bat eraiki zuen, 1947an Txileko sindikatu-elkartea fundatu zuen, eta 1951n «Mensaje» aldizkaria argitaratzen hasi zen. Apaiz, apostolu, heziketa, erruki eta gizarte-obrak egiteko gogoia Kristo eta behartsuak maitatzetik sortzen zitzaion. 1952an hil zen, eta 1994an Erromako Gotzain Joan Paulo II.ak Dohatsuen liburuan ipini zuen.

Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok, gaixo nengoen, eta bisitatu egin ninduzuen.

Urteko 20. astea.

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak)*.

Ezekiel Moreno santua, *gotzaina*

(*Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan*).

[Epaileak liburutik 11, 29-39a: Ongietorria egitera etxetik aterako zaidan lehenengoa Jaunarentzat izango da eta erre-opari eskainiko diot. Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,1-14.

Aldi hartan, Jesusek berriro parabola bidez hitz egin zien apaizburuei eta herriko zaharrei:

«Zeruetako erreinuarekin bere semearen ezteiak ospatu zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuak dei egitera, baina haiek ez zuten etorri nahi izan.

Berriro beste morroi batzuk bidali zituen mandatu honekin: “Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, prest dago dena. Zatozte ezteietara”. Baina gonbidatuek ez zioten jaramonik egin: bata bere lurretara joan zen, bestea bere negoziotara eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten.

Haserretu zen erregea eta, bere soldaduak bidaliz, hil egin zituen hiltzaile haiek, eta su eman haien herriari.

Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkitutako guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen.

Erregeak, bazkaltiarrek ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi eta esan zion: “Adiskide, nolatan sartu zara hona eztei-jantzirik gabe?” Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariei esan zien, orduan: “Esku-oinak lotu eta bota ezazue kanpora, ilunpera; han izango da negarra eta hortz-karraska!” Zeren gehiago baitira deituak, aukeratuak baino».

«**G**oazen guztiok jai-otordura / kreaioaren mahaira / nor bere aulkitxoarekin / postu bat eta misio bat du» (abesten dute El Salvadorreko mezan). Halaz guztiz, dela utzikieriaz, dela indarkeriaz ere uko eginez, garbi dago ezentzunarena egiten ahal diogula Jainkoaren gonbitari: «Eztei-otordua prest dago. Zatozte». Baina berak ez du etsitzen sekula gonbit honi eustez. Beraren gonbitak bidegurutzetan jotzen du. Jende onari eta gaiztoari (gaiztotzat emanari) egiten dio dei. Denak ditu gonbidatzen. Baina, jakina, ez du balio gonbit hori damuzko keinuz eta jarrera garratzaz hartzeak. Izan ere, eragotzi egin behar al diogu geure zorionari gainez egin dezan eta kanpora jai-giroz azal dadin?

Argi eta gatz

Argia izaten ikasi nahi dut
 gatza izaten ikasi nahi dut
 nire presentzia isilak
 koloreak argi ditzala eta
 biziaren eta bakearen zaporeak findu.
 Argia bideak ikusarazteko
 gatza zentzuak esnatzeko
 argia eta gatza, gatza eta argia
 argia garbi ikusteko
 gatza dastatu eta ahogozatzeko.
 Argi eta gatz gara munduarentzat.
 (Salomé Arricibita, in Arantzazuko Egutegia 2019-11-09)

Urteko 20. astea.

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea.*

San Samuel, *Israelen epailea eta profeta.*

[Rut liburuaren hasiera 1,1.3-6.14b-16.22: Itzuli zen Noemi Rutekin, bere errain moabdarrarekin, eta Betlemera iritsi ziren. Sal 146 [145]: Goretazu Jauna, ene barrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko lege-gizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?»

Jesusek erantzun: «“Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz”. Hau da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

Jainkoaren maitasunaz egindako bere homilietan, bi galdera eginez hasten da San Bernardo: ba al dakizue zergatik maitatu behar dugun Jainkoa? Eta erantzuten du: bera dena delako maitatu behar dugu Jainkoa, eta ez hainbeste beragandik har genitzakeen mesedeengatik. Beraz, bigarren galdera: zein izan behar dugu Jainkoa maitatzearen neurria? Eta erantzuna: Jainkoa maitatzearen neurria neurririk gabe maitatzea da! Maitasuna: gaurko ebanjelioak esaten digunez, batean biltzen dituen Jainkoarekiko maitasuna eta hurkoarekiko maitasuna, bat bera baita gure bihotza eta berorrekin behar baititugu biak maitatu. Berarekin batzen gaituen maitasuna da, Rut atzerritarra Noemi bere amaginarrebarekin batzen zuen bezalako maitasuna: «zu non... ni han».

Urteko 20. astea.

San Pio X.a, 257. aita santua.

San Bonoso eta San Masimiano, martiriak.

[Rut liburutik 2,1-3.8-11; 4,13-17: Jaunak ondorengoa eman dizu. Jeseren aita izan zen Obed; Jese, berriz, Daviden aita. Sal 128 [127]: Honela izango da bedeinkatua Jaunari begirune diona!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori “aita”, bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Kristo.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Lege-maisuen eta fariseuen aurkako bere haserre-mintzaldietan, halaber mintzo zaie Jesus bere ikasleei eta bere ikasleen taldean sartzan ahal den jendeari. «Nabigatzaileentzako oharpen» baten plan gisa. Kontu egin! Izan ere, bada ikasle izateko estilo bat, Jesusen ikasleen artean ere, guztien zoritxarrerako, betikotzeko arriskua duena. Ezaugarri hauek izan ditzake: «esate» (batzuetan, «katedradun» baten ziurtasun eta segurtasun dogmatikoz) eta «ez egitea»; itxura hutsarena (doi-doi ezkututzen duena bere izatearen hutasuna); sasi-goitasuna: Jesusena bezala, funtsean senitartekoa izatea amesten duen elkarte baten estilotik hain desberdina.

Urteko 21. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

[Andre Mariaren MEZA: Isaias 9,2-4.6-7. Sal 113 [112],1-2.3-4.5-6.7-8. Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukasen liburutik 1,26-38.]

§ Josue liburutik 24,1-2a.15-17.18b.

Egun haietan, Israelgo leinu guztiak bildu zituen Josuek Sikemen. Dei egin zien Israelgo arduradun, buruzagi, epaile eta funtzionarioei ere, eta Jaunaren aurrera agertu ziren. Orduan, honela mintzatu zitzaion Josue herri osoari: «Jauna zerbitzatzeko gaizki iruditzen bazaizue, aukera ezazue gaur zein zerbitzatu: zuen arbasoek Eufrates ibaiaz bestaldean zerbitzatu zituzten jainkoak ala amotarren jainkoak, orain bizi zareten herrialdeko jendearenak, alegia. Nik eta nire etxeoek Jauna zerbitzatzeko dugu».

Herriak erantzun zuen: «Urrun gugandik Jauna uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu geure Jainkoa; berak atera gaitu gu eta gure arbasoak Egiptotik, esklabotzatik; geure begiz ikusi ditugu berak egindako mirari handiak; berak zaindu gaitu egin dugun bide guztian zehar, eta igaro ditugun herri guztietan babestu gaitu. Beraz, guk ere Jauna zerbitzatzeko dugu, bera baitugu geure Jainkoa».

[Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

§ San Paulok Efesoarrei 5, 21-32.

Senideok: Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen begiruneagatik. Emazteak izan daitezela beren senarraren menpeko, Jaunaren menpeko bezala, senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala, bere gorputza duen Elizaren salbatzaile delarik. Eliza Kristoren menpeko den bezala, izan bitez emazteak denetan senarraren menpeko.

Urteko 21. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

Senarrok, maita ezazue zeuen emaztea, Kristok Eliza maitatu eta beraren alde bere burua eman zuen bezala. Bere burua eskainiz, sagaratu egin zuen Eliza, Bataioko urez eta hitzaren indarrez garbituz. Horrela prestatu zuen beretzat Eliza distiratsua, zikinik eta zimurrik edo horrelako ezer gabea, santua eta kutsugabea.

Era berean, senarrek ere beren gorputza bezala maitatu behar dute beren emaztea. Emaztea maite duenak bere burua maite baitu. Ez du inork bere gorputza gorrotatzen, baizik eta jaten eman eta zaindu egiten du, Kristok Elizarekin egiten duen bezala. Gu guztiok gorputz horren atal gara.

«Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira».

Handia da misterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuten: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen».

Geroztik, haren ikasleatariko askok atzera egin zuen, eta aurrerantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek

Urteko 21. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

Saihesten ahaleginak eginik ere, badira uneak zeinetan aukera egin beharra izaten baitugu. Ez aukeratzeko erabakia bera ere nolabaiteko aukera bat egitea da, gure usteak faboratuko dituena. Zein Jainko zerbitzatu nahi duzue: bizileku duzuen mundukoak ala Egiptotik atera zintuena?, galdetu dio Josuek Israel herriari. Zuek ere alde egin nahi al duzue, galdetu die Jesusek ikasleei, askori onartezin iruditu zaion bizi-ogiari buruzko hitzaldiaren ondoren. Ezin esan diegu «bai» honi eta hari aldi berean. Erabaki beharra dago. Eta zein nekosoa izaten den! Jakina, on da erabaki batera edo bestera eragiten diguten bizi-esperientzietara jotzea, argi bila: Jaunak, gu esklabotza-lurraldetik ateraz gainera, basamortura gidatu gaitu, arduratsu eta maitale, gogorarazi dio Josuek herriari. Hor ditugu Pedrok Jesusi esandako hitz zirraragarriak ere: «Norengana joango gara? Zuk bakarrik dituzu betiko bizirako hitzak!» Jesus aukeratzea ezin egin da kaskarin; izan ere, berak gure alde buru-eskaintza egin badu, gauza bera egin behar dugu geuk ere harekiko.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 1,1-5.8b-10: Sasijainkoak utzirik, Jainkoagana itzuli zineten, Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen bere Semearen zain egoteko. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 13-22.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Jendeari zeruetako erreinuko sarrera ixten diozuenok! Zeuek ez zarete sartzen eta sartu nahi dutenei ez diezue uzten.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Baten bat judu berri egiteagatik itsaso eta lehor zabilzate eta, egin duzuenan, zeuek baino bi aldiz gaiago bihurtzen duzue infernurako.

Ai zuek, gidari itsuok! Honela irakasten duzue: “Tenpluagatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko urreagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Zoro itsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaratzen duen tenplua? Beste hau ere irakasten duzue: “Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Itsuok halakook! Zer da handiago, oparia ala oparia sagaratzen duen aldarea? Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiagatik egiten du zin; tenpluagatik zin egiten duenak, tenpluagatik eta bertan bizi den Jainkoagatik egiten du zin; zeruagatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuagatik eta bertan eserita dagoenagatik egiten du zin».

Esan dio Paulok Tesalonikako elkarteari: «Ebanjelioaren gure predikuan... ez ziren izan hitzak bakarrik, baita Espiritu Santuaren indarra eta konbentzimendu sakona ere». Jesusek lege-maisuei eta fariseuei aurpegiratu dienaren guztiz bestelakoa! Esan die, izan ere, Jesusek: «ez zarete sartzen, ezta utzi ere sartzen». Hau da, ez duzue

Urteko 21. astea.

Santa Arrosa Lima-koa, *birjina*.

San Joan Leskar-ekoa, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).

San Zakeo Jerusalemekoa, *gotzaina*.

Espirituaren esperientziarik, ezta uzten ere besteei izan dezaten. Horren orde, jende defentsarik gabea sakailatzen duzue, eta «entzule-indizeen» ehizan ibili ohi zarete. Ideia argirik eduki gabe, ez duenari garrantzia emanez, eta duenari eman nahi ezta. Hitz gogorrak, kontzientzia-azterketa bizia predikuari eta Jesusen Ebanjelioa hots egiteari emana denarentzat!

Santa Kandida Maria Jesusena (abuztuaren 3tik dator)

Andoaingo alabaHauek erakutsi zioten lanaren balioa, arazoan aurrean sendotasuna, familian maitasuna, natura ederraren handitasuna miresten; baita Jainkoaren inguruan bizitzeak duen garrantzia ere, azaletik ez bizitzea baizik sentituz Jainkoak, gure bidez mundua hobetzea nahi duela.

Juanitatxo laster inguruko aurrekin jolastuko zen. Bere bizitzan berezia zuen lagun arterako dohaina txikitatik bizi izan zituen harremanetan ikasiak ziren. Ohikoa zen auzokoen beharrez arduratzea eta ahal zuen eran laguntzea.» (Kandidaren kongregaziotik bidalitako idazkitik hartua, laburpentxo, moldaturik).

§ Apokalipsi liburutik 21,9b-14.

Aingeru batek esan zidan: «Zatoz, emaztegaia erakutsi behar dizut, Bildotsaren emaztea». Hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eraman ninduen espirituz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitsu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain gardena.

Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak.

[Sal 145 [144]: Zure fededunek ager dezatela, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, Nazaretetokoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus».

Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko

Urteko 21. astea.

SAN BARTOLOME, APOSTOLUA.

duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Lilura handia eragin ohi digu Nazaret hitzak. Adibidez, Foucauldeko Karlosi eta beste askori eragin diena bezalako. Natanaelen hitz mespretxagarriak eta guzti («Nazaretetik ezer onik irten daiteke?»); hitz horiek Jainkoa gauza distiratsu batean aurki daitekeela uste duenaren autoaskitasuna salatzen dute. Nazaret isiltasun-eskola da, lan eta otoitz eskola, esan zuen Paulo VI.ak Nazaretera egin zuen bisita gogoangarri batean, Vatikanoko II.a kontzilioaren garai haietan. Eta guztiok behar dugu izan ikasle eskola honetan. Ai guztiok jasoko bagenu gonbita, eta etengabe, geure «nazaretar» jatorri horretara itzultzekoa, sorburu berorretan edateko fedearen eta «Nazaretar» deitzen zioten Jesusi jarraitzearen ur garbi eta kutsatu gabea edateko!

Natanael, nonbait, Biblia irakurtzen ari zen, etxe-atarian, pikupean. Ohikoa zen hori. Biblia ezagutzeak lagundu zion Natanaeli Jesus onartzen.

Bartolome eta Natanael pertsona bakarraren izenak direlako tradizioa oso zabaldua dago. Natanaeli buruz Jesusek esan zuen: «Hona benetako israeldar bat, faltukeriarik gabea». Eta Natanaelena da aitortzen hau: «Maisu, zu Jainkoaren Semea zara, zu Israelgo erregea zara». Aipamen huez aparte, San Bartolome ez dakigu liburu apokrifoko batzuek diotena baizik: Indiar joan zela, Etiopiara joan zela, Mesopotamiara edota Likaonia eta Frigiara, edota Armeniara. Batek dioenez, Armeniako errege Polimnio kristau egitea lortu zuen; orduan, haren anaia Astiagek hilarazi egin zuen Bartolome.

San Joan Krisostomoren esaldi hau argigarri dugu: «Zeren ez filosofoak, ez maisuak, ez giza gogoak, izango ziren gai zergalari eta arrantzale lau batzuk egin zutena imajinatzeko».

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 2, 9-13: Gau eta egun egin genuen lan Berri Ona hots egin genizuenean. Sal 139 [138]: Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 27-32.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak! Zuek ere honelakoak zarete: kanpotik zintzoak jendearen aurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: “Gure arbasoen egunetan bizi izan bagina, ez genukeen parterik hartuko haiekin profeten hilketan”. Horrela, zeuek aitortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengoak zaretela. Bete, bada, zeuek ere zeuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!»

Hilobi kareztatuak, heriotzak bere-bere dituen heriotzaz eta desegiteaz eta usteltzeaz mintzo zaizkigun hilobiak... Miresmena sortzen dute mausoleoek; baina, tarteka, ezin mozorrotu eta ezkutatu izaten dituzte ezin ulertuak eta dramatikoak izan diren pertsekuizioak, beren baitan ohoratua den jendearen bizitzako parte eta zati eragile izan diren krudelkeriak... Bestetik, gure santuak, horma-hobi ederretan beneratuak, utzi dizkiguten mezuetatik, batzuetan gure biziera koloka jartzen digutenetatik, arreta aldentzeko ezkutatuak... Beste kuku batek joko luke profeten, zintzoen eta santuen bizitzari arreta handiagoa eskainiko bagenio, berak ohoratzeko (eta, batez ere, Jainkoa ohoratzeko, hori baita arazoa) bizitza bateko «unearekin», geurearekin, egunetik egunera Ebanjelioarekin koherenteago izango litzatekeenarekin.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 3, 7-13: Jaunak gero eta handiago egin dezala zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna. Sal 90 [89]: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zugar.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24, 42-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein orduan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea.

Izan zaitezte morroi leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak etxeko morroiei bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman dion morroia bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina beste morroi gaizto hura, nagusiak luzatu egingo du-elakoan, bere morroi-lagunak jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, eta gogor zigortuko du eta itxurazaleek merezi dutena emango dio. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Zain-zain egoteko Jesusek errepikatu zituen deiek, «begiak zabalik dituenaren mistika» (Metz) edota bereizmena landuz bizi beharra dakarkigute gogora. Azken batean, anai-arreben errealitateari eta premiei adi-adi bizi beharra. Izan ere, unerik ustekabeenean irten dakiguke Jauna bidera eta, adi ez bagaude, gurekin gelditu gabe igaro daiteke hura. Zerbaitegatik egin diote Jaunari galdera erantzukizundunek azken auziko parabolari, harriturik: «Jauna, eta noiz ikusi zintugun goseak eta egarri, biluzik, arrotz, preso, gaixo... eta ez zintugun arretaz hartu?» Eta entzungo dute: «Txikiago hauetako batekin egin ez zenuten bakoitzean, neuri ez zenidaten egin».

Urteko 21. astea.

Santa Monika, *aitorlea*.San Lizerio, *gotzaina*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 1-8: Hau nahi du Jainkoak zuengandik: bizi zaitezela berarentzat, sagaratuei dagokienez. Sal 97 [96]: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zaretan”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Jainkoa gure bizitzara etortzeak ustekabeko berehalakotasunetik asko du, «hemen» eta «orain» delakotik asko, «jada» delakotik asko. Gu ere, geure bizitzan eroso kokaturik, batzuetan errutinaz eta desilusioz beteegirik, garela, aztora gaitzake oihuak: «Badator senarra! Irten zakizkiote bidera!» Orduan ez dute balio izango, ez atzerapenak,

Urteko 21. astea.

Santa Monika, *aitorlea*.San Lizerio, *gotzaina*.

ez lokartzeak, «beraren deiarekiko sorgor ez izatea baita arazoa, prest eta arduratsu agertzea beraren borondate santu-santua betetzeko». «Prest»: ikasleak bezala, dei egin zienean dena utzi baitzuten eta «brehala» jarraitu berari. Eta «arduratsu», hau da, dei horri erantzun maitekorra ematea; izan ere, ez du espero gugandik laster batean erantzute hutsa, baita, eta batez ere, maitasuna.

Santa Monika Tagaste (gaur egun, Algerian) jaio zen 332an, familia kristau batean. Patrizio izeneko gizon pagano batekin ezkonarazi zuten gurasoek. Jenio bizikoa zen senarra, erromatar legionarioa; Monikak eraman handia izan zuen harekin eta, hil baino urtebete lehenago, 371n, bataiatu zen senarra. Hiru seme-alaba izan zituzten: Agustin, Navigio eta alaba bat. Agustin semea, katekumeno zela, kristau-fedetik urrutiratu izanak nahigabe handia ekarri zion amari. Monika asko saiatu zen semea federa erakartzen, etengabe otoitz eginez, malko asko isuriz eta semeari toki askotara jarraituz. Agustinengatik, malkotan blai joan zitzaion Monikari hau erantzun zion gotzain batek: «Zoaz bakean, andrea, eta jarraitu horrela; utziozu; otoitz egiozu Jaunari; ezinezkoa da horrenbeste malkoren semea galtzea». Agustin, erretorika-katedra eskuraturik, Milanora joan eta San Ambrosiori entzun ziolarik, konbertitu zen eta 387ko pazko-gauan bataiatu; hau ikusteko poza izan zuen Monikak. Behin Agustin konbertitua ikusiz gero, ez zuen ikusten bizitzen jarraitzeko arrazoirik: «Ez dakit zer egiten dudan jadanik, ez zergatik bizi naizen, mundu honetan zer itxaron ez dudala. Gauza batek eragiten zidan pixka bat gehiago bizi nahi izatera: ni hil aurretik zu kristau ikusi nahi izateak. Jainkoak sobera eman dit...». Erromako Ostia hirian hil zen Monika 387an. (EEE Deustu-tik)

Urteko 21. astea.

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*.Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,9-11: Jainkoak berak irakasten dizue elkar maitatzen. Sal 98 [97]: Badator Jauna herriak zuzentasunez epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituen haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurtean zuloa egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua.

Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaion. Hurbildu zen bost talentu hartu zituen, eta beste bost eraman zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Hurbildu zen bi talentu hartu zituen, eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: “Jauna, banekien gizon zorrotza zarea; erein ez duzun tokian igitatzen, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hemen duzu zeurea!”

Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alfer hori! Bahekien, beraz, erein ez dudan tokian igitatzen dudala nik, eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Horregatik, nire dirua diru-trukalariei utzi behar hien,

Urteko 21. astea.

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*.Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*.

nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”»

Aita Arrupek esan ohi zuen: «nahiago dut erratzeko arriskua hartu, gaur egun burutu daitekeen erratze handiena egin baino: besoak tolesturik, ezer egin gabe, gelditu baino». «Zerbitzari axolagabe eta alferrari ez diote aurpegiratu beste biek baino gutxiago hartu izana, baizik eta aintzat ez hartu izana jaso duen dohaina, eta, garrantzizkoagoa dena, batzuetan zailagoa gainera, ez jakin izana bere burua dohain bezala aitortzen, hau da, bere burua beste ematera deitua dela. Beldurrak kateaturik, lurperatu egin du bere dohaina eta ezkutatu. Edota, gauza bera dena, bere burua lurperatu du eta ezkutatu. «Horra zeurea», esan dio, erreparatu gabe, beraren jaunarena («zeurea») den hura «berea» ere baduela.

Oi betiko egia / eta egiazko karitatea / eta bihotzeko betikotasuna!

Zu zara nire Jainkoa, / zure egarri naiz gau eta egun! / Lehenengo zezagutu zintudanean, / zuk hartu ninduzun, ikus nezan / bazela ikusteko Nor bat, / eta ez nintzela artean hura ikusteko gai.

Eta ikusmenaren gaixotasuna distiraz bete zenuen / zure errainuak nigana bortizki gidatuaz, / eta maitasunez eta izuz dardaraka jarri nintzen. / Konturatu nintzen zugandik urrun nengoela / desberdintasunaren gunean, / zure goitiko ahotsa entzungo banu bezala: / “Handien janaria naiz; hazi zaitex eta jango nauzu. / Ez nauzu, ordea, zugana aldatuko / zeure haragiaren janaria bezala, / baizik eta zu zara nigana aldatuko / (Agustin, Aitorpenak 7,10,16).

§ Deuteronomioa liburutik 4, 1-2. 6-8.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Orain, Israel, entzun irakasten dizkizuedan legeak eta erabakiak, eta bete. Horrela, biziko zarete eta Jaunak zeuen arbasoen Jainkoak emango dizuen lurraldean sartuko zarete eta haren jabe egingo. Ez erantsi, ez kendu, nik agintzen dizuedanetik ezer; aitzitik, bete nik ematen dizkizuedan Jaunaren, zeuen Jainkoaren, aginduak.

Gorde itzazue eta bete, horrek jakintsu eta buruargi egingo baitzaituzte herrien aurrean. Lege hauen berri izatean, esango dute: “Bai herri jakintsua eta buruargia nazio handi hau!”

Izan ere, ba ote da nazio handirik, bere jainkoak, guk Jauna geure Jainkoa bezain hurbil dituenik, dei egiten diogun bakoitzean? Ba ote da nazio handirik, gaur nik adierazten dizuedan irakaspen hau bezain lege eta erabaki zuzenak dituenik?»

[Sal 15 [14]: Nor bizi, Jauna, zure etxean?]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 1,17-18.21b-22.27.

Ene senide maiteok: Emaizta on eta dohain bikain oro goitik dator, Aitagandik, aldaketarik eta ilunaldirik ez duen argien Egileagandik. Berak, hala nahita, bizia eman digu egiaren mezuaz, sorkari guztien artean lehenengoak izan gaitezten.

Onar ezazue otzan-otzan zuengan erein den eta zuek salbatzeko indartsu den mezua. Bete ezazue mezua, eta ez entzun bakarrik, zeuen burua engainatuz.

Jainko Aitaren aurrean benetan garbi eta akatsik gabeko erlijioa hauxe da: umezurtzei eta alargunei beren premietan laguntzea, eta munduko gaiztakeriarekin nork bere burua ez kutsatzea.

* *apaiza, dohatsua, martiria.* San Adelfo, *martiria.* Santa Sabina, *martiria.*

Urteko 22. astea.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN

MARTIRITZA. Pedro Asua eta Mendia
(Balmaseda 1890–Kantabria 1936), *

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,1-8.14-15.21-23.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemeko etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin – hau da, eskuen garbikuntza egin gabe– jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketak.

Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokutzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean:

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau,
baina niganetik urruti du bihotza; alferrik naute gurtzen,
hauen irakaspena giza agindu hutsa da”.

Zuek, Jainkoaren agindua bazterrerara utzi eta giza ohiturari eusten diozue».

Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, dirugosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasakeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

* *apaiza, dohatsua, martiria.* San Adelfo, *martiria.* Santa Sabina, *martiria.*

«**E**rljio jatorra, Jainko Aitaren begietarako, atsekabe-aldian umezurtzei eta alargunei bisita egitea da, eta eskuak ez zikintzea mundu honekin». Esan nahi baita, azkenak direnez arduratzea, Jainkoarekiko eta norberarekiko biziera akasgabea eta koherentea eginez. Santiagoren gutuneko hitzek ondo argitzen dute gaurko ebanjelioa. Judu peto-peto baten hitzak dira, Jesusen jarraitzaile eta bere judu-jatorriaz harro den batenak. Kontraste handia dute lege-maisuek eta fariseuek Jesusen ikasleei egiten dizkieten kritikekin, «esku lohiekin jaten omen dutelako, eskuak garbitu gabe, alegia». Jesusi jarraitzea, pertsonaren azala ere hartzen badu ere —gizakia osoa eta bat delako— barnean errotzen da funtsean. Ekar dezagun gogora; Lukasen kontaeran, seme hondatzailearen anaia zaharrena: bere aitagandik hain hurbil eta, halaz guztiz, bihotzez beragandik hain urrun! Hain zuzen, bihotza da arretaz zaindu beharrekoa, egiaz esan ahal izateko Jainkoagandik hurbil gaudela, bera gugandik guztiz hurbil dagoen bezala. Izan ere, Deuteronomioren hitzetan: «ba al da hain nazio handirik eta bere jainkoak hain hurbil dituenik, nola dagoen Jauna gugandik hurbil beti dei egiten diogunean?»

* *apaiza, dohatsua, martiria. San Adelfo, martiria. Santa Sabina, martiria.*

Urteko 22. astea.

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,13-18: Jesusekin bat eginik hil direnak Jainkoak berekin hartuko ditu. Sal 96 [95]: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko. Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapaldueti askatasuna ematera, Jaunaren onginali-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin zen. Denak sinagoga begira- begira zeuzkan.

Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginaliaz esaten zituengatik. Baina hau zioten: «Ez al da, ba, hau Joserren semea?»

Orduan, Jesusek esan zien: «Harako esaera hura gogoraraziko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak”».

Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu,

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

Siriako Naaman baizik».

Hauk entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Bere misioaren hasieran, Nazaretoko sinagogan, Jesus ez zen mugatu profetaren testua «irakurtze» hutsera, baizik eta, gainera, «interpretatu» egin zuen. Isaias profetaren testua irakurri zuen; ez, ordea, osorik, baizik eta Jainkoaren zigorrari zegozkion hitzak alde batera utzirik. Profeta «zentsuratu» nahi balu bezala... Hori izan zuen bere jarrera mendiko hitzaldian ere: «esan dizuete... baina nik diotsuet». Izan ere, Jesusek «grazia-hitzak» bakarrik jaulki ditu, erruki-, barkazio- eta maitasun-hitzak. Horrenbestez, ez da harritzekoa Nazaretoko herritarrek agertu dioten erreakzioa. Geuri ere kostatu egin ohi zaigu grazia-mezu hau onartzea. Gerta lekigukeen gauzarik okerrenea hau izan izango genuke: bera eta beraren mezua «gure artetik igarotzea... urrunduz» gugandik.

Urteko 22. astea.

San Ramon Nonnato, apaiza, kardinala.

San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 5,1-6.9-11: Gugatik hil zen, gu harekin bat eginik bizi gaitezen. Sal 27 [26]: Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenaz, nagusitasunez hitz egiten baitzuen.

Bazen sinagogan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihu bizian hau zioen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzeraz al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!» Deabruak jendartean lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik.

Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espiritu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira».

Jesusen entzutea herrialde hartako bazter guztietara zabaldu zen.

Mintzatzean nabari zaion aginpide eta guzti, jada bere predikua hasieratik beretik egin behar izan die aurre Jesusek gatazkari eta ukoari: «Zer nahi duzu?... Gu garbitzera etorri al zara?» Bera zein den jakin arren —Jainkoaren Santua—, jendeak ez du, batzuetan, bere irizpidean erraz atzera egiten. Eta, zergatik ez esan?, gure «ego»ak ere ez. Beraren ebanjelioak helburu gu «desegitea» balu bezala; hain justu, eta alderantziz, bere helburua gu berregitea duenean, barnetik eta kanpotik! Horregatik, gaurko ebanjelioak Jesusen aurrean bizi ohi dugun erresistentziari antzematera eta aitortzera gonbidatzen gaitu, batez ere tematienari, beti ere erregutuz beraren aginpideak eta hitzak beste hura guztia suntsi dezaten.





IRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Biziera ekoinaunkor bat

Egin dezagun otoitz: Guztiok hartu ahal ditzagun erabaki adoretuak biziera neurritsu eta ekoinaunkor bat egiteko, beronekin konprometitu diren gazteekin poztuz.

Urteko 22. astea.

San Josue, *patriarka*.San Gil (Egidio), *ermitaua*.

[San Paulok Kolosarrei 1,1-8: Zuengana iritsi da Berri Ona, eta lur osora. Sal 52 [51]: Jauna, zure maitasunean dut konfiantza betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbat egiteko eskatu zioten.

Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzairen amaginarreba.

Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkieten, eta hark, bakoitzari eskuak ezarri, sendatu egiten zituen.

Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!» Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela.

Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Baina Jesusek esan zien: «Gainerako herrietan ere adierazi beharra dut Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretara bidali bainau Jainkoak».

Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten

Jesus, gaixoak sendatzen, jende akitua altxatzen eta giza bizitzari tratu txarra ematen ari zaizkion deabrueri aurre egiten... Eta, halaber, otoi ez egiten... Zer harritzekorik jendea beraren bila ibiltzeak? Eta zer harritzekorik jendeak berekin atxiki nahi izateak? Maria Magdalenak ere berekin atxiki nahi izan zuen berpizturik ikusi eta antzeman zionean! Eta zertan aipatu?: Jesusen jarraitzaileok ere geurekin atxiki nahi izaten dugu, «gure jabetza pribatua» izango bailitzan, beraren berri gainerakoei eman gabe... Baina berak ez du uzten atxiki dezagun:

Urteko 22. astea.

San Josue, *patriarka*.

San Gil (Egidio), *ermitaua*.

«beste batzuei ere hots egin beharra dut ebanjelioa: horretarako bidali nau». Bai ederra horrela izatea! Horrela, besteek lagundu egiten digute Jesusen misterioan aberastasun berriak aurkitzen.

Geure begiak baikor egin esperantza berreskuratzeko (1.zatia)

Nola berreskuratu esperantza? Laguntzen ahal zaio pertsona bati esperantza berreskuratzen? Zer eta zein izan daiteke laguntza hau? Zein bide hartzen ahal dugu konpromisoa hartua dugunok Jesusen Berri Ona hots egin eta kutsatzeko?

Esperantzarik gabeko pertsona, bere problema (dena delakoa) gauza ezkor bailitzan ari ohi da bizitzen. Okerrena, ordea, beste hau dateke: problema horretatik abiatuz, beraren esperientzia ezkor hori hedatuz joatea apurka-apurka, olio-txorrota bat bezala, beraren bizitzako beste alde guztietara. Jadanik ez da ezkor izango beraren problema jakin horretaz, baizik eta pertsona osoa joango da ezkor bilakatzen, gauza guztiak beltz ikusten. Problema jakin horrek bizitza guztia hartuko dio. Zeren beharra du pertsona horrek? (J.A. Pagola) (segida irailaren 2an),

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)*.*

[San Paulok Kolosarrei 1,9-14: Berak atera gaitu ilunpearen menpetik eta bere Seme maitearen erreinura aldatu. **Sal 98 [97]:** Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldituta; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendea irakasten jardun zuen.

Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozuneko gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino.

Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaizkien Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez heldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara».

Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

Urteko 22. astea.

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua*, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak* (*Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan*).*

Ikasle izaten, ikasi egiten da bizitzan. Pedrok ere ikasi beharra izan zuen. Gaurkoan ikaste horretan bete-betean murgildurik dakusagu. Lehenengo, bere ontzixoa bakarrik eskatu dio Jesusek, jende gehiagotara iritsi ahal izateko. Zenbat kostatzen den Jaunari eskatzen diguna, eta ez gustatuko litzaigukeena, ematea! Bigarren, aintzat hartu ditu Jesusen hitzak («arraun egizu itsasoan barna»), arrantzuan gau osoa eman duten arren, ezer harrapatu gabe. Zer irakasten ahal zion berari Ezezagun hark, bizitza guztia baitzeraman arrantzuan? «Zure hitzogatik, botako ditut sareak»... eta a zer nolako harrapaketa! Hirugarren, honen guztiaren aurrean, erreakzioa: «urrundu nigandik, Jauna, bekatari naiz eta». Orduan hasi da Pedro benetako ikasle izaten, «giza arrantzale».

Geure begiak baikor egin esperantza berreskuratzeko

(2. zatia, irailaren 1etik dator)

Era soilean esan genezake, beragan kanbio bat gerta dadin beharra duela delako pertsona horrek: bere bizitza guztia problema horren baitan utzi eta jarri gabe, problema jakin hori du ikusi beharra bere bizitza osoa kontuan hartuz. Kontua ez da problema jakin horri garrantzia kentzea, baizik bere bizitza osoan dagokion txokoan ipintzea, dudarik gabe izango baititu beste esperientzia batzuk ere: baikorrak, harremani dagozkienak...

Gehiago eta bizikiago eman behar diogu norberagan, gertaeretan eta problemetan izan ohi diren alde baikorrei erreparatzeari. Guztioi gertatzen zaigu errazago alde ezkurak ikustea. Alde baikorrak hautemateak eta sumatzeak ahalegin eta arreta handiagoak eskatzen ditu. Ebanjelizatzaileok beharrezkoa dugu geure begiak, geure belarriak, etsirik bizi den jendearekiko geure harremanak askoz baikorrago bihurtzea. (J. A. Pagola).

* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

Urteko 22. astea.

San Gregorio Handia, *64. aita santua eta eliz irakaslea.*

[San Paulok Kolosarrei 1,15-20: Gauza guztiak beraren bidez eta berarentzat dira eginak. Sal 100 [99]: Sar zaitzete oihu alai z Jaunaren aurrera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,33-39.

Aldi hartan, fariseuek eta lege-maisuek esan zioten Jesusi: «Joanen ikasleek sarri egiten dute barau eta otoitz, baita fariseuen ikasleek ere; zureak, ordea, jan eta edan ari dira».

Jesusek erantzun zien: «Nolatan nahi duzue ezteietara deituek barau egitea, senar berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau».

Parabola hau ere esan zien: «Inork ez du jantzi berririk urratzen, zaharrari adabakia ipintzeko; bestela, jantzi berria hondatu egingo litzateke, eta zaharrari ez litzaioke berriaren adabakia egoki etorriko.

Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardo berriak zahagiak lehertu egingo litzuzke; ardoa isuri egingo litzateke eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartu behar da. Ardo zaharrarekin ohitua dagoenak ez du berririk nahi, “zaharra hobea duk” esaten baitu».

Ohituradun animalia gara. Ohitura eskuratuak, errutinak, erosotasuna, mesfidantza berri oren aurrean, behin eta berrizko topikoa: «horrela egin izan da beti»... «Gizaki zaharraren» erresistentzia numantziarra, alda dezaten uzten ez duena hori eta horrenbestez. Eta horrela, ebanjelioak dioenez, uste izaten dugu: «ardo zaharra hobea»... eta zertan dastatuko dugu berria? Auskalo nolakoa den! Jesusenak, ordea, berritasuna du ekartzen eta eskatzen. Eta ez da egokitzen hain erraz zaharrarekin. Dilindan jartzen du Jesusen berritasun horrek zaharra. Are gehiago, eska diezaguke hura alde batera uztea ere. Bai, ebanjelioak berritasuna nahi du. Halere, «senargaia geurekin ukaitearen» poza kutsatua den berritasuna da. Eta bera geurekin badugu, nor gure aurka?

Urteko 22. astea.
San Moises, *profeta*.

[San Paulok Kolosarrei 1,21-23: Berekin adiskidetu zaituzte Jainkoak, beraren aurrean santu eta errugabe ager zaitezten. Sal 54 [53]: Nik Jainkoa dut laguntzaile.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,1-5.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak galburuak moztu, eskuetan aletu eta jaten ari ziren.

Fariseu batzuek esan zieten: «Nolatan ari zarete, larunbatez zilegi ez dena egiten?»

Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zuena, bera eta beraren lagunak goseak gertatu zirenean? Jainkoaren etxean sartu eta, Jaunari eskainiriko ogiak hartuz, jan egin zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaketen ogiak izanik».

Eta esan zien: «Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

Ironia krudela, gizakiaren onerako emanak izan diren lege hauen zoria (eta hauetakoa zen larunbata eratu izana), gizaki berorren etsairik okerren bihurtu baitira. Horregatik, onuragarri gertatzen da batzuetan lege horien historia eta pasadizoa gogora ekartzea (Jesusek Daviden pasadizoa kontatu duenean bezala: Davidek tenpluko ogiak jan zituela kontatzen baitu, bere ikasleen jokabidea zurrizteko); hain zuzen ere, kontura gaitetzen zertaraino okertu bide dugun legearen zentzua. Eta, batez ere, atzera itzultzeko, jatorrizko zentzura alegia, gogoan izanik ezen inoiz ere ez genuela ahaztu behar gizakiarentzat egina dela legea eta ez gizakia legearentzat.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*. Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea* (*Karitateko Misiolariak*).
Angostoko Andre Maria (irailako 1. igandea)

§ Isaias Profetaren liburutik 35,4-7a.

Esan bihotz-beldurtiei:

«Eutsi gogor! Ez beldur izan! Horra zuen Jainkoa!

Hura bera dator zuek salbatzera eta merezia duten zigorra etsaiei ematera».

Orduan, itsuen begiak irekiko dira eta gorren belarriak zabalduko; herrenak basahuntzak bezala jauzi egingo du eta mutuaren mihiak oihu egingo pozez.

Urak sortuko dira basamortuan eta errekek eremuan; lur idorra aintzira bihurtuko da eta lur agorra iturri.

[Sal 146 [145]: Goretsazu Jauna, ene barrena.]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 2, 1-5.

Ene senideok: Ezin elkartuak dira Jesu Kristo gure Jaun aintzatsuagan duzuen sinesmena eta pertsonen artean bereizketa egitea.

Eman dezagun zuen batzarrean bi gizon sartzen direla, bata aberatsa, urrezko eraztunez eta dotore jantzia, eta bestea pobrea, zarpail jantzia; eta dotore jantzitakoari sekulako begiramenez esaten diozuela: «Eseri zu hemen, ohorezko tokian»; pobreaki, berriz: «Hago hi hor zutik» edota «jar adi lurrean, nire oinazpikoaren ondoan». Horrela jokatzu, ez al zarete zeuen artean bereizketa egiten ari, eta ez al duzue irizpide okerrez epaitzen?

Entzun, ene senide maiteok: Ez al ditu aukeratu Jainkoak munduaren begietan pobre direnak, sinesmenez aberats izateko eta bera maite dutenei agindutako erreinua ondareztat jasotzeko?

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37.

Aldi hartan, utzi zuen Jesusek Tiro aldea eta, Sidonen barna, Galileako itsasora itzuli zen berriro, Dekapolisko lurraldean zehar.

Urteko 23. astea.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*. Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea* (*Karitateko Misiolariak*).

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)

Gizon gor eta hitz-motela eraman zioten, eta eskua gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jendeagandik aparte harturik, hatzak belarrietan sartu zizkion eta listuz mihia ukitu. Gero, zerurantz begiratzuz, hasperen egin eta esan zion: «Effeta», hau da, «ireki». Eta une berean, belarriak ireki zitzaizkion, mihia askatu eta garbi hitz egiten hasi zen.

Gertatua inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina zenbat eta gehiago agindu, orduan eta areago zabaltzen zuten.

Biziki harrituta, hau zioten: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea».

Noizbait ohartarazi izan digute, ezen, komunikazioaren aroan bizi arren, (komunikabideen teknologia tximistaren abiaduran garatu da), arrisku bizia dugula inkomunikazio sakonean bizitzeko. Ez da batere ezohikoa jende-talde baten eszena hau ikustea: guztiak nor bere mugikorra eskuan eta hari itsatsia batez ere, eta ondoan duenari arretarik eskaini gabe. Ematen du gor gabela eta, gainera, doi-doi hitz egiten dugu, gaurko ebanjelioko gormutuaren antzera. Geure mundu koxkorrean nor bere buruari emanik eta triku bihurturik bizitzeko arriskua dugu, eta inguruan gertatuari irristan joaten uztekoa. Jarraitzen diogu, bai, eta, gainera, denbora errealean: baina benetan axola al zaigu? Eragiten al digu? «Ukitzen» al digu bihotza? Jesusen hitzak —Effeta: ireki zaitetz— lokartze honetatik esna gaitzakeen iratzargailuak bezala jotzen du. Hitz horrek ibilaldi baten hasiera bezala aurkezten digu Ebanjelioa («bereiz hartu zuen... sartu zizkion hatzak belarrietan... ukitu zion mihia listuaz»). Batzuetan mingarri izaten da, beraren azken arrakastaz etsitzen dugula («zerura begira, hasperen egin zuen»). Baina, hori eta guzti, ez genioke uko egin behar. Aitzitik, Jesusen hitza errepikatu beharko genuke: Effeta, ireki zakizkio... errealitateari... lagun hurkoari... Jainkoari!

Urteko 23. astea.

San Eleuterio, *abadea*.

[San Paulok Kolosarrei 1,24–2,3: Jainkoak Elizaren zerbitzari egin nau gizaldietan ezkutan egona den misterioa zuei adierazteko. Sal 62 [61]: Jainkoagan nire salbamera eta ohorea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa elbarria zuen gizon bat.

Lege-maisuak eta fariseuak zelatan zegozkion, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek, haien gogoetei igarririk, beso-elbarriari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona, erdira». Hura jaiki eta zutik gelditu zen.

Jesusek esan zien orduan: «Galdera bat: larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?»

Eta, inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen eta sendatu egin zitzaion.

Lege-maisuak eta fariseuak beren onetik atera ziren eta Jesusi zer egingo ari ziren beren artean.

Jesusen garaian bete ohi zen bezala, jendea zurrun uzten zuen legea zen larunbataren legea. Hartaraino zuten ahaztua lege baten zentzua, berez gizatasun-faktoretzat, gizakia gizatiartzeko, emana zenarena! Batzuentzat, ez zegoen argi ongia ala gaizkia egin behar zen; bizitza onik atera ala galdu egin behar zen. Hau da, ez zen batere begi-bistako guztiz begi-bistakoa zena. Horretaraino iristen zen jendearen itsutasuna! «Jar zaitetz erdian», esan dio Jesusek gaixoari. Ikus zaitzaten. Baina, batzuetan begi-bistako denaren aurrean itsu dena, are itsuago bihur daiteke. Horregatik, eska dezagun, ikus dezagula errealitatea guk, beraren jarraitzaileok, den bezala, argitu gaitzala eta bihotz-berritu!

Urteko 23. astea.

Santa Regina, *martiria*.

[San Paulok Kolosarrei 2, 6-15: Jainkoak biziarazi egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. Sal 145 [144]: Ona da Jauna guztientzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena.

Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituena.

Otoitz egin eta Hamabiak hautatu ondoren, mendian behera jaitsi da Jesus beraiekin, eta jendearekin topo egin du, berak sendatu zain. Beragandik, izan ere, denak sendatzen zituen indarra irteten zen. Lautada batean gelditu dira: horrela irisgarri izango da guztientzat. Jesusekin topo egiteak, jendearekin eta berorren sufrimenduekin topo egitera eraman ohi gaitu berehala. Gauza bera gertatu zitzaion Moisesi: han, Horeb mendian, laharra sutan baina erre gabe ikusi zuen hartan, Jaunaren ahotsa entzun zuen berari esaten: «neure herriaren intziria entzun dut eta nola zapaltzen duten egiptoarrek. Zoaz; izan ere...». Horrela behar du izan gurekin ere, dena Jaunarekin benetako topo egite izan dadin.

§ Mikeasen Profezia liburutik 5, 1-4a.

Honela mintzo da Jauna:

«Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zugandik aterako da Israelen buruzagia. Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte.

Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira. Sendo eutsiko dio eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez, Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz. Lasai biziko dira herritarrak; handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino, eta bakea ekarriko du».

[Sal 13 [12]: Pozaren pozez nago Jaunarekin.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,1-16.18-23.

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua.

Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonen Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea.

Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesen Amon, Amonek Josias; Josiasen Babiloniako erbestealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta Babiloniako erbestealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim,

Urteko 23. astea.

ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOITZA.

Artziniegako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko...

Andre Maria.

Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emanuel ipiniko diote izena (Emanuel izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».

Mateok hasi bezala bukatu du ebanjelioa: Jainkoa-gurekin da Jainkoa. Horren testigantza dagite, bai gaurko testuak, bai azkenak («ni zeuekin izango nauzue, munduaren azkena arte»). «Gurekin»: denetik izan duen historia bere-bere eginez. Horrela dakusagu genealogia honetako izenetan: pertsonak, zeinez izena bakarrik ezagutzen baitugu... eta pertsonak, zeinen hutsegite zaratatsuak ezagunak baititugu... edota pertsonak, zeinak beren balio gizatar eta fededunagatik ezagutzen baititugu. Beraien artean, Nazareteko Maria nabarmendu eta gailendu da. Jainkoak beraren eta Jose beraren senarraren bizitzan egin duen sarraldiaren aurrean izan duen erreakzioa: ez zalantzarik eta ilunik gabea Jainkoaren asmoen aurrean. Baina, orenen gainetik, erabat prest.

[San Paulok Kolosarrei 3,12-17: Izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Sal 150: Gorets beza Jauna arnasa duen orok!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 27-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteeek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan.

Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitetze errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala.

Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri bete, sakatua, estutua eta leporainekoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurriz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Que Déu lo faça bon cristià!, irakurtzen da Pedro Claver-en bataio-agirian. «Jainkoak egin dezala kristau on». Gutxi imajinatuko

Urteko 23. astea.

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita.*

(*Ikus beherago Arantzazuko Andre Mariaren Meza*).

zuen «mosén» on hark beraren hitzak, segur aski protokoloz idatziak, errealitate bikain bilakatuko zirela haur harengan! Zeren eta horixe izan baitzen Pedro Claver: kristau on. Bere bizieraz jaulki zuen Pedro isiltasunari emanak homiliarik hobena gaurko ebanjelioaz: maitasunean aurrea hartuz eta hartan jarraituz, ezin ulertzeetan beretan ere; bere burua emanetz!, neurririk gabe, eta, batez ere, esklabo beltzei gupida agertuz, beraien biziera gizatiartuz eta duineko bihurtuz, maite gaituen eta arrazaren, sinesteen eta gizarte-izaeraren gainetik anai-arreba ikusten gaituen Jainkoaren seme-alaba zirela sentiaraziz.

[Arantzazuko Andre Mariaren Meza. Judit liburutik 15,8-10; 16,13-14. Salmoa: Lukas 1,46-54].

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

Arantzazuko Ama

Gaur ospatzen ari gara Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako Zaindariaren, eguna. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok

Urteko 23. astea.

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita.*

(Baltzategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela.

«Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa-egun honetako ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekit zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betea ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

Pedro Klaver Verdu-n jaio zen, Espainian, 1580an. Humanitateak eta filosofia Bartzelonako Unibertsitatean ikasten hasi zen 1596an, eta 1602an Jesusen Lagundian sartu zen. Misio deia, batez ere, Mallorkako Lagundiaren Kolegioko atezain Alonso Rodriguez santuari esker sentitu zuen. Apaiz Kolonbiako misioan 1616an ordenatua, hantxe bertan egin zituen bere apostolu-lanak, hil arte, beltzen artean. Bere osasuna galdurik, Kolonbiako Cartagenan hil zen 1654-09-08an. Leon XIII.ak 1888an santu deklaratu zuen, eta geroago, 1896an Erromako Gotzain berak beltzen arteko misioen patroiz berezi izendatu zuen.

Urteko 23. astea.

San Nikolas Tolentino-koa, *aitorlea*.

Frantzisko Garate (Loiola 1857 – Bilbo 1929),

dohatsua, jesuita.

[San Paulok 1 Timoteori 1,1-2.12-14: Ni lehenago biraolari izan nintzen, baina nitaz errukitu egin zen Jainkoa. Sal 16 [15]: Zu zara, Jauna, nire ondarea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,39-42.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote daiteke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinakoa izango da.

Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula?

Itxurazalea halakoa! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

«**Z**uekin kristau naiz, zuentzat gotzain. Lehena kontsolamendubide dut; bigarrena kezka-bide», idatzi zien San Agustinek Hiponako bere elizbarrutikoei. Ikasle izatea, Jesusi jarraitzea, geure ohoretitulurik handiena dugu. Herri izateko gustua, esan izan du Frantzisko aita santuak. Beren Maisuaren gero eta antzekoago izan nahi duten ikasle; Maisua bezalako izatera iristea... Nahiz eta ondotxo dakigun helmuga honek asintotiko, atzemanekin izaten jarraitzen duela. Baina, halere, ahalik hurbilenetik saiatzen gara berari jarraitzen. Eta ikasle bagara, baita ikaskide (ikasle-kide) ere, batak bestea lagunduz; batak bestea zuzenduz, besteari zuzendu gaitzan utziz; konbentziturik, aparrik gabe, ezen gehiago dela hartzen duguna ematen duguna baino.

Tomas Zumarragakoa (Gasteiz 1577 – Japonia 1622),
dohatsua, apaiza, eta lagunak, martiriak
(Gasteizko elizbarrutian).

[San Paulok 1 Timoteori 1, 15-17: Bekatariak salbatzera etorri zen Kristo Jesus mundura. Sal 113 [112]: Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena, orain eta beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,43-49.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik mahatsik hartzen ere. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaitzakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka dariona esaten baitu.

Zergatik esaten didazue “Jauna, Jauna!” eta ez duzue egiten esaten dizuedana? Erakutsiko dizuet noren antzeko den nigana etorri eta nire hitzak entzun eta betetzen dituen: etxea eraikitzean, zulatu, sakondu eta zimenduak harkaitzean hartu zituen gizonaren antzekoa da. Uholdea gertatzean, jo zuen ur-boladak etxea, baina ezin izan zuen dardararazi, sendo eraikia baitzegoen.

Entzun bai, baina betetzen ez dituen, berriz, etxea lur gainean, zimendurik gabe, eraiki zuen gizonaren antzekoa da. Jo zuen ur-boladak eta berehala erori zen eta erabat porrokatua gelditu».

«**B**ihotzari darionaz mintzo da ahoa». Bihotza da gizakiaren erdigunea, dena bateratzen duena. Ezin izan da inor gaizto, ezin eman du inork fruitu txarririk, bihotza ona badu; ezin izan da inor on, bihotza gaiztoa eta fruitu txarrak ematen baditu. Bada koherentzia bat bihotza izatearen eta gainerakoen alde emandako fruituen artean. Horregatik, ezin dei egin diogu Jaunari, haren gogoa gudan bete dadin utzi gabe. Horrenbestez, bihotza ez da bateratzaile bakarrik: sendotasun-iturri da, gainera. Arroka gainean eraikitako etxe hauek bezalako bihurtzen gara: ez ezerk, ez inork kordokatu ezin dituen horietako bezalako. Ez dezagun ahaztu, San Pauloren arabera, Kristo da arroka.

Urteko 24. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

(ikus beherago Estibalizko Andre Mariaren Meza).

§ Isaías Profetaren liburutik 50, 5-9a.

Jaingo Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo. Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masaila bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Ondoan dut defendatzailea: nork eraman ni auzitara? Aurkez gaitezen elkarrekin! Nork du nirekin auzirik? Datorrela! Hara, Jaingo Jauna dut laguntzaile: nork kondenatuko nau?

[Sal 116 [114]: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizidunen lurraldean.]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 2, 14-18.

Ene senideok: Zertako du batek «nik badut fedea» esatea, egintzetan ez badu azaltzen? Horrelako fedea salba ote dezake?

Anaiaren nahiz arrebaren batek zer jantzirik edota eguneroko janik ez badu, eta zuetako batek esaten badio: «Zoaz bakean, bero zaitetz eta ase», baina behar duen laguntza ematen ez, zertako balio du horrek? Halaxe fedea ere: bera bakarrik, egintzarik gabe, hilik dago.

Norbaitek esan dezake: «Zuk fedea duzu; nik, berriz, egintzak». Bada, nik esaten dizut: Erakustazu egintzarik gabeko zeure fedea, eta nik egintzen bidez erakutsiko dizut neure fedea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,27-35.

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzoetara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarella; beste batzuek Elias; besteek profetaren bat». Jesus ek berriro

Urteko 24. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara».

Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Orduan, irakasten hasi zitzaien, Gizonaren Semeak asko sufritu beharra zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztuko zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzaien honetaz.

Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesusek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanas! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Jesusek jendeari eta ikasleei dei egin eta esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin diezaiola bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai diezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigaratik eta Berri Onagaratik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du».

Jesusek oso argi du bere bidea. Jendeak nahi dituen uste guztiak izan ditzake berari buruz. Alderatan ahal du bera herriaren historiako oinarrizko pertsonaiekin: Joan Bataiatzailea dela, Elias dela, Profetaren bat dela. Ematen du, hori ez zaiola axola. Aitzitik, inporta zaiona, jarraitzaileek, ikasleek, berari buruz duten ustea da: «zuek, nor naizela diozue?» Inporta zaio, halaber, argi uztea, beraren Mesias izateko era ez dela galduko triunfalismoaren harat-honat zoroetan. Honetan ez du onartuko, inolaz ere, ez ezerk ez inork desbidera dezan bere bidetik, batez ere bera, baina ezta ikasleak ere. Horregatik, Pedrok bereiz hartu duenean (hau da, bere bidetik desbideratu nahi izan duenean), gogor egin dio agiraka («Santanas» izena bera emanez), Jainkoak bezala pentsatzen ez duelako, baizik eta gizon-emakumeek bezala. Eta gu? Batzuetan hain buru-ustetsu izaten gara, non Jainkoari berari irakasteko eskubidedun sentitzen baikara! Baita, batzuetan, nork bere burua babesteko ere... Orduan, Jesusek ez du izaten beste erremediorik, ikasleei (eta jendeari oro har... eta guri) jarraipenaren

Urteko 24. astea.

Estibalziko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

hasi-masiak gogora ekartzea baizik: gurutzea lepoan hartzea, nork bere bizia ematea... salbatzeko.

[Estibalziko Andre Mariaren Meza. Sirak 24,1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia. **Salmoa: 1 Samuel:** Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat neure barrua,
Jainkoa baita nire salbamena,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Estibalziko Andre Maria Birjina

Estibalziko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalziko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian.

Urteko 24. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren lehen ospatu ohi zuten– eta irailako igande batean, ziur aski Estibalizko Andre Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrek beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenaz geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*).

●Estibalizko Ama maitea: / Izar eder eta zeruko atea:
Pozturik agurtzen zaitugu, / pozturik agurtzen zaitugu.

●Goratua zu zeru gainean, / bedeinkatua lur zabalean.
Agur zuri, biotzez Agur! / Ama maite, biotzez Agur!

1. Arabako lurretan / sinismen gaztelu bat / zeruak eman zion / Euskalerriari.
/ Ordutik, Ama maite, / izan zera guretzat / zoritxar-illunpetan / izar ditzizari.
2. Arriagako Batzar / Nagusietarako / Zu jeitxi oi zinduten / San Juan bezperan;
/ Argatik dira gure / Oitura eta Legeak / ain garbi: Zuri eskutik / artuak aukeran.

(Errepika Lekuonatarrena omen: osaba-ilobena, eta bertsoak Nemesio Etxanizenak).

Urteko 24. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[San Paulok 1 Timoteori 2,1-8: Egin otoitz Jainkoari gizaki guztien alde, gizaki guztiak salbatzea nahi baitu berak. Sal 28 [27]: Bedeinkatua Jauna, entzun baitu nire erregu-oihua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,1-10.

Aldi hartan, Jesus, herriari egindako hitzaldia amaiturik, Kafarnaumen sartu zen. Bazen han erromatar ehuntari bat, eta honek morroi bat zuen, oso maitea; morroia gaizki zegoen, hiltzorian. Ehuntariak, Jesusen berri entzunik, judu buruzagi batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko erreguaz.

Haiek, Jesusengana joanik, arren eta arren eskatu zioten: «Merezi du Zuk hori egitea, maite baitu gure herria eta berak egin digu sinagoga ere».

Jesus haiekin joan zen. Etxera hurbilduxea zela, lagun batzuk bidali zizkion ehuntariak, esatera: «Ez hartu nekerik, Jauna, ni ez bainaiz inor Zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez naiz ausartu neu zugana joaten; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hau entzutean, Jesus harritu egin zen hartaz eta, ondoren zetorkion jendeagana itzulirik, esan zuen: «Egia esan, Israelen bertan ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik». Mandatariak etxera itzuli zirenean, sendatua aurkitu zuten morroia

«**N**i ez naiz nor zu nire etxean sartzeko». Gaurko ebanjelioko hitzak abegi edo harrera bertuteaz mintzo zaizkigu. Gogora ditzagun Hebrearrei idatzitako hitz hauek: «batzuek, jakin gabe, aingeruei egin zieten abegi»; baita beneditar esaera hau ere: «arrotz bat datorrela?; Kristo bera dator». Gure hau bezalakoaldi honetan gaurkotasun bizia

Urteko 24. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

du ten hitzak dira; izan ere, hainbat eta hainbat jende dabil, esan ezineko sufrimenduei ihes eginez, aukera hobe batzuen eta bizitza duinago baten bila..... bitartean beste batzuek murruek eraikitzeari eman baitiote beste haiei bidea eragozteko. Hondo-hondoan, guk badakigu, ezen jende horri abegi eginez, Jesusi berari egiten diogula. Eta Jesusi eginez, hondo-hondoan geuri digula berak abegi egiten.

San Joan Krisostomo Antiokian (gaurko Turkia) jaio zen 349an. Hemezortzi urte zituela, 368an, bataiatu zuten. Monasterioan bizi izan ondoren, 386an diakono eta berehala apaiz ordenatu zuen Flaviano apezpikuak. 386-398 bitartean predikazioa izan zuen bere zerbitzurik ospetsuena. Exegesia eta dogma, alde batetik, eta moralia, bestetik, zituen homilien ardatz. Konstantinoplako patriarka izendatu zuten 397an. Homilia sutuak egin zituen handikien, agintarien eta enperadorearen gorteko gehiegikeria, luxu eta neurrigabekerien aurka eta behartsuak defendituz: «Izan ostatu Kristorentzat. Gurdiak gordetzeko baduzue tokirik, eta noraezean dabilen Kristorentzat ez».

Enperatrizak agindurik, 403an erbesteratu egin zuten. Arkadio enperadoreak herriratu zuen berriz. 404an, ordea, berriz erbesteratu zuen Eudoxiak, Itsaso Beltza-ko eskualdera. Erbestera zihoala, Komana hirian hil zen, irailaren 14an, «aintza Jainkoari denagatik. Amen» esanez.

Erbestera abiatu aurretik esan zuen: «Ez naiz heriotzaren beldur, eta ez dut aberastasunen ametsik. Ez dut bizitzeko gogorik, zuen mesede espiritualerako ez bada... Jainkoak bidali nazala noranahi; eskerrak emango dizkiot alde guztietan». Pobreen aldekoa zen: «Pobreei ematea Jainkoari ematea da. Ipini Jainkoa zuen esklaboen maila berean; testamentuz zuen esklaboei askatasuna ematen badiezu, askatu Kristo gosetik, premiatik, kartzelatik, biluzik egotetik».

Urteko 24. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

§ Zenbakiak liburutik 21,4b-9.

Egun haietan, herria, bideaz gogaituta, gaizki esaka hasi zen Jainkoaren eta Moisesen aurka: «Zertako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperturik gaude mana delako janari kaskar honekin».

Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkion herriari, eta haien ziztadaz israeldar asko hil zen. Orduan, Moisesengana joan eta esan zioten: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra gaizki esaka jardunez. Erregutu Jaunari sugeak gugandik urruntzeko».

Erregutu zuen Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu brontzeko suge bat eta ipini haga baten muturrean. Sugeek zizta egindako guztiak, brontzeko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira». Egin zuen Moisesek brontzeko sugea eta hagaren muturrean ipini zuen. Eta sugeren batek norbaiti zizta egiten zionean, brontzekoari begiratzean sendatu egiten zen.

[Sal 78 [77]: Ez ahaztu Jaunaren egintza handiez.]

§ San Paulok Filipinoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklaboz-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gaineratik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurpean eta lurpean, eta mihi guztiek aitortu dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Ez da inor zerura igo, zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan brontzeko

Urteko 24. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

suega altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme Bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondentazera, haren bitartez mundua salbatzera baizik».

Israeldarrei basamortuan sugeari begira jarri eta sendatu egiten zitzaizkien mizto hilkorrak eragindako zauriak; gauza bera geuk ere: gurutzeari begira jarri nahi dugu geure zauriak sendatzeko. Ez diogu egin nahi ezikusiarena inongo zaurituri, ezta beste alde batera begiratu ere, lebitar batek eta apaiz batek bide ertzean zauriturik zegoenarekin egin zuten bezala. Gurutzeari begira jartzean jabetzen gara zertaraino iritsi den gizakiaren, gure, bekatua, eta, aldi berean, zertaraino iritsi diren Jainkoak gurekiko dituen maitasuna eta errukia. Jainkoa: «hainbestearaino maite baitu mundua, bere Seme Bakarra eman baitio... gaitzesteko ez, baizik eta salbatzeko». Beraz, jar gaitezen Gurutziltzatuauren zauriei begira, eska diezaiogun, Ignaziok bezala, senda gaitzala, esanez: «zeure zaurien barnean, gorde nazazu».

Urteko 24. astea.

DOLORETAKO ANDRE MARIA.

[San Paulok 1 Timoteori 3,14-16: Handia da gure erlijioaren misterioa.
Sal 111 [110]: Jaunak eginak handi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19, 25-27.

Aldi hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!» Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!»

Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Gurutzearen oinean jaio da Jesusen familia berria, Eliza, «Horra zeure semea... horra zeure ama». Jesusen ikasleek, Maria haren ama aurrean dutela, ezin egin diete inoiz ere ezikusiarena gurutzeez beren besoetan dituztenei, iltzaturik, lurreko gurutziltzatuei (etorkinak, «etxerik gabeak», behartsuak, edozein zapalketaren biktimak, pertsegituak, presoak...). Han, gurutzearen oinean, geure anai-arrebatzat sentitzen ditugu, hala baitira!, beraiekin partekatzen ditugu beraien oinazeak, eta beraiekin espero dugu azken Piztuera. Azken hitza ez baitu izango herioak, baizik eta Biziak, betiko. Eta, solidario garelarik, jada esperimentatzen hasiak gara Bizi hori.

Neurtitza (Doloretako Andre Mariarena)

Zutik, gurutze ondoan, / Ama samina zegoan, / eta Semea zintzilik.
/ Haren arimaren mina!, / zazpi ezpatek egina, / han zegoan larririk.

Hain estu eta atsekabea, / Seme bakardun Andrea, / Ama bedeinkatua!
/ Oinazez eta atsekabez, / Seme kutunaren lanez / zegoen kupitua.

Urteko 24. astea.

DOLORETAKO ANDRE MARIA.

Nork ez du negar egingo, / Jesusen Ama halako oinazez ikusita? /
Ama Semeak ikustean / biak oinaze berean / elkarrekin josita?

Bazekien beretarren / erruz zutela zigortzen / Jesus, bere maitea.
/ Inortxok ere ez laguntzen, / eta azken arnasa ematen / han zekusan
Semea.

Hots, Ama, maite-iturri, / zurekin oinaze bizi / har dezadan egizu.
/ Sutu Kristoren maitean / bihotz hau, eta haren aurrean / eder egin
nazazu.

Ama, nire bihotzari / Kristoren zauriak jarri, / otoi, mami-mamian.
/ Seme horren neke-lanak / erdiz bidal niregana, / maite nauen sarian.

Zurekin negar bizian / naukazu, eta haren zorian, / hil nadin
arteraino. / Zurekin gurutze ondoan / lagunduz, negar malkoan /
nagon bizi naizeino.

Birjinetan ederrena, / zakizkit samurrena, / niri negar eragin. /
Kristoren neke-herio / zauriak hartzeko, bihotz / hau adoretu egin.

Zauri ni zeure zauriez, / zora ni zeure odolez, / gurutze-iturripean.
/ Sugarrez erre ez nazaten / nire alde jarri, arren, / Ama azken egunean.

Hemendik irtetekoan, / Amaren bidez ni noan, / Kristo, garaipenera.
/ Nire gorputz hau hiltzean, / arima doala hegan / Zeruko pozetara.
Amen.

Urteko 24. astea.

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

[San Paulok 1 Timoteori 4,12-16: Egin kontu zeure buruari eta irakaspenari; hori eginez, salbatuko baitituzu bai zeure burua, bai entzuleak. Sal 111 [110]: Jaunak eginak handi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,36-50.

Aldi hartan, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaian jarri zen.

Honetan, emakume bat, herrian bekatari bezala ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. Jesusen atzean, oinen ondoan, jarri zen negarrez, eta haren oinak malkoz bustitzen hasi zen; gero, ileaz xukatu eta musukatu ondoren, ukenduz gantzutu zizkion.

Hau ikusirik, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: «Gizon honek, benetan profeta balitz, jakin behar luke zer-nolakoa den bera ukitzen ari den emakumea, bekataria baita».

Jesusek esan zion: «Simon, badut zerbait zuri esateko». Hark erantzun: «Esazu, Maisu».

«Mailegu-emaile batek bi zordun zituen: batak bostehun denario zor zizkion, eta besteak berrogeita hamar. Nondik ordaindu ez zutelarik, barkatu egin zien biei. Bietako zeinek izango ote du maiteen?» Simonek erantzun zion: «Gehien barkatu zaionak, nik uste». Jesusek esan zion: «Zuzen diozu».

Eta, emakumeagana itzulirik, Simoni esan zion: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naizenean, zuk ez didazu oinak garbitzeko urik eman; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak eta bere ileaz xukatu. Zuk ez nauzu musu emanez agurtu; hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu nire oinei musuka. Zuk ez didazu burua olio z gantzutu; honek, berriz, oinak ukenduz gantzutu dizkit. Hau diotsut, beraz: hainbesteko maitasuna agertzen duenean, bekatu asko barkatu zaion seinale da; gutxi barkatu zaionak maitasun txikia agertzen du». Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu bekatuak».

Urteko 24. astea.

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

Beste bazkaltiarrek beren artean esaten hasi ziren: «Nor ote dugu bekatuak barkatu ere egiten dituen hau?»

Baina Jesusek esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

«**G**izon hau, profeta izango balitz, konturatuko litzateke zer tterajetako emakumea den begi-bistan duen hau»: hori du kaskoan Simon fariseuak. Alabaina, bizitzako ironia!, agian bera da, Simon, konturatu ez dena. Maitasunak bakarrik ematen digu bide pertsona bat benetan ezagutzeko. Eta, horregatik, bekatuen barkamena maitasunarekin erlazionatu du Jesusek: emakume honi asko barkatu diot berak asko maite nauelako; gutxi maite duenari gutxi barkatzen zaio. Ignaziok hasieratik, Gogo Jardunetan, Gurutziltzatuen aurrez aurre jarri gaitu: berak guregatik zer egin duen ikustean, hobeto ikusten dugu zer behar dugun egin beragatik.

Emakumea islamen

(1. zatia)

Islam erlijioak 1500 milioi jarraitzaile ditu; 25 milioi inguru Europan, 2 milioi Espainian, eta garrantzizko protagonismoa nazioarte-mailan. Emakumearen egoerak erlijio horretan analisi zorrotza eskatzen du, gizon-emakumeen arteko parekotasunari dagokionez, gizarte anai-arreba arteko bat eraikitze aldera. Hau da, gizarte bereizketarik gabea generoari dagokionez, orobat etniari, kulturari, erlijioari, gizarte-mailari, nortasun sexualari, jatorri geografikoari etab.i dagokionez ere; izan ere, kultura eta erlijio guztietan emakumeak dira marjinazio interseksionala gehienik jasaten dutenak. (Juan José Tamayo, Religión Digital 2019-08-16; segida irailaren 18an).

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita.*

[San Paulok 1 Timoteori 6, 2c-12: Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitez justizian. Sal 49 [48]: Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,1-3.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren Berri Ona hots egiten. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatua zuen zenbait emakume ere: Maria Magdalena –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen ethezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko; hauek beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

Jesusen elkarreak, bere hasieratik beretik, inolako bereizmenik gabe ekin nahi izan dio bere ibiliari. «Kristoz jantzi direnen artean ez dago alderik juduen eta greziarren artean, esklaboen eta askeen artean, gizonezkoen eta emakumeen artean. Denak bat dira Kristo Jesusengan» (Paulo). Eta Lukasek gustukoa du gogoraztea, Jesusek Hamabiak eta emakume batzuk izan ohi zituela bidelagun. Emakumeak garai hartan eskubiderik ez zuen talde bateko partaide ziren, gaur oraino sektore batzuetan (besteak beste, gure Eliza) aski aintzat hartua ez den taldeko. Gurutzearen oinean egon zirelako, Berpiztuaren lehen agerpenez faboratu zituen Jainkoak —ebanjelioaren iragarpenaren muinaz—, eta aipatu iragarpenaren lehen apostolu izan ziren.

Karlos Eraña (Aretxabaleta), Fidel Fuidio (Araba) eta Jesus Hita (Errioxa), *dohatsuak, marianistak eta martiriak (1936)*.
San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*.

[San Paulok 1 Timoteori 6, 13-16: Bete agindua akatsik gabe, Jauna agertuko den eguna arte. Sal 100 [99]: Sar zaitetze oihu alaiz Jaunaren aurrera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,4-15.

Aldi hartan, herri guztietatik jendetza handia bildu zitzaion batean, Jesusek parabola hau esan zien: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta zapaldu egin zuten eta txoriek jan. Beste zenbait harri artean erori zen eta, erne orduko, ihartu egin zen, hezetasunik ez zuelako. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, harekin batera emerik, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne eta bateko ehun eman zuten fruitua».

Hau esanik, honela egin zuen oihu: «Entzuteko belarririk duenak entzun beza».

Orduan, parabola honek zer esan nahi zuen galdetu zioten ikasleek Jesusi. Honek erantzun zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioak ezagutzea; besteei, ordea, parabola bidez hitz egiten diet. Horrela, begiratzen dute, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez.

Hona, bada, parabolaren esanahia: Hazia Jainkoaren hitza da. Bide bazterreko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina deabrua etortzen zaie eta kendu egiten die hitza beren bihotzetik, sinetsi eta salba ez daitezten. Harri arteko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzutean pozik hartzen dutenak; baina, sustrairik gabeak izanik, denboraldi batean sinesten dute, baina tentaldi-garaian atzera egiten dute. Sasi artean eroritako hazia bezalakoak beste hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina bizitzako arduren, diruaren eta atseginen artean itota gelditzen dira eta ez dira iristen fruitua ematera.

Lur oneko hazia bezalakoak, berriz, hauek dira: hitza bihotz onez eta zabalez entzunik, barruan gorde eta iraupenez fruitua ematen dutenak».

Urteko 24. astea.

Karlos Eraña (Aretxabaleta), Fidel Fuidio (Araba) eta Jesus Hita (Errioxa), *dohatsuak, marianistak eta martiriak (1936)*.
San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*.

Jendetza handia du Jesusek segika, eta herrietan barna doan heinean handiagoa da jendetza. Testuan den-denak du ugaritasunaren zentzua. Jendetza handia... Hazia ugari. Ereileak ere, ereitera irten denean, ugaritasun-zentzuz dihardu, ezertan urri ibili gabe hazia ereitean. Lur-mota guztietan erein du, kalkulu ziztrinik gabe. Alde honetatik, Jainkoa bera da urri ibili gabe bere Hitza, bere maitasuna eta bere errukia ereiten dituen, gu guztiontzat. Mugarik gabe ari da ematen. Badaki, haziak emango duen fruitua, bera hartuko dutenen harikoa izango dela. Gure esku dagoke, hitz hori «bihotz jator eta zabalez» onartuz, besteen onerako fruitua ematea.

Emakumea islamen

(2. zatia; irailaren 16tik dator)

Islamaren eta emakume musulmanen kasuan, estereotipo eskuarki ezkorrekin juzgatzeko joera nabari da. Ematen da, islama erlijio patriarkala dela eta misoginoa berez. «Emakume musulmanak» aipatu ohi dira, segidako ezaugarri hauek izango lituzketen kategoria uniformatzaile bezala: belodun, etxean hesitu, jendaurretik baztertu, jakitetik urrundu, mendeko, gizeonezkoen menpeko, biktima bihurtu etab. bailiran.

Irudi hauek desarmaturik gelditu ziren «Arabiar Udaberriak» zirelakoetan; haietan protagonista handi izan ziren manifestaziotan eta lider sare sozialetan emakumeak, belodun eta belo gabe, etxekoandre eta profesional, sinestedun eta sinesgabe, gazteriarekin batean. (Juan José Tamayo, Religión Digital 2019-08-16).

Urteko 25. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

§ Jakinduria liburutik 2, 12a. 17-20.

Hau zioten gaiztoek:

«Jar diezazkiogun sareak zintzoari; ikus dezagun esaten duena egia den ala ez, azter dezagun nolako amaiera duen ikusteko. Benetan Jainkoaren seme bada, etorriko zaio hura zintzoari laguntzera eta libratuko du etsaien eskuetatik.

Irainak eta oinazeak jasanaraziko dizkiogu, haren lasaitasuna ezagutu eta eroapena probatzeko. Heriotza lotsagarriara kondenatuko dugu, bere esanetan, Jainkoa alde aterako baitzaio».

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 3, 16-4, 3.

Senide maiteok: Bekaizkeria eta norgehiagokeria diren tokian, han dira nahasmendua eta era guztietako gaiztakeriak. Goitik datorren jakinduria, berriz, garbia da lehenik; gainera, baketsua, bihozbera, amore-emailea, errukitsua eta fruitu onak dakartzana, alderdikieriarik eta itxurazalekeriarik gabea. Bakegileek bakean ereiten dute eta fruitutzat zuzentasuna biltzen.

Nondik sortzen dira zeuen artean dituzuen haserreak eta borrokak? Ez ote zuen barruan borrokan dabiltzan grina txarretatik? Zerbait irrikatu eta eskuratu ezin duzuenean, hilketak egiten dituzue; zerbait gutiziatu eta lortu ezin duzuenean, liskarra sortu eta borroka egiten duzue. Ez badaukazue, eskatzen ez duzelako da; eskatu eta hartzen ez baduzue, gaizki eskatzen duzelako da, zeuen grina txarrak asetzeko eskatzen duzelako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galileen zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien:

Urteko 25. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

«Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?» Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean.

Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria».

Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

Ez bada ere ezertan «onbideragarri», kontsolatzaile gertatzen zaigu Jesusen ikasleen portaera egoista. Eta, batez ere, Jesusek haiekiko izan duena. Egundoko pazientziak eta txeraz tratatu ohi ditu, dituzten akatsei begira ez egotera daramatzalarik. Haiengan jarri du Jesusek bere arreta guztia, eta ez jendeagan; izan ere, mezu guztiz garrantziko bat eskualdatu nahi die, garrantzikoa, bai berarentzat bai haientzat. Mezua zoriaz, zeinetara baitoa bera, bai jarraitu nahi izango dion oro ere. Eta ikasleek ez diote ulertzen eta, okerrago dena, ez diote ulertu nahi. Beldurra dute berari galdetzeko. Halere, hor ariko dira eztabaidan, ez soilik Jesusek esaten dienarekin zerikusirik ez duen zerbaitez; batez ere, Jesusen mezutik oso urrun dagoen zerbaitez: zein da beraien artean garrantzikoena? Beren hutsegitean in fraganti harrapatu dituelarik, beren galderaren erantzuna jaso dute Jesusengandik: txikiena da handien. Azken batean, zur bereko ezpala guztiok! Beldurti... geure huskerietan korapilotsu... baina Jesusen jarraitzaile, nolnahi ere. Berak ez du etsitzen inoiz ere gutaz, horretarako aski arrazoi balukeen arren.

Urteko 25. astea.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak* (*Koreako martiriak*).

[Esdras liburuaren hasiera 1, 1-6: Jainkoaren herriko diren guztiak igo bitez Judako Jerusalemera, eta eraiki biezaiote etxea Jaunari. Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Inork ez du argia pizten eta ontzipean gordetzen edota ohepean ipintzen, baizik eta argimutilaren gainean ipintzen du, sartzen direnek argia ikus dezaten. Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik.

Kontu izan, beraz, nola entzuten duzuen! Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, eduki uste duena ere kendu egingo zaio».

F edea biderako argi baita, batez ere «gauetz» gabiltzanean, dudamudek eta ilunak jota, kontraesan handia da hura ezkutuan gorde nahi izatea. Hartara, zertako izango genuke? Gainera, fedea geure argi badugu, zer eskubide dugu inguruan ditugunak fedez argitu gabe uzteko? Agian, beldur ote gara, fede hori, besteekin partekatuz, makaldu eta ahulduko den beldur? Baina horixe da ezinezko den gauza. Fedea, izan ere, zenbat eta gehiago partekatu besteekin, hainbat eta gehiago hazten eta indartzen diren haietakoa da. Eta zenbat eta handiago duzun eta zenbat eta sakonago bizi duzun, orduan eta garbiago ikusten duzu nola doan hazten. Halako moduan, non fede kaxkarra izanik, duzun kaxkar hura ere galdu baitezakezu.

Urteko 25. astea.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

§ San Paulok Efesoarrei 4,1-7.11-13.

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitzela hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitzete Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lokarritz.

Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gaintetik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena.

Gutako bakoitzak Kristok eman nahi izan dion neurrian hartu du dohaina. Berak apostolu egin zituen batzuk, beste batzuk profeta, beste batzuk Berri Onaren hotsegile, beste batzuk artzain eta irakasle; horrela gai egiten ditu fededunak beren zerbitzu-lanerako eta Kristoren gorputza eraikitzeko, harik eta guztiok Jainkoaren Semearen sinesmen eta ezagutza berberak izatera iritsi arte, heldutasun beteko pertsona, Kristoren betetasunaren neurriko pertsona, izatera iritsi arte.

[Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz

Urteko 25. astea.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Mateo, zerga-mahaian jarria, ezin mugiarazi du, ez ezerk ez inork. Postu horretatik botere handiaz gozatzen zuen jendearen gain. Ez ezerk ez inork... Jesusek baizik, Jesusen begirada errukitsu eta galdegileak baizik. Ez da dugun boterea bizitzaren zentzua ematen diguna, baizik eta hartzen dugun eta ematen ahal dugun maitasuna. Horixe zen Mateori, talde guztiz gorrotatuko partaide zenari, falta zitzaiona! Gauza da, Jesusen begiratuak eta igarotzeak beste biziera bati ekitera eragin ziotela: jai-otordu batekin hasi zen guztia, zeinetara gonbidatuak izan baitziren, Mateo bezala, maitasun-premian ziren haiek ere («errukiak» zer esan nahi duen sekula ulertuko ez duten haien esamesak gorabehera).

Kafarnaumgoa zen Mateo (arameeraz Mathai, Jainkoaren dohaina). Markosek eta Lukasek diote «Lebi» zuela izena, Alfeoren semea zela (Mk 2,14). Beste apostolu bat ere, Jakue (Santiago), Alfeoren seme zela dio Markosek (12, 8); baliteke biak anaiak izatea. Hierapolisko Papiasek (95-165) dioena –lehenengo ebanjelioaren idazlea Mateo dela eta arameeraz idatzia dela (agian, 42. urtean)– aipatzen du Eusebio historialariak. Lebi/Mateo zergalaria zen, juduen artean gaizki ikusia; baina Jesusek dei egin zionean, berehala dena utzi eta jarraitu zion (Mt 9,9). Idatzi apokrifoez diotenez, Pertsian edota Etiopian ibili zen Mateo ebanjelioa hots egiten, eta hango erregea eta haren alaba Efigenia kristautzea lortu zuen; hurrengo erregeak, Hitarkok, ordea, Mateo hiltzeko agindu eta ezpataz hil zuten.

Urteko 25. astea.

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897),
 Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896),
 Feliziana Uribe (Muxika 1893), Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884),*

[Esdras liburutik 9,5-9: Geure Jainkoak ez gaitu eskutik utzi geure esklabotzan. **Salmoa: Tb 13, 2. 3-4a. 4bcd. 5. 8 (R/. 2a):** Bedeinkatua, beti bizi den Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,1-6.

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu han herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaituztete, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaletzat».

Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots eginez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

Jesusek ez ditu gorde beretzat bakarrik deabruen gaineko eta gaixotasunak sendatzeko ahalmena eta aginpidea, baizik eta ikasleekin partekatu ditu. Azken batean, gurekin, beraren ikasle garenokin. Beraz, ahalmen eta aginpide partekatuak dira; horrek, paradoxaz, guk ahalmenarekin eta aginpidearekin erlazionatzen ditugun zeinuen arrastorik gabe utzi gaitu, askotan anti-zeinu izaten baitira. Horrenbestez, uko egin diogu edukitzeari, segurtasuna ematen eta gainerakoengandik urruntzen gaituen horri, batez ere ebanjelioa nori hots egin diegun haiengandik urruntzen baikaitu. Bada, ordea, zerbait inportanterik bidaltze honetan: hots egite hau sendatzearekin batera doa beti. Izan ere, sufritzen ari direnengan nabari ohi dira ondorioak lehenengo.

* Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1870), Daria Campillo (Gasteiz 1873) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak, 1936.*

Urteko 25. astea.

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*.

[Ageoren Profetia liburuaren hasiera 1,1-8: Ekin tenplua eraikitzeari; atsegin izango dut Nik hori. **Sal 149**: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen ari zen guztia, eta zer pentsatu ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela.

Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut honi buruz?» Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

«**J**esus ikusteko gogoia zuen». Ez da zaila susmatzea, ondorengo historia jakinik, ezen, Herodesen baitan, gogo hori azaleko gauza soila izango zela. Baina, nolana den, gauzak beste ikuspuntu batetik harturik, zerbaitetik hasi ohi gara: gogoia izatetik. Zakeok ere gogo handia zuen Jesus ikusteko, eta honexek eraldatu zuen beraren bizitza. Zeren eta, gerora, Jesus ikusteko beste gogo batzuk sor baitaitezke, hobeto ezagutzeko gogoak, norberaren bizitza aldatzeko hasiera izan daitezkeenak. Gure burua eraldaturik gelditzen da ezagutza honekin. Kontua, ordea, «barne ezagutza» da, eta ez adimen-ezagutza hutsa; «bihotzetik bihotzerako» ezagutza da behar dena, Jesusen beraren misterioan murgiltzen dena... «bera gehiago maitatzeko eta berari jarraitzeko».

Urteko 25. astea.

Mesedeetako Andre Maria.

[Ageoren Profezia liburutik 1,15b–2,9: Denbora gutxi barru Jaunaren etxea aintzaz beteko dut. Sal 43 [42]: Itxaron Jainkoagan; goretsiko dut neure salbatzailea eta Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,18-22.

Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias».

Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Eta esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

Bakardadean ari da Jesus otoitzean. Otoitzean iristen ahal gara geure buruaren misteriora. Otoitzean, hau da, Jainkoarekin topo egitean «ikertzen eta ezagutzen gaitu». «Ez du inork bere burua ezagutzen, Jainkoarekin topo egin ez badu», esan ohi zuen Romero monsinoreak. Eta otoitzean geure buruaz lortutako egia honetara iristen garenean, zer axola jendeak gutaz esaten eta uste duena? Zer balio du honek Jainkoa eta nork bere burua ezagutzearen aurrean? Orduan, geuretzat bakarrik gorde nahi izango genuke geure isilpekua («nire sekretua neuretzat... nire sekretua neuretzat!», zioen profetak); bitartean adoretzu sentitu ohi gara geroari aurre egiteko, konfiantza Jesusengan ipiniz.

Urteko 25. astea.

San Kleofas, *Jaunaren ikaslea*.

[Zakariasen Profezia liburutik 2,5-9.14-15a: Etorriko naiz eta zure erdian biziko. **Salmoa: Jr 31, 10. 11-12b. 13 (R/. 10d):** Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,43b-45.

Aldi hartan, Jesusek egiten zituenengatik txundituta zeuden guztiak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: “Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute”».

Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzairen; ilun gertatzen zitzairen, eta ez ziren esanahiaz jabetzen; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Jesusek oharpen estua egin die ikasleei: «sartu ondo nork bere buruan». Jesuita nire lagun batek esan ohi zuen, giza gorputzean batetik bestera dagoen alderik handiena ez dela burutik oinetarakoa, baizik eta burutik bihotzerakoa. Kontua ez da, batez ere, «nork bere buruan sartzea», baizik eta «bihotzez onartzea». Nolanahi den, gertatu da ikasleek ezin ulertuz jarraitu dutela. Nola ulertzen ahal dute hain estua den mezua? Agian, ulertzen al dugu guk geuk? Bai zera! Eta, haiek bezala, aitortu dezagun, geu ere Jesusi arazoaz galdera egiteak beldurra ematen diotenetakoak garela... Beste ezer baino gehiago, haren erantzunen beldur garelako.

Urteko 26. astea.

San Kosme eta San Damian, *martiriak*.

§ Zenbakiak liburutik 11, 25-29.

Egun haietan, Jauna lainoan jaitsi eta Moisesekin mintzatu zen; gero, Moisesek zuen espiritutik hartu eta hirurogeita hamar herri-arduradunei isuri zien. Espiritua haiengan kokatu orduko, profeta gisa hasi ziren mintzatzeko; baina ez zuten jarraitu. Bi gizaseme, bata Eldad eta bestea Medad zeritzenak, hirurogeita hamarren taldekoak izan arren, ez ziren elkarketa-etxolara joan, baizik eta kanpalekuan gelditu ziren. Baina kokatu zen espiritua haiengan ere eta profeta gisa mintzatzeko hasi ziren.

Orduan, mutiko batek Moisesengana lasterka joan eta esan zion: «Eldad eta Medad profeta bezala mintzatzeko ari dira kanpalekuan». Nunen seme Josuek, gaztetandik Moisesen laguntzaile zenak, esan zuen: «Moises, ene jauna, debeka iezaiezu». Baina Moisesek erantzun zion: «Nigatik jeloskor? Nahiago nuke herri osoa profeta balitz eta Jaunak bere espiritua denei emango balie!»

[Sal 19 [18]: Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 5, 1-6.

Entzun orain, zuek, aberatsok! Egizue negar eta aiene, gainera datozkizuen zoritxarreatatik. Ustelak jota daude zuen aberastasunak, eta sitsak janda zuen jantziak. Herdoilak jota daude zuen urre-zilarrak, eta herdoil hori izango duzue testigu zeuen kontra, eta suak bezala jango du zuen haragia. Auzi aurreko azkenak diren egun hauetan pilatu duzue aberastasuna.

Zuen soroetan uzta bildu zuten langileei ordaindu ez zenieten soldata deiadarka ari da, eta igitarien deiadarra Jaun ahalguztidunaren belarrietara iritsi da. Bapo bizi izan zarete zuek hemen lurrean eta atseginetara emanak; horrela, abereak bezala gizendu zarete hilketa-egunerako. Errugabea kondenatu duzue eta hil, eta inork ezin izan dizue aurre egin.

Urteko 26. astea.

San Kosme eta San Damian, *martiriak*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,38-43.45.47-48.

Aldi hartan, Joanek esan zion Jesusi: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun: «Ez galarazi, ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki esaka jardungo duenik. Zeren gure aurka ez dagoena gure alde baitago.

Mesiasen jarraitzaile zaretelako, baso bat ur bada ere ematen dizuena, benetan diotsuet, ez da saririk gabe geldituko.

Nigan sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute.

Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizian sartu, bi eskuak dituzula infernura, itzalezineko sura, joan baino. Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hankamotz betiko bizian sartu, bi oinak dituzula infernura jaurtia izan baino. Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiak dituzula infernura jaurtia izan baino; han ez da hiltzen barruko harra, ezta itzaltzen ere sua».

Espiritua ezin izan da inoren «jabetza pribatu», taldea izan ala gizabanakoa izan. Ezin gorde du bera inork ere beretzat. Ezinezkoa da bera atzeman eta mugapean jarri nahi izatea. Barregarriro ezinezkoa; gainera, nola ezarri murrak haizeari? Espiritua (hebreerazko Ruah), ez al da, bada, haize. Bortitza eta geldiezina, Mendekoste egunean izan zen bezala. Geure erlijio- edo talde-miopia («hau ez da gutarra») baino harago begiratzera behartzen gaitu horrek, esker oneko begiratuaz, hartu eta egin izandako hainbat ongirengatik, gutxienean uste genuen lekuan eta sekula ere espero izango ez genuen batek eginarengatik. Halaber behartzen gaitu geure sentiberatasuna fintzera, gainerakoengan, batez ere gutarrak ez direnengan, topatu

Urteko 26. astea.

San Kosme eta San Damian, *martiriak*.

izan dugun ontasun-izpi txikienagatik eskerrak emanez. Eta, azkenik, «txikiak» ez eskandalizatzeraz behartzen gaitu: horiek dira gauza txikiak egiten dituztenak, detaile txikiak izaten dituztenak, gure mundu honen begietarako ezerez direnak, baina gure bizitza gizatiar eta duin bihurtzen dutenak. Horregatik, ez dira izaten sekula oharkabeko Aitaren begientzat eta bihotzarentzat, bere esker beroena agertzeko gogoz bizi baita. «Txikiak», ez genuke ahaztu behar sekula: zeruan dagoen Aitaren kutun izango dira beti.

EUSKERA

Euskeraz egiten dutalako
basati deitzen naute.
Basati izan nahi dut nik
basati eta libre.
Mundua nahi dut maitatu
neure Herriko lurretik,
neure Herriko lurretik eta
inork behartu gabarik.
Munduak ez du mugarik
maite duanarentzat:
bere basotik maite du lurra
nire Herriko zuhaitzak.
Libre ez dena, haura da

maite ezin dezakeana.
Maitatzeko libertadea da
nik gaur eskatzen dutana.
Euskera bai dut bihotza eta
bihotz-taupada bizitzan,
nire libertadea ezin da
euskera besterik izan.
Euskeraz naiz ni bakarrik
euskeraz naiz ni libre,
eta euskeraz bakarrik
nezake mundua maite.

(B. Gandiaga, in Arantzazu
Egutegia 2019,11-25)

Urteko 26. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea*
(*Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak*).

[Zakariasen Profezia liburutik 8,1-8: Nik salbatuko dut neure herria, sortaldeko eta sartaldeko lurraldeetatik. Sal 102 [101]: Eraiki du Jaunak berriro Sion eta bera aintzaz betea agertu da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,46-52.

Aldi hartan, eztabaida sortu zen ikasleen artean, zein ote zen haietan handiena.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta, haurtxo bat hartu, beren ondoan jarri eta esan zion: «Haur hau nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauen hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena».

Orduan, Joanek esan zion: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun zion: «Ez galarazi, zeren zuen aurka ez dagoena zuen alde baitago».

Jesusek antzematen dio gure pentsaerari. Guztiz zehatz daki zer gordetzen dugun bihotzean (ik. Jn 2,25). Gure pentsaera beraren bidetik irteten denean ere, beraren begi-bistan gelditzen gara. Horixe gertatu zen ikasleek beren artean izan zuten eztabaidan: nor ote zen beren artean handiena galdezka. Jesusek erabat garbi zuen erantzuna: txikiena, ezdeus dena, bere eskubideak galdatzeko ere. Jesusentzat argi zegoen hau, halaber zegoen Pauleko Bizenterentzat ere, behin eta berriz errepikatzen baitzuen: «behartsuak dira zuen ugazaba eta jaun... Beraiek juzgatuko zaituztete». Gainera, behartsuen arazoan, ebanjelizazioarenean bezala, oro har, gehiago balio du batuketak kenketak baino. Horregatik, «aurka ez dagoena, alde dago».

Urteko 26. astea.

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apaizak*, San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonian 1630eko hamarkadan).

[Zakariasen Profezia liburutik 8, 20-23: Herri asko etorriko da
Jerusalemera Jaunaren bila. **Sal 87 [86]:** Jainkoa gurekin da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,51-56.

Jesusek, mundu honetatik eramana izateko garaia zetorkiolarik, Jerusalemera joateko erabakia hartu zuen. Mandatariak bidali zituen aurretik, eta Samariako herri batean sartu ziren, Jesusi ostatua prestatzera. Baina herrikoek ez zuten hartu nahi izan, Jerusalemera zihoalako.

Hori ikusirik, Santiago eta Joan ikasleek esan zioten: «Jauna, aginduko al dugu zerutik sua jaitsi eta kiskal ditzan?» Baina Jesusek, haiengana itzulirik, haserre egin zien. Eta beste herri batera joan ziren.

Jesusek deliberatuki hartu zuen Jerusalemera joateko erabakia. Hauxe izan zuen bere bizitzako «erabakia». Oso ondo zekien zein arriskutan jartzen zen: ukoa, nekaldia, gurutzeko heriotza... eta piztuera. Alabaina, ez zen izan asaldatu baten erabakia, askoz gutxiago ezeren eta inoren aurkakoa, baizik eta «-en aldeko» erabakia. Horra zergatik irten zen Zebedeoren bi semeen proposamenaren kontra: Jerusalemerako bidean harrera ukatu zieten Samariako herrixen gainera zerutik sua jaitsaraztekoa. Ez da Jesusen araberakoa, ez indarkeria, ez mendeku-irrika; aitzitik, otzantasuna agertu du beti eta begirunea norberak bezala pentsatzen ez dutenekiko, eta, guztien gainetik, maitasuna.

Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK:

MIKEL, GABRIEL ETA RAFAEL.

§ Danielen Profezia liburutik 7, 9-10. 13-14.

Nik, Danielek, ikuskaria izan nuen gaeuz. Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik.

Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak.

Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 138 [137]: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.]

§ Apokalipsia liburutik 12, 7-12a.

Gudua izan zen zeruan: Mikel eta beronen aingeruak herensugearen aurka. Herensugea eta beronen aingeruak gogor borrokatu ziren, baina ezin izan zuten garaitu, eta aurrerantzean zeruan ez zen tokirik izan haientzat. Bota egin zuten, beraz, herensuge handia, antzinako sugea, deabru eta Satanaz deritzana, mundu osoa engainatzen zuena; lurrera bota zuten bere aingeruekin batera.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten:

«Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea; bota baitute gure senideen salatzailea, gure Jainkoaren aurrean, gau eta egun, salatzen zituena. Bildotsaren odolaz eta aitortu duten mezuaz lortu dute garaipena; nahiago izan zuten heriotza, bizia baino.

Poztu zaitezte, beraz, zeruok, eta haietan bizi zaretenok».

Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK:

MIKEL, GABRIEL ETA RAFAEL.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 47-51.

Aldi hartan, Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Jainkoagandik hurbil eta gizakiagandik hurbil: horretaz mintzo zaizkigu aingeruak Jesusi jarraitzearen geure bizitzan. Zerua irekia ikusteak eta aingeruak gora (Jainkoagana) eta behera (guri bidera irtetea) ibiltzeak errealitatea adierazten digute era poetikoan: batetik, Jainkoaren misterioan sakon murgildurik bizi direla eta, bestetik, gizakiaren premien aurrean ez direla sentikaitz; aitzitik eta adibidez, Jainkoaren botika dakartela gure zaurientzat (Rafael) eta Jainkoaren indarra geure ahuldadean (Gabriel); beti garaile irteten den (Mikel) Jainkoaren botika eta indarra; hain justu, Jainkoa Maitasun delako, eta Maitasunak duelako beti azken hitza (hori sinesten dugu eta horregatik dugu esperantza beragan eta maite dugu).

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*.

[Nehemias liburutik 8, 1-4a. 5-6. 7b-12: Esdrasek legearen liburua zabaldu eta Jauna goretsi zuen, eta herri osoak erantzun: «Amen, amen». Sal 19 [18]: Jaunaren aruak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-12.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakatorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitzte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaitzute, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”.

Baina herriren batean sartu eta onartzen ez bazaitzute, irten plazara eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun zuen herriko hautsa ere hor astintzen dizuegu. Dena dela, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua”.

Begira: auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du, herri hark baino».

«**A**urretik bidali zituen, berak joatea pentsatzen zuen hartara». Mezulariak Jesusen aurretik doaz. Honetan, Joan Bataiatzailearen antzeko dira: «nire ondoren dator ni baino ahaltzuagoa dena». Izatez, misioa ez da gurea. «Kristoren misioaren zerbitzari» gara.

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*.

Bidea prestatu behar diogu, jendearen bihotzera iritsi ahal dadin. Ez gehiago... ez gutxiago. Horregatik, gure otoitzarekin hasten da den-dena («erregutu uztaren jabeari») eta guk bideari ekitearekin. Ez nolnahi, baizik lagunartean. Pobretasunean. Bakea emanez eta eskualdatuz (behin ere galdu behar ez genukeen bakea, batez ere uko egiten diotela esperimintatzen dugunean). Eta bidaliak izan garen jendearen zoria partekatuz.

San Jeronimo 347. urte inguruan jaio zen Estridon-en (Dalmazia: garai bateko Jugoslavian). Erromatar kulturako ikasketak egin ondoren, 366an bataiatu zuten. Ekialdera jo zuen gero eta Kaltzidiako basamortuan, Antiokia inguruan, bakardade-bizitza egin zuen. Hebreera ikasi zuen han. Paulino apezpikuak apaiz ordenatu zuen Jeronimo, hogeita hemezortzi urte zituela. Antiokiako Paulinori lagun eginez, 382an Erromako kontziliara joan zen eta han Damaso aita santuak bere idazkari egin zuen, ebanjelioetan latinezko itzulpena aztertzeko eskatuz. Damaso hiltzean, Erromatik irten eta Palestinan eta Egipton barna ibili zen: Nitriako basamortuan bakarzaleak bisitatu zituen. Azkenik, 386-419 bitartean Betleemen kokatu zen, Jaunaren jaiotza gogoratzen den tokitik hurbil, monasterio-bizitza eginez. Bibliako liburu gehienak itzuli zituen han latinera, hebreeratik nahiz grekotik. Itzulpen hau ofiziala izango zen Mendebaldeko Elizarentzat. Izaera sutsu eta jenio bizikoa zen Jeronimo; eztabaida ugari izan zuen garaiko zenbait autorerekin. 419ko edo 420-09-30ean hil zen Betleemen.

Ezaguna da haren esaldi hau (Vatikano II.ak jasoa): «Liburu Santuak ez ezagutzea Kristo ez ezagutzea da, eta Liburu Santuak ezagutzen ez dituenak ez ditu ezagutzen ez Jainkoaren ahala, ez haren jakinduria».



POBREKIN
bide
eginez 
eta
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

URRIA / URRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:
Ebanjelizazioa — Ikasle misiolariak

Egin dezagun otoitz: Bataiatu orok parte har dezan ebanjelizazioan eta prest bizi dadin misiorako, Ebanjelioaren usaina dukeen bizitestigantzaren bidez.



Urteko 26. astea.

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea*.

[Baruken Profezia liburutik 1, 15-22: Bekatu egin dugu Jaunaren aurka eta ez diogu obeditu. Sal 79 [78]: Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoregatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 13-16.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan hainbat mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihotz-berrituak ziratekeen, dolujantziz estali eta hautsean eserita. Horregatik, Tiro eta Sidonek zigor bigunagoa izango dute auzian zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barreneraino eroriko zara!

Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek onartzen ez zaituztenak Ni ez nau onartzen; Ni onartzen ez nauenak, berriz, bidali nauen hura ez du onartzen».

Gurutziltzatuaren aurreko solasaldian, Jaunak gugatik egin duenaren aurrez aurre jarri gaitu Ignaziok, geure buruari galdetzeko, esker onez: zer egin dut nik?... zer ari naiz egiten... zer egin behar dut, Kristogatik? «Maitasuna lortzeko kontenplazioaren» lehen puntuan ere, «jasotako mesedeak gogora ekartzera gonbidatu gaitu. Jainkoarekin, baita gainerakoekin ere, ditugun harremanetan, esker ona da lehen eta azken hitza. Korozain, Betsaida eta Kafarnaumek intziri mingotsa eragin diote Jesusi, Jainkoaren jokabide bihotz-zabalari giza erantzun ziztrinaz erantzun diotelako. Adibide interpelatzailea guretzat, nolana ere. Jainkoaren dohaina ezagutuko bagenu, negar egitea bakarrik legokiguke «maitasunez eta esker onez» (Lisieuxeko Teresa).

[Baruken Profezia liburutik 4, 5-12. 27-29: Zoritxarra bidali dizuenak berak poza emango dizue betiko. Sal 69 [68]: Entzun die Jaunak behartsuei.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 1-5. 10.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien:

«Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni neu onartzen nau.

Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

Ematen du, Jesusen ikasleak obsesionaturik bizi direla beraien artean handiena zein denaz. Behin baino gehiagotan ageri da ebanjelioetan arazo hau, batzuetan benetako liskar eta eztabaidara iritsiz. Bekaturik ez duenak bota dezala lehen harria! Gai izango ote gara arazo honek ez duela gurekin zerikusirik esateko? Jada ez ditugula aintzat hartzen txikikeria hauek? Behin eta berriz ematen die, eta ematen digu, Jesusek koloka jartzeko moduko erantzun bat: Garrantzikoena zein? Ba... garrantzi gutxienekoa den hura! Txikiena! Zuen artean, inolako eskubiderik ere galdatu ezin dutenak... Haiek zeinen aingeruak Jainkoaren ondoan baitaude, bera beti ikusteko moduan, beraren familia bereko direlako.

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Borjakoa, *apaiza, jesuita*.San Birila Leirekoa, *abadea**(Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan).***§ Hasiera liburutik 2, 18-24.**

Jainko Jaunak esan zuen: «Ez da on gizona bakarrik egotea; eman diezaiodan berari dagokion laguntza».

Jainko Jaunak landako abere eta zeruko hegazti guztiak moldatu zituen lurretik eta gizonari eraman zizkion, zein izen ematen zien ikusteko; honela, bada, bizidun orok gizonak ezarritako izena darama. Beraz, gizonak izena ezarri zien abere guztiei, zeruko hegazti guztiei eta piztia guztiei; baina ez zuen aurkitu berari zegokion laguntzarik.

Orduan, Jainko Jaunak lozorroan murgilarazi zuen gizona. Loak hartu zuenean, saihets-hezur bat kendu zion eta hutsunea haragiz bete. Gizonari kendutako saihets-hezurraz emakumea moldatu zuen Jainko Jaunak, eta gizonari eraman zion. Honek esan zuen:

«Hau bai dela ene hezurretik datorren hezur,

ene haragitik datorren haragi.

Emakume izango da deitua,

gizakumeagandik izan baita hartua».

Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira.

[Sal 128 [127]: Jaunak bedeinka gaitzala geure bizitzako egun guztietan.]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 2, 9-11.

Senideok: Aingeruen pareko egina izan den Jesus hura aintzaz eta ohorez koroatua ikusten dugu, jasan zuen heriotzagatik; zeren, Jainkoaren onginahiaz, guztien onerako jasan baitzuen heriotza.

Jainkoak, gauza guztien sorburu eta helburu denak, seme-alaba asko aintzara eraman nahi zuen. Egoki zen, beraz, haiek salbamenera gidatuko zituen burua, Jesus, oinazeen bidez bete-beteko egitea. Izan ere, bai santutzailen den Jesusek, bai honek santu egiten dituenek,

jatorri bera dute denek. Horregatik, Jainkoaren Semeari ez dio lotsarik ematen hauei senide deitzeak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 2-16.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk Jesusi eta, hura zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?» Hark erantzun zien: «Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?» Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun».

Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du era berean».

Beste batean, haurrak eraman zizkieten Jesusi, uki zitzan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, haserretu zen Jesus eta esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena da eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko».

Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

Batzuetan jatorriaz izaten dugun jakin-minak estu-estu hartzen gaitu. Atzerakada ote da hori? Ez nahita nahiez. Sarritan gonbidatzen gaituzte «sorburura itzultzera», eta honek ez du zertan izan jarrera

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Borjakoa, *apaiza, jesuita*.San Birila Leirekoa, *abadea**(Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan).*

atzerakoi eta kaltegarri gure bizitzarentzat. Izan ere, gerta dakiguke bideko hautsak edo errutinak edo axolagabetasunaren krakak, bizitzako atsekabeen kontra defenditzeko geure egindakoak, geure bihotza erabat gogortzera eraman izana. Eta gauzak okerragora egin ez dezan, ebanjelioa interpretatu (urardotu, esan nahi da) egin behar izan dugula. Baina, azkenean, ez du horrek arazoa konpontzen. Horregatik sortu ohi zaigu jatorriari buruzko jakin-mina. Asisko Frantziskok amets hau zuen: «iruzkinik gabeko ebanjelioa» bizitzea, hau da, ebanjelioa bere benetakotasun osoan. Eta guk esan ohi dugu: «hasieran ez zen horrela...». Eta zein gogoko izaten dugun hasiera horretara itzultzea!, gure bideari arnasa eman diezaion! Baina, nola? Jesusek bide guztiz laua eskaini digu: txikiei harrera egitea eta geu ere haietako bihurtzea. Hau da, bere bizieraz, hitzez eta keinuez, bihotza benetan harrapatzen digun honelako jendeari, ez da adina inporta duena, harrera egitea.

Borjako Frantzisko santua

Frantzisko, Borjako Joan dukearen lehen semea, Gandian jaioa, Valenzia erreinuan, 1510ean. Karlos V.aren enperadore-gortean axola handiarekin hazi zuten, eta 1529an Castroko Leonor-ekin ezkondu zen; zortzi seme-alaba izan zituzten. 1542an bere aitaren ondarea hartu zuen, baina, emaztea hil zitzaionean, duke-ondarea utzi eta, teologia-ikasketak bukaturik, 1551n apaiz ordenatu zuten eta Jesusen Lagundikoa zela zabaldu zuen; 1565ean Jesusen Lagundiaren hirugarren. Lagundi-buru aukeratu zuten. Asko saiatu zen jesulagunak formatzen eta beraien espiritu-bizitzari laguntzen; bestetik ikastetxe eta misio asko fundatu zituen. Erroman hil zen 1572ko irailaren 30ean, eta Klemente X.ak 1671n santu aitortu zuen.

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Asis-koa,
erlijiosoa eta fundatzailea (Frantziskotarrak).

[Jonasen Profezia liburuaren hasiera 1, 1–2, 1. 11: Abiatu zen Jonas, Jaunagandik urrun ihes egiteko asmoz. **Salmoa: Jon 2, 3. 4. 5. 8 (R/. 7c):** Zuk, Jauna, bizirik atera ninduzun leizetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?» Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?»

Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guttiz eta adimen guttiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta zein da nire lagun hurkoa?»

Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zuenean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen.

Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, erukitu egin zitzaion.

Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zaindu ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”.

Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?» Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz erukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Asis-koa,
erlijiosoa eta fundatzailea (Frantziskotarrak).

«**Z**ein da nire lagun hurkoa?» Galdera hau ez da teorikoa, eta honela berridatziz bakarrik eman dakioke erantzuna: zeinen lagun hurko bihurtzen zara zu? «Lagun hurko» izateak hurbileko eta ondo-ondoko izatea esan nahi du. Zenbat eta hurbilago, hobe. Eta ez parabolako apaiza eta lebitarra bezala: ikusi zuten... itzulinguru bat egin... eta beren bideari jarraitu zioten. Erabat bestela jokatu zuen samariarrak, gainera judu argi ustekoarentzat jendalde madarikatukoa zen hark: hurbildu zitzaion bide-bazterrean zauriturik zegoenari eta beraren lagun hurko bihurtu zen. Edota Asisko Frantzisko bezala: lepradun anonimoagana hurbildu, musu eman, beraren lagun hurko bihurtu eta konbertsio bide berri bati ekin zion; horrenbestez, jende askorentzat kutsagarri bihurtu zen Frantzisko.

Sorkarien Kantika (Asisko Frantzisko)

(Leon Felipe-ren bertsiotik)

Ahalguztidun, gorengo, Jaun
onbera,
zuri dagokizu gorespena, aintza eta
ohorea;
zuri bakarrik bedeinkapen osoa;
gizakia ez da duin
zu aipatzeko.

Gora zaitzatala, ene Jauna, sorkari
guztieki;
gora zaitzatala bereziki anaia
eguzkiak,
horrek argitzen du eta urratzen
eguna,
ederra haren dirdira,
eta bere egilearen berri darama
zeruetan barrena.

Gora zaitzatala ilargiak;
argi zuri txikarragoa du.
Gora zaitzatala izarrek;
zeure ahalmenez zuk kreatuak
dira,
argi, eder, hain bizi,
zeruan dirdaitsu;
gorespena zuri, ene Jauna.

Gora zaitzatala arrebak;
bikaina bere xalotasunean,
onuragarri, garbi, apal;
gorespena zuri, ene Jauna.

Gora zaitzatala anaia suak...;
arrebak lurrak...;
arrebak heriotzak...

Urteko 27. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-goia, *ermitaua eta gotzaina*.

§ Deuteronomioa liburutik 8,7-18.

Egun haietan, honela mintzatu zitaion Moises herriari: «Jaunak, zure Jainkoak, lurralde ederrera eramango zaitu: lurralde oparoa da, errekez, iturriz eta ibarretan eta mendietan sorturiko iturburuz hornitua; gari, garagar, mahasti, pikondo, mingranondo, olibondo, olio eta eztiz hornitua. Ogia neurrigabe jan ahal izango duzu eta ez zaizu ezer ere faltako. Hango harriek burdina dute eta mendietatik kobrea aterako duzu. Ase arte jango duzu, beraz, eta Jauna zeure Jainkoa bedeinkatuko duzu, eman dizun lurralde ederragatik.

Baina, kontuz! Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa, gaur ematen dizkizudan haren agindu, lege eta erabakiak bazterrera utziz. Ez dadila gerta, ase arte jatean, zeuk eraikitako etxe ederretan bizitzean eta zeure behiak eta ardiak, zilarra eta urrea eta era guztietako ondasunak gehitzean, zeu harrotu eta Jauna zeure Jainkoa ahazturik uztea. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena, berak atera du sukarririk ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana. Atsekabetu eta probatu zaitu, bai, baina azkenean zure onerako izan da.

Ez esan zeure buruari: “Neure indarrez eta trebeziaz lortu ditut ondasun hauek guztiak”; gogora ezazu Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizula ondasun horiek lortzeko indarra; horrela, leial eusten dio gaur ere zure gurasoei zin eginez hitzemandakoari».

[Salmoa: 1 Kronikak 29: Zeureak dituzu, Jauna, handitasuna eta indarra.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5,17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez

Urteko 27. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-goia, *ermitaua eta gotzaina*.

berekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman digu. Izan ere, Jainkoa zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen ari zena, gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamera iritsi genezan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburitik 7,7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!»

Teilharde de Chardinek gogorazi digu, pasibotasuna dela, konparaziorik gabe, gure bizitzako zatirik hedatuena eta sakonena. Ugariagoa da hartzen duguna ematen duguna baino. On da hau gutzia gogoratzea ikasturte baten hasieran zeinetan pil-pil baitabilta gure barnean asmoak, egitasmoak... gauzatu nahi izango genituzkeenak. On da gogoratzea, Jainkoak bakarrik gidatzen gaituela hitzemandako lurraldera. Soilik, tresna garena beraren eskuetan, zenbat eta batuago egon berarekin, hainbat eta fruitu ugariagoa emango dugula. On da eskatzea Jainkoagandik bakarrik har dezakeguna. Bilatzea beragan bakarrik aurki dezakeguna. Eta dei egitea, bere maitasunaz, gure egintza... eta gure nekaldia ernatu dezakeen hari.

Urteko 27. astea.

San Bruno, *fundatzailea* (Kartusiarrak).

[Jonasen Profezia liburutik 4, 1-11: Zuk errukia agertzen diozu landare honi. Eta Nik ez ote diot errukia agertuko Ninive hiri handiari? Sal 86 [85]: Ona zara, Jauna, eta barkabera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala».

Jesusek esan zion: «Otoitz egitean, esazue:

“Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen”».

Kutsatuz irakatsi zuen Jesusek. Bera otoitz egiten ikustean, otoitz egiteko gogoa pizten da. Gure Aita bizi-egitarau da; gogorazten digu, aita dela Jainkoa; bera eta beraren egitasmoa, Erreinua, direla erdigune. Beragandik hartzen duguna (ogia... barkazioa) eskatzera gonbidatzen gaitu, eta hartua duguna ematera. Gure bizitzako bideak beraren, Aita maitagarriaren, eskuetan ipintzen ditu. Horrela gauzatzen da gugan salmogilearen otoitza: «bere aingeruei agindu die zeure bideetan zaindu zaitzaten... Egun luzez aseko dut eta nire salbazioaz gozatuko du». Geroago Asisko Frantziskoz ere esan zen bezala, hona zer den otoitza: buru-eskaintza konfiantzaz eta maitasunez Aitaren eskuetan.

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.
Santana Justina, *birjina eta martiria*.

[Malakiasen Profezia liburutik 3, 13-20a: Badator eguna, labea bezain kiskalgarria. **Sal 1**: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 5-13.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaiari eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zegok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena».

Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko dizue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei!»

Geure otoitzean lehiatzen jarduteko eskatu digu Jesusek. Zergatik? Azkenean geurearekin gelditzeko. Segur aski, ez da hori arrazoia bakarra. Agian, kontua ere ez da hori... Beraz, zergatik? Otoitzean «adiskidetasun-harreman» da (Teresa Jesusena). Eta adiskidetasuna eta maitasuna ezin izan dira tarteka egiten dugun zerbait: orain bai... orain ere... Adiskidetasunak —eta maitasunak— leialtasuna eskatzen du, iraunkortasuna. Horra zergatik diren beharrezko otoitzean lehia eta iraunkortasuna. Horregatik, Espiritu Santua da otoitzaren fruitu, hau da, Aitak eta Semeak beren artean betidanik eta betiko duten maitasuna, gure bihotzean ugari isuria eta dei egitera eramaten gaituena: Abba, Aita.

Urteko 27. astea.

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*.

[Joelen Profezia liburutik 1, 13-15; 2, 1-2: Jaunaren eguna, ilunpe-eguna eta itzal beltzeko eguna. Sal 9 [9 A]: Justiziaz gobernatzen du Jaunak mundua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, jendarteko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola irauan dezake haren erreinuak? Zuek diozuenez, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen badituzte, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen badituzte, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapatutako ondasunak.

Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du.

Espiritu gaiztoa, norbaitengandik atera ondoren, leku idorretan barrena ibili ohi da atsedean bila; baina aurkitzen ez duelarik, bere buruari esaten dio: “Itzul nadin atera nintzen neure etxera”. Irirstean, etxea garbitua eta apaindua aurkitzen du. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen. Horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da».

Urteko 27. astea.

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*.

«**I**ritsi da zuengana Jainkoaren Erreinua». Baina begiak behar dira ikusteko eta belarriak entzuteko, baldin eta benetan nahi baditugu sumatu eta onartu Jainkoaren Erreinuaren presentziaren zeinuak geure bizitzan. Izan ere, ez da itsu okerragorik ikusi nahi ez duena baino, ezta gor okerragorik ere aditu nahi ez duena baino. Baina, batez ere, beharrezkoa da gure bihotza ez egotea, ez zabar, ez barreiatu, baizik eta guztiz baturik Jainkoagan, gauditurik Jesusen arazoari emanik bizitzea eragozten diguten gogorkeria guztiak. Izan ere, «nirekin ez dagoena nire aurka dago eta biltzen ez duena barreiatzen ari da». Sarritan gure bihotz zabar eta barreiatua da Jainkoak gudan egin nahi duen ekintzari gogor egiten diona.

Eukaristia

Jesusek, bere bizitzako otordu nagusia (Azken Afarikoan Lk 22,15-20: Hona nire gorputz-odolak eta Mt 26,26-29) prestatu du, gonbidatu ditu ikasleak, ospatu du, zentzu berri bat eman dio, eta bera oroitzu otordu hori berregiteko, eguneratzeko, gertaberritzeko agindu, proposatu, digu. Elkartea bildurik, Jesusen hitza hots eginez, elkartea janaritzu eta bidaliz (misiolari), gorputz emana eta eskainia, odol isuria, Jesusen hitzak zeruert mugagabe eta salbatzaile bihurtu dira.

Eukaristia kristau-bizitzaren oinarria, jaia, da fededunentzat Lazkaon, Donostian, Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Baionan eta nonahi.

Urteko 27. astea.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.
San Joan Leonardi, *apaiza*, *botikarien zaindaria*.

[Joelen Profezia liburutik 4, 12-21: Sartu igitaia, uzta heldu da. Sal 97 [96]: Poztu zaitetze Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

«**J**esus hitz egiten ari zela...». Zertaz? Testuinguruaren arabera, berak deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen zituela salatzen zutenei ari zitzaien aurre egiten: «Iritsi da zuengana Jainkoaren Erreinua». Jesusek Jainkoaz hitz egitean ez zion ematen lehentasuna, ez negatibo den ezeri, ez debekuari, ezta deabruzkoari ere, baizik eta benetan askatzaile eta pozbide denari. Zinez, berri on da Jesus, ebanjelio. Honek sustatzen zuen jendearen gogo-berotasuna, emakume on hark bere berezkotasunez adierazia: «Jesusekin beti jaio eta birjaio ohi da poza» (dio Frantzisko aita santuak). Jende xumeak goratu egiten du eta konplimenduz betetzen. Nork daki? Agian, Mariak, anekdotaren berri jakitean, honelako zerbait pentsatu bide zuen bere baitan: «Magnificat abesbatzako bat gehiago!»

Urteko 28. astea.

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*.
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*.

§ Jakinduria liburutik 7, 7-11.

Otoitz egin nuen, eta zuhurtzia eman zidan Jainkoak, dei egin nion, eta jakinduriaren espiritua iritsi zitzaidan; errege-aulkia eta aginte-makila baino nahiago izan nuen; haren aldean aberastasuna ezereztat jo nuen; harribitxirik preziatuenarekin ere ez nuen parekatu, urre guztia, haren aldean, hondar-apur bat besterik ez da, eta zilarrak, haren aurrean, lokatza dirudi.

Osasuna eta edertasuna baino maiteago izan nuen eta neure argitzat aukeratu, haren distira ez baita inoiz itzaltzen.

Eta jakinduriarekin ondasun guztiak batera etorri zitzaizkidan, eta ezin konta ahala aberastasun haren eskutik.

[Sal 90 [89]: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zugan.]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 4, 12-13.

Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eraginkorra, aho biko ezpata baino sarkorragoa; arimaren eta espirituaren sakoneraino sartzen da, pertsonaren zokorik ezkutueneraino, eta barneko pentsamenduak eta asmoak aztertzen ditu. Ez da harentzat munduan ezer ikusezinik; dena dago biluzik eta agerian, kontuak eman beharko dizkiogun haren begien aurrean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11, 17-30.

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?» Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik.

Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin aduleriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-

Urteko 28. astea.

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*.
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*.

amak». Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia».

Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahigabez joan, ondasun handien jabe baitzen.

Orduan, Jesusek, ingurura begiratuz, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!» Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere: «Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea! Orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Ikasleek, gero eta harrituago, elkarri ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak».

Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko».

Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurraz uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia.

«Maisu on, zer egin behar dut betiko bizia ondare izateko?» Esan nahi baita: betiko galdera egin zion Jesusi gizon hark: nola izan naiteke benetan zoriontsu? Izan ere, zer da betiko bizia, betiko zoriona baizik? Eta, mesedez, Maisu, ez zaitez hasi aginduak bete behar ditudala esanez! Ez al ditut, ba, betetzen jada? Eta txikitatik, gainera! Baina zoriontsu... «zoriontsu» esaten den hori... Ba, zer nahi duzu esatea? Benetan, ezin esan dut zoriontsu naizenik. Edota nahi nukeen bezala ez behintzat... Arrazoiketa hori egin bide zuen bere baitan

Urteko 28. astea.

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra.*
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak).*

galdera egitera Jesusengana hurbildu zen gizon hark, barnean guztiok bizi dugun galdera zen. Gertatzen zen, gizon hark «curriculum vitae» moral perfektua aurkezten ahal zuela... «Curriculum»etan, ordea, ez zuena bere baitan Jesusena (nolatan egin zezakeen? Ez da agertzen «curriculum»etan) Jesusek, gizon ari begiratzean, bere begietan azaldu zuen txera hura. Eta, hala guztiz, ai konturatu izan balitz gizon hura! Ai sentitu izan balu Jesusek maite zuela! Bere aberastasun eta ondasunak, baita bere zuzentasun guztia ere, bigarren mailan jartzera eragingo zion maitasuna adierazi nahi zion Jesusek. Eta horrela, hornigaiz arin, Jesusi jarraitzea eragingo zion... eta, hari jarraituz, antsiatzen zuen zoria aurkitu ahal izango zuen.

San Daniel Comboni

Sudaneko eliza katolikoak bere aita fundatzaile handienetakotzat ospatzen du Comboni. Sudanera 1857an iritsi zen, eta Afrika Erdialdeko lehen gotzain bilakatu zen 1871n, egoitza Jartumen zuela. Bertan hil zen 1881ean

Michael Didi, gaur egungo artzapezpikuak dio: egundoko euspena agertu zuen zailtasunen aurrean, ez zioten atzera eragin sekula ere, ezta bere hainbat lankidek bertan behera utzi zutenean ere. Miresgarria da, era berean, sortu zituen institutu misiolariengatik ere. Beste gotzain batek honela dakusa Comboni: gizon nekaezina kristautasunaren aurkako lurralde etsai batean; ez zuten desanimatu lurralde hura uztera gonbidatzen zutenek. Ezta Vatikanoko Propaganda Fide berak ere. Beste hau du gehitzen gotzain honek: «Afrikaren autonomiaren bila egin zuen bere lan iraupentsuaz, bizia eta duintasuna eman zizkion bertako jendeari». Beste gotzain batek ere, aurreko horren haritik, dio afrikar beraiengan jarri zuela beren garapen propioaren protagonismoa. (El Mundo Negrotik, 2019ko azaroko 653. zenbakitik hartua, 44 hurr. or., zatia).

[San Paulok Erromatarrei 1, 1-7: Jesu Kristogandik hartu genuen apostolu izateko dohaina, jentil-herriei sinesmena eramateko. **Sal 98 [97]:** Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaian: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat.

Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriako hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena.

Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikua, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Dena programaturik eta segurtaturik eduki nahi izaten dugu. Jainkoari fedea eta konfiantza aitortzetik libre gelditzea. Mirarizko zeinuak eskatu ohi ditugu. Biziak, ordea, ez digu uzten bera programatzen eta inolako seguruz segurtatzen. Eta, mirarizko zeinuen dagokienez, aski baino gehiago dugu Jonasenarekin (Jesusek egindako bizi-eskaintzat hartu du berori ebanjelioak: hila eta hilobiratua izan den eta berpiztu denaren zeinutzat, alegia). Zeinu hau aintzat harturik interpretatu ahalko ditugu «aldien zeinuak»: norberaren eta taldeen bizitzako gertaeren bidez mintzo zaizkigun Jainkoaren ahots desberdinak; gure begi sinestedunei laguntzen dietenak sumatzen, lehen begiratuan sumatu ohi dena «baino gehiago»; aldi berean,

* San Joan XXIII.a, 261. aita santua. (Ikus beherago Begoñako Andre Mariaren Meza)

Urteko 28. astea.

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria).

Santa Soledad Torres Acosta,

*fundatzailea (Mariaren Mirabeak).**

Jesusek bere bizitzan agertu izan dituen prestasun eta buru-eskaintza berak imitatzea gonbidatzen dituzte zeinu horiek

[Begoñako Andre Mariaren Meza: Ben Sirak 24,17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. Salmoa: Lukas 1: Handiesten du nire arimak Jauna. San Paulok Galaziarrei 4,4-7: Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,43-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatu gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuten argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zion: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen.

* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua.*

Begoñako Andre Maria

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurraren gertakariaz, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu. Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriarik sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Maria Deikunde edo Iragarpen egunetik beretik; zeruratua izan zenean, hara eraman zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!



Begoñako Andre Maria

* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua.*

Urteko 28. astea.

Pilare-ko Andre Maria.

San Joan Beyzym, *apaiza, jesuita.*

[Kronikak 1 liburutik 15,3-4.15-16; 16,1-2: Ekarki zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikia zuen oihal-etxolaren erdian ipini zuten. EDO Apostoluen Eginak liburutik 1,12-14: Jesusen ama Mariarekin otoitzari emanak bizi ziren. Sal 27 [26]: Jaunak koroatu nau eta zutabe gainean goratu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Norbaitek Jesusen ama laudatzen duenean, ematen du, Jesusek beste zerbaiti eskaintzen diola bere arreta edota esaten dena zuzendu egin nahi izaten duela. Fedea da inporta duena. Jainkoaren Hitza entzun eta onartzea da inporta duena. Baina, orduantxe, nahi gabe (edota guztien gainetik nahi izanda), aldarrikatu du Jesusek beraren amari egiten ahal zaion laudoriorik handiena. Izan ere, horrelakoxea izan zen Maria: Hitza entzun eta onartu zuen emakumea. Hitza hain bere egin zuena non «sabeleratu» egin baitzuen. Eta, sabeleratu, gurekin partekatu baitzuen, gu guztiok Jainkoaren familia handiko kide bihurtuz, fedean eta Hitza entzutean haztera deituak. Jada ez gara, beraz, arrotz edo kanpotar, baizik eta Jainkoaren familiako kide.

[San Paulok Erromatarrei 2, 1-11: Bakoitzari bere egintzen arabera ordainduko dio: juduei lehenengo, baina baita judu ez direnei ere. Sal 62 [61]: Zuk, Jauna, bere egintzen arabera ordaintzen diozu bakoitzari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 42-46.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, fariseuok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta zuzenbidea eta Jainkoaren maitasuna, berriz, alde batera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe.

Ai zuek, fariseuok! Sinagogetan aurreneko aulkiak eta plazetan jendearen agurrak maite dituzue!

Ai zuek! Ikusten ez diren hilobiak bezalakoak zarete, jendea oharkabean haien gainetik baitabil».

Orduan, lege-maisu batek esan zion: «Maisu, horrela hitz eginez, gu ere iraindu egiten gaituzu». Jesusek erantzun zion: «Ai zuek ere, lege-maisuok! Eraman ezineko zamak leporatzen dizkiezue besteei, eta zeuek atzamar batez ere ukitu ez».

Jesusek lege-maisuei eta fariseuei egin dien kritikaren muina Jainkoaren zuzentasuna eta maitasuna alde batera utzi izana da. Eta hortik etorriko da beste guztia: funtsezkoaz ahazturik, espezialista bihurtu dira txikikerietan eta zinez pena merezi duenaren berri ez izatean. Eta, halaber, ohoreen eta agurren bilatzaile konpultsibo bihurtu dira, ahazturik maitasunak, aitzitik, gainerakoen ona bilatzen duela beti... Konturatu gabe, berak gertatzen direla azkenean zapalduak, hilobi anonimoak inolako arazorik gabe zapaldu ohi diren bezala! Eginbeharrak oihukatzen dituzte, berak izango direlarik lehenak beteko ez dituztenak... Esan beharrik ez, salaketa hauek, batzuetan, oso gaur egungo izan daitezkeela!

Urteko 28 astea.

San Kalisto I.a, 16. aita santua eta martiria.

[San Paulok Erromatarrei 3, 21-30a: Fedegatik hartzen ditu zintzotzat.
Sal 130 [129]: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 47-54.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, zuen arbasoek hildako profetei hilarriak eraikitzen dizkiezuenok! Horrela, arbasoek egindakoarekin ados zaudetela aitortzen duzue; zeren haiek hil egin baitzituzten profetak, eta zuek hilarriak eraikitzen baitizkiezue.

Zerbaitegatik esan zuen Jainkoaren jakinduriak: “Profetak eta apostoluak bidaliko dizkiet eta batzuk hil eta beste batzuk erasoka erabiliko dituzte”. Baina munduaren hasieratik isuri den profeta guztien odolaren kontuak eskatuko dizkio Jainkoak gizaldi honi: hasi Abelen odoletik eta aldaretik santutegira bitartean hil zuten Zakariasen odolerraino. Bai, Nik diotsuet gizaldi honi eskatuko dizkiola kontuak.

Ai zuek, lege-maisuok, jakintzaren ateko giltzaren jabe egin zaretenok! Zuek ez zarete sartu, eta sartu nahi zutenei ez diezue utzi».

Jesus handik atera zenean, fariseuek eta lege-maisuok gupidarik gabe eraso zioten, galderak egin eta egin, ea erantzun okarren batean harrapatzen zuten.

El Salvadorren dago Divina Providenciaren ospitaletxea, 1980ko martxoaren 24an gertatu zenaren lekukoa: Romero monsinorea, eukaristia ospatzen ari zela, tiro batek bete-betean jota, zerraldo erori zenaren lekukoa. Antzeko beste gertaera batez mintzo zaigu gaur ebanjelioa: Zakarias profetarenaz, aldarearen eta santutegiaren artean erail baitzuten. Eta antzeko beste bizitza batez mintzo zaigu gaurko jaiak. Antiokiako Ignaziorenaz. Martiri erailtzeko Erromara zeramatela, idatzi zuen: «Jainkoaren lekuko gara, piztien (pertsegitzailen) haginek ehoak, Kristoren ogi garbi bihurtzeko». Ospatu ez ezik, bihurtuko ahal gara gu ere eukaristia, anai-arrebei bizia emanez Jainkoaren aintza handienerako!

Urteko 28. astea.

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea*.

[Ben Sirak 15,1-6: Jakinduriaz eta adimen-espirituz beteko du eta soinekorik ederrenaz jantziko. Sal 89 [88]: Iragarriko diet zure izena neure senideei, goretsiko zaitut batzarraren erdian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Bere bizitza kontatzen hastean, Teresa Jesusenak diosku bere «otoitz-moldeaz» hitz egingo digula. Esan nahi balu bezala: «nire bizitza ezagutu nahi baduzue, neure otoitz-abenturaz hitz egin behar dizuet. Izan ere, nire bizitza nire otoitza da eta nire otoitza nire bizitza». Gainera, Teresaren arabera, «maite gaituela dakigunarekin egindako maitasun-harreman» da otoitza. Eta Jesusen adiskide izatea, etengabe haztera deitua den bizitza da. Hona, beraz, Teresak eskualdatu nahi izan zigun jakinduria. Txikien eta xumeen jakinduria (eta, berak, gizarte matxista bateko emakume, bere esperientziaz jakin zuen zer esan nahi duen talde horretako kide izateak!). Jakinduria, mundu honetakoa ez dena... baina mundu honek hainbestearino behar duena.

Urteko 28. astea.

Santa Eduvigis, *moja*.

Santa Margarita Maria Alacoque, *birjina, erlijiosa*
bisitarietakoa.

[San Paulok Erromatarrei 4, 13. 16-18: Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari eutsiz. Sal 105 [104]: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 8-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko du Gizonaren Semeak ere Jainkoaren aingeruen aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten duenari barkatuko dio Jainkoak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez dio barkatuko.

Sinagogetara, buruzagien eta agintarien aurrera, eramango zaituztetenean, ez ibili kezkatan nola egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitizue une hartan bertan zer esan behar duzuen».

«**E**spiritu Santuak irakatsiko dizue zer esan». Aitaren eta Semearen arteko maitasunaren lokailu da Espiritu Santua. Halaber, gure bihotzean isuritako maitasuna da Espiritu Santua, dei egiten duena: «Abba! Aita». Espiritu Santua izatea (maitasuna, beraz) hitz egitera edo isilik gelditzera inspiratuko gaituena, gatazka-uneetan — batzuetan, Jesusi jarraitzeagatik («sinagogara eramango zaituztete epaileen eta agintarien aurrera») — dohain handi bat da, merezi duena eskatzea etengabe. Azken batean, maitasunak bakarrrik defenda gaitzake zinez. Gainera, geure Defendatzailea («Paraklitoa») dugu Espiritu Santua: beraren kontra joatea, esango litzateke, «nork bere buruari harrika egitea» izango litzatekeela.

Urteko 29. astea.

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*.

§ Isaias Profetaren liburutik 53, 10-11.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asean izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

[Sal 33 [32]: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 4, 14-16.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zuetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,35-45.

Aldi hartan, Santiagok eta Joane, Zebedeoren semeek, Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna Zuk guri egitea nahi genuke». Jesusek galdetu zien: «Zer nahi duzue, bada, Nik zuei egitea?» Eta haiek: «Eser gaitetzela bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean, Zu zeure aintzara iristean».

Jesusek esan zien: «Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kaliza mingotsa edateko, edo Nik murgildu behar dudan uretan murgiltzeko?» «Bai, gauza gara!», erantzun zioten.

Urteko 29. astea.

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*.

Jesusek, orduan: «Nik edan behar dudan kaliza mingotsa, bai, edango duzue, baina Nik murgildu behar dudan uretan murgilduko ere; baina nire eskuin-ezkerretan esertze hori ez dago nire esku inori ematea; Jainkoak norentzat duen prestatua, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, haserre jarri ziren Santiagoren eta Joanen aurka. Jesusek dei egin eta esan zien: «Dakizuenez, herrien buruzagiek mendean hartzen dituzte herriak eta handikiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar zuen artean. Zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi denen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita zerbitzatua izatera etorri, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia denen alde ordainsari ematera».

«**E**z dakizue zer eskatzen duzuen». Ez horixe! Ez zekiten eta imajinatu ere ezin imajinatu zuten! «Berarekin bi gaizkile gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean, bestea ezkerrean». Horixe izan zen Jesus gurutziltzatu zuten unea. Horixe izan zen beraren eskuinean eta ezkerrean esertzea, Zebedeo xalo haiek eskatu zioten bezala. Hau bakarrik esan ahal izan zuten seguru: «bai, edan dezakegu kaliza», beren ezjakintasuna segurtasun haren gainetik baitzuten. Beraien sinpletasun hura «nabigatzaileentzat ohar» bilakatu zen Jesusen jarraitzaile ororentzat, bere ahalmenaz hain ustetsu denean nola ezjakin bere ahuldadeaz. Hobeto irtengo zaio, ahuldade horretaz oharturik, zerbitzu-bideari ekitea. Izan ere, egia esateko, Jesusi jarraitzean, gauzak oso bestela gertatzen dira inguruan dugun munduko gertaerekin konparatzen baditugu. Nahiz eta, batzuetan, tentazioan erori izan garen kalkoa ikusteko munduan ageri denaren eta Elizaren baitan bizi dugunaren artean. Horregatik, egunero eskatzen dugu: «ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen!» Eta, horregatik beragatik, ez genioke utzi behar arretea eskaintzeari Jesusen oharpen honi: «zuen artean ez dadila izan horrela!»

Urteko 29. astea.
SAN LUKAS, EBANJELARIA.

§ San Paulok 2 Timoteori 4, 10-17b.

Anaia maitea: Dimasek utzi egin nau; nahiago izan ditu mundu honetako gauzak, eta Tesalonikara joan da; Kreszente, berriz, Galaziara joan da eta Tito Dalmaziara. Lukas beste inor ez dago nirekin. Hartzazu Markos eta ekarri zeurekin, oso ona baitu lanerako. Tikiko Efesora bidali dut. Hona etortzean, ekar ezazu Troaden, Karporen etxean, utzi nuen soingainekoa, baita liburuak ere, batez ere pergaminoak.

Alexandro errementariak kalte handia egin dit; Jaunak ordainduko dio bere jokabidearen arabera. Kontu izan zeuk ere horrekin, gogor jarri baitzen gure irakatsien kontra.

Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten.

[Sal 145 [144]: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko

Urteko 29. astea.

SAN LUKAS, EBANJELARIA.

da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

«**L**ukas bakarrik dago nirekin». Lukas, adiskide leiala gorabehera zailetan, adiskidetasuna gehiena eskertzen denean... Lukas Jainkoaren erruki leialaren ebanjelaria da. Honela agertu digu Lukasek Jesus: pobreengan agertu ohi du gehienik erruki hori, halakoengan baitu bere atsegina Jainkoak boteretsuengan baino areago. Erruki hori, alderdikoitasun edo lehentasun horretatik abiatuz ere, unibertsala da, hirurogeita hamabiak bidaltzeak agertzen digunez (zenbaki honek, Bibliaren arabera, munduko nazio guztiak adierazten ditu). Misioak, gainera, otoitza ere eskatzen du lagun: ez dakigu nola otoitz egin, baina Espiritu Santuak egiten du otoitz guregan. Otoitza eta Espirituaren egintza ere Lukasen irakaspenaren ezaugarri dira. Ebanjelari bakoitzak Jesusen misterioaz nork bere alderdiak azpimarratzen ditu, misterio horretan murgil egitera gonbidatuz... «bera gehiago maitatzeko eta berari jarraitzeko».

[San Paulok Erromatarrei 5, 12. 15b. 17-19. 20b-21: Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira salbatuak nagusi izango betiko bizian! Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitetze nagusia ezteietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak.

Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!»

Zerbitzari bihurtzen den nagusi bat! Horra gaurko ebanjelioaren paradoxa. Lukasen ebanjelioan jada, Jesusek diosku: «Ni zuen artean, zerbitzari dena bezala nago». Eta dena printzipio-adierazpen hutsean geldi ez dadin, hor dugu Joanen ebanjelioko pasadizoa: Jesus ikasleei oinak garbitzen. Uste izaten dugu gu geu izaten garela lehenak Jauna maitatzen, Jaunaren bila ibiltzen eta bera zerbitzatzen; baina, izatez, bera da lehena gu maitatzen, gure bila ibiltzen, gu zerbitzatzen, eta pentsatzen duguna baino neurri handiagoan. Honetaz konturatzen garenean bakarrik, orduan sortzen zaigu gauza bera egiteko gogoia, nola berarekin hala gainerakoekin.

*San Paulo Gurutzekoa, *fundatzailea* (pasiotarrak), *apaiza*.
San Grat (Zuberoan VI. mendean), *gotzaina*.

Urteko 29. astea.

Santa Aurora, *aitorlea*.

San Kornelio, *ehuntaria*.

[San Paulok Erromatarrei 6, 12-18: Heriotzatik bizira itzulitako gizaki bezala, jarri zeuen gorputz-atalak Jainkoaren zerbitzura.

Sal 124 [123]: Gure laguntza Jaunaren izena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 39-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeko nagusiak, lapurra zein orduan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea».

Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?»

Jaunak erantzun: «Izan zaitezte etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroien buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio.

Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Asko eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

Bata besteari gomendatu gaitu Jainkoak, «administratzaile leial eta arduratsu» izatera deitu gaitu. Ez da itxurazkoa Kainen jarrera, Jainkoak Abel bere anaiatz galdetzean: «Neure anaiaren zaintzailea ote naiz, ba?»

Urteko 29. astea.

Santa Aurora, *aitorlea*.San Kornelio, *ehuntaria*.

Ba, bai: hala gara! Ez dezagula izan sekula Jesusen gaitzespen hau entzun beharrik: «nire anaia txiki hauetako bati egiteari utzi diozuenean, neuri egiteari utzi diozue». Horretarako, etengabe adi bizitzeko jarrera eskatzen digu, Jauna gure bizitzara noiz etorriko zain-zain bizi gaitezen. Jauna, izatez, ez da «etorriko dena» bakarrik, baizik eta «etorri eta etorri» dabilena... gure bihotzeko atea jo eta jo ari ohi dena.

Africa ez da abentura hutsa; batez ere, errealitate bat da

Kontinente oso aberatsa balio handiko lehengaietan; aldi berean, pobretasunak eta ezbeharrak sakon joa, Iparraldeko lurralde aberatsen lukurreriagatik eta bertako lider politiko askoren ustelkeriagatik.

Misiolari askok eman izan du eta ematen du duenik eta hoberena gizarte berri bat sortzeko.

Hego Afrikan, adibidez, elkarrekin eta batera biltzen saiatzen dira zuri, indiar, mestizo eta asiar. Azalaren koloreagatik hain banatua den gizarte horrek misiolari berrien beharra du, aldarrikatuko dutenak, beren bizieraz eta beren hitzaz, badela beste era bat bizikidetasuna ulertzeko eta bizitzeko.

San Paulorena hots egiteko: «Jada ez da ez judurik, ez greziarrik, ez esklaborik, ez aserik» Horixe da hainbat misiolarik predikatzen duena Hego Afrikan: sor daitekeela gizarte berri bat, zeinetan ez baita diskriminatuko inor ere azalaren koloreagatik edo status sozialarengatik. (El Mundo Negrotik, 2019ko azaroko 653. zenbakitik hartua, 64-65 or.)

Urteko 29. astea.

Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*.

Diego Luis de San Vitores, *dohatsua, apaiza*,
eta San Pedro Calungsod, *martiriak, jesuitak*.

[San Paulok Erromatarrei 6, 19-23: Bekatuaren menpetik askaturik, Jainkoaren esklabo eginak izan zarete. Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itzarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-uretan murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte!

Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

Mingarri gertatzen zaizkigu harreman pertsonal eta komunitario hotzak. Harremanen berotasun gozoa nahi izaten dugu, ezaugarri enpatia, hurbiltasuna eta elkarrekiko ardura... dituena. Mundura sua ekartzera etorri dela esan digu Jesusek. Mendekoste eguneko pasadizoa ere «suzko mihiez» mintzo da, ikasleen gainean kokatu eta ebanjelioa hots egitera eragiten zieten zietenez. Eta Emausko ikasleek galdetzen zioten elkarri: «ez al genuen bihotza sutan, Liburu Santuaz mintzo zitzaigunean?» Espirituak uxa dezala gugandik hoztasun hau, batzuetan gatazkei ihes egin nahi izatetik etorri ohi zaiguna; izan ere, orenen gainetik eta guztiakin ondo gelditu nahi izaten dugu, eta bost axola izaten zaizkigu, bai besteak, bai besteek pentsatzen dutena.

[San Paulok Erromatarrei 7, 18-25a: Nork askatuko nau, heriotzara naraman neure izaera honetatik? Sal 119 [118]: Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, “euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, “sargori dago” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz bereizten zuzena zer den?

Zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitetz bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epaileagana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

Jainkoa «ahots infinitua» da (esan ohi zuen Donibane Gurutzekoak), eta hitz egiten digu, ez Liburu Santuen bidez bakarrik edota pertsona hautatuen bidez bakarrik, baizik eta gertaeren eta egoeren, pertsonal nahiz kolektibo, bidez ere bai. «Zeruek Jainkoaren aintza adierazten dute... ez dute hitzik, ezin entzun dugu beraien ahotsik... baina beraien mezuak lur osoan jotzen du», otoizten du salmogileak. «Aldien ezaugarriak» dira; horiek bereiztera gonbidatu gintuen Vatikanoko II.a kontzilioak, ebanjelioarekin bat eginez. Espiritu kontenplazioari emana eta ernea duenarentzat den-dena bilaka daiteke erantzuna espero duen Jainkoaren interpelazio. Eta gugandik espero duen erantzun hau ez genuke geroaren gerorako utzi behar. «Bidean ibili gabiltzan bitartean» eman beharko genioke erantzuna.

Urteko 29. astea.

San Joan Kapestrano-koa (Italia), *frantziskotarra, apaiza.*

[San Paulok Erromatarrei 8, 1-11: Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi da. Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,1-9.

Aldi hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertatuaren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren oparien odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien:

«Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekatariago zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete».

Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Motz ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?”

Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurtu eta ongarrria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

Batzuetan gainerakoen peskizan (gaixoti) bizitzeko arriskua izaten dugu («begira zer gertatu zaion halakoari edo beste hari») eta (arduraz) geure buruaz axolagabe. Jesusek geure baitara itzuli nahi gaitu, gogoratzen baitigu: «hobeak zaretela uste al duzue? Ba, ez, ez zarete hobeak... Eta, bihotz-berritzen ez bazarete...». Orduan konturatzen gara ezpal berekoak garella eta pikondo hau bezalako, hainbateko arretaz eta arduraz zaindua... baina beragandik espero zen fruiturik

Urteko 29. astea.

San Joan Kapestrano-koa (Italia), *frantziskotarra, apaiza.*

ematen ez duena... Nahiz eta, zorionez, beti izaten den mahastizain bat, etsitzen ez duena, eta beste aukera bat eskaintzen diguna espero den fruitu hori emateko. Eta, historia intemporal delako, «urte honetan oraino» delako hori aise bihur daiteke «beti» delako.

Norentzat da Jainkoaren hitza?

«Denontzako da
 Jainkoaren hitza,
 esan zuen gotzain jaunak,
 eta, erdaraz mintza zitzaigun,
 baina erdaraz bakarrik,
 zeren
 han ginen euskaldunok
 ez ginen hain den denak,
 nahiz eta gehienak.
 Hauxe esan dit amak.
 Baina gotzainak badaki
 nahiz eta euskaldunak
 noizbait gehienak izan,
 beti garela hondakinak».
 (B. Gandiaga, Arantzazuko egutegia, 2019-08,07)

Urteko 30. astea.

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*
(*Klaretarrak*).

§ Jeremias Profetaren liburutik 31, 7-9.

Honela mintzo da Jauna:

«Egin oihu pozaren pozez Jakoben herriagatik, egin irrintzi herrien buru denagatik.

Egin oihu, goretsi Jauna, esanez: “Salbatu du Jaunak bere herria, Israelen bizirik geldituak”.

Begira, iparraldetik ekarriko ditut, lurreko azken mugetatik bilduko. Jendetza izugarria itzuliko da: horien artean itsuak eta herrenak, haurduinak eta haurra izan berriak batean. Negar eta otoitz artean ekarriko ditut.

Ongi ureztaturiko ibarretan zehar eramango ditut, estropezurik egingo ez duten bide zelaian barna, Aita izango naiz Israelentzat, nire lehen- seme izango da bera».

[Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak; hau da poza daukaguna!]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 5, 1-6.

Apaiz nagusia gizonen artetik hartua eta Jainkoaren aurrean gizon-emakumeen ordezkari izateko jarria izaten da, bekatuengatik emaitzak eta opariak eskaintzeko.

Badaki ezjakinez eta okerbideratuez gupidatzen, bera ere giza ahuleriaz inguratua dagoenez gero. Horregatik, bere bekatuengatik ere opariak eskaini behar ditu, herriaren bekatuengatik bezala. Eta ezin du inork apaiz nagusigoaren ohorea beretzat hartu, Jainkoak deiturik ez bada, Aaron bezala.

Horrela, Kristok ere ez zion berak eman bere buruari apaiz nagusigoaren ospea, Jainkoak baizik, honela hitz egin baitzion:

«Nire Seme zara Zu, Nik zaitut gaur sortu».

Beste salmo batean ere hau esaten dio:

«Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko».

Urteko 30. astea.

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*
(Klaretarrak).

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,46-52.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin eta jendetza handiarekin Jerikotik ateratzean, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bideertzean eseria. Jesus Nazaretarra zela jakitean, deiadarka hasi zen: «Daviden Seme, Jesus, erruki zakizkit!» Askok gogor egiten zion isilarazteko; baina hark areago egiten zuen oihu: «Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Jesusek gelditu eta itsuari dei egiteko agindu zuen. Deitu zioten, esanez: «Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik». Bere soingainekoa jaurtiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Maisu!» Jesusek esan zion: «Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu». Une berean ikusmena berreskuratu zuen, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

Guztiok ikus gintezke islaturik Bartimeo itsu honengan. Aski da pasadizo honen testuinguruari begirada bat ematea: Jesusek nekaldia iragarri du eta irakaspenak eman ditu (dibortzioaz eta haur / pobre bihurtu beharraz, aberastasunen eta handinahiaren arriskuaz, bizitzan zerbitzari izateko proposamenaz...): irakaspenak, irensteko zailak. Zaila! Guztien gaintik, honek guztiak gogoia ematen ditu, Bartimeo bezala, «bide-ertzean esertzeko»... eta datorrela datorrena! Halaz guztiz, bihotzeko gurari sekretu batek xuxurlatzen digu, hondohondoan pena merezi duela Maisuari jarraitzea. Inola ere isilarazi ezin dugun gurari edo desira da. Ez ezerk, ez inork isilaraz dezake, eginahal guztiak gorabehera. Gurari honi erantzunez bezala, gelditu egin da Jesus. Geldialditxo bat da, atzerakarga dabilenari kasu egiteko. Zer nahi duzu egin diezazudan? Gauza simplea balitz bezala galdera honi erantzutea! Bartimeok, eta guk geuk, erantzun diogu: Ikustea!, edo berriro ikustea, beste batzuetan bezala. Entzun ondoren fede-izpi honek (izpitxoia iruditzen zaigu guri) salbatu gaituela, espero genuen miraria gauzatu da: Bartimeok, eta guk geuk berarekin, ikusmena berreskuratu dugu eta Jesusi bidean gora jarraitzeari eman diogu.

Urteko 30. astea.

San Krispin eta San Krispiniano, *anaiak, martiriak*
(*Zapatarien Zaindariak*).

[**San Paulok Erromatarrei 8, 12-17:** Seme-alaba egiten zaituzten Espiritu hartu duzue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!» hots egiten diozue Jainkoari. **Sal 68 [67]:** Gure Jainkoa Jainko salbatzailea.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 10-17.**

Aldi hartan, larunbatez sinagoga batean irakasten ari zen Jesus. Bazen han emakume bat, hemezortzi urte haietan espiritu baten menpe gaixo zegoena; erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere zuzendu.

Ikustean, Jesusek deitu eta esan zion: «Emakume, libre zara zeure gaitzetik». Eskuak ezarri zizkion, eta bat-batean zuzendu zen eta Jainkoa goresten hasi.

Sinagogako buruzagiak, Jesusek larunbatean sendatu zuelako haserre, esan zion jendeari: «Astean sei egun daude lanerako; etorri egun horietan sendatzera, eta ez larunbatean».

Jaunak erantzun zion: «Itxurazaleok! Zuetako nork ez du larunbatez idia nahiz astoa ukuilutik askatzen eta ura edatera eramaten? Eta Abrahamen ondorengo den honi, hemezortzi urtez Satanasek lotua eduki duen honi, ez ote zitzaion larunbatez lokarri hori askatu behar?»

Hitz hauekin, lotsa-lotsa eginik geratu ziren Jesusen etsai guztiak; jendetza, ordea, pozik zegoen hark egiten zituen gauza miragarri guztiengatik.

«**P**iztuera» hitzak «zutik jartzea» iradokitzen du, zutitzea. Azken batean, galdua zenuen duintasuna berreskuratzea (horrek, jakina, ez du baztertzen zerbitzari izatea). Paradisuko sugeak egiten zuen arrastaka ibiltzearen kontrakoa. Edota Kainenaren kontrakoa, burumakur ibili ohi baitzen, Abel bere anaia erail ondoren. Jainkoak zutik ikusi nahi gaitu, aurrera eta gora begira bizitzeko gai. Bekatupeko bizitza, aitzitik, «bere baitan konkortua» den bizitza dela esan ohi da. Honela ageri zaigu emakume honen bizitza, hemezortzi urtez. Eta, horregatik, bera gaixotasunetik askatzea Satanasegandik askatzea bezala zen. Ospatzea merezi zuen zerbait, larunbatean berean ere, edota larunbatean hain justu.

Urteko 30. astea.

San Evaristo, 5. *aita santua*.

[San Paulok Erromatarrei egindako gutunetik 8, 18-25: Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko bere seme-alaba izatea zer den. **Sal 126 [125]:** Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 18-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeren irudiko da Jainkoaren erreinua? Zeren antzekoa dela esango nuke? Gizon batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dute habia».

Esan zuen gainera: «Zeren antzekoa dela esango nuke Jainkoaren erreinua? Legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

Mostaza hazia... legamia... Gauza txikiak eta, itxuraz, hutsaren hurrengo. Baina hazten joateko eta hazarazteko eginak (ore guztia hartzitzen duen legamia bezala), eta halaber inguruan ditugun guztientzat erreferentzia-gune bihurtzeko ere (mostaza hazia zuhaixka handi bilakatzen da, zeinen adarretan habia egiten baitute txoriek). Horrelakoa da Jainkoaren Erreinua eta horrelakoa da (izan behar luke!) Jesusen jarraitzaileen bizitza ere: txikia, apala, etengabe hazkor eta gainerakoentzat erreferentzia-gune bihurtzera deitua. Jesusek, naturaren eta giza historiaren behatzaile fin delarik, gonbit hau dagigu: «danean diharduen eta kreatutako gauza guztietan niregatik ari den Jainkoa kontenplatzea», prestasun osoaz beraren lankide izateko.

Urteko 30. astea.

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*.

[San Paulok Erromatarrei 8, 26-30: Bera maite dutenen onerako bideratzen ditu Jainkoak gauza guztiak. Sal 13 [12]: Nik zure maitasunean dut, Jauna, konfiantza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,22-30.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara bidean zihoala, igarotzen zituen herri eta auzoetan irakasten zuen.

Batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?» Jesusek erantzun zien: «Saia zaitetze ate estutik sartzen. Egiaz esan, asko sartu nahi izango du, baina ezin izango da sartu. Etxeko jaunak jaiki eta ate itxiz gero, kanpoan geldituok ate joka hasiko zarete: “Ireki, Jauna!” Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten”.

Zuek, orduan, honela hasiko zatzaizkiote: “Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure plazetan irakatsi izan duzu”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten. Alde nigandik, gaizkileok!”

Orduan, negarra eta hortz-karraska izango da, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jainkoaren erreinuan ikustean, zeuen burua, berriz, jaurtia. Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaian eseriko dira. Begira: orain azkeneko den zenbait lehenengo izango da, eta lehenengo den zenbait azkeneko».

«**J**auna, gutxi izango al dira salbatuko direnak?» Hasieran, «ate estuaz» hitz egin digu Jesusek: asko saiatuko dira hartatik sartzen, baina ezin lortuko dute. Azkenean, jende honetaz mintzo zaigu: «ekialdetik eta mendebaldetik, iparretik eta hegotik datorrenaz». Ematen du benetako jendetza batez ari dela! Ez zaitetze pilatu, mesedez! Hainbeste badira eta ate hain estua... Sekretua? Azkenak direnetako bilakatzea, bera egin zen bezala. Beraingana hurbiltzea, bera hurbildu zen bezala. Orduan izango gara beraren ezagun (maite). Eta eseraraziko gaitu bere

Urteko 30. astea.

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*.

mahaian. Eta adituko dugu beraren irakaspena. Eta edango eta jango dugu berarekin (Eukaristia). Eta geuri ere pertsona ezagun egingo zaigu bera, topatu izan dugulako, berarekin harremanak izan ditugulako eta bera zerbitzatu izan dugulako beraren adiskide minengan.

Pobreziak baditu
hamaika aurpegi,
zuk esango deustazu
ez bada hau egi:
gaixo, zahar, etorkin
ume sarriegi,
pobrea baztertuta
ta gu harroegi?

“Hutsik ez esperantzak
inoiz pobreakin”
salmoak dinoskuna
ahaztu dogu sarri
Frantziskok Erromatik
gogoratu barri:

fedea ekintzetan
danon bizigarri.

Politika agorran
ez zaitez geratu,
berba askoren orde
eskua luzatu,
senide pobreakin
maitez begiratu:
barru espiritua
landu ta ospatu!

(Frantzisko aita santuaren mezua
pobreen III. mundu jardunaldirako;
Arratiako elizaren eskutik;
«Jauna gure Jainkoa» doinuaz).

Urteko 30. astea.

San Simon eta San Judas, *apostoluak*.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena.

Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaitztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituen.

Bere ikasleei dei egin eta haietako hamabi aukeratu zituen. «Dei egiteaz» eta «aukeratzeaz» hitz egitean, uste izan genezake «hoberenak» aukeratu zituela. Baina aukeratuen zerrendari erreparatzean, ez da hori datorkizun ustea. Jende arrunt eta normala; ematen du, ebanjelariak atsegin dutela, batzuetan, haien akatsak agerian jartzea: oldarkortasuna, fede-falta, ulertzeko nagitasuna... Bestetik, ez bide zituzten batere errazak beren arteko harremanak: a priori arrazoiz barrunta genezake zerga-biltzaile bat eta zelota bat ez zirela izango adiskide bihotzeko eta adiskide min, esaterako. Ezin askotarikotasun handiagorik! Gure elkarreak izan daitezkeenaren benetako argazki... Izendatzaile komun? Jesusek deituak. Jesusek batuak. Lehen unetik Jesusek zer egingo eta zer esango peskizan, zain eta begira.

Urteko 30. astea.

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 9, 1-5: Ni neu madarikatua izatea ere onartuko nuke, nire odoleko senideen onerako. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,1-6.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ur-mina zuen gizon bat zegoen han Jesusen aurrean. Jesusek, orduan, lege-maisu eta fariseuei galdetu zien: «Zilegi da larunbatez sendatzea ala ez?» Haiek isilik gelditu ziren.

Orduan, Jesusek, gaixoa eskutik hartu, sendatu eta bidali egin zuen. Gero, haiei esan zien: «Zuetako nork, semea nahiz idia putzura erortzen bazaio, ez du berehala ateratzen, larunbata izanagatik?» Ezin izan zioten erantzun.

«Zelatan zegozkion»... «Mutu gelditu ziren»... «Erantzun ezinda gelditu ziren»... Isiltasun-harresi bat ari da eratzen Jesusen inguruan, isiltasun etsai eta sorgorra. Isiltasun hau «armadura» antzeko bihurtu da; armadura jantzi nahi dute Jesusen etsaiek, beren burua harengandik babesteko: harengandik eta gainerakoen aldeko haren irakaspén eta jokabidetik. Behar izanez gero, begi-bistakoena ere ukatu egiten da. Gizon hau legerik sakratuenak ere hausten ari da, larunbatarena adibidez. Zertan ibili gehiagoren bila? Baina, Jesusen aurrean, hoberena, armadura-babesik gabe bizitzea da, defentsarik eta isiltasunik gabe, geure izatean sakon sustraituak egon ohi diren aurreiritzirik gabe. Hoberena, arma gabetze orokorra da. Hoberena, galtzea da, zeina, paradoxaz, gure garaipenik preziatuen bihurtzen baita.

Urteko 30. astea.

San Martzelo, *martiria*.

Domingo Collins, *dohatsua, jesuita*.

[San Paulok Erromatarrei 11, 1-2a. 11-12. 25-29: Israeldarrak bazterretik Jainkoarekin baketzea etorri baldin bazaio munduari, zer ote datorke Jainkoak haiek berriro onartzetik? Sal 94 [93]: Jaunak ez du bere herria zapuztuko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 1.7-11.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek aurreneko jarlekuak hartzen zituztela eta ohar hauek egin zizkien:

«Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, baliteke-eta zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izatea; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”. Orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsaturik.

Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago!” Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Azkenak direnetako izatea, besteak beste, gainerakoen artean gailen edo oilar izateari uztea da. Jakina, Jainkoaren dohainak ukatzera eraman gaitzakeen txikitasuneraino iritsi gabe. Izan ere, dohaina ezin da ukatu: eman egiten da, besterik gabe. Jesusen Lagundiko Konstituzioetan, Ignaziok bide bat aurkezten digu: «gauza orotan saiatuz eta opa izanez gainerakoei abantaila ematen, guztiak animatuz beren bihotzean norbera baino goragoko (hobe) bailiran... halako moduan zeinetan, batak bestea aintzat hartuz, haziz joan daitezten debozioan (Jainkoa aurkitzeko erraztasuna), eta goretsi dezaten Jainko gure Jauna, zeina ikusten saiatu behar baitu bakoitzak besteagan hau Jainkoaren irudia bailitzan». Alonso Rodriguezek, Mallorkako Montesongo ikastetxeko atezainak, ezabaezineko eran ezarri zituen hitz hauek bere bihotzean.

Urteko 31. astea.

San Alonso Rodriguez, *jesuita*.

§ Deuteronomioa liburutik 6, 2-6.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzaion Moises Israel herriari: «Begurune izango diozu Jaunari, zeure Jainkoari, eta bai zuk eta bai zure ondorengoek nik ematen dizkizudan Jaunaren lege eta agindu guztiak beteko dituzue zeuen bizitza osoan, luzaro bizi zaitzetzen.

Entzun itzazu, beraz, Israel, eta saiatu betetzen, zorionsu izan zaitezen eta biziki ugaritu, esnea eta ezta darizkion lurraldean, Jaunak, zuen arbasoen Jainkoak, hitzeman bezala.

Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz. Izan beti gogoan gaur esaten dizkizudan hitz hauek».

[Sal 18 [17]: Maite zaitut, Jauna, neure indar!]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 7, 23-28.

Senideok: Lehengo ituneko apaizak asko ziren, ezin baitzuten irau, hil egiten zirelako. Jesusek, ordea, beti irauten duenez, inoiz amaituko ez den apaizgoa du.

Jesusek betiko salba ditzake beraren bidez Jainkoagana hurbiltzen direnak, bizirik baitago haien alde beti erregutzeko.

Benetan, Jesus bezalako apaiz nagusia behar genuen guk: santua, errugabea eta kutsugabea, bekatoriengandik berezia eta zeruak baino gorago jaso. Honek ez du, beste apaizek bezala, lehenengo bere bekatuengatik eta gero herriarenengatik egunero opariak eskaini beharrik, behin betiko egin baitzuen hori, bere burua opari eskaini zuenean. Legeak, izan ere, gizon ahulak izendatzen ditu apaiz nagusi; legea baino geroagokoa den Jainkoaren zinak, ordea, Semea izendatu du apaiz nagusi, betieran bete-beteko dena.

Urteko 31. astea.

San Alonso Rodriguez, *jesuita*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusia?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusia: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nor bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urrutu Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

«**H**urbil da Jainkoaren Erreinua. Bihotz-berri zaitzte!» Horixe izan zen Jesusen mezua jendaurreko bitzta hasi zuenean. Erreinua hurbil. Jainkoa hurbil. Ez zaude urrun Jainkoaren Erreinetik, esan dio Jesusek lege-maisu honi, agindurik garrantzikoena, funtsezkoena, zein den galdezka etorri zaion honi. Izatez, gizon hura muinaren edo giharraren bila zebilen, denborarekin eta errutinaz, pena merezi duena estaliz eta hartaz ahaztuz, ezarri ohi dizkiogun eranskinik gabea. Dena garrantzizkotzat eman nahi izaten dugunean, orduan ezer ez da izaten garrantzizko. Hurbil... urrun... Halaz guztiz, Jainkoaren Erreinua ez da leku jakin bat, hemen edo han kokatua... hurbil edo urrun... ezta beste leku batean ere. Baizik eta beti mugikor den errealitate da. Alde guztietan dago Erreinua. Gure artean. Arazoa ez da gu bakarrik hurbiltzea Erreinura, baizik eta bera ere hurbil daiteke gugana. Hurbildu egiten zaigu; lehenik eta behin, Jesusen presentziari esker; horra Jainkoa gure artean hurbil egotearen metafora gaindiezina. Halaber hurbiltzen zaigu eguneroko geure bizitzan bizi ditzakegun maitasun-historia guztietan ere.





AZAROA / ZEMENDIA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Depresioa jasaten ari diren pertsonak

Egin dezagun otoiitz: Depresioa edo erabateko nekea bizi duten pertsonak guztien sostengua senti eta izan dezaten, baita biziari animoz begiratzeko argia ere.



Urteko 31. astea.

SANTU GUZTIEN OROIPENA.Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria] 1936),
*dohatsua, apaiza, martiria.***§ Apokalipsia liburutik 7,2-4,9-14.**

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak.

Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamen».

Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean, eta Jainkoa adoratu zuten, esanez:

«Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

[Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3,1-3.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako.

Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu. Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten: «Zorionekoak gozoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango.

Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa.

Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira.

Zorionekoak zuzentasunagatik erasoia jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetzte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

Bere Gaudete et exultate abertimenduan, Frantziskok ohartarazi digu, kristau guztiak santu izatera deituak garelakoak indarrean jarraitzen duela beti, eta horregatik «santutasunaren Erdiko klaseaz» mintzo da edota «aldameneko ateko santuez». Horrenbestez, santutasuna ez da kristauen «elite» batek bakarrik eskura dezakeen helmuga, «aristokrazia» espiritualaren antzeko zerbait, baizik eta helmuga unibertuala. Geure eskura duguna, beraz. Honetan

Urteko 31. astea.

SANTU GUZTIEN OROIPENA.Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria] 1936),
dohatsua, apaiza, martiria.

bat egin du Frantziskok Apokalipsiarekin, «egundoko jendetzaz» mintzo baita azken hau, zeinak, «atsekabe handitik» datorrelarik (ez dira libratu, hori ez, bizitzako sufrimenduak jasan behar izatetik), «zutik» jarraitzen baitu, lur jo gabe, Bildotsaren aurrean, garaipen kantuak abestuz. Berorien ezaugarri komuna? Zoriontasuna, dudarik gabe. Zeinetara iritsi baitira, ez munduak bera lortzeko eskaintzen dizkigun errezeten bidez, baizik eta mundu honetako ondasunen aurrean agertu duten atxikimendu-gabezia, gupida eta euspen-gaitasunaz, bihotz-garbitasunaz, zuzentasun-antsiaz, barkatzeko gaitasunaz. Horra santuak, gizon eta emakume, askotan urruneko imajinatzen ditugunak... Baina gure anai-arreba izateari sekula ere utzi ez diotenak.

Zerua sinetsi

Zerua sinestea niretzat, iritzi honen aurka neure indar guztiaz altxatzea da: gizonezkoen, emakumeen, haurren gehiengo handi hori, bizitza honetan soilik miseria, umilazioa eta sufrimena ezagutu duen hori, betiko ahaztua izango delako iritziaren kontra altxatzea. Jesusen baitan dudan konfiantzaz, bizitza bat sinesten dut, zeinetan ez baita izango pobreziarik eta oinazerik, inor ez baita izango triste, inork ez baitu izango zertan negar egin. Azkenean beren aberrira iristen ikusi ditut itsas txaneletan itsasoratu direnak.

Zerua sinestea niretzat, hainbat eta hainbat jenderengana hurbiltzea da: osasunik gabe, gaixo kroniko, elbarri fisiko eta psikiko, depresioan eta larritasunean murgildurik, bizitzeaz eta borroka egiteaz asperturik den jenderengana hurbiltzea. Jesusi jarraituz, sinesten dut, ezen egun batean ezagutuko dutela zer den bakean eta guztiz osasuntsu bizitzea. Entzungo diotela Aitari esaten: Sar zaitetz zeure Jaunaren gozamenean betiko. (Jose Antonio Pagola, zatitxoa).

§ Job liburutik 19,1.23-27a.

Jobek esan zuen:

Ai nire hitzak idatziak geldituko balira, liburuan ezarriak! Edota burdinazko eztenaz eta berunaz betiko grabatuak haitzean!

Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela eta, azkenean, hautsaren gainetik jaikiko dela. Nire larruazal hau hondatu ondoren, gorputzik gabe, Jainkoa ikusiko dut. Nik neuk ikusiko dut, eta ez bestek; neure begiez ikusiko dut. Bihotza sutan dut neure barruan!»

[Sal 25 [24]: Jauna, zugana jasotzen dut gogoa.]

§ San Paulok Filipinoarrei 3,20-21.

Senideok: Gu zeruko hiritar gara eta handik itxaro dugu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaeren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15,33-39; 16,1-6.

Eguedrian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani» –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»–. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko eman zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Bazeuden han, urrutitik begira,

Urteko 31. astea.

HILDAKO GUZTIEN OROIPENA.

emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joserren ama Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Jesusekin batean Jerusalemara igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaro zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joserren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

Heriotzaz mintzo bagara, **BIZIAZ** hitz egiteko da. Gaurko ebanjelioak Jesusen heriotzarena beraren piztueraren kontraerekin lotzen du. Azken hitza ez da heriotza, baizik eta bizia, eta bizi berpiztua. Ez da nolana hiko bizi bat, baizik eta hartua eta emana dena, Jesusenaren antzera. Gutxienekoa da buru-eskaintza hori egiteko modua: bakoitzaren kasuan, ezaugarri pertsonalak izango ditu nahitaez. Kristau izatea, hiltzen ikasten joatea da (bataiatuak garelarik, Jesusekin «hilobiratu kide» gara), bizi ahal izateko, gero eta gehiago, bera bizi izan zen bezala. Gari-alearen antzera, lurrera erori eta hiltzen ez bada, ez baitu fruiturik ematen; baina hiltzen bada, ugari ematen baitu.

Urteko 31. astea.

San Martin Porres, *domingotarra*.Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*.

[San Paulok Erromatarrei 13, 8-10: Maite duenak erabat betetzen du legea. Sal 112 [111]: Zorionekoa behartsuei esku betean ematen diena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihozten Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde aurretik deliberratzten, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Gure bizitzan egitasmo garrantziko bati ekiteko orduan, jakin beharra izaten dugu zer daukagun eskura, bera arrakastaz burutu ahal izateko. Zer daukagu eskura? Jesusi jarraitzean guztiz alderantziz gertatzen dira gauzak. Ez da daukaguna inporta duena, baizik eta geure bizitzan zer uzteko gauden prest. zeri uko egiteko gauden prest, ez ezer suntsitzeko, Jaunaren eskuetan jartzeko baizik. Ez dakigula ezer oztopo gerta Jesusi jarraitzeko. Deus ez. Ez eskura ditugun ondasunak, ez geure lotura afektiboak, ez —eta hau da garrantzikoena— geure «ego» propioa. Hau esatea da arazoa: «Hartu, Jauna, eta onartu... den-dena», ondoren, beragandik den-dena hartzeko, jada ez oztopo gisa, baizik eta beragana eta gainerakoengana gidatuko gaituen bide bezala.

Urteko 31. astea.

San Karlos Borromeo, *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 14, 7-12: Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara.
Sal 27 [26]: Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-10.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da beste laurogeita hemeretziak larreen utzirik, galdutakoaren bila joaten aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pozik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitetzte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”.

Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekatari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Eta zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta ardura guztiz bilatzen aurkitu arte? Eta aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitetzte nirekin, aurkitu baitut galdutako txanpona”.

Hara Nik esan: Berdin poztan da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekatari batengatik».

Jesusen parablek jakindakotzat ematen dituzte pentsaerak, guretzat halako ez diren arren. Benetan utzi behar al dira bertan behera laurogeita hemeretzi ardiak, galdua denaren bila joateko? Eta hankaz gora jarri behar al da etxe guztia, galdua den drakmaren bila jarduteko? Hainbateko errotikotasuna leuntzeko, norbaitek iradoki izan du galdua den ardi hori duela ardirik maiteena, esnerik eta artilerik hobena ematen dizkiona. Merezki al du beraren bila joaten ahalegintzea? Jesusen ikusmira, ordea, ez da horrelakoa: bila badoa, galdu delako doa, besterik gabe. Maisu peto-peto ageri da Jesus laguntza-kidetasunak eratzen; azkenean aldarazi egiten dute ikusteko eta sentitzeko gure era, gure bihotza berarenaren erako bihurtuz.

[San Paulok Erromatarrei 15, 14-21: Jesu Kristoren zerbitzari egin nau jentilentzat, Jainkoarentzat opari atsegingarri izan daitezten. Sal 98 [97]: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten.

Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”.

Etxezainak, orduan, hau zioen bere baitan: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”.

Banan-banan bere nagusiaren dezadun guztiei deitu eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiari?” Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?” Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”.

Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino».

Maisuari irten zaion zorientasun-agurra merezi dutenak, ez dira administratzaile honen trikimailuak eta nahasmenduak, baizik eta beraren trebetasuna edo zuhurtasuna. Ebanjelioak ere sugearen maltzuratasuna eta usoaren xumetasuna gomendatu ditu. Munduan bizi behar dugu munduko izan gabe eta mundutasuna ez «eransteko» moduan bizi ere, hau da, munduko bizitzaren ezaugarri den anbiguotasun hori gabe, gauzarik zuzenena etengabe okertuz ageri

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak.

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.*

den hori gabe. Beraz, bereizmenaren artea bizi behar da, Jainkoaren bihotzarekin soinu berean taupadaka jartzen baikaitu, gure bihotza garden eginez batera. Halaber, Jainkoaren Erreinuaren arazoaz beste batzuek (munduaren seme-alabek) azaldu ohi duten gogo berotasuna azaldu behar dugu, batzuetan hain bata bestearen kontrako izanik ere.

JESUSEN LAGUNDIKO SANTU ETA DOHATSU GUZTIAK

§ Deuteronomia liburutik 30,11-14.

Honela mintzatu zitzaien Moises herriari: «Obedituko diozu Jaunari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren aginduak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana.

Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskurazina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Ez dago itsasoaz bestaldea ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Zeren esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

[Sal 16 [15]: Zu zaitut, Jauna, neure ondarea.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12,23-26.

Aldi hartan, Jesusek erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da;

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak.

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.*

hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Zer esan nahi du jesuita izateak?, izan zen 32. Batzar Nagusiaren galderetako bat. Eta erantzun hau eman zuen: «nork bere burua bekatari dela aitortzea eta, halaz ere, Jesusen lagun izatera deitua dela». Gogo Jardunetako Jesus «behartsu eta apala». Beragandik hartzen dugu geure nortasuna. 35. Batzarrak, berriz, hau gogoratu zigun: «Jesusi begira jarritz daki jesuita batek norbera zer den». Jesusengandik hartzen ditugu, ez nortasuna bakarrik, baita misioa eta misio-era ere. Gari-alearen antzera, lurrera erori eta hilez bakarrik ematen baitu fruitua. Gaur lagun hauek guztiak gogoratu nahi ditugu, Ignazioren bihotza sutzen zuen Jesusen maitasun zoroak suturik, «beste su batzuk pizten dituen su bat» piztu izan dutenak.

Jesusen lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Gaur, jaiegun berean gure santu eta dohatsu guztiak ospatzen ditugu, Lagundi osoa bat dela argiago ulertzeko eta sakonago bizitzeko. Elizaren antzinako ohituraren antzera, Santu Guztien festaburuan Kristorekin zeruan dauden guztiak ospatzen diren bezala, guk jai honetan, ez aldarera jaso dituzten anaiak bakarrik, baita Kristorekin gizon eta emakumeak salbatzeko lan egin duten beste asko eta asko ere ospatzen ditugu, hari bere nekeetan jarraitu ondoren bere aintzan ere jarraitu diotenak.

Goretsia izan bedi Jainkoa, Jesu kKristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren ondasun oroz bedeinkatu gaituena!

[San Paulok Erromatarrei 16, 3-9. 16. 22-27: Agurtu ezazue elkar musu santuaz. **Sal 145 [144]:** Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 9-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabe dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasuna? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman zuei benetan dagokizuen?»

Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi».

Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egiten zioten Jesusi. Honek esan zien: «Zuek zeuen burua zintzo agertzen duzue jendearen aurrean, baina ezagutzen du Jainkoak zuen barrua; izan ere, gizakiak baliotsutat daukana, Jainkoarentzat mespretxagarri da».

Ez da izaten hain ezohikoa jabetzan daukaguna gure jabe eginik gertatzea. Diruarekin gertatzen da hori. Gainera, zuzenaren kontrako diruarekin. Zuzena al da batzuk aberats izatea, gero eta aberatsago, eta beste batzuk pobre, gero eta pobregago? Bada eraile den ekonomia bat: «ezin onar daiteke kalean bizi ohi zen eta hotzak hil zen agure baten heriotza albiste ez izatea, bai, ordea, boltsa bi puntuz beheratu izana»

* *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*.

Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*. Joakin Esnaola (Idiazabal 1898–Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896 – Valencia 1936), *birjina*, eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*.

(Frantzisko aita santua). Horrengatik aholkatzen digu Jesusek: egin adiskideak zuzenaren kontrako diruaz. Ez dadila izan aberatsen eta behartsuen arteko arrakala handitzeko. Azken batean, dakigun gauza da, baina ez da alferrik gogoratzea: dirua ez da «jainko» eta, soilik, Jainkoa zerbitza dezakegu. Ezin izan gara bi nagusiren zerbitzari.

Anaia Eugenio Mari Erauskin 1902-1936

Lazkaoko semea. Monje beneditar Montserratren, 1918tik. 1920-06-10ean egin zituen botoak. Monje berriaren lantegia, monasterioko inprimategia izan zen. Denboraldi labur batez, «Lur Santuetan» egon zen, Montserratek Jerusalemen zuen etxean; horrengatik, nonbait, ageri da bizardun. Gerla hasi baino zerbait lehenago bisitan etorria zen Lazkaora. Kataluniako arriskua zela-eta Lazkaon gelditzeko erregutuagatik, bere etxea han zuela esanez, han joan zen.

Montserratera itzulirik, laster sortu zen 1936ko gerra krudela. Monjeek Montserrat utzi eta bakoitza ahal zuen tokian babesa aurkitzen ahalegindu zen. Eugenio M. izan zen monasterioa uzten azkenetakoa Bartzelona hirian babesteko. Hemen, entrega eta erabakitasun handiz bere bizia behin eta berriz arriskatu zuen, Santa Klarako moja beneditarrei laguntzen eta etxebizitza batean gorderik zeuden bere anaia monje batzuei behar zutena eramanez. Horretan zebilela, abuztuaren 19ko zorigaiztoko gauean, bere anaia monje batzuen etxera joan zen. Horretan, miliziano-talde armatu bat etxean sartu zen; Eugenio eta etxebizitzako seiak autoetan hartu eta Pedralbes-eko gurutze ondoan tirokatu zituzten. 2013ko urriaren 13an, beste askorekin batean, dohatsu aitortu zuten.

* *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria.*

Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*. Joakin Esnaola (Idiazabal 1898–Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896 – Valencia 1936), *birjina*, eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*.

Urteko 32. astea.

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*.

§ Erregeak Lehen liburutik 17, 10-16.

Egun haietan, jaiki zen Elias profeta eta Sareptara joan zen. Hiriko ateetara iritsi zenean, emakume alargun bat ikusi zuen zotzak biltzen. Eliasek deitu eta esan zion: «E kardazu ontzian ur-pixka bat edateko». Bila zihoala, Eliasek atzetik oihu egin eta esan zion: «E kardazu, arren, ogi-zati bat ere».

Emakumeak erantzun zion: «Ala Jauna, zure Jainkoa! Ez dut batere ogirik; eskutada bat irin besterik ez dut katiluan, eta olio-pixka bat pitxerrean; zotzak biltzen ari nintzen, neure semearentzat eta biontzat opil bat egin, jan eta gero hil gaitezen».

Eliasek esan zion: «Ez beldur izan. Zoaz eta egin esan duzuna; baina egidazu lehenbizi niri sutopiltxo bat eta ekardazu. Gero, egingo duzu semearentzat eta zeuretzat. Hau baitio Jaunak, Israelen Jainkoak: “Irin-katilua ez da ahituko, ezta oliontzia agortuko ere, Jaunak lurrera euria bidaliko duen eguna arte”».

Joan zen, bada, emakumea eta egin zuen Eliasek esana, eta luzaroan jan zuten Eliasek eta ama-semeek. Irin-katilua ez zen ahitu, ezta oliontzia agortu ere, Jaunak Eliasen ahoz esana zuen bezala.

[Sal 146 [145] Goretzazu Jauna, ene barrena.]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 9, 24-28.

Senideok: Kristo ez zen sartu giza eskuz egindako santutegian – egiazkoaren irudi besterik ez zen santutegian–, zeruan bertan baizik, orain Jainkoaren aurrean gure alde agertzeko; eta ez zen sartu bere burua behin eta berriz opari eskaintzeko, apaiz nagusia berea ez duen odolarekin santutegian urtero sartu ohi den bezala; bestela, hil ere askotan hil behar izango zuen, munduaren hasieratik. Baina ez, Kristo behin bakarrik agertu da orain, azkenak diren garai hauetan, bere buruaren opariaz bekatua ezerezteko.

Urteko 32. astea.

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*.

Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakia dagoen bezala, halaxe Kristo ere: behin bakarrik izan zen opari eskainia guztien bekatuak kentzeko, eta gero bigarrenez agertuko da, bekatuarekin zerikusirik gabe, beraren zain daudenak salbatzera.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,38-44.

Aldi hartan, Jesusek, bere irakastaldian, esan zion jendeari: «Zabiltzate kontuz lege-maisuekin! Gogoko dute harro-harro jantzita ibiltzea eta plazetan jendearen agurrak hartzea; gogoko dituzte sinagogetan aurreneko aulkiak eta jai-otorduetan mahaiburuak. Eta, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasunak irensten dituzte. Horrelakoek epairik zorrotzeta izango dute».

Jesus tenpluko diru-kutxaren aurrean eseria zegoen, jendeak kutxara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuen. Etorri zen emakume alargun behartsu bat ere, eta bi txanpon bota zituen, huskeria bat. Jesusek, ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Jainkoak ez digu ematen sobera duenetik, baizik eta maiteenik duena: «Hartaraino maite zuen Jainkoak mundua, bere Seme Lehen jaioa eman baitzion». Hitz gutxitan esateko, Jainkoak bere burua eman digu. «Bere burua eman nahi digu Jaunak» (Loiolako Ignazio). Eta Hebrearrei idazkian irakurtzen dugu: «Kristok bere burua eskaini du behin betiko». Horregatik espero du, bidez eta arrazoiz, guk gauza bera egitea: geure burua berari ematea, gainerakoei, bereziki berak bereagotzat dituen haiei, ematearekin. Gainerakoen txaloen bila handimandi eta zaratatsu jokatzan dutenek ez bezala. «Bizitza eralgitzea ez da gauzatzen keinu apartsuez eta sasi-neutralitateaz. Bizitza eman

Urteko 32. astea.

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*.

egiten da, besterik gabe, publizitaterik gabe... amak haurrari bularra bezala, ereileak izerdi apala bezala» (Lluis Espinal). Hona emakume alargun anonimo haren irakaspena, aldien eta mugen gaindi bizi dena, beste behin gure bihotzera iristeko. Baita Jesusen beraren irakaspena ere, tenpluko eskaintzen kutxa aurrean eseririk, keinu xume eta isil hau atzemateko gai baita eta ikasleei adierazteko: emakume honek bizitzeko zuen guztia bota du. Bere bizitza eman du. Berak ere, Jesusek, emango du gugatik.

Edozein egoeraz baliatzen da Jesus emakumeak aurkezteko fede-eredutzat, eskuzabaltasun- eta buru-eskaintza doakoaren eredutzat. Alargun pobre bat, gaixo kroniko bat edo ama pagano etsi bat izan daiteke guztiek jarraitu beharreko etsenplu. Pasadizo hunkigarri bat dakarkigu Markosek. Emakume alargun pobre bat hurbildu da isilik tenplu inguruko hiru limosna-ontzietako batera. Aberats asko ari da kantitate handiak botatzen. Kasik lotsaturik, kobrezko bi txanpon bota ditu emakumeak, Jerusalem indarrean diren txikienak. Inork ez dio erreparatu haren keinuari. Baina limosna-ontzien aurrean, han dago Jesus dena ikusten. Hunkiturik, ikasleei dei egin die. Soilik jende pobregandik ikas daitekeen zerbait irakatsi nahi die: soberakoa baino zerbait gehiago ematea. Emakume honen jokabidea fede-etsenplua da, Jesusek bere jarraitzaile hurbilekoenengan ikusten ez duen bezalakoa. (Jose Antonio Pagola, *Jesus. Hurbiltze Historikoa*)

Urteko 32. astea.

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*.

[Jakinduria liburutik 1,1-7: Gizakia maite duen espiritu da jakinduria; Jaunaren spirituak lurra betetzen. Sal 139 [138]: Gidatu ni, Jauna, betirako bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezinbestekoa da munduan galbideak gertatzea, baina dohakabea inoren sinesmena galbidean jartzten duena! Hobe luke errotarra lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino.

Ibili kontuz! Zure senideak bekatu egiten badu, egiozu haserre, eta, damutzen bada, barkatu. Eta egunean zazpi aldiz zure kontra bekatu egiten badu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barkatu».

Apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gudan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zeniokete, eta obeditu egingo lizueke».

Txikiak handi dira benetan Jainkoaren begietan. Txikiak, hau da, azkenak, gizartearentzat ezdeus direnak, bakartuak... behartsuak. Beraien fedea (txikiena, alegia), mostaza hazia bezain txikia, gai da mendiak mugitzeko. Ererikoen (batzuetan, errukirik gabe sakatzen dituzten boteretsuek eragindakoen) ondoren zutitzeko duten gaitasunak, barkazioa eskatzera bultza egiten die, behar den guztietan. Beraien bermatzaile egin da Jesus, eskatuz, hizkuntza benetan latzaz, ez ditzala inork ere halakoak eskandalizatu. «Handitu iezaguzu fedea!», eskatu diote ikasleek. Jesusi ez zaio otu handitzeko era hoberik, txikien fedea bezain handia izan dezaten eskatzea baino.

Urteko 32. astea.
 Letrango Eliza Sagaratzea.

[Ezekiel profetaren liburutik 47,1-2.8-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzairen guztiak salbatu egin ziren. Sal 46 [45]: Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-22.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaija, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarritz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutu nau».

Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?» Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

Hilen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

«**B**ere gorputzaren tenpluaz mintzo zen». Jainkoaren tenplu lehenik gure gorputza da eta lagun hurkoarena: Jainkoaren bizileku. Zein ondo etorriko litzaigukeen, Jesusek, sokazko zartailu batez (batzuetan mina eman bailezake), erauziko balu guban eta besteengan gustura egotea eragozten dion guztia. Baita bata besteagan gustura egotea eragozten diguna ere! Beren eskuak gurgenez bildu eta burua apal makurtuz, fededun induek murmurikatzen dute, batak besteari agur egitean: «Namaste!» Hau da: gurtzen dut zukan... nigan... orotan... bizi den jainkotasuna. Kontuan izanik ezen, guztiok... oro... batera Jainkoaren tenplua eratzen dugula, geure esku dugu gure bizitza benetan kontenplazioari emana izatea.

Urteko 32. astea.

San Leon Handia, 45. *aita santua eta eliz irakaslea.*
San Andres Avelino, *erlijioso theatinoa, apaiza.*

[Jakinduria liburutik 6, 1-11: Entzun, erregeok, jakintsu izaten ikas dezazuen. Sal 82 [81]: Jaiki zaitetz, oi Jainko, epaitu mundua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,11-19.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galileen barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanaz. Samariarra zen bera.

Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?» Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

Bai izugarria garai hartako (eta gure honetako, gaitz hori desegina ez den leketan) lepradunen egoera! Gainerakoengana ezin hurbildu eta ezin utzi besteei norberagana hurbiltzen... Ulertzekoa da gaurko ebanjelioko hauen etsipenezko erregua Jesusi: «Jesus, Maisu, erruki zaitetz gutaz!» Jesusek apaizagana bidali ditu; horixe zuen eginbeharra lepradun batek, sendatzeko zoriona izaten bazuen. Baina gaurko ebanjelioko hauek ez ziren iritsi artean sendatzera; halere, bideari ekin diote. «Eta bidean doazela, sendaturik gelditu dira». Lepradunen erabakiak kristau-bizitzak nolakoa izan behar duen islatzen du: bideari ekin, Jesusen hitzaz bakarrik fidatu eta esker oneko jarrera bizi etengabe.

Urteko 32. astea.

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*.

Toribio santua, *monjea*.

Jakinduria liburutik 7, 22–8, 1: Betiko argiaren distira da jakinduria, Jainkoaren indarraren ispilu gardena. **Sal 119 [118]:** Betierekoa da zure hitza, Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,20-25.**

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: “Hona hemen” edota “hara han”; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik».

Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, “hona hemen”, “hara han” esango dizuete. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximistak une batean zerualde batetik besteraino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina aurretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

Jainkoaren Erreinuak ez du zerikusirik nahi ikusgarritasunarekin. Asko mintzo da Jesus Erreinuaz paraboletan, baina hauek bizitza xumeko errealitate xumez ari ohi dira. Jainkoaren Erreinua eguneroko gure bizitzan mugitu ohi da. Gure bizitzaren bizi bihurtzen da. Horregatik, errealitate ezin atzemana da Jainkoaren Erreinua. Esku artean bildu nahi izaten dugunean, alde egiten digu erremediorik gabe. Gizonaren Semearen eguna tximistaren distira bezalako izango da: gauza bera gertatzen da Jainkoaren Erreinuarekin ere. Eta bizitza arruntak bezala, Jainkoaren Erreinuaren bizipenak ere bere oinaze eta ukapen-uneak izaten ditu: horren lekuko ona da Jesusen bizitza bera. Geure artean dugu Jainkoaren Erreinua; halere, otoitz egin beharra izaten dugu: «etor bedi zure Erreinua!»

Urteko 32. astea.

San Josafat, *gotzaina eta martiria*.San Millan [Emiliano], Donemiliaga Kukulakoa, *apaiza*.

[**Jakinduria liburutik 13, 1-9:** Munduaren barne-egitura ezagutzeko bezain jakintsu izan badira, nolatan ez dute munduaren Jauna lehenago aurkitu? **Sal 19 [18]:** Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 26-37.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen.

Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen.

Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituen ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzuli. Oroitu Loten emazteaz.

Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galtzen duenak, berriz, onik aterako du.

Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartuko dute eta bestea utzi; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartuko dute eta bestea utzi». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?» Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

Gaurko testua uholdeez, hondamendiez... mintzo zaigu, muga-egoeraz, oro har. Testu bitxi iruditzen zaizkigu gaur egun, gure errealitatez kanpoko. Alabaina, mundu honetako biktimei ez bide

Urteko 32. astea.

San Josafat, *gotzaina eta martiria*.

San Millan [Emiliano], Donemiliaga Kukulakoa, *apaiza*.

zaizkie hain bitxi iruditzen. Gu, agian, «ezarritako desordenan» bizi garelako, bizitza ongi joan eta aldatu nahi ez dugulako, ezeroso sentitzen gara testu horien aurrean. Baina geuri ere dagozkigun testuak dira. Eta egoera horietan beharrezkoa izaten da garrantzizko erabakiak hartzea, sumarazten digutenak zer hartu ohi dugun garrantzizkoentzat, zer arriskatzeko gauden prest. Hitz batean, bihotza non jarria dugun galdetzera eragiten digute. Eta gogorazten digute, batzuetan prest egon behar duela pertsonak bizitza jokatzeko bizitza irabazi ahal izateko.

Hortaz, maitasuna izango naiz ni

Martiri hiltzeko irrika handia nuela, San Pauloren gutunetara jo nuen, erantzun baten bila. Halabeharrez, Korintoarrei egindako lehen gutunaren hamabigarren eta hamahirugarren kapituluak jo nituen begiz; haietarik lehenengoan irakurri nuen, guztiak ezin izan gaitezkeela aldi berean apostolu, profeta eta doktore, askotariko atalek osatzen dugula Eliza eta begia ezin izan dela aldi berean esku. Erantzun argia, dudarik gabe, baina askia ez nire desira ase eta bakea emateko.

Irakurtzen jarraitu nuen etsi gabe, eta erregu kontsolagarri hau topatu nuen: *Amestu itzazue karismarik hobenak. Eta, are gehiago, aparteko bide bat agertu dizuet*. Apostoluak, hain justu, ohartarazten du ezen dohainik handienak, karitatea gabe, ez direla ezer, eta ezen karitate hau bera dela biderik hobena Jainkoagana era seguruan iristeko. Azkenean topatu nuen lasaitasuna. [...]

Hala, pozak gaina harturik, aho betean atera zitzaidan: «Oi Jesus, ene maitea, aurkitu dut azkenean neure bokazioa: maitasuna dut neure bokazioa. [...]». (Lisieuxko Teresaren bizitzaren kontaeratik: Liturgia de las Horas, urriaren 1, 1232. or.).

Urteko 32. astea.

San Estanislao Kostka, *jesuita*.San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*.

[Jakinduria liburutik 18, 14-16; 19, 6-9: Ibiltzeko moduko bidea agertu zen Itsaso Gorrian, eta bildotsak bezala saltoka igaro ziren. Sal 105 [104]: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela otoitz eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusek parabola hau esan zien: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”».

Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratupei? Zain edukiko ote nahi luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?»

Emakume alargunak eta umezurtzak ardurarik merezi ez zuten taldekoak ziren Israelen. Ez zuten izaten zer galdurik. Eta ezer galdatu edota ezer galdu ezin duenak, zerbait edo dena irabaz dezake. Horra alargun honen jarreraren nondik norakoa epaile zuzengabearen aurrean. Bide hau egiten du otoitzaren jarduerak: beharrezkoa da geure buruagandik gauza guztiak hustea (eta, batez ere, geure baitatik gu geu hustea), gure burua Jainkoaren Orokortasunean ikusi nahi badugu. Nolabait, Gurutzeko Donibaneak adierazten digun Oro / Ezerez dialektikaren moduan: «oroz jabetzera iristeko / ez dezazula ezertan ezer ukan, / zu zeu dena izatera iristeko / ez dezazula opa ezertan ezer izan». Ausartzen al gara? Aurkituko al du Jesusek fede hau gugan etorriko denean? Oxala!

Urteko 33. astea.

San Jose Pignatelli, *apaiza, jesuita*
(*Jesusen Lagundia berrezarri zuena*).

§ Danielen Profezia liburutik 12, 1-3.

Garai hartan, aingeruen buruzagia eta zure herriaren zaindaria den Mikel agertuko da. Larrialdi-garaia izango da, herriak izaten hasi zirenetik berdinek gabea. Baina aldi hartan salbatuko da zure herria, biziaren liburuan beren izena idatzia duten guztiak, alegia.

Itzarri egingo da hilobietan lo dagoen asko: batzuk betiko bizirako, besteak betiko lotsarako. Ortziazen distiraz distiratuko dute jakintsuek, eta besteei bide zuzenean ibiltzen irakatsi dietenek izarrek bezala betieran.

[Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 10, 11-14. 18.

Senideok: Apaiza egunero ari ohi da bere kultu-zerbitzuan, bekatua inola ere kendu ezin duten opari berberak behin eta berriz eskaintzen. Kristo, ordea, bekatuengatik opari bat bakarra eskaini ondoren, Jainkoaren eskuinaldean eseri zen behin betiko. Eta, orain, Jainkoak etsaiak oin-aulkitzat noiz jarriko dizkion itxaroten dago. Izan ere, opari bakar baten bidez beren betera eraman ditu Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak.

Horrela bada, bekatuak barkaturik daudenean, ez dago bekatuen barkamenerako opari beharrik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 13,24-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egun haietan, larrialdi handiaren ondoren, eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argirik emango, izarrak zerutik amiltzen hasiko dira eta ortziak dar-dar egingo du. Orduan, Gizonaren Semea ikusiko dute hodei artean ahalmenez eta aintzaz beterik etortzen; aingeruak bidaliko ditu

Urteko 33. astea.

San Jose Pignatelli, *apaiza, jesuita*
(*Jesusen Lagundia berrezarri zuena*).

eta bere aukeratuak bilduko lau haizeetatik, lur-muga batetik besteraino.

Ikasi pikondoaren irudi honetatik: kimua berritzen eta hostoa zabaltzen zaioneko, badakizue uda hurbil dela. Era berean, gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela, ateetan, Gizonaren Semea. Benetan diotsuet: Gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza hauek guztiak. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko. Zein egun eta orduan gertatuko den, ordea, ez daki inork, ez zeruko aingeruek, ez Semeak, Aitak baizik».

«**E**guzkia ilunduko da, ilargiak galduko du bere distira, izarrak eroriko dira zerutik, astroak kordokatuko dira». Testu apokaliptikoek beldurra eragiten digute, ondoeza. Guk, «lehen munduko» biztanleok, nahiago izaten dugu «ordena»; hondo-hondoan, «ezarritako desordena» bada ere. Desordena honen biktimek, aldiz, nahiago lukete ordena hori desegitea. Hondamenezko eran balitz ere. Azken batean, hobe da hondamenezko azken bat, azkenik gabeko hondamen bat baino (Jürgen Moltmann). Eta, halaz guztiz, testu hauentzat eztabaidagai gara geu ere. Non dugu jarria geure bihotza? Zein dugu «sine qua non» baldintza, zorioneko izateko eta geure bizitza bere betera eramateko? Ez ote zaigu gertatzen, batzuetan, guk begi-bistakotzat emana duguna, egiaz hain begi-bistako ez izatea? Literatura honek etengabe aurkezten dizkigun galderak dira. «Honen guztiaren erdian gizonaren Semea eta beronen aukeratuak etortzen ikusiko dituzte»; ulertu behar da: «aukeratuak», Jesusek bere-bere jotzen dituen guztiak dira, azken auziko parabolaren arabera. Horra zer den iraunkor! Gainerakoa, garrantzizkoena delarik ere (halako izan nahi duena delarik ere), aise utz daiteke bigarren mailan. «Zeru-lurrak igaroko dira, nire hitzak ez». «Jainkoa soilik da aski» (Jesusen Teresa). Ikasgai honen betirauneko ikasle hasikin gara.

Urteko 33. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra.*

[Makabearrak lehenengo liburutik 1, 10-15. 41-43. 54-57. 62-64:

Ikaragarria izan zen Israelek jasan behar izan zuen probaldia.

Sal 119 [118]: Gorde nazazu bizirik, Jauna, eta beteko ditut zure legeak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zelarik, itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eseria. Jendea igarotzen sumaturik, zer zen hura galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinarazi zioten. Orduan, deiadarka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Aurrean zihoazenek gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagoz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Jauna!» Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goretsiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

Itsu hura bezala, bide-ertzean esertzen gara geu ere. Ez diogu jarraitzen Jesusi: berarekin bide egitea neke zaigu. Limosna eskatzen dugu, soilik. Halere, beraren beharra sentitzen dugu. Horra nondik nora gure laguntza-eskea: «Jesus, Daviden semea, erruki zaitetz nitaz». Jesus gure ondotik doa igaro. Jendea? Denetik! Adierazi digu, zuzen, Jesus igaro doala... Errieta egiten digu, berari laguntza eske garrasi egiten diogulako... Baina guk Jesusekin nahi dugu egon... Beraren galdera: «zer nahi duzu nik egitea?», harrigarri gertatu zaigu. Jakin ere, ba al dakigu ba! Ikus dezadala! Ikus dezadala berriro!... Beste batzuetan, bai, ahal izan dugu... Itsu hark berreskuratu zuen ikusmena eta Jesusi jarraitzeari ekin zion. Egingo ahal dugu hori bera geuk ere!

Urteko 33. astea.

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra*.
Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*.*

[Makabearrak bigarren liburutik 6, 18-31: Jarraibide bikaina utziko diet gazteei, gure legeagatik kementsu eman dezaten bizia. **Sal 3**: Jaunak dit eusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen.

Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatuz».

Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot».

Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamera etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

Zakeoren historia lehen urratsa egitearen garrantziaz mintzo zaigu, ikusmin hutsez bada ere. Seme hondatzaileak ere etxera itzultzea erabaki du, lehen urratsa, soil-soilik etxean delako hobekien bizitzen. Izatez, lehen urratsa egin izan dugunean, orduan konturatu izan gara Jesusek emanak dituela bat baino gehiago, guri aurrea hartuz. Guk beragana joatea erabaki baino askoz lehenago zegoen bera gure zain. Seme hondatzailearen aita bezala: bere semea noiz etorriko irrikatan

*Santuak: Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo, *apaizak, martiriak, jesuitak*.

Urteko 33. astea.

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra.*

Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina.* *

bizi zen. Parabola horretan ondoren datorrenak gainez egiten digu. Zakeori goitik behera aldarazi zion biziera Jesusekin topo egiteak. Halaxe egiten ahal digu geuri ere. Ai, onartu eta entzungo ahal diogu bere nahia: «gaur zure etxera joan nahi dut», zu zeu zarenera.

Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo

Roke, 1596an, Paraguai-n jaio zen. Apaiztu (1609) ondoren, Jesusen Lagundian sartu zen, eta ia hogeitaz urtez ahaleginu zen lurralde haietako hezigabeko gizon-emakumeak hezten, Reduccionen-etan biltzen eta kristau-sinesmen eta bizitzan eskolatzen. Fedea aitortzen zuelako, 1628-11-15ean, Zamorako espainiar eta Jesusen Lagundiko apaiz Alfonso Rodriguez-ekin batean azpikeriaz hil zuten. Bi egun geroago eta beste Reduccion batean Juan del Castillok martiritza izugarri zorrotza jasan zuen, bera ere espainiarra zen, Cuencako Belmontekoa, jesulaguna; indioak beraien zapaltzaileen aurka oso adoretu defenditu zituen. Juan Pablo II.ak Asuncion-en 1988an santu aitortu zituen hirurak. Martiri santuek odola isuri dute lurtean Kristo aitortuz. Horrela, betiko saria jaso dute.

*Santuak: Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo, *apaizak, martiriak, jesuitak.*

Urteko 33. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

[Makabearrak bigarren liburutik 7, 1. 20-31: Munduaren Egileak itzuliko dizue arnasa eta bizia. Sal 17 [16]: Esnatzean zure presentziaz naiz aseko, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,11-28.

Aldi hartan, Jesusek parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalemetik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta ontzako urre bana eman zion, esanez: “Saiatu etekina ateratzen, ni itzuli bitartean”.

Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”.

Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko.

Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”.

Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”.

Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Heure esanetik kondenatzen haut, morroi gaizto hori! Bahekien gizon gogorra naizela, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. Nolatan ez duk, bada, nire dirua bankuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nian”.

Eta han zeudenei esan zion: “Ken izaiozue ontzakoak, eta eman hamar dituenari”. Haiek erantzun zioten: “Jauna, lehen ere baditu hamar ontzako”. Eta nagusiak: “Hara nik esan: Duenari eman egingo

Urteko 33. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

zaio; ez duenari, berriz, daukan apurra ere kenduko. Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”».

Hitz hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

Presa izaten dugu helmugara, Jainkoaren Erreinura, iristeko. Jesusek ohartarazi digu, ordea, artean bide luzea dugula egiteko. Lehenago esana zien Jesusek, Jainkoaren Erreina noiz iritsiko zen galdetu ziotenei, gizonaren semeak sufritu egin behar zuela eta ukatua izango zela. Parabolako handikiak bezala, presa izan ohi dugu. Baina beraren jarraitzaileek, helmugara iritsi bitartean, hartutako dohainak fruitua ematen jarri beharko dituzte. Edota, gutxienez, ezin ezkutatuko dituzte, zeren eta dohain hauek, berenez, baliagarri baitira hartu dituenarentzat eta gainerakoentzat. Halaber partekatu beharko dute beraien maisuak jasan izan dituen gatazkak ere. Maisuaren garaipenean partaite izateko... «Pena-aldian jarraitu didanak, aintzan ere jarrai diezadan»

Betiko bizia

Jesusek, Nikodemori diotsonean: «berriro jaio behar da», esaten ari zaio, Bizi (letra handiz) traszendentea aurkitzen saiatu behar duela, Espirituarena. Jada baduguna, geure bizia (letra xehez) bizi dugun bitartean. Egiakoaz ari da, behin-betikoaz, zeren eta bizitza biologikoa bukatu egingo baita erremediorik gabe, baina espiritualak ez baitu amairik izango. Biblian «betiko bizia» entzungo dugun bakoitzean, behin-betiko Bizia ulertuko behar dugu. Ez da haragoko bizia, honaindiko biziaren alderik interesgarriena da. (Fray Markos, Santu Guztiak 2019-11-01 in Fe Adulta)

Urteko 33. astea.

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea.
San Odon, *abadea, beneditarra*.*

[Makabearrak lehenengo liburutik 2,15-29: Jainkoak gure arbasoekin egindako itunari eutsiko diogu. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamenaren erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara gauza hori ikusteko. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

Jesus negarrez Jerusalem... Kristau-otoitza ez da barrenko hutsa, ez da joan-etorri historikoez kanpoko. Jesusen ikasleak bere-bere egin beharko lituzke Vatikanoren Gaudium et spes konstituzioaren hitz hauek: «Gaur egungo gizon-emakumeen poza eta itxaropena, tristura eta larritasuna, batez ere behartsuenak eta nahigabetu guztienak, halaber dira Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, tristura eta larritasun, eta ez da gizakiarenik ezer, berorien bihotzean oihartzunik ez duenik» (GS 1). Eta proba ederra eskaini digu Andre Mariak bere Magnificat kantikan: bere esker ona agertu baitio Jainkoari, ez soilik bere, Mariaren, ahuldadeari erreparatu diolako, baizik eta baita bere, Jainkoaren, herriaz gogoratu delako, boteretsuak beren besaulkitik beheratuz eta behartsuak goratuz.

*M^a Anjeles Odriozola (Azpeitia), M^a Engrazia Lekuona (Oiartzun), M^a Zezilia (Azpeitia), M^a Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*.

Urteko 33. astea.
San Abdias, *profeta*.

[Makabearrak lehenengo liburutik 4, 36-37. 52-59: Aldare berriaren sagaratzeari ospatu zuten, eta erre-opariak eskaini zituzten poz handiz. Salmoa: 1 Kro 29, 10bc. 11. 12 (R/. 13b): Zure izen ospetsua goresten dugu, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,45-48.

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”. Zuek, ordea, “lapur-zulo” bihurtu duzue».

Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-maisuak eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

«**M**undu guztia zegoen hark zer esango zain». Hala gaude geu ere. Samuel gazteak bezala diotsogu: «Hitz egizu, Jauna, adi baituzu zeure zerbitzaria». Edota, bere semeaz erregutu zion ehuntariak bezala, errepikatzen diogu: «esazu hitz bakar bat eta sendatuko da gure arima». Beraren hitza entzun ahal izateko, isiltasuna, edo hutsunea, egin beharra dugu geure bihotzean. Edota, egokiago esateko, berari utzi beharra dugu, berak hustu dezan gure bihotza bertan isiltasuna eginez. Zeren guk geuk ez baitugu asmatzen nola egin hobeto. Edota, besterik gabe, ez baitugu asmatzen nola egin. Eta berak egiten duenean, batzuetan guri min emateko moduan, gure «etxea», gure izatea, benetan bihurtzen da «otoitz-etxe», onarpen, hau da, Jainkoari eta anai-arrebei egindako eskaintza.

Urteko 33. astea.
San Edmundo, *martiria*.

[Makabearrak lehenengo liburutik 6, 1-13: Jerusalemen egin nituen okerrenгатik, atsekabearen atsekabez hilko naiz. Sal 9 [9 A]: Alaituko naiz, Jauna, zure salbamenaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20,27-40.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia ezkondua seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalakoak baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoben Jainko” deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat».

Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan duzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

Programatzen eta egiten dugun guztian ari ohi da taupadaka bizitzari eusteko gogo, heriotzaren beldurrik gabeko bizitzari, alegia. Ez diezagula ihes egin bizitzak. Alabaina, dohain bat da bizitza. Zenbat eta gehiago ahalegindu bizitzaz jabetzen, gehiago digu ihes egiten,

Urteko 33. astea.

San Edmundo, *martiria*.

gehiago digu eskuetatik alde egiten... gu geu geure planteamenduetan korapilaturik gelditzen garelarik, batzuetan barregarri direla (eta batzuetan hala izaten dira) ematen dutenetan. Saduzear hauek Jesusi egin dioten galdera da kasu bat. Ez ote dugu abagune egokia bizitza dohain eman digun hari eskerrak emateko, dohain hori bera eskaintzen dugularik (eta geure burua ere eskaintzen dugularik) bizitza biziagoa izan dadin, eta ugariago izan dadin? Zeren eta, azken batean, bizitzaren Jainko da Jainkoa.

Ezkondu, heriotzak banandu arte

«Huts egin dezakeen gizaki batekin bizitza osorako maitasunean konprometitzea ez da sekula arriskurik gabea, baina badakigu, dena delarik geroa, hor egongo dela Jainkoa beti, sostengu izateko. Egia da gizartea aldatu egiten dela, baina pertsonak oraino ere maitatu egin nahi du eta maitatua izan nahi du, onaldian nahiz gaitzaldian, gaixoardian nahiz osasunaldian, hil arte. Munduan gizonezkorik eta emakumerik izango den bitartean, ezkontza-bizitza izango da gehiengo handiaren bokazio» (*Alicia Sloan, epaile eklesiastikoa, 56 urte, estatubatuarra, ezkondua 1992tik, bi semearen ama, in Donne Chiesa Mondo 11. or., Vida Nueva 13-19/07/2019*).

§ Danielen Profezia liburutik 7, 13-14.

Neure gau-ikuskarrian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzan zuen.

Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 93 [92]: Errege da Jauna, ospez jantzia.]

§ Apokalipsia liburutik 1, 5-8.

Grazia zuei eta bakea Jesu Kristoren partetik, testigu leiala, hilen arteko lehenengo piztua eta munduko erregeen buruzagia denaren partetik. Maite gaituenari eta bere odolaz geure bekatuetatik askatu gaituenari, Jainko bere Aitarentzat errege eta apaiz den herri egin gaituenari, aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Hara, hodei artean dator! Denek ikusiko dute, baita zulatu zutenek ere, eta lurreko leinu guztiek hileta-negarra egingo dute harengatik. Bai. Amen.

Hau dio Jainko Jaunak: «Ni naiz Alfa eta Omega, baden, bazen eta etortzekoa den hura, Ahalguztiduna».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 18,33b-37.

Aldi hartan, Pilatok esan zion Jesusi: «Zu al zara juduen errege?» Jesusek erantzun: «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz?» Pilatok esan zion: «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?»

Jesusek erantzun: «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo

Urteko 34. astea.

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGEA.

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua.

San Gelasio 1.a, *aita santua*.

luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengo». Orduan, Pilatok esan zion: «Beraz, errege zara Zu?»

Jesusek erantzun zion: «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

Berari bakarrik begiratu... Bera bakarrik hartu erdigunetzat. Ez bakarrik beraren hitzei eta egintzei dagokienez, urte liturgikoan barna egin dugun bezala. Bera da gure bizitzaren erdigune... gure historiaren (pertsonal eta taldeko) erdigune. Orogen erdigune! Baina bera al dugu, zinez, guk erdigune? Bera Unibertsoaren Errege aldarrikatzen du gaurko ospakizunak. Berak aldarrikatu du «errege» bere burua: «Zeuk diozu, errege naiz», erantzun dio Pilatori, honek bere nortasunaz galdegin dionean. Alabaina, errege hain bestelakoa mundu honetako errege eta boteretsuekiko! «Honetarako jaioa eta etorria naiz ni: egiaren lekuko izatera». Egia... hain justu, aske bihurtzen gaituena! Honenbestez, Jesusen erregetza gizon-emakume askeren erregetza da, eta ez esklaboen eta menperatuen erregetza. Aske, maitasunaren bidez eta maitasunerako (ez ezazue hartu esklabotasuna aitzakiatzat, batak besteari kalte egiteko), eskatu die Paulok galaziarrei). Aske, geure burua eskaini eta zerbitzari izateko. Bere burua «errege» aldarrikatu duenean, huraxe da ueña zeinetan, inolako babesik gabe, erabat eman baitu bere burua, maitasunez eta azken ondorioraino emandako zerbitzu-jarreraz. «Ez itzazue ipini begiak bera ez beste inorengan... Ez ezazue adoratu bera ez beste inor.

Urteko 34. astea.

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*.

[Danielen Profezia liburuaren hasiera 1-6. 8-20: Ez zuen aurkitu Daniel, Hananias, Mixael eta Azarias adinakorik. **Salmoa Dn 3, 52. 53. 54. 55. 56 (R/. 52b):** Bedeinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,1-4.

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko diru-kutxara limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Tenpluko diru-kutxara txanpon batzuk bota dituen alargunaren pasadizoaren segida-segidan, Lukasen ebanjelioan, hitzaldi apokaliptikoa dator. Atsekabeez, pertsekuzioez, larrialdiez, estutasunez... ari da pasarte hori. Baina, horren aurretik, diskrezioa, isiltasuna, emakume babesgabe horren (garai hartan halako izaten ziren emakume alargunak eta umezurtzak) erabateko eskaintza aipatzen ditu. Ez ote lirateke izango egokiak jarrera horiek gure bizitza jipoitzen duten pasadizoei aurre egiteko? Gure inguruan dena koloka ageri denean, maitasuna eta buru-eskaintza apal eta isila eskatzen jarraitzen du Jesusek. Maitasunak ez du huts egiten sekula, esan digu Paulok maitasunari eskaini dion gorazarrean. Fedea eta esperantza amaituko dira; maitasunak indartsu jarraituko du.

Urteko 34. astea.

San Klemente I.a, 4. aita santua eta martiria.

San Kolunbano, *abadea*.Migel Agustin Pro, *dohatsua, apaiza, martiria, jesuita*.

[**Danielen Profezia liburutik 2, 31-45:** Inoiz hondatuko ez den erreinua eraikiko du Jainkoak, eta beste erreinuak suntsituko ditu. **Salmoa: Dn 3, 57. 58. 59. 60. 61 (R/. 59b):** Jaunaren sorkari guztiok, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,5-11.**

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia: dena suntsituko dute».

Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?»

Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork engaina! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena».

Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinuaren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta gose-teak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

Estatu arranditsu bat harri eta lokatz-pilo itxuragabe bihurtua... Tenplu ederra, bere harri eder eta bere ex-botoengatik, zinez ez baita harririk harri gainean geldituko... Giza harremanak, hautsirik direla ematen dutenak... Hogeigarren mendeko 80aren azken aldean, Alemania komunistako buruzagien espantuek aldarrikatzen zuten betiko izango zirela Berlingo Murrak. Handik pixka batera harri-pilo itxuragabe zen hura guztia, oroigarri turistiko bihurtua... edota izugarrikeria-aro baten oroitzapen garratz. Hori dena dugu dei, geure bihotza maitasun iraunkor eta baliotsuari ematera gonbidatzen gaituena. Ez uztera mezu engainagarriez engaina gaitzaten («neu naiz»... «hurbil da ueña»...). Jainkoa bakarrik da historiaren eta gure bizitzaren zinezko Jauna.

Urteko 34. astea.

San Andres Dung-Lac, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*.

[Danielen Profesia liburutik 5, 1-6. 13-14. 16-17. 23-28: Giza esku bat agertu zen eta hatzez idazten hasi. Salmoa: Dn 3, 62. 63. 64. 65. 66. 67 (R/. 59b): Eguzki eta ilargi, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko dizuete eta erasoko, sinagogetara eta kartzeletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigitik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatari ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango.

Zueen gurasoek eta senideek berek, ahaideek eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiak gorroto izango dizuete nigitik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

Azkenaldi hauek pertsekuzio-aldi dira Jesusen jarraitzaileentzat. Pertsekuzioa, hainbat eta mingarriagoa, bere pertsona maiteenengandik (guraso, anai-arreba, ahaide, adiskide...) etortzen ahal baitzaio. Geure burua babesturik sentitzera aholkatu digu Jesusek («zeuen buruko ile bat ez da galduko»). Ohartarazi digu, aldi hauek ez direla atzera begira jartzeko, baizik eta testigantza egiteko. Eta hitzeman digu testigantza egiteko «hitzak eta jakinduria» emango dizkigula. Ebanjelioa hotse egiten eta testigantza egiten duenak harrapa dezakeen goreneko punta Jainkoaren hitza eta jakinduria eskualdatu ahal izatea dela, entzulearen bihotzera benetan iristeko moduan egina, zeinak (entzuleak) Emausko ikasleena esan ahalko baitu: «ez al genuen geure bihotza sutan hitz egiten zigunean?»

OHARRA: Ikusi san Andrés Dung-Lac-*ez* eta beste azaroaren 25a.

Urteko 34. astea.

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*.

[Danielen Profezia liburutik 6, 12-28: Jainkoak aingerua bidali du lehoien ahoak ixtera. Salmoa: Dn 3, 68. 69. 70. 71. 72. 73. 74 (R/. 59b): Ihintz eta elurte, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,20-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jerusalem gudarostez inguratua ikustean, jakizue gainean duela bere hondamendia. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; Jerusalem barruan daudenek alde egin bezate, eta soroan direnak ez bitez hirian sartu. Zigor-egunak izango dira, orduan beteko baita Liburu Santuan idatzirik dagoen guztia.

Dohakabeak egun haietan haurdun izango direnak edota bularreko haurrak dituztenak! Estualdi handia izango baita lur honetan, eta haserre-zigorra herri honentzat. Ezpatapean eroriko dira eta nazio gutzietara eramango dituzte gatibu; jentilek zapalduko dute Jerusalem, nazioentzat Jainkoak erabakitako epea erabat bete arte.

Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurreen herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorkionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita.

Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz hodeian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena».

Literatura apokaliptikoa «mundua alderantziz» delakoaz mintzo zaigu, beti asaldua denaz. Setioak, aurkaritzak, gerlak... Ematen du, natura bera ere bere egiten ari dela jendearen harremanen ezaugarri diren nahasmendu hauek. Denak eragiten du arnasa-falta, beldurra, antsia... Ez du iraupenik betiko egonkor

Urteko 34. astea.

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*.

zirudienetik ezerk. Kordoka eta koloka dira errealtatearen oinarriak. Dena dugu gainean amilka. Zer egin? Beldurrik jota zurrun gelditu? Buru-makur ibili eta autodefentsaren jarrera hartu? Ez! Hau gertatuko denean, gora burua! Zutitu! Ez aurre egiteko kontrako zoriari beldurrik gabe, literaturako heroi baikinan. Baizik eta arrazoi sakonago batengatik: badator gizonaren Semea aintzatsu eta loriatsu. Izan ere... «Jainkoa geurekin badugu, zein gure aurka?»

Vietnam-en XVIII. eta XIX. mendeetan martiri hil ziren ehun eta hamazazpi kristau gogoratzen ditu egun honetan [azaroaren 24] Elizak. Haietatik zortzi apezpiku ziren –hauetako bat, San Valentin Berrio-Otxoa euskalduna, 1861ean hila–, berrogeita hamar apaiz –misiolari erlijiosoak eta bertako apaizak– eta berrogeita hemeretzi laiko –guraso, katekista, kristau-elkarteen buruzagi, nekazari, sendagile, arrantzale, militar–. Haietako sei XVIII. mendean martirizatu zituzten; gainerakoak 1835-1862 bitartean. Andres Dung-Lac Vietnam iparraldean jaio zen 1795ean. Katekista izan zen aurrena eta apaiz gero; 1839an hil zuten. Martiri haien artekoa da San Jean-Théophane Vénard, Parisko Atzerriko Misioetako Elkartekoa; haren gutunek eragin zioten Lisieux-eko Santa Teresari misioen alde otoitz egitera. (EEE Deustutik).

Urteko 34. astea.

San Konrado, *gotzaina*.

San Joan Berchmans, *jesuita*.

[Danielen Profezia liburutik 7, 2-14: Gizaseme antzeko bat ikusi nuen, zeruetako hodeietan etortzen. **Salmoa: Dn 3, 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81 (R/. 59b):** Mendi eta muino, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,29-33.

Aldi hartan, Jesusek adibide bat jarri zien ikasleei: «Begira pikondoari edota beste edozein zuhaitzi: kimu-berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue hurbil dela uda. Era berean, beste gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erregetza. Benetan diotsuet: gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko».

Hurbil eta iraunkor. Hurbil den Jainkoa dugu geurea, lagun hurko egina. Lagun hurko. «Ba al da naziorik bere jainkoak hurbil izateaz harrotu daitekeenik, nola dugun guk Jainkoa hurbil dei egiten diogun guztietan?», galdetu zion Moisesek Israel herriari, promes egindako lurraldean sartzear egon eta Jainkoaren gesta askatzaileen lekuko izan zenari. Jainkoa hurbil eta leial, etengabe leial. Gure erreguari: «geldi zaitetz gurekin, gaua gainean da-eta» delakoari, erantzun dio: «zeuekin izango nautzue munduaren azkena arte». «Nire hitzak ez dira igaroko»: Ni, haragi egin den Hitz hau, halaber naiz Jainkoa-zuekin. Hurbiltasuna eta iraunkortasuna: Jainkoaren dohain dira guretzat, eta gure zeregin, berriz, gainerakoentzat.

Urteko 34. astea.

Andre Mariaren medaila mirarizkoa.
San Jakobo Pertiakoa, *martiria*.

[Danielen Profezia liburutik 7, 15-27: Goi-goikoaren herri santuari emango zaio erregetza, agintea eta handitasuna. **Salmoa: Dn 3, 82. 83. 84. 85. 86. 87 (R/. 59b):** Gizakiok, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zabiltzate kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hordikeriaz, mozkeriaz eta bitizta honetako kezka, egun hura ustekabea gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

Hitzaldi apokaliptikoaren azkenera iristean, uste izan genezake ezen hitzaldi honetan deskribatutako gertaerak jendea erabat zorabiatu uzteko modukoak direla. Edota, gutxienez, Paulok deskribatu duen erreakzio erosoari emanik gelditzeko modukoak: «jan dezagun eta edan... bihar hilko baikara». Horregatik, beharrezkoa da lasaitasunari eustea. Baina, batez ere, buru-argitasunari eustea. «Ez dadila sorgortu zuen gogoa... Bizi azti, gizonaren Semearen aurrean zutik egon ahal izateko». Kontua ez da odol hotzekoa izatea bakarrik; beste zerbait dago jokoan: Apokalipsia liburuak aipatzen duen egundoko jendetza harekin bat egitea da: zutik dago jendetza tronuaren eta Bildotsaren aurrean, Jesusek «markatuak» dira... eta garaipen-kantak ari dira abesten.

Abendualdiko 1. astea. C

Santa Teodora, *abadesa*.

San Honesto Nimeskoa, *apaiza*.

§ Jeremias Profetaren liburutik 33,14-16.

Hau dio Jaunak: «Begira, badatoz nik Israelgo herriari eta Judako herriari emandako hitz onak beteko ditudan egunak.

Egun haietan eta garai hartan, legezko muskila sorraraziko diot Davidi, eta zuzenbidea eta justizia ezarriko ditu lurrean. Egun haietan Juda salbatuko da eta Jerusalem lasai biziko. Hona hiriri emango dioten izena: “Jauna gure zuzentasun”».

[Sal 25 [24]: Zugana jasotzen dut gogoia.]

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 3, 12–4, 2.

Senideok: Egin dezala Jaunak gero eta handiago zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna, handia den bezala guk zuentzat dugun maitasuna. Horrela, sendo dezala zuen bihotza, Jesus gure Jauna bere santuekin etortzean, santu eta esankizunik gabe aurkez zaitzeten gure Aita Jainkoaren aurrean.

Gainerakoan, senideok, eskari hau egiten dizuet, arren eta arren, Jesus Jaunaren izenean: Jainkoari atsegin emateko nola bizi gugandik ikasi zenuenez, saia zaitzte gero eta gehiago horrela bizitzen. Badakizue nolako irakaspenak eman genizkizuen Jesus Jaunaren izenean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,25-28.34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurrean herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorkionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita.

Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz hodeian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.

Abendualdiko 1. astea. C

Santa Teodora, *abadesa*.San Honesto Nimeskoa, *apaiza*.

Zabiltzate, bada, kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hordikeriaz, mozkorkeriaz eta bitzta honetako kezkaz, egun hura ustekabean gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitetzten Gizonaren Semearen aurrean».

Aabendualdiari eskaintzen ahal diogun ezaugarririk bikainena «marana tha» da: zatoz, Jesus Jauna. Dei honekin bukatzen da Itun Berria. Dei honek sutzen eta gogo-berotzen zuen lehen kristau-elkarte haien fedea. Gaur egun ere eukaristia-ospakizun bakoitzean aldarrikatzen dugu: «Hil eta piztu zarela, Jauna, zu berriz etorri arte, hau dugu hau, berri ona». Ondorioz, zer dela-eta bihurtu «marana tha» hau halako ikara eragiten digun «dies irae»? Nolatan beldur izan berekin askapena dakarren Jaunaren etorrerari? Nolatan arnasa galdu, Jaunaren zain egoteak gure bizitzari dakarkiona, berarekin jada zerikusirik ez balu bezala? Nolatan sorgortu geure gogoa bizitzako estutasunekin? Abendualdia, jaikitzeke aldia da, burua tente jartzekoa, hurbil dugun geure askapena aldeztatik dastatzea, aldarrikatzea: badator gizonaren Semea, Jesus, gure Jauna, maitasunez ahaltsu eta loriatsu! Esperantza-aldia da, ez geldo egoteko, baizik ari eta ari bizitzeko, espero dugun eta hitzeman digun hartarantz biderei ekiteko. Ez da baikortasun simple eta errazen kontua. Esperantza honen oinarria Kristo gurutziltzatua eta berpiztua da. Eta honek gure egun hauetako lurreko gurutziltzatuengana hurbilarazten gaitu, piztueraren esperantza sostengu dugula.

[Isaias Profetaren liburutik 2, 1-5: Jaunak herri guztiak bildu
Jainkoaren erreinuan, betiko bakea goza dezaten. Sal 122 [121]:
Goazen pozik Jaunaren etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,5-11.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin».

«**M**arana tha»: zatoz, Jesus Jauna. Hasi berria dugun abendualdia, geure baitan Jaunaren etorreraren desira handia sustatzeko garaia da. «Ireki diezazkiogun ateak», aholkatu izan digute Erromako azken gotzainek beren ministerioaren hasieran. Abendualdia, beraz, desira hori elikatzeke garaia da. Jesusengana hurbildu den ehuntari honen kasuan bezala. Zeren eta gure «etxean» jendea dago, hurbila eta urruna, Jesusen beharra duena, eta eraldatzea sakon eskatzen duten errealitateak ere badira. Baina, aldi berean, halaber sentitzen dugu geure quintasun-falta sakona ere. Merezki al dugu etorrera hau? Prestatu beharra dugu, nolnahi den. Ez litzateke, ordea, ezertako izango prestaketa hau Jaunaren hitza gabe. «Esazu hitz bat bakarrik»... eta dena geldituko da sano, berreginik. Adituko al dugu?

§ San Paulok Erromatarrei 10,9-18.

Zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko».

Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren izenari dei egiten diona salbatuko da».

Nola, ordea, dei egin, harengan sinesten ez badute? Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nork hots eginik ez bada? Nola hots egin, hartarako bidalirik ez bada? Liburu Santuak dioen bezala: «Bai ederrak berri onak ekartzen dituztenen oinak!» Ez diote, ordea, denek harrera ona egin Berri Onari. Isaiasek dio: «Jauna, nork sinetsi du gure mezua?» Beraz, mezutik dator sinestea, eta Kristoren berri ematea da mezua.

Eta nik galdetzen dut: «Ez al dute entzun?» Bai, noski: «Lurbira guztira zabaldu da haien hotsa, munduaren bazterreraino haien mezua».

[Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,18-22.

Aldi hartan, Jesusek, Galileako itsasbazterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Abendualdiko 1. astea.
San Andres, apostolua.

Jesusek binaka dei egin die bere ikasleei: Pedro eta Andres... Santiago eta Joan... Era berean bidali ditu misiolari ere, binaka. Izatez, bokazioa kidetasun-deia da. Ez gaitu deitu banaka, baizik eta besteekin, elkarteak eratzeko. Misioa frankotiratzaileraren edota bere gisara doan jenderen ogibide ez den bezala, baizik partekaturiko misio. Bakarra da misioa, nahiz eta askotarikoa zeregin eta lan desberdinez, norberaren karismaren arabera. Ezin esan dugu, beraz, geure lagunen zereginarekin ez dugula inolako zerikusirik, beraien bokazioarekin ere ez dugula inolako zerikusirik. Nola misioari hala bokazioari dagokienez, gorputz bat osatzen dugu.

San Andres Jonasen semea eta Simon Pedroren anaia da. Ebanjelioetako zerrenda guztietan ageri da. Galileako Betsaidakoa zen; baina Kafarnaum herrian bizi zen, arrantzu-lanetan. Joan Bataiatzaileak Mesias nor zen jakinarazi ziolarik (ik. Jn 1,35-39), Jesusi jarraitu zion eta beronekin jarraitu. Andresek eman zion anaia Simoni berri on hau: «Mesias aurkitu diagu!» (Jn 1,41). Ekialdeko eliz elkaratek «protokleto» (lehen-deitua) esaten diote San Andresi. Ogiak eta arrainak ugaltzean, San Andresen izena aipatzen du Ebanjelioak, San Feliperenarekin batean (Jn 6,5-7). San Andresek eraman zituen, San Feliperekin batean, greziarrak Jesusengana (Jn 12,20-22). Maisua hil ondoren, tradizio txikiak dionez, hainbat tokitan hots egin zuen Jesusen ebanjelioa.

San Joan Krisostomoren hitzak dira Andresen bokazioaz: «Andresek, Jesusekin ibili eta harengandik gauza asko ikasi ondoren, ez zuen gorde altxorra beretzat, baizik korrika joan zen bere anaiagana, aurkitu zuenaren berri emateko».



GUZTION
ETXEAREN
ZAINTZAN
partaide

ABENDUA / GABONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:
Ebanjelizazioa — Katekistak

Egin dezagun otoitz: Katekistentzat, Jainkoaren Hitza hots egitera deituak direlarik, beraren lekuko izan daitezen gihartsu, sortzaile eta Espiritu Santuaren indarrez.



ABENDUA / GABONILA Asteazkena / Eguaztena

Abendualdiko 1. astea. C urtea.

San Leontzio, *gotzaina*.

Santuak: Edmundo Campion, Roberto Southwell,

apaizak, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

1

[Isaias Profetaren liburutik 25, 6-10a. Jai-otordua emango die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak. Sal 23 [22]: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,29-37.

Aldi hartan, Galileako itsasbazterrera joan zen Jesus; mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkieten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harritia gelditu zen ikusten zuenaz: mutua hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goresten hasi ziren.

Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezen».

Ikasleek esan zitoten: «Nondik atera guk basamortu honetan horrenbeste jende asetzeko lain ogi?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue?» Haiek erantzun: «Zazpi, eta arraintxo bakar batzuk». Lurrean esertzeko agindu zion jendeari; gero, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker-otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Denek jan zuten ase arte, eta gelditutako hondarrekin zazpi saski bete bildu zituzten.

Bere bizitzako egitaraua (zoriontasunak eta mendiko hitzaldia, oro har) aldarrikatzeko «eseri» zen bezala, halaxe «eseri» da Jesus mendian oinaze desberdinak jasaten dituztenei kasu egin eta onartzeko. Beraren «pulpitua» ez da hitza bakarrik, baizik eta errukizko ekintza gupidatsua ere bai. Jendea, miresmenez eta gogo beroturik, esan eta esan ari zen Jesusez: «aginpidez hitz egiten du». Sendatu egiten du... baita bidera itzuli ere sendatu duena. Baina ez edozelan («ez ditut baraurik agurtu nahi, bidean lur jo ez dezaten»), baizik eta gainez elikaturik. Gainez egitea, sarritan esperimintatzen duguna geure ahalbide eskasen artean. Izan ere, Jainkoak bedeinkatu eta biderkatu egiten du eskaini eta partekatutako gure pobretasuna.

Abendualdiko 1. astea. C urtea.
 Santa Bibiana, *birjina eta martiria*.
 San Viktorino, *martiria*.

[Isaias Profetaren liburutik 26, 1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala.
 Sal 118 [117]: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,21.24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea.

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun, bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

«**K**risto da arroka» (Paulo). «Kristo, berbera atzo, gaur eta menderen mendetan» (Hebrearrei). Arroka gainean eraikitzea, beraz, Kristoren gainean eraikitzea da, eta ez geure burugogorkerien eta zurruntasun mentalen gainean... ez egoskor izatearen gainean, nahiz eta horrelakorik ere nabari ohi den, batzuetan, Jesusi jarraitzen diola esaten duen jende batengan. Jesus bera da gure erreferentzia, eta berak eusten digu irmo jasaten ahal ditugun geure larrialdi eta dudamuden artean. Argitzaile ditugu alde honetatik Benedikto XVI.aren hitz hauek: «inor ez da kristau bihurtzen erabaki etiko edota ideia handi batengatik, baizik eta Pertsona batekin edota horizonte berri bat eskaintzen eta horrela bizitzari norabide erabakitzailea ematen dion gertaera batekin topo egiteagatik».

Abendualdiko 1. astea. C urtea

San Frantzisko Xabierkoa

(Nafarroako Xabierren 1508 – Txinako atarian 1552),

apaiza, jesuita. (Ikus Xabierren Meza beheaxeago.)

[Isaias Profetaren liburutik 29, 17-24: Egun hartan ikusiko dute itsuen begiek. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9.27-31.

Aldi hartan, Jesus handik ateratzean, bi itsuk jarraitu zioten, oihuka: «Erruki zakizkigu, Daviden Seme!» Etxera heltzean, itsuk hurbildu zitzaizkion eta Jesusek esan zien: «Sinesten al duzue hori egin dezakedala?» Haiek erantzun: «Bai, Jauna».

Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez: «Gerta bekizue sinesten duzuen bezala». Eta ireki egin zitzaizkien begiak. Jesusek zorrotz agindu zien: «Begira, gero, ez dezala inork ere jakin». Baina haiek, atera orduko, eskualde guztian eman zuten Jesusen berri.

«Zeruko esperantza: hainbat eskuratzen du zenbat baitu espero» (Gurutzeko Donibane). Fedeak du miraria posible egiten. Ez da erretorika itsu haiei Jesusek egin dien galdera («sinesten al duzue egin dezakedala?»), ezta bere desiraren adierazpidea ere («gerta dakizuela zeuen fedearen arabera»). Markosen ebanjelioan, adibidez, hau dator: Jesusek ezin izan zuela mirarik egin herritarren «fede-faltagatik...». Federik ez denean, miraririk ez. Fedea ez da adimenez ulertzen ditugun egiei emandako adostasun intelektual huts bat, baizik eta, batez ere, Pertsona batekiko, jarraitzen diogun Jesusekiko, atxikimendua, zenez hitz egiteari ezin utzi izaten baitiogu, berak badigu ere debekatzten!

Xabierko Frantziskoren Meza

§ San Paulok 1 Korintoarrei 9, 16-19. 22-23.

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!

3

Ostirala / Barikua

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko I. astea. C urtea

San Frantzisko Xabierkoa

(Nafarroako Xabierren 1508 – Txinako atarian 1552),

apaiza, jesuita.

Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe.

Gutziz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.

[Sal 96 [95]: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaiki agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jaso izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Paraje eta herrialde berrien behatzaile nekaezina. Maitasunak suturiko bihotza, «aski da» diotsona kontsolamenduak ematen agorrezin ari zaion Jainkoari. Bakar bidaiaria, baina bihotzean zeramatzan bere lagunaren sinadurak lagun zituena... Xabierko Frantziskorentzat ez zen,


Abendualdiko 1. astea. C urtea

San Frantzisko Xabierkoa

(Nafarroako Xabierren 1508 – Txinako atarian 1552),

apaiza, jesuita.

inolaz ere, «erretorika-ariketa» bat Paulorekin esatea: «zoritzarrekoa ni ebanjelizatzen ez badut!» Ebanjelizatzea ez zuen Xabierrek abentura-irrika soil bat, baizik eta, guztien gain, beti handiagoa den Jainkoaren bihotzean murgildu beharra, beragan konfiantza ipiniz argi eta gidari bakartzat hartuz. Horregatik, hona beraren azken hitzak: «zu, Jauna, izan zaitut neure esperantza. Ez nadila betiko narrasturik gerta!» Eta, honetan, Xabier heroia «anaia hurbil» bilakatu zaigu.



Xabierko San Frantzisko,
apaiza, jesuita
(Misiolarien Zaindaria)

Abendualdiko 1. astea. C urtea

San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.
Santa Barbara, *birjina eta martiria*.*

[Isaias Profetaren liburutik 30, 19-21. 23-26. Errukituko zaizu Jauna zeure deiaren hotsera. Sal 147 [146]: Zorionekoak Jaunagan itxaro dutenak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,35—10,1.6.8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekaturia eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztera».

Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabiltzan Israel herriko ardiatarara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zerueta erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

«**M**isio-hitzaldia» «Jesusen araberrako misiolariaren eskuliburua» da. Begiratu bikoitz batekin hasten da: errukiorra jendearen egoerarekiko eta erregutzailera Jainkoarekiko. Errukia eta otoitza: horiek izango dira iturri misiolari-esperientzian indarrak berregiteko. Misiolaria, lehenik eta behin, «Israelgo ardi bide-galduen» ariko zaie; azkenean, «jende guztiari». Benetako unibertsaltasuna azkenak direnetatik hasten da beti, beti ahaztuak izateko arriskua bizi ohi dutenetatik. Bigarrenik, honetan datza misioa: Erreinu hartatik urrunekoen sentitzen direnei hurbiltzean. Eta, hirugarren, misioa «doan» gauzatzen da; izan ere, ugari eman zaizuna, ezin eman diezue besteiei eskas.

*Pio Heredia (1875 Larrea [Araba] – 1936 Santander) eta lagunak, *Cobrezesko zistertarrak, dohatsu eta martiri*.

§ Baruk Profetaren liburutik 5, 1-9.

Jerusalem, erantzi dolu- eta atsekabe-soinekoa; jantzi Jainkoak betiko ematen dizun aintzaren soineko ederra.

Bildu zeure gorputza Jainkoak ematen dizun zuzentasunaren soingainekoaz eta ezarri buruan Betikoaren aintzaren koroa.

Agertuko die Jainkoak zure distira zerupean bizi diren guztiei, eta izen hau emango dizu behin betiko: «Bakea zuzentasunean, Ospea jainkozaletasunean».

Jaiki zaitez, Jerusalem, igo gainetara eta begira sortaldera; ikusi zeure seme-alabak, sortaldetik sartalderaino Santuaren hitzak bilduak eta pozik, Jainkoa haietaz oroitu delako.

Onez atera ziren, etsaiek bultzaturik; baina Jainkoak aintzatan ekarriko dizkizu, errege-aulkian bezala.

Jainkoak agindu du mendi garai guztiak eta betidaniko muinoak makurtzea eta sakanak betetzea, lurra berdintzeko; Israel seguru etor dadin, Jainkoaren aintzak gidaturik. Jainkoaren aginduz, basoek eta usain oneko zuhaitzek itzal egingo diote Israeli. Pozetan eramango baitu Jainkoak Israel, bere aintzaren argitan, bere errukiaz eta zuzentasunez.

Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak; hau da poza daukaguna!

§ San Paulok Filipoarrei 1, 4-6. 8-11.

Senideok: Pozik egiten diot beti otoitz Jainkoari zuen guztion alde, lankide izan baitzaituztet Ebanjelioa zabaltzeko eginkizunean, lehenengo egunetik orain arte. Ziur nago eginbide on hau zuengan hasi duenak burutu ere burutuko duela Kristo Jesus etorriko den eguna arte.

Testigu dut Jainkoa, zein maite zaituztedan guztiok Kristo Jesusen maitasun bihotzekoaz. Eta hau da nire otoitza: zuen maitasuna zabalduz joan dadila jakintzan eta sentiberatasunean gero eta biziago,

egokien dena bereizten jakin dezazuen. Horrela, garbi eta esankizunik gabe iritsiko zarete Kristo etorriko den egunera, Kristo Jesusen bitartez dugun zuzentasunaren emaitzez beterik, Jainkoaren aintza eta gorespenerako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3,1-6.

Tiberio enperadorearen agintaldiko hamabosgarren urtean, Pontzio Pilato Judeako agintari zela, Herodes Galileako erregeorde, honen anaia Filipo Iturea eta Trakonitidako erregeorde, Lisania Abileneko erregeorde, eta Anas eta Kaifas apaiz nagusi zirelarik, Jainkoaren hitza etorri zitzaion basamortuan Zakariasen seme Joani.

Eta, Jordan inguru guztian, bihotz-berritzeko bataioa hots egiten hasi zen, bekatuan barkamenerako, Isaias profetaren liburuan idatzirik dagoen bezala:

«Mintzo bat oihuka ari da basamortuan:

Prestatu bidea Jaunari,

zuzendu bidexkak hari. Bete daitezela haranak,

beheratu mendi eta muinoak, berdindu daitezela malkarrak, zelaitu lur-maldak.

Eta ikusiko dute gizaki guztiek Jainkoaren salbamena».

Atentzioa ematen du, hasieratik, Lukasen testu honen kokapen historikoak. Historiako aro eta pertsonaia handiak ezagutzeaz harro ageri den historialari baten jakin-min soila baino gehiago da. Funtsean, komunikatu nahia da ezen giza historia, baita norberaren historia ere eta ez bakarrik bibliotekako liburuetan gelditu daitekeen historia handia, ez dela sistema giltzatu bat eta Jainkoaren egintzak iragazi, zeharkatu, ezin duena. Giza historia eta Jainkoaren historia eskua emanik bizi dira. Horregatik, giza historia honetan «etorri zen Jainkoaren Hitza» Joanengana. Eta halaber dator, gaur egun, gure norberaren historiara. Zer zioen, zer dio Hitz honek? «Prestatu bidea Jaunari!»

Abendualdiko 2. astea. C urtea

Santa Krispina, *martiria*.

San Sabas, *abadea*.

San Mauro, *martiria*.

Nola? Bidezidorrak zelaituz (gauza guztietan Jainkoa, bera bakarrik, bilatzera eragiten digun asmo-zuzentasun hura biziz). Ibarrek goratuz (hau da, geure adore-gabezia eta ezkortasuna gaindituz). Mendiak eta mendixkak beheratuz (hau da, gure sasi-segurtasuna eta harrokeria beheratuz). Oker dena zuzenduz (hau da, «afektuak ordenatuz», Ignazioren hizkuntzan, okerrak bakarrik apartatuz, zeren eta arazoa gu geu dena afektu bihurtzea baita). Horrela, ongietorria egin ahalko diogu Jaunari. Horra, beraz, zein den Joanen mezua, Bataiatzailearena, basamortuko gizon horrena, beraren ondoren datorren horren zain-zain bizi den horrena.

Abendualdiko pregoia

Hona. Hastera goaz abendualdia.

Begira gora, igurtzi begiak, arakatu zeruertza.

Har kontuan une hau. Zorroztu entzumena.

Atzeman oihiak eta xuxurla, haizea, bizitza...

Hastera goaz abendualdia.

Eta beste behin birjaio da esperantza zeruertzean.

Amaia, argituz, Eguberriak.

Eguberri soseguzkoa, barnekoia, bakezkoa,

senidezkoa, solidarioa, haragitua,

baita azalekoa ere, urratua, indarrezkoa...;

alabaina, beti, esperantzarekin esposatua.[...]

Poztu zaitetze, alaitu jauzika.

Jantzi soinekorik hoberena.

Lurrindu zaitetze usaingarri garestiz. Nabari dadila!

Badator Jainkoa. Bizitu poza, bakea, esperantza.

Prestatu bidea. Badator gure Salbatzailea.

Badator Jainkoa... atean da.

Itzarri bizira! (*Ulibarri, Fl.*)

Abendualdiko 2. astea. C urtea
San Nikolas, *gotzaina*.

[Isaias Profetaren liburutik 35, 1-10. Jainkoa bera dator zuek salbatzera.
Sal 85 [84]: Horra gure Jainkoa; bera dator gu salbatzera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,17-26.

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseriak Galileako eta Judeako auzo guztietatik eta Jerusalemdik etorritako fariseu eta lege-
maisur batzuk. Eta Jaunaren indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion.

Hartan, etorri ziren gizon batzuk elbarri bat ohatilan zekartela eta barrura sartu nahi zuten, Jesusen aurrean ipintzeko. Baina jendetzagatik ez baitzuten aurkitzen nondik sartu, etxe gainera igo eta, teilak kendurik, ohatila eta guzti eraitsi zuten erdira, Jesusen aurrera. Haien sinesmena ikusirik, Jesusek esan zuen: «Gizona, barkatuak dituzu bekatuak!»

Lege-maisu eta fariseuek zioten beren baitan: «Nor dugu biraoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?»

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zer burutapen darabilzue zeuen baitan? Zer da errazago esaten: “Barkatuak dituzu bekatuak” ala “Jaiki eta zabilta?” Hara, bada, orain ikusiko duzue Gizonaren Semeak baduela lurrian bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki zaitez, hartu ohatila eta zoaz etxera”. Jaiki zen hura berehala denen aurrean, hartu zuen etzanik zegoen ohatila eta etxera joan zen, Jainkoa goretsiz.

Guztiak harriturik gelditu ziren eta Jainkoa gorensten zuten. Eta, beldurrez beterik, honela zioten: «Harritzekoak ikusi ditugu gaur».

Zinez, ez dakit zer miretsi gehiago! Ohatzea edo ohatila jaisten ikustea bera, elbarria bertan dela, Jesus hizketan ari den bitartean ala gaixo Jesusen aurrera nahitaez eraman nahi dutenen asmamena eta trebetasuna ala lege-maisuen eta fariseuen egoskorkeria, beren usteari tematsu atxikiz («Jainkoak bakarrik barka ditzake bekatuak»), baina

Abendualdiko 2. astea. C urtea
San Nikolas, *gotzaina*.

ikusten dutenari uko eginez: nola topo egin dezaketen Jainkoaren bideek eta gizakienek, batzuetan era txundigarrian eta jeinutsuan. «Ikusirik Jesusek haien fedea...», jendearen fedea bihotza ukitzen baitzion, barkazio eta gonbit-hitzak jaulki ditu: geure ohatzea har dezagula (hau da, iraganeko zauriak, batzuetan zaurgarriak, baitaratu ditzagula), bidean aurrera goazelarik.

**Jesu Kristo
Zeruko Ihintza**

Egungentiko eguzkia bezala etorriko da munduaren salbatzailea eta Andre Mariaren sabelera jaitsiko, belardira ihintza bezala. Aleluia.

Goizeko ihintza
Bibliako esapiderik ederrenetakoa eta poetikoenetakoa da,
Jainkoak munduan dagiena adierazteko.

Ihinzaren irudi hori ulertu nahi badugu,
imajina dezagun Palestina udako galda batean.
Jasanezina izan ohi da han beroa egunez.

Baina gaua iristean,
eta inor konturatu gabe,
ihintza eratzen da landareen hostoetan,
loreen petaloetan,
baita mendiko harri gainean ere.

Ihinz-tanta dira,
perla-sorta bihurturik,
han eta hemen banaturik.
*(Testua Pedro García, misiolari klaretarra,
Mi hora Santa Eucarística, zatitxo)*

Abendualdiko 2. astea.

San Anbrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[Isaias Profetaren liburutik 40, 1-11: Jainkoak bere herria kontsolatu.
Sal 96 [95]: Hara, indarrez jantzia etorriko da gure Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino.

Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

«**J**esusek amesten duen Elizaz» Mateok eraturako hitzaldiak sekulako garrantzia ematen die txikiei. Jainkoak, zeruko gure Aitak, ez du nahi hauetako inor galtzea. Guretzat, aitzitik, txikiak (hau da, behartsuak, zokoratuak...) erraz izan daitezke ezertan aintzat hartu ez direnak, hau da, erraz izan daitezke badaezpadako. Are gehiago, batzuetan «arrazoizkoena eta praktikoena» izan daiteke aintzat ez hartze hori. Horretaraino iritsi daiteke Frantziskok, Erromako gotzainak, hartaraino larderiatu eta gaitzetsi duen «baztertze-kulturaren» pentsaera hau. Kultura, ekidin beharko genukeena geure elkartean eta geure amaren, Elizaren, baitan isilka sartzea. Eta honetan, bai ondo datorrela Elizari «ama» deitzea! Zeren eta, ama batentzat, inor ez baita sekula badaezpadako denik edota ez-baitezpadako, ez-zinbesteko denik.

Abendualdiko 2. astea.
ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

§ Hasiera liburutik 3,9-15.20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari:

«Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi heu eta emakumea, hire eta haren ondorengoak; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

[Sal 98 [97]: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,3-6.11-12.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaro genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten

dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Ezkutaketan jolas egiten duten haurrak bezala, nor bere burua batak besteari ezkutatuz ematen dugu guk geure bizitza. Batzuetan, txikitako jolasak helduaroko portaera-arau bihurtzen dira. Gertatzen

Abendualdiko 2. astea.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

dena da geure burua ezkututzen diogula Jainkoari berari ere («zure oin-hotsa entzun nuen baratzean... eta ezkutatu egin nintzen»). Geure burua ezkutatu batak besteari, geure biluztasunaz lotsaturik konturatzean. Eta geure burua ezkutatu batak besteari, orenen errua besteren bizkar emanez: emaztea izan da... sugea izan da... mundua izan da... ni ez besteak! Baina «bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesus gure Jaunaren Aita, espirituzko eta zeruko ondasun-mota guztiez bedeinkatu gaituena!» Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, behin batean, gure historia oinazezko honetan, izan zelako emakume bat «ezkutatu ez zena»! Nazareteko Maria zuen izena. Ez zen ezkutatu Jainkoagandik, baizik eta bere «bai» bete eta konfiantzazkoa eman zion; ez zen ezkutatu bere buruagandik, bere txikitasunaren jakitun izanik ere, Jainkoa begira zuela sentitu baitzuen eta Jainkoa beraz maitemindua zela. Ez zen ezkutatu gugandik ere, baizik eta gizaki batek beste bati ematen ahal dion gauzarik hobena eman zigun: Jesus. Eta ordudanik, Emmanuel, Jainkoa-gurekin, bilakatu zen Jainkoa betiko.

Andre Mariaren amatasuna

Prius concepit mente quam corpore (Lehenango sortu zuen bihotzean, gorputzean baino) (San Agustin). Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea» (Jn 19,26). «Ama Birjinaren aintzarako eta gure kontsolamendurako, Andre Maria Elizaren Ama deklaritzen dugu, hau da, Jainkoaren Herri osoaren Ama, Ama maitekor deitzen dioten fededun eta artzainen guztien Ama» (Paulo VI.a, 1964). Kristoren Ama delako, fedez bat eginik, Kristorekin gorputz bakarra, hau da, Eliza osatzen dugunon Ama da. Horra Maria gu guztion Ama izatearen behin betiko arrazoia.

[Isaias profetaren liburutik 41,13-20: Ni Neu nauzu lagun, Israelgo Santua. Sal 144 [145]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserregaitza eta inginahiz betea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,11-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino handiago da. Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatu da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu. Belarririk duenak entzun beza».

Joan Bataiatzailearen gainean, laudorio bat bota du Jesusek («amagandik jaiotako guztiak baino handiagoa da») eta aurreko beroarena kentze bat («zeruetako Erreinuan txikiena bera baino handiagoa da»). Beraz, «zeruetako Erreinuan txiki izatera» gonbidatu gaitu. Izatez, beharrezkoa da «handi izatea», bihotz zabal eta adoretu izatea, «txiki bihurtu ahal izateko» (ebanjelioaren araberako). Saiatuak izan beharra dugu, «nork geure burua bortxatu beharra», geure baitan ebanjelioa bizitzea eragozten digun guztia zuzenduz; edota sufritze beharra txandako boteretsuengandik, Jaunari jarraitu ahal izateko... Jakinaren gainean, ordea, ezen dohain dela den-dena, eska diezaiogun Jaunari behin eta berriz: «egin nazazu ni anawim, behartsu».

Abendualdiko 2. astea.

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 48,17-19: Nire aginduak aintzakotzat hartuko bazenu! Sal 1: Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,16-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeinen antzekoa dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek aienerik ez”.

Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ez jan ez edan egiten ez duela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoia».

«**E**zer ez gizakiaren bihotza baino bihurgunetsuagorik». Jesusek tarteka ebanjelioan egindako («nik zuri zer egitea nahi duzu»?) galderak isiltasun deigarri bat jaso ohi du sarritan. Orain hau nahi dugu... orain beste hau... Gure bihotza haize-orratza bailitzan mugiten da, kanpoko eta barneko gertaeren haizearen ufaden harira. Izatez, Jainkoagan bakarrik, «geure barnea baino barneagoa» (San Agustín) den horrengan bakarrik, barrunta dezakegu geure errealitate sakonaren eta geure bihotzaren gurarien zerbait. Horregatik otoiiz egiten dugu salmogilearekin: «Zuk ikertzen eta ezagutzen nauzu». Jakinik, ezagutza hau berak, Jainkoak, digun eta guk berari diogun... eta orori diogun maitasuna bera dela.

Abendualdiko 2. astea.
San Damaso, 37. *aita santua.*

[Siraken liburutik 48, 1-4. 9-11: Berriz etorriko da Elias. Sal 80 [79]:
Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nolatan diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?»

Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara zer diotsuedan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiaela.

Elias, Joan Bataiatzailea... Dietrich Bonhoeffer, Edith Stein... Gandhi... Martin Luther King... Romero, Espinal, Ellakuria... Martirologioko profeten zerrenda asko luzatzen ahal litzateke. Profetak, hitz sutsu eta jarrera erostezina izan dutenak. Batzuetan, presentzia edo itxura beldurtikoak. Jainkoak bidaltzen dizkigun mezulariak, kontzientzia lokartuei astindu bat emateko; baina jende askoren erreakzioa aurkakoa izaten dutenak, askotan, bortitza, erailtzeraino, beraien hitza «kaltegarri» gertatzen zaielako, ezin jasagarri edo «politikoki ez-zuzen». Jainkoaren hatz izaten dira, zuzengabekeriarekin ezin aitortuzko kidesunak seinatzen dituzte. Jainkoaren hitz eta grazia dira, geure bihotzean eta geure historian Jainkoari bidea prestatzen laguntzen digute. Abendualdi honetan ere gure bideak argitzen jarraitzen duten lekuko dira. Beraien hitzak ez ahal du erantzun bakar isiltasuna izango!

Abendualdiko 3. astea. C urtea.

San Justino, *martiria*.

Santa Amalia, *martiria*.

Andre Maria Guadalupekoa, Mexikon.

§ Sofoniasen Profezia liburutik 3, 14-18a.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri! Egin oihu alai, Israel! Poztu zaitetz bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem! Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango.

Egun hartan, honela esango diote Jerusalem:

«Ez beldur izan, Sion!

Ez bitez erori zure eskuak!

Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zugatik,

bere maitasunez biziberritzen zaitu.

Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala».

[**Salmoa: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6 (R/. 6):** Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.]

§ San Paulok Filipinoarrei 4, 4-7.

Senideok: Zaudete beti pozik Jaunagan; berriro diotsuet, zaudete pozik. Ezaguna izan bedi gizaki guztientzat zuen bihotz ona. Hurbil da Jauna. Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogobihotzak Kristo Jesusen bidez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3,10-18.

Aldi hartan, honela galdetzen zion jendeak Joan Bataiatzaileari: «Zer egin behar dugu?» Eta hark erantzuten zien: «Bi soineko dituenak eman biezaio bat ez duenari, eta jatekorik duenak egin beza gauza bera».

Etorri zitzaizkion zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten: «Maisu, zer egin behar dugu?» Eta hark esan zien: «Ez eskatu erabakia dagoena baino gehiago».

Gudariak ere galdetu zioten: «Eta guk zer egin behar dugu?» Hark erantzun: «Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salaketaz ere; baizik eta konforma zaitetze duzuen soldatarekin».

Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen ez ote zen Joan Bataiatzailea Mesias izango. Joanez guztiei adierazi zien: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baina badator ni baino ahaltsuago dena eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Hark Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea, larraina garbitu eta garia mandiora biltzeko; lastoa, berriz, itzal ez daitekeen suan erreko du».

Hauen eta beste aholku askoren bidez, Berri Ona iragartzen zion herriari.

«**Z**er behar dugu egin?» Joanez bere solaskideei eman dizkien erantzunak zentzuzkoak dira, arrazoizkoak eta beragana jo duten gizarte-sailetako bakoitzari bete-betean egokituak. Herri guztiari, oro har, eskatzen dio Joanez arropa eta jantzia partekatzeko. Zergabiltzaileei: ez eskatzeko ezarria dagoena baino gehiago. Militarrei: ez bortxatzeko eta ez baliatzeko salaketaz, eta konformatzeko nor bere soldatarekin... Bakoitzak dagokiona egin baleza... Alabaina, aski al da hau? Izatez, igurikimen handia nabari da herrian Mesiaren hurbileko etorrera dela eta. Ez ote da Joan hau bera espero duten Mesias? Ez, ez da. Joanez bakarrik bataiatzen du; Mesiasek, berriz, Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko du. Mesiasek bere betera eramango du guztia, dena eraberritzeko. Espero duten Mesias, dena aldatzera dator. Espero behar dena, ez da, beraz, jokabideaz aldatzea, baizik eta izaeraz aldatzea, izaki eraberritu bilakatzea. Batzuetan ematen du ezen, dagokizuna eginik, konforme geldu zaitzezkeela; baina horixe izan daiteke aitzakia bikaina eraldatu beharreko den ezer ere ez eraldatzeko. Eta jakina da: basta ederragatik, astoa beti asto.

Abendualdiko 3. astea.

Santa Luzia, *birjina eta martiria*.

San Eugenio, *martiria*.

[Zenbakiak liburutik 24,2-7.15-17: Izar bat aterako da Jakoben herritik. Sal 25 [24]: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,23-27.

Aldi hartan, Jesus tenplura etorri eta, irakasten ari zela, apaizburuak eta herriko zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez egiten duzu hori? Nork eman dizu aginpide hori?» Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuten badidazue, Nik ere esango dizuet zein aginpidez egiten dudan hori. Joanek noren aginduz bataiatzen zuen: Jainkoaren aginduz ala gizakien aginduz?»

Haiek beren baitan zioten: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badugu, zergatik sinetsi ez genion esango digu. Eta gizakien aginduz ari zela esaten badiogu, berriz, jendearen beldur gara, guztiak profetatzat baitaukate Joan».

Ebanjelioaren arabera, Jesusek sare bat jarri die bere solaskideei, azaltzen ari diren inkoherentziaz eta aginpide-faltaz jabetu daitezen. Herriaren buruzagi espiritualek ez zioten sinetsi Joani, eta orain Jesusi ere ez. Izan ere, batzuetan hainbat «baldin eta» ezartzen ditugu berari jarraitzeko erabakia hartzeko...! Hainbat «sine qua non» baldintza...! Alabaina, Jesusi jarraitzeko erabakiak beti utzi behar izaten dio tarte bat irekirik harrigarri, ezusteko, berri... denari. Horixe gertatu zitzairen ikasleei; haren deia entzutean, «bat-batean» utzi zuten bertan behera den-dena, berari jarraitzeko. Berarekin bide egiten hasi ziren. Batzuetan ez zuten eta ez zioten ulertzen. Baina horietako ezerk ez zuen moteldu Jesusen deia emana zioten erantzunaren «bat-batekotasuna».

Abendualdiko 3. astea.

Gurutzeko San Joan, *apaiza eta eliz irakaslea, karmeldarra.*

[Sofoniasen Profezia liburutik 3,1-2.9-13: Mesiasengandiko salbamena behartsu guztiei agindu. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 28-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Zuek zer deritzozue? Gizon batek bi seme zituen; batarengana joan eta esan zion: “Seme, zoaz gaur mahastira, lanera”. Hark erantzun: “Ez dut nahi”. Baina gero damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: “Banoa, jauna”; baina ez zen joan. Bietan zeinek egin zuen aitaren nahia?» «Lehenengoak», erantzun zioten.

Orduan, Jesusek esan zien: «Egiaz diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea hots eginez, eta ez zenieten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu, hari sinesteko».

«**Z**erga-biltzaileek eta prostituituek aurrea hartuko dizuete Jaunaren Erreinurako bidean». Baina zer dio gizon honek? Honetaraino iritsi behar al genuen! Horrelatsu adierazten bide zuten beren haserrea apaiz nagusiek eta herriko zaharrek Jesusen hitz zirikatzaile hauen aurrean. Arrazoiz? Ba... zertan ukatu, Jesus, agian, pasatu egin zela bere hitzetan? Baina, batzuetan, zirikadak bakarrik eraman ohi gaitu garrantzizko gauzez konturatzerara. Horregatik, benetako pena izango litzateke dena haserre batean gelditzea, bihotzaren atak itxirik gizarteak baztertua duen jendeaz zinezko maite-mina sentitzen duen Jainkoari, alde batera utziz ikasgaiak (onartzea asko kostatu arren), anai-arreba baztertu hauengandik etengabe hartzen ditugunak.

Abendualdiko 3. astea.

Santa Silvia, *aitorlea*.

San Valeriano, *gotzaina*.

[Isaias Profetaren liburutik 45, 6b-8. 18. 21b-25: Isuri goitik, zeruok, ihintza bezala garaipena! Sal 85 [84]: Isuri goitik, zeruok, ihintza bezala, isuri, hodeiok, garaipena euria bezala!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 19-23.

Aldi hartan, Joan Bataiatzaileak, bere ikasleetako biri dei egin eta Jaunagana bidali zituen galdetzeraz: «Zu zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?» Joan ziren, bada, gizon haiek Jesusengana eta esan zioten: «Joan Bataiatzaileak zugana bidali gaitu galdetzeraz: “Zu zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?”»

Une hartantxe, gaitz, eritasun eta espiritu gaiztoak zituen jende asko sendatzen ari zen Jesus, eta itsu askori ikusmena ematen.

Ondoren, mezulariei erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani ikusi eta entzun duzuenaz: itsuek ikusten dute eta herrenak badabilta, legendarunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzuten dute, hilak pizten dira eta behartsuei Berri Ona hots egiten zaie. Eta zorionekoa nigatik erorbide hartzen ez duena!»

Sarritan hitz egiten dugu ezbaika geure nortasunaz eta geure misioaz, bi gauza bateraezin bailiran. Kontuan izan beharko genuke ezin bereiz ditzakegula bata bestetik. Bere izaeraz Jesusi galdegin ziotenean («zu al zara etortzekoa ala beste baten zain jarraitu behar dugu?»), premian direnen aldeko bere egintzak aipatu dizkie: ikustera igaro diren itsuak, ibilia berreskuratu duten ezinduak, entzumena lortu duten gorrak, bizira itzuli diren hildakoak. Funtsean, ebanjelizatuak diren behartsuak. Oxala ez garen eskandalizatzen Jesusez! Oxala ez zaigun Jesus «eskandalu-harri» bihurtzen! Izan ere, beraz hitz egiten dugunean, beti egin beharko genuke galdera, benetako Jesusez mintzo garen ala geure irudira eta antzera moldatua dugun Jesus batez.

Abendualdiko 3. astea.

San Agrikola, *martiria*.Santa Adelaida, *enperadorea*.

[Isaias Profetaren liburutik 54, 1-10: Emakume baztertuari bezala dei egiten dizu Jaunak. Sal 30 [29]: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 24-30.

Joan Bataiatzailearen mezulariek alde egin zutenean, Joanez mintzatzen hasi zitzaion Jesus jendeari: «Zer ikustera atera zineten basamortura? Haizeak astintzen duen kanabera? Zer ikustera atera zineten, bada? Apain jantzitako gizona? Apain janzten direnak eta atseginkeriatan bizi direnak errege-jauregietan egoten dira. Zer ikustera atera zineten, bada? Profetaren bat? Baietz diotsuet, eta profeta baino ere handiagoa dena. Horretaz dago idatzia Liburu Santuan:

“Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik, zuri bidea prestatzera”.

Horra Nik esan: ez da sortu amaren semerik Joan baino handiagorik. Hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena hura baino handiagoa da».

Joani entzun zion herri osoak, baita zergalariek ere, Jainkoak arrazoi zuela aitortu zuten, Joanen bataioa hartuz; fariseuek eta lege-maisuek, ordea, haren bataioa baztertuz, zapuztu egin zuten Jainkoak beraientzat zuen asmoa.

Joanen bataioa hartzera joaten zen jendea, ez ziren garaiko gizarteko «gaienak eta bikainak». Izango ziren onak eta ez hain onak, jakina... baina ez ziren hobenak. Are gehiago, bazen tartean zerga-biltzaile gorrotatua zenik! Denek hartu zuten Joan profeta sinesgarritzat, beraren hitzarengatik bakarrik ez, baita, batez ere, beraren bizeragatik. Aldatu nahiak eragiten zien. Ez ziren, ordea, horrelako fariseuak eta lege-maisuak, hobenak zirela uste baitzuten eta horregatik «huts bihurtu zuten Jainkoak beraiekiko zuen asmoa». Gure bihotzera datorren Jainkoa onartzeko, apal-apal erregutu behar dugu, «herri sentitzearen» (Frantzisko) grazia dastatu, eta ez izan besteak hotz-hotz kontenplatzen dituen «espirituaren aristokrata».

Abendualdiko 3. astea.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*.

San Juan de Mata, *apaiza*,

*fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak).**

[**Hasiera liburutik 49,1-2.8-10:** Errege-makila ez da Judagandik aldenduko. **Sal 72 [71]:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,1-17.**

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua.

Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonen Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea.

Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesen Amon, Amonek Josias; Josiasen Babiloniako erbestealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta, Babiloniako erbestealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Davidenganaino, hamalau gizaldi Davidengandik Babiloniako erbestealdiraino, eta hamalau gizaldi Babiloniako erbestealdiraino Kristorenganaino.

«**B**idaia bukatzean esango didate: bizi al zara? Maitatu al duzu? Eta nik, ezer esan gabe, bihotza irekiko dut izenez betea»

*San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*.

(Casaldáliga). Izenak... eta izenak... gehiago. Izen hauek aurpegi dira, historia pertsonal. Ereduzko, batzuk; ez hain ereduazko, beste batzuk. Gehienetan, nolabaiteko dira, pertsona zurbil eta anonimo. Belaunaldi hauek guztiek gidatu zuten Israel herria espero zuten Mesiasekin topo egitera, Emmanuelekin, Jainkoa-gurekin denarekin, topo egitera. Geuk ere aipatzen ahal genuke, esker onez, izen asko (aurpegiak, historia pertsonalak...), hainbat pertsonarenak, batzuk ezagunago, beste batzuk gutxiago, Jesusengana eraman gaituztenak. Halakoak aipatzean, desira sortzen zaigu bihotzean; «sar gaitzatela» geu ere zerrendan, Jesusekin topo egin nahi duten geure anai-arreben bidelagun izan gaitezen.

Jainkoa hurbil da!

Aupa, jaiki,
hurbil da zuen askapena!
Horra seinaleak zeuen inguruan.
[...]
Aupa, jaiki, ekin bideari hats berriz!
Miatu begiz zeruertza.
Adi gizadi osoaren
xuxurlei,
liburuei, oihuei eta barre-algarei.
Jainkoa hurbil da.
Erne bizira.
Kanpora huskeria eta agor dena.
Eskatu indarra zain egoteko.
Jainkoa hurbil da.
(*Florentino Ulibarri*)

*San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*.

Abendualdiko 3. astea.

Itxaropenaren Andre Maria.

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea.*

[Jeremias Profetaren liburutik 23, 5-8: Legezko muskila sortuko diot Davidi. Sal 72 [71]: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen:

«Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du,

eta Emmanuel ipiniko diote izena

(izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Jose, «gutxi ikusia da argazkian...». Hain bildua eta xumea da bera! Halaz guztiz, misio garrantzikoa leporatu dio Jainkoak: Jesusi izena ipintzea. Historiaren egunsentian, gizakia gauzei izena ipintzen ari zenean, beraien ardura hartzeko modua zen hura. Beraien ardura gomendatzen zitzaion, beraren esku gelditzen ziren haiek, eta ez bera gauzen baitan. Oraingo honetan, Jainkoak «izena ipini diezaion» utzi dio gizakiari, gure baitako egin da, gure ardurapean gelditu. Gure meneko egin da. «Esaneko egin zen heriotzaraino, gurtzeko heriotzaraino, gero». Hala, Mateoren ebanjelioa hasia zen bezala bukatu da («Ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte»): «Emmanuel izena... Jainkoa-gurekin... ipiniko dio».

§ Mikeasen Profezia liburutik 5, 1-4a.

Honela mintzo da Jauna:

«Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zugandik aterako da Israelen buruzagia.

Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa.

Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte.

Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira.

Sendo eutsiko dio

eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez, Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz.

Lasai biziko dira herritarrak; handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino, eta bakea ekarriko du».

[Sal 80 [79]: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 10, 5-10.

Senideok: Kristok, munduan sartzean, dio:

«Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan; baina gorputza eratu zenidan. Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan.

Orduan, esan nuen: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; hau dago Liburuan nitaz idatzia».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik»,

*San Anastasio I.a, *aita santua*.

Abendualdiko 4. astea. C urtea.

San Dario, *martiria*.

Santa Protasia, *birjina*.

San Urbano V.a, 200. *aita santua*. *

nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Lehenengo kultura kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Lukas: jende behartsu eta xumearen ebanjelaria... Jainkoaren errukiaren eta txeraren ebanjelaria... Ebanjelaria: kontaktzen diguna, nola emakumeek ere —garai hartako gizartean gizatalde anonimo eta «anonimotua»— jarraitzen zioten Jesusi..., berak digu kontaktzen bi emakume hauen, Elisabet eta Maria, topo egitea, Jainkoak gure bizitzan egiten dizkigun «bisitak» gogoratzeko. «Bisita» hauek gainez egiten duen poz-iturri izaten dira, gure igurikimenak betetzen dituen iturri, jende xumearen fedearen laudorio. Hauengandik, txiki eta xumeengandik, datorkigu espero dugun salbazioa. Hori aldarrikatu du profetak: «Eta zu, Efratako Betleem, Judako herrixketan herrixka, zugandik sortuko da Israelgo buruzagia». Hauek, txikiek eta xumeek,

*San Anastasio I.a, *aita santua*.

ez dakite zer den tratuan eta beherapen bila ibiltzea, arazoa besteen zerbitzari izatea denean. Nazaretoko Jesusek bezala, honi jarraitzen baitiote txera guztiaz, beren burua eskaini eta behin eta berriz errepikatzen dute: «hona hemen ni zure nahia egiteko». Ondo egingo genuke, beraz, ez gutxiestearekin Elisabetekin eta Mariak, biak Espiritu Santuaz bete-beterik, eta lurrean azkenak diren guztiak Jainkoaz eta geure bizitzan jardute eraz irakasten ahal digutena.

Ba al dakizu zer den zain-zain bizitzea

Ba al dakizu zer den adiskide bat noiz etorriko zain egotearen sentimendua, etorri zain egotearena, atzeratzen ari denaren sentimendua?

Ba al dakizu lagunarte txar batean egotea zer den, atsegin ez duzun batekin, eta denbora igaro dadin irrikaz, eta orduak noiz joko eta aske izateko zain egotea?

Ba al dakizu zer den ... [...]

Ba al dakizu zer den zurekin bizi den lagun bati begira bizitzea, zure begiak haren begietan direla, haren arima irakurtzen duzula, haren aurpegieraren aldaketa guztiak sumatzen dituzula, haren desirei aurrea hartzen diezula, irribarre dagizula hark irribarre egitean, eta triste bizi zarela hura triste ikustean, eta lur joa zaudela hura haserre ikustean, eta pozik bizi zarela haren arrakastak ikustean?

Kristo noiz etorriko zain egotea sentimendu hauen guztien antzeko zerbait da, mundu honetako sentimenduak gai diren heinean. (*John Henry Newman*)

*San Anastasio I.a, *aita santua*.

Abendualdiko 4. astea.

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*.

[Isaias Profetaren liburutik 7, 10-14; 8, 10: Begira, birjina haurdun dago. Sal 24 [23]: Badator Jauna: bera da errege ospetsua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Handik sei hilabetera, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzeman zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zuek jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

«**E**ska ezazu zeinu bat... Ez dut nahi. Ez dut Jauna tentatu nahi». Erantzuna begirunez emana Jainkoari, Akaz erregearen hau... ai, ez

Abendualdiko 4. astea.

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*.

balitz erantzun «hipokrita» bat! Hondoan, erabaki irmo bat du gordea: Jainkoak ez dezala koloka jarri berak, Akazek, burutzeko hartua duen erabakia (zehazki, asiriarrekin egina duen ituna). Jainkoak ez dezala burruntzalia sar nire arazoetan! Mariak, aldiz, bai, eskatu du zeinu bat: «nolatan gertatuko da hau?» Zeren Mariak, bai, sinesten baitu Jainkoa partaide izan daitekeela beraren bizitzan, izan daitekeela gure bidelagun, eraberritu dezakeela gure ilusioa... Eta hona Mariaren erantzuna: «gerta bedi», bere buruaz hustea, bere burua eskaintzea, Jainkoak, beraz, Mariaz, jabeturik, bete dezan bere egitasmoa gure, gizadiaren, bizitzan.

Otoitza Ars-eko apaiz santuak Gure Ama Bedeinkatuari

- Nazareteko Andre Maria, gure Jaunaren ama, gure bidelaguna, zatozkigu bisitari, geldi zaitez gurekin. [...]
- Ez dezagula gal utopia, ama ona, uste izatea posible dela beste mundu bat eta beste gizarte bat. [...]
- Andre Maria, zuk sinetsi zenuen eta bizia jokatu zenuen. Eta ez zenuen batere gauza erraza izan. Bizi zenituen zeuk ere ziurtasunik gabeko aldiak, gertatzen ari ziren gauzak, sufrimendua eta bakardadea ezin ulertuz. [...]
- Neskato izanik, konpromisoa izanik, Jainkoaren egitasmoari «bai» esateko arriskua onartu zenuen. Jainkoaz fidatu zinen eta Jainkoaren ametsa errealitate bihurtu zen. [...]
- Eta eskatzen digu, zuri Nazareten bezala, eman dezagula dugunik eta hoberena bere Egitasmoa betetzen laguntzeko. [...]
- Erakutsi iezaguzu [...]
- Espero dena lortzen da ahaleginaz, lanaz eta bizitzaz. Zure eskuetan jartzten gara konfiantzaz, fedean sendo egin gaitzazu, konprometitu solidaritatean eta irmo, oso irmo, Erreinuaren Esperantzan. Amen.

Abendualdiko 4. astea.

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita.*

[Kantarik Ederrena liburutik 2,8-14: Hara non datorren, mendiz mendi lasterka, nire maitea. Sal 33 [32]: Egin poz-oihu, zintzook, Jaunari, kanta iezaiozue kantu berria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihi handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariaren eta Elisabeten topo egite honetan dena da neurritz gainekoa, gainez egitea... Maria presaka joan zen mendi aldera... Haurrak jauzi egin zion Elisabeti sabelean... Biak Espiritu Santuaz bete-beteak... Elisabet aldarrika hitz egiten... Hemen, Jainkoaren agertzea parrastada bat da, ugaritasuna, gehiegizkoa... Ereilearen parabolan bezala: neurririk gabe bota du hazia, zuhurkeriarik gabe. Jesuita lagun baten apaiz-ordenaziokoan, gotzainak, latinoamerikarra bera, esan zigun: «oso aspergarri zarete zuek». Kultur jokamolde desberdinak izatearen adibide izan zen ateraldi hura. Ez ote da askotan eskas eta urri ibiltzen garela kristau izateaz geure poza azaltzean? Ez al zen Nietzsche izan leporatu ziguna: kristauongan, «berri ona» sinesten omen dugunongan, aurpegi alai gutxi nabari ohi zuela?

[**Samuel lehenengo liburutik 1, 24-28:** Anak eskerrak eman, bere seme Samuelen jaiotzagatik. **Salmoa: 1 Sm 2:** Jaunagan da nire bihotza pozten, nire salbatzaileagan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 46-56.**

Aldi hartan, Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana.

Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak.

Lagun etorri zaio bere morroi Israel, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzeman, Abrahami eta ondorengoiei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Magnificat kantak, laburbildurik eta era poetikoan, Jainkoaz hitz egiteko Mariaren era berezia dakar, Jainko santu eta ahaltsua, baina ez giza historiarekin zerikusirik ez duen Jainko bat. Txikiei begira dagoen Jainkoa, ez galdagile bekoki zorrotz, baizik samur, errukiaz diharduena beraien alde. «Desordena ezarri» guztiak hankaz gora itzulikatzen dituen Jainkoa, boteretsuak botaz eta apalak goratuz: lehenak esku-hutsik bidaliz eta bigarrenak ondasunez mukur. Gainera, «oroitzen den» Jainkoa da, ez gure erruez, baizik eta bere erruki mugagabeaz. Ez ote zion esango hau bera Mariak Jesus bere semeari Israelgo Jainkoaz? Horixe salatzen du Jesusek Jainkoaz hitz egiteko agertu ohi zuen erak.

Abendualdiko 4. astea.

San Joan Kety-koa, *apaiza*.

[Malakias profetaren liburutik 3,1-4.23-24: Elias profeta bidaliko dizuet, Jaunaren eguna etorri baino lehen. **Sal 25 [24]:** Izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن.

Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Joani izena ipintzea gatazka-bide bihurtu da. Zakarias izena ipini nahi diote, aitarena, baina ama, Elisabet, berehala sartu da tartean, eta, Zakarias izena eragotziz, «Joan izango du izena». Izan ere, Jainkoak gure bizitzan egiten dituen sarraldiek ez dute zertan jarraitu guk, gizakiok, urratutako bideei. Zabalik ditu Jainkoak erabateko berritasunerako atea. Gu ez gara nor berari zer egin esateko; berak digu guri zein bide hartu seinatzen. Jainkoak eskutik gaituela, beraren bidea egiten dugu, Jesusi jarraituz. Beldurrez dar-dar, batzuetan garrasi egin ohi dugu: zer izango da gutaz? Baina, berehala, konfiantzaz beterik, Ignaziorena berresaten dugu: «Nora, Jauna, nahi nauzu eraman? Zuri jarraituz, ezin galdu dut bidea».

Abendualdiko 4. astea.
Eguberri-bezpera.

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob. David...

[2 Samuelen liburutik 7,1-5.8b-12.141.16: Daviden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean. Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betikoz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,67-79.

Aldi hartan, Zakarias, Joan haurraren aita, Espiritu Santuaz beterik, profeta bezala mintzatu zen, esanez:

«Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!

Salbamen-indarra digu eman bere morroi Daviden etxean. Hala hitzmana zuen antzinatik bere profeta santuen ahoz: salbatuko gintuela geure etsaien menpetik, gorroto gaituzten guztien eskutik.

Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia eta oroitu da bere itun santuaz, gure guraso Abrahami egindako zinaz: berak emango zigula, etsaien eskutik askaturik, beldur gabe bera zerbitzatzea, santu eta zuzen izanez haren aurrean geure bizitza guztian.

Zuri, berriz, haurtxo horri, Goi-goikoaren profeta deituko dizute, Jaunaren aurretik joango baitzara hari bidea prestatuz, erakustearren haren herriari salbamena, beren bekatuen barkamena.

Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertuko zaigu goiz-eguzkia zero goitik, ilunpean eta Herio-itzalean daudenei argi egitera, gure oinok bake-bidean zuzentzera».

Romero monsinorea martiri erori eta pixka batera, Ignazio Ellacuriak esan zuen UCAko (Universidad Centro Americana) kaperan ospatutako eukaristia bateko homilian: «Romero monsinorearekin Jainkoak «bisita» egin dio El Salvadorri». Jainkoak gure bizitzan egindako «bisita»... Errukiaren eta leialtasunaren Jainkoak... Jainko askatzaileak... Bake eta zuzentasun-bideetan gidari dugun Jainkoak... Eguberri-bezperan, badakigu Jainkoaren «bisita» hauek ez direla

Abendualdiko 4. astea.

Eguberri-bezpera.

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob. David...

itxura hutseko bisita, arrastorik uzten ez dutenetakoak. Horregatik, ez dugu izaten berari zertan esan: «geldi zaitetz gurekin, iluna gainean da eta», aldez aurretik baitakigu erantzuna: «bai, geldituko naiz. Ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte».

Abenduko deiadarra

Zatoz, Jauna! Ez atzeratu!

Beste lurralde bateko ibai-ertzean, oso urruti, eseri ginen negar egitera, geure familiaz gogoratzeraz;

bihotza triste sentitu genuen, Jainko Jauna, eta lur jota, eta orain, dena galdurik, ezer gabe, Zu bakarrik zaitugu geurekin. [Sal 136]

Gogora zaitetz, Jauna gure etxeez, mendialdean utziez;

bedeinka itzazu gure seme-alabak: beren gurasoen txerarik gabe ari dira hazten;

izan zaitetz Zu zeu errukia eta gupida urrundurik bizi direnen pobreontzat, eta eutsi tente halakoen bizitzari, itzulera-eguna arte. [Sal 136]

Jainko Jauna, emaguzu bihotz zuzen bat, bihotz egia bat, beti guztien on bila ibiliko dena, egoismoaz mozorrotuko ez dena.

Jainko Jauna, emaguzu bihotz xume bat, garbi bat, bere buruaz ahazteko gai dena, anai-arrebez arduratu eta kezkatzeko gai dena. [Sal 7]

Hemen nauzu, Jauna, bide-ertzean, biderik gabe;

nire oinak zure urratsen bila dabilta, beren zangoak non jarri izateko; bizitza eta heriotza begi aurrean ditut eronka gisa;

ongia eta gaizkia elkar bultzaka dabilta ene bihotzean; halere, beti bila, beti eske, beti deika. [Sal 1].

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
 Gauerdiko Meza (*ikus segidan Eguneko Meza*).
 Betleemeko Andre Maria.

§ Isaías Profetaren liburutik 9,1-6.

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez.

Apurto baituzulepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurto zenuen bezalaxe.

Suak erreko ditu eta erraustuko lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak.

Haurra jaio zaigu, semea eman zaigu; hari eman zaio aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri, Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emaile. Handia izango da haren aginpidea, amairik gabeko bakea Daviden tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zuzenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino.

Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

[Sal 96 [95]: Salbatzailea jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.]

§ San Paulok Titori gutunetik 2,11-14.

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurritz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zorionsua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Eguneko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehenengo errolda hau Siriako gobernadore Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira.

Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaret herritik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, bere emazte Mariarekin erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Betleemen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen-seea izan zuen. Oihaletan bildu eta askan etzan zuen, ez baitzen ostatuan haientzat lekurik.

Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez beren artaldea txandaka zaintzen. Honetan Jaunaren aingerua agertu zitzaion, eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek, beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez beldur izan! Begira, poz handia sortuko duen berri ona iragartzen dizuet, herri guztiarentzat izango dena: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hau izango duzue seinale: haur bat aurkituko duzue, oihaletan bildua eta askan etzana». Eta bat-batean zerutar talde handia bildu zitzaion aingeruari, Jainkoa goستن zuela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

«**I**lunpean zebilen herria...». Geu ere, nola norberaren bizitzan hala elkartarenean, ilunpean ibili ohi gara sarritan eta «itzalean dagoen lurraldean» bizi ohi gara! Bat-batean, ordea, herri honek (eta geuk) argi handi bat ikusi du... Argi batek distira egin du. Zergatik? «Haur bat jaio da... Haur bat eman digu Jainkoak». Haur honen jaiotzarekin berpiztu dira promesak, berpiztu esperantza. Alabaina, gai izango al gara haur hori onartzeko? Ez da gertatu hain erraza: «ostatuan ez zen lekurik haientzat», eta, agian, ez da lekurik gure bihotzean ere esperantzentzat. Aitzitik, izan zen lekurik artzain haientzat, jende zokoratu eta mespretxatu harentzat. Horregatik lo

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Eguneko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

egiten zuten izarpean. Eta izango da lekurik guretzat ere, haiekin bat egiten dugun neurrian, haiek bezala hiritik, hau da, geure norberaren erosotasunetik, irtenez. Eta baitaratzen baditugu, haiek bezala, geure eguraldi-gordinaldiak eta bila ibili beharrak bizitzako ilunaldietan. Eta, batez ere, aitortzen badugu, haiek bezala, «oihaletan bildua eta ganbelan etzana den haur hura», eta adoratzen badugu Emmanueltzat, Jainkoa-gurekin delakotzat betiko. Orduan, bai, egiaz esan ahalko dugu: «agertu da Jainkoaren onginahia eta maitasuna».

EGUBERRI EGUNEKO MEZA

§ Isaias Profetaren liburutik 52,7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan albistariaren oinak!

Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen eta salbamena iragartzen!

Sioni diotso: «Zure Jainkoa errege da!» Entzun zeure zaintzaileen oihua! Oihuka ari dira, poz-irrintzika, guztiak batera, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen.

Ekin poz-oihuka guztiok batera, Jerusalemgo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu eta askatu du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta munduko bazter guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren salbamena.

[Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

§ Hebrearrei gutunetik 1,1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei; azkenak diren egun hauetan, berriz, bere

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Eguneko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, egin ere honen bidez egin baitzuen mundua.

Seme hau da Jainkoaren aintzaren distira eta Jainkoaren iza-tearen irudia. Honek eusten die gauza guztiari bere hitz indartsuaz. Eta, bekaturen garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri zen zeru-goienetan, aingeruak baino gorago jarria, ondareztat jaso zuen izena ere haiena baino goragokoa denez gero.

Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz:

«Nire Seme zara Zu;

Nik zaitut gaur sortu?»

Eta beste behin: «Aita izango nau hark Ni eta Seme izango dut Nik hura?»

Eta berriro, Lehen-semea munduan sarraraztean, hau dio:

«Gurtu bezate hura Jainkoaren aingeru guztiak».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza,

eta Hitza Jainkoarekin zen,

eta Jainko zen Hitza.

Hitza hasieran Jainkoarekin zen.

Gauza guztiak haren bidez eginak dira,
eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.

Hitzagan zen bizia,

eta bizia gizakien argia zen;

argiak ilunpean argi egiten du,

baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Eguneko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

Hitza zen egiazko argia,
mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituena.
Munduan zegoen
eta, mundua haren bidez egina den arren,
munduak ez zuen ezagutu.
Bereengana etorri zen,
eta bereek ez zuten onartu.
Onartu zuten guztiei, berriz,
haren izenean sinesten dutenei, alegia,
Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.
Hauek ez dira giza odoletik sortu,
ezta giza nahieratik ere,
Jainkoagandik baizik.
Eta Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua,
eta ikusi dugu haren aintza,
Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren
Seme bakarrari dagokion aintza.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altxoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Presako bidaia Betlemera, izena emateko, txandako enperadorearen aginduz... Hiritik at haur egitea, ostatuan lekurik aurkitu ez zutelako... Beretarren ukoa esperimentatzea... eta, aitzitik, behartsuen harrera ona. Hori izan zen historiako lehen eguberri-egun hura! Hitza «haragi» egin zen zinez, hau da, txiki, behartsu, ahul...

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Eguneko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

eta, aldi berean, solidario, buru-eskaintza erabatekoa egiteko dei, azkeneraino. Eta Hitz hau «gure artean kanpatu zen», partekatuz gure bideak, gure eguraldi-gordintasunak eta gure segurtasun-gabeziak. «Eta beraren aintza kontenplatu dugu», ez munduaren aintza itsugarri eta engainagarria, baizik eta errukiaz eta egiaz betea den aintza. Halaber, argitu egin gaitu beraren argiak: inor itsutu gabe argitzen duenak, bizitzako bidea egin ahal dezagun. Hitz honetaz hitz egin digute mezulariek —hobeto esan, zezelka aritu zaizkigu—, Hitz horretaz jakin nahi genukeena adierazi gabe, azken batean. Izan ere, Hitz horrek berak bakarrik hitz egiten digu Jainkoaz, dagoen bezala, hasieratik Jainkoaren beraren altoan dagoena delako. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi. Beraren Seme Lehen Jaioak, Nazaretoko Jesusek, adierazi digu zein eta zer den Jainkoa.

GABON ZORIONTSUAK



Gure herriaren erdian
bakegile izan gaitzela,
bake orenen iturri
den Jaunak gorde
gaitzala fedean sendo,
itxaropenean alai eta
maitasunean eginkor,

Zorionak.

§ Siraken liburutik 3, 3-7. 14-16. 17b (gr.2-6.12-14).

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita,
eta amaren aginpidea ezartzen bere umeen gain.
Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama
goresten duenak ondasunak pilatzen.
Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta
otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak.
Aita ohoratzen duena luzaro biziko da,
eta Jaunari obeditzen dionak atsegin ematen dio amari.
Ene seme, zaindu aita zahartzaroan
eta ez eman nahigaberik bizi den artean;
burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera
eta ez gutxietsi bizi den bitartean;
aitari emandako laguntza ez da ahaztuko,
bekatuen ordain izango duzu.
Atsekabe-aldian gogoan izango zaitu Jaunak.

[Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona, eta haren bideetan
dabilena!]

§ San Paulok Kolosarrei 3, 12-21.

Senideok: Jantzi zaitezte bihotz errukitsuz, onberatasunez,
apaltasunez, otzantasunez, eroapenez, Jainkoaren herri aukeratua,
santua eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu bata
besteari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala,
barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna,
hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza
zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean,
eta izan esker oneko.

Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu

Familia Santua C urtea

San Esteban, lehen-martiria.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa] 1847 – Madril 1890), *fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak).*

jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak emanez.

Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen gurasoen esana gauza gutzietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezten.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-52.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatuak gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromeskideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zion: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesu Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Jesu, berriz, aurrera zihoan jakindurian, gorpuzkeran eta grazian, Jainkoaren eta gizakien begietan.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa] 1847 – Madril 1890), *fundatzailea* (Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak).

«Lege-maisuen artean eseria, entzun eta galde». Galderak egitea deseroso izaten da batzuetan, batez ere zalantzan jarri dezaten nahi ez duenari. Eta, halaber, askotan, galderak nork / zeinek egiten dituen izaten da gakoa. Gaurko ebanjelioan, hamabi urteko mutiko bat. Mutiko harrigarria? Ez, mutiko, soil-soilik. Bibliako kulturari, haurrak azkenak zirenetakoak izaten ziren, arazorik gabe aintzat hartu gabe alde batera uzten ahal zirenak. Azkenak direnen galderek koloka ipintzen dituzte beti lehenengo direla uste izaten dutenak: Zer dela-eta oinazea eta gaitza? Zer dela-eta zuzengabekeria? Zer dela eta? Iristen da kinka bat zeinetan galdera eta galdegilea bat beratzat ematen baitira. «Ni neu galdera handi bilakatu naiz», esan zuen Agustinek. Erantzuna Jainkoak bakarrik ematen ahal dien galdera izaten dira, azkenak direnen bihotzean bizitzak eragin izan dituen galdera. Halaber, Jainkoak eragiten die entzuleei galdera haiek onartzeko gaitasuna edota, gutxienez, beren barneari egindako galderatzat hartzera. Azken batean Jainkoagandik datozen galdera izaten dira txikiak, azkenak; hauek «Aitaren etxean daudenak» izaten baitira beti, zerukoaren etxeok, alegia; Aitaren bihotzaren hurbileneok izaten dira.

San Esteban

Esteban, lehen kristau-martiria, Apostoluek diakono (zerbitzari) izendatu zituzten zazpi haietakoa (ik. Eg 6,2-3). Zazpi haietan, hala ere, Esteban nabarmendu zen; «fedez eta Espiritu Santuaz betea zegoela» dio Eg 6,5 testuak. Behartsuei janariak banatzeko eginkizuna eman zieten Apostoluek, berak «otoitzari eta hitzaren zerbitzuari emanak» (Eg 6,4) bizi ahal izateko. Diakono haiek, eta Estebanek bereziki, janari-banaketa ez ezik, Jesusen hitzaren testigantza kementsu egin zuten. «Moisesen eta Jainkoaren aurka hitz egiten entzun omen ziotela eta», atxilotu eta agintarien aurrera eraman zutenean, «aingeruaren aurpegia» iruditu zitzaien Estebanena (Eg 6,15). Estebanek kemen handiz egin zuen Sanedrinen aurrean Jesusen testigantza. Hiritik kanpora atera eta harrika hil zuten, «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau» esaten zuela.

San Joan apostolua eta ebanjelaria.

[San Joan Apostoluaren lehenengo gutunaren hasiera 1, 1-4: Ikusi eta entzun duguna iragartzen dizuegu. Sal 97 [96]: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,2-8.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurtean ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurtean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen.

Maria Magdalenaren alarma-garrasiak («eraman egin dute hilobitik nire Jauna eta ez dakigu non ipini duten!») asaldatu egin zuen ikasleen taldea. Zer gertatu ote zen? Pedro eta Joan, «Jesusek hainbeste maite zuena», hilobirantz irten ziren korrika. Azken hau iritsi zen lehenengo: maitasunak beti egiten du gehiago korrika, beti iristen da lehenengo... Ikusi zuen, baina ez zen sartu. Maitasunak, lehenengo iritsi arren, beti eskaintzen die lehentasuna gainerakoei. Pedro sartu ondoren bakarrik sartu zen beste hura; sartu zen «Jesusek hainbeste maite zuen» ikaslea ere. Biak bat, biek sinetsi dute. Fedea aldarrikatzea ez da egiten bakarka, baizik eta elkartean. Fedea, zeinen testigantza egiten baitugu gaur: «ikusi dugu, entzun diogu, eskukatu, kontenplatu... haxe dizuegu hots egiten».

§ San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argia da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpean baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argian bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu gutzitik garbitzen gaitu.

Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak eta gaiztakeria gutzitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gugan.

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitarean aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

[Sal 124 [123]: Txoria ehiztarien saretik bezala gara libratu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita».

Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari».

Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*.

Orduan, Herodes erregea, Magoek engainatu egin zutela oharturik, biziki haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez azpiko haur guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoek adierazitako denbora kontuan harturik. Honela bete zen Jeremias profetak esana: «Oihua entzun da Raman, negar eta aiene ugari: Rakel ari da, bere haurrengatik negarrez; ez du kontsolatu nahi, ez baitira bizi».

«**A**rgiak argi egin zuen ilunpean, baina ilunak ez zuen onartu». Joanen ebanjelioko hitzaurreko hitzek atsekabez argitzen dute gaurko jai hau. Ilunak nahiago izan zuen ilun izaten jarraitu, argia onartu gabe. Eguberrietako pozak eta zaratak ezin isilarazi dute biktimaren garrasi erdiragarria. Gure auzokoen —eta geure— zorion-begitarte irribarretsua ez du galtzen begi-bistatik sufritzen ari direnen begiratu oinazezkoa. Eguberrietako mezuak ez digu ahantzarazi nahi mundu hautsi batean bizi garela, **BAKE**Aren antsia bizitzen jarraitzen duen batean, alegia; **BAKEA**, aingeruek aho zabalik gelditu ziren artzain batzuei aldarrikatua, Jainkoak berak maite dituen gizon-emakumeentzat bidalitako dohaina.

Magoek aipatu zioten Errege berriaren beldur zen Herodes. Baina Magoek Errege berri horren arrastorik ez ziotela eman ikusirik, eta, beraz, Errege berri hori ezin zuela hil, aukera drastiko hau otu zitzaion: adin bertsuko haur guztiak hiltzea.

Gaur ospatzen ditugun hauek Herodes erregeak Betleemen hilarazi omen zituenak dira: «Haur Erailak» deitzen diete Ekialdean, «Haur Errugabeak» Mendebaldean; «Kristogatik hil zirela»-eta «Bildots errugabeari jarraitzen diotela» kantatuz hasten da egun honetako eukaristia-ospakizuna. «Gizartetik berrerosiak, Jainkoarentzat eta Bildotsarentzat lehen-fruitu» dira, eta «Kristo jaioberriaren graziaz zeruko koroa» eman zien Jainkoak.

Eguberri ondoko 5. eguna.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.San David, *erregea*.

[San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik 2, 3-11: Senidea maite duena argian dago. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-35.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eramane zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-
seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako
oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta
jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu
Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren
Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura
eramane zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa
bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
Zeuk hitzeman bezala.

Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena, herri guztien aurrean
Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin.
Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan
zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia
dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz
askotako asmoak agerian gelditu daitezten. Eta zuri ezpata batek alde
alde zulatuko dizu arima».

Jesus, ezbaiaren bandera. Bakearen, barkazioaren (etsaiantzat
beraiantzat ere), maitasunaren... gizon izanik ere, ezbaiaren bandera da

Eguberri ondoko 5. eguna.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.

San David, *erregea*.

Jesus. Batzuek aitortzen dutena, beste batzuek bera ezertako ere nahi ez dutena. Jesusena, pobretasunaren eta pobreekiko hurbiltasunaren bandera da berarena; errotiko kritika ospari eta botereari, eta mundu honetako idoloek; errotiko aitortpena Jainkoaren lehentasunari. Beraren banderapean izen ematea ez dago azken batean gure esku, baizik eta dohain bat da, etengabe eskatu beharrekoa («jar gaitzazu zeure semearekin»), eskatu ohi zion Ignaziok Mariari); bihotz-arimak zulatu dizkioten amak grazia hau eska dezala guretzat, gu ere zulatuak garelarik, ez jadanik geure barne kontraesanek, baizik eta Jesusekiko eta beronen anai-arrebekiko maitasunak.

Tomas Becket 1118 inguruan jaio zen Londonen. Parisen ikasi ondoren, Canterbury-ko artzapezpikuak kleriko egin zuen. 1154an Henrike II.a erregeak erreinuko kantzeleri nagusi izendatu zuen; garai hartan Henrike II.aren agintea Eskoziatik Pirinioetaraino hedatzen zen, Ipar Euskal Herria barne. 1162an, Henrike II.ak beharturik, apaiz egin zen eta Canterburyko apezpiku izendatu zuten. Oso benetan hartu zuen Tomasek izate eta eginkizun berria, horrek ordu arte adiskide zuten erregearen haserrea eta gorrotoa ekarriko ziola sumatu arren. Erregearen kontra, Elizaren eskubideak defenditu zituen; gainerako apezpikuek bera bakarrik utzi zuten horretan. Clarendon-eko sinodoan Tomasek ez zuen sinatu, erregearen eskakizunek Elizaren eskubideak murrizten zituztelako; 1164an gaitzetsi egin zuten Tomas, erregearen esana bete nahi ez zuelako. Frantziara ihes egin zuen, 1170ean, aita santuak eraginik, Henrike II.a Tomasekin adiskidetu zen eta abenduan Ingalaterrara itzuli zen. Erregea eta aldeko handiak eta apezpikuak ohartu ziren Tomasek ez zuela bere jarrera aldatu. Orduan, lau sikario erosi zituzten eta Canterburyko katedralean hil zuten. Tomasek «Prest nago Jesusengatik eta Eliza defenditzeagatik hiltzeko», esan zuen.

Eguberri ondoko 6. eguna.
San Felix 1.a, 26. *aita santua.*

[San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 2,12-17: Jainkoaren nahia egiten duenak betiko irauten du. **Sal 96 [95]:** Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,36-40.

Aldi hartan, bazen profetesa bat Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzaten. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa gorensten eta haurraz mintzatzten hasi zitzairen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihohan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Pastoraltza-eragileek badakite ezen, gaur gaurkoz, beren adiskiderik behinenak, haurrak fedean hezteko orduan, berauen aitona-amonak dituztela. Ana bezala, Fanuelen alaba, Aserren tribukoa, «haurraz hitz egiten baitzien Israelen askapena espero zuten guztiei». Ez da neke pentsatzea, emakume hark jendeari Jesusez esaten ziona, Espirituak igurtzia izango zela, hau da, xumea eta bere baitan konbentzimendu-indarra zuena. Eta amets egitera garamatza horrek, ebanjelio-era lau eta familiar bat erabiltzera, kristaumezuaren giharrean oinarritua; halako modukoa non ebanjelioak den bezalako, hau da, «berri on» bezalako joko baitu entzuleen belarrietan, bakoitzaren bihotza poztuz eta saneatuz.

Eguberri ondoko 7. eguna.
 San Silvestre I.a, *aita santua*.
 Santa Columba, *birjina eta martiria*.

[1 Joan 2,18-21: Zuek Jainkoagandik datorren Espiritu Santua duzue eta guztiok ezagutzen duzue egia. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza.

Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.

Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituena. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina den arren, munduak ez zuen ezagutu.

Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.

Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik.

Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia,

Eguberri ondoko 7. eguna.
San Silvestre I.a, *aita santua*.
Santa Columba, *birjina eta martiria*.

berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Urte-bukaera. Gaur bukatzera goazen urtearen balantzea egiteko eguna da. Eta igurikimen-eguna, bihar hasiko dugun urteak iratzarria. «Orainari (eta iraganari, gehitzen ahal genuke guk): amen; geroari: aleluia (esan ohi zuen Arrupe aitak)». Edota halaber, Ignaziok bezala, esan dezakegu: «nire asmo guztiak (gure burubide guztiak), egintzak (gure asmoak duen helmuga) eta eragiketak (gauza baten eta bestearen artean dagoena, bitartekariak) izan daitezela zeharo bideratuak Jainkoaren maiestatearen zerbitzura eta gorespenera». Zeren eta Jainkoaren errukia guztiz leiala baita eta ez da egoten guk bideari ekitean bakarrik (arnasa emanetz), baita ere baizik erdialdean (sostengua eskainiz) eta helmuga iristean (zain-zain).

Mundua oro soinu denean
zantzu galduen oihartzun
isiltasun bat nagusitzen da
harrigarrien erantzun.

Piztu argi bat gau ilunean
haurra onetsi dezagun
salbamenaren aro berrian
bihotzak bakez ditzagun.


Jaio zen jaio itxaropena
ekialdeko herrian
Jainko urrunen seme kuttuna
giza itxura berrian.
Izarrak sabai, gela estalpe

behartsuen atzerrian
biluztasunez jantzirik diren
izaki denen erdian.

Aintza zeruan, aintza lurrean
errukitsuei onsari
haur jainkotuak eman dezaion
atsedena bihotzari.

Begietatik begietara
ixur bakea elkarri
gure barnea bihur ez dadin
gizagabetuen harri.
(*Iturria: Xabier Lete, Oskarbi:*
Xirimiri diskan, Elkar 2012.)

**OTOITZAK
ETA DEBOZIOAK**



EGUNERO

GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinalegatik,
gure etsaiengandik
zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa.
Aitaren, eta Semearen
eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur
egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei
barkatzen diegunez gero;
ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen,
baina atera gaitzazu gaitzetik.

AGUR MARIA

Agur, Maria, graziaz betea:
Jauna da zurekin:
bedeinkatua zara zu

andre guztien artean,
eta bedeinkatua da
zure sabeleko fruitua Jesus.
Santa Maria,
Jaungoikoaren ama,
erregutu ezazu
gu bekatarion alde
orain eta
gure heriotzako orduan. Amen.

AINTZA AITARI

–Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.
–Hasieran zen bezala, orain eta beti,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

–Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
–Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.
Agur, Maria, graziaz betea...

–Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
–Gerta bekit zuk diozun bezala.
Agur, Maria, graziaz betea...

–Eta Jainkoren Semea gizon egin zen.
–Eta gure artean bizi izan zen.
Agur, Maria, graziaz betea...

–Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.
–Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

Egin dezagun otoitz: Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zeure grazia, eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok, egizu, haren nekaldi eta gurutzearen bidez eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitezela piztueraren ospera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

- Zeruko erregina, poztu zaitez, aleluia.
- Sabelean ekarri zenuena, aleluia.
- Piztu baita berak esan bezala, aleluia.
- Otoitz Jainkoari gure alde, aleluia.

- Egizu pozaz gainez, Andre Maria, aleluia.
- Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna, zeure Semea, piztuz, mundua pozez bete duzun Jainkoa; egizu, arren, Andre Maria haren eta gure Amaren otoitzari esker, irits gaitezela betiko pozak gozatzerara. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

GOIZEAN

ESKERRAK EGUNSENTIAGATIK

(Lazkao-Txikirekin bat eginez)

Egunsetiari

Goizian goiztar jeikitzen banaiz
kanporatutzen naiz beti...

ikusten zaitut zabaltzen goruntz
eguzkiaren aldeti,
eguzkiaren argitasuna
ortxen dator sortaldeti,
eunan aurtzaro besteik etzera (eunan=egunaren)
biotzeko egunsenti.

Urre antzeko argi polit bat
erdi zurizko urdina
gure Jainkuak mirari antzo
zeru goitikan egina;
bear genduke sendotasun bat
eta sinistapen fiña,
zer mirari den egunsentiaz
konturatuko bagiña.

Loa uxatu det oetik eta
eguzkiak or dio su...
inpernuaren antz berbera zuk
alde batera daukazu;
baiñan eguna, gazte zera ta
zure eskuan naukazu,
milla zorion egun osoan
arnas ematen baidazu.

MAHAIA BEDEINKATZEA

OTORDU AURRETIK

Janak on dagigula,
edanak gaitzik ez,

gorputzak osasuna,
arimak kalterik ez.
Jesu Kristo
gure Jaunaren bitartez. Amen.

ARRATSEAN

ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera dugulako, / zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia / alaitasun betean / eta zurekiko elkartasunean bizi izan ditugulako; / fedea, maitasuna, esperantza / eta gure loa, / gorespen apal bihurtzeko, / zure graziaren ontasun hau / bizi izan dugulako.

ESPIRITU SANTUARI

VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia)
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zure argi izpia.
Zatoz, gaixoen Aita; zatoz, dohain emaila; zatoz, bihotzen argi.
Poz-emaila bikain, etxelagun atsegin, sargorian haize fin.
Lan artean atsedean, nekean aringarri, malakoetan pozgarri.
Zure laguntza gabe ez du pertsonak ezer, ez du ezer on denik.
Garbi, zikin dagoena; busti, lehor dagoena; zauriak oro senda.
Zurrun dena bigundu; makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.
Zugan usteon duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik.
Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betieran.
Amen.

Veni Creator Spiritus
Zatoz Zintzoen Barnera
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,
Gogo Guren sortarazle;
bete graziaz bihotz hauek, zu baitzaituzte egile.
Poz-emaile deritzozu,
Goiko Jaunaren dohain, ur bizi, su, maitasun, eta gantzu zerukoia.
Zazpi dohainen isurle,
Aitaren eskuin hatza, apostoluei hitzemana, haien ahoetan hitza.
Argi iezaguzu zentzua, suaz sutu bihotza,
indar horretaz sendatu argal daukagun gorputza.
Haiza gugandik etsaia, eman berehala bakea,
zu aurretik zaitugula, urrun iezaguzu kaltea.
Erakuts iezaguzu Aita, harekin Semea ere;
bien Arnasa duguna sinets dezagun beti ere.
Aitari, eta hilengandik berpiztu zen Semeari eta Gogo Gurenari
edertasun orain eta beti. Amen.

EUKARISTIA

BEDEINKATUA JAINKOA
(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.
Bedeinkatua haren izen santua.
Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.
Bedeinkatua Jesusen izena.
Bedeinkatua haren bihotz txit santua.

Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.
Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.
Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.
Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.
Bedeinkatua Mariaren sortze santu eta garbia.
Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.
Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.
Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.
Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

Egin dezagun otoitz.

Jesu Kristo gure Jauna,
sakramentu miresgarri honetan
zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu;
arren erregutzen dizugu:
beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak,
zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan.
Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

ESPIRITUZKO KOMUNIOA

*Raymond Centène jauna, Vannes-ko (Frantzia) apezpikuak moldatua;
(D. Amundarainek egokitua).*

Jesus Jauna, sinesten dut hor zarela egiaz Eukaristiako sakramentu
sainduan. Maite zaitut guztiz gainetik eta arima guztiaz desiratzen
zaitut.

«Jainko, ene Jainkoa, zure egarriz daukat arima, zure antsiatz gorputza,
lur idor, egarri, ur gabe iduria.» (62 salmoa).

Gaur hartu nahi zintuzket Andre Mariaren amodio guztiarekin, sailduen bozkario eta kartsutasunarekin.

Sakramentuz ezin hartu zaitudanez geroz, zatoz espirituz bederen nire arima sustatzerat.

Garizuma garai honetan, derrigorrezko eukaristia-barau honek bateratu nazala zure sufrimenduekin eta, partikulariki, gurutzearen puntan abandonatua sentitze harekin, oihu handi batean agertu baitzenuen sentimendu hura: «Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu?».

Eukaristia-barau honek bateratu nazala zure Ama Santuaren eta zure aita Jose santuaren sentimenduekin, Jerusalemeko tenpluan galdu zintuztelarik, baita zure Ama santuaren atsekabearekin ere, gurutzearen oinetan bere altzoan hartu zintuztelarik, hila.

Eukaristia-barau honek bateratu nazala zure gorputz mistikoa den Elizaren sufrimenduekin, munduan barna, pertsekuzioek edo apaiz-eskasiak sakramentu-gabezia sortzen dutelarik.

Eukaristia-barau honek adieraz diezadala Eukaristia zure amodioaren emaitza handia dela, eta ez nire espirituzko atseginak eskatutako zerbait.

Eukaristia-barau hau ordaintze bat izan dadila bihotz gaizki preparatu batean, axolagabe, maitasun eta eskerrik gabe hartu izan zaitudan aldi guztientzat.

Sakramentu-barau honek hazi dezala beti ni baitan zu egiaz eta substantzialki, zure gorputz-odoletan, zure arima eta Jainkotasunean hartzeko gosea, berriz posible izango dudanean.

Eta bitartean, Jesus Jauna, zure graziaz zatoz espiritualki gure etxera, geure nekaldietan guztiok indartzera.

Maranatha, zatoz Jesus Jauna ! (Baionako web orritik hartua 2020-03-16)

GURUTZE BIDEA

HASIERA

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

V/. - **Egin dezagun otoitz.**

Jesu Kristo gure Jauna!

Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,
eta gure aurretik zoaz etsenplu emanez;
emazkiguzu zeure argia eta grazia:

Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,
izan gaitzela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.

Nazareteko Andre Maria,

Doloretako Ama izan zinen;

inspiratu guri,

Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean
zeuk izan zenituen maitasun-sentimenduak.

R/. - Amen.

GELDIALDIAK

1.-Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.

*(geldialdi bakoitzaren ondoren
segidako hau errepikatzen da)*

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

2.-Bigarren geldialdia: Jesus gurutzea daramala.

- 3.-Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
- 4.-Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
- 5.-Bosgarren geldialdia: Zirenarrak Jesusi lagundu.
- 6.-Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
- 7.-Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.
- 8.-Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.
- 9.-Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
- 10.-Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
- 11.-Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
- 12.-Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
- 13.-Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
- 14.-Hamalagarren geldialdia: Jesus hilobian.
- 15.-Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.

V/. - Egin dezagun otoitz.

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba hauei;
Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,
gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;
egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,
parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,
Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.

R/. - Amen.

ANDRE MARIARI

SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra, gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!
Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok; zuri aiezka, antsiaz eta
negarrez negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana zeure begi errukitsu horiek, eta erbeste honen ondoren erakutsiezaguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu hori.

O bihozbera! O errukiorra!

O Maria Birjina gozoa!

- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitzen.

ZURE BABESERA GATOK

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatok ihesi, Jainkoaren Ama;
gure otoitzei ez eman esker txarrik behar ordu estuan;
arrisku guztietatik onez atera gaitzazu,
Birjina eder eta bedeinkatua.

ARROSARIO SANTUA

POZEZKO MISTERIOAK

(astelehena eta larunbata)

- 1.-Jainkoaren Semea gizon egina.
- 2.-Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
- 3.-Jainkoaren Semea jaio.
- 4.-Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
- 5.-Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

DOLORETAKO MISTERIOAK

(asteartea eta ostirala)

- 1.-Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
- 2.-Jesus zigortua.

- 3.-Jesusen arantzazko koroia.
- 4.-Jesus gurutzea lepoan duela.
- 5.-Jauna gurutzean hil.

AINTZAZKO MISTERIOAK

(asteazkena eta igandea)

- 1.-Jesus Jauna piztu.
- 2.-Jesus Jauna zerura igo.
- 3.-Espiritu Santua jaitsi.
- 4.-Andre Maria zeruratu.
- 5.-Andre Maria koroatu.

MISTERIO ARGITSUAK

(osteguna)

- 1.-Jesus bataiatua Jordan ibaian.
- 2.-Jesus agertu Kanako ezteietan.
- 3.-Erreina hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.
- 4.-Jesus antzaldatu.
- 5.-Jesusek Eukaristia eratu.

OTOITZA (misterio bakoitzaren ondoren)

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera, zaindu gu geure etsaietatik,
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.

Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.
Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.
Ama Jainkoari eskaintzearen eredia. Otoitz gure alde.
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.
Maria, Jainkoaren herriko lagun alai. Otoitz gure alde.
Maria, gizadi berriaren eredia. Otoitz gure alde.
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.
Maria, eztei-lagun aztia. Otoitz gure alde.

JAINKOAREN BILDOTSA

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Barkatu, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Entzun, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Erruki, Jauna.
- Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.

Egin dezagun otoitz.

Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,
libra gaitzazu mundu honetako tristuratik
eta emaguzu zeruko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

LOIOLAKO IGNAZIO SANTUA

INAZIO,

gure patroï handia, / Jesusen konpainia / fundatu eta dezu armatu, / ez da ez etsairik / jarriko zaizunik inolaz aurrean / gaurko egunean, nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.

Zure soldaduak / dirade aingeruak, zure gidaria / da Jesus handia.

Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.

Ez dauka fedeak, / ez kristau nireak, ez dauka beldurrik / inongo aldetik.

Inazio hor dago, / beti ernai dago, armetan jarria / dauka konpainia, txispaz armaturik / bandera zabalik, gau ta egun / guk guztiok / bakea dezagun, beti gau eta egun.

LOIOLAKO IGNAZIOREN OTOITZA

Hartu, Jauna, eta onartu
nire askatasun guztia, nire oroimena,
nire adimena eta nire gogo osoa,
dudan eta daukadan guztia.

Zeuk eman zenidan,
zeuri, Jauna, itzultzen dizut, Jauna.
Zurea da dena.

Egin erabat nahi duzuna.
Emadazu zeure maitasuna eta onginahia,
aski dut hori. (Gogo jardunak 234)

KRISTOREN ARIMA (Ignazioaren deboziokoa) (*anonimoa, XVI. mendea*)

Kristoren arima, santu egin nazazu.
Kristoren gorputza, senda nazazu.
Kristoren odola, birbiztu nazazu.
Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.
Oi Jesus ona, entzun nazazu.
Zeure zaurietan gorde nazazu.
Zugandik alde egiten ez utzi niri.
Infernuko etsaiengandik libra nazazu.
Heriotzako orduan deitu nazazu,
eta joanarazi nazazu zugana,
zure santuekin batean
mendez mende goretz zaitzadan. Amen.

GOGOETARAKO

JAINKOA ETA NI

(Xalbador bertsolaria 1920-1976)

1.-Fede haundiko burrason ganik sortu bainintzan mundura, Jainko
legean hezi ninduten jitean adimendura; (jitean=iristean)
hain zen beroa denbor'hartako eliz gizonen kar hura,
ziotelarik gaizki eginak zeramala ifernura,
muinetaraino sartu zitzautan Jaungoikoaren beldurra.

2.-Entzuleeri behar diotet hau erran haste hastetik:
errexenerat nintzan lerrakor gauza guzien gainetik;
ahulezia ene nagusi izan da egundainotik;
ukan aholku guzien eta Jainko beldurraren gatik,
ez nau, ez, deusek nehoiz beiratu bekatoros izaitetik.

3.-Legeak zuen erakaspena hausten nuen guzietan,
okaztagarri aurkitzen nintzan Jainkoaren begietan,
nitaz betikotz etsi zuela iduritzen baizitzautan;
desgustaturik damuz betea egon izan naiz bortzetan,
ez sorturikan Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan.

4.-Orduko apez suhar zintzoek halako arak zituzten, (ara=era)
etzen maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen;
heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen,
zeruko edertasunak berak hotz hotza ninduen uzten,
gastiguaren labe gorria baizik ez nuen ikusten.

5.-Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen,
etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen;

gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,
gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen,
Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen.

6.-Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,
zure behako samurrak eman nau fidantziaz beterik; (behako=begiratu)
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,
ez gartzigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik;
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen amodioaz besterik.

7.-Nehoz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria,
bihotzak edan duen ur onak hil du zure egarria,
ur on guzieren Jabeak berak emanikan negurria;
horra egi bat amodioak gure bixtan ezarria:
Haren oinetan sortzen zaukula bakearen iturria.

JAINKOAREN ESKU UTZIA

(Charles de Foucauld)

Ene Aita,
zeure eskura nauzu.
Egin nitaz nahi duzuna.
Nirekin egingo duzuna eskertzen dizut,
prest nauzu edozertarako,
dena dizut onartzen.
Zure nahia betetzekotan nigan
eta zeure sorkari guztietan,
ez dut opa beste ezer, ene Jainkoa.
Ene bizia zure esku dut ipintzen.
Ene bihotzeko maitasun osoaz

dizut ematen, ene Jainkoa,
maite zaitudalako,
eta zu maitatzea
niretzat ene burua zuri ematea delako,
zure eskuetan ipintzea mugarik gabe,
konfiantza mugagabeaz,
zu ene Aita zaitudalako.

OTOITZA KORONABIRUSA (2020)
Arratiako Eliza

Jesus lagun eta Jainko Ona:
Gaixo barri honegaz ikaratuta, bakartuta eta lur jota gagoz.
Baina zugan jarri gura dogu gure konfiantza.
Gaixoak osatzera etorri zinan horrek
ondo ezagutzen dozu gure egoera.
Gogoan izan gaixo honek hildakoak, gaixotutakoak eta euren
famihiak.
Gogoan izan gaixoak jagotzen dabezan osasun langileak eta
boluntarioak.
Gogoan izan gaixoaren kontra ikertzen dabizen zientifikoak.
Gogoan izan gure agintariak, neurri hain gogorak jartzeko unean.
Gogoan izan gure etxeak eta famihiak.
Gogoan izan egunotan bakarrik dagozanak edo etxe bakoak.
Gogoan izan hildakoen famihei laguntzen deuten abadeak,
erlijiosak eta laikoak.
Ez itzi etsipenean eta egoismoan jausten.
Arratiako Ama: otoitz gure alde!

NOR OTE JAUNA

(Patxi Ezkiaga, Legorreta, lasalletarra, 1943-2018)

(in Jaunarekin supaztarrean, 31. or.)

*«Pobreak gara
pobreez errukitzen,
errukarriok.
Baina pobreok
ez gara pobre errukian».*

Nor ote Jainkoa,
gure izaera lurtar eta lurkoian gu hartu
eta maite gaituen bezala maitatzeko?

Nor ote Jainkoa,
gurekin batera hain gabeko,
hain zaugarri izateko?

Nor ote Jainkoa, maite-jokotan, laztanez laztan
eta pekoz peko gurekin lotzeko?

Nor ote Jainkoa,
bihotz xume gardenetatik at
ezin aurkitu ahal izateko?

Nor ote Jainkoa, gurekin jarri bada bidean
gure bidaia bera egiteko?

Nor ote Jainkoa,
gurekin egiten badu ostatura
su berean ospelak gozatzeko?

Nor ote Jainkoa,
elkar maita dezagun eskatzen badigu
bera maite ahal izateko?

Nor ote Jainkoa,
gure zauria nahikoa badu
bere bihotza mintzeko?

KEINUAK

(Badira beste zeinu batzuk ere)
(Patxi Loidi, Orio, 1929, marista)

Hau poza, ene Jainko, zu aurkitu izateaz!
Baina zeuk ninduzun aurkitu lehenago.
Urrunetik ninduzun ikusi, niri begira gelditu
eta begi-keinua egin zenidan.

Ikusi nuen zure keinua arbolan, arrosan, txorian,
errekaren xuxurlan.
Baina ez nekien zureak zirela keinuak.
Bigarrenez, hirugarrenez keinu egin zenidan
eta zure adiskideek eman zidaten arte misterioaren berri:
«Beraren zeinu dira, Jesusek erakutsi zigun horiei
antzematen».

Ikusi nuen zer zuten arbolek barnean,
zer arrosak, txoriak, errekak.
Ahots bat zen, entzun dezakezuna
eta aurpegi misteriotsu bat, doi-doi ikusten ahal duzuna.
Eta pentsakor gelditu nintzen, sakon pentsakor.
Gaur zur eta lur jarraitzen dut ikusten dudanean
jendearen eta gauzen barnea.
Bera ote barnean dagoena?
Eta begi-keinua egin didazu, gogokide, maliziatsu.
(euskaraz D. Amundarain)

ZUK NAHI BADUZU...
(Iñaki Beristain 1947-2017)
(in Arantzazuko egutegia 2019-07-31)

Iñaki Beristain Arantzazuko frantziskotarrak, hil baino hilabete batzuk lehenago, ondoan doan kantua errentzat letra asmatu zuen. Bere heriotza hurbil ikusi balu bezala? Eta horrela hil zen: medikuek minbizia zeukala esan ziotenean sinetsi ezinezko konfiantzaz eta fedez onartu zuen: “Zuk nahi baduzu...”

Zuk nahi baduzu, dena utziko,
noranahi, Jauna, zurekin joateko.
Portutik irten itsas zabalera
zure ondoren... Zuk nahi baduzu.
Zuk nahi baduzu, beldurra kendu
eta ausardiaz egingo dut jauzi
zure pobreen itsas gordinera
zure erara... Zuk nahi baduzu.
Zuk nahi baduzu, zure aurpegia
garbituko dut, giza zaborretan
bota ditugun zure pobreengan
maite-zapiaz... Zuk nahi baduzu.
Naizen osoa, Jauna, zuretzat da...
Zuk nahi baduzu...
Zuk nahi baduzu...

